

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**DOKTOREGO TESIA
2023 URTEA**

LANAREN ALDAKETEN ERAGINA SINDIKALISMO ABERTZALEAREN BERRIKUNTZA ESTRATEGIKOAN: ELA ETA LAB SINDIKATUAK (1976-2008)

Egilea: Eki Etxebarria Respaldiza

Zuzendariak: Ane Larrinaga Renteria eta Iñaki Barcena Hinojal

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

**DOKTOREGO TESIA
2023 URTEA**

**LANAREN ALDAKETEN ERAGINA
SINDIKALISMO ABERTZALEAREN
BERRIKUNTZA ESTRATEGIKOAN:
ELA ETA LAB SINDIKATUAK (1976-2008)**

Egilea: Eki Etxebarria Respaldiza

Zuzendariak: Ane Larrinaga Renteria eta Iñaki Barcena Hinojal

*Tesiaren zati handiena bakardadean egiten bada be,
ezinezkoa izango litzatekean honaino heldutea
inguruan euki dodazan pertsonen laguntza barik.
Etapa baten amaierara helduta, gustauko jatan lan hau posible egin daurienak
aipamena egitea, jakin egizue asko estimetan dodala emoten daustezuena, akorduan ez
daukotsuedala pentsetan badozue be:*

*Politikaz ordu luzez eztabaidan ibili zarien ezaguneri,
modu batera edo bestera lagundu nauzuen kideeri,
lan honeri ekarpenak egin dautsezuezan zuzendarieri,
egunero babesa emon daustezuen laguneri,
ilusiñoa izituta egotea egiten dozuen atzoko zein gaurko burkideeri,
beti alboan euki dodazan iziko-osaba, lehengusin-lehengusu, amaxe-aitaxe, koinatu eta
Landerreri,
bai eta ia ezagutu ez dodazan aitite Justo eta aitite Eliaseri bere,
eta zelan ez, eskuzabaltasunaren eta apaltasunaren ejenplu izan zarien amama Paulari
eta amama Anastasiari.
Lan hau ez zan inoz burutuko
aitek eta amak eraikitako oinarri eta habe barik,
ezta Iruneren pazientzia, sostengu eta maitasun barik.*

*Eskerrik asko zuoi danori,
lan honen emaitza zuon meritua da.*

*Horreez ganera, kontuan hartu gureko neukez ezagutu ez dodazanak,
baina euren bizitza besteen alde isilean emoten daurienari,
eta etorkizun hobe baten aldeko burrukan,
zintzotasunez eta umiltasunez, egunero ibiliten diren militanteeri.*

Ikerketa lan honek Espainiako Hezkuntza, Kultura eta Kirola Ministeritzaren (orain Unibertsitateen Ministeritza) Unibertsitateko Irakasleak Prestatzeko (*Formación de Profesorado Universitario*) programaren 2016ko deialdiaren diru laguntza jaso du, 2017ko urritik 2021eko azarora arte.

AURKIBIDEAK

EDUKIAK

0. Ikerketaren planteamendua	13
Sarrera: ikergaiaren hautaketa.....	13
Ikergaia, helburuak eta hipotesiak	15
1. Zelan ulertu lana? Lanaren definizio sozial eta zabalerako oinarriak	21
Sarrera.....	21
Lana: gizarte kapitalistaren kategoria espezifikoa	21
Lanaren kategoriaren jatorria: aro aurremodernoko gizarte tribaletatik aro modernoko gizarte industrial kapitalistara	22
Gizarte tribaletatik erdi arora.....	22
Denboraren neurketa sistemaren aldaketa	25
Aro modernoa: lan abstraktuaren agerpena	26
Ekonomia politikoa eta lanaren zentzu modernoaren agerpena	26
Lana: gizarte kapitalistaren erreprodukziorako funtsezko jarduera	28
zer da lana gizarte kapitalistan?.....	28
Lanaren funtzio sozialak eta dimentsioak	30
Lan formak	32
Lana, enplegua eta herritartasuna	36
Merkatuz kanpoko ordaindu gabeko lanen funtsezkotasun aitortu gabea.....	38
Lana: gizarte dominazioaren oinarria	41
Ondorioak	43
2. Lanaren dimentsio ekonomikoa eta haren krisia	45
Sarrera.....	45
Ekonomia politikoaren irakaspenak eta ekoizpen kapitalistaren izaera kontraesankorra	45
Soldatapeko lanaren esplotazioa	49
Soldatapeko lanaren gizartearen erreprodukzioa.....	49
Lanaren eta kapitalaren arteko truke eza	50
Merkatuz kanpoko ordaindu gabeko lanen funtzio ekonomikoa eta esplotazioa...	51
Lanaren krisia: kapitalismoaren barne kontraesanen ondorioa	53
Mendebaldeko gizarteetako pobretze prozesua.....	54
Soldata erlatiboak	55
Soldata errealak	57
Langabezia.....	60

Kontratu modalitateen prekarizazioa: aldi baterako eta lanaldi partzialeko kontratuak	63
Eta hala eta guztiz ere, irabaziak ez dira nahikoak.....	65
Ordaindu gabeko lanak gizarte erreprodukzioaren krisian	68
Ondorioak	70
3. L'évolution des dimensions immatérielles du travail.....	73
Introduction	73
Le travail: source de cohésion sociale.....	74
Les trois esprits du capitalisme	74
L'éthique du travail pendant l'industrialisation: du xixème au début du xxème siècle	76
Le travail à partir de la crise de 1929 jusqu'à la crise du pétrole de 1973.....	79
La place du travail aujourd'hui	80
La perception de l'importance du travail.....	80
L'importance du travail par rapport à la situation économique	83
L'importance relative du travail : le travail par rapport aux autres domaines de la vie	84
Les fonctions immatérielles du travail aujourd'hui.....	87
Du devoir social à l'épanouissement personnel	87
Les nouvelles attentes immatérielles envers le travail.....	88
La dimension immatérielle de la crise du travail	91
Le travail devient « <i>trop</i> » important.....	91
L'insatisfaction au travail	94
Conclusions	97
4. Lanaren antolaketaren bilakaera: fordismotik postfordismora.....	101
Sarrera.....	101
Metaketa-erregimena eta erregulazio modu soziala	101
Metaketa-erregimenen bilakaera lehen mundu gerrara arte.....	103
Ekoizpen eredu fordista	104
Fordismoaren hastapenak	104
Estatuaren esku hartzea eta ongizateko estatuaren ezarpena.....	105
Itun fordista	107
Lan prozesuaren antolaketa fordistaren ezaugarriak	109
Lanaren gizartearen egikaritzea: soldataren pisua.....	110
Ekoizpen eredu postfordista.....	112
1970eko hamarkadako krisia eta ondorengo oldarraldi neoliberala.....	112

Ekoizpen prozesuaren eta lan indarraren antolaketa berria	113
Globalizazio prozesuaren eraginak	124
Ondorioak	127
5. La classe travailleuse comme sujet de transformation.....	131
Introduction	131
Le travail : source de conflit	131
Qu'est-ce que la « classe » ?	133
Une définition fondée sur l'exploitation du travail	133
Les travailleurs « hors marché » et non rémunérés	135
Les positions contradictoires au sein de la structure de classe	136
Le poids de l'imaginaire de la classe travailleuse	136
La dimension subjective de la classe	138
L'identité collective et la lutte de classe.....	139
Le rôle de l'identité dans l'action collective	140
Les différentes couches de l'identité collective.....	143
La crise d'identité chez la classe travailleuse.....	144
La nouvelle organisation du travail dans la fragmentation, la diversification et la complexification de la classe travailleuse	145
L'invisibilisation du conflit entre classes	146
La classe moyenne.....	148
La lutte pour la singularité.....	150
Conclusions	150
6. La conceptualisation du syndicalisme	155
Introduction	155
Les rôles du syndicalisme.....	155
Les rôles des syndicats selon les théories classiques.....	156
Le rôle des syndicats selon les théories contemporaines.....	159
La représentativité des syndicats	165
Les orientations identitaires et stratégiques des syndicats : le marché du travail, la classe, la société.....	167
L'action syndicale.....	171
Les formes de l'action syndicale selon le niveau de conflictualité	172
L'identité collective dans l'action syndicale	174
Les relations entre les orientations stratégiques, la forme de l'action et les attributions identitaires	175
Conclusions	178

7. La crise du syndicalisme et sa situation au pays basque.....	181
Introduction	181
Les principaux syndicats du pays basque péninsulaire	182
La particularité du syndicalisme nationaliste basque	185
Les tendances de la syndicalisation.....	186
La baisse de la densité syndicale	186
Baisse absolue de l’affiliation syndicale en europe.....	191
La syndicalisation chez les groupes sociaux sous-représentés.....	192
L’évolution de la syndicalisation chez les syndicats ELA et LAB	197
Les élections syndicales	198
La couverture de la négociation collective	200
L’activité de grève	202
La représentativité des syndicats entre légitimité externe et interne	205
Les réactions des salariés aux malaises du travail : l’organisation, une option peu envisageable	208
Conclusions récapitulatives : crise du travail et crise syndicale	211
L’affaiblissement du pouvoir syndical	211
L’importance des choix stratégiques	213
8. Sindikatuen boterea eta berrikuntza estrategikoa ulertzeko gakoak.....	217
Sarrera.....	217
Sindikalismoaren etorkizunari buruzko jarrerak.....	217
Botere sindikala: botere iturriak eta gaitasun estrategikoak.....	218
Botere sindikalaren iturriak	219
Gaitasun estrategikoak.....	221
Berrikuntza sindikalerako dimentsioak eta estrategiak	224
Zazpigarren berrikuntza estrategia: ekintza forma gatazkatsuen erabilpena.....	227
Berrikuntza estrategiak eta orientazio identitario-estrategikoa	229
Gizarte-mugimendu sindikalismoa.....	230
Ondorioak	233
9. Metodologia.....	235
Azterketarako kasuen zehazpena	236
Azterketarako teknikak	238
Diskurtsoaren bidezko interpretazio markoen analisia.....	239
Diskurtso- eta interpretazio-markoen analisiak.....	239
Interpretazio markoak.....	240

Kasu azterketaren egitura	244
10. Kasu azterketa: 1970eko eta 1980eko hamarkadak.....	247
Les origines : aperçu de l'évolution du syndicalisme abertzale	247
La fin des guerres carlistes et l'émergence des mouvements ouvriers et nationalistes basques	247
L'apparition du syndicalisme nationaliste.....	249
La transformation de ELA durant le franquisme.....	250
Le front ouvrier de l'ETA et la naissance de LAB.....	253
La refondation de ELA.....	254
Le Statut d'Autonomie	255
Les quatre étapes du syndicalisme abertzale	256
ELA 1976-1989 epean.....	257
Sarrera.....	257
Diagnostiko markoa.....	258
Pronostiko markoa (estrategikoa).....	268
Ondorioak	282
LAB 1976-1989 epean.....	288
Diagnostiko markoa.....	289
Pronostiko markoa (estrategikoa).....	300
Ondorioak	313
ELAren eta LABen arteko alderaketa	319
11. Kasu azterketa: 1990eko hamarkada	327
ELA 1990eko hamarkadan	327
Diagnostiko markoa.....	327
Pronostiko markoa (estrategikoa).....	339
Ondorioak	354
LAB 1990eko hamarkadan	359
Diagnostiko markoa.....	359
Pronostiko markoa (estrategikoa).....	369
Ondorioak	383
ELAren eta LABen arteko alderaketa	388
12. Kasu azterketa: 2000ko hamarkada	397
ELA 2000ko hamarkadan.....	397
Diagnostiko markoa.....	397
Pronostiko markoa (estrategikoa).....	410

Ondorioak	428
LAB 2000ko hamarkadan.....	433
Diagnostiko markoa.....	433
Pronostiko markoa (estrategikoa).....	445
Ondorioak	459
ELAren eta LABen arteko alderaketa	464
13. Conclusions finales	473
Récapitulons... ..	473
Conclusions de la recherche	476
14. Iturriak eta bestelakoak.....	504
Bibliografia.....	505
Datu baseak.....	538
Kasu azterketarako erabilitako dokumentuak, ponentziak eta txostenak	539
Prensa (sindikala eta beste)	543
Bisitatuak artxiboak.....	548
Akronimoak	548

TAULAK ETA IRUDIAK

1.1. Jarduera, okupazioa, lana eta lan formak	34
2.1. Soldaten parte hartze doitu ekonomian (soldaten portzentajea BPGan, kostu faktoreak kontuan hartuta).....	56
2.2. AEBetako soldata erreala orduko, 2005eko dolar konstanteak (1947-2011).....	58
2.3. Soldataren bilakaera dezilen arabera Espainiako Estatua (2005 eta 2014)	59
2.4. Langabezia tasak Espainiako Estatuan, Nafarroan eta EAEn (1976-2021)	61
2.5. EAEko gizonen eta emakumeen langabezia-tasak (1976-2021)	62
2.6. Kontratu egonkor eta aldi baterako kopuruak eta urtetik urterako bariazioak ...	63
2.7. AEBetako sozietateen irabazi tasa gordina eta zergen ondorengoa (1946-2010) ..	66
2.8. AEBetako korporazio ez finantzarioen irabazi tasa erreala eta hipotetikoak (soldata errealean gerraosteko goranzko joera mantendu izan balitz) (1947-2009)	67
3.1. L'importance du travail dans la vie (Europe, 1990-2017) (%)	81
3.2. L'importance du travail en Espagne (1990-2017) (%)	81
3.3. Les principaux problèmes des habitants de la Communauté Autonome Basque (2004-2021)	82
3.4. Illustration: L'importance du travail: pourcentage de personnes qui trouvent du travail.....	83
3.5. Listes de pays dont les habitants donnent plus de valeurs au loisir qu'au travail...	86

3.6. Avis sur la décroissance de l'importance du travail en Europe (1981) (% de interrogés).....	91
3.7. Avis sur la décroissance de l'importance du travail en Europe (1990) (% de interrogés).....	92
3.8. Avis sur la décroissance de l'importance du travail en Europe (1999) (% de interrogés).....	93
3.9. Avis sur la décroissance de l'importance du travail en Europe (2017) (% de interrogés).....	94
6.1. La géométrie du syndicalisme	168
6.2. L'action collective selon le niveau de conflictualité	173
6.3. Les orientations stratégiques, les attributions identitaires et les formes d'action collective.....	177
7.1. Évolution des densités syndicales dans certains pays européens (1976-2019) (%) 187	
7.2. Les taux de syndicalisation dans l'OCDE (2011-2013).....	189
7.3. Densité syndicale pondérée en Europe (sur la base de 32 pays). 2000-2016.....	191
7.4. Taux de syndicalisation des jeunes et des adultes en Europe (22 pays), 2006 et 2016	192
7.5. Participation moyenne des femmes dans l'affiliation syndicale en Europe, 2000-2009 et 2010-2016.....	193
7.6. Pourcentages d'affiliation syndicale par lieu de naissance en Espagne (1999-2010) 195	
7.7. Pourcentage des personnes interrogées qui ont confiance dans les syndicats (beaucoup et assez).....	195
7.8. Les densités syndicales selon les groupes sociaux au Pays Basque péninsulaire (%) (2009-2010)	196
7.9. Évolution des nombres d'affiliés aux syndicats ELA et LAB (1977-2020)	197
7.10. Élections syndicales dans la Communauté Autonome Basque (1980-2020) ...	199
7.11. Pourcentages de délégués en Navarre par syndicat (1994-2022).....	200
7.12. Couvertures (non ajustées) de la négociation collective dans certains pays européens (1980-2019).....	201
7.13. Moyenne de jours non travaillés en EU14 (sur 1.000 travailleurs) (1980-2006) 203	
7.14. Jours non travaillés par 1.000 travailleurs en Europe (1990-2017).....	204
7.15. Les grèves par bloque au Pays Basque péninsulaire	205
7.16. Facteurs structurels et stratégiques de la crise syndicale.....	214
8.1. Gaitasun sindikalerako botere errekurtsuak eta gaitasuna estrategikoak	223
10.1. ELAren eta LABen hitz gakoak eta ideia nagusiak (1976-1989).....	323
11.1. ELA eta LABen hitz gakoak eta ideia nagusiak (1990eko hamarkada).....	393

12.1. ELAren aldarrikapenen lehentasunak 2000ko hamarkadako kongresuetan.....	413
12.2. ELA eta LABen hitz gakoak eta ideia nagusiak (2000ko hamarkada).....	468
13.1. Cadre générale: crise syndicale et renouveau stratégique	504

0. IKERKETAREN PLANTEAMENDUA

SARRERA: IKERGAIAREN HAUTAKETA

Tesi lan honek uztartuta doazen bi prozesuren arteko harremana ulertu gura du; alde batetik, lan munduari lotutako aldaketak eta lanaren krisia eta, beste alde batetik, sindikalismoak, langile mugimenduaren parte garrantzitsu gisa, bizi duen ustezko *impasse* egoera, eta horren aurrean bilatutako erantzun estrategikoak.

Gaiaren hautaketaren testuingurua ulertzeko, doktoregai moduan, orain dela bospasei urte nire barruan piztutako kezketara jo beharra dago, 2015-2016ko langabeziaren testuingurura, alegia. Arazo horrek bete-betean eragin zidan, eta ez da kasualitatea momentu horretan neure buruari lan munduaren egoerari eta etorkizunari buruzko galderak egiten hastea. Balizko enplegu baten aurreikuspenak oso ilunak ziren une hartan, are gehiago gizarte zientzietako ikasketak bukatu berri zituen gazte batentzat.

Testuinguru hartan, karrera bukatu berri zuen beste gazte askok bezala, nire buruari galdetu behar izan nion: eta orain, zer? Erantzunak erraza zirudien: lana bilatu. CVak igorri genituen hara eta hona, lehenik gizarte zientziekin zerikusia zuten enpresetara, gero interneten agertzen ziren edozein motatako enpleguetara. Hainbat gaztek gure formazioarekin loturarik ez zuten lanak hartu genituen, behin-behinekoak, noski. Bistan da, horrek ez zuen bizimodu egonkor baterako aukera handirik ematen.

Egoera hartan, askok galdetu genion gure buruari: ogibide bat nire kabuz lortzeko gai izango ote naiz? Agian ez dut balio izango? Ez dira gutxi izan pertsonaren biografiaren kinka horretan autoestimua eta ezinegon krisiak bizi izan dituzten lagun, kide eta ezagunak. Ez dugu esango kezka horiek guzti-guztiak lan egoerari lotuta zeudenik, baina horrelakoak ibilbide akademikoaren bukaeraren ostean etortzen ziren gehienetan, gurasoekiko konpromisoak bete ostean, gure buruari «orain zer?» galderari erantzutea egokitzen zitzaigunean.

Fakultateko kide askok hartutako bide gehienak honako hauek izan ziren: edo nonbaiten kontratua izateko aukerak ematen zituen lanbide heziketako gradu bat egitea, edo bigarren hezkuntzan klaseak emateko masterra ikastea. Nik neuk ere, ikerketa lan hau egiteko aukera izan ez banu, bide horietakoren bat hautatuko nuen.

Bestalde, garai berean, Marxi buruzko lanen loraldi txiki bat egon zen, eta hari lotuta *Wertkritik* korrontearen, Matticken eta Grossmannen eta beste batzuen idazlanak etorri

ziren. Autore horiek berretsi egiten zituzten gure aurreikuspen ilunak eta ekoizpen harremanak iraultzeko beharra. Horra beste aukera bat: soldatapeko lanaren beharretik askatzea, eta bestelako ekoizpen harremanak eratzea. Alegia, enplegurik ez izateak ez zuen gure bizimodu propioa galarazi behar. Hori ere bururatu zitzaigun batzuei. Argi dago jorratu beharreko bidea dela hori. Baina, oso erreza da idealismoan eta boluntarismoan erortzea, eta errealitate materialak ezartzen dizkigun mugak ahaztea.

Orduan, beste galdera bat sortzen zitzaidan, behin eta berriro. Non dago lanari lotutako ekintza kolektiboa? Ez al da egoera aski okerra «nahikoa da» esateko? Ikuspegi guztiz subjektibotik, egoera nabarmen okerra zen gizarte esparruko gatazka suspertu eta gizartea antolatzeko beste modu batzuk bilatzeko. Aipatutako egoeran, non zeuden langile mugimenduari lotutako eragileak? Zergatik ez zuten presentzia handiagorik gazteen arteko eztabaidetan, ezta politizatuagoak zirenen artean ere? Unibertsitateko ikasgeletan antzeko egoera bizi izan genuen: ekintza kolektiboa aztertzea zegokien gizarte zientzietako adarretan eskaintzen zitzaigun bibliografian langile mugimendua «gizarte mugimendu zahar» moduan sailkatzen zen, eta arreta askoz handiagoa zuten lan mundutik urruntzen ziren bestelako eragileen azterketak. Hartara, bazirudien lan munduari lotutako gatazkak iraganeko kontuak zirela, hain justu hainbat eta hainbat gaztek eta ez hain gaztek bizi genituen arazoak lanari lotuta zeudenean. «Sindikatu» hitza bera arrotza egiten zitzaigun ikasle gazteoi. Horra, beraz, ikerketarako erronka egokia: lana eta ekintza kolektiboaren azterketa uztartzea.

Lana eta ekintza kolektiboa berriro harremanetan jarri nahian, bi galdera nagusi egiten nizkion nire buruari. Batetik, «ze etorkizun du lanak gure gizartean?». Bestetik, «zergatik ez du lanaren arazoak presentzia handiagorik ezkerari lotutako eremuetan?».

Lanak gizartea egituratzeko kategoria gisa izandako ibilbide kontzeptualaren eta ekintza kolektiboaren bilakaeraren arteko korrelazioa ulertzea zen azterketa honen hasiera bateko helburua; azterketa asmo horretan arreta berezia jarri nahi zitzaien langile mugimenduari eta aberastasun sozialaren birbanaketan eragiten zuten eragileei. Jakina, gaia zabalegia zen. Ikerketaren hastapenetan ikertzaileari sarri gertatzen zaion bezala, lurreratu beharra zegoen. Ildo beretik, lanaren gizartearen gaiak ere jakin mina pizten zidan, baina ekintzaren azterketa lehenetsi behar nuen.

Lur hartze prozesu horretan, sindikatuak eragile interesgarriak ziren azterketarako. Izan ere, lan munduarekin oso lotuta daude, ibilbide historiko luzea eta nahiko egonkorra

daukate eta, beraz, denbora-tarte luzeagoan izandako bilakaera ikertzeko parada ematen dute, bestelako gizarte mugimenduek ez bezala. Ordura arte, eta ñabardura hau esanguratsua da, euskal sindikatuek ez zuten zirrara berezirik sortzen zeozer aldatzeko gatazka beharrezkotzat jotzen zuen gazte honengan. Bigarren mailako erakundetzat nituen, baina lan munduaren interesgunetik abiatuta, gero eta erakargarriago egin zitzaidan haien ibilbidea aztertzea.

Bitxia da, baina hautaketa horren ostean ohartu nintzen euskal sindikalismoak, bereziki abertzaleak, ematen dituen aukerez nire intereseko gaiak jorratzeko, zeharka bada ere. Bada, lanak, klase gatazka eta langile mugimendua uztartzeaz gain, lan munduaren ikuspegitik Euskal Herriaren historia garaikidean eta nazioaren auzian sakontzeko aukera paregabea ematen zidan, besteak beste, sindikatuen azterketa tarteko. Literaturaren berrikusketa bat eginda, ohartu nintzen, gainera, oihartzun oso txikia izan duela sindikalismo abertzalearen ezohiko ibilbideak Euskal Herrian zein munduan, eta hor ere, bazegoen, egon, zer landu. Horixe bera izan zen, beraz, ondoren aurkezten dudan ikerketaren abiapuntua.

Era berean, argi utzi beharra dago idazlan hau ez dela inondik inora ezeren amaiera, abiapuntua baizik. Azterketa prozesuan zehar behin eta berriro sortu dira zalantzak, horietako asko eta asko argitu gabe geratu direnak. Ildo horretan, irakurleak jakin dezala esku artean duen testua ez dela ezeren amaiera. Aitzitik, ikasketa prozesu luze baten abiapuntutzat hartu beharko litzateke. Hortaz, akatsak, hutsuneak eta kontraesanak topatuko ditu irakurleak. Esan beharrik ez dago, horien aurrean, kritika serio eta zintzoek beti izango direla ondo etorriak. Kritiken aurrean, eta ikasketa prozesuan osoan, zintzotasunez eta umiltasunez jardutera konprometitzen naiz.

IKERGAIA, HELBURUAK ETA HIPOTESIAK

Horiek horrela, honako hau da lan honen muineko gaia: orokorki lanaren arloan eta, zehatzago lanaren funtzio sozialetan, 1976 eta 2008 urteen bitartean jazotako aldaketa estrukturalak sindikalismoaren bilakaeran eta berrikuntza estrategikoan izandako eraginaren azterketa. Gai horren marko nagusiaren barruan, eta eskala txikiagoan, Hego Euskal Herrian 1976tik aurrera afiliazio igoerarik nabarmenena izan duten bi sindikaturen bilakaeraren azterketa egiten da, ELA¹ eta LAB² sindikatuena, hain zuzen ere. Hartara,

¹ Eusko Langileen Alkartasuna

² Langile Abertzaleen Batzordeak

lan arloak eta lanak gizaratean duten eginkizunean gertaturiko aldaketan aurrean, ELA eta LAB sindikatuak izan duten bilakaera estrategikoa analizatzea da ikerketaren helburu nagusia, beti ere Hego Euskal Herriak bizi duen testuinguru politiko, instituzional, sozial eta laboral espezifikoaren kontuan hartuta.

Helburu nagusi horretatik eratorrita, honako bitarteko helburuak ere hartu ditugu aintzat:

(1) Bai gizarate egituratzaile gisa bai prozesu antolatu gisa, lanak jasan dituen aldaketek azken urteetako sindikalismoaren gorabeherekin duten harremana zehaztea. (2) Berritze sindikalerako ELA eta LAB sindikatuak abian jarritako estrategiak zeintzuk izan diren ikustea. (3) ELAren eta LABen berezitasunen arteko alderaketa egitea.

Helburu horiek zehaztu ondoren, honako galderak planteatu ditugu azterketaren abiaburu gisa:

- Zelan eragin dute lan arloko aldaketek sindikalismo abertzalean?
- Zeintzuk dira gure gizaratean lanari egozten zaizkion funtzioak? Benetan funtzio horiek betetzen al ditu lanak gaur egun? Ez baditu betetzen, zergatik gertatzen da hori? Zein zentzutan gertatzen da lanaren krisia?
- Zein harreman dago lanaren krisiaren eta sindikalismoaren krisiaren artean?
- Zein erantzun estrategiko eman diote ELAk eta LABek lanaren eta sindikalismoaren krisiei?
- Antzekoak ala ezberdinak izan al dira ELAk eta LABek abian jarritako erantzunak? Nola alderatu daitezke?
- Hego Euskal Herriko testuinguru politikoak, laboralak eta instituzionalak eraginik izan al du ELAren eta LABen bilakaeran?

Bestalde, hauexek dira aipatu helburuei lotutako hasierako hipotesiak:

(1) ELAk eta LABek bilakaera eta berrikuntza estrategiko zehatza hezurmamitu dute lanaren krisiaren eta lan arloko aldaketan aurrean.

(2) Hego Euskal Herrian jasotako ezohiko testuinguru instituzional, politiko eta laborean, euskal sindikalismo abertzaleak (ELAk eta LABek, gure azterketan), erantzun berezia eman diete lanaren krisiarekin zerikusia duten faktoreei (desindustrializazioa, soldataren eta lan baldintzen prekarizazioa, antolaketa postfordista, lan merkatuaren desarautzea, sektore berrien agerpenak eragindako langile klasearen heterogeneizazioa,

lanaren «gehiegizko» garrantzia, laneko eta gizarteko harremanen indibidualizazioa...), baita lanaren antolaketa-moduari lotutako aldaketa estrukturaleri ere. Hori dela eta, inguruko herrialdeetako sindikatuek baino osasun maila eta errotze sozial hobea izateko gai izan dira, egiturazko krisiak eta lan harremanen ahultasun instituzionalak ezaugarritutako gaur egungo testuinguruan.

Egiaztatzen saiatuko garen zeharkako hainbat hipotesi dakartzate hipotesi nagusi horiek:

- (1) Lanaren krisiari eta lan munduko aldaketei lotutako faktoreek XX. mendeko ohiko sindikalismoaren krisia eragin dute Europako mendebaldean. Horren ondorioz, sindikatuak indarra galduz joan dira, nahiz eta langile klasearen parte diren gizarte kolektibo askoren lan- eta bizi-baldintzek okerrera egin duten.
- (2) Euskal Herriko egoera instituzionala, politikoa, soziala eta lan harremanen bereizgarritasunak direla-eta, sindikatu abertzale nagusiek, hau da, ELAk eta LABek, Europako sindikalismoan ezohikoak diren ezaugarriak hartu dituzte.
- (3) Lanaren krisiaren eta salbuespen politiko eta instituzionalaren egoeren aurrean, ELA eta LAB sindikatuek biziberritze estrategikorako prozesua jarri dute martxan, botere sindikalari eusteko edota hura berreskuratzeko.
- (4) Lantokian antolatze eta jarduteko zailtasunek bestelako gai sozialez gehiago arduratzera bultzatu ditu sindikatu horiek, eta soldatapeko lanak, modu erlatiboan, garrantzia galdu du sindikatuen ekintzan. Ondorioz, sindikatuek beren esku hartze sozialean eta politikoan sakondu dute. Hori honako moduetan jazo da:
 1. Esku hartze politiko eta sozialak garrantzi handiagoa hartu du, eta soldatapeko lanaren arloko esku hartzeak, berriz, behera egiten du, zentzu erlatiboan.
 2. Lurralde egiturak garrantzia irabazi du antolakuntza sindikalean.
 3. Gizarte mugimenduekin aliantzak bilatu dituzte sindikatuek.
 4. Negoziazioa kolektiboa gizarte mobilizazioarekin edota ekintza instituzionalarekin osatu eta uztartu da, esku hartze zabalagoa izate aldera.
 5. Langile klasearen ulerkera klasikoa zabaldu dute, eta ahaleginak egin dituzte bestelako gizarte kolektiboen interesak barnebiltzeko.

IKERKETAREN EGITURA

Ikerketa honek hiru atal nagusi hartzen ditu barnean. Lehenengoan, orain arte aipaturiko helburu, galdera eta hipotesiei erantzuteko argibide teoriko zenbait eskainiko dugu; bigarrenean, erabilitako metodologia zehaztuko dugu; azkenengoan, ELAren eta LABen bilakaeraren azterketari helduko diogu bi sindikatuon diskurtsoen analisia oin hartuta.

Oinarri teorikoak finkatzen diren lehen atal nagusian, lanaren eta haren krisiaren inguruko oinarriak zehaztu nahi izan ditugu, lanak gure gizartean duen eginkizuna argitzeko. Hala, atal horretako lehen kapituluan, azterketan zehar baliatuko dugun lanaren definizioa eta ulerkera azaldu dugu. Bigarrenean, berriz, lana eta haren krisia analizatu ditugu, dimentsio ekonomikotik abiatuta. Hirugarrenean, lanak bere dimentsio immaterialean dituen funtzioak eta arazoak aztertu ditugu.

Lehen begi-kolpean, arraroa irudi lezake lanaren eginkizun sozialen eta haren krisiaren azterketari horrenbesteko garrantzia eman izana, kontuan hartzen badugu sindikatuak direla azterketa honen aztergaia. Hala ere, garrantzi hori ez dator soilik faktore horrek azterketaren barruan duen eragin erabakigarritik. Gure erabaki horretan badu zerikusirik aurrekari teorikoetan aurkitu dugun hutsuneak berak ere. Ondorioz, azterketan garrantzitsua izan da lanaren zentralitate sozialaren eta krisiaren inguruko kontzeptualizazio argia finkatzea. Erabilitako bibliografiak horretan lagundu digun arren, zaila izan da mahaigaineratutako galderei erantzun osoa ematen dieten teorizazioak aurkitzea, eskuartean duguna nahiko gai nahasia eta eztabaidatua izan delako. Horregatik, orrialde asko eskaini dizkiogu lanaren gaia teorizatzeari, nahiz eta ikerketaren barruan bigarren mailako helburua izan.

Behin lanak gizartean dituen eginkizunak eta horien gabeziak definituta, laugarren kapituluan lanaren antolaketak izandako bilakaera analizatu dugu. Ildo horretan, ekoizpenaren beharrak direla-eta, lanaren antolaketa eredua nola aldatu den ikusi dugu, lanak garapen eredu keynestar-fordistatik neoliberal-postfordistara izan duen bilakaeran sakonduta.

Bostgarren kapituluan, lanak «klase» subjektuaren osaketan hartutako garrantzia jorratu dugu. Izan ere, lehen hiru kapituluetan lana gizarte kohesiorako elementutzat hartu badugu, kapitulu honetan, lanaren atzean ezkututzen diren esplotazio eta zapalkuntzetan sakondu dugu. Zapalkuntza horiek gatazken bidez azaleratzen dira gizartean, klase gatazka lanaren inguruan sortzen baita. Horiek horrela, lanak klasearen inguruko identitate kolektiboa eratzen lagun dezake, hau da, langile mugimenduaren edota ekintza

sindikalaren oinarrian dagoen identitatea. Hortaz, lehen hiru kapituluetan lanak gizartean duen eginkizuna zehaztu badugu, oraingoan zapalkuntzaren eta subjektuen eraketan nola parte hartzen duen azaltzen dugu. Izan ere, sindikalismoak lanaren inguruko identitate kolektiboa hartzen du oinarri.

Seigarrenean, sindikalismoa ulertzeko gako teoriko batzuk lantzen ditugu, sindikatuen zereginen, orientabideen eta ekintza-formaren araberako sailkapena eskainita. Zazpigarrenean, Europako mendebaldeko sindikalismoaren egoeraz aritzen gara, eta azaltzen dugu zergatik diogun sindikalismo hori krisian dagoela; ondoren, Hego Euskal Herriko egoeraren azalpenarekin eta zeinbait daturekin osatzen dugu esandakoa. Ildo berean, sindikatuen boterea eta langileen interesak ordezkatzeko gaitasuna aztertzen ditugu, eta krisi egoeraren arrazoiak era teorikoan mahaigaineratzen.

Azkenik, Europako mendebaldeko sindikalismoaren egoera deskribatu eta faktore batzuk mahaigaineratu ondoren, sindikatuen botere iturrien azterketari heltzen diogu, baita iturriok berpizteko sindikatuek abian jarritako berrikuntza estrategikoak modu teorikoan azaltzeari. Horrekin, ELA eta LABen bilakaera espezifikoa azterketan jarri ahal izango dugu arreta, atal teorikoan aipatutakoak oinarri hartuta.

Datuen ustiaketaekin hasi baino lehen, bigarren atal nagusian azterketaren oinarri metodologikoak azaltzen ditugu, baita azterketarako erabilitako teknikak eta emandako urratsak ere. Hori egin ondoren, bi sindikatuen kasu azterketaren emaitzak eskaintzen ditugu hirugarren atal nagusian. Emaitzen aurkezpena hamarkadaka egituratu dugu eta, hamarkada bakoitzean, sindikatu bakoitzaren azterketa propioa egin dugu; ondoren, bien arteko alderaketa egiten da. Sindikatu bakoitzaren azterketa zenbait aldagairen arabera ordenatu dugu, atal metodologikoan azalduko dugunez. Horrenbestez, hauxe da kasu azterketaren aurkezpenarako jarraitutako egituraketa:

1. 1976-1989 epea:

- ELA
- LAB
- ELAren eta LABen arteko alderaketa

2. 1990-1999 epea:

- ELA
- LAB
- ELAren eta LABen arteko alderaketa

3. 2000-2008 epea:

- ELA
- LAB
- ELAren eta LABen arteko alderaketa

Bukatzeko, azken ondorioak aurkezten dira. Ondorioen kapituluan atal teorikoaren gako nagusiak laburbiltzen dira. Bi sindikatu abertzaleen bilakaeraren azterketaren emaitzetan oinarrituta, atal horrek aukera eman digu hasierako hipotesiak egiaztatu diren ikusteko

1. ZELAN ULERTU LANA? LANAREN ULERKERA ZABALERAKO OINARRIAK

SARRERA

Atal honetan «*lana*» deritzon kategoriaren definizio soziala eta historikoki espezifikoa eskainiko dugu. Hala, hobeto jabetu ahal izango gara egungo gizartean lanak betetzen duen eginkizunaz. Hain zuzen ere, gizarte moderno kapitalisten harreman erduetan txertatutako kategoria gisa aztertzen badugu lana, hobeto ulertuko dugu azken urteetako lan arloko aldaketek gizartean izandako eragina. Izan ere, sindikatuen ohiko jarduereremu nagusia lan arloa izanik, nahitaez baldintzatu dute beren jarduera lanari lotutako gizarte aldaketek.

Era berean, «lanaren» kategoria testuinguru sozial eta historiko jakinean kokatzeak ahalbidetzen digu lanak duen eginkizuna aldagarria dela ulertzen, eta hari egokitutako ohiko funtzioak «krisian» sar daitezkeela, eredu soziala aldatu ahala. Horretan oinarritzen da, hain zuzen, lanaren krisia. Ondorioz, kategoria horrek garai bakoitzean hartutako zentzuak eragina dauka lan munduan diharduten eragileetan, sindikatuak kasu. Ildo horretan, gure azterketari dagokionez, aurrera dezagun gaur egun lana «krisi egoeran» dagoela defendatuko dugula, eta ez «desagertzen» ari dela.

LANA: GIZARTE KAPITALISTAREN KATEGORIA ESPEZIFIKOA

Gizarte aurrekapitalistetan oso gutxitan agertzen da jarduera produktibo eta erreproduktibo guztiak izendatzeko kategoria abstraktu bakarra, gaur egun «lana orokorrean», lana «*sans phrase*» (Marx, 2007a: 25), erabiltzen dugun moduan. Horrek lana izeneko kategoriaren espezifikotasun historikoa eta soziala ondorioztatzerara eraman ditu zenbait autore (adb. Vernant, 1965; Gorz, 1991: 113; Chamoux, 1994: 59; Méda, 2010; Postone, 2005, 2006; Jappe, 2016). Izan ere, gizarte funtzio espezifikokoak ditu kategoria horrek, eta Aro Modernoan gizarte harreman kapitalisten barnean hartu du bere zentzua.

Orokorrean, «*lana*» kategoriaren azterketa globalak arazoak sortu ditu kontzeptuaren behaketa enpirikoari dagokionez, formazio sozial ezberdinen testuinguruan (Sahlins, 1968: 80; Chamoux, 1994). Hartara, edozein kontzepturen definizioa egiterakoan, haren testuinguru soziohistorikoa hartu behar dugu kontuan (Polanyi eta Arensberg, 1957, Chamoux-k aipatuta, 1994: 60). Azken finean, garai bakoitzean erabilitako lengoaiak eta

pentsetan lotura estua dute gizakien portaera materialarekin eta hortik abiatzen diren ekoizpenaren gizarte harremanekin (Marx eta Engels, 1988: 17-18). Horrela, gaur egungo «*lana*»-rekin pareka daitezkeen terminoek oso bestelako zentzua hartzen dute gizarte ereduaren arabera.

Maila sozialean beharrezkotzat jo daitezkeen jarduerak oso modu ezberdinetan zehaztu dira tokian tokiko gizartearen arabera, aberastasunaren definizioarekin gertatzen den bezala (Harribey, 1998). Ondorioz, lana «beharrezko ondasunak ekoizteko jarduerak» gisa definitu ahal badugu ere, «beharrezkotzat» jotzen dena oso bestelako moduetan definitu izan da gizarte bakoitzean. Hori dela eta, ez dugu lana zentzu antropologikoan edota trahistorikoan definituko, hau da, beharrezko gizarte jarduerak edo gizakiaren eta naturaren metabolismo gisa. Aitzitik, garai historiko eta gizarte espezifiko batean eratu den kategoria legez definituko dugu, gizarte modernoan eta kapitalistan kokatuta, hain zuzen ere.

Testuinguru soziala eta historikoa aintzat hartzen dituen lanaren kontzeptualizazio horrek ahalbidetuko digu lanari lotutako aldeten eta sindikalismoaren bilakaeraren arteko harremana hobeto ulertzea. Izan ere, gure hipotesiaren arabera, lanari lotutako bilakaera sozialek eragin nabarmena dute lan munduko eragileetan, hala nola, sindikatuetan. Berrikusketa eboluzionista egiteko asmorik gabe, jarraian historian zehar garatu diren lanari buruzko kategoria batzuk ikusiko ditugu, egungo gizarte kapitalista eta modernoetako lanaren adierara iritsi baino lehenagokoak.

LANAREN KATEGORIAREN JATORRIA: ARO AURREMODERNOKO GIZARTE TRIBALETIK ARO MODERNOKO GIZARTE INDUSTRIAL KAPITALISTARA

GIZARTE TRIBALETIK ERDI AROA

Dagoeneko aurreratu dugun moduan, gizarte tribaletan ez zegoen bizitzarako sozialki beharrezkoak ziren jarduerak izendatzeko terminorik (Chamoux, 1994: 61-61; Méda, 1995: 32). Ez ziren oparotasuna bilatzeko prozesu amaigabe batean bizi (bereziki, talde biltzaileen kulturetan); hortaz, beharizan fisikoei eskainitako denbora oso urria zen (Sahlins, 1975). Horrenbestez, ekoizpena ere ez zegoen etekin indibidualera bideratuta, ezta norbanakoen arteko ondasun baliokideen merkataritza-trukera ere (Malinowski, 1989: 177, Méda-k aipatua, 1995: 33-34), ez, behintzat, egungo dimentsioetan eta neurrian. Merkataritza-trukea, existitzekotan, oso modu marjinalen gauzatzen zen

(Méda, 1995: 35). Hori dela eta, «lana», kategoria sozial gisa, ez zen ekonomia tribaletan existitzen (Chamoux, 1994: 60).

Lan espezializazio mugatua zuten kultura biltzaile eta ehizatzaileen ondotik, nekazaritzan eta abeltzaintzan oinarritutako zibilizazioak sortu ziren. Tokian tokiko desberdintasunak desberdintasun, Antzinaroko kultura nagusietan nekazaritza eta abeltzaintza intentsiboari lotutako jarduerak ugaritu zirenean sortu zen soberakina eta aberastasuna metatzeko aukera. Eta, ondorioz, hazi egin ziren jarduera espezializatuera bideratutako behargin motak ere. Baina, egoerak oso desberdinak zirenez, Antzinaroko gizarte testuinguruan ez zuen zentzurik esklabo baten, idazle baten edo politikari baten jarduera termino beraren bidez izendatzeak (Köhler eta Martín, 2010: 7). Dena den, gaur egungo lanaren esanahira hurbiltzen diren zenbait kontzeptu atzeman ditugu horrelako kultura batzuetan.

Grezian, esaterako, honako terminoak dauzkagu: «*ponos*», esfortzuari lotua, eta «*ergon*» eta «*ergasis*», «obra» edo «ataza» gisa itzul daitezkeenak, baita «*technê*» ere, trebetasunari lotua. Grezia klasikoan, «*oikós*» delakoa («etxea») izan zen eguneroko premiak asebetetzeko komunitatea eta produkzio unitatea. *Oikós*-aren buru izateak eta ekoizpen prozesutik aske egoteak ahalbidetzen zuen herritartasun politikoa ere. *Oikós*aren mantenu jarduerak ez zuen lotura sozialik sortzen, egungo lanak bezala; izan ere, eremu pribatuan egiten zen. Baina bazterketa sozialaren adierazle zen. Herritartasun osoa eta sozialki «integratua» izateko, askatasuna behar zen, eta bizitza materialaren erreprodukzio jardueratik salbuetsita egon. Horretarako, ezinbestekoa zen beste norbaitek egitea lan horiek; esklaboek betetzen zuten, jakina denez (Aristotele, *Politika*, Médak aipatua, 1995: 37-47).

Erroman, berriz, honako kontzeptuak aurkitu ditugu: «*opus*» («burututako lana»), «*opera (ae)*» («lan jarduera») eta «*labor*» (nekazaritza lan neketsuari edo erditze lanari lotua). Erroman erabiltzen zituzten terminoak latinezko jatorria duten hizkuntza garaikideetan oso baliatuak badira ere, ez zuten gaur egungo adiera edozein «lan jardueraren» baliokide gisa; gainera, jarduera fisikoak eta gogorrak zirenak mespretxatuak izaten ziren (Chamoux, 1994: 62-64).

Erdi Aroan, kristautasunaren iruditeriari loturik, lanaren esanahiak konnotazio anibalentea bereganatu zuen Europan. Bibliako *Genesisia* interpretaturik, sorkuntza egintza jainkotiartzat hartzen bada ere, kristautasunaren lehenengoko mendeetan hori ez zen horrela ulertzen. Jainkoak ez zuen berak egin egiten, aginduak eman baizik:

«Jainkoak agindu zuen... eta horrela gertatu zen». Berrinterpretazio prozesu luze baten ondorioz, egintza hura lan edo obra legez irakurria izan zen. Tarsoko Sauloren (Pauloren) *Tesalonikarrei bigarren gutuna* idazlaneko esaldi ezagunak honela dio: «norbaitek lan egin gura ez badu, ez dezala jan». Horretan oinarritu zitezkeen *Itun Berriaren* lanaren aitortza (Méda, 1995: 50). Hala ere, Erdi Aroaren hasieran esaldi horrek ez zuen balio izan lana modu positiboan interpretatzeko. Aitzitik, lana Jainkoak gizakiei ezarritako zigorra zen garaiko iruditeria sozialean.

Erdi Aroan, apurka-apurka, aldatzen joan ziren ikuspegiak eta praktikak. Testu greziarren eta interpretazio arabiarren agerpenak eta monasterioetako bizi arauak definitzeko beharrianak zirela eta, giza jardueraren ideia berri bat bultzatzeari ekin zion Elizak (Méda, 1995: 51). Bilakaera hori ulertzeko, garaiko bi autorek egindako interpretazioak hartuko ditugu oinarri moduan: Agustin Hiponakoarenak eta Tomas Akinokoarenak, hurrenez hurren.

Agustin Hiponakoak (San Agustin legez ezagutuak) bi ideia nahasi zituen bere idazlanetan; alde batetik, monasterioetako lan pobrea («*labor*»), eta beste alde batetik, egintza jainkotiarra («*opus*»). Orduan hasi ziren «*labor*» madarikatua eta *opus* jainkotiarrek esanahi bertsua hartzen. Lanaren sufrimendua jatorrizko bekatuaren ondorioa bazen ere, sufrimendu hori salbaziorako baldintza ere bazen, Jainkoaren aginduztat jotzen zen heinean. Halaber, «*otium*» delakoa, erromatarrentzat jarduerarik baloratuena, alferkeriarekin lotzen hasi ziren (Méda, 1995: 51; Köhler eta Martín, 2010: 12-13). Hala ere, jarduera fisiko guztiek ez zuten balio bera. Agustinentzat, lan intelektualek esku lanek baino ohore maila handiagoa zuten, eta etekin materialak lortzera bideratutako jarduerak gutxietsita zeuden (Delaruelle, 1948, Médak aipatua, 1995: 51-53).

Ildo horretan, giza jarduerak bizitza komunitarioari mesede egiten diola ikusten hasi ziren, alferkeriaren kontrako tresna delako: gorputzari zeregina ematen zion, eta, aldi berean, espiritua askatu (Méda, 1995: 53-54). Bide hartatik, lana lotura sozial izateko funtziora hurbildu zen. Ondorioz, lanaren gaur egungo ulerkera modernoaren oinarri batzuk ezarri zituen Hiponakoak. Haatik, interes indibidualerako lana gaitzetsita zegoen, eta «lurreko mundua» «haragoko munduak» baldintzaturik zegoela ulertzen zen (Méda, 1995: 54).

Tomas Akinokoak, berriz, erabilgarritasun komunaren ideia garrantzitsua garatu zuen. Ideia horretan, gauzei balio bat ematen zitzaien, baita beren bidezko prezioari ere. Hortaz, komunitatearen onerako bazen, merkatarien lanari balorazio hobea eman zion Akinokoak. Horrela, lan egiten zuten merkatariak, artisauak, teknikariak eta antzeko talde sozialak aitortuak izaten hasi ziren (Méda, 1995: 57).

DENBORAREN NEURKETA SISTEMAREN ALDAKETA

Gizarte aurremodernoen eta gizarte modernoen arteko bilakaeran, denboraren neurketa-sistemaren aldaketak garrantzia handia hartzen du lanaren zentzu abstraktuaren sorrera ulertzeko. Izan ere, aurrerago ikusiko dugunez, merkataritza-harremanetan txertatuta dagoen produktibitatea eta hazkunde materiala bilatzeko joera estuki lotuta daude.

Lehenago esan dugunez, denboraren eta bere neurriaren inguruko kezka garatuta zuten monasterioetan, batez ere otoitzari, eskulanari eta bestelako atazei eskainitako denbora neurtzeko premia baitzuten. Dena den, denbora neurtzeko ordu aldakorretatik finkoetara igaro izanaren jatorria ez da hainbeste monasterioetan kokatzen, Erdi Aroko merkataritza hiriguneetan baizik. Izan ere, Elizaren boteretik independentea zen denbora-sistema berria bilatzen hasi ziren hirietan, merkataritzaren beharrek sustatuta, ehungintzan batez ere. Modu horretan, ordu finkoak neurtzeko sistemak asmatzen hasi ziren. Hala, ordu finkoen ezarpenak denbora-banaketa eklesiastikotik denbora sekularrera eta arrazionalera igarotzea ahalbidetu zuen eta gizarte bizitzaren kontrol sekularra finkatzea. Hala ere, nekazaritza eremuetako bizitza eta lan denborak oso ezberdinak ziren, natura zikloen menpekoea izanik, zailagoa zelako denbora-sistema modernoa ezartzea eremu horretan (Postone, 2006).

Jacques Le Goffen arabera (1980), hasieran ehungintzan gertatu zen denbora neurtzeko sistemaren aldaketa. Bada, merkatuko eskaerak bultzatuta, arlo horretan hasi ziren lehen aldiz soldatapeko langileak kontratatzen; langile horiei lan denboraren arabera ordaintzen zitzaien, eta, beraz, burgesen irabaziak langileen produktibitatearen arabera izaten ziren. Hortaz, arian-arian, produktibitatea arrazionalizatzeko eta hura kalkulatzeko beharra sortu zen (Postone, 2006).

Horrenbestez, oso lotuta daude merkataritzaren garapena, soldatapeko lanaren agerpena, eta denbora neurtzeko sistema finkoaren ezartzea. Izan ere, denbora abstraktuaren nozioa ezinbestekoa da harreman forma horretan jarduten zuten langileen produktibitatea

neurtzeko eta salgaiei lan-denbora abstraktuan oinarritutako balioa emateko, hitz batean, balioaren legea finkatzeko (Postone, 2006).

ARO MODERNOA: LAN ABSTRAKTUAREN AGERPENA

Esanak esan, Erdi Aroaren amaieran eta Aro Modernoaren hasieran gero eta iritzi positiboagoa zegoen ekoizpen materialaren jardueraren inguruan. Hala eta guztiz ere, nobleziak eta goi kleroak jarduera gogor eta neketsuetatik urrun egoteari eusten zioten.

XVI. mendean «*tripalium*» terminoa erabiltzen hasi ziren, «*opus*» eta «*labor*» ordezkaturik, eta hortik datoz gaztelaniaz eta frantsesez erabiltzen diren «*trabajo*» eta «*travail*» hitzak. Hitz hura, jatorrian, torturetan erabilitako hiru zutoinek osatutako tresna zen (Krisis, 2002). Hasieratik, jarduera neketsuak aipatzeko erabili zen, baina konnotazio positiboagoa bereganatu zuen erlijioaren ikuspuntutik³.

XVI. eta XVII. mendeetatik aurrera, «*lana*» kategoria sozialak bere batasuna aurkitu zuen (Febvre, 1930, Médak eta Vendamin-ek aipatua, 2013: 14). Luteranismoa eta kalbinismoa zabaldu zirenean gertatu zen hori, lanaren etikarekin batera, lana balio sozial gisa aldarrikatzen hasi baitziren erlijio horietara ildoratutako gizarteak (Weber, 2002; Weeks, 2020: 65-70). Geroago, lanaren etikak ekarritako lanaren ikuspegi positibo hori XIX. mendean hedatu zen era nabarmenagoan, bai Europan bai Amerikako Estatu Batuetan (De la Garza, 2001: 12).

EKONOMIA POLITIKOA ETA LANAREN ZENTZU MODERNOAREN AGERPENA

Fabrikatzaileek garatutako aberastasuna metatzeko grinarekin batera, merkataritza-harremanak sustatzen joan ziren Mendebaldean. Merkatuak lan indar gero eta gehiago eskatzen zuen. Horretarako, beharrezkoa zen lurrak lantzeaz bizi ziren nekazari askeak desjabetzea, eta beren lan indarra industria lantegietan saltzera bortxaz behartzea (Marx, 2000c: 201-259). Proletarizatze prozesu bortitzaren ondorioz, soldatapeko langile gero eta gehiago jarri ziren industria produktiorako erabilgarri.

Merkataritza-harremanen areagotze prozesu hartan sortu zen ekonomia politiko klasikoa, zeinaren kezkarik handienetakoa baitzen aberastasunaren iturria (Meda, 1995: 61-69) eta

³ Euskaraz, «*lana*» terminoa Silvain Pouvrak, «*travail, peine, affaire*» legez itzuli zuen bere XVII. mendean eskuzko-hiztegian (Michelena, 2020) baina bere jatorri etimologikoa ez da bat ere argia (Agud eta Tovar, 1989). Mendebaldeko euskalkian «*beharra*» dugu, «*need*» edo «*necessity*» legez itzulia (Trask, 2008). Ondorioz, «*labor*» bezalaxe, «*lana*» hitzaren esanahia nekearekin eta esfortzuarekin parekatzen zen XVII. mendean. Bestalde, «*beharra*» «*beharrizan*» fisikoarekin dago lotua, eta ez horrenbeste «*betebehar*» moralarekin.

haren balioa neurtzeko modua aurkitzea (Astarita, 2004: 41-43). Aberastasunaren nondik zetorren ulertzeko ahaleginetan, Adam Smithek baieztatu zuen lehen aldiz lana zela balioa sortzea ahalbidetzen duen «giza potentzia» (Méda eta Vendramin, 2013: 18). Haren lan ezaguna, *An Inquiry into the Nature and Causes of the Wealth of Nations*, honela hasten da:

«The annual labour of every nation is the fund which originally supplies it with all the necessaries and conveniences of life which it annually consumes, and which consist always either in the immediate produce of that labour, or in what is purchased with that produce from other nations». (Smith, [1776] 2007: 4)

Lana «bizitzarako beharrezkoak eta komenigarriak diren gauzen horniduraren funtsa» delako ideia ezarri zuen Smithek. Aberastasunaren eta balioaren jatorri eta neurri moduan ezarri zuen lana lehen aldiz (Smith, 2007: 4-6, 28), aberastasunaren teoria merkantilistak eta fisiokratak gaindituta (Méda, 1995: 63). Hala ere, Adam Smithek eta gainerako ekonomialari klasikoek ez zuten lana zer den zehaztu.

Ondoren, Smithen balioaren teoria osatu zuen Ricardok, eta salgaien «balio erreala» (ekoizteko beharrezkoa izan den lan kopurua) eta «balio nominala» (prezioak eta soldatak) bereizi zituen (Gabriel eta Manganelli, 2010). Hala, langileari ordaindutakoak ez zuten, ezinbestean, haren balio erreala islatzeko beharrik. Dena den, balioa sustantzia fisiko moduan definitu zuten ekonomialari klasikoek, haren determinazio sozialak kontuan hartu barik. Geroago, Marxek balioaren teoria birformulatu zuen, haren izaera soziala aintzat hartuta (Rubin, 1974: 47-50; Astarita, 2004; 41, 45).

Kapitalismoaren eta merkataritza harremanen garapenarekin gorpuztu ziren ekonomia politikoa eta lanean oinarritutako balioaren teoria. Merkatuaren garapena erabakigarria izan zen hainbat jarduera ezberdin «lan» moduan izendatu ahal izateko, kategoria orokor eta abstraktu gisa (Vernant, 1965: 38, Méda eta Vendraminek aipatua, 2013; 18; Harribey, 1998). Hartara, Marxen *Kapitala* idazlanean (2000a), «merkantzia», «lana» eta «balioa» estuki lotuta daude, norbanakoak artikulatzen dituzten gizarteko ekoizpen harremanen baitan (Rubin, 1974: 79).

Garaian garaiko lan kontzeptuaren esanahien bilakaera horri jarraiki, soldatapeko egoeran edo merkataritza-harremanen barnean egiten ez diren jarduera erreproduktiboak ez dira oraintsu arte lan modura kontsideratu; edo, kasurik onenean, bigarren mailako zeregintzat jo dira. Ondorioz, klasikoek ez dute kategoria ekonomiko gisa aintzakotzat hartu (Carrasco, 2017: 56-57). Ekonomia feministaren garapena izan da beharrezkoa

ezkutatutako lan hori ikusgarri bihurtzeko XX. mendetik aurrera. Berez, Adam Smithek eskaintzen duen lanaren hitzez hitzeko definizioak («beharrezkoak eta komenigarriak diren gauzen funtsa») ez lituzke merkatuz kanpoko ordaindu gabeko lanak alboratu behar, baina horrela gertatu izan da. Hala ere, aurrerago sakonduko dugun legez, merkatuz kanpoko ordaindu gabeko lanak ezinbestekoak dira gizarte ekoizpenaren prozesuan. Izan ere, kapitalaren metaketa bermatu ahal izateko merkantziarik garrantzitsuena (erre)produzitzen dute: lan indarra, hain zuzen ere. Eta, merkantzia hori birsortzeaz harago, pertsonen bizitza eta iraupena bera segurtatzen dute. Hortaz, lanaren esanahia ezin da soldatapeko lanera mugatu.

Lanaren esanahi modernoaren eraketara iritsi arte kontzeptuak izandako ibilbideak erakusten digu lana ezin dela kategoria antropologiko edota transhistoriko moduan definitu, oso zentzu ezberdinak bete izan baititu garaian garaiko eta tokian tokiko gizartean. Horrenbestez, ikusi dugu lanari ematen dizkiogun zentzuak eta funtzioak aldatu egin daitezkeela testuinguruaren arabera. Horren adibide da gaur egun bizi dugun aldaketa ere. Lehen Modernitatean sindikatuak soldatapeko lan eremuan antolatutako eragile nagusiak izan ondoren, Beranduko Modernitatean lanak izandako aldaketen eragina jasan dute beren bilakaeran. Bada, lana eta ekoizpena antolatzeko moduak, baita lanak gizartean hartu duen esanahia ere, aldatuz joan dira azken urteetan.

LANA: GIZARTE KAPITALISTAREN ERREPRODUKZIORAKO FUNTSEZKO JARDUERA

ZER DA LANA GIZARTE KAPITALISTAN?

Esandakoaren arabera, merkataritza-harremanen areagotzearekin eta proletarizazioak ekarritako soldatapeko lanaren hedapenarekin batera bereganatu du lanak industrializaziotik aurrera jaso duen zentzua gizartean. Lana, ekoizpen harreman kapitalisten hedapenaren ondorioz bihurtu zen Mendebaldeko gizarte kapitalistetako funtsezko kategoria (Méda, 1995: 26; Alonso, 2007: 222; De la Garza, 2010: 22; Jappe, 2016: 21; Weeks, 2020: 71). Baina, zer da guretzat lana? Badago ikuspegi bat lana edozein jarduerarekin parekidetzen duena (adb. Castillo, 2000: 59-60). Izaera tekniko-materialean oinarritutako definizio hori ez da egokia (García, Lago, Meseguer eta Riesco, 2005: 34) ikerketa honen ikuspegitik. Izan ere, ulerkera hori erabilia, ez genituzke lanaren kategoria sozialaren izaera historiko eta sozial espezifikoak kontuan hartuko.

Bestalde, ekonomia neoklasikoak lana soldatapeko eginkizunera mugatu du. Zeresanik ez, definizio hori ere baztertu egiten dugu. Marxismo «klasikoak», bere aldetik, lanaren kontzeptualizazio zabalagoa planteatu zuen, berez, gizarteko aberastasun materialaren ekoizpenarekin lotuta, soldatapeko lanetik eta truke baliotik haratago (ekonomialari klasikoen antzera (Carrasco, 2017)). Hala ere, soldatapeko lanak XIX. mendean izandako hedapenak soldatapeko lana eta langile mugimendua lehenestera bultzatu zuen marxismoa (De la Garza, 2010: 16). Ikuspegi mugatu horretan ez gelditzen ahaleginduko garen arren, onartu beharra dugu aurrerago azalduko diren kontraesan batzuen aurrean kokatu garela.

Lanaren izaera soziala nabarmendu duten ikuskerak ere badauzkagu, gure azterketan bereziki interesatzen zaizkigunak. Harribeyk (1998), esaterako, gizartearentzat «beharrezko jarduera» gisa definitzen du lana. Halaber, lanak «beharrezkotzat» jotzen dira, ekoizpen harremanen ikuspegitik, gizartearen erreprodukziorako beharrezkoak direlako. Beraz, gure ikuspegian, ekoizpen harreman kapitalisten barruan kokatuta, erreprodukzio sozialerako ezinbestekoak diren jarduerak dira lanak (García, Lago, Meseguer eta Riesco, 2005: 36), eta produkzioaren eta erreprodukzioaren arteko lotura oso estua da⁴ (Lebowitz, 2005; Carrasco, 2017). Ildo horretan, bi esanahi horiek biltzen dituen honelako definizioa eskaintzen du Martijak «lana» kategoriarentzat (2020: 10): *«el conjunto de tareas, actividades y capacidades humanas que se articulan entre sí dentro de un conjunto social con el fin de dar solución colectiva a las necesidades sociales y comunitarias»* (Martija, 2020: 10). Era berean, ekoizpen-harreman sozial jakin batzuen barruan burutzen dira lanak, ekoizpen eredu kapitalistak ezarritakoak, hain zuzen, eta harreman beroriek erreproduzitzen dituzte.

Nabarmena da lanaren definizio sozial horiek ez daudela Adam Smithen formulazioekin kontrajarrita, nahiz eta azken horren ikuspegia mugatua den; izan ere, bizitzarako «beharrezkoak» edo «komenigarriak» diren gauzak (ondasunak, zerbitzuak...) ekoizteko jarduera legez ulertzen da lana. Horrenbestez, lana definitzeko orduan, funtsezkoa da

⁴ Problematikoa egiten zaigu produkzioa eta erreprodukzioa bereiztea. Bereizketa hori kapitalismoaren tresna bat izan da (Fraser, 2014: 64). Gure ikuspegitik, ez dago produkzio posiblerik gizartearen erreprodukziorik gabe. Bestalde, gizarte erreprodukziorako ezinbestekoa da ondasun materialak zein immaterialak (balioak, zaintza, afektibitatea) «produzitzea». Hortaz, produkzioa eta erreprodukzioa nahitaez batera gauzatzen diren bi prozesu dira (Carrasco, 2017; Lebowitz, 2005; De la Garza, 2010: 114; Miguélez, Prieto, 1999: XXII). Kapitalaren ikuspegitik, lana «produktiboa» da kapitala balorizatzen balio badu, hau da, gainbalioa sortzen badu, ez bestela (Jappe, 2016: 125-128).

gizartean duen betekizuna kontuan hartzea. Izan ere, testuinguru sozial espezifiko baten barruan artikulatzen da lana beti, eta behar sozial jakin batzuk asebetetzen ditu.

LANAREN FUNTZIO SOZIALAK ETA DIMENTSIOAK

Lana gizartearen erreprodukziorako beharrezkoa den jarduera legez definitzeak esan nahi du gizartearen erreprodukziorako berebiziko funtzioak betetzen dituela. Betetzen dituen funtzio sozialen arabera, lanak dimentsio ekonomiko eta material ukaezinak hartzen ditu, baina baita dimentsio kultural, ideologiko eta psikologikoak ere. Horregatik, Méda eta Vendraminen banaketari jarraiki, lanaren gizarte funtzio horiek bi ataletan sailkatu ditugu: funtzio materialak eta funtzio immaterialak, edo Morsek eta Weiss-ek (1955) dioten moduan, funtzio «ekonomikoak» eta «ez ekonomikoak». Funtzio materialen artean, ekonomiari zuzenean lotutakoak hartzen ditugu aintzat, hau da: aberastasuna materialaren eta balioaren ekoizpena (lan indarraren ekoizpena, are) eta diru-sarrereren banaketa (batez ere soldataren bidez). Bestalde, esan bezala, funtzio ez ekonomikoek dimentsio kulturala, ideologikoa edota psikologikoa hartzen dituzte barnean, besteak beste.

Lehenik, ekonomialari klasikoei jarraiki, lanak balioa edo gizarte aberastasuna sortzen du (Méda eta Vendramin, 2013: 17-19). Marxen arabera, aberastasuna «merkantzia multzo erraldoi» gisa aurkezten da gizarte kapitalistan (Marx, 2004: 309)⁵. Lanari esker, batzuek beren bizitza eta gizarte baldintzak erreproduzitu ditzakete; beste batzuek, aldiz, kapitala metatzen jarraitzen dute. Aberastasun forma den merkantziaren garapenaren bidez, gizarte bitartekari orokor gisa gailendu da lana (Jappe, 2009: 3). Bitartekaritza-jarduera horren bidez, norbanakoak gizarteratu egiten dira eta, beraz, beren tokia aurkitzen dute gizarte harremanen barruan. Beraz, lana beharrezkoa da gizarte produkzio eta erreprodukzio materialerako, garaiaren eta toki geografikoaren arabera ezarritako arau eta beharrianak kontuan hartuta.

Bestalde, ikuspuntu immaterialetik abiatuta, lanak ondorio psikologikoak eragiten ditu norbanakoengan, eta, horri esker, baliagarri, baloraturik eta aintzat harturik sentitzen dira banakoak. Funtzio immaterialen edo ez ekonomikoetan arreta jartzean, lanak identitate indibidual eta kolektiboak osatzean betetzen duen eginkizuna hartzen dugu kontuan, hala nola, norbanakoen garapena eta besteengandik jasotako aitortza, estatus soziala,

⁵ Esaldi hori aberastasunak kapitalaren ikuspegitik hartzen duen formatik ulertu behar da, «ekonomia politikoaren kritikaren» ikuspegitik, ez Marxek ontzat ematen duen aberastasun forma legez.

herritartasunaren onespena, eta abar. Bestalde, lanaren balioa pertsonentzat noraino den garrantzitsua ikusten dugu bizitzako beste arlo batzuekin alderatzen badugu, esaterako, familiarekin edo aisiarekin. Lana harreman sozialen artikulatzailea da, azken batean, eta klase identitatearen eraketaren ardatz bihurtzen da (Berger, 1958, De la Garza-k aipatua, 2010: 53).

Bistan da erlazio oso estua dagoela lanaren funtzio materialen eta immaterialen artean, bi dimentsioak ez baitira autonomoak. Izan ere, lanak betetako eginkizuna baldintzatu egiten dute garaiko eta tokiko ekoizpen eta banaketa ereduak. Lanaren garrantzi soziala, beraz, lanari esleitu zaizkion funtzio horiek betetzean oinarritzen da. Garrantzi hori azalerazten da lana gizarte-integrazioa edo herritartasuna lortzeko gako bihurtzen denean, eta norbanakoen identitatearen eta biografia pertsonalaren ezaugarri nagusienetakoa osatzen duenean. Ildo horretan, lanak gure gizartean betetzen dituen berebiziko funtzioak hainbestekoak dira, non, «lanaren gizartean» kokatzen garela defendatzen duen Claus Offek (1992: 10, Alonsok aipatua, 2009: 208). Ildo horretatik, lanak bere ohiko funtzio sozialak betetzen ez dituenean, «lanaren krisia» jazotzen dela diogu. «Lanaren krisia» deitutako prozesu hori modu ezberdinetan adierazten da; izan ere, unean-unean lanari egokitutako funtzioen arabera, funtzio horiek betetzeko ezintasunak hainbat modutan uler daitezke.

Lanaren zentraltasuna tarteko, lan esparrua gizarteko bizi baldintzak hobetzeko borroken gune pribilegiatua (ez bakarra) izan da luzaroan. Lanaren garrantzia langile mugimenduak Lehen Modernitatean (hau da, 70eko hamarkadara arte) izandako protagonismoan ere azaleratu da, besteak beste. Izan ere, industria gizartean langile mugimendua izan da «ahalmen handiena garatu duen kolektiboa, eta masa antolakunde egituratuenetan eratu dena» (Roca Martínez, 2016: 13). Baina, Beranduko Modernitatean, beste ordena sozial bat sortzean, langile mugimendua ahuldu egin da arian-arian, eta 70eko urteetatik aurrera «gizarte mugimendu berrien» eta bestelako eragileen sorrera gertatu da.

Lanaren funtzio integratzaileak aipatu diren arren, lanaren bidezko gizarte integrazioak bazterketak eta zapalkuntzak ere ezkututzen ditu. Izan ere, lanaren funtzioek gizarte dominaziorako sistema jakin bat osatzen dute (Weeks, 2020). Beste modu batera adierazita, funtzio sozialez gain, *funtzio politiko* nabarmena betetzen du lanak: hainbat zapalkuntza harremanek zeharkatutako gizarte ordenaren ezarpena, hain zuzen ere, non lanak funtsezko zeregina jokatzen duen. Ildo horretan, lanak gizarte ezberdintasunak eta

bazterketak ahalbidetu ditu Horregatik izan da (soldatapeko) lana klase borrokarako eremu pribilegiatua denbora luzez. Hain justu, eremu pribilegiatu hori kolokan dago gaur egun.

Jarraian ikusiko dugunez, lan forma guztiek ez dituzte aipatu ditugun funtzio guztiak maila eta era berean bete, gizartean jaso dituzten aitoren maila oso desorekatuak tartean direla.

LAN FORMAK

Lanaz eskaini ditugun definizio dimentsio-anizdunak kontuan hartuta, gizarte moderno kapitalistaren (erre)produktzioarako beharrezko jarduera gisa zehaztuta, hainbat azpi-kategoria daude lanaren kontzeptuaren barruan sar daitezkeenak, esanahi ezberdinak erakusten dituztenak, edota lana gauzatzeko forma ezberdinak adierazten dituztenak. Lan kontzeptuaz gain, terminorik orokorrena eta globalena «jarduera» da. Kontzeptu horrek «bizi denbora erabiltzeko moduari» egiten dio erreferentzia, beste zehaztapenik gabe (Harribey, 1998: 29). Bestalde, «okupazioa» (*occupation*) helburu jakin batekin burutzen den jarduera da (Harribey, 1998: 29). Ildo horretan, lana ezaugarri eta funtzio sozial jakin batzuk betetzen dituen jarduera edo okupazio mota bat da.


Gizarte eredu kapitalistaren (erre)produktzioan inplikaturako jardueretan, hau da, lanean, bi azpi-kategoria bereiz ditzakegu. Alde batetik, zuzenean merkataritza-truke harremanen barnean kokaturako lanak daude; horien produktua merkantzia da (ekoizpen harreman kapitalistetan aberastasunak hartzen duen forma (Marx, 2004: 309)). Azken horien artean, modu autonomoan eta soldatapean burutzen diren lanak bereizten dira. Lan autonomoan, bere lanaren produktua saltzen du beharginak. Soldatapeko lanean, aldiz, bere lan indarra edo gaitasuna saltzen du beharginak, eta kapitalista jabetzen da horren produktuz.

Beste aldetik, «merkatuz kanpoko ordaindu gabeko lanak»⁶ ditugu, eskuarki pertsonentzako zerbitzuen eta ondasunen eskaintzara, pertsonen bizi iraupenera, zaintzara eta asistentziara bideratuak. Sistema kapitalistak arau patriarkalaren barruan funtzionatu du. Lan horiek ezinbestekoak dira gizarte kapitalistaren erreproduktzioarako, lan egiteko gaitasuna (erre)produzitzen dutelako. Eta ez dira zuzenean merkataritza edo truke harremanen barruan burutzen (Antunes, 2005: 99), beraz ez dute aitortzarik izan lan gisa. Ildo horretan, Marxek dio gizon-emaztearen artean esklabotza-harremana dagoela (Marx,

⁶ Hemen sartzen dira merkataritza-harremanetatik kanpo egiteagatik ordainsaririk jasotzeko eskubiderik ez dutenak, zaintza eta etxeko lanak kasu.

2004: 191). Nolanahi ere, azken urteetan nabarmendu da aipatu lan horiek nahitaezkoak direla hala ekonomian nola gizartean, bai ekonomia sostengatzeko bai gizartea erreproduzitzeko. Izan ere, gizarteak eta banakoak ez ezik merkatuek ere beharrezkoak dituzte ekoizpen harreman sozial ez merkantilizatuak, funtzionatu ahal izateko. Baina, liberalismo politikoak egin bezala, publiko/pribatu oposizioa erabili du ekonomia klasikoak ere, eta eremu pribatura murriztu ditu zereginok bere azterketan. Horrela, nagusiki emakumeek egin dituztenez, lan horiek ez dute aitortzen izan gizarte kapitalista patriarkalean. Hartara, kapitalismo ekonomikoak eta patriarkatuaren sistema kulturalak bat egin dute, eta sexuaren arabera lan banaketa bultzatu. Modu horretan ulertzen da doako lan bat egotea, merkatuko lanak ez bezala ordaindu gabea eta historikoki lan gisa ezagutu ez dena. Bistan denez, bortxa bidezko desjabetzea gertatzen da alor horretan ⁷ (Fraser, 2014: 62-63).

⁷ Itxuraz libreak ziren merkataritza truke librea xede duten ekoizpen harremanen oinarrian bortxa bidezko desjabetze prozesua dago (Marx, 2000c: 197-255).



Iturria: Harribey (1998: 30)-tik hartua eta egileak osaturikoa.

Bestalde, emakumeak tradizioz ordaindu gabeko lanen bidez «gizarteratu» direnez, gizarteratze hori bigarren mailakoa izan ohi da. Etxeko emakume langilearen diru sarrerak gizonezko soldatapeko langile batek emandakoak izatean, egoera horrek egiturazko mendekotasun harremanak areagotu ditu gizonen eta emakumeen artean (Federici, 2017: 58-62).

Baina, kapitalismo garatuan zaintza-lan guztiak ez dira etxeko eremuan eta ordaindu gabe burutzen. Horietako asko familiaz gaindiko bestelako instituzioetan, hau da, ospitaletan, eskoletan, kartzeletan, zahar egoitzetan, edo umezurtz etxeetan ere egiten dira, esaterako, soldata baten truke (Ferguson, 2020: 141). Lan horiek ez ditugu «merkatuz kanpoko ordaindu gabeko lan» kontsideratzen merkataritza-trukeen baitan egiten direlako, hau da, horretara eskainitako lan indarra merkatuan saltzen delako. Haatik, eremu horietan ere sexuaren araberako lan banaketak irauten du. Hala, lan horiek feminizaturik edo/eta

arrazializaturik egon ohi dira, eta ez dituzte gizon zurien enpleguen baldintza berberak izaten. Areago, etxez kanpo ere lan egiten duten emakumeek etxe barruko lan gehienak egiten jarraitzen dute gaur egun. Hartara, zapalkuntza bikoitza (eta hirukoitza edo gehiago, arraza eta beste azpiratze batzuk tartean daudenean) nozitzen dute soldatapeko emakumeek gizarte kapitalistan: langile gisa lan merkatuan, emakume gisa gizartean, eta abar.

Ildo horretan, ikerketa honetan bat egiten dugu lanaren ulerkera zabal batekin; adiera horretan soldatapeko lana eta merkatuz kanpokoa, ordaindua eta ordaindu gabekoa ⁸, formala eta informala, klasikoa zein ez klasikoa (Hirata, 1993: 7; De la Garza, 2010), hartzen ditugu aintzat, lanaren adierazpen horiek guztiak baitira funtsezkoak egungo gizartearen (erre)produkzioarako. Horrenbestez, «lanaren krisiaz» hitz egitean ere, lan forma horiek guztiak hartuko ditugu aintzat. Bada, lanaren era desberdinetako adierazpenak sistema (kapitalista patriarkal) batean elkarlotuta egotean, gaur egun den-denetan azaleratzen dira ezintasuna eta iraunkortasunik eza. Bereziki orain aipatu dugun «erreprodukzioaren krisian» eta «zaintzaren krisian» adierazi dira azken garai honetan kapitalismoaren iraunkortasun arazo nagusietako batzuk.

Bestalde, «zaintzaren» kontzeptua lanaren esanahi kapitalistatik urrundu egiten dela uste dugu. Sarritan «lanaren» formapean egiten den jarduera izanik ere, beti ez da soilik lanaren logika kapitalistaren pean egiten. Zaintza bizitzarako beharrezko jarduera da, eta lanaz harago doa, bere helburuek ez dutelako logika merkantil-kapitalistetara mugatu behar. Alegia, zaintzaren oinarrian bizitza sostengatzeko ezinbestekoa den moral sozial bat dago, lanarekin eta gizarte kapitalistaren erreprodukzioarekin zerikusirik ez duena. Zaintzaren etika pertsonak pertsonetaz arduratzean oinarritzen da (Tronto, 1987: 2). Guztiok behar ditugu afektuak, hurkoak gutaz arduratzea, zainduak izatea. Horregatik, pertsonen bizitza duina eta iraunkortasuna helburu dituen gizarte batek bere gain hartu beharko lukeen balio etikoa eta politikoa da zaintza.

Auzia da moral hori logika merkantil-kapitalistapean jarri, feminizatu eta «lan» ikusezin bihurtu duela kapitalismoak (Moliner eta Legarreta, 2016: 4). Hala, merkantilizatu egin dira edo emakumezkoek burututako etxeko lan bihurtu dira zaintza jarduerak. Baina,

⁸ Lanaren soziologian lan ordainduak eta ordaindugabeak bereizi ohi dira, soldatapekoa (edo autonomoak) eta etxeak desberdintzeko. Hala ere, ikuspegi marxista batetik, problematikoa da soldatapeko lanak «ordainduak» gisa kontsideratzea. Izan ere, aurrerago ikusiko dugu bezala, soldatak ez du lanaren balioa ordaintzen, baizik eta lan indarra (norbanakoaren zein bere familiarena) erreproduzitzeko beharrezkoak diren ondasunen balioa (Marx, 2000b: 293-302).

beren oinarrian, gizarte osoari dagokion morala dute, gure gizarte harremanen eredutik harago joaten lagundu dezakeena. Hortaz, zaintzaren balio moralaz gain, haren balio politikoa ere nabarmendu izan da feminismitik (Sagastizabal eta Legarreta, 2016: 14).

LANA, ENPLEGUA ETA HERRITARTASUNA

Kapitalismo industrialak garatu ahala, langile mugimenduaren borrokaren presioz lanari lotutako eskubide sozialak eta (soldatapeko) lan harremanak instituzionalizatzen joan ziren XX. mendean zehar. Ondorioz, Médaren (1995) esanetan, «XX. mendea jada ez zen lanaren mendea izan, enpleguarena baizik». Horiek horrela, zein da lanaren eta enpleguaren arteko ezberdintasuna?

Enplegua lan ordainduaren eta merkantilizatuaren zentraltasun sozialaren eredu gorena litzateke, lan-arau hori instituzionalizatzen denean eta Estatuak erregulatzen duenean sortzen dena. Beraz, enplegua soldatapeko lana nahiz lan autonomoa burutzen direneko instituzio markoa da, legeek eta arau sozialek definitua (Harribey, 1998: 31; Köhler eta Martín, 2010: 22). Ildo horretan, Mendebaldeko herrialde garatuak «ongizateko Estatuak» edo «Estatu arautzaileak» XX. mendean instituzionalizazio horretan izan zuten eginkizuna nabarmendu behar da (Máiz, 2017: 31), besteak beste, langile mugimenduaren borrokaren lorpen gisa interpretatu dena. Lanari dagokionez, bi esparru arautu zituen XX. mendeko Estatu arautzaileak: batetik, lan harremanak, eta, bestetik, lan merkatua bera. Testuinguru horietan, Estatu arautzailearen zeregina izan zen langileen lan baldintzak instituzionalizaturiko aktore soziopolitikoekin batera negoziatzea eta bideratzea «bake soziala» eta kapitalaren metaketa bateragarri egiteko. Hartara, aktore soziopolitiko gisa aitortu ziren sindikatuak (langileen ordezkari gisa) eta patronalaren erakundeak.

Zelan ulertu zen enplegua XX. mendearen erdialdetik aurrera herrialde garatuak? Une historiko horretan, lana ez bezala, enplegua ez da diru sarrera bat jasotzeko egiten den soldatapeko edozein lan-jarduera. Enpleguak soldatapeko lan «erregularra eta jarraia» izan behar du, enpresa baten kontura egina. Gainera, Estatuak arautzen duen (soldatapeko) lan harremana izanik, lan segurtasunerako bermeak ematen ditu (lan kontratua) (soldatapeko) lanetik kanpo ere, gizarte segurantzaren bitartez. Ondorioz, produzitzeko sistema fordistarekin batera, ordena soziala legitimatzeko faktore bihurtu zen enplegua garai horretan (Prieto, 1999: 532-534).

Ildo berean, azpimarratzekoa da lanak enpleguarekin batera jasotzen duen izaera juridikoa, forma horren pean instituzionalizatzen baita XX. mendean. Bada, «enplegua»

izeneko kontzeptua lan zuzenbidea garatzean sortzen da, hau da, lanari «eskubideak» aitortzen zaizkionean eta Estatuak hura bermatzeko eta arautzeko ardura bere gain hartzen duenean. Prozesu hori fordismoaren eta ongizate Estatuaren finkapenarekin batera dator Mendebaldeko herrialde garatueta, eta langileei herritartasun politiko-formala ez ezik herritartasun soziala ere aitortzea inplikatu du. Modu horretara, soldatapeko lanaren normatibizazio sendoa gertatu da, eta soldatapeko lan harremanak Estatuaren zuzenbidearen bitartez arautzen dira. Horrenbestez, autore batzuen ustetan, enplegua lanaren «arau sozialaren» adierazpen gorentzat har daiteke, hura arau juridikoen bitartez erregulatzen baita (Köhler eta Martín, 2010: 18-24).

Geroztik, «lanaren estatutua» herritartasunerako iturri ere bilakatu zen. Izan ere, enplegua herritartasunaren oinarritzat jo zen fordismoaren garaian, enpleguak lanari lotutako berme juridiko eta eskubide sozial batzuk bermatzen baitzizkion norbanakoari. Horrek eskusio ekonomikoak ez ezik politikoak ere sortu zituen enplegutik at zeudenentzat. Bada, herritartasun soziala aintzat hartzeko hiru bide osatu ziren: «nazionalitatea, enplegu formala eta maskulinitasun familiarra» (Alonso, 2007: 12-28). Beraz, herritartasun eredu horretatik kanpo geratu ziren, besteak beste, emakume gehienak.

Enplegua urte luzez mantendu da herritartasunaren erreferentzia moduan. Hala ere, lan baldintzen eta sistema sozialaren prekarizazioen ondorioz, gero eta urrunago dagoen estatusa da azken urteotan (Zubero, 2000; Alonso, 2007: 86). Enplegua arau sozial hegemonikoa izan arren, ez da inklusiboa izan populazioaren parte handi batentzat, sexuaren araberako lan banaketa tartean dela, soldatapeko lana batik bat gizonentzat erreserbatuta egon delako. XX. mendean emakume askok, etxe- eta zaintza-lanetara mugaturik egotean, ez zituzten «enpleguari» lotutako eskubide sozial berberak jaso. Eta lan merkatuan integratu ondoren ere, lanaldi bikoiztuak egiten jarraitu behar izan dute. Egoera horrek beren herritar ahalmena mugatu du. Eta, oraindik ere, horrela izaten jarraitzen du. Ondorioz, «arau sozialtzat» baino, soldatapeko langile batzuen «pribilegiotzat» har daiteke enplegua gaur eguneko ikuspegitik. «Enplegu osoa» izan zen fordismoaren garaiko ongizate Estatuaren helburu nagusietako bat. Baina, zenbait herrialdetan lortutako langabezia-tasa oso baxuak emakumeak lan merkatutik baztertuta baino ez ziren posible izan (Esping-Andersen, 1990). Beraz, kontuan hartu behar dugu sistema fordistaren barruan enplegua, eta enpleguari lotutako babes soziala, gizon zuriei erreserbatuta zegoela, batik bat, eta emakumeek nagusiki doako lanetan, edo aldi berean doako eta merkatuko lanetan jardun dutela luzez (Martija, 2020: 17).

Gaur egun, Beranduko Modernitateko garaietan kolokan jarri da lanaren gizarte antolaketan sortutako enplegu fordistaren arau soziala. Izan ere, berme sistema moduan ulertuta, enplegua gero eta urriagoa eta prekarioagoa da. Ondorioz, ezin du herritartasun eskubideak jasotzeko irizpide moduan funtzionatu. Hala, lan forma jakin batean, alegia, enpleguan oinarritutako herritartasunaren kontzeptua bera ere kolokan jarri da (Alonso, 2007). Egoera horrek «enpleguaren krisia» ekarri du, zenbaiten ustez (Prieto, 1999; Martija, 2020: 16-22). Enpleguaren krisia lanaren krisi zabalagoaren adierazpenetako bat izango litzateke, aurpegi anitzeko prozesu legez ulertzen badugu krisia bera.

Esandakoaren ildotik, azken urteetako teoria feministek erakutsi dute enpleguak edo soldatak emandako estatusak, arau moduan bainoago nolabaiteko pribilegio gisa funtzionatu duela. Horrela, autore feministek soldataren bidez ezarritako hierarkizazioa nabarmendu dute (adb. Federici, 2017: 22). Izan ere, merkataritza-harremanen barnean egindako lanetatik at, bestelako lan forma batzuk burutzen dituzten langileak (doako lana egiten duten emakumeak edo ezkutuko lana egiten duten etorkinak, esaterako) bigarren mailako herritartzat hartu dira. Horren aurrean, mugimendu feministak bi irtenbide planteatu ditu: batetik, emakumeen sarrera ahalbidetzea lan merkatuan eta, bestetik, doako lanei zor zaien balioa ematea gizartean (Weeks, 2020: 30-31, 104-105), lan mota guztiak modu orekatuan banatu daitezten.

MERKATUZ KANPOKO ORDAINDU GABEKO LANEN FUNTSEZKOTASUN AITORTU GABEA

Esandakoak esanda, ezinezkoa da lanari buruzko azterketa egoki batean ordaindu gabeko lanak aintzat ez hartzea. Arestian adierazi dugun bezala, azken lan horiek berebiziko eginkizuna betetzen dute pertsonen bizitzaren iraupenean, eta gizartearen beraren (erre)produkzioan. Adam Smithen esaldia berreskuratuta, ordaindu gabeko lanak funtsezkoak dira, «beharrezkoak eta komenigarriak diren gauzen hornidurarako» (Smith, 2007: 4). Bada, ordaindu gabeko lanak ere lan indarra produzitzen du (Federici, 2017: 33-24) soldatapeko lan merkatuan merkantzia legez saldua izan dadin. Lan forma hori barik, ezinezkoak lirateke kapitalaren ekoizpena eta gizarte erreprodukzioa. Beraz, lan «produktibotzat» hartu beharko lirateke lan horiek (Federici, 2017: 23-24), «langile klasearen ekonomia politikoaren» ikuspegitik, behintzat (Lebowitz, 2005).

Lanari buruzko ikuspegi klasikoek, baina, saihestu egin dute auzia. Batetik, ekonomia neoklasikoak mugatu egin zuen lanaren esanahia soldatapean egindako zereginetara.

Bestetik, marxismo «klasikoak», ekonomia klasikoak baino ulerkera zabalagoa eskaini zuen lanari dagokionez, soldatapeko lanetik harago doana. Izan ere, gizarteko ekoizpen materialean inplikaturako lan guztiak hartu zituen lan gisa, eta ez soilik truke balioen ekoizpenari lotuta daudenak. Hala eta guztiz ere, XIX. mendean industrializazio kapitalistarekin batera jazotako soldatapeko lanaren hedapen sozialak soldatapeko lanaren esparrua lehenestera eraman zuen marxismoa ere, definizioz bestelako lan formak baztertu ez arren (De la Garza, 2010: 16).

Ildo berean, nahiz eta lanaren kontzeptua zabaltzeko ahaleginak egin diren (Castillo, 2000; De la Garza, 2010; Ghiotto, 2015), lanaren soziologiaren barruan ere autore askok soldadari eskaini diote zentraltasuna gizartea egituratzen duen faktore gisa, eta, horrela, «soldataren gizarte» gisa definitu dute egungo gizartea batzuek (Alonso, 2007: 12; Castel 1997: 7. kapitulua; Miguélez eta Prieto, 1999: XXIV). Soldatak gizartean hartutako posizio pribilegiatuaren ildoan, hauxe dio Weeks autore feministak (2020: 20): «*el trabajo asalariado sigue siendo en la actualidad la pieza clave de los sistemas económicos capitalistas*».

Horren guztiaren ondorioz, sarri askotan lanaren kontzeptua, «soldatapeko lana» eta «enplegua» sinonimo moduan erabili dira, bai maila sozialean, bai akademikoan zein instituzionalean. Baina, egin dugun gogoetaren ostean, «lan harremanak» kontzeptua zuzen erabiliz gero, «soldatapeko lan» edo «enplegu» harremanez ari gara soil soilik. Nolanahi ere, akats kontzeptual horrekin behin eta berriro egin dugu topo literatura akademikoan. Hori dela eta, ikerketa honetan ere, autore erreferentzialen terminologia baliatzean behin baino gehiagotan erreproduzitu dugu akats hori, definizio sozial zabala ematen saiatu eta kontraesan terminologikoa zuzentzeko ahaleginak egin baditugu ere.

Ildo horretan, ekarpen baliotsua egin dute teoria feministek. Besteak beste, soldadari eskainitako zentraltasunak merkatutik kanpo egindako ordaindu gabeko lanen (emakumeen) esplotazioa eta banaketarik eza ezkutatu dituela nabarmendu dute (Federici, 2017: 53; Carrasco, 2017: 56; Fraser, 2014). Auzia da noren ikuspegitik definitzen dugun zentraltasuna: kapitala metatu eta gizartea dominatzen duenaren ikuspegitik? Ala aberastasuna produzitu eta gizartea erreproduzitzen duen langilearen ikuspegitik? Lebowitzek (2005) mahaigaineratzen duen ikuspegi kontrajarrien antibalentzia horretan kokatzen gara «enpleguaren» edo «soldataren» zentraltasunaz hitz egitean. Alde batetik, argi dago ekonomia kapitalistan murgilduta gauden heinean, soldadari itzelezko garrantzia eskaintzen diogula, diru sarrera-iturri izateaz gain, ukatu

ezin den estatusa ematen duelako gizartean. Baina, beste alde batetik, soldatari eskaintako zentraltasun horrek ordaindu gabeko lanen (eta lan hori egiten duten emakumeen) esplotazioa ezkututzen du, eta hori ikusarazi beharra dago.

Esan dugunez, merkatuz kanpoko ordaindu gabeko lanak funtsezko eginkizuna dauka gizarte kapitalistaren erreprodukzioan, eta soldatapeko lanaren produktibitatearen aurrebaldintza da (Fortunati, 2019: 34). Izan ere, merkatuak lan indarraren (erre)produkzioa bermatuko duten gizarte harreman ez merkantilizatuen beharra du (Fraser, 2014: 62). Beraz, kapital-metaketaren prozesuan eta (gain)balioaren produkzioan duen parte hartzeagatik, «produktibo» moduan aintzat hartua izan beharko luke merkatuz kanpoko lanak (Dalla Costa eta James, 1975: 33; Federici, 2017: 23-24; Carrasco, 2017: 59-60), nahiz eta balioa «zeharka» produzitu (Fortunati, 2019: 77).

Hala ere, merkatuz kanpoko lana alboratua izan da kategoria ekonomiko moduan, hori gauzatzen duten lan indarrak ez direlako lan merkatuan saltzen (Carrasco, 2017: 56-57). Bazterketa horretan, lanaren gaineko esplotazio eta dominazio forma bat ezkututzen da (Arruzza, 2010: 150-151). Bada, ekoizpen modu kapitalistak lan formak bereizi ditu, eta sexuen arabera banatu. Bereizketa horretan, erreprodukzio soziala xede duten ordaindu gabeko lanak merkataritza-harremanen baitako produkzioaren beharren menpe jarri dira. Hartara, lan formen bereizketan eta erreprodukzio sozialaren mendekotasunean oinarritzen da genero zapalkuntzaren alderik nabarmenena (Arruzza, Battacharya eta Fraser, 2019: 5. Tesia).

Horregatik, sexuen arteko lan banaketan sustraitzen da gizartea zeharkatzen duen sexu-genero zapalkuntzaren oinarri nagusietako bat. Lan banaketaren bidez, genero rolen bereizketa «indartu, *performatu* eta birsortu» egiten da (Weeks, 2020: 26). Ildo horretan, Fenstermaker-ek dio (1985: 201) etxeko eta esparru pribatuko ordaindu gabeko lanek, ondasun eta zerbitzuak ez ezik generoa bera ere (bir)sortzen dutela. Hori dela eta, lanak funtzio berezia jokatzen du genero identitateetan eta horien hierarkizazioan (Weeks, 2020: 27). Hari beretik, Federicik (2017: 22) soldatak berak sortutako hierarkizazioa azpimarratzen du, hain zuzen ere, «soldataren patriarkatua» sostengatzen duena.

Laburbilduz, batetik, lanak gizarte lotura ezartzen du; bestetik, baina, herritarren arteko berdintasun eza eta hierarkizazioa ere inposatzen ditu. Beraz, lanari egokitzen zaion gizarteratzeko gaitasunak gizarte zapalkuntzarako eta esplotaziorako sistema oso bat ezkututzen du (Ghiotto, 2015).

LANA: GIZARTE DOMINAZIOAREN OINARRIA

Ikusi dugunez, gizarteratzeko oinarrizko kategoria bihurtu den arren, bazterketa, berdintasun eza eta zapalkuntza barnebiltzen ditu lanak. Horregatik, funtzio sozialez gain, lanak funtzio politiko argia ere betetzen du: esplotazioa ahalbidetzen duen gizarte kapitalistaren dominazio sistemaren oinarrietako bat osatzen du (Postone, 2006), bizitza menderatzeko bitarteko bihurtu baita (Ferguson, 2020: 34).

Lan forma ezberdinen artean ezarritako hierarkizazioa eta bazterketa (ezkutuko eta ordaindu gabeko lanei dagokienez) ez dira ordena sozialaren hutsune soilak, sistema sozial kapitalistak bere horretan jarraitzeko ezinbesteko baldintzak baizik, langile klasea⁹ zatitzea ahalbidetzen baitute. Hala, erreprodukzio sozialaren eta merkantzien produkzioaren arteko bereizketa sexista kapitalismoaren tresna da genero zatiketa sustatzeko (Fraser, 2014: 64-65, 71).

Hari beretik, soldatak (edo enpleguak) ezarritako generoen arteko mendekotasunak diziplinatu egiten ditu emakumeak zein gizonak; eta familiaren instituzioak, bere aldetik, «berdintasunean oinarritzen ez den botere banaketa» instituzionalizatzen du. Halatan, emakumeen «soldatagabetasunak eta mendekotasunak gizonak beren lanera lotuta eduki ditu» (Federici, 2017: 58). Izan ere, (soldatapeko) lan kontratuak «famiario aitaren» figura gainerako senideekin lotzen du, eta lan kontratua «kontratu sexual» bihurtzen du, emakumearen eta umeen gorputzen gaineko kontrola famiario aitari ematen diona (Arruzza, 2010: 109).

Bestalde, emakumeek edo atzerritarrek soldatapeko formapean lan egiten dutenean ez dute gizon zurien baldintza bereberean egiten. Horrek esan nahi du langileen arteko hierarkizazioa ez dela soilik lan formen artean jazotzen. Aitzitik, soldatapeko lan formaren barruan ere desoreka nabarmenak daude. Esaterako, feminizatuta edota arrazializatuta egon ohi diren heinean, zaintza- edo erreprodukzio-lanetan eskuratutako soldatak eta lan baldintzak gizonenak edota pertsona zurienak baino askoz okerragoak izaten dira, ez baitaie balio bera aitortzen (Ferguson, 2020).

⁹ Langile klaseaz ari garenean, bizitzeko eta bere burua erreproduzitzeko nahitaez lan egin behar duten, egingo duten (umeak) eta egin duten (jubilatuek) pertsonen osatutako gizarte-talde osoaz ari gara, eta beraz, modu batera edo bestera, esplotazioa jasaten duten subjektuen multzoaz. Subjektua, kasu honetan, subjektu sozial moduan ulertzen dugu. Langile klasea subjektu politiko moduan definituta, klase subjektu sozialaren parte batek edo osotasunak bere burua klase moduan definitu, eta lanaren bidezko esplotazioa gaintzeko hautu politikoa egiten duenean osatzen da.

Lanaren inguruko kritika garatzean, Italiako *obreristek* eta autonomoek ekarpen interesgarria egin zuten lanaren izaera inposatuaren harira: kapitalismoa «merkantzia formaren bitarteko lanaren inposizio-sistema gisa» definitu zuten (Cleaver, 2000: 82). Izan ere, kapitalak bortxaz inposatzen du lana, pertsonen bizitza lanari subordinatuz (Cleaver, 2017: 72). Horrela, kapitalismoaren ernaltzea talde sozial batek beste bati eragindako indarkerian oinarritu da, lan forma kapitalista ezartze aldera. Ondorioz, lanak bitartekaritza soziala gauzatzen du, lanaren eta kapitalaren arteko antagonismoak zeharkatua. Ikuspegi horren arabera, langile klasea lan egitera behartuta dagoen orok osatzen du (Ghiotto, 2015: 287-288). Hori dela eta, lanari uko egitea (*il rifiuto del lavoro*) izan zen autonomoen praktika iraultzailearen oinarria (Negri, 2004: 321; Castellano, 2007: 11-30; Ovidi, 2015: 9, 102). Ondoren, feminista autonomoek etxeko lanetara ere hedatu zuten lanari uko egite hori «Soldatak Etxeko Lanentzat» kanpainarekin (Dalla Costa eta James, 1975: 41; Ovidi, 2015: 102-13; Weeks, 2020: 181-185).

Honaino iritsita, eta labur-labur adierazita, lanaren bidezko zapalkuntza bi modutara gauzatu dela esan dezakegu. Batetik, lan formen eta langileen arteko hierarkia- eta mendekotasun- harremanak ezarrita (Federici, 2017: 58-62; Ferguson, 2020), eta, bestetik, diru sarrera bat jasotzeko, bizitzak eta familiak sostengatzeko beharrezkoa dena baino gehiago langilea lan egitera behartuta. Hori posible izan da lanak hainbat funtzio betetzen dituelako, materialak zein immaterialak, eta langile klaseak lan egin behar duelako behar horiek asebate nahi baditu.

Sindikatuak garai jakin batean eratu eta garatu ziren, hain zuzen ere kapitalismo industrialaren eta Lehen Modernitatearen garaian, soldatapeko langile industrialen interesak defendatzeko antolakuntza modura. Harrez geroztik, soldatapeko langileen «bigarren antolatzaile» gisa, ohiko sindikalismoaren eginkizuna izan da merkaturatutako lanaren bitarteko dominazio esparruaren barruan jardutea. Horrela, soldatapeko langileentzako edota enplegatuentzako baldintza hobeak lortzen ahalegindu dira historikoki sindikatuak. Nolanahi ere, lehen kapitalismo industrialetik bereizten den aroan gaude gaur. Gaurko egunean, bestelako baldintza sozialen testuinguruan, hainbat azterketek nabarmendu dute sindikalismoa dagoeneko indargabeturik dagoela lanaren inposizioan oinarritutako zapalkuntza sistema osoari aurre egiteko, besteak beste, haren ohiko jardun gunea soldatapeko eremura mugaturik egon delako. Ildo horretan, gogora dakarkigu ikerketa honen hipotesietako bat: langile klase osoaren bizi baldintzetan

eragiteko ohiko sindikalismoaren ezintasun gero eta handiagoak bultzatu ditu egungo sindikatuak beren ekintza eta egitasmoak soldatapeko lan eremutik harago eramatera.

ONDORIOAK

Analisian aurrerantzean abiapuntu modura erabiliko dugun lanaren definizioa eskaintzen ahalegindu gara lehen atal honetan. Lana gizarte kapitalistan zentraltasuna hartu duen kategoria sozial gisa definitu dugu, garai historiko espezifiko batean kokatua. Definizio tekniko edota transhistorikoak baztertuta, gizartean eta historian kokatutako lanaren definizioa eskaini dugu, non lanari funtzio sozial jakin batzuk egotzi zaizkion, ekonomikoak nahiz immaterialak.

Hartara, ikusi dugu lanak aberastasuna (abstraktua zein materiala) sortzen duela, gizartea erreproduzitzen duela, norbanakoen eta gizarte kolektiboen identitate osaketan parte hartzen duela, neurri batean, norbanakoak aintzat hartuak sentitzea ahalbidetzen duela, eta, modu partzialean bada ere, herritartasun eta eskubide aukerei lotuta dagoela, besteak beste. Aztertu dugunez, lanak garrantzizko funtzioak betetzen ditu gizarte kohesioan eta gizarte-harreman kapitalisten osaketan. Era berean, nabarmendu dugu lan forma guztiei ez zaiela balio bera aitortu eta, ondorioz, lan batzuek ez dutela integrazio horretarako balio bera izan.

Aitzitik, nabarmendu dugu bazterketa- eta zapalkuntza-sistema sozial oso baten funtsezko oinarria ere badela lana, bai lan formen artean ezarritako hierarkizazioari dagokionez, bai inposaturiko mendekotasun harremanei dagokienez (familiarren eremuan, soldatapeko lanaren eta etxeko lan ordainduaren artean jazotzen dena) (Federici, 2017: 58-62).

Aipaturiko abiapuntu teoriko batzuk zehaztu ondoren, gaur egun lanaren funtzio ekonomikoak eta immaterialak nola betetzen diren aztertuko dugu hurrengo ataletan, 70eko hamarkadatik hona lana antolatzeko moduetan izandako aldaketak azaldu ahal izateko. Izan ere, lanaren gizarte aldaketari buruzko gogoetak egungo sindikalismoaren gorabeheren azterketa sakona egiteko bidea zabalduko digu geroago.

2. LANAREN DIMENTSIO EKONOMIKOA ETA HAREN KRISIA

SARRERA

«Lanaren krisitzat» ezagutu dena hainbat modutan adierazten da; adierazpen horietako bat lanaren funtzio ekonomikoari dagokio. Lanaren betebeharraren dimentsio ekonomikoa azaltzeko, ekonomia politikotik eta berorren kritika marxistatik eratorritako balioaren teoria erabiliko dugu abiapuntu moduan, lanari eman zaion zentraltasun ekonomikoa ulertzeko.

Gizarte-harreman kapitalistak aztertzen dituen heinean, ekonomia politikoak ikuspegi horretatik definitzen du lana ere. Halatan, merkataritza-truke harremanen baitan operatzen duen kategoria gisa ulertzen du lana ekonomia politikoak, merkatuz kanpoko ordaindu gabeko lana kategoria ekonomikotzat jo gabe (Carrasco, 2017: 57). Izan ere, «trukea smithiar gizartearen ardatz gisa agertzen da, eta lana da berorren baldintza» (Méda, 1995: 73). Hala ere, hasiera batean bederen, gure abiapuntu teorikoa ekonomia politikoarena izango da; azken finean, diziplina horrek finkatu zuen lanaren zentraltasun sozioekonomikoa, eta ikuspegi horrek pisu handia izaten jarraitzen du egun ere. Baina, ondoren, erreproduktzio sozialaren teoriaren ekarpenak bilduko ditugu, merkatuz kanpoko ordaindu gabeko lanaren funtzio ekonomikoak ere lantzeko.

Lanaren zentraltasun soziala ikuspegi ekonomiko batetik azalduta, haren krisiaren zergatietan sakonduko dugu, egoera horrek sindikalismoan izan dezakeen eragin posible batzuk aurreikusteko asmoz.

EKONOMIA POLITIKOAREN IRAKASPENAK ETA EKOIZPEN KAPITALISTAREN IZAERA KONTRAESANKORRA

Aipatu dugu Adam Smithek aberastasuna eta balioa sortzeko substantzia moduan kontzeptualizatu zuela lana lehen aldiz. Gerora, Ricardok (1995) «merkantzien arteko balio erlatiboak beren ekoizpenean erantsitako lan kantitate erlatiboek gobernatzen dituela» baieztatu zuen.

Ekonomialari klasikoek, salgaien balioa *neuritu* nahian, haren *substantziarekin* egin zuten topo. Izan ere, salgaiek truke balioa badute, substantzia bera izan behar dute nahitaez. Substantzia hori lana da, eta balioaren neurria horren kantitatearen araberakoa da (Marx, 1975c: 140). Horixe izan zen ekonomia politiko klasikoaren ekarpen nagusienetakoa: lana aberastasunaren iturri eta balioaren *substantzia* gisa zehaztu izana. Modu horretan ezarri

zituzten lanean oinarritutako balioaren teoriaren printzipioak, geroago Marxek birformulatu zituenak.

Aurrerapenak aurrerapen, ekonomialari klasikoek ez zuten balioaren substantziaren, alegia, lanaren izaera soziala ondo ulertu, eta balioaren kontzepzio naturalista edo fisikoa erabili izan zuten, haren alderdi sozialaren ordeztan (Astarita, 2004: 41). Baina, lana ekoizpen iturritzat jotzeak inplikazio sozial handiak ditu. Ildo horretan, Hilferdingek (1974) Marxen balioaren teoriaren izaera soziologikoa nabarmentzen du (Rubin-ek aipatua, 1974), haren analisiak klasikoen balioaren teoria naturalistak gainditu zuelako (Jappe, 2016: 238). Alegia, lanean oinarritutako balioaren teoria marxianoak salerosketetan adierazten diren ekoizpen-harreman sozialak eta bere formak azaleratzen ditu. Beraz, aberastasunak gizartean hartzen duen forma da honen gakoa (truke balioa), betiere eduki edo substantzia material bati lotua (erabilera balioa). Teoria horrekin azaltzen da lan banaketa nola gertatzen den gauzen trukearen bitartez (Rubin, 1974: 120).

Bestalde, Marxek ekonomia politikoaren kategoria nagusiak aztertzean (lana, balioa, merkantzia, kapitala...), diziplina horren kontrako kritika burutu eta balioaren teoria berria formulatu zuen (Mattick, 2014: 126). Honako ondorioak atera zituen: gainbalioak eta irabaziek lanaren esplotazioan dute oinarria (Aragüés, 2013: 6), eta ekoizpen modu kapitalistaren garapenak krisitik igaro behar du, nahitaez (Ruiz Sanjuán, 2014; Mattick, 2014)

Kapitala eta Ekonomia politikoaren kritikari ekarpena liburuetan, Marxek «balioa» eta «merkantzia» kategorien analisitik hasten du ikerketaren aurkezpena. Esaterako, *Kapitalaren* lehen kapituluak zera zehazten du: «Gizartean aberastasuna, zeinetan menderatzen baitu produkzio modu kapitalistak, “merkantzia-bilduma eskerga” [gisa] agertzen da, eta merkantzia indibiduala aberastasun horren forma elemental gisa» (*sic.*) (Marx, 2004: 309). Halaber, gizarte kapitalistan, «lanaren produktuaren merkantzia-forma edo merkantziaren balio-forma forma ekonomiko zelularrak dira» dio (Marx, 2004: 306). Hala ere, aberastasunaren forma ez da «berez» determinatzen, pertsonen arteko harreman sozial espezifiketatik eratorria da.

Marxen ikuspegian, aberastasunaren forma soziala aztertzeko, beharrezkoa da hura bere eduki materialetik bereiztea. Erabilera balioak merkantzia baten eduki materiala osatzen du (Marx, 2000a: 310). Trukatzen diren merkantziek erabilera balio ezberdinak izan behar dituzte ezinbestean, bestela trukeak ez luke zentzurik edukiko. Bi merkantziaren

truke balioa aintzat hartuz egiten da horien arteko konparaketa kuantitatiboa. Gauza batek truke balioa edukitzeko, beste gauza baten truke-balioarekin parekarri egiten duen zerbait («substantzia» bat) izan behar du komunean, eta ezin du propietate geometriko, kimiko edo fisiko bat izan (Marx, 2004: 310-311).

Marxi jarraiki, merkantzia guztien ezaugarri edo substantzia partekatua gizakien lanaren emaitza izatea da, eta horretan oinarritzen da balioa (Marx, 2004: 317). Lan indarraren gastu abstraktua hartzen da kontuan, sortutako erabilera balioen (aberastasunaren eduki materialaren) abstrakzioa eginda. Ondasun baten balioaren magnitudea bere baitan duen lan kantitatea neurtuz zehazten da, lanaren iraupenean oinarrituta. Baina, neurketa hori ez da enpirikoki egiten, sozialki eta abstrakzioaren bidez baizik, merkantzia bat beste batekin alderatuz (Jappe, 2016: 35). Orduan, merkantzien balioen magnitudearen substantzia lan abstraktua da, erabilera balioak sortzen dituen lan konkretuari kontrajartzen zaiona. Lan abstraktu hori da «lana oro har», lana «*sans phrase*» (Marx, 2007a: 25), edozein jarduera (erre)produktibo izendatzeko erabiltzen duguna, nahiz eta momentuz ordaindu gabeko lanak alboratu.

Gizarte kapitalistan horixe bilakatu da «lana» izeneko kategoria, edozein jarduera (erre)produktibo izendatzeko kategoria abstraktua, gizartea egituratzeko gaitasuna bereganatu duena. Baina, lanaren ikuspuntu abstraktua garatzea ezinezkoa da merkataritza-harremanen orokortze sozial barik, gizarte kapitalistan gertatu den bezala (Mandel, 1975: 4; Rosdolsky, 2004: 208-209). Zuzenean merkaturako ez diren lanek ere, etxeko lanek adibidez, merkantziak ekoizten dituzte, lan indarra edo lanerako gaitasuna alegia; baina merkataritza-harremanen baitan jarduten ez dutenez, baztertuak dira, eta haien balioa ukatua (Arruzza, Bhattacharya eta Fraser, 2019).

Marxek eredu kapitalistaren kontraesanak nabarmentzen ditu bere analisisian. Lan konkretuak erabilera balioa sortzen du, eta lan abstraktuak balioa, trukean adierazten dena (Marx, 1980: 33). Horien artean, *erabilera-balioa* da aberastasunaren eduki materiala, eta balioa gizarte kapitalistan aberastasunak hartutako forma dominantea (Astarita, 2016). Hain zuzen ere, erabilera-balioaren eta balioaren arteko bereizketa horrek kontraesanak sortzen ditu ekoizpen kapitalistan. Izan ere, produktibitatea handitzearen ondorioz, aberastasun materialaren gorakada gertatuta ere, balioaren magnitudearen beherakada gerta daiteke, lan kantitate berdinak erabilera balio gehiago sor ditzakeen heinean (Marx, 2004: 319). Mugimendu kontraesankor hori lanaren izaera bikoitzaren ondorioa da: lan

konkretua eta lan abstraktua ditugu, hau da, lanaren eduki tekniko-materiala (konkretua) eta haren forma soziala (abstraktua).

Dualtasun horretan kokatu behar dugu, hain zuzen, ekoizpen modu kapitalistaren muineko izaera kontraesankorra (Jappe, 2016: 42; Grossmann, 1979: 399; Lebowitz, 2005: 127). Kontraesan horiek garatu ahala, gizarteko kategoria sozialak ezbaian jar daitezke, horien artean «lana» bera. Gaur egun, esaterako, inoiz lortu ez den garapen teknikoa lortu da, eta aberastasun material gehiago lan gutxiagorekin ekoiztea ahalbidetu da. Baina, aberastasunak hartutako forma soziala dela-eta (balioa), langabezia eta ezberdintasun sozialak areagotu besterik ez dira egin.

Ildo horretan, beste adibide bat ordainduak ez diren lanek sortzen dute. Bada, aberastasun materialean berebiziko funtzioa duten arren, ez zaie baliorik aitortzen. Langabetu batek lan mordoa egin dezake senideak zaintzen, baina lan konkretu horrek ez du enpleguaren aitorpen bera jasotzen. Kontraesan hori merkataritzan oinarritutako ekoizpen harremanetan sustraitzen da, eta gizarte kapitalistaren krisi estrukturala ulertzen laguntzen du.

Lanaren krisia kontraesan horretara mugatzen ez den arren, bertan dugu lanaren ulerkera horren ezintasunaren adierazpen argia. Alegia, lan (konkretu) mordoa dugu gizartean egiteko, hamaika beharizan material, emozional, kultural eta abar asetzeko. Baina, sarritan, ez dira behar bezala burutzen (ezta aitortzen) edo asetzen, balioaren legeak agintzen duelako egungo gizarte errealitatean aberastasuna ekoizteko edota lan banaketa soziala ezartzeko orduan (Korsch, 1978: 114).

Atal honetan labur-labur ikusi dugu nola azaldu daitekeen «lanean oinarritutako gizartea», Marxen ekonomia politikoaren kritika eta lan balioaren teoriaren ideia nagusiak hartuta. Horren ondorio nagusia hau da: lana gizarte kapitalistaren oinarritzko kategoria bihurtu da, jarduera (erre)produktiboen abstrakzio moduan. Era berean, merkataritzazko ekoizpen harremanen garapenaren ondorioa da lan abstraktua. Ondorioz, lanak bitartekaritza sozialerako berebiziko eginkizuna betetzen du gizarte harremanen baitan (Jappe, 2016: 101).

Hala ere, aberastasunaren eduki materialaren eta haren forma sozialaren arteko bereizketak zenbait kontraesan dakartza, kapitalismoaren krisiaren alderako joera azaltzen dutenak. Horien adierazpena da egun «lanak» gizartearen oinarritzko kategoria legez bizi duen krisia.

SOLDATAPEKO LANAREN ESPLOTAZIOA

SOLDATAPEKO LANAREN GIZARTEAREN ERREPRODUKZIOA

Ikuspegi marxistatik, merkataritza-gizartean, merkataritza-harremanen bidez lortzen ditugu behar fisiko, kultural eta sozial gehienak asetzeko ondasunak (Luxemburg, 2015: 182). Biztanleriaren zati handi batek produkzio baliabiderik ez izatean, ezin du merkantziarik ekoiztu, eta horregatik bere lan indarra saldu behar du (Lebowitz, 2005: 80) soldata baten truke, merkantzia balitz bezala (Luxemburg, 2015: 183). Horrela lortzen dituzte pertsona proletarizatuek beren beharrian orokorrak asetzeko ondasunak (Marx, 2007a: 227).

Proletarizazio prozesuaren bidez, soldatapeko lana «gure gizarteetan bizitzeko beharrezkoak diren baliabide materialak eta immaterialak eskuratzeko nahitaezko jarduera» bihurtu da biztanleriaren gero eta zati handiago batentzat (Freyssenet, 1995: 236-237). Beraz, soldataren bidez, gizarte lanaren emaitzaren zati bat langileei bueltatzen zaie, beren lan indarra erreproduzitzeko (Marx, 2000e: 274). Horrela, langile klasearen eta, beraz, gizarte kapitalistaren erreprodukzioa bermatzen du soldatak.

Ekoizpen bitartekorik gabeko langile desjabetuak bere lan-indarra edo -gaitasuna saltzen du soldata baten truke. Baina, nola zehazten da lan indarraren balioa? Bada, gainerako merkantziak bezalaxe: lan indarraren balioa bere ekoizpenerako sozialki beharrezkoa den lan kopuruak zehazten du (Marx, 2000a: 229), hau da, lan indarra erreproduzitzeko «bizitzeko beharrezkoak diren ondasunen multzoaren» baliokidea da (Marx, 2000a: 231). Multzo hori aldatu egiten da baldintza sozial eta historikoen arabera (Lebowitz, 2005: 77-79), hau da, garaian garaiko eta tokian tokiko langileen bizi mailaren eta borroken arabera (Martínez eta Burgueño, 2019: 105). Adibidez, etxeko argindarra eta ur korrontea lehen luxutzat hartzen ziren, baina orain oinarritzko ondasunak dira Mendebaldean.

Soldatak ez du inolaz ere lana ordaintzen, langileek beren existentzia erreproduzitzeko behar dituzten baliabideen balioa baizik. Lana bera ez da soldata baten truke saltzen, lan indarra baizik (Hyman, 2001: 10), hau da, lanerako gaitasuna edo prestasuna. Hala ere, soldatak ez du ordaintzen lan-indarra (erre)produzitzeko beharrezkoa den lan guztiaren balioa. Ildo horretan, Vogelek (2013: 158-159) beharrezko lanaren bi osagai bereizten ditu: kontsumo ondasunak ekoizteko lana («beharrezko lanaren osagai soziala») eta etxeko ordaindu gabeko lana (beharrezko lanaren «etxeko osagaia»). Beharrezko lanaren

osotasuna osatzen dute biek, baina Marxek ez du kontuan hartzen bigarrena (Vogel, 2013: 159).

Bestalde, soldata ez da osatzen langileek hilaren amaieran jasotzen duten nominarekin soilik. Soldata zuzen moduan har dezakegu nomina, baina badira zeharkako soldata (gizarte-zerbitzuen eta gizarte-segurantzaren bidez jasotzen dena) eta soldata geroratua (erretiroarekin jasotzen dena) ere (Kaiero, 1999: 91). Diru sarrera eta zerbitzu horiek guztiek osatzen dute soldata.

Gizarte ekoizpenaren produktua banatzeko forma izateaz gain (Marx, 2000e: 353), soldatapeko lanak edo enpleguak aukera ematen diote langileari aitortutako toki bat betetzeko ekoizpen sisteman eta gizartean, eskubide subjektu gisa. Diru sarrera izateaz gain, soldatapeko lanak, «enplegu» bihurtuta, eskubideak ematen dizkie merkaturatutako langileei, eta horiek gabe ia ezinezkoa da bizitza normala izatea (Castel, 2003; Alonso, 2007; Méda, 2018). Aldiz, merkatuz kanpoko ordaindu gabeko lanek ez dituzte eskubide horiek ematen, eta etxeko langileek (emakumeak, gehienbat) «kontratu sexuala» behar izaten dute beroriek jasotzeko (Arruzza, 2010: 109; Pateman, 2019).

Ekoizpen kapitalistak «giza bizitzarako baldintza materialen» erreprodukzioa bermatzen du soldataren bitartez, eta, horrela, prozesu horretan parte hartzen duten langileen baldintza materialak erreproduzitzea ahalbidetzen du (Marx, 2000e: 270). Aberastasuna lanak sortzen duenez, lan indarra erreproduzitzea ezinbesteko baldintza da kapitala eta gizarte-harreman kapitalistak erreproduzitzeko (Lebowitz, 2005: 111, 123). Bestela, ez litzateke aberastasunik sortuko, eta horixe da soldataren xedea. Hain zuzen ere, ekoizpen harreman kapitalisten barruan, sindikatuen funtsezko zeregina izan da kohesio sozialari eustea ahalbidetuko duen aberastasunaren birbanaketa zuzenagoa lortzea, langileen lan-eta bizi- baldintzak hobetuz (Calleja, 2016b: 293). Era berean, argi dago lan indarra ezin dela erreproduzitu merkatuz kanpoko ordaindu gabeko lanik barik. Horregatik, beharrezkoa da feminismoak gizarte erreprodukzioaren teorian egiten dituen ekarpenak aintzat hartzea, lan forma guztien funtzio ekonomikoen ikuspegi osoagoa izateko.

LANAREN ETA KAPITALAREN ARTEKO TRUKE EZA

Dimentsio ekonomikoari dagokionez, krisi kapitalista ekoizpen-modu kapitalistaren barne kontraesanen adierazpena da, non aberastasun materialaren ekoizpenean balioaren legeak eta kapitalaren balorizazio beharrek agintzen duten. Ildo horretan, «lanaren» krisiaren dimentsio ekonomikoa, krisi kapitalistaren azalratze formatzat jotzen dugu.

Lan indarraren salerosketa ezinbestekoa da kapitala produzitzeko, lan indarra baita balioa sor dezakeen merkantzia bakarra. Horixe da lan indarraren erabilera-balioa: balioa sortzea (Luxemburg, 2015: 184). Ekoizpen kapitalista, hain zuzen, lan indarra merkaturatzen den unean sortzen da, ekoizpen bitartekoen jabeak merkatuan lan indarra saldu nahi duen langilearekin topo egiten duenean (Marx, 2000a: 229). Lan indarra erostean, kapitalistak besteren (soldatapeko) lanaren gaineko agintea edo eskumena lortzen du (Lebowitz, 2005: 49; Marx, 2007a: 224). Hala, langileak ekoizten duen guztia kapitalistaren eskuetara doa, soldata-harremanaren bitartez lanaren produktuaren jabetza-eskubidea erosten baitu (Marx, 2007a: 249). Horretan oinarritzen da lanaren esplotazio kapitalista. Hartara, ekoizpen kapitalista besteren (soldatapeko) lana bereganatzean oinarritzen da, lanaren lapurretan alegia. Marxek ebasketa hori soldatapeko lanaren analisisira mugatu zuen; baina, lapurreta are handiagoa da merkatuz kanpoko ordaindu gabeko lanean, azken horretan langileek ez baitute ezta soldata jasotzeko eskubiderik ere.

Soldatak lan indarraren erreprodukzioaren zati bat ordaintzen du (haren erreprodukzioarako ondasunen balioa), eta ordainetan langilearen lanaren balio osoa eskuratzen du kapitalistak. Horrenbestez, ez dago kapitalaren eta lanaren arteko truke harremanik, lana bera ez delako merkantzia moduan saltzen (Hyman, 2001: 10). Hori kontuan hartzea beharrezkoa da gainbalioa nondik sortzen den ulertzeko, bestela ez litzateke lanaren esplotaziorik existituko. Hala, gainbalioa sortzeko, egindako lanagatik jasotako soldatak baino balio handiago ekoizten du langileak, eta horrek dakarzkio irabaziak kapitalistari. Jakina, kapitalistak ahalik eta gainbaliorik handiena eta ahalik eta soldatarik txikiena lortu nahi izango ditu; ostera, langileak ahalik eta soldata altuena erdiestea bilatuko du.

Beraz, lana ezinbestekoa da balioa sortzeko, eta lan indarra da hori egin dezakeen merkantzia bakarra. Hala ere, lanak ez du balioa edozein baldintzatan sortzen. Izan ere, gainbalioa sortzea ahalbidetu behar badu, besteren lanaren «ebasketa» egon behar du. Ildo horretan, ohiko sindikalismoak soldatapeko harremanen esparru horretan jardun du gehienetan, langileentzat ahalik eta lan- eta soldata-baldintzarik onenak lortzen saiatuz.

MERKATUZ KANPOKO ORDAINDU GABEKO LANEN FUNTZIO EKONOMIKOA ETA ESPLOTAZIOA

Esana dugu Marxen ustez soldatak merkaturako lan indarraren balioa ordezkatzeko duela, hau da, lan indarraren (erre)produkzioarako beharrezko lan kantitatea. Hala ere, soldatak ez du lan kantitate horren balioaren osotasuna ordaintzen. Izan ere, Vogeli (2013 : 158-

159) jarraiki, lan indarraren (erre)produkziorako beharrezko lanean, bi osagai bereizten ditugu: kontsumo ondasunak ekoiztera bideratutako lana («*the social component of necessary labour*») eta merkaturako ez den ordaindu gabeko lana («*the domestic component of necessary labour*»). Marxek ez du bigarren osagai hori kontuan hartzen, esaten duenean «lan indarra produzitzeko beharrezko lan denbora bizibideen produkziorako beharrezko lan denborara mugatzen» dela (Marx, 2000a: 229). Hartara, langilearen eta gizartearen erreprodukziorako beharrezkoa den lan-denbora guztia ordaintzen du soldatak, benetan? Argi eta garbi, ez. Soldatak ez du inoiz lana ordaintzen. Merkatuan lortzekoak diren ondasun eta zerbitzuen balioa besterik ez du ordaintzen (Federici, 2013, 2017; Vogel, 2013: 158-159; Weeks, 2020).

Aurreko kapituluan esan dugunez, merkatuz kanpo egiten diren lanak (soldatarik gabekoak) funtsezkoak dira soldatapeko lan indarraren, langilearen familiaren, langile klasearen eta, oro har, gizarte kapitalistaren erreprodukziorako. Hala, familia lan indarraren erreprodukziorako eta mantenuerako eremu instituzionalizatu bilakatu da luzaroan kapitalismoan; hain zuzen ere, eremu horretan gauzatzen da, besteak beste, emakumeen zapalkuntza (Martínez eta Burgueño, 2019: 104).

Horiek horrela, merkatuz kanpoko lanak nagusiki familiaren esparru instituzionalizatuan burutzen direla eta, ez da zuzena esatea lan horiek merkatuan eta ekonomian eragiten ez dutenik. Kontrara, kapitalaren balorizaziorako funtsezko merkantzia (erre)produzitzen dute, lan indarra bera. Baina, lan indarraren erreprodukzioa beharrezkoa bada ere, aldi berean, beharrezkoa du lan indarra (bir)sortzen dutenen bizi baldintzak hertsatzea ere (Ferguson, 2020: 140), eta horrek erresistentzia sozialak eragiten ditu. Hori dela eta, Vogel (2013: 163) arabera, «*from the point of view of capital, domestic labour is simultaneously indispensable and an obstacle to accumulation*».

Gizonaren soldatak, berez, haren mende dagoen familia osoaren erreprodukziorako hornidura bermatu beharko luke, «ezinbestekoa baita familiaren iraupenerako» (Federici, 2017: 58). Modu horretara, gizarteko lan osoaren esplotazioa ezkutatzeaz gain, soldatak emakumeen (edo emazteen) diziplinamendurako tresna gisa ere funtzionatzen du, familiaren instituzionalizazioa dela medio. Izan ere, familiaren barruan gizonari egotzi izan zaio diru sarrerak banatzeko ahalmena. Horrela, familia izan da sexuen araberako lan banaketa gauzatu duen instituzioa produkzio kapitalistan, gizonak (soldatapeko) lantokira bidaliz eta emakumeak luzaroan etxe lanen eremu pribatura zokoratuz eta «kapitalismoko balio zirkuitu zuzenetatik kanpo» mantenduz (Ferguson, 2020: 37).

Beraz, erreproduzio sozialera bideratutako lana produkzio kapitalistaren beharretara azpiratuta aurkitzen da, baina ezinbesteko premia hori ezkutatua eta ukatua izan da (Arruzza, Bhattacharya eta Fraser, 2019).

Hierarkizazio eta mendekotasun horren ondoriozko (soldatapeko) lan baldintzen prekarizazioak langile klase osoaren bizi mailaren narriatzea ekarri du, baina, modu berezian, ordainsaririk gabeko langileena, hau da, emakumeena. Izan ere, langile horiek ez dute soldata zuzenean jasotzeko eskubidea ematen duen «lan kontraturik» izan.

LANAREN KRISIA: KAPITALISMOAREN BARNE KONTRAESANEN ONDORIOA

Ikusi dugun legez, lana abian jarrita balorizatzen du kapitalak bere burua. Bestalde, soldatapeko langileak bere lan indarra saldu behar du, bere buruaren eta familiaren hornidurarako ondasunak lortzeko. Horiek horrela, lanak, forma ezberdinen pean, aberastasuna sortzea eta gizartea erreproduzitzea hartzen ditu funtzio ekonomiko nagusizat.

Dena den, lanaren esplotazioaren bidezko kapitalaren ekoizpenak etengabe krisira bultzatzen duten hainbat kontraesan sortzen ditu bere barnean. Krisi ekonomikoa, hain zuzen ere, barne kontraesan horien ondorioa da, kapitalaren errentagarritasuna murriztea eragiten duena (besteak beste, «irabazi tasaren beheranzko joeraren» legearen ondorioz). Errentagarritasuna murrizten denean, kapitalaren balorizazioa eten egiten da, eta orduan azaleratzen da krisia (ikusi Grossmann, 1979; Shaikh, 1990: 53-57; Marx, 2000e: 277-304; Tapia eta Astarita, 2011: 175-212; Mattick, 2014: 125-177; Roberts, 2017).

Horrelako egoeretatik irteteko, kapitalak krisiaren kontrako zenbait mekanismo baliatzen ditu (Grossmann, 1979; Shaikh, 1990; Marx, 2000d: 277-350). Besteak beste, errentagarria ez den kapitala desbalorizatzen du, tartean lan indarra, gainbalioa edota lanaren esplotazio maila handitzeko. Asmo hori burutzeko erabilitako mekanismo nagusiek soldatak jaistea, lan baldintzak prekarizatzea eta langileak kaleratzea izaten dituzte ondorio nagusi¹⁰. Hori dela eta, krisia, lan baldintzen okertze eta langabeziaren igotze legez bizi izaten da. Kapitala balorizatzeko irabazi faltan dauka bere jatorria krisiak, eta ez azpikontsumoan edo gainprodukzioan, maiz horrela azaleratzen bada ere

¹⁰ Asko sinplifikatzen ari gara, langileen egoeran atzematen diren ondorioak nabarmentzeko. Krisiaren kontrako mekanismoetan sakontzeko Marxengana (Marx, 2000e: 277-316) edota Grossmannengana (1979) jotzea gomendatzen dugu.

(Mattick, 1978a, 2014; Grossmann, 1979; Tapia eta Astarita, 2011). Halaber, krisi koiunturala «prozesu sendatzailea» izan ohi da, kapitalaren balorizazioa berrezartzeko (Grossmann, 1979: 125). Baina, kapitalismoa eta kapitalismoaren produktibitatea garatu ahala, haren kontraesanak ere sakondu egiten dira. Une jakin batetik aurrera, ekoizpen indarren garapenak oztopatu egiten du kapitalaren balorizazioa, hura ahalbidetu beharrean (Marx, 2007b: 281). Jazoera horrek ekoizpen-modu kapitalistaren muga historikoen existentzia posiblea mahaigaineratzen du (Mattick, 2014: 144).

Grossmann-en (1979) eta Mattick-en (1978b) ustetan, nahitaez helduko da historian momentu bat zeinetan, kapitalaren balorizazioa berrezarri ezinik, krisi koiunturalak iraunkor bilakatuko diren, eta kapitalismoa gainbehera fasean sartuko den. Horren ondorio nagusiak lirateke gizartearen pobretze erlatiboa absolutu bihurtzea, langabezia estrukturala handitzea, soldata errealak (erosahalmena) jaiste eta, oro har, gizarteko lan-eta bizi-baldintzen prekarizazioa gero eta handiagoa izatea. Roberts-en ustez (2017), kapitalismoaren krisiaren fase iraunkorrean murgilduta gaude dagoeneko. Ondorioz, haren iritziz, gizarte kapitalistako bizi baldintzek txarrera baino ez dute eginen, gizartearen erreprodukzioa bera kolokan jarri arte.

Ordea, langile klasearen erreprodukzioa kapitalaren balorizaziorako baldintza iraunkorra da (Marx, 2000c: 17), lan indarra salduko duten pertsonak egotea bermatzen duelako. Horretarako, beharrezkoa da sozialki ezarritako beharrianak asetzea. Hori gertatu ezean, ogibidea lortzeko bestelako ekoizpen harremanak eraikitzeke desioa eta beharra areagotuko litzateke, eta lanean oinarritutako dominazio sistema kolokan ipini.

MENDEBALDEKO GIZARTEETAKO POBRETZE PROZESUA

Robertsek (2017) krisi fasera heldu garela baieztatu arren, zaila egiten zaigu termino ekonomikoetan iritzi hori berrestea. Baina egia da gaurko gizarte kapitalistaren arazo estrukturalak era askotara ulertu behar direla (arazo erreproduktiboak eta iraunkortasunari lotutakoak, auzi ekologikoak nahiz kulturalak, besteak beste) eta horiek okerrera doazela. Hortaz, zilegi litzateke gizarte kapitalistaren krisi estruktural eta multifazetikoaz hitz egitea gaur egun. «Lanaren krisia» gizarte kapitalistaren krisi estrukturalaren askotariko aurpegietako bat da (Etxebarria, 2019). Izan ere, hainbat autore bat etorri da dagoeneko

«krisi sistemiko eta zibilizaziozko» baten aurrean gaudela esatean (Agenjo, 2021: 153)¹¹; lanaren krisiaren dimentsio ekonomikoa horren adierazpenetako bat da.

Idea hori aintzat hartuta, jarraian lanaren krisiaren dimentsio ekonomikoa atzemateko zenbait datu adierazgarri eskainiko ditugu, soldata maila eta (soldatapeko) lan kontratuen modalitateei eta irabazi tasen mailari dagozkienak. Datu horien arabera, 1980ko hamarkadatik aurrera izandako oldarraldi neoliberalaren eta metaketa-eredu postfordistaren ondorioz, pobretze prozesu erlatiboa jazo da langile klase osoaren barnean; baita pobretze absolutua ere, neurri batean. Horrek arazoak sortu ditu gizartearen bizi baldintzen erreprodukzioan, eta «erreprodukzio krisi» bat ekarri du. 1980ko hamarkadaz geroztik, merkatuen globalizazioarekin eta Mendebaldeko Estatu arautzaileen gainbeherarekin batera, lan-merkatu kapitalistaren araugabetzea, soldaten gaineko kontrol murriztailea, lan diziplina zorrotzagoa eta erreprodukzio eremuaren merkantilizazioa sustatu zuten gobernu neoliberalek. Modu horretara, lanaren intentsitatea areagotu eta lanaldia luzatu zuten (Cámara, 2015a: 109). Shaikhen (1990: 226, 233) arabera, kapitalismoaren biziraupenerako ezinbesteko neurriak ziren horiek, kapitalaren irabazi tasaren beheranzko joera indargabetzeko.

Aipatu aldaketa erakusten duten bizi baldintzen gainbeheraren hainbat adierazle daude. Idazlan honetan adierazgarrienak hartu ditugu: soldata erlatiboak, soldata errealak (erosahalmena), langabezia, kontratu modalitateen prekarizazioa, eta irabazi tasen jaitsiera. Egia esan, bizi baldintzen pobretzearen gaiak tesi oso bat lantzeko aukera ematen du, baina gure helburua prozesu horren ikuspegi orokorra ematea baino ez da¹².

SOLDATA ERLATIBOAK

Soldata nominala edo erreala ez bezala, soldata erlatiboa honako hau da: lanak sortutako balio osotik, langileari soldata bidez doakion aberastasun sozialaren proportzioa (Marx, data barik [1849]: 22). Adierazle horren gorabeherak aztertu daitezke BPGtik¹³ edo


¹¹ Agenjok (2021: 153) zenbait autore aipatzen ditu «krisi sistemiko eta zibilizaziozkoaren» ideiarene defendatzaile legez, horien artean: Acosta (2010), Echeverria (2010), Pérez-Orozco (2014), Fernández-Durán eta González (2014), León (2014), Carrasco (2016), Fernández-Ortiz de Zárate, (2016) eta Gálvez et al. (2016).

¹² Lan eta bizi baldintzen okertze prozesuan eta hori baieztatzen duten datuetan sakontzeko, Salazerren tesira (2017) jotzea gomendatzen dugu.

¹³ Barne Produktu Gordina

ekoiztiko balio erantsitik jasota, soldatei egokitutako portzentajeari so eginez.¹⁴ ELGaren¹⁵ (2008: 38) arabera, 1976tik 2007ra bitartean, balio erantsitik soldatei egokitu zitzaien portzentajea % 67tik % 57ra jaitsi zen. Espainiako Estatuan ere, soldata erlatiboen maila, AMECOren¹⁶ datuen arabera, 1960tik aurrera jasotako baxuenak izan ziren 2017an eta 2020an (ikusi 2.1. irudia). Harrez geroztik, zertxobait igo eta jaitsi dira, baina joera beheranzkoa da betiere.

2.1. Soldaten parte hartze doitua ekonomian (soldaten portzentajea BPGan, kostu faktoreak kontuan hartuta)



Datu iturria: AMECO. Egileak osaturikoa.

Halaber, soldaten murrizketak ez du soldatapeko lan guztietan neurri berean eragin. Izan ere, ELGaren (2012: 118) arabera, 1990etik aurrera ELGako biztanleriaren gehiengo handiaren soldatak jaitsi edo mantendu egin ziren ia herrialde guztietan, soldata altuenak dituen biztanleriaren % 1en diru sarrerak % 20 igo zirelarik.

¹⁴ BPGa moduko adierazle ekonomikoek ez dute sortutako aberastasun sozial osoa neurtzeko balio. Hala ere, ekonomian gehien erabiltzen den datuetako bat da. Aurrerago ahaleginduko gara abertastasun erreala hobeto islatzen duten adierazleak eskaintzen.

¹⁵ Ekonomi Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea (OCDE, Organisation de Coopération et de Développement Économiques)

¹⁶ AMECO (Annual macro-economic database of the European Commission's Directorate General for Economic and Financial Affairs) Europar Batzordearen makro-economia datu-basea da.

Hego Euskal Herrian, soldata erlatiboen joera antzekoa izan da azken hamarkadetan. 1993an EAEn¹⁷, BPGaren % 54,7 bideratzen zen lan errentetara (Manu Robles-Aranguiz Fundazioa (MRAF), 2006: 4), 2015ean, ordea, % 46,7 EAEn eta % 46,9 Nafarroan (MRAF, 2017: 5-6), eta 2018an % 45,81 EAEn eta % 45,18 Nafarroan (Ipar Hegoa Fundazioa, 2020: 34). 2008ko krisiaz geroztik, kapitalaren errentek Hego Euskal Herrian 380 milioi euroko galerak izan bazituzten ere, ia 1.600 milioikoak izan ziren soldatenak (Alabort, Zubiri, 2019).

Oro har, datuek erakusten digute lanaren errenten etengabeko transferentzia gertatu dela kapitalaren alde, ezberdintasun sozialak areagotu egin direla mundu osoan (Tapia eta Astarita, 2011: 257-260), eta langile klasearen pobretze erlatiboa gertatu dela, soldatei egokitutako BPGaren edo balio erantsiaren atala gero eta txikiagoa delarik.

SOLDATA ERREALAK


Esanak esan, zailagoa da soldata errealen (hau da, erosahalmenaren) jaitsiera atzematea, soldataren gorabeherek modu ezberdinetan eragiten baitute soldatapeko kolektiboetan. Hala ere, eskura ditugun informazioek datu esanguratsuak eskaintzen dizkigute Mendebaldeko gizarteen balizko pobretze prozesuaren inguruan.

Adibidez, AEBn¹⁸, 1973 eta 2011 urteen artean, produktibitatea baino geldoago hazteaz gain (horrek jaitsiera erlatiboa dakar, berez), soldatak modu absolutuan ere jaitsi zirela egiaztatzen du Cámarak (2015a: 108-109). Bada, langileen % 20 aberatsena alboratzen baldin badugu, gainerako langileen soldata errealak % 16 baino gehiago murriztu ziren 1973tik 1995era. Murrizketa hori gerora lausotu egin bada ere, soldatak ez dira sekula 1973ko mailara itzuli (ikusi 2.2. irudia).

¹⁷ Euskal Autonomia Erkidegoa

¹⁸ Amerikako Estatu Batuak

2.2. AEBetako soldata erreala orduko, 2005eko dolar konstanteak (1947-2011)



Fuente: National Income and Product Accounts de la Bureau of Economic Analysis y Current Employment Survey de la Bureau of Labor Statistics (BLS). Los datos del salario horario real de los asalariados se han calculado suponiendo una jornada de trabajo anual constante a lo largo del periodo de 1550 horas.


Hemendik erreproduzitua: Cámara (2015b: 8)

Halaber, langile guztiak kontuan hartuta, soldata errealen batez bestekoa igo egin da. Baina igoera horrek soldatadunen parte aberatsenari soilik egin dio mesede (enpresazuzendari soldatapekoak, esaterako) (Cámara, 2015a: 109). Hortaz, diru sarreren banaketan jazotako berdintasun ezak handitu egin dira AEBetan.

Europako ekonomiei dagokienez, bataz besteko soldata errealen igoera metatua % 5,5ekoa izan arren, diru sarrera guztien igoera metatua % 24koa izan da. Izan ere, diru sarreren batez bestekoaren hazkundeak batez ere jabetzari lotutako errentei egin die mesede, gainbalio tasaren igoeraren ondorioz (Murillo eta Del Rosal, 2015: 154).

Espainiako Estatuan, AEBetako eta Europako datuekin bat eginez, Salazarrek (2017: 246) hiru joera bereizi ditu soldaten artean, *Muestra Continua de Vidas Laborales* izeneko azterketak 2005 eta 2015 urteen tarterako jasotako datuak kontuan hartuta. Lehenik, dezil altuenean kokatzen direnen soldatak igo egin dira. Bigarrenik, 50 eta 90 perzentilen artean kokatzen diren langileen soldatak beren horretan gelditu dira. Azkenik, soldata baxuenak jasotzen dituzten langileen erdiak bere diru-sarreren jaitziera pairatu du (ikusi 2.3. irudia).

2.3. Soldataren bilakaera dezilen arabera Espainiako Estatua (2005 eta 2014)



Fuente: Muestra Continua de Vidas Laborales (Ministerio de Empleo y Seguridad Social).

Hemendik erreproduzituta: Salazar (2017: 246)

Oro har, Mendebaldeko herrialde guztietan gertatzen da joera bera. Gero eta berdintasun gutxiago dago diru sarrereren banaketan. Beraz, soldaten erosahalmenaren batez bestekoa igo baldin bada ere, soldata altuenen eraginagatik izan da.

Hego Euskal Herriari dagokionez, BAiren arabera, 2008tik 2015era soldata nominalen batez bestekoa % 8 igo da Nafarroan, eta % 6,2 EAEn. Estatuko Kontsumo Prezioen Indizea (KPI) tarte horretan %10 igo dela kontuan hartuta, soldaten erosahalmena jaitsi egin da nabarmenki (MRAF¹⁹, 2017: 3-4).

Erosahalmenaren datuak okerragoak dira 2019ko *Análisis relación entre salarios y vivienda en alquiler* txosteneko datuei erreparatzen badiegu. Espainiako Estatuan, 2015etik 2019ra alokairuaren prezioak % 45 igo ziren, % 31 EAEn eta % 24 Nafarroan. Urteko soldata gordinak (nominalak), aipatutako hiru lurralde eremuetan (Espainian, EAEn eta Nafarroan), % 3,4, % 4,8 eta % 3,8 baino ez ziren igo, hurrenez hurren. Ondorioz, 2015ean espainiar batek diru-sarrereren % 28 gastatzen zuen alokairuan eta % 40 2019an; EAEn, diru-sarrereren % 41 2015ean, eta % 51 2019an; Nafarroan, % 28 2015ean eta % 34 2019an (Fotocasa, Infojobs, 2019). Hau da, Espainiako Estatu osoan eta Hego Euskal Herrian, azken urteotako alokairuen igoerak eragin handia izan du maizterren erosahalmenaren narriatzean.

¹⁹ Manu Robles-Aranguiz Fundazioa.

Jakina, ezberdintasun oso sakonak jazotzen dira gizarte kolektiboen arteko errenta mailen artean. Izan ere, sexu-generoa kontuan hartzen badugu, % 24,3ko arrakala zegoen EAEn 2015ean, 2009ko datuetan baino 2,2 puntu gorago (Emakunde, 2018: 4).


Dena den, soldata errearen datu horiek ez dute soldataren osotasunaren gorabeherak ulertzeko balio. Izan ere, soldataren ikuspegi osoa izateko soldata zeharkakoen (zerbitzu sozialen bidez jasotzen direnak, esaterako) eta diferituen (pentsioak) mailak ere kontuan hartu beharko genituzke.

LANGABEZIA

Bizi baldintzen okertzea edo pobretzea langabeziaren gorabeheretan ere atzeman dezakegu. Izan ere, gizarte kapitalistan ongizate soziala lan merkatuaren gorabehereti lotuta dago, hein handi batean. Era berean, litekeena da soldaten igoera langabezia tasaren igoerak lagunduta gertatzea.

Espainiako Estatuan, Biztanleria Aktiboko Inkesten txostenek eskainitako datuetatik abiatuz, 4. irudian ikus dezakegu langabeziaren tasak oso gorabeheratsuak izan direla Espainiako Estatuan eta Hego Euskal Herriko lurraldeetan. Oro har, 1980ko hamarkadako industria krisiaren ondoren, ez da 70eko langabezia-maila lortu. Harrezkero, Estatuan langabezia-mailak oso gorabeheratsuak izan dira. EAERI dagokionez, 1980ko krisi sakonetik irten eta ostean, sekula ez da atzeman 70eko hamarkadako langabezia-mailara iristea. Nafarroako egoera apur bat egonkorragoa da Estatuko eta EAeko egoerekin alderatuta (ikus 2.4. irudia).

2.4. Langabezia tasak Espainiako Estatuan, Nafarroan eta EAEn (1976-2021)



Datu iturria: : Instituto Nacional de Estadística (INE) Encuesta de Población Activa. Egileak osaturikoa

Oharrak:

2001ean aldaketa jazo zen langabetuak definitzeko orduan.

Datu kopurua laburtzeko, urte bakoitzeko hirugarren hiruhilabeteko datuak jaso dira. 2021eko langabezia tasa lehen hiruhilabetekoa da.

Horiek horrela, langabezia-maila altua estrukturala bihurtu da, oparotasun ekonomiko garaietan soilik lortzen baita langabeziaren langa % 5-10 mailara murriztea. Bestalde, kontuan hartu behar da 90eko hamarkadatik aurrera aldi baterako eta lanaldi partzialeko kontratuek gorakada itzela izan dutela. Hortaz, langabezia-maila (soldatapeko) lan prekarietatearen bidez ezkutatu da, kontratu eredu prekarioak ugaltu egin baitira.

Izan ere, EBZek²⁰ berak (2018) ohartarazten du egoera datu ofizialek adierazten dutena baino okerragoa dela. Bada, datu ofizialek Nazioarteko Lan Erakundeak (NLE – CMT) eskaintako langabeziaren definizioa erabiltzen dute. Definizio horrek «langabetu» legez har daitezkeen zenbait langile kategoria hartatik kanpo uzten ditu; esaterako, lanik bilatzen ez duten langabetu etsituak edo, lanaldi partzian egonda, denbora gehiagoz


²⁰ Europako Banku Zentrala

lan egingo luketenak (Salazar, 2017: 216). Langabetu mota horiek aintzat hartuta, 2017an langabezia erreala % 30ekoa izan zen Espainiako Estatuan (Suárez, 2017).

Soldatapeko emakume langileen artean, langabeziaren egoera askoz latzagoa izan zen 80ko hamarkadan. Informazio adierazgarri moduan, EAEko datuak bildu ditugu (ikusi 2.5. irudia). Irudian ikus dezakegunez, gizonen eta emakumeen arteko aldea lausotu egin da. Hala ere, goian aipatu bezala, langabezia-tasaren jaitsierak kontratu ereduen prekarizazioa ezkututzen du, emakumeen kasuan batez ere. Gainera, grafikoan ez dira kontuan hartzen ordainsaririk gabeko etxeko langile izatera beharturik aritu diren emakumeak.

Bestalde, aintzat hartzekoa da langabezia-tasatik kanpo dauden langile «ez aktiboen» (*sic.*) feminizazioa. Izan ere, ordaindu gabeko lanak direla medio, «ez aktibotzat» jotzen diren langileen % 91 emakumeak dira Hego Euskal Herrian (Goikoetxea et al., 2020: 31). Horrek esan nahi du «merkaturako» lanerako sarrera egotzita duen gehiengo oso zabala emakumezkoa dela, emakumeek hartzen baitute etxeko edota zaintza lanen ardura, gehienetan behartuta edo beste aukerarik ez dutelako.

2.5. EAEko gizonen eta emakumeen langabezia-tasak (1976-2021)



Datu iturria: Instituto Nacional de Estadística (INE) Encuesta de Población Activa. Egileak osaturikoa

Oharrak:

2001ean aldaketa jazo zen langabetuak definitzeko orduan.


Datu kopurua laburtzeko, urte bakoitzeko hirugarren hiruhilabeteko datuak jaso dira. 2021eko langabezia-tasa lehen hiruhilabetekoa da.

Esan dugun bezala, langabezia estruktural bilakatu da 80ko hamarkadatik hona, *ohikoa* baita langabezia-maila jakin bat mantentzea etengabe. Bestalde, langabezia-tasaren eta soldaten datuak ez dira nahikoak langile klasearen bizi baldintzen gorabeherak atzemateko. Hori erakusteko beste modu bat kontratu motak aztertzea da, eta bereiztea aldi baterakoak ala finkoak, eta lanaldi partzialekoak ala osokoak diren kontratu horiek.

KONTRATU MODALITATEEN PREKARIZAZIOA: ALDI BATERAKO ETA LANALDI PARTZIALEKO KONTRATUAK

Espainiako Estatuan 80ko hamarkadako erreformekin batera hasi ziren ezartzen aldi baterako lan kontratuak. 1994ko lan erreformaz geroztik, eredu hori egonkortuz eta zabalduz joan da (Salazar, 2017: 233). Ondorioz, borondatezkoak ez diren aldi baterako kontratuen tasa Europako altuena da Espainian (% 85ekoa 2008ko krisia baino lehen, eta % 90ekoa, ondoren) (ikus 2.6. irudia) (Salazar, 2017: 237). Horrek prekarizazio itzela ekarri du langileen bizitzara. Izan ere, kontratu horiek ez dira gai langileari egonkortasuna eta segurtasun ekonomikoa eskaintzeko. Beraz, gero eta ziurgabetasun handiagoa dago soldatepeko langile-kolektibo prekarizatuenen artean.

2.6. Kontratu egonkor eta aldi baterakoen kopuruak eta urtetik urterako bariazioak



Iturria: Encuesta de Coyuntura Laboral. Ministerio de Empleo y Seguridad Social. Salazar (2017: 233) lanetik erreproduzita.

Oharra: Aldaketa metodologikoa jazo zen 1996an

Zalantzarik ez, soldatapeko lan baldintzen okertzearen arrazoi nagusietakoa azken urteetako aldi baterako kontratuen ugalketa izan da. Izan ere, langileak patronalarekin baldintzak negoziatzeko ahalmena galtzen du egoera horretan, kaleratua edo atzera kontratatua izango ez dela beldurrez. Esaterako, greba egiten badu edo jarrera gatazkatsuak bultzatzen baditu enpresaren barruan, kontratua berriztatzeko aukerak galtzen ditu aldi baterako langileak. Horiek horrela, ekintza sindikala sarritan eragiteko ahalmenik gabe geratzen da kolektibo horren baldintzak negoziatzeko unean.

Aldi baterako kontratuen antzera, lanaldi partzialeko kontratuak ere 90eko hamarkadaren erdialdetik aurrera hedatu dira, batik bat (Salazar, 2017: 239). Hala, *Encuesta Laboral Coyuntural* txostenaren datuen arabera, 1995etik 2012ra bitartean, lanaldi partzialeko kontratuak % 553 ugairu egin ziren Espainiako Estatuan, eta lanaldi osokoak, berriz, % 56. Emakumeek nozitu dute gehien kontratu eredu hori, beraien lan merkaturatzea gizonena baino beranduago gertatu delako. Horrela, enplegu partziala duten hamarretik zortzi emakumeak dira. Horietatik gehiengo handi bat lanaldi osoko kontraturik aurkitu ez duelako aritzen da lanaldi partzialean (egun, 88.000 inguru Hego Euskal Herrian, *Gaindegia* erakundearen datuen arabera); beste batzuek soldatapeko lana eta merkatuz kanpoko zaintza lana bateragarri egiteko hartzen dute hautu hori (egun, 30.000 inguru Hego Euskal Herrian) (Goikoetxea et al., 2020: 74).

Esan dugunez, bere ezaugarriak aintzat harturik, kontratu mota horrek lan eta bizi baldintzak kaltetzen ditu eta, hartara, langabeziaren forma jakin moduan kontsideratu beharko litzateke, borondatezkoa ez denean, batez ere. Autore batzuen hitzetan, kontratu horrek «ordezko armada industrialaren» funtzio bera betetzen du, alegia, soldatetan beheranzko presioa eragitea, langabezia-tasa jaisten egon arren (Murillo eta Del Rosal, 2015: 154). Esan gabe doa, lanaldi partzialeko langileen soldatak lanaldi osoko langileenak baino askoz ere baxuagoak izan ohi dira. De la Fuenteren arabera (2017), orduko bataz besteko soldata 2014an 11,51 eurokoa izan zen; 12,01 eurokoa lanaldi osoko langileen kasuan eta, ostera, 8,53 eurokoa partzialekoen kasuan.

Kontratu eredu prekarioen ugaltzearen ondorioz, soldatapeko lanak ez ditu lan indarraren erreproduktzioarako bizi baldintza «onargarriak» bermatzen. European pobrezia-aren atarian

dauden zati handi bat mota horretako soldatapekoa da (Medialdea eta Álvarez, 2005: 56).

Horiek horrela, soldatapeko enplegu finkoa (batzuentzat) arau edo (besteentzat) xede eredugarri bihurtu den gizarte kapitalistan (bereziki XX. mendeko ongizateko Estatu arautzailea nagusi izan zen garaietatik aurrera), langabetu, langile prekario edo ordainsaririk gabeko etxeko langile izateak aberastasunaren eta ondasun sozialen banaketan eskubide gutxiago izatea esan gura du. 80ko eta 90eko hamarkadetatik aurrera, langile askorentzat gero eta zailago izan da enplegu finkoa lortzea, eta aberastasunaren birbanaketa-sistema konbentzionalean sartzea. Ondorioz, «enpleguaren krisiak» bizimodu sozialeko esparru askotan izan du eragina, eta «auzi sozial historiko» bihurtu da (Prieto, 1999: 529)


Baina, kontuan hartu behar da enplegu finkoa arau nagusi zenean ere biztanleriaren erdia, hots, emakumeen populazioa, neurri handi batean baztertuta zegoela soldatan oinarritutako banaketa-sistematik. Hala, emakumeentzat, aberastasunaren banaketa-sisteman sarbidea izateko moduetako bat soldatadun gizon batekin «kontratu sexuala» egitea izan da luzaroan (Arruzza, 2010: 109; Pateman, 2019) eta gizonezko langile horri «fisikoki, emozionalki, eta sexualki zerbitzatzea» (Federici, 2017: 53). Egoera hori aldatuz joan da azken urteotan, emakumeak (soldatapeko) lan merkatuan era orokortuagoan sartzen joan direnean. Hala ere, sarrera horrek ez du sexuan oinarritutako lan banaketaren arazoa konpondu. Aitzitik, bikoitza bihurtu da emakume askoren lanaldia, lantokiko lana eta etxeko lana burutu behar baitituzte. Hori gutxi balitz, emakumeen egoera zaurgarriaren erakusgarri, lan baldintzen prekarizazioak emakumeei eragin die gizonei baino gehiago.

ETA HALA ETA GUZTIZ ERE, IRABAZIAK EZ DIRA NAHIKOAK...

Bestalde, bai Espainiako Estatuan bai gainerako herrialdeetan, lan zuzenbideko erreformek lanaren esplotazio maila handitzeko balio izan dute. Bada, langileen ahultasun egoera areagotzeaz gain, soldaten «berregokitzeari» bidea zabaldu diote erreforma horiek. Hartara, esplotazio maila igo egin da, soldatari dagokion aberastasunaren parte (soldata erlatiboa) gero eta txikiagoa delako, eta gainbalioa, berriz, handiagoa. Hala ere, bizi mailaren kontrako oldarraldi neoliberalak gorabehera, irabazi tasen batez besteko maila ez da horren altua izan, beste garaietakoarekin alderatuta. AEBetan, adibidez, ez da

50eko eta 60ko hamarkadetako batez besteko irabazi tasaren maila berreskuratu (ikusi 2.7. irudia) (Cámara, 2015b: 112).

2.7. AEBetako sozietateen irabazi tasa gordina eta zergen ondorengoa (1946-2010)




Fuente: Elaboración propia a partir de múltiples fuentes.

Hemendik erreproduzituta: Cámara (2015b: 4)

Anwar Shaikh-ek (2010: 48-49) dioenez, 80ko hamarkadatik aurrera izan den irabazi tasa ez zatekeen posible izango soldaten balioa murriztu gabe. Beste modu batera adierazita, errentagarritasun maila mantendu mantentzen da soldatak devaluatu egin direlako (ikusi 2.8. irudia).

2.8. AEBetako korporazio ez finantzarioen irabazi tasa errealak eta hipotetikoak (soldata errealeen gerraosteko goranzko joera mantendu izan balitz) (1947-2009)



Hemendik erreproduzituta: Shaikh (2010: 48)

Ikusi ahal denez, aberastasunaren birbanaketan gertatutako atzerakada ez da nahikoa izan irudian aztertzen den garaiko errentagarritasun maila berrezartzeko. Hazkunde ekonomikoa nola edo hala mantentzea lortu baldin bada ere, kontsumoaren hedapenari eta burbuila espekulatiboari esker izan da, baina ezegonkortasun ekonomiko gero eta handiagoarekin ordaindu da. Izan ere, sektore produktiboaren errentagarritasuna gero eta txikiagoa izan da, eta finantza-sektorea inbertsiorako eremu moduan garatu da, inbertsiorako araugabetzeak lagunduta.

Ildo horretan, soldaten, langabeziaren, kontratu moten eta irabazien datuek lanaren esplotazioan oinarritutako ekonomiaren gorabeheren berri ematen digute, baina ez dute balio, berez, lanaren krisiaren dimentsio ekonomiko osoa ulertzeko. Izan ere, soldatapeko lan baldintzen narriatzea askoz zabalagoa da. Okerrera egindako baldintza horien artean, hauexek aipatzen ditu Martijak (2020: 26-27): azpi-enpleguak hedatu dira, ordaindu gabeko aparteko orduak orokortu, lan eskubideak debalatu dituzten arautegiak ezarri (kaleratzeengatik jasotako kalte ordainak, adibidez), kostuak kanporatzeko enpresa estrategiak landu, lan heriotzen kronifikazioa handitu eta, azkenik, bekadun nahiz autonomo faltsuak erabili; prozesu horiexek guztiak gauzatu dira.

ORDAINDU GABEKO LANAK GIZARTE ERREPRODUKZIOAREN KRISIAN

Lan- eta bizi-baldintzen narriadura ez da soilik merkaturako lanaren bidez jazotzen. Aitzitik, lanaren krisiaren dimentsio ekonomikoa merkatuz kanpoko lan-esparruan ere atzeman daiteke, sexuen arabera lan banaketan izandako aldaketak tarteko. Aldaketa horiek direla-eta, kapitalismoaren barne kontraesanek eragindako «gizarte erreprodukzio krisi» baten aurrean gaudela defendatzen dute zenbait autore feministek²¹ (Arruzza, Bhattacharya eta Fraser, 2019: 81). Lehenago ere aipatu dugunez, gizarte erreprodukzioa ezinbestekoa da kapitalaren metaketarako; baldintza sozialak erreproduzitu barik, ezinezkoa da gizartearen jarraikortasuna bermatzea (Carrasco, 2017: 58, 72). Aldi berean, baina, kapitalaren metaketaren beharrezanek erreprodukzio sozialerako prozesua ezegonkortzeko joera eragin dute (Fraser, 2017: 22).

Ildo horretan, Pérez Orozcok (2014: 189) hiru prozesuren bidez erakusten du egungo gizarte erreprodukzioaren krisia. «Bizi prekaritatea orokortu egin da, bazterketa areagotu eta ezberdintasun soziala anizkoiztu», bere esanetan. Hiru prozesu horiek oso lotuta ikusten ditugu lanaren (ordainduaren zein ordaindu gabekoaren) krisiaren dimentsio ekonomikoarekin. Auzia da merkatuz kanpoko lanei lotutako krisia era ezberdinean kokatzen dela, lan ordainduarekin alderatuta.

Ordaindu gabeko lanek ezin dute dagoeneko espero bezala bete beren eginkizun soziala. Bi prozesu nagusik eragozten dute betekizun hori. Batetik, metaketaren erregimen neoliberal-postfordistak ongizate sozialera bideratutako desinbertsio estatala eta korporatiboa sustatu ditu azken urteotan: zerbitzu sozialen murrizketa eta lan merkatuaren araugabetzea, besteak beste. Bestetik, emakumeak era masiboan integratu ditu ordaindutako lanean (Agenjo, 2021: 219), baina gizonak baino baldintza askoz txarragotan (Goikoetxea et al., 2020: 45-80; Ferguson, 2020: 33). Hori dela eta, soldatapeko lan baldintzen prekarizazioarekin batera, hein batean, familiaren instituzioan bete behar izan dira harrezkerotik ongizate Estatuak utzitako hutsuneak bizi baldintzen sostenguaren arloan. Aldi berean, lan merkatuan sartu ahala, emakumeei lanaldia bikoiztu

²¹ Esan beharra dago argitu gabeko eztabaida dagoela «zaintza», «etxeko lan» edota «erreprodukzio» kontzeptuen inguruan, eta horiei lotutako krisiaren nolokotasunaren inguruan. Ez da gure asmoa eztabaida horretan sartzea, korrante feministen ekarpenetatik ideia nagusi batzuk azaltzea baizik.

Kontzeptuak argitzearren, «zaintza-krisiak» «azken hamarkadetan Mendebaldeko herrialdeetan sortutako zaintza-sistemaren desorekei egiten die erreferentzia, egituretan, bizimoduetan eta horien esanahietan eta irudikapenetan gertatzen diren aldaketan ondorioz» (Legarreta, 2017: 2). Guretzat, zaintza-lanak bizitzaren sostenguaren eta gizarte-erreprodukzioaren parte izanik (Carrasco, 2017: 63-64), zaintzaren krisia erreprodukzio krisiaren barneko fenomeno izango litzateke (Fraser, 2017).

zaie, kultura patriarkalean emakumeen eta gizonen arteko bidezko lan banaketarik ez delako oraindik burutu merkatuz kanpoko esparru horretan. Horiek horrela, emakumeek gero eta estutasun handiagoak bizi dituzte gaur egun ezarritako zaintzaile eta etxeko langilearen rola betetzeko (Fraser, 2017: 32). Emakumeen lanaldi bikoitza dela eta, haien esplotazio maila handitu egin da (Martínez eta Burgueño, 2019: 91-93), are gehiago, beren soldatapeko lan baldintzak gizonenak baino askoz okerragoak direla kontuan hartzen badugu. Pazosen arabera (2018: 61, Martinezek eta Burgueñok aipatua, 2019: 91), emakumeak asalariatu bihurtu izanak sexuen araberako lan banaketa eraberritua ekarri du, eta haien esplotazioa areagotu du.

Emakumeei ezarritako lanaldi bikoitzaren ezarpenarekin batera, zaintza-lanen merkantilizazioa ere areagotu da, kapitalismoaren eredu neoliberalak bultzatuta. Izan ere, denbora eta energia faltagatik, zaintzei lotutako lan asko etxean edo familian bete ezin direnean, merkatuak eskaini du horiek asebetetzeko bidea (Fraser, 2017: 32). Ondorioz, zaintza-lanen merkantilizazioak ezberdintasun sozialak handiagotu ditu zaintza-zerbitzuak ordain ditzaketen eta ordaindu ezin dituzten artean. Aldi berean, zaintza-zerbitzuen merkantilizazio prozesu hori izan da emakumeen lan merkaturatzea elikatu duen faktoreetako bat. Izan ere, gero eta gehiago, diru sarrera apaleko familietako emakume langileek (sarritan etorkin jatorriko eta arrazializaturiko emakumeak) familia aberatsagoen zaintza-beharrizanak asebetetzeko lan egiten dute; horrela, gizarte erreprodukzioaren antolaketa *dualizatu* egiten da (Fraser, 2017: 32).

Baina dualizazioak berak soilik ez ditu sortutako azpiratze ereduak guztiz azaltzen. Bada, dualizazio horrekin batera indartu egin dira jatorriaren eta arrazaren araberako lan banaketak eta ezberdintasun sozialak. Hala, klasea, generoa, etorkin estatusa, arraza eta beste dominazio ezaugarri batzuk artikulatzen dira zaintza lanak betetzen dituzten egoeran. Izan ere, emakume langile etorkinak edo merkatuan beste lan batzuk lortzeko eragozpenak dituzten emakumeak izan ohi dira familia aberatsagoen zaintza-beharrizanak bete behar dituztenak. Haien lan baldintzak eta soldatak oso eskasak izaten diren neurrian, langile horiexek ezin izaten dituzte beraien familien zaintza-premiak behar bezala bete (Martínez eta Burgueño, 2019: 94-98).

Zaintza-zerbitzuen merkantilizazioaren eta (soldatapeko) lan indarraren feminizazio prozesuaren ondorioz, lan banaketari lotutako genero-rol tradizionalak kolokan jarri dira gaur egun, eta emakume askok zalantzan jarri dute ordainsaririk gabeko langile izateko eginkizuna. Izan ere, gero eta emakume gutxiagok izan nahi du lanaldi osoko etxeko

langile ordaindu gabekoa. Feminismoaren zabalkundeak ere izan du eraginik aldaketa horietan, etxeke eta zaintzako ordaindu gabeko lanen inguruko eztabaida eta sexuen araberako lan banaketa auzitan jarri beharra gizarteratu duen neurrian (Alabao, 2019; Martija, 2020: 31).

Gaur egun, lan merkaturatzearen bidez emakumeek autonomia ekonomiko erlatiboa irabazi duten heinean, gizonaren mende jartzen zituen kontratu sexuala auzitan jartzeko lehen urratsak eman dituzte. Egungo gizarte ordena eta erreprodukzio eredua, neurri handi batean, mendekotasun horretan oinarritzen dira, baina, emakumeen autonomia ekonomiko gero eta handiagoak auzitan jarri du sexu-generoaren araberako lan banaketan oinarritutako dominazio sistema. Urrun gaude lan banaketa eredu hori guztiz gaindituta ikustetik, baina aurrerapauso batzuk eman dira azken urteotan, besteak beste, mugimendu feministaren eraginagatik. Ez kontraesanik gabe, hala ere. Hala, Benería-k, Berik-ek eta Floro-k (2018: 203, Agenjok aipatua, 2021: 222) (soldatapeko) lan indarraren feminizazioaren eragin kontraesankorra aipatzen dute: alde batetik, «eragin askatzailea» du; bestetik, baina, ezberdintasunak indartzen ditu.

Laburbilduz, zaintzako eta etxeke lanen (gehienbat, ordaindu gabeko lanen) funtzio erreproduktiboa zalantzan jarri da aspaldi honetan, batez ere emakumeen lan merkaturatzeak eta zerbitzu sozial publikoen pribatizazioak eta merkantilizazioak eraginda. Hortaz, dimentsio ekonomikoari dagokionez, merkatuz kanpoko ordaindu gabeko lanen esparruan ere krisia dagoela baieztatu dezakegu. Arian-arian, hainbat aldaketa sozial dela medio, gero eta emakume gehiagok jartzen dituzte zalantzan tradizioz egotzi zaizkien genero rola (Legarreta, 2017: 12). Eta horrek egungo lanaren gizarterearen ohiko oinarri batzuk (sexuen araberako lan banaketa eta lan formen hierarkizazioa) astindu ditu, sustraitik.

ONDORIOAK

Atal honetan lanak aberastasunaren sorreran eta banaketan jokatzen duen funtzioa ikusi dugu, lanean oinarritutako balioaren teoriatik eta erreprodukzio sozialaren teoriatik abiatuta. Halaber, nabarmendu dugu gizartearentzat berebizikoak izan arren, eginkizun horiek kontraesan gero eta sakonagoak eragiten dituztela. Ondorioz, gero eta zailtasun handiagoak ditu lanak kategoria sozio-ekonomiko legez egokitu zaizkion funtzioak betetzeko (aberastasunaren ekoizpena eta gizarte erreprodukzioa).

Lanaren krisia kapitalismoaren «krisi sistemiko eta zibilizaziozkoaren» (Agenjo, 2021: 153) adierazpen edo sintomatzat har daiteke. Izatez, krisi sistemikoa dimentsio anitzeko prozesua da, eta lanaren (edo lanen) krisiaren alderdi ekonomikoa haren aurpegietako bat da, hain zuzen. Horrela, kolokan daude lan forma guztien (soldatapeko zein ordaindu gabeko lanen) funtzio sozioekonomiko nagusiak, hala nola, irabaziak sortzea eta gizartearen erreprodukzioa bermatzea. Alde batetik, egungo, soldatapeko lanak ez ditu behar (edo nahi) besteko irabaziak sortzen, ezta soldataren bidez langile klasearen osotasunaren erreprodukziorako baldintza sozial egokiak bermatzen ere. Salazar-en hitzetan adierazita:

«El auge durante la etapa neoliberal de las tendencias que componen la degradación del mercado laboral supone para una parte cada vez mayor de la población un deterioro tanto en el ámbito laboral como en el ámbito vital, ya que la centralidad del trabajo como elemento vertebrador de nuestra sociedad genera intensas consecuencias problemáticas cuando no se accede a aquel en las condiciones normales y deseables (un trabajo indefinido, estable y protegido)». (Salazar, 2017: 331)

Pertsonak soldataren bitartez ezin badituzte beharizan fisiko, sozial eta kulturalak ase, (lanaren) gizarte kapitalista bera ere kinka larrian dagoela esan daiteke. Bada, egungo gizarteak gero eta arazo sakonagoak ditu erreproduzitzeko. Eta sistema ekonomiko kapitalistak ezinbesteko du gizarte erreprodukzioa funtzionatu ahal izateko (Fraser, 2017: 23). Beste alde batetik, ordaindu gabeko lanaren arloan, emakumeen lan-merkaturatze prozesu progresiboak ez du sexu-generoen araberako bidezko lan banaketa bermatu. Aitzitik, sexu-generoan oinarritutako lan banaketa eraberrituak sortu dira, emakumeen lanaldia luzatu eta gogortu da, eta, oro har, bizi baldintzen (erre)produkzioa zaildu, baita zentzu materialean ere. Horregatik, produkzio kapitalistak eta botere harreman patriarkalek bat egiten duten ordenean, merkatuz kanpoko ordaindu gabeko lanek ere funtzio erreproduktiboak (zentzu ekonomikoan) betetzeko zailtasunak dituzte.

Halaber, soldatapeko lanaren krisia eta ordaindu gabeko lanen krisia modu estuan uztarturik daude, familia-unitatearen bidez lotuta daudelako. Izan ere, erreprodukzioaren krisian soldatapeko lana eta ordaindu gabeko zaintza eta etxeke lanak daude nahasita, biak ala biak direlako lanaren gizartearen funtzionamendurako ezinbestekoak.

Oro har, hainbat adituk adierazi duenez, langile belaunaldi berrien bizi baldintzak aurrekoenak baino txarragoak izango dira, eta gaurko gazteak beren gurasoak baino okerrago biziko dira (García Vega, 2016). Baina, horrek ez du «lanaren» edota «soldatapeko lanaren» amaiera ekarri. Alderantziz, indartu egin da lan indarraren kontrola

eta dominazio sistema, ordaindutako zein ordaindu gabeko lan baldintzen prekarizazioaren bidez. Hala, «lanaren bukaera» baino, «subordinazio ultrakontraktuala» daukagu, Salazarren arabera (2017: 335-336). Hori dela eta, krisi horrek hainbat arazo sortu izan ditu sindikatuen jardueran, eragile sozial horien ohiko ekintza aberastasunaren birbanaketarako soldata-eskaeretan zentratu baita, XX. mendeko bigarren erdialditik aurrera. Izan ere, Mendebaldeko herrialdeetan, 2. Mundu Gerraosteko langile mugimenduaren parte garrantzitsu bat aberastasunaren banaketa zuzenagoa lortzeko, eta soldatak eta lan baldintzak hobetzeko presio egitera mugatu izan da bere ekintza kolektiboan.

Sindikatuak lanaren gizartearen «integratzaile» moduan jokatu izan dute luzaroan (Jappe, 2016: 92), lanari egokitutako funtzioak «ondo» beteko direla bermatzeko helburuarekin (soldata eta lan baldintza duinak lortuz, lan kaleratzeen aurka borrokatuz, eta abar). Orain, baina, deskribatutako koiunturak sindikatuak ezintasun egoera batean jartzen dituela proposatzen dugu ikerketa honetan, batez ere soldataren igoeraren bidez langileentzako mesedegarria izan daitekeen aberastasunaren bidezko banaketa bermatzeko unean. Beraz, lanaren gizartean gertaturiko aldaketek sindikatuen diskurtso eta praktiketan adierazten den berrikuntza estrategikoa ekarri dutela uste dugu, aurrerago ikusiko dugunez. Ildo horretan, lanaren krisiaren dimentsio ekonomikoaren ondorioz, sindikatu batzuek aberastasuna banatzeko soldataz harago joateko eta gizartearen bestelako esparruetan eragiteko ahaleginak egin dituztela uste dugu, besteak beste, ekintza sozio-ekonomikoan eta politikoan sakonduz, eta soldatadunak ez diren bestelako lan formak eta langile kolektiboak sindikatuen ekintzan integratuz.

3. L'ÉVOLUTION DES DIMENSIONS IMMATÉRIELLES DU TRAVAIL

INTRODUCTION

Dans le chapitre précédent nous avons vu que le travail est au centre des relations de production capitalistes parce qu'il est l'activité à travers laquelle se produit la richesse et se reproduisent les conditions matérielles du modèle de société capitaliste contemporain, tout en y perpétuant les relations de domination qui le soutiennent. Cependant, d'un point de vue immatériel, le travail comporte une très forte dimension culturelle ou idéologique qui, au-delà de reproduire les conditions matérielles de la société capitaliste, conditionne les comportements des groupes sociaux et des individus.

Les fonctions immatérielles du travail sont étroitement liées à l'infrastructure économique, mais celle-ci ne les déterminent pas directement. Cette relation entre les deux dimensions explique que les fonctions immatérielles du travail évoluent au fur et à mesure que le modèle de production et d'organisation sociale du travail se transforme. Par exemple, le travail a longtemps été conçu comme un devoir moral envers la société, maintenant les individus cherchent à s'exprimer, s'épanouir et être reconnus socialement à travers le travail. Cependant, il convient de préciser que cette dimension expressive du travail est récente et « éminemment moderne » (Méda et Vendramin, 2013 : 7). Celle-ci s'est surtout développée dans les sociétés occidentales de capitalisme avancé, précisément là où le processus d'individualisation a été effectif.

Un des problèmes terminologique ou conceptuel de ce chapitre est le fait que les auteurs et auteures citées ne distinguent pas les différentes formes de travail, le travail *marchand* et *non marchand* principalement. Au contraire, les auteurs et auteures parlent normalement de travail *tout court* lorsqu'ils expliquent ces fonctions immatérielles, idéologiques et culturelles. En réalité, ces auteurs parlent surtout du travail salarié.

Cependant, les revendications autour de la reconnaissance de la valeur du travail non marchand, comme le travail domestique et le soin, visent à qu'il soit reconnu comme n'importe quelle travail, marchand ou pas. C'est pourquoi nous pensons que le travail non rémunéré est aussi sensé accomplir ces fonctions. Mais, étant donné la hiérarchisation des formes de travail, cette forme de travail a été dotée d'une moindre reconnaissance sociale. En effet, la hiérarchisation des formes de travail, en plus d'établir un critère pour que les

uns soient rémunérés et les autres non, fait aussi que les formes de travail moins valorisées d'un point de vue culturel et idéologique ne reçoivent pas le même niveau de reconnaissance et d'intégration de la part de la société.

Vue que les auteurs ne différencient pas les diverses formes de travail, et que les fonctions immatérielles opèrent, dans une certaine mesure, pour les travaux moins valorisés comme les non rémunérés, nous tendrons à parler du travail *en général*, en faisant abstraction des différentes formes de travail, tout en étant conscient que toutes les formes de travail ne sont pas valorisées de la même manière dans les sociétés occidentales.

LE TRAVAIL: SOURCE DE COHÉSION SOCIALE

La crise du travail ne se traduit pas directement dans la perte de sa centralité dans la vie sociale. Le travail est même plus important qu'auparavant, et est sensé accomplir plus de fonctions qu'avant dans la conformation des identités des individus: de reconnaissance, d'expression... Cependant, cette importance est perçue de plus en plus négativement.

D'un côté, d'immenses attentes (matérielles et immatérielles) sont attribuées au travail, mais ceux-ci ont du mal à s'accomplir. D'un autre côté, le travail entre en compétition avec les autres domaines de la vie, tel que la famille, le loisir, les soins... Ainsi, les immenses attentes et la volonté de dédier plus de temps à d'autres domaines de la vie,

auxquels s'ajoute la précarisation des relations au travail, créent des malaises qui mettent en doute les conceptions du travail comme quelque chose de positif, épanouissant.

De l'autre, l'individualisation de la culture et des relations au travail a fait que les attentes envers le travail soient conçues de manière individualisée. Le travail est moyen pour arriver au bien-être individuel, et à l'expression de soi, non pas un moyen d'accomplir un devoir envers la société. Par conséquent, la reconnaissance est recherchée de manière individualisée. Ainsi, la solidarité entre compagnons de travail et l'organisation syndicale ont de plus en plus de mal à s'articuler. Cette individualisation du rapport avec le travail amplifie les attentes, sans pour autant les satisfaire. Dominique Méda (2010 : V) résume ainsi la situation du travail :

« Le travail [...] a pris trop d'importance dans notre société, les différentes dimensions du travail sont contradictoires entre elles et le système capitaliste dans lequel nous vivons aujourd'hui ne permet pas de faire pleinement droit à un travail qui pourrait être une œuvre ».

En fait, le problème n'est pas que le travail ait perdu sa valeur, sinon que les différentes fonctions qui lui ont été attribuées n'ont jamais été pleinement réalisées, encore moins dans le cas du travail domestique non rémunérés, qui a du mal à être reconnu comme travail jusqu'au moment où la théorie féministe a réinterprété le concept. En plus, l'importance du travail empêche à l'individu de se réaliser dans d'autres domaines comme la famille, les loisirs, la politique... D'un autre côté, la précarisation des conditions et la double journée de travail des femmes accroissent les sentiments de malaise et d'insatisfaction, quoique ceux-ci ne soient pas tout à fait constatables à partir des enquêtes sur l'opinion publique. En conclusion, les contradictions du travail sont en train de s'accroître, non pas à cause d'une soi-disant « fin » du travail, sinon parce que le travail est devenu *trop* important, et les attentes sont souvent trop grandes pour qu'elles puissent être réalisées.

Les attentes de plus en plus individualisées et de reconnaissance envers le travail et le désir de réduction de son importance ont influencé en partie, selon notre hypothèse, la baisse de la syndicalisation, l'incapacité de l'action syndicale et le besoin d'un renouveau stratégique des syndicats. En effet, l'organisation syndicale est sensée répondre à des demandes de plus en plus individualisées, qui entrent contradiction avec les valeurs de solidarité sur lesquels s'appuie théoriquement le syndicalisme. En plus, étant donné l'incapacité de donner une réponse aux attentes matérielles comme immatérielles du

travail, les travailleurs envisagent de moins en moins de recourir à des stratégies collectives de prise de parole.

Dans le suivant chapitre nous verrons comment les changements dans le mode de régulation sociale et l'organisation de la production et du travail ont bouleversé le contexte structurel du fordisme et miné les piliers de la société du travail. Connaître ces changements est crucial parce qu'ils expliquent en grande mesure l'affaiblissement des pouvoirs structurel et institutionnel des syndicats européens et occidentaux depuis les années 1980.

4. LANAREN ANTOLAKETAREN BILAKAERA: FORDISMOTIK POSTFORDISMORA

SARRERA

Orain arte, lanaren krisiaren oinarriak azaldu ditugu, lanak gizartean betetzen dituen funtzio ekonomiko eta immaterialen ikuspegitik. Atal honetan, berriz, ekoizpenaren beharrak direla-eta, 70eko hamarkadaz geroztik lanaren antolaketa eredu nola aldatu den ikusiko dugu, lanak garapen eredu keynestar-fordistatik neoliberal-postfordistara izan duen bilakaeran sakonduta. Horrela, aurreko ataletan gizartea eratzeko eginkizun gisa ulertu badugu lana, kapitulu honetan gizartean lanak hartutako antolaketaren azterketari ekingo diogu.

Eredu fordista-keynestarrak soldatapeko lanean (eta, omisioz, ordaindugabeko lanean) oinarritutako gizartearen egonkortze aldia ekarri zuen, lanaren bidezko kohesio soziala bermatu asmoz. Azken urteotako neoliberalismoak eta produzitzeko eredu postfordistak, baina, kolokan jarri dute behinolako egonkortasun hori. Ondorioz, etengabeko krisi egoera bizi izan dugu 70ko hamarkadatik hona.

Krisia ekoizpen-modu kapitalistaren joera iraunkorra izan den arren, kapitalismoaren azken fase neoliberal eta postfordistan adierazpen zehatza hartu du. Izan ere, neoliberalismoarekin batera, aldaketa nabariak jasan ditu ekoizpenaren eta soldatapeko lanaren antolaketak, lanaren sistema postfordista ezarri ahala. Antolaketa mota hori analizaturik, hobeto ulertu ahal izango ditugu gaur egungo lanaren eta sindikalismoaren krisiaren nondik norakoak eta arrazoiak.

METAKETA-ERREGIMENA ETA ERREGULAZIO MODU SOZIALA

Lanaren egitura soziala garai fordistaren amaieratik hona nola aldatu den ikusteko, baliagarria izango zaizkigu Erregulazioaren edo Arauketaren eskolaren ekarpenak. Haren funtsezko ekarpen teorikoak «metaketa-erregimenaren» eta «erregulazio modu sozialaren» artean ezarritako bereizketan hartzen du abiapuntu. Alde batetik, «metaketa-erregimena» kontzeptuak egonkortasun eta hazkunde denboraldi bati egiten dio erreferentzia (Letamendia, 2009: 104). Beste modu batera adierazita, kapital metaketaren prozesua modu egonkorrean mantentzen den denboraldiari dagokio aipatu metaketa-erregimena. Aldi horretan, masa-kontsumoa metaketarekin batera hazi egiten da, eta produkzioaren eta soldatapekoen erreprodukzio baldintzen arteko korrespondentzia

nabarmena dago (Lipietz, 1986, Harvey-k aipatua, 1998: 143). Egonkortasunaren gaiari dagokionez, hala ere, ez dago erabateko adostasunik azterketetan. Gaur egungo egoerara etorrita, 1970-80ko hamarkadetatik hona lan- eta bizi-baldintzen narriatzea gertatzen ari dela ikusita, zaila da postfordismoan egonkortasunik badela baieztatzea. Bestalde, fordismoari dagokionez ere, Clarke (1988b) zalantzan jartzen du fordismoaren garaiko delako egonkortasuna hori.

Metaketa-erregimena testuinguru sozial eta politiko jakin batean garatzen da, hau da, erregulazio modu sozial jakinari dagokio (Letamendia, 2009: 104); gizartean «barneratutako arau eta prozesu multzoa» dago, produkzio eta erreprodukzio prozesuen batasuna ahalbidetzen duena (Lipietz, 1986: 19, Harvey-k aipatua, 1998: 143-144). Horrez gain, arautze moduak soldatapeko lan-prozesua antolatzeke erak eta lanari egokitutako funtzio sozialak hartzen ditu barnean. Ildo horretan, lanaren gizartearen erreprodukzioa ere erregulazio modu sozialaren araberakoa da.

Teoria arautzaileen arabera, metaketa-erregimenaren eta erregulazio modu sozialaren arteko artikulazioa ezegonkorra eta kontingentea da (Letamendia, 2009: 105), gatazka politikoen eta sozialen testuinguruan definitzen delako erregulazio hori. Era berean, bi elementu horien arteko korrespondentzia haustean azaleratzen da krisi soziala, eta orduan agertzen dira gizartearen barneko kontraesanak eta antagonismoak beren formarik gordinenean.

Fordismoan, lanak, enplegu formapean, funtzio bereziki garrantzitsua jokatu zuen metaketa-erregimenaren eta erregulazio moduaren arteko egonkortasunaren iraunkortasunean. Izan ere, kontraesanak kontraesan, XX. mende erdialdeko garaian inoiz baino hobeto bete zituen lanak bere eginkizun sozialak, aberastasunaren ekoizpena eta metaketa, baita gizartearen «erreprodukzioaren» eta «erregulazioaren»²⁸ berme izatearena ere. Oraindik ere, izaera garrantzitsu hori mantentzen jarraitzen du, bai aberastasunaren ekoizpenean bai gizartearen erreprodukzioan eta erregulazioan. Hala ere, azterketa honetan erakusten ari garenez, zailtasun nabariak ditu eginkizun horiek egoki bete ahal izateko. Jendeak lana bizitzaren egonkortasunarekin eta segurtasunarekin lotu

²⁸ Erregulazioaren teoriak «erregulazio» edo «arautze» kontzeptua erabiltzen du «erreprodukzioaren» ordean. Izan ere, erreprodukzio eremuko esplotatuen eta esplotatzaileen, zapalduen eta zapaltzaileen arteko konfrontazioa azpimarratu eta berari pisua eman nahi zioten kontzeptu berri horrekin (Letamendia, 2009: 106). Interesgarria izan arren eskola ezberdinen arrazoiak ulertzea kontzeptu bat edo bestea erabiltzeko orduan, ez gara horretan sartuko. Horregatik, bi kontzeptuak ontzat ematen ditugu, erreprodukzioa guztiz kontraesankorra eta gatazkatsua dela argi baitugu.

nahi ditu gaur egun ere, aurreko belaunaldiek egin zuten bezala, baina itxaropen horiek zapuztuta geratzen dira gero eta gehiagotan.

Ildo horretan, ñabardura garrantzitsua egin nahi dugu. Erregulazioaren teoria ez zen krisiaren jatorria ulertzeko sortu, egonkortasun aldien aukera azaltzeko baizik, «*why there was no crisis before*» (Lipietz, 1987). Ikuspegi horren arazoa izan da gatazkan diharduten subjektuen zeregina bigarren mailara eraman izana, metaketa-erregimenak dakartzan menperatze- edo zapalkuntza-harremanetan sakondu barik (Avalle, 2010: 28).

Gure ikerketa honetan, lanaren krisia fordismoaren amaierarekin batera azaleratzen hasi zela interpretatzen dugu. Hari horretatik, zein aldaketek eragin dute soldatapeko lanaren bidezko egonkortasun soziala zapuztea? Arestian lanaren krisia ikuspegi teoriko batetik azaldu badugu ere, azalpen horren atzean lanaren antolaketan izandako aldaketa kualitatiboak aztertu nahi ditugu orain. Hartara, honako galdera hauei erantzun nahi diegu atal honetan: zein aldaketaren eraginez jarri da kolokan soldatapeko lanak fordismoan bereganatu zuen egonkortasuna? Zergatik bete zituen soldatapeko lanak gaur egun baino hobeto beren eginkizun sozialak fordismoaren aroan, eta, aldiz, krisian ikusten ditugu eginkizunok gaur egun?

METAKETA-ERREGIMENEN BILAKAERA LEHEN MUNDU GERRARA ARTE

Industria-iraultzatik Lehen Mundu Gerrara arte kapitalaren metaketarako erregimenak izaera estentsiboa hartu zuen. Izan ere, ekoizpen arau estandarizatu baten bitartez, ekoizpen eskala zabaltzea zen haren helburua. Halatan, garai horretan hedakuntza izan zen metaketa-erregimenaren ezaugarri esanguratsua, hau da, beste eremu geografikoetara hedatzeko joera. Izatez, produkzioa ekoizpen-ondasunak sortzera zegoen bideratuta: altzairua, ikatza, produktu kimikoak... (Lipietz, 1987: 33; Letamendia, 2009: 107-108). Horrela, estentsiboki ekoiztutako ondasunak ez zeuden masa-kontsumora bideraturik, ekoizpenaren beharrak asetzera baizik, oraindik produktibitatearen hazkundera oso motela baitzen (Clarke, 1988b: 64). Hori zela eta, lana kapitalarentzako ondasunak ekoizteko erabiltzen zen, baina hobekuntza gutxi zekarren langileen kontsumo ahalmenera. Metaketa-erregimen horri zegokion erregulazio modua «lehiakortzat» jotzen du Agliettak (1979, Clarke-k aipatua, 1988b: 64). Hori dela eta, liberalismo ekonomikoaren eta Estatuaren interbentzio ezaren printzipioei jarraiki, (soldatapeko) lan kontratuak

norbanakoen artean gauzatzen ziren, merkatu fluxuen arabera, langileen eta enpresarien arteko inongo negoziazio kolektiborik gabe (Tickell, Peck, 1992: 194).

Lehen Mundu Gerraz geroztik, aurreko faseko aurrerapen teknikoak masa kontsumo gaien ekoizpenera zuzentzen joan ziren, eta produktibitatea handitzen joan zen, baina erregulazio modu lehiakorrek ez zuten langileen kontsumo gaitasuna igotzea ahalbidetzen (Lipietz, 1987: 33-35). Horregatik, eredu hori krisian murgildu zen, ez baitzegoen erosahalmen nahikorik ekoiztutakoa merkatuko balioan erosteko. Bestela esanda, erregulazio modua ez zetorren bat masa produkziara bideratutako erregulazio moduarekin (Letamendia, 2009: 108).

1920ko eta 1930eko hamarkadak oso kritikoak izan ziren ikuspegi politikotik zein sozialetik, eta aurreko metaketa-fasearen krisiari irtenbidea emateko planteamendu politikoen arteko lehia gordinak gauzatu ziren. Lehia horietan, zehazki, hiru proiektu politiko nagusi nabarmendu ziren Europan: komunismoa, sozial-demokrazia eta faxismoa (Letamendia, 2009: 108). Espainian eta Hego Euskal Herrian, berriz, faxismoaren aldaera moduan har daitekeen proiektu frankista ezarri zen.

Bigarren Mundu Gerraren ostean, proiektu fordista-keynestarra gailendu zen Europako Mendebaldeko herrialde gehienetan (Lipietz, 1987), Espainiako Estatuan eta Portugalen izan ezik, eta «sozialismo erreala» ezarri zen Europako ekialdean.

PRODUKZIO EREDU FORDISTA

FORDISMOAREN HASTAPENAK

Fordismoaren hasieraren data sinbolikoa 1914ean koka dezakegu. Urte horretan, Henry Ford enpresariak 5 dolarreko eta 8 orduko lanaldia ezarri zuen. Produkziarako muntaketa-katea ere abian jarri zuen langileak saritzeko (Harvey, 1998: 147), modu horretan, langileen produktibitatea eta kontsumoa handitzeko asmoz. Hala ezarri ziren fordismoaren lehen printzipioak, nahiz eta haren garapena eta ezarpena konplexuagoak eta arnas luzeagokoak izan ziren. Apur bat lehenago, 1911an hain zuzen, F. W. Taylorrek *The principles of scientific management* izeneko lana argitaratua zuen. Tratatu horretan, lanaren produktibitatea areagotzeko hainbat teknika proposatzen zituen Taylorrek: lan prozesuak mugimendu partzialetan zatitzea, lan zatituak denbora-irizpide zehatzen arabera antolatzea, eta horien mugimendua ondo aztertzea, besteak beste (Harvey, 1998: 147; Köhler eta Martin, 2011: 409-413).

Lanaren produktibitatea areagotzeko teknika tayloristen aplikazioaz gain, Fordek ekarritako beste berrikuntza masa-ekoizpenak dakartzan beharrez ohartaraztea izan zen: kontsumo masiboa, lan indarra erreproduzitzeko sistema eraberritua, lana kontrolatu eta gidatzeko bestelako politika, baita estetika eta psikologia berria ere (Harvey, 1998: 147-148). Antonio Gramsci, buruzagi komunista italiarra, zetozen berrikuntza horiez oharturik, antzeko ondorioetara heldu zen, baina, ikuspegi guztiz kontrajarri batetik. Kartzelako koadernoan «*Americanismo e fordismo*» 1934ko idatzian, ekoizpen kapitalista antolatzekeko modu berriak sumatu zituen jada; horien adibide perfektuena Forden industriak eskaini zuen, lan indarra antolatzekeko moduan ez ezik (Gramsci, 2012: 451-452), bultzatutako jarraibide kultural eraberrituetan ere. Gramsciren hitzetan:

«I nuovi metodi di lavoro son indissolubili da un determinato modo di vivere, di pensare e di sentire la vita: non si possono successi in un campo senza ottenere risultati tangibili nell'altro.» (Gramsci, 2012: 460)

Garai horretan eredu fordista oraindik ez zegoen industria guztira hedatuta, baina Gramscik (2012: 466-467) eredu horren aldeko joera aurreikusi ez ezik, kulturaren eta ohituren aldaketarekin lotu zuen.

ESTATUAREN ESKU HARTZEA ETA ONGIZATEKO ESTATUAREN EZARPENA

Forden aldaketaren aldeko ahaleginak ahalegin, kompetentziaren legeek bere langileak kaleratzera eta beren soldatak murriztera behartu zuten enpresaria. Izan ere, Forden ereduari Estatuaren esku hartzea falta zitzaion, aipaturiko printzipioak Estatu esparruan gauza zitezten. Hain zuzen, horien aplikazioaren lehen adibidea Roosvelten «*New Deal*» politikak izan ziren (Harvey, 1998: 149).

Bestalde, Alemaniak, Japoniak eta Italiak, faxismoaren printzipioei jarraiki, langileria diziplinatuaren eta ekoizpen erregimen efizienteagoaren aldeko planteamendu politikoak bultzatu zituzten. Ildo horretatik, herrialde horietan, gerren arteko krisi egoera gainditzeko beharrezkotzat jo ziren autoritarismoa eta Estatuaren esku hartzea (Harvey, 1998: 151).

Keynesen proposamen ekonomikoak ez ziren ideia horietatik oso urrun kokatu; aitzitik, kontsumoaren eta estatu erregulazioaren printzipioak jaso zituen bere proposamen ekonomikoetan. Horrela, ekonomialariak beharrezko ikusi zuen kudeaketa zientifikoaren eta Estatu indarren arteko estrategia-multzo bateratua zehaztea, kapitalismoa berregonkortzeko, errepresio irekia eta gerra saihesteko, eta gizarte kapitalistaren

erreprodukzioa eta erregulazioa ahalbidetu zitzaketen konfigurazio politikoak, instituzionalak eta sozialak abian ipintzeko (Harvey, 1998: 152). Begi-bistan denez, tokian tokiko estrategia politiko ezberdinak izanda ere, XX. mende hasierako kapitalismoaren soluzio gehienak estatu interbentzioa inplikatzeko zuten.

Bigarren Mundu Gerraren ostean, bake militarra ez ezik bake soziala ere bermatuko zuen sistema politiko-ekonomikoa planifikatzea eta sistema kapitalista oinarri eraberrituaren gainean berreraikitzea jo zuten premia munduko potentzia nagusiak, AEBek, eta Europak. Estatuaren esku hartzearen aldeko ikuspegia sustatzen lagundu zuten planifikazio premiek, eta lan prozesua arrazionalizatzeko eta ekonomia suspertzeko beharrek ere. Horrek guztiak estatuaren interbentzio handiagoa ekarri zuen ekonomia eta industria nazionaletan, baita bestelako gai sozialen kudeaketan ere (Harvey, 1998: 149). Gainera, gerra osteko berreraikuntza beharrek Estatuaren bultzada berezia eskatzen zuten, halaber, ekonomia suspertu ahal izateko.

Horiek horrela, gerrak sortutako beharrez bultzatuta, Estatuak hainbat funtzio berri hartu zituen bere gain. Funtzio eskuratzeko horrek geroago «ongizate Estatu» edota «Estatu arautzailea» eraikitzeko baldintzak sortu zituen, eta liberalismo ekonomikoaren printzipioetatik eta faxismotik urrunduz Estatu eredu berria. Estatu eredu berria Jessopek «*keynesian welfare national state*» legez izendatzen du (2008); Máizek, aldiz, «*Estado regulador*» (2017: 31) deritzo, ekonomia produktiboan, merkataritzan, lan merkatuan, azpiegituretan, legegintzan, nazioarteko merkataritza-hedapenean eta abarretan Estatuak hartutako eginkizun arautzailea tarteko.

Beste lan batzuetan, ongizatearen ideia nabarmendu da merkatuaren arautze lanaren gaineratik. Horrela, zenbait autorek honako modu honetan definitu dute ongizate Estatu: «herritarren bizi kondizioak hobetzeko eta klase eta talde sozialen integrazioa errazteko politika sozialak bultzatzen dituen erakunde publikoen multzoa» (Gómez, Otazua eta De la Cal, 2005: 12). XX. mendearen bigarren zatian politika sozial horiek hainbat esparru sozialetan aitortutako eskubideetan hezurramitu dira (osasunean, hezkuntzan, pentsio-sistemetan, eta abar). Ildo horretan, gizarte ongizatea hobetzea izan zen Estatu eredu horren xedea. Alabaina, gure ustetan, ongizate soziala, *de facto*, bigarren mailako helburua zen ekonomiaren hazkundearen aldean. Horregatik, zuzenagoa deritzogu «Estatu arautzaile» kontzeptua, interbentzio arautzaileak ezaugarritzen duelako, gure ustetan, estatu mota hori.

Bestalde, ongizate maila hobetzera bideratutako estatu interbentzioa ez zen Bigarren Mundu Gerra ostean asmatu, haren hastapenak Bismarck kantzilerraren legegintza sozialean atzematen dira. Hala ere, egia da estatu interbentzioak pisu nabarmenagoa hartu zuela 1945etik aurrera, gerra ostean herrialde gehienek «*Beveridge Report*»-en doktrina bereganatzean, eta, hartara, gizarte segurantzaren sistemak eta osasun publiko sistemak ezartzean. Doktrina horren funtsa gerraren ondorioak eta ezberdintasun sozialak leuntzeko ahaleginetan eta politika ekonomiko keynestarretan oinarritu da (Picó, 1987: 1-2, Elorrietak aipatua, 2012: 53). Horrela, estatu interbentzioaren aztarnak lehenagokoak diren arren, Bigarren Mundu Gerraren ostean instituzionalizatu eta nagusitu zen Mendebaldeko herrialde kapitalista garatuetan Estatu arautzailearen Estatu eredu.

Estatu eredu horren lorpenetako bat izan da ekoizpen modua errotik aldatu gabe, aberastasunaren birbanaketaren eta ordezkariaren sindikalaren aitortzaren bidez klase gatazka leundu izana. Modu horretan, garai batean klase gatazka «ekonomizatu» egin zen, eta errenten negoziaketara eta banaketara mugatu. Esku hartze sindikala, hain zuzen ere, errentaren banaketa esparruan kokatu zen, ekoizpen moduaren nolakotasuna auzitan jarri gabe (Offe, 1988: 75, Elorrietak aipatua, 2012: 62-63). Horrek guztiak sistema politiko-ekonomikoaren legitimazioa areagotu zuen.

Azken hiru hamarkadetan, ordea, merkatuen globalizazio prozesuek, Estatu arautzailearen eta haren eskubideen narriadurak, eta politika neoliberalek lan merkatuaren desarautzean izandako eraginek, gainbeheran jarri dute eredu hori. Eta, aurrerago ikusiko dugunez, sindikatuaren (bir) politizazio prozesua bultzatu dute.

ITUN FORDISTA

Langile mugimenduaren aldetik, aro oso gatazkatsua izan zen II. Mundu gerraostea (Silver, 2005: 144-145), austeritatearen eta klase borroken eraginagatik (Clarke, 1988b: 74). Testuinguru horretan, langileriaren ekimen gatazkatsuak zein iraultzaileak neutralizatzeko neurriak hartu zituzten gobernuak (Armstrong, Glyn eta Harrison, 1984, Harveyk aipatua, 1998: 155): langileen erosahalmena igotzea, negozioaren kolektiboa arautzea eta sindikatuak langileen ordezkari gisa aitortzea, besteak beste.

Bestalde, sozialismo erreala erronka handia ezarri zien kapitalismoaren aldeko sistema politikoei, Europako langileen artean atxikimendu handia baitzegoen komunismoarekiko

(Elorrieta, 2012: 56). Hala, potentzia kapitalisten lehentasunetako bat, SESBren²⁹ eragina European mugatzea izan zen, besteak beste, Marshall Plana tarteko (Clarke, 1988a: 256).

Horiek horrela, iraultzarako aukerak gutxitzea lortu zen, langileen antolakundeei zenbait kontzesio eginez. Ildo beretik, Estatuak, kapital korporatiboa eta langile mugimendua aintzat hartzen zituzten hiru alderen arteko hitzarmenak jarri zituzten abian Europako gobernu gehienek. Hain zuzen, hitzarmen horietan oinarritzen zen «itun fordista». Hala, posizio erradikalenak baztertua, sindikatuak negoziazio kolektiboan aitortuak izatera iritsi ziren, lan gatazkak kontrolatzeko eta produktibitatearen hazkundera errazteko baldintzarekin. Trukean, soldatak produktibitatearen parean igotera konprometitu ziren enpresariak. Era horretan, langileria kontrolatzeko kapitalaren bitartekaritza-egitura bilakatzen joan ziren sindikatuak (Antunes, 2005: 25).

Egoera horretan, garapen kapitalista hiru alderen arteko oreka tirabiratsuan oinarritu zen (Harvey, 1998: 155). Oreka hauskor horrek 70eko hamarkadara arte iraun zuen. Lipietzek (1993, Letamendiak aipatua, 2009: 110) honela laburbiltzen ditu garapen eredu fordistaren ezaugarri orokorrak:

- Taylorismoa: lan zereginen zatiketa eta mekanizazioa areagotu zituen lana antolatzeko sistema horrek.
- Produktibitate taylorista-fordistak sortutako irabazien banaketan oinarritutako Metaketa-Erregimena. Ugazabek eta sindikatuak sistemaren arauak onartzen zituzten konpromiso instituzionalen bidez. Konpromiso horiek, alde batetik, bake soziala eta, beste aldetik, produkzioaren irabaziak langileen artean banatzea bermatzen zuten.
- Ongizateko Estatuak herritarren gutxieneko diru sarrerak bermatzen zituen politika sozialen bitartez, kontsumitzaile izateko aukera izan zezaten.
- Banku zentralak ziurtatzen zuten kreditua.

Lipietzek aipatutako ezaugarri horiei familia-eredu heteropatriarkalaren defentsa gehitu behar diegu, sexu-generoaren araberrako lan banaketa zurrunaren ezarpena barnean hartzen zuena. Sexuen araberrako lan banaketa horretan, gizona etxetik kanpo lan egitea egokitu zitzaion, eta familia sostengatzeko soldata lortzea. Aldiz, soldatapeko lanetik

²⁹ Sobietar Errepublikak Sozialisten Batasuna (frantsesez: Union des Républiques Socialistes Soviétiques (URSS))

baztertuta, emakumeei etxeko eta zaintzako lan (erre)produktiboen betekizuna esleitu zitzairen: umeak hazi eta hezi, senarraren eta familiaren ongizateaz arduratu, etxea mantendu, nagusiak eta pertsona dependenteak zaindu... Merkaturatuta ere, zaintzari lotutako lan feminizatuetera bideratu zen, batik bat, emakumeen soldatapeko lana, gizonak baino soldata eta baldintza txarragoekin.

Esanak esan, ongizate Estatuak ez da toki guztietan eredu beraren arabera gauzatu, adierazpen desberdinen bitartez baizik. Esping-Andersen-ek (1990) planteatzen du ongizateko estatuak hiru molde hartu dituztela garatzeko, tokian tokiko tradizio politikoen eta klase sozialen arteko indar harremanen arabera. Hala, hiru erregimen ezberdintzen ditu berak: ongizate Estatu liberala (nagusi herrialde anglosaxoietan), kontserbadorea (Europa kontinentalean) eta sozialdemokrata (Eskandinavian). Eredu bakoitza ezaugarritzeko unean, ongizate delako hori bermatzeko merkatuak, Estatuak eta familiak izandako pisu erlatiboa aztertzen du (Goikoetxea et al., 2020: 113-114). Hiru eredu horiez gain, laugarren ongizate erregimena gehitu dute gerora beste autore batzuek: mediterranearra (Ferrera, 1996; Flaquer, 2002; Moreno, 2005). Hain zuzen ere, Espainia eta Hego Euskal Herria, mediterraneoko ereduaren barruan kokatuko lirateke.

Oso familiarista izatea da azken eredu horren ezaugarrietako bat. Zer esan nahi du horrek? Bada, Estatuak ahula izanik, familiaren gain (hau da, emakumeen gain batez ere) jarri dela batik bat ongizatea bermatzeko eginkizuna, eta beraz, etxean eta familia gunean egindako zaintza lanek hartu dutela pisua. Horrela, emakumeak lan merkatutik baztertuta egotean, haien merkatuari buruzko menpekotasuna txikiagoa izango litzateke eredu horretan, baina handiagoa, aldiz, emakumeen gizonarekiko menpekotasuna familia-egituraren barruan. Bestela adierazita, eredu horretan emakumeek ordaindu gabeko lan gehiago eta soldatapeko lan gutxiago egin dute beste ongizate eredu batzuen aldean (Goikoetxea et al., 2020: 114-116).

LAN PROZESUAREN ANTOLAKETA FORDISTAREN EZAUGARRIAK

Antunes-ek (2001: 26) lan prozesua bera antolatzeko modutzat jotzen du fordismoa, eta ez erregulazio sozialerako eredutzat. Guk Fordismoa modu zabalagoan ulertu behar dela uste dugun arren, argigarria da autore horrek egiten duen lan prozesuaren ezaugarritzea. Honako bereizgarriak nabarmentzen ditu lan prozesu fordistaren antolaketan:

- Masa-ekoizpena, muntaketa-kateen eta produktu homogeneoen bitartez.
- Denboren eta mugimenduen kontrola.

- Lana partzelatzea eta funtzioak zatitzea.
- Lan prozesuaren exekuzioaren eta elaborazioaren arteko banaketa.
- Lantoki-unitate kontzentratu eta bertikalizatuak.
- Masa-langilearen eratzea edota finkatzea.

Halaber, zehazten du aipatu autoreak lana antolatzeke modu horrek produktibitate maila oso handiak ahalbidetu zituela. Alabaina, zenbait arazo ere sortu zuen enpresarientzat, besteak beste, langileen alienazio sentimendua eta langile mugimendua antolatzeke inguruabar ezin hobea. Antunesi jarraiki, garapen eredu fordistaren ezaugarriak ez ziren soilik 40ko hamarkadatik 70eko hamarkadarako tartean gauzatu, ezaugarri horietako asko Bigarren Mundu Gerraren ostean ez ezik hura baino lehenago, baita 70eko hamarkadatik aurrera ere abian egon direlako. Hala, bereizgarri horiek ez ziren 70eko urteez geroztik bat-batean desagertu, eta postfordismoak ez du fordismoaren Metaketa-Erregimenaren eten zurruna ekarri. Aitzitik, garaiko ekoizpen prozesuaren antolaketa-moduaren ezaugarriek indarrean segitzen dute, neurri handi batean (Antunes, 2001), batik bat industriaren sektorean.

LANAREN GIZARTEAREN EGIKARITZEA: SOLDATAREN PISUA

Esan dugunez, zenbait arrazoi dela medio (langile mugimenduaren indarra eta produktibitate maila altuak, besteak beste), soldata igoera handiak lortu ziren fordismoaren garaian. Soldatak funtzio berezia jokatu zuen, gatazken erregulatzailer gisa ez ezik, langileak menderatzerako eta diziplinatzeko tresna moduan (Avalle, 2010: 27), eta ekonomia dinamizatzeko metodo moduan ere. Langileek muntaketa-katean lan egitea onartzen zuten, soldatak eskainitako bizi maila nahiko altuaren truke. Ondorioz, Estatua lanaren arloa arautzen hasi zen, eta hainbat eskubide sozial bermatzen zituen enpleguaren kontzeptua ezarri zen lan forma arautu eta babestu gisa (Harribey, 1998: 31; Köhler eta Martín, 2010: 22; Prieto, 1999: 532-534).

Era berean, produktibitatearen hazkundearekin batera ugaritutako ondasunen kontsumoa suspertzeko aukera eman zuen fordismoak. Horrela, langileen erosahalmenaren hazkundeak eta produktibitatearen hazkundeak bat egin zuten. 1950 eta 1973 urteen bitartean, herrialde aurreratuek % 5eko hazkunde ekonomikoa izaten zuten, eta Alemaniako eta Frantziako biztanleen kontsumoa ia bikoiztu egin zen 1960 eta 1977 urteen tartean. Era berean, sindikatuak beren aldarrikapenak soldataren erosahalmenean

zentratu zituzten (Boyer, 1986: 31, Elorrietak aipatua, 2012: 56). Hori dela eta, batzuk «soldata-gizartearen» (Castel, 1997) egikaritze legez kontsideratu izan dute epe hori:

«La sociedad salarial consistió en la disposición del obrero/empleado para un puesto de trabajo estable a cambio de un monto equivalente que cubriera sus costos de subsistencia, reproducción, consumo y ocio. Esta sociedad se sostenía gracias a un Estado fuertemente interventor, garante de prestaciones sociales, y una economía en crecimiento». (Avalle, 2010: 27-28)

Beraz, gizartearen egituratzaile gisa, aro horretan lana bere mailarik gorenera heldu zela esan daiteke. Ikuspegi ekonomikotik batez ere, lanak idealki bete behar zituen funtzioak betetzen zituen, kontraesan askorekin izan arren. Bada, langileen parte esanguratsua bazterketa tarteko zela sostengatu izan ziren, denbora batez, soldataren igoerak eta enplegu finkoaren ezarpena. Izan ere, merkatuz kanpo ordainsaririk gabe lan egitera behartutako emakumeek eta lan eskubiderik gabeko ezkutuko langileek ez dituzte soldatari eta enpleguari egokitutako onura horiek jaso.

Hala ere, Clarke-ren (1988b: 74-76) arabera, gerraosteko hazkunde ekonomikoa ez zen soil-soilik soldaten igoerari esker lortu. Ildo horretan, Marshall Planaren, Gerra Hotzaren ondoriozko berrarmatzearen eta Koreako gerraren eraginak ere azpimarratzen ditu Clarkek hazkunde horren eragiletzat. Hain zuzen ere, uste du faktore beroriek ekarri zutela hazkunde ekonomikoa, eta ez soldaten igoerek eta lan eskubideen aitortzak. Bestalde, fordismoaren oinarriak 50eko hamarkadatik aurrera hasi ziren Mendebaldeko estatuetan errotzen, eta 60ko hamarkadan lortu zen fordismoaren nolabaiteko instituzionalizazioa. Baina, jadanik hamarkada horren amaieran, garapen eredu hori berriz ere arazoak izaten hasi zen. Beraz, kapitalismoaren «urrezko aroa» uste dena baino laburragoa eta ezegonkorragoa izan zen.

Fordismoaren metaketa-erregimena egonkorra izan ala ez, pisu handia izan zuen lanari egokitu zizkion funtzioetan. Zaila da ebaztea lanaren gizarteak gutxi gorabehera modu egonkor batean funtzionatu zuen, edo geroago mito gisa erabili den. Argi dago, baina, garai horretan sozialdemokraziak markatutako zenbait ideia, printzipio eta aspiraziok oraindik ere badutela eragina gaur egungo pentsamoldeetan.

Metaketa-erregimen fordistaren amaiera irabazi tasaren beheranzko joerak eta langileen erresistentziak ekarri dute, edozein kapitalismo ereduaren eragiten duten faktoreak hain zuzen. Izan ere, krisiaren teoria marxistari jarraiki, ekoizpen prozesuaren une jakin batetik aurrera produktibitatearen hazkundeak ez du kapitalaren errentagarritasuna ziurtatzen. Orduan kapital indibidualen arteko lehia areagotzen da, eta ekoizpen metodo berriak

ipintzen dira abian (Clarke, 1988b: 66-67). Fordismoaren mugei dagokienez, erabakigarriak izan ziren metaketa-erregimenean eta gizarte erregulazio modu fordistan 60ko hamarkadan sortutako barne arazoak (Harvey, 1998: 164), baita munduan globalki izandako gatazka sozial eta politikoak ere.

EKOIZPEN EREDU POSTFORDISTA

Horiek horrela, 1970eko hamarkadan eredu fordista-keynestarra krisian sartu zen, eta nahitaezko bihurtu zen kapital handiarentzako bestelako eredu bat abian jartzea, estatuetako mugez haraindikoa. Horrek aurreko zenbait printzipioren gainbeheraren hasiera ekarri zuen, hala nola, ongizateko Estatua, sindikatuek elkarrizketa sozialean izandako aitortza, transakzio finantzarioen erregulazioa eta enplegu osoa. Arian-arian, ekoizpen prozesua eta lana antolatzeko moduak ere aldatu egin ziren. Aro berri bat hasi zen gizartearentzat, neoliberalismoaren eskutik. Lan munduan «postfordismo» deritzogun faseari hasiera eman zitzaion, ideologia neoliberalaren hegemonia berriak ahalbidetuta. Gerora, herrialde sozialisten erortze prozesua ere etorri zen. Horrenbestez, AEBetan mundu esparruko hegemoniarekin batera, globalizazio prozesu neoliberalak bizkortu zen.

Fase berri horrek atzeraldia eragin du bai Mendebaldeko sindikalismoan bai langileen lan baldintzetan. Izan ere, aipaturiko testuinguru sozio-ekonomikoaren aldaketa horiek sano ahuldu dute sindikatuen botere estrukturala eta haien lehenagoko ahalmena. Lan munduan sortutako sakoneko mudantzak tarteko, fase berri horretan kokatzen dugu «lanaren krisia».

1970EKO HAMARKADAKO KRISIA ETA ONDORENGO OLDARRALDI NEOLIBERALA

Arestian aipatu dugunez, 1973an lehertu zen Bigarren Mundu Gerraz geroztik izandako hazkunde fasea. 1960ko hamarkadan hazkundeak moteltzen zihoan jada. Gainera, petrolio ekoizleak ziren herrialdeak Mendebaldean sortzen ari zen aberastasunaren zati bat erreklamatzeko hasi ziren. Azkenean, israeldarren eta arabiar herrialdeen arteko gerrak ekarritako petrolioaren prezioaren igoerarekin batera egin zuen eztanda ordura arteko ereduak (Letamendia, 2009: 110). Europan, lehenagotik pil-pilean zeuden gatazka sozialei eta arazo ekonomikoari gehitu zitzaion gerra horren eragina; ondorioz, joera inflazionistak areagotu ziren. Hori zela eta, gobernuek eta patronalek soldadak murrizteari eta kreditua mugatzeari ekin zioten. Hala ere, gatazka politiko eta sozialen indarra zela

medio, eredu fordista-keynestarren zenbait onura mantendu ziren hamarkadaren amaierara arte (Lipietz, 1987, Letamendiak aipatua, 2009: 110). Bada, kontuan hartu behar dugu hamarkada horretan langile mugimendua oso indartsua zela Europan, eta ekintza-errepertorio oldarkor bat zabaldu zela Europan nahiz munduan zehar, zeinetan kapitalismoaren «kritika sozialak» oraindik lehentasun osoa zuen, «kritika artistarekin» alderatuta (Boltanski eta Chiapello, 2011).

1980az geroztik, Thatcher eta Reagan politikari neoliberalek bestelako jarrera hartu zuten egoera sozialak sortzen zituen gatazkei aurre egiteko. Langile mugimenduari kontzesioak egiten jarraitu ordez, sindikalismoaren kontrako ofentsiba politikak bultzatu zituzten, soldaten erosahalmena devaluatzeko helburuarekin. Horrela, politika neoliberalek ongizate Estatua desegiteko eta jarduera sindikala eragozteko neurriak hartu zituzten, merkatuaren «berezko» oreka eta lehiakortasuna oztopatzen zutelakoan. Mendebaldeko gainerako gobernuak, baita sozialdemokratek ere, antzeko neurriak ezartzen hasi ziren.

Ildo horretan, Estatuak beren behinolako eginkizun arautzaileari uko egiten hasi ziren, arlo ekonomikoan eta laboralean, batik bat. Ondorioz, munduko elite ekonomikoaren boterea gailentzen joan zen estatuenaren gaintetik (baina estatuen oniritziarekin), modu gero eta globalagoan. Hain zuzen ere, globalizazio prozesuak zerikusi handia izan du Estatu keynestarraren eginkizun arautzailearen galeran. Hala ere, horrek ez du esan nahi Estatuak ahalmen funtzionala galtzen duenik. Aitzitik, Estatuak jarraitu du funtsezko betekizunak egiten globalizazio neoliberalak bultzatzeko prozesuetan (Sassen, 2007: 73; Máiz, 2017: 36).

Neoliberalismoak merkatuaren desarautzea eta Estatuari zegozkion zenbait zerbitzu sozialen pribatizazioa ekarri zituen, baita gastu sozialaren, soldaten eta barne kredituen murrizketa ere, ekonomiak behar zuen «berregokitzapenaren» aitzakiapean. Bestalde, esportazioak sustatzeko moneta devaluatzeari ekin zitzaion, eta langileen erosahalmena jaitsi egin zen oso denbora laburrean (Letamendia, 2009: 111).

EKOIZPEN PROZESUAREN ETA LAN INDARRAREN ANTOLAKETA BERRIA

Esan dugunez, globalizazio neoliberalak metamorfosi sakona eragin du ekoizpen prozesuaren eta lan indarraren antolaketan, baita gizartea erregulatzeko moduan ere. Ekintza sindikalari dagokionez, fordismo keynestarrak baldintza nahiko egokiak eskaintzen baldin bazizkion sindikalismo eredu instituzionalari, lan indarraren antolaketa postfordistak ezaugarritutako aro berri horrek hankaz gora jarri du ahalmen sindikala.

Izan ere, aldaketa estruktural eta instituzional horiek bete-betean eragin diete langile klase osoaren lan eta bizi baldintzei, baina baita ahalmen sindikalari ere.

Halaber, lan munduan gertatutako moldaketak garrantzitsuak izan dira lanaren eginkizun sozialean izandako eraginagatik. Bada, lanaren antolaketa modua aldatuta, fordismoaren garaiko erregulazio modu soziala, alegia, enplegu finkoan eta sindikatuen legitimitatearen aitortzan oinarritzen zen huraxe, kolokan jarri da harrez geroztik. Ildo beretik, aipatu aldaketak oso lotuta daude sindikatuek eragiteko zuten ahalmenaren ahultzearekin, lan baldintzen prekarizazioarekin, eta lanari lotutako itzaropenen nahiz langileen subjektu kolektiboaren desagerpenarekin.

Jarraian, aldaketa horien gako garrantzitsuenak azalduko ditugu ikuspegi teorikotik, botere sindikalean izan duten eraginean arreta jarrita. Ondoren, berriz hartuko dugu gaia kasu azterketaren atal enpirikoan, aztertutako Euskal Herriko bi sindikatuek osatutako interpretazio marko zehatzak abiapuntu hartuta.

Masa-ekoizpen estandarizatuaren orde, metaketa malgua

Postfordismoaren bitartez, taylorismo-fordismoko lan eta ekoizpen prozesuen zenbait ahulgune konpondu nahi izan zituzten enpresariak. Haien irabazietarako oztopo nagusia lan harremanen zurruntasuna zenez, lan antolaketa berrian «metaketa malguaren» (Harvey, 1998: 170) edota «espezializazio malguaren» (Piore, Sabel, 1990, Köhler-ek eta Martín-ek aipatua, 2010: 423) ideiak aplikatu zituzten, malgutasunaren bidez fordismoko masa-ekoizpenaren zurruntasuna gainditzeko asmoz.

Dena dela, malgutasunaren ideiak interpretazio oso ezberdinak jaso ditu, iritzi eta kokapen ideologikoen arabera (Atkinson, 1994: 455, Köhler-ek eta Martínek aipatua, 2010: 423). Horrela, *kanpo* malgutasuna deritzona dugu kanpoko lan merkatuen desarautzea helburutzat hartzen duena. *Barne* malgutasuna deitutakoak, aldiz, enpresaren barruan lan indarraren erabilera desarautzea izango luke xede. Gobernu neoliberalak lehenengoaz baliatzen dira, langabezia murrizteko balizko neurri legez. Enpresek, berriz, barne malgutasuna bilatzen dute, eta kanpo malgutasunaz ere baliatzen dira. Batera zein bestera jokatu, malgutasunaren atzean langileak nahierara eta merkatu aldaketen arabera erabili ahal izateko asmo neoliberalak eta enpresarialak daude (Köhler eta Martín, 2010: 423).

Malgutasunaren aitzakiarekin, enpresariak lan baldintzak nahieran aldatu ahal izatea bilatzen dute, horretarako hiru bide jorratzen dituztelarik. Lehenik, lan baldintzen

inguruko negoziaketa indibidualki eta ez kolektiboki egitea, eta, horrela, sindikatuen eragina murriztea. Bigarrenik, taylorismoak ezarritako lan postuen mugaketa zurruna haustea. Eta, azkenik, esku lana eskariaren fluxuei egokitzea, behin-behineko lan kontratuak, kaleratze merkeak eta azpikontratazioak baliaturik (Letamendia, 2009: 111; Migúelez, Prieto, 2008: 281). Ildo horretan, Espainiako Estatua, hain zuzen, behin-behinekotasun tasa altuena duten herrialdeen artean kokaturik dago.

Era berean, malgutasunak teknologiaren bestelako erabilera ere ekarri du. Taylorismoan indarrean zegoen masa-ekoizpen estandarizatuaren ordeztu, merkatu eskaeraren araberrako ekoizpena ezarri da, bezeroen gustu pertsonalizatuak kontuan hartzen dituen. Ildo horretan, eskala handian ekoiztera bideratuta zeuden lehenagoko makinaren ordeztu, produktu barietate handiagoa eta espezializatuagoa egiteko balio dutenak jarri dira (Tickell eta Peck, 1992), moden aldaketei egokitu eta gustu pertsonalak hobeto asetuko zituztenak, hain zuzen.

Eskakizun horiek langileei ere aplikatu zaizkie, pixkanaka. Hortaz, gaur egun ez da hainbeste baloratzen makina edo teknologia jakin bat erabiltzeko trebetasuna, makina ezberdinetara moldatzeko gaitasuna baizik. Izan ere, garapen eta berrikuntza teknologikoaren bizkortasunaren ondorioz, teknika produktiboen eta makinaren biziraupena gero eta laburragoa izaten ari da.

Ildo horretan, metaketa flexiblearen printzipioak ezarri zituen enpresa aitzindaria izan zen *Toyota*. Ekoizpen malguaren printzipioen artean «*just-in-time*» edo «*kanban*» metodoak erabiltzen hasi ziren bertan (Antunes, 2001: 35). Metodo horien berezitasuna bezeroengandik eskaerak jaso ahala ekoiztea da. *Kanban* metodoa, zehazki, honako honetan oinarritzen da: produktu bat saltzean soilik ekin behar zaio stockean utzitako hutsunea betetzeari. Horrela, beharrezkoa dena baino ez ekoiztea da xedea. *Toyotako* lehendakari fundatzaileak horrelaxe adierazi zuen: «*lo ideal sería producir solamente lo necesario, y hacerlo en el menor tiempo*» (Coriat, 1992: 27-30, Antunesek aipatua, 2001: 35).

Orokorrean, malgutasunak ziurgabetasuna eta enplegu kaskarrak dakartzkie soldatapeko langileei (Migúelez eta Prieto, 2009: 286). Produktibitatea eta errentagarritasuna hobetzeaz gain, beste xede bat ere betetzen du malgutasunak, hots, langile batasuna sindikalismoaren indarra ahultzea. Izan ere, malgutasunak ekarritako behin-behinekotasunak eta kaleratzeen errazteak sindikatuen antolakuntza-gaitasuna bera jarri

du kolokan (Martín, 1992, 1995, Köhler-ek eta Martínek aipatua, 2010: 423); eta horrek, aldi berean, langileen baldintzak are gehiago okertzen lagundu du, gelditu ezinezko gurpil zoroan. Horregatik, sindikatuen helburuetako bat enpresen eta gobernuen malgutzeko estrategiei aurre egitea da.

Hari beretik, kaleratze mehatxuek eragin handia izan dute ekintza sindikalari dagokionez, beren lanpostua galzorian ikusten duten langileek lan baldintzak hobetzeko estrategia indibidualak lehenesten dituztelako kolektiboen aurretik, eta enpresei buruzko halanolakako «leialtasuna» mantentzera beharturik daudelako. Adibidez, aldi baterako langileek nekez ekingo diote beren baldintzak hobetzeko borroka kolektiboari (Miguélez eta Prieto, 2009: 279-280) lanpostua bera galtzeko arrisku larria baldin badute. Bestalde, langile finkoen baldintzak onargarriak badira, salbuespenak salbuespen, ahalegin gutxi egingo dute enpresa edo sektore bereko langile prekarioen egoera ontzeko, are gutxiago, langile finkoen kaleratzea gero eta merkeagoa eta ohikoagoa izanik haien lanpostua galtzeko arriskua badakar saiakera horrek.

Horiek horrela, ekoizpenaren malgutasunaren eskutik, soldatapeko langileen arteko zatiketa edo segmentazioa etorri da eta, ondorioz, haien ekintza kolektiboaren ahuldadea (ekintza sindikalarena barne).

Langileriaren segmentazioa

Zalantza barik, aldi baterako enpleguaren hazkundeak langileen arteko bereizketa sakondu du (Recio, 1999), lan baldintza ezberdinak areagotu baititu langileen artean, bai lan merkatuan bai enpresa barruan. Sarritan, lan baldintza ezberdintasun horiek gizartean dauden ezberdintasunen isla dira. Izan ere, langile norbanakoek osaturiko segmentuak ez dira ausazkoak izaten, sexuaren, adinaren, jatorriaren edo estratu sozialaren arabekoak baizik. Hala, emakumeak, gazteak, etorkinak eta gizarte kolektibo baztertuetako norbanakoak, eskuarki, lan baldintza okerrenak dituzten segmentuetan biltzen dira (Recio, 1999; Miguélez eta Prieto, 2009: 280).

Enpresaren barruan, alde batetik, enpresaren funtzionamendurako ezinbestekoak diren langile oso kualifikatuak egon ohi dira. Horiek enpresaren zereginen nukleoan kokatzen dira, eta lan baldintza oso onak izaten dituzte, lanaldi osoko kontratu finkoak barne (Harvey, 1998: 173). Beste alde batetik, langileen lehen talde periferikoa izan ohi dugu, langile erdi-kualifikatuz osaturik. Lanaldi osoa eta kontratu finkoa izanda ere, ibilbide profesional arrakastatsua gauzatzeko aukera gutxi dauzkate maila horretako langileok.

Metaketa malguaren ekoizpen metodo berriek talde horretako kideak jartzen dituzte arriskuan, moldatu ezean aise gera daitezkeelako kalean. Beheragoko maila batean, berriz, enpresako langileen bigarren talde periferikoa dugu, kualifikaziorik gabeko langilez osatua, lanaldi partzialean eta aldi baterako lan kontratuekin diharduena. Prekarizazioa dela eta, azkenaldian kuantitatiboki gehien handitzen ari den taldea da hori (Harvey, 1998: 174-175; Letamendia, 2009: 151). Azkenik, enpresatik kanpo dauden langileak ditugu, hau da, enpresentzat lan egiten duten azpikontratatuak, auto-enplegatuak (autonomo faltsuak), eta holakoak. Horiek enpresa nagusiko langileek baino askoz baldintza okerragoak izaten dituzte. Autonomoak badira, gainera, edozein unetan kalera ditzake enpresa nagusiak.

Hala, zentroko eta periferiako langileen interesen arteko zatiketa ez ezik, haien arteko polarizazioa bultzatzen da, ez kualifikatuen eta super-kualifikatuen arteko distantzia gero eta handiagoa delarik. Bestalde, langile klasearen zatiketa hori enpresa barruan ez ezik mundu mailako lan banaketan ere gertatzen da eta, horrela, guztien arteko antolaketa oztopatzen da (Atkinson, 1987, Hymanek aipatua, 1996: 12). Ildo horretan, oso aukera gutxi daude enpresaren nukleoan lan egiten duten langileak gainerako estratuen alde batu daitezen, nork bere ibilbide profesionala lehenetsiko duelako. Ibilbide profesional hori buruan, sistema postfordistan langile kualifikatuenek «estrategia indibidualak» lehenesten dituzte beraien egoera hobetzeko.

Lanpostuen eta lan baldintzen dibertsifikazioak eta segmentazioak zaildu egiten dute langile guztien arteko identifikazio kolektiboa artikulatzea eta den denak norabide berean antolatzea. Ondorioz, sindikatuek langile segmentuen arteko interesak jaso eta lehenetsiak ezarri behar izaten dituzte, eta horietako batzuk baztertu. Zenbaitetan, gainera, segmentu ezberdinetako langileen arteko talkak ere sortzen dira (Kern, Schumann, 1986, Hymanek aipatua, 1996: 12). Aurrerago ikusiko dugunez, emakumeak modu masiboan lan merkaturatzen hasi direnean, esaterako, lan baldintzen prekarizazioan eragiteaz gain, langileen arteko lehia- eta gatazka-joerak suspertu izan dira.

Enpresa-antolaketa

Fordismoko enpresa tipikoa modu bertikalean antolatzen zen, eta produktuak seriean ekoizten zituenez, tamaina handikoa behar zuen izan. Aldiz, industria sektorearen beheraldiak eta zerbitzu sektorearen gorakadak eraginda, sarean eta lantoki txikietan antolatzena igaro da gaur egungo enpresa postfordista. Hortaz, lantokien tamaina murriztu egin da, lantoki handi asko itxi egin dira, eta zerbitzuetara zuzendutako enpresa txiki eta

ertainak (ETE) ugaritu dira. Hego Euskal Herriko desindustrializazio partziala moldaketa prozesu horren adibide argia izan da (Basterra, 2018)

ETE horiek gehienetan kapital handiagoko beste enpresa batentzat egiten dute lan, azpikontratazioak baliaturik. Hori dela eta, enpresa handiek ez dute beren boterea galdu, kontrara baizik. Azpikontratazio sareen bidez, enpresa handiek unean uneko merkatu fluxuei egokitutako lan indarra erabil dezakete, lan merkatuaren zurruntasuna saihestuta. Hala, berrantolatutako enpresen sare horietan, badaude enpresa gutxi batzuk «buru» funtzioa bete eta irabazien parte handi bat jasotzen dutenak, eta beste batzuk, lan baldintza txarragoekin, «exekuzio» lanak egiten dituztenak. Lehenengoak ezagutza tekniko handidun langile kualifikatuz osatuta egoten dira; bigarrenak, aldiz, langile ez kualifikatuz hornituta. Azken horiek baldintza prekarioagoak eta askotan aldi baterako lan kontratuak izaten dituzte (Letamendia, 2009: 134).

Aztertzen ari garen enpresa motak enpresa edo produkzio «egokituaren»³⁰ ereduarekin egiten du bat (Womack et al., 1992, Boltanskik eta Chiapellok aipatua, 2011: 124). Ildo horretan, sarean jarduten du beste eragile batzuekin, lana taldeka eta proiektuka burutzen du, bezeroen nahiak asebetetzeko ardura hartzen du, eta langileen (langile batzuen) gaitasun tekniko eta sortzaile guztiak ustiatzen ditu. Enpresa «egokituaren» eredu ideala enpresa-sarearen erdigunean edo buruan kokatzen dena da; bere inguruan aritzen dira beharizan espezifikotarako enpresa azpikontratuak, hornitzaileak, bitarteko langileen eta gainerakoen sareak (Letamendia, 2009: 134).

Enpresa-eredu horretan aldatu egin da langileen eta enpresa-koadroen arteko harremana. Enpresa-eredu fordistan harremana oso bertikala eta hierarkizatua zen, modu nabarmenean; orain, berriz, koadroek bestelako jokaera bereganatzea egokitu zaie. Kirol talde baten entrenatzaile legez funtzionatu beharko lukete, taldearen kohesioa bermatuz, langileak beren onena eman dezaten motibatuz, ziurgabetasuneko uneetan soluzioa arinak eskainiz, eta abar (Boltanski eta Chiapello, 2011: 130-131).

Era berean, aro postfordistan langile bakoitzak autonomia handiagoa izan beharko luke bere eginkizunak betetzeko. Langilearen autonomiak lanaren produktibitatea areagotzea du helburu, langileak norberaren onena emango baitu aitortza jasotzeko (Bigi et al., 2015). Horrek koadroen eta langileen arteko harreman pertsonal hurbilagoa ahalbidetzen du, eta langileen antolaketa eta ekintza sindikala zaildu (langileak ez du *managerra*

³⁰ «Lean Production» ingelesez.

gorroto). Nolabait, langileek konfiantza pertsonal handiagoa garatzen dute beren arduradunekin sindikatuekin baino.

Laburbilduz, lehenagoko enpresa fordistak askoz handiagoak izaten zirenez, errazagoa zen langile antolakundeentzat milaka langile biltzen zituen lantegian eragitea eta horiek guztiak antolatzea. Osera, gaur egungo lantokiak gero eta txikiagoak eta sakabanatuagoak direnez, ahalegin handiagoa egin behar dute konfederazio sindikalek langileengana iristeko. Gainera, langileen eta nagusien arteko harremana askoz estuagoa eta pertsonalagoa izatean, zailagoa da nahigabearen aurrean protestaren bidea hautatzea.

Desindustrializazioa eta zerbitzu sektorearen hazkundera

syndicats pour répondre aux besoins et aux malaises de la classe travailleuse dans son ensemble.

Le travail, loin de disparaître, exprime des difficultés pour satisfaire toutes les fonctions que lui accorde la « société du travail ». C'est pourquoi nous parlons de la « crise du travail ». Étant donné que cette crise s'exprime de manières très différentes dans le cas des travaux marchands, principalement salariés, et des travaux non rémunérés, principalement domestiques et de soin, nous devrions peut-être parler de la crise « des travaux ».

De même, l'action des syndicats se focalise surtout dans le domaine des salariés, mais cela ne signifie pas que la crise des travaux domestiques et de soin n'ait pas eu un effet chez les syndicats. De fait, la féminisation de la force de travail salariée et la montée du mouvement féministe ont fait surgir des problématiques telles que la double journée de travail des femmes, la non-répartition des tâches domestiques entre hommes et femmes, et les difficultés pour prendre soin des proches.

Les syndicats et, en générale, le mouvement ouvrier sont sensés contrebalancer ces tendances liées à la précarisation des conditions de travail et de vie de l'ensemble la classe travailleuse comprise dans son sens le plus large, mais le nouveau modèle d'organisation du travail postfordiste et la montée du néolibéralisme les ont laissés dans une position de défaite.

Le fait que la conflictualité au travail ait perdu d'intensité en occident ne veut pas dire qu'elle soit disparue dans le monde. Tel que l'indique Beverly Silver (2005), dans un monde où la division et l'organisation de la production s'effectue à l'échelle mondiale, une relocalisation géographique des conflits s'est produite, et une multitude de conflits de travail éclatent partout dans le monde.

Gumbrell-McCormick et Hyman (2018 : 29) synthétisent ainsi les principales transformations structurelles qui ont supposé des importants défis pour le syndicalisme :

(1) Le déclin des industries manufacturières à grande échelle, dans lesquelles les syndicats ont longtemps eu une place prépondérante (l'éclipse du modèle syndical « industriel » (Visser, 2012)). (2) Les coupures budgétaires et la privatisation des services publics. (3) La croissance des emplois « atypiques » et précaires. (4) Le virement de la politique vers la droite néolibérale. (5) La montée de l'individualisme et le déplacement du collectivisme, sur lequel se fonde le syndicalisme. Et (6), le processus de globalisation,

qui a affaibli la capacité des syndicats de réguler les relations de travail à l'intérieur des frontières étatiques

Nous les avons tous mentionnés précédemment, d'une manière ou d'une autre. Cependant, dans notre cadre théorique nous avons ajouté et insisté sur l'importance de la place qu'occupe le travail dans nos sociétés, et la crise que suppose le non-accomplissement des fonctions sociales qui lui sont attribuées.

Tous ces éléments induisent une situation de crise et d'affaiblissement du syndicalisme européen occidental. Si les syndicats veulent accomplir leurs fonctions de contre-pouvoir pour l'amélioration des conditions de travail et de vie de la classe travailleuse, ils doivent nécessairement mettre en place un processus de renouveau stratégique, en passant par une réaffirmation du pouvoir syndicale.

L'IMPORTANCE DES CHOIX STRATÉGIQUES


Mais la crise du syndicalisme n'est pas uniquement la conséquence des facteurs structurels liés à la crise du travail et aux transformations du monde du travail. Les choix stratégiques des syndicats expliquent aussi, en grande partie, l'incapacité de tenir à leur légitimité interne (sociale ou de classe), et la priorité accordée au maintien des sources institutionnelles de légitimité externe.

D'un côté, la capacité d'attributions identitaires s'affaiblit comme conséquence de l'orientation stratégique aspirant à la reconnaissance du syndicat comme partenaire social. De l'autre, la préférence pour la concertation (donnant des résultats apparemment plus stables), tout en écartant la contestation, a miné leur capacité de faire pression en faveur des groupes qu'ils sont censés représenter. Ces deux processus sont étroitement liés et ils font partie du même cercle vicieux. Le partenariat social et une action syndicale moins conflictuelle ont contribué à s'éloigner de leur base (la principale source de légitimité interne) et à effacer les limites entre les protagonistes et les antagonistes. À son tour, ceci a engendré l'incapacité, ou le manque de volonté, d'adopter une forme d'action plus conflictuelle, qui nécessite de l'engagement des « *protagonistes* », qui pousse davantage les syndicats vers le partenariat et la concertation, ainsi de suite.

Les phénomènes liés à la crise du travail, engendrés par les profondes transformations du monde du travail et de la société en général, ont d'abord déclenché et ensuite aggravé ce cycle vicieux. Le partenariat et la concertation étaient peut-être effectifs pour les syndicats plus représentatifs sous le modèle fordiste, où le travail salarié fixe est un des piliers de

l'ordre social et les syndicats ont un grand pouvoir de négociation et de pression. Lorsque cet ordre est bouleversé, c'est tout le modèle de syndicalisme institutionnalisé, présentant le syndicat comme partenaire social, qui entre en crise.

7.16. Facteurs structurels et stratégiques de la crise syndicale



Élaboration propre.

Les facteurs structurels de la crise syndicale, quoique leurs effets nocifs soient réels, ils sont souvent utilisés comme justificatifs de leur inefficacité. Les difficultés du mouvement travailleur sont réelles, mais elles ne devraient pas nous emmener à en conclure que l'organisation et l'action collective des travailleurs pour un modèle de répartition de la richesse soient obsolètes. De notre point de vue, tant que le travail continue à agir comme un des piliers du modèle social d'exploitation, l'action et l'organisation des travailleurs seront toujours pertinentes.

En synthèse, la « *prise de parole* » des travailleurs à travers l'organisation et l'action collective est devenue de moins en moins envisageable, en partie à cause du processus d'individualisation culturel et des relations au travail, mais aussi, et surtout, à cause de l'incapacité de l'organisation et de l'action syndicale pour donner une réponse aux malaises du travail et améliorer les conditions de vie de la classe travailleuse dans son ensemble. Cette incapacité est due aux transformations structurelles du monde du travail mais aussi aux choix stratégiques des syndicats, qui ont souvent préféré tenir aux sources de légitimité et de reconnaissance externes, en accentuant les distances par rapport à leurs bases sociales.

En relation avec l'importance des choix stratégiques, nous pensons que les syndicats ELA et LAB sont des bons exemples de leur application, jusqu'à maintenant très peu reconnus et étudiés par le monde académique et universitaire.

8. SINDIKATUEN BOTEREA ETA BERRIKUNTZA ESTRATEGIKOA ULERTZEKO GAKOAK

SARRERA

Aipatu dugu dagoeneko lan munduan gertatutako aldaketak direla eta, sindikalismoa krisian dagoela, batez ere Europan eta Mendebaldeko herrialdeetan. Izan ere, sindikatuek gaitasuna galdu dute langileen interesak batu, langileen leialtasunari eutsi eta berorien ordezkari legez modu eraginkorrean aritzeko (Müller-Jentsch, 1988). Horiek horrela, zenbait ahotsek sindikalismoaren desagerpenerantz abiatzen ari gara berretsi dute.

Sindikatuena gaur egungo ezintasuna botere sindikalaren galerari dago lotuta, eta estrategikoki egoera horri nola egin aurre pentsatu behar dute gaur egungo sindikatuek. Dударik ez, sindikatuena eraberritze estrategikoak beraien boterea handitzera bideratuta egon beharko luke. Hortaz, atal honetan honako gaiak izango ditugu aztergai: sindikalismoaren etorkizunari buruzko eztabaidak, botere sindikalaren gaur egungo baliabideak eta dimentsioak, eta, ondoren, sindikatuek berrikuntza estrategikorako gara ditzaketan mekanismoak.

SINDIKALISMOAREN ETORKIZUNARI BURUZKO JARRERAK

Oro har, egia da Europako sindikatuak jarrera defentsiboan kokatu direla 80ko hamarkadaz geroztik. Haien ahultasuna eta nolabaiteko gainbehera dela eta, zenbait diskurtsok beraien amaiera iragarri dute, «aro industrialeko dinosaurioak» direlakoan (Köhler, 2008: 10).

Idea horren atzean sindikalismoaren heriotzaren bi aldaera bereiz daitezke. Lehena mundu anglosaxoian hedatu da, eta irtenbiderik gabeko egoera baten aurrean ikusten du sindikalismoa, langile mugimenduaren bestelako adierazpen antolatua batzuk bezalaxe. Tesi horren arabera, oraindik irauten duten arren, desagertu egingo dira sindikatuak epe luzean. Bigarren pentsaerak ez du sindikalismoaren amaiera ikusten, haren eraldaketa edo « korporatibizazioa » baizik. Bigarren tesi horren arabera, lan munduko aldaketen eraginez, sindikatuek beren gaitasun asoziatiboa eta bateratzailea galdu dute. Ondorioz, aurreikusten du ikuspegi horrek langileen antolaketa-modu murriztagoak geratuko direla aurrerantzean, sektore gutxi batzuetan erroturik, eta sektore publikoko langilez osaturik gehienbat (Köhler, 2008: 10). Hartara, diskurtso batek zein besteak sindikatuena gaitasunaren eta boterearen gainbehera sakonduko dela aurreikusten dute.

Lehenengo tesiari dagokionez, orain arte mantendu dugun azterketa-ildoari jarraiki, ez dugu bat egiten ideia horrekin. Lanaren bidezko esplotazioak dirauen bitartean, uste dugu langile mugimenduak zein sindikalismoak ezinbesteko eginkizuna izango dutela gizartean, eta beharrezkoak direla langile klasearen bizi maila hobearen alde egiteko. Are gehiago, sektore sozial askoren bizi maila behera egiten ari denean gaur egun, eta munduan eskura dauden gaitasun produktiboak inoiz baino garatuago daudenean.

Aipaturiko bigarren aurreikuspena izan daiteke sindikatuen bilakaera posible bat, baina ez bakarra. Bada, gure ustez, sindikatuek gaur egun egiten dituzten hautu estrategikoen araberakoa izango da antolakunde horien etorkizuna. Ildo horretan, bizirauteko eta bere ahalmena mantendu ahal izateko, ereduaren aldaketa sakona egin behar dute sindikatuek. Horixe da mundu akademikoan burututako eztabaidetan beste batzuk izan duten jarrera.

Mundu anglosaxoian, esaterako, «*Labour Revitalisation Studies*» izeneko korrontea gorpuztu da azken urteotan (Köhler, 2008: 12; Calleja, 2016a: 98). Hain zuzen ere, interesekoak ditugu korronte horren ekarpenak, uste dugulako langile mugimenduak eta langile antolaketek zeresanik badutela eta, ikuspegi estrategiko egokia baliatuta, beste eragile batzuekin batera, tresna mugatuak baina baliagarriak izan daitezkeela bestelako gizarte eredu eta ekoizpen harremanen aldeko prozesua elikatzeke.

Aipatu korronte horren ildoan, bide oso ezberdinak proposatu dira botere sindikala biziberritzeko. Lan honetan, Gumbrell-McCormickek eta Hymanek (2018) laburbiltzen dituztenak hartuko ditugu irizpide. Horretarako, lehenbizi, botere sindikalaren iturriak definitu eta ikusiko ditugu. Ondoren, botere sindikalaren oinarriak abiaburu moduan hartuta, berrikuntza estrategikorako proposatzen diren bilakaerak azalduko ditugu. Atal honek ELAren eta LABen bilakaera aztertzeke egitura eta erreferentzia moduan balioko digu tesiaren bigarren zatian.

BOTERE SINDIKALA: BOTERE ITURRIAK ETA GAITASUN ESTRATEGIKOAK

Botere sindikalaren definizioen artean, nahiko egokia deritzogu Lukesek (2005: 65) emandakoari: sindikatuek ondorio esanguratsuak eragiteko duten gaitasuna, bereziki beren interesak defendatzeko edota besteen interesei kalte egiteko, modu positiboan zein negatiboan (Lévesque, Murray, 2010: 43), beste modu batera esanda, beren eskaerak edo posizioak arerioek (patronalek edota gobernuek) bete ditzaten sindikatuek duten

ahalmena (Calleja, 2016b: 293). Ikusi dugunez, azken hamarkadetan botere hori ahulduz joan da, kanpo eta barne faktoreek eraginda.

BOTERE SINDIKALAREN ITURRIAK

Sindikatuaren botereak iturri ezberdinetatik edaten du. Gumbrell-McCormickek eta Hymanek (2018: 30-31), hasiera batean, lau botere iturri nagusi bereizten zituzten: *egiturazkoa*, *elkartezkoa* («*associational*»), *antolatzailea* («*organizational*») eta *instituzionala*. Era berean, lau botere iturri horiek beste hirurekin osatzen dituzte: *botere morala* (diskurtsiboa edo komunikatiboa), *elkarlana* edo *koalizioa*, eta *gaitasun estrategikoa* edo *logistikoa*.

Lehenbizikoa, *egiturazko boterea*, langileek lan merkatuan duten kokapenarekin lotuta dago, hau da, lan prozesuan duten negoziazio boterearekin (Garcia Calavia eta Rigby, 2016: 7; Gumbrell-McCormick eta Hyman, 2018: 30; Silver, 2005: 26-27; Wright, 2000: 962), baita egitura sozialaren osotasunean sindikatuak betetzen duten posizioarekin ere. Azken horren adibide sinple bat jartzearren, sindikatuak boteretsuagoak izango dira, jarduten duten gizartean beraiei buruzko iritzi onak baldin badaude eta beren funtzioak aitortzen badira, kulturalki sindikalizatuta egoteko ohitura zabaldurik baldin badago, eta abar. Lanaren aldaketei eta krisiari lotutako gertakariak botere iturri honetan kokatuko lirateke, hein handi batean.

Bigarren eta hirugarren iturriak, sindikatuaren *elkartze- eta antolakuntza-boterea* (edo *asoziatiboa* eta *antolatzailea*) ditugu (Silver, 2005: 26-27). Izan ere, Gumbrell-McCormickek eta Hymanek bereizi egiten dituzte biak (2018: 30). Batetik, *elkartze boterea* atxikimenduarekin lotuta dago, hots, afiliazioarekin eta jarraitzaileen kopuruarekin; horrek ahalbidetzen dio sindikatuari finantzazio iturri bat izatea (Elorrieta, 2012: 19-20) eta barne legitimitatea lortzea (Dufour eta Hege, 2010). Ildo horretan, kide afiliatua «ordaintzeko prest egoteak» ezaugarritzen du (Offe eta Wiesenthal, 2014: 154-155). Afiliazioa beharrezkoa da erakundearentzat, baina beti ez da antolakuntza-boterearen sinonimoa. Izan ere, afiliatu moduan, zeregin pasiboa izan ohi du sindikatuko kideak, eta ekintza kolektiboan parte hartzeko jarrera mugatuagoa izango du (Gumbrell-McCormick eta Hyman, 2018: 30).

Bestetik, *antolakuntza-boterea* (edo *antolatzailea*) dugu; funtsezkoa da kideak ekintza sindikalean inplikatzeko (Gumbrell-McCormick eta Hyman, 2018: 30) eta beren «ekiteko borondatea» artikulatzeko (Offe eta Wiesenthal, 2014: 154-155). Kideen ekintzarako

borondatea artikulatzeak barne prozesu demokratikoak eta eztabaida-mekanismoak eskatzen ditu oinarrizko militanteen eta sindikatuko koadroen artean, kideek eta militanteek erabakietan parte har dezaten, ekintza kolektiboan engaia daitezten (Lévesque eta Murray, 2003: 16), eta beraien ekintza eraginkorra izan dadin.

Azkenik, laugarren botere iturria dugu *botere instituzionala*. Elkartze- eta antolakuntza-boterearen indartzean eragin dezaketen kanpoko faktoreen artean honako hauek daude: patronalaren kolaborazioa, babes legala, enpresa batzordeen legezko eskumenak, gizarte ongizaterako administrazioa eta goi-mailako kontzertazio-egituretan betetako posizioa, hurrenez hurren (Gumbrell-McCormick eta Hyman, 2018: 31). Horiek guztiek osatzen dute botere instituzionala, eta zuzenean daude lotuta ordezkartza-funtzioak betetzeko erakundeek sindikatuei aitortutako legitimitatearekin (kanpo legitimitatearekin, alegia) (Dufour eta Hege, 2010).

Hala ere, ordezkartzarako kanpo legitimitate iturriekin gertatzen den bezala (Dufour eta Hege, 2010), botere instituzionalak nolabaiteko erosotasuna eragin dezake sindikatuen artean, instituzioek eskaintzen duten ustezko egonkortasunagatik eta erraztasunengatik; gerta liteke, beraz, sindikatuek bestelako botere iturriak hobetzeko ahaleginak alboratzea botere instituzionala bermatuta dutelakoan. Epe luzera, baina, iturri instituzionalen eraginkortasuna gutxitzeko arriskua sor daiteke, bestelako botere iturriei arreta nahikoa eskaintzen ez bazaie (Hassel, 2007). Ondorioz, zenbaitetan babes instituzionala onuragarria izan badaiteke ere, arrisku ere bihur daiteke epe luzera. Europako sindikalismo-eredu instituzionalizatua dugu prozesu horren adibiderik argiena.

Aurreko lau botere iturrien osagarri gisa beste hiru iturri osagarri aipatu dituzte autore batzuek. Botere iturri *moral*a dugu horien artean lehena. Era gaurkotuago batean esanda, botere diskurtsiboa edo komunikatiboa litzateke (Urban, 2012: 222; Websters et al., 2008) edo, beste batzuen hitzetan, narratiboa (Lévesque eta Murray, 2010: 49-50). Botere hori sindikatuen diskurtsoen interpretazio- edo erreferentzia-markoetan islatzen da. Ildo horretan, sindikatuek beren burua «justiziaren ezpata» gisa aurkezten, gizarte hobea eraikitzeke asmo dutela eta horretan ari direla erakutsiz (Gumbrell-McCormick eta Hyman, 2018: 31). Horretarako, beren azterketak, helburuak eta aldarrikapenak osatzen dituzte, bidezkoa baina egingarria denarekin bat etorrira, eta garaian garaiko lan- eta gizarte-arazoak kontuan hartuta. Era berean, interpretazio markoak egokitzea eta, beharrezkoa balitz, berriak sortzea, lotuta egongo litzateke garaiko arazo nagusiak

diagnostikatzeko, diskurtsiboki enmarkatzeko eta pronostiko egokiak (hau da, helburuak eta estrategiak) formulatzeko gaitasunarekin.

Elkarlana (edo *koalizioa*) da bigarren botere iturri osagarria. Botere iturri hori eskuratzeko, elkarlan harremanak garatu behar dituzte sindikatuek aliatuekin, ahalmenak biderkatzeko eta beren helburuak lortzeko. Botere iturri hori are baliagarriagoa da beste botere iturriak gainbeheran badaude (Gumbrell-McCormick eta Hyman, 2018: 31), eta lortu nahi dituzten helburuak beste gizarte-mugimenduen eta -eragileen bertsuak badira (aberastasunaren birbanaketa, gizartearen bizi maila hobetzea...).

Azkenik, botere iturri *estrategikoa* edo *logistikoa* dugu, gainerako botere iturrien erabilera eraginkor eta egokiaren araberakoa dena. Sarritan, iturri oso mugatuak edukita ere, irudimenak eta sormenak aukera ematen dute aurkari indartsuagoak eta iturri gehiagokoak gainditzeko (Gumbrell-McCormick eta Hyman, 2018: 31).

Horiek horrela, nola interpreta dezakegu botere sindikalaren galera botere iturrien ezaugarritze horretatik abiatu? Ikuspegi teoriko batetik, hauxe da, era orokorrean, lehenesten dugun interpretazioa, gure hipotesiekin lotuta dagoena: lanaren krisiak eta lanaren antolaketari lotutako aldaketek ekarri dute sindikatuen botere-iturri estrukturalen galera progresiboa. Halaber, galera horrek elkartze-, antolaketa- eta instituzio-botere iturrien higatzea areagotu du. Normalean, botere instituzional handia duten sindikatuek berorri eusteko joera izan dute, European batez ere; baina botere iturri instituzionalaren eraginkortasuna formala baino ez da izan askotan. Hau da, ordezkaritza instituzionaldun sindikatuek kontzertazio sozialean formalki parte hartu izanak ez du ezinbestean bermatu sindikatuak gobernuaren erabakiak baldintzatzeko eta onurak lortzeko gai direnik. Horiek horrela, badirudi iturri diskurtsibo eta komunikatiboak ez direla beti behar bezala egokitu egoera berrira, eta elkarlan berrietan ere ez dutela arrakastarik izan.

GAITASUN ESTRATEGIKOAK

Lévesquek eta Murray adituek (2010) bestelako analisi marko bat eskaintzen dute gaitasun estrategikoen azterketan sakontzeko. Analisi horren arabera, sindikatuen gaitasuna haien botere iturrien eta gaitasun estrategikoen artean banatzen da. Haien ustetan, gaitasun estrategikoak eta botere iturriak elkarreraginean ibiliko lirateke beti, eta biek ala biek eratuko lukete botere sindikala bere osotasunean. Hala, botere sindikalaz harago joateko ahalegina egiten dute aipatu aztertzaileek, gaitasun sindikalaren barruan pisu handiagoa eskainita gaitasun estrategikoei. Bestalde, sindikatuen botere iturri

nagusien sailkapen apurtxo bat ezberdina erabiltzen dute, Gumbrell-McCormick eta Hymanenarekin alderatuta (2018). Esaterako, elkartze boterearen ordez, *barne elkartasuna* aipatzen dute, antolakundearen identitate kolektiboaren kohesioa, bizitasuna eta parte hartzearen garrantzia azpimarraturik modu horretan (ikusi 8.1. irudia).

Ildo horretan, sindikatuen gaitasun estrategikoei dagokienez, Lévesque-k eta Murray-k (2010: 52) lau bereizten dituzte: *bitartekotza (intermediation)*, *markogintza (framing)* *artikulazioa* eta *ikasketa-gaitasuna*, hurrenez hurren. Lehenak, *bitartekotzak* maila eta subjektu anitzen esku hartzean, kontraesankorrak izan daitezkeen eskaera eta beharrianak kudeatzea eskatzen du. Halatan, bitartekotzarako gaitasuna gero eta beharrezkoagoa da subjektuen aniztasuna eta zatiketa gero eta handiagoa den gaur egungo gizarteetan. Ildo horretan, sindikatuen zereginei dagokienez, identitate kolektibo partekatua berrosatzea izaten da koadro sindikalen desafioetako bat (Lévesque eta Murray, 2010: 53-54; Elorrieta, 2012: 36).

Bigarrena, *markogintza* gaitasuna, diskurtsorako interpretazio markoak osatzean eta marko horien barruan esanahi jakin batzuk txertatzean gauzatzen da; zeregin horretan «gu» eta «bestea» definitzeko eta gizarte proiektu zabal baten parte izango den programa osatzeko ahaleginak egiten dituzte sindikatuek, inklusibotasun maila ezberdinak berenganaturik (Lévesque eta Murray, 2010: 55; Elorrieta, 2012: 36). Hain zuzen ere, testuingurura ondo egokitutako interpretazio markoak sortzeko eta moldatzeko gaitasunean oinarrituko litzateke *framing* lan hori. Gogora dezagun, gure hipotesien arabera, sindikatuen interes gaien eta esku hartze arloen hedapena gertatu dela gaur egun, lanaren krisiaren eta lanari lotutako aldaketen ondorioz. Horrenbestez, azkenaldiko *framing* ariketa horrek, lan eremuz kanpoko arazoekiko interes eta esku hartze handiagoa bultzatzean, lanaren zentraltasunaren galera erlatiboa eragingo luke sindikatuen diskurtoetan.


Azken hamarkadetako lan- eta gizarte-esparruko aldaketak tarteko, sortzen joan diren arazo eta bidegabekeria kasu berrietara doitu behar izan dituzte sindikatuek beren diskurtoak eta interpretazio markoak. Esan dugunaren arabera, diskurtoaren bidez interpretazio marko egokiak sortzea gaitasun estrategikoaren parte garrantzitsua da. Izan ere, langileen eta gizartearen arazo eta beharrianak detektatzea eta hobeto ulertzea, eta konponbide eraginkorrak planteatzea dakarte interpretazio marko egokiek; modu horretan, sindikatuaren eragin soziala ahalbidetzen dute. Baina, diskurtoaren edukia ez

ezik, ekintza komunikatiboaren formaren arrakasta ere ezinbestekoa da jendearengana heltzeko, eta horretarako sindikatuek antolakuntza-baliabideak garatu behar dituzte.

Hirugarren gaitasun estrategikoa *artikulazio gaitasuna* dugu. Artikulazioari dagokionez, gero eta garrantzitsuagoa da sindikatuentzat zein gizarte mugimenduentzat ekintza-maila ezberdinak konbinatzeko trebetasuna izatea (Tarrow, 2005). Hari horretan, funtsezkoa da eragile sindikalak ekintza-maila ezberdinetan modu elkartuan aritzeko gauza izatea, bereziki globalizazioak eraldatutako eskala nahiz testuinguru sozio-geografikoan. Testuinguru globalizatuan, gaitasun horrek tokiko esparruko, Estatuko eta nazioarteko ekintzak artikulatzea eskatzen du, eta nazioarteko elkarlanerako sareak osatzea (Lévesque eta Murray, 2010: 56). Esparru eta eskala ezberdinetako ekintzen artikulazioa garrantzitsua da, batik bat, Estaturik gabeko nazioetan jarduten duten sindikatuentzat (Elorrieta, 2012: 36-37).

Laugarren gaitasuna *ikasketa-gaitasuna* da, Lévesqueren eta Murrayren lanaren arabera. Izan ere, antolakundearen barruan ikasteko, hausnartzeko eta ezagutza berria eta eguneratuak zabaltzeko trebezia izan behar dute sindikatuek, iraun ahal izateko. Esperientziatik ikastea ezinbestekoa da sindikatuaren ahalmenak handitzeko eta ekintza sindikalaren berritze estrategikoa egikaritzeko (Lévesque eta Murray, 2010: 57-58; Elorrieta, 2012: 57). Bada, hori egin ezean, sindikatu bat bere historiaren gatibu bihurtzen da, ezingo baitu inertziak ezarritakoaz harago joan. Gaitasun estrategikoaren osagai horrek transmisio, ikasketa eta zabalkunde ahaleginak etengabe egitea eskatzen die sindikatuei.

8.1. Gaitasun sindikalerako botere errekurtsioak eta gaitasuna estrategikoak



Iturria: Lévesque eta Murray, 2010: 59

Azkenik, Lévesqueren eta Murrayren proposamena osatzeko, aipa dezagun Joxe Elorrietaren ekarpena, berak beste faktore bat gehitzen baitu orain arte azaldutako eskeman. Elorrietaren tesiaren arabera (2012: 318-320), autonomia sindikal hirukoitza da biziberritze sindikalerako barne faktore erabakigarrienetakoa. Banan-banan aipatuta, sindikatuen autonomia politikoak, autonomia finantzarioak eta autonomia negoziatzaileak osatzen dute, hurrenez hurren, gaur egungo sindikatuen aldaketa estrategikorako «gordiar korapiloa», haren ustetan.

BERRIKUNTZA SINDIKALERAKO DIMENTSIOAK ETA ESTRATEGIAK

Berritze, biziberritze edo *berrikuntza* sindikala esaten zaie «mugimendu sindikala “biziberritzeko eta indartzeko” eta sindikatuetan antolaketa-indarra eta indar instituzionala berreskuratzeko aldaketa-prozesuei» (Kumar eta Schenk, 2006, Murray-k aipatua, d.g.: 4). Ikusi dugunez, sindikatuen indarra ez da antolaketara eta instituzioetara mugatzen.

Horrenbestez, berrikuntza sindikalak lau dimentsio beregana ditzake, Behrens, Hamann eta Hurdeni jarriki (2004: 20-24): *afiliazio* dimentsioa, dimentsio *ekonomikoa* (sindikatuaren posizio negoziatzailea hobetzea), dimentsio *politikoa* (eragin politikoa

esparru guztietara zabaltzea) eta *antolakuntza*-dimentsioa⁶⁵ (sindikatuaren barne egituren dinamikei dagokiona). Berrikuntza sindikalak dimentsio horietakoren bat hobetzea bilatu beharko luke, gutxienez. Lau dimentsio horiek kontuan hartuta, sindikatuen biziberritzerako sei estrategia nagusi bereizten dira *Labour Revitalization Studies* ikerketa-korrontearen barruan (Turner, 2004: 4; Frege eta Kelly, 2004: 32-33; Gumbrell-McCormick eta Hyman, 2018: 46-50; Calleja, 2016a: 114-150). Dena dela, guk zazpigarren estrategia bat gehituko dugu, ekintza sindikalaren forman oinarritutakoa. Estrategia horiek dimentsio batean baino gehiagotan eragiten dute, beraz, era multidimentsionalean ulertu behar dira.

Antolakuntza-ereduak (*organizing*) kideen kopurua handitzera zein haien konposizioa aldatzera bideratutako estrategia da, sindikatuan azpiordezkatuak dauden gizarte taldeei antolakunde sindikala zabaltzea bilatzen duena (emakumeak, etorkinak, gazteak, langile prekarioak, elbarriak, enpresa txikietako langileak...). Estrategia horrek afiliazioaren dimentsioa (kide gehiago), ekonomikoa (baliabide gehiago), politikoa (ordezkaritza eta mobilizazio gaitasun handiagoa) eta antolakuntza hobetzen lagun dezake.

Bigarren estrategia *kooperazio harremanak* (*partnership* edo *partenariat*) sustatu nahi ditu, bai gobernuarekin bai enplegatzaileekin. Horrela, itun sozialen bidez, sindikatuek enplegatzaileek edo gobernuak bultzatutako aldaketak onartzen dituzte (malgutze neurriak eta kaleratzeak, esaterako), sindikatuen beste eskaera batzuk betearaztearen truke. Estrategia hori sindikatuen boterearen ahultasunak eragindako erreakzio oportunistak izaten da. Horrelakoetan, sindikatuak gaitasunik ez duenez eskaerak gatazkaren bitartez bideratzeko, enplegatzailearekin kooperazioa bilatzen du, kontzertazioaren ekintza-forma erabilita. Zenbaitetan, langileek eurek bultzatutako hautua izan ohi da, sindikatuaren irudi gatazkatsutik urruntzeko.

Aurreko ataletako hausnarketari jarraiki, esan daiteke estrategia horrek epe laburrera botere sindikala mantentzeko eta botere instituzionalari heltzeko balio dezakeela, dimentsio ekonomikoei eta politikoei dagokienez; baina arazoak sortzen ditu epe luzera, sindikatua, enpresaren eskaerak onarturik, bere oinarri sozialaren interesetatik urruntzen delako. Ondorioz, elkarrizketa sozialak edo kooperazioak gero eta emaitza urriagoak

⁶⁵ Beheren, Hamann eta Hurdek (2004) «*institutional dimension*» aipatzen dute, baina eskatzen duten definizioaren arabera, ez dira gobernu instituzioez ari, baizik eta sindikatuaren barne-egituraketa eta funtzionamenduari. Hortaz, egokiagoa iruditu zaigu «*antolakuntza-dimentsio*» legez itzultzea.

eskaintzen ditu (Hamann eta Martínez-Lucio, 2003; Hyman eta Gumbrell-McCormick, 2010).

Halatan, gure ikuspegitik, estrategia hori kaltegarria da luzera begira, sindikalismoa bere funtzioetatik urruntzen duelako, eta sindikatuaren ahultasuna areagotzen duelako. Izan ere, estrategia hori tarteko, sindikatuak uko egiten die presio egiteko dituen funtsezko tresnei, ekintza gatazkatsuari, grebari eta mobilizazioari, besteak beste (Las Heras eta Rodríguez, 2020).

Hirugarrenik, *ekintza politikoaren* estrategia dugu (*political action*). Estrategia horren oinarria politiken osaketa-prozesuetan sindikatuak duten eragiteko gaitasunean dago, lan legedi jakin bat bultzaturik, lan munduarekin zuzenean lotuta ez dauden politiketan presio eginik (gizarte politikak, ingurumen politikak, migrazio politikak...), eta abar. Ildo horretatik jota, eta ekintza politikoaren eremu zabalagoan kokatuta, sindikatuak parte hartze eta konpromiso handiagoa azaleratzen dute soldatapeko lan mundutik at kokatutako auzi sozialen eta politikoen aurrean, eta lan harremanetatik kanpo edo harreman horien periferian jarduten dute beste gizarte sektore batzuekin (emakumeak, gazteak, etorkinak, langile prekarioak, langabetuak, ordainsaririk gabekoak, etxeko langileak, eta abar). Estrategia horren ondorioz, sindikatuen antolaketa eta esku hartzea indartuta aterako litzateke lurralde eremuan (Miguélez eta Prieto, 1999: XVII; Letamendia, 2009: 51-52).

Beste modu batera adierazita, estrategia horrek sindikalismoak ordezkatu nahi duen oinarri soziala zabalduko luke, baita langile klasea bera ulertzeko modua ere. Izan ere, gizarte mugimenduekin harreman estuagoak izatera bultza dezake sindikalismoa. Hala, sindikatuaren eragin politikoa hobetzeaz gain, afiliazioa handitzea ahalbidetu lezake. Sindikatuaren eragin politikoa elkarrizketa sozialaren bitartez nahiz mobilizazioaren bitartez gauza daitekeela kontuan hartuta, bigarren aukera lehenesteak gizarte mugimenduetatik hurbilago kokatzen du sindikalismoa

Laugarren estrategia *sindikatuaren berregituraketa* (*restructuring*) dugu. Estrategia hori burutzeko hiru bide daude: federazioen arteko fusioa, konfederazioen arteko harremanak estutzea eta antolakuntza sindikalaren barne egituren moldaketa, gure arreta azken honetan jarriko dugularik. Berregituraketan helburua antolakuntza eraginkorragoa lortzea izaten da eta, beraz, botere handiagoa irabaztea. Bestalde, sektore- eta lurralde-egituren arteko konbinazio egokia lortzean oinarritzen da, neurri handi batean, sindikatuen barne

berregituraketa. Hala, azken hamarkadetan, lurralde egiturak indartzeko joerak atzeman dituzte zenbait autoreek, lurralde eremuak eta ekintza politikoak bereganatutako garrantziak eraginda (Letamendia, 2009: 52-53; Miguélez eta Prieto, 1999: XVII).

Bostgarren estrategia bestelako gizarte mugimenduekin batera egindako *aliantza edo koalizioen* eraketa dugu (*coalition building*). Gizarte zibilean txertatuta dauden aldaketaren aldeko interesak eta auziak jorratzen dituzte eskuarki gizarte mugimendu batzuek. Konpromiso sozial eta politiko sakonagoa bereganaturik, sindikatuak gai izan beharko lukete gizarte mugimenduek gizarte zibilean duten boterearekin bat egiteko, eragile horiekin elkarlana bultzatzeko, eta haiekin koalizioak edo aliantzak eraikitzeke (Pilati eta Perra, 2020). Horrek sindikatua ekintza sozialean nahiz politikoan gehiago inplikatzea eragingo luke eta, ondorioz, bere botere iturriak handitzea ez ezik eragin soziala eta politikoa zabaltzea ere lortuko luke sindikatuak.

Azkenik, azken urteetako globalizazioaren egoeran aparteko garrantzia hartu duen estrategia dugu. Globalizazio prozesuak arazo berriak ekarri ditu, baita aukera berriak ere *nazioarteko elkartasuna* eta *ekintza sindikal bateratua* bultzatzeko (*International Solidarity*). Estrategia horrek, esaterako, enpresa multinazionalen inguruko informazioa elkartrukatzea ahalbidetzen du eta, ondorioz, horrelako enpresetan ekintza sindikalaren gaitasuna areagotzea, edo lan merkatu globalaren Ipar-Hegoaren arteko lan banaketak ulertzea, tokiz tokiko joerak aurreikustea, eta abar.

ZAZPIGARREN BERRIKUNTZA ESTRATEGIA: EKINTZA FORMA GATAZKATSUEN ERABILPENA

Orain arte azaldu ditugun berrikuntzarako sei estrategia nagusi horiei zazpi garren estrategia bat gehitu nahi diegu lan honetan. Izan ere, arestian aipatutako estrategien artean, uste dugu «berrikuntza sindikalaren» teorikoen artean ahaztuta geratu dela ekintza erreperitorioei dagokiena. Zeharka bada ere, gutxi aztertu dira ekintza sindikalaren forma gatazkatsuagoak bereganatzeak ekar ditzakeen onurak. Aipatu dugu, bai, sindikalismoaren instituzionalizazioarekin batera haren orientazio identitarioa eta estrategikoa aldatu direla azkenaldi honetan. Hala, *klase* sindikatutzat jotako asko, elkarriketa sozialera bideratutako bitartekari sozial izatera igaro dira gaur egun, kontzertazioa izanik elkarriketa hori gauzatzeko modua (Molina, 2021: 335).

Gizartea gatazkaz eta kontraesanez zeharkatuta dagoela kontuan hartuta, gure aburuz, klase gatazka da sindikalismoaren berezko jarduera-eremua. Hortaz, sindikalismoak ezin

dio uko egin klase zein gizarte gatazketan posizio sendo eta argia izateari. Sindikatu batek ezin ditu instituzio edo enplegatzaileekiko kooperazioa eta kontzertazioa langile klasearen eta bestelako gizarte interesen ginetik jarri, bere berezko identitatea eta eginkizuna galdu gabe. Ildo horretan, akordioak eta itunak ekintza gatazkatsuen ondorio moduan ulertu behar direla uste dugu, eta ez horren ordeko moduan. Bestela oso mugatuak izango dira negoziazioen emaitzak eta asebeteko diren interes sozialak zein laboralak.

Hortaz, aurreko atalean aipatutako estrategiei zazpigarren bat gehitzen diegu lan honetan, hain zuzen ere, ekintza-forma gatazkatsua indartzearen estrategia. Ildo horretan, grebak berrikuntza sindikalerako duen ahalmena azpimarratu dute autore batzuek (Kelly, 2015; Elorrieta 2017: 170-171; López eta Andreu, 2019; Las Heras eta Rodríguez, 2020), besteak beste, grebak honakoak posible egiten dituelako: lantokian tokiko antolaketa sindikala (Dribbusch, 2016: 350-351), indar korrelazioak kristalizazioa, hitzarmen kolektiboak, eztabaida politikoa, ahalduz kolektiboa eta langileen arteko elkartasuna (Las Heras eta Rodríguez, 2020: 20). Bestalde, grebak klase gatazka era gordinean azaleratzen du langileen eta enplegatzailearen artean.

Bestalde, ekintza gatazkatsua ez da hautu boluntarista batekin soilik lortzen, beste baliabideak eta botere iturriak garatuta izan behar baitira. Esateko greban oinarritutako negoziazio taktika aurrera eraman ahal izateko, beharrezkoak dira honako baliabideak eta ezaugarriak edukitzea (Las Heras eta Rodríguez, 2020: 2): (i) antolakuntza-baliabideak sendotzea, hala nola greba-kutxa; (ii) aholkularitza juridikoa, ekonomikoa eta generokoa garatzea, langileak eta sindikatuak kontraerasoen aurka babesteko; (iii) autonomia politikoa lortzea, finantza-autonomia handiagoa lortuz eta diru-laguntza publikoen mendekotasuna gutxituz; (iv) itun korporatiboak eta gizarte elkarriketako akordioak baztertzea; eta (v) beste sindikatu erradikal batzuekin eta gizarte mugimenduekin itun berriak sortzea.

Bistan da ekintza gatazkatsua lehenesteak bi baldintza eskatzen dituela; bata, gainerako estrategiekin osaturik egotea (kooperazioa salbu) eta, bestea, botere iturri sendoak edukitzea. Bada, ezin dugu pentsatu ekintza gatazkatsuan tematzeak, soil-soilik bere horretan, sindikatu boterea sendotuko duenik. Aitzitik, kontrako eragina izan dezake gainerako estrategiekin konbinatzen ez bada.

Ekintza gatazkatsuz gain, funtsezkoa da aztertzea zer nolakoa den ekintza gauzatzen den eremua, zein ezaugarri dituzten inplikatu nahi dituen subjektuak, eta noraino den osagarria ekintza politikoaren eta aliantzaren estrategiekin. Ekintza-bitarteko nagusia greba badugu ere, sarritan tresna oso mugatua izan daiteke langile tipikoaz (industrialak, gizonetzkoa, zuria...) harago kokatzen diren kolektiboak edo sektoreak batzeko. Ohiko enpresa- edo sektore-greba batean, adibidez, eremu horretako soldatapeko langileen interesak izaten dira helburu eta, gehienetan (ez beti), langile finkoak izan ohi dira ekintza kolektibo horren protagonistak.

Greba orokor batek helburu zabalagoak bila ditzake (hau da, politikoak), beraz, langile klaseko edo gizarteko subjektu gehiagoren interesak barnebilduz gero (Kelly, 2015: 727-728). Adibidez, greba orokorraren testuinguruan burututako mobilizazio sozialak gainerako eragile eta kolektiboekin batera deitu daitezke, eta, era horretan, zentzu hertsian langileak ez diren gizarte sektoreak ekintza kolektiboaren parte hartzaile bilakatu, Hego Euskal Herriko 1999ko eta 2020ko greba orokorretan egin zen bezalaxe.

Hala, ekintza-forma gatazkatsuak erabiltzeaz gain, eraginkorra izan daiteke grebaz harago doazen ekintzak diseinatzea, alde batetik, sindikalizatuta ez dauden eta soldatapeko eremutik kanpo edo periferian kokatzen diren eta baztertuta dauden kolektiboak ekintzan parte hartzaile bihurtzeko (Kelly, 2015: 726-727), eta, beste alde batetik, gizarte mugimenduekin aliantzak sortzeko (Pilati eta Perra, 2020). Mobilizazio soziala izan ohi da horretarako ekintza formarik tipikoena eta erabiliena, baina, beste batzuk ere egon daitezke, hala nola, desobedientzia zibila, sabotajeak, errepide mozketak, ekintza performatiboak, sinadura-bilketak, eta abar. Horiez baliaturik, ekintza kolektiboaren protagonisten markoa zabaltzeko aukera sortzen da.

BERRIKUNTZA ESTRATEGIAK ETA ORIENTAZIO IDENTITARIO-ESTRATEGIKOA

Aurreko teorizazioetatik eta hausnarketetatik abiatuta, gure hipotesiaren arabera, klase sindikatu gisa bereganaturik zeukaten gizartearen irakurketa gatazkatsua berreskuratzen ahalegintzen dira berrikuntza bilatzen duten sindikatuak. Hori egiteko, baina, langile klasearen ulermen hertsitik harago, aintzat hartu behar dute langile klasearen osaketaren gaur egungo aldaketa. Hau da, langile klasea interpelatzen badute, klase hori adierarik zabalenean ulertuta egin behar dute, lan merkatutik kanpo edo lan merkatuaren periferian kokatzen diren langileak kontuan hartuta: langile prekarioak (gazteak, emakumeak eta etorkinak, batez ere), ordainsaririk ez dute etxeak, autonomoak, ezkutukoak,

etorkizunekoak (ikasle gazteak), potentzialak (langabeak) eta iraganekoak (jubilatutak), besteak beste. Horiek guztiak kontsideratu behar ditugu langile klasearen parte, gizartearen erreprodukziorako beharrezkoak diren jardueretan nola edo hala inplikaturik daudelako (egon direlako, edo egongo direlako), zuzenean nahiz zeharka esplotatuak direlako (edo izan direlako), eta jasotako diru sarrerak kapitala metatzea ahalbidetzen ez dielako.

Ondorioz, Hymanek (2001) eskaintako orientazio estrategiko eta identitarioen sailkapenaren barruan, uste dugu, lanaren krisia eta lanaren eraldaketak tarteko direla, sindikalismoaren berrikuntza estrategikoak klase sindikatuaren izaera berreskuratu eta barne hartu beharko lukeela, baina langile klasearen kontzeptualizazio zabala eta orokorra eginez, eta haren osotasunaren alde ekinez. Ikuskera horrek nahitaez inplikatzen du gizartearen atal oso zabalaren arazoak eta interesak aintzat hartzea eta interes horiek sindikalismoaren orientazio sozialarekin batera osatzea, betiere gizarte kapitalistaren irakurketa gatazkatsua alboratu gabe, eta ekintza gatazkatsuan engaiatuta.

Eredu horrek zenbait sindikalistek proposatutako gizarte mugimendu izaera hartzen duen sindikalismo motaren potentzialtasunean fokua jartzera garamatza. Izan ere, klase sindikatuaren eta gizarte lankidetzaren (*social partnership*) ereduaren artean kokatzen da «gizarte-mugimendu sindikalismoa», 6.3. irudian irudikatu dugun modura.

GIZARTE-MUGIMENDU SINDIKALISMOA⁶⁶

Azken urteetan, sindikatuek eragin soziala eta politikoa galduz joan diren heinean berean joan dira gizarte mugimenduak lehenago sindikatuei zegokien erreferentzialtasun soziala bereganatuz. Hala, badago ikuspegi bat langile mugimenduaren protagonismoaren edo eragin sozialaren galera gizarte mugimendu berrien loraldiari egozten diona. Ondorioz, gizarte mugimendu «zaharren» eta «berrien» arteko bereizketa sustatu da, eta, hartara, gizarte mugimenduen gorakadak sindikalismoa desplazatu duela argudiatzen da (Calleja, 2017).

Baina sindikalismoa gizarte mugimendu bat da ala ez? Bada, sindikatuak dimentsio bikoitza izaten dute Europan: gizarte mugimendu eta instituzio moduan jarduten dute. Alde batetik, gizarte mugimenduen parte dira, langile mugimenduak hartutako forma bat

⁶⁶ Erderetan, «*syndicalisme de mouvement social*», «*social movement trade unionism*» eta «*sindicalismo de movimiento social*» adierak erabiltzen dira. Euskaraz, «gizarte-mugimendu sindikalismo» legez itzuli dugu, baina «sindikalismo sozial» adierak antzeko esanahia du eta baliokide moduan erabili ohi da.

besterik ez direlako, ekintza kolektiboaren bitartez gizartean aldaketa bat eragin nahi dutenak. Beste aldetik, fordismo garaian lortutako aitortzak sindikatuen instituzionalizazioa ahalbidetu du European. Hartara, Estatuak gai sozial eta laborekin lotutako eginkizun eta eskumen batzuk aitortu dizkie, eta instituzio eredu bereganatu dute. Lehenak, sindikatua gizarte mugimendu moduan ulertzen duenak sindikatuen irudi dinamikoa sortzen du, aldaketaren sustatzaile gisa. Bigarrenak eragile kontserbakor eta estatiko bihurtzen ditu sindikatuak, aldaketaren oztopatzaile gisa (Molina, 2021: 182-183). Sindikatuen hautu estrategikoen arabera, sindikatu batek eredu bat ala bestea bereganatu dezake.

Zenbait autoreren ustez, sindikatuek gizarte mugimendu izatera bueltatu beharko lukete (Frege, Heery eta Turner, 2004). Lan honetan egindako hausnarketa teorikoek ere pentsamendu ildo horri eustera bultzatu gaituzte. Izan ere, instituzionalizazio prozesuak Estatuaren parte bihurtu ditu sindikatuak azkenaldian, eta haien errotze soziala kaltetu du. Ondorioz, gizarte mugimenduek sarritan ez dituzte sindikatuak aliatu potentzial moduan ikusten (Pilati eta Perra, 2020). Aitzitik, lehiakide jotzen dituzte (Köhler eta Calleja, 2017: 113). Horren aurrean, beharrezkotzat jotzen da sindikalismo eredu instituzionalizatua, burokratizatua eta zerbitzuak eskaintzera bideratutakoa alboratzea.

Sindikatuak, beren aldetik, barne tentsioak bizi dituzte, aldi berean mugimendutzat eta instituziotzat hartzen dituztelako beren buruak (Fairbothner eta Webster, 2008). Hortaz, estrategia berrikuntza batek sindikatuak instituzio izateri utzi eta gizarte mugimendu bilakatzea inplikatu luke, bete-betean. Ildo horretan, Gall-ek (2013: 2), adibidez, soldatapeko lan eremuko indarra ahulduta, esku hartze sindikala espazio publikora mugitzeko joera gertatuko dela aurreikusten du, hau da, eremu sozial eta politikora. Aldi berean, lurralde eremuko esku hartzea indartuko litzateke (Miguélez eta Prieto, 1999: XVII).

Eremu desplazamendu horren eredu gisa, *gizarte-mugimendu sindikalismoa* dugu. Eredu hori gizarte mugimenduen eta sindikatuen artean ezarritako bereizketa gainditzeko saiakera litzateke. Hari beretik, aipatu ereduak sindikatuen ohiko oinarri soziala soldatapeko langileez harago zabaltzea eragin lezake. Bada, gizarte mugimendu izaera bereganatzean, soldatapeko laneko arazoez gain, gizartean auzitan dauden gainerako gaietan ere arituko litzateke sindikalismoa. Egoera horretan, sindikatuak konpromiso handiagoa erakutsiko luke eremu sozialean eta politikoan, eta gizarte mugimenduekin aliantzak sortzeko erraztasun handiagoa eskuratuko luke (Köhler eta Calleja, 2015: 243;

Köhler eta Calleja, 2017). Hala, moralaren eta koalizioaren botere iturriak indartuta aterako lirateke (Köhler eta Calleja, 2015: 250-253; Calleja, 2016a: 292). Izan ere, gizarte mugimenduen eta sindikatuen arteko mesfidantzak gainditurik, era naturalagoan gauzatuko lirateke koalizioak eta elkarlana. Baina, gizarte-mugimendu sindikalismoaren estrategia bereganatzeak jarrera gatazkatsuagoa bultzatzea inplikatzeko du, kontzertazioa eta elkarrizketa soziala bigarren maila eramanez, eta ekintza kolektiborako forma zahar eta berriak konbinatzea (Byford, 2009: 42, Köhler-ek eta Callejak aipatua, 2015: 243, 253).

Autore batzuek ohartarazten dutenez, gainerako gizarte mugimenduetako eragileekin aliantzak eta elkarlana sindikatuentzat positiboak badira ere, bien arteko fusioa ez da horren desiragarria. Izan ere, argudiatze ildo horren arabera, lan harremanetan egikaritzen den esku hartzeak gizarte mugimenduetan ez dagoen esku hartze mota berezia dakar berarekin. Lan merkatuak eta lan harremanek sortzen dute sindikalizazioaren beharra, eta, hartara, sindikalismoari izaera eta funtzio espezifikoak dagozkio (Hyman, 2004). Halatan, gizarte-mugimendu sindikalismoa, sindikalismo forma bat da izaten jarraitu beharko luke. Sindikalismo eraberrituak ezin du mugimenduekin «bat egiteko» xedea izan behar, bai ordea «elkarlanera» biltzeko helburua, agente bakoitzaren autonomiari eutsirik. (Fairbrother eta Webster, 2008).

Hymanen (2004) oharrarekin bat etorrira ere, ikusteke dago eredu horren finkatzeak afiliazioan izan dezakeen eragina. Izan ere, erreferentzialtasun soziala irabazteak ez du, nahitaez, afiliazioaren igoera ekarri behar. Langileak sindikatuan afiliatzen dira, ordainetan, zerbitzu eta defentsa eraginkorrak espero dituztelako neurri handi batean (logika ekonomikoa), eta, hartara, sindikatuak ezin dute soldatapeko lan mundua erraz abandonatu eta negoziazio kolektiboa baztertu. Besteak beste, zaila delako norbanakoak antolakunde bat jarraikortasunez finantzatzeko prest egotea, trukean ezer jasotzen ez badute beren lan baldintzetan eta soldatetan. Arrazoi horregatik, ekintza sozialari garrantzia eman arren, sindikatuak ez dute soldatapeko lan eremuko ekintza alboratzen, hori baita bere berezko jarduera-esparrua, eta afiliatuak eta baliabide ekonomikoak eremu horretan egindako lorpenengatik erakartzen dituzte, gehienbat.

Nahiz eta aztertzeke hautatu ditugun sindikatuak osoki ez duten beren burua definitzen aipatu dugun ereduaren arabera, uste dugu azaldutako ezaugarriek balio dutela sindikatuon berrikuntza estrategikoaren norabidea zein izan daitekeen aurreikusteko. Ildo horretan, azterketa honen helburuetako bat hautaturiko Hego Euskal Herriko sindikatuak

ezaugarri horiek zein neurritan eta nola bereganatu dituzten analizatzea eta «gizarte-mugimendu sindikalismoak» aurrerantzean sindikalismoaren estrategia berrietan zer toki har dezakeen ikustea izango da.

ONDORIOAK

Azken atal honetan sindikatuen biziberritzea nola gauza beharko litzatekeen ikusten saiatu gara, gai horri buruzko berrikusketa teoriko batetik abiatuta. Hala, aurreko atalean sindikalismoaren egoera zehaztu ondoren, eragin eta botere sindikalaren gakoak identifikatu ditugu, eta, zenbait autoreren arabera, berrikuntza estrategia posibleak zeintzuk izan daitezkeen ikusi dugu. Mahaigaineratutako elementu horiek gizarte-mugimendu sindikalismoaren eredura eraman gaituzte. Ereduek horrek klase kontzeptualizazio zabala eta konpromiso sozial eta politiko sakonagoa eskatuko lieke sindikatuei, baita ekintza kolektibo gatazkatsuekin bat egitea eta gizarte mugimenduekin aliantza sendoagoak eraikitzea ere. Haatik, eredu horrek baditu bere kontraesanak; izan ere, gizarte mugimendu izaera bereganatzeak ez du esan gura langileek haien lanpostutik kanpo soilik antolatu eta ekin behar dutenik.

Atal hau bereziki garrantzitsua da, kasu azterketaren egitura kapitulu honetan aurkeztutako ildoan arabera antolatuko dugulako, hemen aipatu diren elementuak eta prozesuak identifikatu ahal izateko. Hala, hautaturiko sindikatuei dagokienez, hamarkadaz hamarkada, botere sindikalak hartutako ezaugarrietan eta bereganatutako berrikuntza estrategien aplikazioan jarriko dugu arreta tesiaren bigarren zatian.

9. METODOLOGIA

Lan munduaren testuingurua modu teorikoan aztertu eta sindikalismoaren bilakaeraren interpretaziorako gakoak eskaini ondoren, eragile sindikalen azterketari ekingo diogu hemendik aurrera, sindikatu jakin batzuen bilakaera estrategikoan arreta jarriko. Hori egiteko, sindikatu horien interpretazio markoak hartuko dira abiaburu.

Ikerketa lan honetarako hautatutako metodologia gizarte zientzietako metodologia kualitatiboaren esparruan kokatzen da (Valles, 1999). Metodologia zientifiko horrek aktore indibidualek nahiz kolektiboek errealitate sozialaz edo haren aspektu batez dituzten pertzepzioak eta esanahiak jasotzeko helburua dauka, baita aktore horiek burututako ekintzen eta bizitako esperientzien atzean dauden diskurtsoak eta egitura kognitiboak ere atzemateko. Hartara, metodologia kualitatiboak asko erabiltzen dira gizarte zientzietan, hala nola, politika zientzietan, soziologian, historian, antropologian, eta abar. Ikerketa kualitatiboak metodologia eta teknika jakin batzuk eskatzen ditu. Esparru kualitatiboaren barruan, *kasu azterketa kualitatiboa* aplikatuko da lan honetan, eta azterketa mota hori kasuen arteko alderaketarekin osatuko da.

Kasu anizkoitzaren azterlana ikerketarako metodologia kualitatiboa da, eta kasu bat edo gehiago bilatzeko, ikertzeko eta sistematikoki aztertzeko prozesuetan jartzen du arreta. Kasutzat hartzen da ikerketarako interesa daukan unitatea, eta unitate bakarra edo hainbat unitate har daitezke kontuan ikerketan.

Muñizen hitzetan (2010), kasuaren azterketa estrategiatzat nahiz teknikatzat har daiteke, bietatik duelako. Ikertzaile kualitatiboa paradigma eta ikuspegi baten barruan kokatzen denean, estrategia jakin bat hartzen du, dokumentala, kasu azterketa, bizi historia, azterketa biografikoa, ikerketa-ekintza edo metodo historikoa izan daitekeena, adibidez. Ildo horretan, kasu azterketak ikerketa-estrategia espezifikoak izan daitezke. Bestalde, kasuaren azterketa informazioa biltzeko teknika ere bada. Kasuaren azterketak laginaren hautaketaren zatitza har daitezke, hau da, ikertzaile kualitatiboak paradigma bat, ikuspegi bat eta estrategia bat har ditzake, eta, horregatik, fenomeno bat, gertaera bat aztertzea edo teoria bat frogatzea erabakitzen du. Helburu hori izanda, aztertu ahal izateko kasu egokienak zein diren zehaztu behar du.

Esan bezala, hautaturiko kasua bakarra izan daiteke, edo anizkoitza. Kasu anizkoitza ere, kasu bakarra bezala, metodologia-ikerketaren helburuetara egokitzen da, ondoren aipatzen ditugun ezaugarri hauek dituelako. Lehenik, *partikularista* izan ohi da. Izan ere,

ikerketaren unean garatzen diren unitate edo egoera zehatzak aztertzen ditu, eta datuak jasotzeko teknikak behatzeko eta exekutatzeko aukera eskaintzen du. Bigarrenik, *deskriptiboa* da. Bada, datuak behar bezala biltzeko eta ondoren aztertzeko gida osatzen duten proposamen teoretikoetatik abiatzen da, eta aztertutako kasuen deskribapen zehatza eta kualitatiboa egiten du. Aztertu beharreko hainbat aldagai daude, beharrezkoak direnak planteatutako galderei erantzun osoa eman ahal izateko, bai eta ebidentzia-iturri batzuk ere, kasuen diseinutik datuak lortzeko hainbat modu dituztelako. Hirugarrenik, *heuristikoa* da. Horrek esan nahi du aztergaiaren alderdiak zein deskribatutako hipotesiak egiaztatu ahal izango direla. Bi kasu azterketa egingo dira, adibidez, antzeko bi inguruetan aztertu beharreko ezaugarriak analizatu eta alderatu nahi direnean. Azkenik, *induktiboa* da: kasu bat baino gehiago aztertuta, hipotesi eta harreman berriak egingo dira, alderaketaren bitartez.

Lege orokorrak eman ahal izateko kasu askoz gehiago beharko liratekeen arren, kasu anizkoitzeko azterketa bat, bi kasu dituen, adibidez, nahikoa da proposizio teoretikoetara orokortzeko, eta ez populazioetara edo unibertsoetara. Hartara, «Kasu Anizkoitzaren Azterketak», esperimentuak bezala, ez du lagin bat irudikatzen; ikertzailearen helburua teoriak hedatzea eta orokortzea da (orokortze analitikoa) eta ez maiztasunak zerrendatzea (orokortze estatistikoa) (Yin, 2018).

Ikerketaren jatorrizko galdera orokorrak aintzat harturik, tesi honen bigarren zatian Hego Euskal Herriko bi sindikatu abertzale nagusiak «zelan» eta «zergatik» aldatu diren azaltzea da gure helburua, aktore kolektibo horien ikuspegietatik eta pertzepzioetatik abiatuta (Yin, 2018). Bilakaera horren nondik norakoak azaltzeko unean, garrantzi berezia eskaini diogu lanaren krisiaren eta antolaketaren testuinguruari, baita Euskal Herriko egoera politiko eta instituzionalari ere. Kasuen diseinutik datuak lortzeko erabili dugun modua bi sindikatu horiek epe jakin batean sortutako dokumentu nagusien *diskurtso analisia* izan da (Sayago, 2014).

AZTERKETARAKO KASUEN ZHAZPENA

Hego Euskal Herriko bi sindikatu abertzale nagusien (hau da, ELA eta LABen) ibilbidean oinarrituko dugu azterketa, 1976tik 2008rako epean. Eremu geografiko moduan Hego Euskal Herria hautatu dugu bertako errealitate instituzional, laboral eta sindikal bereziagatik. Izan ere, Hego Euskal Herriko lan harremanek nolakotasun bereizgarria hartu dute Espainiakoarekin alderatzen baditugu: lan legegintza estatu esparruan zehazten

bada ere, lan harremanak eta errealitate sindikala guztiz bestelakoak dira Nafarroan eta Euskadiko Autonomia Erkidegoan.

Hala ere, EAEko eta Nafarroako errealitate instituzional eta administratiboa bereizia izanik, bi eremuen artean badaude, egon, ezberdintasun handiak. Esaterako, sindikalismo abertzaleak pisu handiagoa du EAEn, eta lan harremanen marko instituzionala egituratuago dago bertan. Ondorioz, saihetsezina egin zaigu EAERI pisu handiagoa ematea gure azterketan. Hala, nahitaez, gure analisisan islatuago egongo da EAEko errealitatea Nafarroakoa baino. Saiatu gara Nafarroa ere kontuan hartzen, baina konturatu gara sindikatuak beraiek emandako interpretazio markoetan jazotzen den hutsunea dagoela herrialde horri buruz. Hau da, Hego Euskal Herri osoan hedatuta egon arren, sindikatu abertzaleek EAERI pisu handiagoa eskaintzen diote interpretazio markoak eta estrategiak markatzeko unean.

Bi izan dira ELA eta LAB sindikatuak hautatzeko arrazoiak: Hego Euskal Herrian gehien hazi diren sindikatuak dira, alde batetik, eta, beste alde batetik, Europako sindikalismoan ezohikoa den berezitasuna dute: abertzaleak dira eta ez dira Estatu mailan antolatzen; azken honen ondorioz, mundu akademikoan jaso duten arreta eskasa izan da orain arte. Hutsune hori bete nahian, gutxitan analizatuak izan diren bi eragile sindikal horiek hartu ditugu aztergai (LAB askoz gutxiago aztertu da ELA baino), Europako sindikalismoaren biziberritzerako eredugarriak izan daitezkeelakoan, beraien akats eta kontraesan guztiekin. Bestalde, bi sindikatu hautatu ditugu eta ez bat, bien arteko ikuspegi konparatiboa azterketarako aberasgarria izan daitekeela dugulako uste. Oso eredu ezberdinak eta, batzuetan, kontrajarriak izan dituzte ELAk eta LABek eta, hala ere, zenbait ezaugarri partekatzen dute aipatu dugun sindikalismoaren biziberritzean.

Azkenik, azterketa 1976tik 2008ra mugatzea erabaki dugu, lehen datak Espainiako Estatuaren aldaketaren muga sinbolikoa ezartzen duelako, besteak beste, sindikatuak legeztatuta oraindik egon ez arren, beren jarduera normalizatzen eta lehen kongresuak egiten hasi zirela. Hala nola, ELAk 3. Kongresua burutu zuen urte hartan, eta LABek lehen Asanblada Nazional ofiziala. Era berean, 2008ko urteak beste mugarri bat ezarri zuen, krisi ekonomiko globalaren eztanda orduantxe gauzatzen hasi zelako. Epe tarte horrek egoera instituzional normalizatu baten barnean (frankismopeko testuinguruak azterketa konplexuago bihurtuko luke), lan munduko aldaketa sakonenei sindikatuak nola egokitu zitzaizkien aztertzeko aukera ematen digu. Bestalde, ez dugu ahaztu behar fordismoaren krisia 70eko hamarkadan hasi zela, eta lan munduko egoera berria 2000ko

hamarkadan egonkortu zela, hein handi batean. Horrez gain, ELAk eta LABek tarte horretan burutu zuten haien bilakaera estrategiko nagusia. Arrazoi horiek guztiek justifikatzen dute, beraz, epe tarte horren egokitasuna azterketarako.

Testuinguru politikoari dagokionez, 2008tik aurrera, krisi ekonomikoari ez ezik ziklo politiko berriari ere ematen zitzaion hasiera. Besteak beste, ETAk jarduera armatua bertan behera utzi zuelako 2010ean, eta hamarkada horren hasieran 15M mugimendua, lehenago, eta Podemos alderdiaren sorrera, geroago, bizi izan zirelako. Testuinguru ekonomiko eta politiko berriak kontuan hartu beharreko faktore asko gehitzen ditu, eta konplexuago bihurtzen du azterketa. Horrenbestez, gure ikergaiaren xedeak zedarrizteko beharrak tarteko, lan honen helburuetatik kanpo dagoen beste ikerketa-proiektu baten zeregintzat jo dugu 2008tik gerokoaren azterketa.

AZTERKETARAKO TEKNIKAK

Ikerketarako, bi teknika erabili ditugu: sindikatuek sortutako idatzizko dokumentuen diskurtso analisia eta elkarrizketa sakonak, hurrenez hurren. Bi teknika horien bitartez, sindikatu abertzaleek osatutako diagnostiko eta pronostiko markoak aztertu ahal izan ditugu, alegia, egoerari buruz egiten dituzten irakurketak eta egoera horri aurre egiteko aurkeztu dituzten estrategiak.

Dokumentuen laginari dagokionez, sindikatuek beren kongresuetan ateratako txostenak hautatu eta analizatu ditugu gehienbat. Kongresuak hiru edo lau urteko maiztasunarekin egiten dira eta bertan hartzen dira sindikatuen erabaki garrantzitsuenak. Hortaz, egoki jo ditugu kongresuetako txostenok sindikatuen bilakaera estrategikoaren berri izateko, baita, unean uneko jarduera sindikala baldintzatzen duten faktore garrantzitsuenak identifikatzeko. Noizbehinka, sindikatuen aldizkariez eta horien liburuez ere baliatuko gara, kongresuetako txostenetako informazioa osatzeko asmoz.

Bestalde, elkarrizketa sakonak ere egin zaizkie eragileetako ordezkari esanguratsuei, dokumentuen azterketako emaitzak osatu, zuzendu edota berresteko xedearekin. Laginketarako, hautatutako denbora tartean sindikatuko zuzendaritza-organoetan ibilitako kideak elkarrizketatu dira. Zehazki honako pertsonak elkarrizketatu ditugu ELAren partetik: German Kortabarria, Joxe Elorrieta, Mikel Noval, Nahia Fernandez eta Jone Bengoetxea. LABen partetik, honakoekin izan ditugu elkarrizketak: Txutxi Ariznabarreta, Txomin Lorca, Rafa Diez eta Ainhoa Etxaide.

Elkarrizketak, eredu holistikoaren eta fokatuaren, eta zuzenduaren eta librearen arteko erdibidekoak izan dira. Galderetan egoera sozialaren analisi orokorraren, planteatutako estrategien eta lanaren eta errentaren banaketaren inguruan duten ikuspegiak galdetu zaie informatzaileei, eta galderak elkarrizketatuen ezagutza mailaren arabera moldatu dira. Teknika horren bitartez, dokumentu publikoetan jaso ez diren diskurtso inplizituen berri izan dugu.

Azkenik, bildutako dokumentazioa eta elkarrizketak NVIVO software programaz baliatuz aztertu ditugu, interesatzen zaigun informazioa diagnostiko eta pronostiko markoen arabera sailkatzeko eta azterketa erosoago egin ahal izateko.

DISKURTSOAREN BIDEZKO INTERPRETAZIO MARKOEN ANALISIA

DISKURTSO- ETA INTERPRETAZIO-MARKOEN ANALISIAK

Ekintza kolektiboaren esparruari dagokionez, 70eko hamarkadan «baliabideen mobilizazioaren teoriaren» (McCarthy eta Zald, 1977) ikuspegiari egindako kritikaren ondorioz hartu zuen pisua diskurtso analisiak (Lindekilde, 2014: 195). Baliabideen mobilizazioaren teoriak gizarte eragileen pizgarri selektiboen eta kalkulu arrazionalen gain ipintzen zuen bere arreta. Hain zuzen ere, ekintza kolektiboa azaltzeko protestari eta ideologiari behar besteko pisurik aitortu ez izana leporatu zitzaion baliabideen mobilizazioaren teoriari (Klandermans, 1984). Hutsune hori ikusita, lengoaiari, diskurtsoari eta ezagutza prozesuen azterketari garrantzi handiagoa eman zieten hurbilketa teorikoak eta metodologikoak garatzen hasi ziren aztertzaile batzuek mugimendu sozialen ikerketan. Hurbilketa horien artean daude diskurtsoen eta markoen analisiak (Lindekilde, 2014: 195).

Gauza bera izan ez arren, funtsean, oso antzekoak dira diskurtsoen eta markoen analisiak. Lehenengo analisiak gizarte mugimenduen diskurtsoek errealitate diskurtsiboan duten eragina aztertzen du. Marko analisia, berriz, gehiago zentratzen da gizarte mugimenduen gertakarien edota auzi batzuen inguruan burututako enmarkatze- eta interpretazio-prozesuetan, esanahien ekoizpenean arreta ipinita. Azterketa honi dagokionez, interpretazio markoen analisia aplikatu dugu. Izan ere, gure helburua hautatutako sindikatuek errealitatea zelan interpretatzen duten eta beren ekintza interpretazio horretara nola moldatzen duten aztertzea da, eta ez sindikatuen diskurtsoek errealitate sozialean duten eragina behatzea. Hori bai, sindikatuen diskurtsoei erreparatu diegu markoak analizatzeko orduan.

Gehienetan, diskurtsoa interakzio sinbolikoen multzo moduan definitu da. Horrela, historialarientzat, adibidez, garai, toki eta herri jakin batean ekoizitako honako materialen multzoa izango litzateke: manifestuak, ekitaldi grabazioak, protesta ekintzak, prentsa artikulua, leloak, hitzaldiak, posterrak, kartelak, elkarte estatutuak, eskuorriak eta abar (Sewell, 1980: 8-9). Ildo horretan, gaur egungo gizarte mugimenduen ikertzaileek ere gehienetan testu dokumentuen eta prentsa-artikuluen bidez aztertzen dituzte diskurtsoak, baina, oro har, entzun eta idatzi daitezkeen hitzek, eta ikusi eta grabatu daitezkeen interakzioek osatzen dute diskurtsoa. Diskurtso horien azterketa sakona eginda, sindikatuen diskurtsoaren interpretazio- edota erreferentzia-markoak osatzen joan gaitezke, arestian esan bezala, lotura estua baitago diskurtsoen eta markoen artean. Horrela, diskurtsoaren azterketa sakonaren bitartez, behetik gora berreraiki ditzakegu eragileen egitura mentalak (Johnston, 1995: 218-219) eta kognitiboak.

INTERPRETAZIO MARKOAK

Ekintza sindikalaren bilakaeraren analisia egiterako unean, sindikatuen diskurtsoaren bidez azaleratzen diren interpretazioetan edo ekintza kolektiboaren markoetan jarri dugu arreta. Gizarte krisien edota arrangura egoeren aurrean, mugimendu sozial eta politiko ezberdinek egoera horiek interpretatzeko prozesuak abiarazten dituzte eta eskaera batzuk formulatzen, eskaera horien alde pertsonak mobiliza daitezzen (Acevedo, 2013: 3). Prozesu horietatik interpretazio marko batzuk osatzen dira. Goffmanen kontzeptualizazioa hartuta, marko horiek honela definitu daitezke:

«“Schemata of interpretation” that enable individuals “to locate, perceive, identify, and label” occurrences within their life space and the world at large. By rendering events or occurrences meaningful, frames function to organize experience and guide action, whether individual or collective». (Snow et al., 1986: 464)

Snowek eta Benfordek azaltzen dutenez, marko horiek interpretazio eskema moduan funtzionatzen dute, «kanpoko mundua» sinplifikatuz eta kondentsatuz (Snow, Benford, 1992: 137; Hunt, Benford eta Snow, 1994: 190). Labur esanda, markoek honako galderei erantzun ohi diete, modu inplizituan: zer ari da gertatzen? Zer esaten ari dira? Zer esan nahi du horrek? Nola erantzun beharko litzaioke gertatukoari? Horrenbestez, auzi baten aurrean markoek betetako eginkizun nagusiak honako hauek dira: hain zuzen ere, egoera bidegabeak seinalatzea eta elementu ezberdinen interpretazio koherenteak egiteko artikulazio mekanismoak eskaintzea. Interpretazio markoek, sarritan, funtzio

eraldatzailea ere gauzatzen dute, jada ezarrita dauden markoak edo interpretazio-moldeak alda ditzaketelako (Snow eta Benford, 2019: 393).

Gizarte mugimenduek eta sindikalismoak, ideien eta diskurtsoen eroale edo igorle funtzioa ez ezik, zeregin aktiboa ere betetzen dute esanahien sorreran. Hori dela eta, eragile sozialek eta sindikalek «enmarkatze» (*framing*) deritzon esanahiaren ekoizpen prozesuan jarduten dute (Snow eta Benford, 1988: 198; Snow eta Benford, 1992: 136; Larrinaga, 2007: 39; Acevedo, 2013: 4). Enmarkatze prozesuan, gertaera eta egoera garrantzitsuak interpretatuz, gertaera horiek diskurtso-testuinguru konkretuan kokatzen dira, jarraitzaileak mobilizatzeko, gizarteko audientziaren babesa edo jarrera ona jasotzeko eta antagonistak gelditzeko asmoz (Snow eta Benford, 1988: 198; Hunt, Benford eta Snow, 1994: 192-201; Larrinaga, 2007: 39-40; Acevedo, 2013: 3).

Enmarkatze prozesu hori borroka sinbolikoaren baitan gertatzen da. Errealitate soziala norbanakoen eta taldeen eraikuntza den neurrian, errealitate sozialari buruzko definizio desberdinen arteko etengabeko lehiak eta liskarrak burutzen dira, hain zuzen ere, errealitatearen definizio jakin bat ezartzeko edo ikuspegi jakin bat «ukaezinezko egia» bihurtzeko, hau da, legitimo bihurtzeko gehiengo baten pertzepzioan (Bourdieu, 1997). Noski, definizio horien atzean talde eta eragile sozial jakinen interesak egon ohi dira. Definizioak berez ez dira lehiatzen, horien atzean dauden talde sozialak baizik. Hartara, edozein motatako konfliktoren atzean, borroka sinbolikoak egon ohi dira.

Sindikatuak eta beste mugimendu sozialek ere borroka sinboliko horietan hartzen dute parte, beren munduaren ikuspegi alternatiboak eta eraldatzaileak zabaltzeko. Esanahien sorkuntza-lanean, kanpoko mundua interpretatu ez ezik, planteatzen duten ekintza kolektiboari (sindikalari) zentzua ere esleitzen diote mugimendu sozialek eta sindikatuek, arazo baten aurreko erantzuleak seinalatuz, proposamenak formulatuz, parte hartzera edo alde egitera deituz, esaterako (Larrinaga, 2007: 40-41). Eskuarki, ekintza kolektiboa esanahi ekoizpenen inguruabar liskartsuan burutzen denez, arerioak, audientziak eta protagonistak identifikatu behar izaten dira. Hartara, esanahien produkzioa ekintza kolektiboa burutzen dutenen nortasun kolektiboaren eraikuntza prozesuarekin loturik egon ohi da.

Eragileek beren ekintza kolektiboa enmarkatzean, hiru interpretazio marko sortzen dituzte modu inplizituan: diagnostiko markoa, pronostiko markoa eta motibazio markoa, hain zuzen ere (*Diagnostic framing, prognostic framing* eta *motivational framing*) (Snow

eta Benford, 1988; Snow, Vliegenthart eta Ketelaars, 2019: 396; Ibarra, 2005: 182-183; Larrinaga, 2007: 41). Gure ikerketan, diagnostiko eta pronostiko markoak hartuko ditugu kontuan.

Diagnostiko markoen eraikuntzan bi alde bereiz daitezke. Alde batetik, konpondu beharreko arazotzat jotzen da gertaera zehatzen bat, bizitza sozialaren aspekturen bat edo gobernu sistemaren alderdiren bat. Bestela adierazita, egoera edo gertaera jakina bidegabekeria moduan definitzen da (Gamson, 1992, Benford-ek eta Snow-ek aipatua, 2000: 615). Beste alde batetik, arazotzat harturiko egoera horren sortzaileak identifikatzen dira, eta haiei egozten zaie erantzukizuna (Snow eta Benford, 1988; Hunt, Benford eta Snow, 1994: 191; Snow, Vliegenthart eta Ketelaars, 2019: 396). Gure azterketan, diagnostiko markoek sindikatuek identifikatzen dituzten arazoan eta pisuzko gaien berri ematen digute.

Pronostiko markoetan, berriz, konponbide bat proposatzen da delako arazoari erantzuna emateko. Horrela, egoera bidegabearen aurrean «egin beharrekoa» zehatzen da. Prozesu horretan ekintza-egitasmo bat diseinatzen da, helburu jakin batzuk zedarritzen dira eta arazoa konpontzeko taktika eta estrategia jakinak garatzen dira. Sarritan, aurkariek errefusatu egiten dituzte proposatutako konponbideak. Nolanahi ere, diagnostikoa eta pronostikoa erlazionatuta egoten dira, testuinguruak hala baldintzaturik. Testuinguru ezberdinetan, antzeko diagnostikoez pronostiko oso ezberdinak izan ditzakete (Snow, Vliegenthart eta Ketelaars, 2019: 396). Gure lanean, pronostiko markoek sindikatuen planteamendu taktiko eta estrategikoen berri ematen digute.

Hala eta guztiz ere, arazo baten diagnostikoa eta berorri konponbidea emateko pronostikoa egiteak ez du esan gura, ezinbestean, horretarako urratsik egingo denik, edo protagonistak ekintzara pasatuko direnik. Bada, ekintzara jauzi egiteko beharrezkoa izaten da jendea elkarrekin aritzeko konbentzitzea. Ondorioz, «motibazio marko» deitu diren hirugarren motako interpretazio eskemak «armetarako deia» izan ohi dira; izan ere, diagnostikoez eta pronostikoez haragoko ekintzaren justifikazioa izaten dute helburu. Beraz, ekintza horrek ekar ditzakeen arriskuak beren gain hartzeko motiboak barnebiltzen ditu motibazio markoak (Hunt, Benford eta Snow, 1994: 191; Gamson, 1992, Snow-ek, Vliegenthart-ek eta Ketelaars-ek aipatua, 2019: 396). Gure azterketan hirugarren marko eredu hori alboratzea erabaki dugu. Izan ere, azken analisi horrek ekintzarako motibazioak elkarriketa sakon gehiagoren bitartez jasotzea eta bestelako ikerketa

teknikak erabiltzea ekarriko luke, adibidez, afiliatuei inkestak egitea, beren bizitza historiak osatzea, eta abar. Eta ariketa horiek gure helburuetatik kanpo daude lan honetan.

Arestian esan bezala, aipatu ditugun hiru interpretazio marko horietatik identitate kolektiboak eta indibidualak eraikitzen dira. Ildo horretan, hiru identitate eremu bereizi daitezke ekintza kolektiboaren esparruan: protagonistarena, audientziarena eta antagonistarena, hurrenez hurren (Hunt, Benford eta Snow, 1994: 192-201; Ibarra, 2005: 183-184).

Azterketa batzuetan ekintza kolektiboaren atzean dauden ideologiak hartzen dira kontuan. Ideologiek interpretazio markoen antzeko funtzioak betetzen dituzte, baina askoz egitura egonkorragoak dituzte. Ideologiaz ari garenean, ideien eta errepresentazio sozialen sistema trinko batez ari gara. Sistema horrek gizarte baten edo gizarte talde baten ideia politiko, juridiko, moral, erlijioso, estetiko eta filosofikoak barnebiltzen ditu. Jakinaenez, ideologiek gure eguneroko portaeretan eta ohituretan eragiten dute (Harnecker, 1973: 97-98). Ondorioz, ekintza kolektiboa «ideologikoki egituratuta» egoten da (Zald, 2000), edo behintzat, «baldintzatuta» (Snow, 2004: 396). Ideologia diskurtsoaren bitartez azaleratzen bada ere, kontzeptu bien arteko harremana zehaztea problematikoa izan daiteke. Bada, markoak edo diskurtsoak ez dira zuzenean ideologiatik eratortzen (Snow, 2004: 399).

Kasuen azterketarako, interpretazio markoen kontzeptua aplikatzearen aldeko hautua egin dugu, eta marko horietan jarri dugu arreta. Analisisian, sindikatuen ponentzietan azaltzen diren diskurtsoen bitartez, bi marko mota ezberdindu ditugu, diagnostiko markoa eta pronostiko markoa. Batetik, diagnostikoan saiatu gara lanaren krisiarekin eta lan munduko aldaketekin lotutako elementuak identifikatzen, bestelako elementu koiunturalagoak ere kontuan harturik (politikoa, instituzionala...).

Bestetik, pronostiko markoak aztertuta, sindikatuen planteamendu taktiko-estrategikoak identifikatu nahi izan ditugu, eta, hain zuzen ere, diagnostikoan aipatutako elementuekin dauden konexioetan sakondu. Gainera, atal teorikoan landutako sindikatuen berrikuntza estrategiak nola aplikatu diren ikusi gura izan dugu. Hipotesien artean, lan mundutik arlo sozial zabalagora irteteko eta langile klasearen kontzeptualizazioa zabaltzeko gaur egungo sindikatuak dauzkaten joerak aipatu ditugunez, horiexekin lotuta dauden aspektuetan jarri dugu arreta.

KASU AZTERKETAREN EGITURA

Dokumentuen eta elkarrizketa sakonen edukia aztertzeko unean, modu jakin batean egituratu dugu informazioa. Izan ere, NVIVO softwareak informazioa «kasuen» eta «nodoen» arabera kodifikatzeko aukera eman digu. Hortaz, kasuen eta nodoen arabera sailkatu dugu informazioa.

Kasuen sailkapenerako, sindikatuaren siglak (ELA edo LAB) eta, denbora tarte gisa, hamarkadak (1970-80ko hamarkada, 1990eko hamarkada eta 2000ko hamarkada, hurrenez hurren) erabili ditugu. Bestalde, nodo egitura konplexuagoa da, azterketa egituratzeko erabili ditugun kategoriak edo gaiak baitira da. Kasu bakoitzari egokitutako diagnostiko markoan honako nodoak hartu ditugu kontuan: 1) koiunturazko testuingurua (politikoa, lan harremanetako, ekonomikoa, Hego Euskal Herriaren instituzionalizazioari dagokiona eta nazioartekoa), 2) egiturazko testuingurua eta 3) sindikatuaren bere jardueraz egiten duen balorazioa. Ondoren, pronostiko markoan, honako elementu hauetan jarri dugu arreta: 1) printzipio eta helburu ideologikoak, 2) aldarrikapenak eta esku hartze arloak, 3) antolakuntza ereduak, bai afiliazioa lortzeari begira, bai barne mailako egituraketari begira, 4) koalizioak (nazioarte mailako sindikatuekin, Euskadiko beste sindikatuekin eta beste arloetako eragile sozialekin), 5) helburuak lortzeko ekintzen errepertorioa, 6) azkenik, aurreko elementuak kontuan hartuta, interpelatutako gizarte kolektiboetan zentratu dugu arreta, identitate kolektiboaren eratzean *audientzia* izatetik *protagonista* izatera pasatu nahi diren gizarte kolektiboetan, alegia.

Interpretazio markoen azterketa egiteko unean, hasierako hipotesiak egiaztatze eta gezurtatze aldera, teorikoki ezaugarritutako lan munduko aldaketekin lotuta dauden honako elementu edo prozesuetan jarri dugu fokua, batik bat:

- Diagnostikoan: behatu eta analizatu dugu lanaren krisiaren adierazpen ezberdinei buruzko aipamenak azaltzen ote diren (lanaren eginkizunak, lan- eta ekoizpen-prozesuaren antolaketa, langile klasearen osaketa...), baita lanetik kanpo eratutako subjektuen problematikak ere kontuan hartzen ote diren dokumentuetako testuetan. Horrez gain, egoera politiko eta instituzionalak zer-nolako trataera duen.
- Pronostikoan: behatu eta analizatu dugu lan honen 8. kapituluaren zerrendatutako sindikatuen botere iturriak eta biziberritze estrategiak nola agertzen dokumentuetako testuetan. Bestalde, zera begiratu dugu: ekintza sindikala lan-

tokitik harago joan behar den planteatzen ote den; lurralde egiturak zer-nolako pisua duen; lan-eremutik kanpo kokatzen diren eragileekin aliantzak planteatzen ote diren; eta interpelatutako gizarte kolektiboen sorta zabaltzen doan ala ez.

Egitura horren zehaztapenak ez du esan nahi nodo horiek besterik aintzat hartu ez direnik sindikatuen bilakaeraren azterketan. Arreta berezia eskaini diegu elementu eta prozesu horiei, lan munduko aldaketekin lotuta daudelako. Baina, bestelako gaiak ere hartu ditugu aintzat, bilakaera horren arrazoiak sakoneko interpretazioa egiteko. Bada, ezinezko jo dugu bilakaera estrategiko asko kontuan hartzea, esaterako, egoera politikoa, ekonomikoa, laborala edota instituzionala kontuan hartu barik.

Esandakoa laburbilduta, honako egitura honen arabera hautatu, sailkatu eta analizatu dugu informazioa:

1.KASU AZTERKETAREN UNITATEAK
Sindikatuak: ELA eta LAB Epeak: 1976-1989, 1990-1999, 2000-2008
2. ANALISIAREN NODOAK
2.1.Diagnostiko markoa
<ul style="list-style-type: none">▪ Koiuntura (politika, ekonomia, lan harremanak eta instituzionalizazioa)▪ Egiturazko testuingurua (lan-munduko aldaketak, subjektu berriak...)▪ Norberaren jardueraren balorazioa
2.2.Pronostiko markoa edo estrategia

- Printzipio eta helburu ideologikoak
- Aldarrikapenak eta eskuhartze arloak (arlotan sozialaren, politikoaren eta laboralaren arteko alderaketa, batik bat),
- Antolakuntza
- Aliantzak (sindikatuaren artekoak, gizarte eragileekin egindakoak eta nazioartekoak),
- Ekintzen errepertorioa (negoiazioa, gizarte mobilizazioa, greba...)
- Interpelatutako gizarte kolektiboak

Aurreko eskemaren egitura hori bera erabili dugu erredakzioa antolatzeko ere. Ildo beretik, 1976tik 2008rako aldia hiru hamarkadetan zatitu dugu. Hamarkada bakoitzean, bi sindikatuari atal bana eskaini diegu, eta sindikatu bakoitzari egokitutako ataletan, nodoen egiturarekin bat datozen azpi-atalak azaldu ditugu.

Azkenik, atal bakoitzaren gako nagusiak azpimarratzeaz gain, ondorioetan bi sindikatuen markoen arteko konparaketa egin dugu, zertan diren berdinak eta ezberdinak azalduz. Era berean, sindikatuen arteko alderaketa aberasteko eta ikusterrazagoa egiteko, hamarkadako epealdian sindikatu bakoitzak bere diskurtsoa enmarkatzeko darabiltzan gako-hitzen zerrenda laburra eskaintzen dugu. Modu horretan, bistan jarri ahal izango ditugu era azkarrean sindikatu bakoitzak epe eta testuinguru jakin batean lehenesten dituen gaiak. Gako-hitz horien aukeraketa sindikatu bakoitzaren interpretazio markoen barruan hartzen duten garrantziaren arabera egin dugu, irizpide kualitatiboen arabera eta ikertzailearen interpretazioa kontuan hartuta.

10. KASU AZTERKETA: 1970EKO ETA 1980EKO HAMARKADAK

LES ORIGINES : APERÇU DE L'ÉVOLUTION DU SYNDICALISME ABERTZALE

L'étude de recherche commence par l'analyse des cadres interprétatifs des discours des syndicats ELA et LAB à partir de l'an 1976. À partir de cette année, les syndicats commencèrent à organiser les premières assemblées et congrès, semant les premières graines de ce qui constituerait la réalité syndicale des années suivantes. Cependant, bien que l'activité syndicale ait été normalisée cette année-là, il convient de faire un bref aperçu des origines du syndicalisme *abertzale* pour avoir un minimum de connaissance sur ce type de syndicat.

LA FIN DES GUERRES CARLISTES ET L'ÉMERGENCE DES MOUVEMENTS OUVRIERS ET NATIONALISTES BASQUES

Au Pays Basque, le syndicalisme industriel commence à s'organiser vers la fin du XIXème siècle, lorsque, avec la fin des guerres carlistes, l'industrialisation prit force en Bizkaia, de la main de l'industrie du fer, de l'acier et de la construction navale (Abasolo, 2014 : 73). De manière plus précise, les historiens situent en mai de 1890 la naissance des luttes ouvrières basques. La célébration du 1er mai avait eu un caractère combatif sans précédent cette année-là, en raison des luttes pour la journée de travail de huit heures et la grève générale des mineurs de Bizkaia qui déclenchèrent la déclaration d'état de guerre et l'intervention de l'armée (Unanue, 2002 : 19).

De plus, le développement de l'industrie basque ne peut pas être compris sans l'abolition des anciennes institutions forales basques. Le *Fuero Nuevo* de Bizcaya de 1526 établissait :

« *Ningún natural ni extraño, así del Señorío de Vizcaya, como de todo el Reino de España o de fuera de ellos, puede sacar fuera de este Señorío para reinos extraños, vena ni otro metal alguno para labrar hierro o acero, so pena que la persona que lo sacara pierda la mitad de los bienes y sea desterrado perpetuamente de estos reinos.* » (Basterra, 1894, cité par Unanue, 2002 : 30).

L'administration des mines correspondait aux institutions forales de Bizkaia, et non au Roi d'Espagne. Cette norme forale qui interdisait l'exportation du minerai en dehors de la Seigneurie empêchait, d'un côté, la gestion et l'exploitation des mines de la part du Roi d'Espagne, ce qui supposait déjà un conflit de compétence entre les deux institutions. Ensuite, elle empêchait l'exportation et, donc, les possibilités d'industrialisation de Bizkaia. Les Guerres Carlistes sont souvent simplifiées comme un conflit pour la succession au trône entre Charles de Bourbon, soutenu par les partisans de l'ancien régime, et Isabelle II de Bourbon, soutenue par les libéraux. Mais au fond, ces guerres sont une expression du conflit entre ceux qui voulaient préserver les anciennes lois (les paysans moyens, les artisans, les petits marchands, le clergé et la noblesse locale) et ceux qui voulaient la libéralisation et la privatisation de l'exploitation des terres, ainsi que la centralisation du territoire du Royaume (les paysans enrichis, les propriétaires des terres, les grands marchands, la bourgeoisie industrielle et la haute noblesse) (Beltza, 1978).

Ainsi, l'industrialisation et le développement du capitalisme au Pays Basque est intimement lié au conflit d'autogouvernement basque car ils supposèrent l'abolition des lois forales et la perte de compétences des institutions basques, en plus de l'appauvrissement de la population paysanne basque. Une fois les lois forales abolies, ce conflit se reconfigure sous une forme plus moderne avec l'apparition du nationalisme basque et du Parti Nationaliste Basque (PNB) en 1895 (Beltza, 1978).

D'un autre côté, l'industrialisation entraîna l'immigration massive de travailleurs espagnols prolétarisés, venus vendre leur force de travail au Pays Basque, surtout en Bizkaia. Ce sont ces travailleurs qui, en grande partie, sont à l'origine du mouvement ouvrier et du socialisme au Pays Basque. Ainsi, le mouvement socialiste ou ouvrier et le mouvement nationaliste surgissent presque simultanément dans le temps. Au début, le nationalisme et le mouvement ouvrier ou le socialisme conformaient deux mondes sociaux complètement séparés, voire confrontés. Mais avec le temps, le nationalisme basque créa sa propre organisation ouvrière, Solidaridad de Obreros Vascos (SOV)⁶⁷ en 1911. Beaucoup plus tard, pendant le franquisme, certains courants du nationalisme basque adoptèrent une idéologie socialiste. L'ETA est l'exemple plus évident du nouveau nationalisme socialiste (ou révolutionnaire) basque, mais elle n'est pas la seule à avoir

⁶⁷ Solidaridad de Obreros Vascos est le nom adopté par ELA lors de sa création. De fait, le nom « Eusko Langileen Alkartasuna » est la traduction de SOV. Plus tard, le syndicat nationaliste changea son nom à ELA-STV (Solidaridad de Trabajadores Vascos).

entamé ce processus (Rubiralta, 1997). ELA, par exemple, fait siens les objectifs socialistes de surmonter le capitalisme lors de son 3ème congrès en 1976 (ELA, 1976a).

En 1885 surgit en Espagne le PSOE⁶⁸, et en 1888 la UGT, la première confédération syndicale espagnole. Toutefois, le socialisme n'avait quasiment pas d'influence entre les travailleurs jusqu'à la grève générale du mai de 1890, menée par le parti socialiste (Unanue, 2002 : 37-38). À partir de cette date, UGT fut, jusqu'à la fin de la 2ème République, l'organisation ouvrière plus importante du Pays Basque péninsulaire.

L'APPARITION DU SYNDICALISME NATIONALISTE

En 1911, le syndicat CNT⁶⁹ est créé en Espagne et le syndicat SOV, (plus tard ELA-STV) au Pays Basque, ce dernier par l'impulsion du PNB qui commence à s'occuper de la question sociale et qui cherchait à éloigner les travailleurs basques des idées socialistes, tout en faisant une critique au modèle de capitalisme « absorbant ». SOV était lors de sa création un syndicat nationaliste basque, modéré et chrétien, pour qui l'objectif était « d'harmoniser les intérêts des patrons et des travailleurs et de ne pas susciter la lutte de classes » (Letamendia, 2004 : 24-25 ; Olabarri, 1978, cité par Letamendia, 2004 : 24).

La création de SOV supposa une nouveauté dans le mouvement syndical, car il introduisait les revendications nationalistes d'une nation sans État au sein du mouvement ouvrier (Unanue, 2002 : 49), une des caractéristiques que nous voulons remarquer dans notre recherche. Cette particularité a apporté la pluralité et la fragmentation du syndicalisme basque jusqu'à aujourd'hui.

Jusqu'à 1933 le modèle d'organisation de SOV était diffus et articulé par métier, comme les syndicats primitifs. SOV s'implante rapidement en Bizkaia, et de manière plus progressive en Gipuzkoa. Vers les années 1930, SOV s'étend par Araba et Nafarroa, et devient un concurrent plus sérieux de UGT (Unanue, 2002 : 41-42 ; Letamendia, 2004 : 24). En 1936, avant l'éclatement de la guerre civile, ELA-STV comptait sur 52.000 adhérents, alors que UGT en avait 43.000 (Letamendia, 2004 : 32).

En 1931, SOV donne une plus grande priorité aux revendications nationalistes et participe au projet de Statut d'Autonomie de Lizarra, qui accordait les compétences législatives en matière sociale et du travail (contrairement au Statut d'Autonomie actuel). Cependant, ce

⁶⁸ Partido Socialista Obrero Español

⁶⁹ Confederación Nacional del Trabajo, syndicat anarcosindicaliste espagnol.

projet fut dérogé et remplacé par un autre qui accordait uniquement les compétences exécutives dans le domaine du travail (Letamendia, 2004 : 27).

En 1933, à partir de son 2ème congrès, SOV devient ELA-STV et passe à s'organiser par fédérations d'industrie (Unanue, 2002 : 60 ; Letamendia, 2004 : 28). En plus, issue du 2ème congrès, nous trouvons la première formulation de ce qui plus tard devint le « Cadre Basque des Relations de Travail », une des revendications centrales du syndicalisme abertzale :

« Solidaridad de Trabajadores Vascos por cuanto medios estén a su alcance tratará de conseguir que las Corporaciones públicas del país que sean las que, libremente y asesoradas por los organismos profesionales competentes, regulen la vida social del mismo, gozando para ello de la voluntad de dictar y ejecutar las leyes sociales, organizar su inspección y cuanto concierne la vida sindical vasca ». (cité par Letamendia, 2004 : 28).

Même si SOV ou ELA-STV surgissait du PNB, il aura toujours une certaine autonomie de ce parti. Par exemple, le syndicat nationaliste avait une position d'abstention autour de la grève générale révolutionnaire de 1934, mais beaucoup de ses adhérentes étaient en faveur d'y participer, alors que le PNB la condamnait complètement (Letamendia, 2004 : 31).

Avec la victoire militaire des franquistes, les syndicats sont déclarés illégaux dans l'État espagnol et remplacés par la Central Nacional Sindicalista, un des piliers du régime franquiste, plus connu comme « sindicato vertical ». Ainsi, les syndicats basques passent à la clandestinité. Cela ne veut pas dire que les conflits de travail aient été totalement neutralisés. En effet, plusieurs grèves eurent lieu pendant les années 40 et 50, mais beaucoup plus sporadiques en raison de la persécution du régime (Unanue, 2002 : 61).

LA TRANSFORMATION DE ELA DURANT LE FRANQUISME

En 1962 se produisit une des plus grandes mobilisations ouvrières depuis la fin de la guerre civile au Pays Basque péninsulaire, à laquelle le régime répondit avec la déclaration de l'état d'exception. À la suite de ce conflit il se crée la première commission ouvrière (*comisión obrera*) à Bizkaia, conformée par douze militants de différentes organisations, dont ELA-STV (Unanue, 2002 : 62).

Ces commissions étaient la forme d'organisation plus active du mouvement ouvrier pendant l'époque franquiste, et elles sont à l'origine du syndicat CCOO. Toutefois, elles avaient très peu à voir avec le syndicat actuel. En fait, les *comisiones obreras* étaient à l'origine des plateformes plurales et plus ou moins spontanées, où se regroupaient les travailleurs et les militants de diverses organisations (communistes, socialistes, chrétiennes, abertzale...), dont ELA et le Front Ouvrier de ETA. Mais petit à petit, vers la fin des années 60, le PCE (Partido Comunista de España) gagne le contrôle des commissions ouvrières, et les militants des autres organisations cessent d'y participer, et certains d'entre eux forment les « comités d'entreprise » (Bustillo, 2014 : 481 ; Unanue, 2002 : 97 ; Ibarra, 1987 : 72 ; Aroca, 2013 : 104 ; Majuelo, 2000 : 36).

Pendant la période franquiste, les structures de ELA-STV étaient divisées et très dispersées. La direction officielle s'était exilée à Biarritz, et les structures restées à l'intérieur du Pays Basque péninsulaire fonctionnaient d'une manière très autonome en raison des difficultés imposées par la dictature. En conséquence, les différents groupes fonctionnaient de manières très différentes et dispersées, et les différentes branches adoptèrent des formations stratégiques et idéologiques de plus en plus éloignées entre elles.

Durant l'époque franquiste, la direction de ELA participe au Pacte de Bayonne de 1945, que les organisations en exil signèrent pour manifester leur appui au Statut Basque d'Autonomie et à la République espagnole. La direction en exil maintient les principes antifranquistes et anticommunistes du syndicat, et elle formule le concept de « communautarisme » :

« Siendo STV fruto de un pueblo cuya constitución social de sus siglos de libertad estuvo reñida con la dominación burguesa... con tal objeto creó STV, al margen de su específica función sindical, su Movimiento Comunitario como una alternativa entre Capitalismo y Marxismo Dictatorial. » (cité par Letamendia, 2004 : 35)

Cependant, les années 60 et 70 vont porter de profonds changements au sein de la société basque, à laquelle la direction de ELA-Biarritz ne pouvait s'adapter. Au niveau international, les mouvements de libération nationaux influencèrent les nationalismes périphériques de l'Occident. Ainsi, un nouveau type de nationalisme basque surgit, provoquant une rupture dans le mouvement nationaliste, où le PNB avait eu l'hégémonie.

Cette rupture est mise en évidence par l'ETA, qui combine depuis 1966-1967 le nationalisme, le marxisme et la lutte armée (Letamendia, 2004 : 37).

Ce changement de conception du nationalisme eu un effet sur les nouvelles générations de militants de ELA à l'intérieur du Pays Basque péninsulaire, de plus en plus éloignés des conceptions traditionnelles de ELA-Biarritz. Ainsi, une rupture se produit entre ELA-intérieur et ELA-Biarritz, et ce dernier perd son influence sur les jeunes militants de l'intérieur. Une des accusations de ces derniers envers la direction officielle était leur position de soumission envers le PNB, qui avait accepté de s'allier avec le PSOE dans la lutte contre le franquisme. Cette alliance supposait une dérive « espagnoliste » pour les jeunes de ELA-intérieur (Letamendia, 2004 : 38-39).

ELA-intérieur formula ses principes en 1963, où elle essaie de mettre en rapport la libération nationale et sociale. ELA-intérieur parle alors de la mission des classes opprimées de transformer la société. Cette oppression se manifeste à travers la politique, la culture, l'économie... Le nationalisme est considéré une réponse à une forme d'oppression (Letamendia, 2004 : 39 ; Estornés, 2017). Le problème était que ces principes avaient été formulés sans débat entre les militants, et les rédacteurs sont expulsés de l'organisation (Kortabarria, 2015 : 16-17)

Les militants expulsés se présentent alors sous le nom de « ELA-berri »⁷⁰. En 1969, ceux-ci décident d'impulser un parti politique abertzale et socialiste sous le nom de « Movimiento Socialista de Euskadi » (MSE), en se servant du journal de ELA Lan-Deya. L'objectif était d'occuper l'espace qui restait entre la passivité du PNB et l'extrémisme violent de l'ETA (Letamendia, 2004 : 41). L'initiative de créer un parti politique à partir du syndicat avait été très mal vue par le reste des militants. Pour ceux-ci, ELA devait rester autonome de toute influence politique (Kortabarria, 2015 ; 17-18). Par la suite, la division régna au sein de ELA. Selon Majuelo (2000 : 37-38), entre 1964 et 1976, une demi-douzaine d'organisations réclamaient les sigles « ELA », sans pour autant avoir de rapports en eux. Ce qui est à souligner dans ce processus est l'adoption des principes socialistes des jeunes militants du syndicat nationaliste, mais avec une position plus modérée que celle de l'ETA.

⁷⁰ « Berri » signifie « nouvelle » en langue basque.

LE FRONT OUVRIER DE L'ETA ET LA NAISSANCE DE LAB

De son côté, ETA naît en 1958 comme réponse à la passivité du PNB dans l'opposition à Franco. Au début, ETA était une organisation purement nationaliste, mais où les adhérents voyaient la nécessité d'une lutte plus active et radicale contre le franquisme et pour la libération nationale du Pays Basque. C'est pourquoi, ETA théorise sur l'utilisation de la lutte armée pour faire face à la situation d'oppression. Cependant, influencée par les différents mouvements de libération nationaux des pays du tiers monde, ETA théorise le nationalisme révolutionnaire lors de sa Vème Assemblée en 1966 et 1967, en embrassant pleinement le marxisme. Le nationalisme révolutionnaire reprend la formulation de Mao, pour qui « dans les nations opprimées, la lutte de classe prend la forme de lutte nationale », et le sujet moteur de mener à bout le processus révolutionnaire est le Peuple Travailleur Basque. En conséquence, la lutte de classe et la lutte pour la libération nationale sont intimement liées pour ETA, et il n'est pas possible de les séparer (Odriozola et Saratxo, 2019 ; Lorenzo et Gil de San Vicente, 2018).

Après la Vème Assemblée, ETA adopte une structure organisée par quatre fronts : le culturel, le politique, le militaire et l'économique ou « ouvrier » (Casanova, 2007: 83). Le Front Ouvrier de l'ETA est celui qui s'occupait de participer dans les luttes des travailleurs. De même, après la division de l'ETA en 1974⁷¹, une partie du Front Ouvrier forme le parti LAIA. La même année, des militants de LAIA, qui avaient participé précédemment au Front Ouvrier de ETA, lancent un manifeste-programme des Comisiones Obreras Abertzales (COA), avec deux objectifs principaux : la société sans classes et l'indépendance d'Euskadi (Taldeak, 1975 : 366).

Ce n'est pas un hasard si le nom de cette nouvelle formation syndicale est presque identique à celui de CCOO. En effet, ETA avait en tête un modèle très similaire à celui de CCOO pendant les 60-70, mais avec la reconnaissance de la lutte pour la libération nationale : « *una organización de tipo CCOO en una línea abertzale y de clase* » (Taldeak, 1975 : 365). La position autour de la question nationale est la principale caractéristique qui différencie CCOO des COA à ce moment-là.

⁷¹ En 1974, ETA souffre se divise en trois. Premièrement, une partie du Front Ouvrier décide de sortir de ETA et de former le parti LAIA. Deuxièmement, le reste de l'ETA se divise en ETA militaire et ETA politico-militaire. Un des motifs de militants du Front Ouvrier pour former LAIA était les difficultés pour mener la lutte ouvrière, à cause de la clandestinité qu'exigeait la lutte militaire.

ETApM donne la consigne à ses militants d'impulser l'initiative des COA. ETAm la voit de bon œil, mais n'y participe pas, à cause des difficultés de mener, à partir de la même organisation, la lutte militaire et la lutte de masse (Majuelo, 2000 : 40-42). Une des raisons de la division entre ETApM et ETAm, précisément, était la décision de celle-ci de se dédier exclusivement à la lutte militaire, et de soutenir la lutte de masse d'une manière externe (ETA, 1974). Ainsi, les militants dédiés à la lutte militaire étaient mieux protégés devant la répression.

Les COA étaient formés aux origines par de différents groupes décentralisés et avec une très faible coordination entre elles. Au fur et à mesure que les COA se structurent, les conceptions des militants de ETApM et LAIA se montrent divergents. Suite aux débats internes aux COA surgit Langile Abertzaleen Batzordeak en automne de 1974, et la première Assemblée Nationale a lieu en 1975 à Biarritz (Majuelo, 2000 : 42-43 ; Idigoras, 2000 : 294). Le nouveau nom n'est autre que la traduction au basque de COA.

Cependant, les militants de LAIA n'étaient pas tout à fait d'accord, car l'initiative de centralisation et de création de LAB venait surtout de la conception de ETApM. Ils décident alors de maintenir les COA, mais en changeant leur nom à COA-LAK⁷². En gros, les COA-LAK maintenaient une organisation décentralisée, et des objectifs plus maximalistes que LAB. En effet, les COA-LAK se définissaient comme anticapitalistes et indépendantistes, alors que LAB défendait la libération nationale et l'abolition de l'exploitation de classe. Selon LAB, étant donné son caractère de masse, il n'avait pas de sens de s'attribuer des objectifs politiques aussi concrets (Taldeak, 1975 : 368-369).

LAB était, lors de sa fondation, une organisation dirigée ou influencée principalement par ETApM, et en accord avec EE. Toutefois, les sympathisants de ETAm et HB⁷³ étaient de plus en plus nombreux dans LAB, et en 1980, ils gagnent la majorité.

LA REFONDATION DE ELA

En 1976, la majorité des branches et des groupes qui utilisaient les sigles de ELA confluent avec l'ELA officielle (Kortabarria, 2015 : 19-22). Ainsi, ELA réalise en 1976 le premier congrès depuis la fin de la République espagnole, le troisième de son histoire. Un

⁷² LAK : Langile Abertzaleen Komiteak. En français : Comités des Travailleurs Abertzale

⁷³ Herri Batasuna, coalition électorale entre différents partis de la gauche abertzale, sympathisante de ETAm.

groupe, qui avait refusé de s'adhérer, célèbre son propre congrès, et adopte le nom de « ELA-Askatu » (Unanue, 2002 : 65).

Le 3ème congrès refléta l'évolution qu'avait subie ELA avec l'entrée des jeunes militants. Une des premières mesures exigées par ceux-ci était la totale indépendance politique vis-à-vis du PNB. Il est vrai que les militants plus âgés, dont Manu Robles-Arangiz⁷⁴, le président du syndicat, avaient une grande affinité avec le parti nationaliste, mais cette condition ne leur posait pas de grands problèmes (Kortabarria, 2015 : 23-24).

Un des plus grands changements de ELA se crée à partir du débat sur les principes que le syndicat devait adopter. Les militants plus âgés étaient opposés au marxisme, et l'utilisation du terme « socialiste » pour définir le syndicat était difficile à digérer, surtout pour le dirigeant historique Manu Robles-Arangiz, qui défendait l'idée du « communautarisme » (Kortabarria, 2015 : 24). Finalement, les jeunes militants vainquirent le débat, et ELA passa à revendiquer « le socialisme, où les moyens de production, de consommation et de culture seraient dans les mains et au service des travailleurs » (ELA, 1976a). Toutefois, le président Manu Robles-Arangiz accepta ce changement, malgré son désaccord.

LE STATUT D'AUTONOMIE

Une fois la Constitution Espagnole approuvée en 1978, en 1979 s'impose le débat autour du Statut d'Autonomie, où le monde nationaliste ou abertzale se trouvait profondément divisé. D'un côté, le PNB, un des artisans du Statut, soutenait de manière décidée le Statut. D'un autre côté, ETAm, la coalition HB, et la plateforme KAS⁷⁵, refusaient d'accepter le cadre constitutionnel et ils estimaient que le Statut d'Autonomie ne pouvait pas être accepté parce qu'il n'appliquait pas certaines mesures démocratiques minimums de l'alternative KAS⁷⁶, comme la reconnaissance de la souveraineté nationale du Pays Basque (Casanova, 2007 : 197, 224). Finalement, ETAp, EE⁷⁷ ainsi que ELA voient le

⁷⁴ Membre de ELA depuis sa fondation, il était le président du syndicat depuis 1933 jusqu'à sa mort en 1982 (mrafundazioa.eus/es/fundacion-manu-robles-arangiz-institutua/biografia-de-manu-robles-arangiz).

⁷⁵ KAS, Koordinadora Abertzale Sozialista (Coordinatrice Patriote Socialiste en français) était l'organisme de coordination et de direction des groupes faisant partie du Mouvement de Libération Nationale Basque.

⁷⁶ L'« alternative KAS » était une liste de mesures tactique, souscrite par ETAm et les organisations faisant partie de KAS, pour que le cadre juridique soit accepté comme démocratique (voir Casanova, 2007: 197, 224). L'application de ces mesures aurait porté à l'ETAm à mettre en cause la continuation de la lutte armée.

⁷⁷ Euskadiko Ezkerra, coalition électorale promu par ETAp.

Statut d'Autonomie insuffisant, mais ils le considèrent comme un valable point de départ pour impulser l'approfondissement démocratique. Ces derniers décident donc de soutenir le Statut d'Autonomie, mais d'un point de vue critique. ETApM, par exemple, soutenait le Statut d'Autonomie mais prétendait approfondir son contenu en faisant pression à travers la lutte armée (Majuelo, 2000 : 76).

Dans le cas de ELA, le principal objectif en termes d'autogouvernement est la constitution d'un Cadre Basque de Relations de Travail. En 1979, ELA pensait que le Statut d'Autonomie offrait une voie vers cet objectif. Ces attentes sont frustrées et, en 1997, ELA embrasse un positionnement souverainiste en déclarant, par la voix de son Secrétaire Général, que « Le Statut est mort ». Ce virage le fit se rapprocher des postulats souverainistes de la gauche abertzale et LAB, mais sans accepter l'utilisation de la lutte armée.

D'un autre côté, jusqu'en 1980, les sympathisants de ETApM et EE, qui avaient une vision moins rupturiste et plus possibiliste envers le Statut d'Autonomie, étaient majorité dans LAB. Cependant, les sympathisants de ETAm, KAS et HB, qui avaient une stratégie plus rupturiste et radicale envers l'ordre juridique établi par la Constitution et le Statut d'Autonomie, ils gagnent la majorité au 2ème congrès de 1980. En conséquence, une grande quantité de sympathisants de EE quitte LAB. Alors, LAB s'incorpore dans KAS peu après et assume une position rupturiste envers le Statut d'Autonomie (Majuelo, 2000 : 87-92).

LES QUATRE ÉTAPES DU SYNDICALISME ABERTZALE

Le syndicalisme abertzale ou nationaliste basque est passé de différentes étapes jusqu'à aujourd'hui. Tout d'abord, la constitution du nationalisme basque peut être datée avec l'apparition du PNB en 1895 (Beltza, 1978 : 116). Durant les premières années, le PNB, montre peu d'intérêt envers la question sociale. Ainsi, dans cette première étape, le mouvement nationaliste et le mouvement ouvrier sont deux choses séparées. Au fur et à mesure que le PNB devenait un parti de masse, il regroupait aussi de plus en plus de travailleurs, et le thème social devint un thème plus important.

La naissance de SOV en 1911 marque une deuxième étape, où l'on peut parler d'un mouvement ouvrier nationaliste, mais opposé aux idées socialistes de lutte de classe. Troisièmement, lors de années 60, une mutation a lieu dans le mouvement abertzale ou nationaliste, où les jeunes générations conjuguerent les idées nationalistes avec les idées

socialistes, plus ou moins révolutionnaires. L'exemple le plus évident de cette mutation est la Vème Assemblée de l'ETA en 1966-1967 où ils se formulent certains principes du nationalisme révolutionnaire. Quelques années plus tard surgissent les COA et, peu après, LAB, comme expression syndicale de ce nationalisme révolutionnaire. Les différentes branches de ELA-intérieur commencent à adopter certaines idées socialistes, mais avec une version plus modérée que ETA et LAB. Cette transformation devient officielle lors de son 3ème congrès de 1976.

La réforme politique qui porta la Constitution espagnole de 1978 et le Statut d'Autonomie Basque en 1979 ajoute une division au mouvement nationaliste basque de gauche. Certains adoptent une vision possibiliste envers le nouveau cadre, dont ETApM, EE et le syndicat ELA, qui décident d'accepter et faire valoir le cadre offert par le Statut d'Autonomie pour accomplir les demandes d'autogouvernement. Dans le cas de ELA, les demandes d'autogouvernement se concentrent autour de la revendication du Cadre Basque des Relations de Travail. D'autre part, ETAm, KAS et HB refusent d'accepter le nouveau cadre. LAB, en 1978, n'a pas un positionnement officiel, à cause de sa division interne, mais s'incorpore à KAS en 1980, et assume un positionnement rupturiste.

Nous n'en avons pas parlé, mais il convient d'avancer le changement de positionnement de ELA par rapport à la voie statutaire. En effet, comme nous l'avons dit précédemment, en 1997 le Secrétaire Général Joxe Elorrieta déclare que « le Statut est mort ». Cette déclaration marque le début d'une nouvelle étape souverainiste chez ELA.

ELA 1976-1989 EPEAN

SARRERA

Frankismoaren ELAren egiturak oso zatituta eta sakabanatuta egon ziren 1976ra arte. Izan ere, erbestean zegoen sindikatuaren zuzendaritza eta Hego Euskal Herrian jarduten zuten taldeak urrundu egin ziren bata bestearengandik, klandestinitatearen baldintzen ondorioz. Elkar urruntzearen eraginez, barnealdeko militanteek diskurtso sozialista bereganatu zuten, marxismoaren printzipioetara hurbilduz (Bustillo, 2014: 475-479). Horren ondorioetako bat EAJrekiko⁷⁸ urruntze progresiboa izan zen, gradu eta argumentu ezberdinekin burutua.

⁷⁸ Euzko Alderdi Jeltzalea.

1975ean, talde gehienek beren arteko konbergentzia prozesua gauzatu zuten. Hala, Franco hilda ostean, ELA ofizial eta bateratuaren 3. kongresua burutu zuten 1976an, «ELA (Askatu)» osatzen zuten taldeen salbuespenarekin (Unanue, 2002: 65). ELAren siglak erabiltzen zituzten taldeen arteko ika-mikak eta birbateratzeak prozesu nahiko konplexuak izan ziren, gure azterketarako interes askorik ez dutenak⁷⁹. Horregatik, zuzenean 3. kongresuaren azterketarekin hasiko gara geroago. Beraz, azpi atal honen azterketa 1986ko kongresuan etengo dugu, 1990eko kongresuan ELAk etapa berria abiatu zuelako.

DIAGNOSTIKO MARKOA

Diagnostiko markoan sindikatuaren azterketa koiunturalak, egiturazkoak eta bere buruaz egiten dituenak ikusiko ditugu. Modu horretara, sindikatuak testuinguru koiunturalaz eta estrukturalaz eta bere egoera propioaz egin dituen azterketen berri izango dugu. Hala, «lanaren krisiaren» eta lan munduko aldaketa prozesuaren barnean deskribatutako fenomenoek eta gertakari politiko, laboral, instituzional eta ekonomikoen eraginak zernolakoak ziren ikusi ahal izango dugu. Izan ere, postfordismoa oraindik guztiz finkatu gabe zegoen garai honetan, baina, jadanik, ohiko euskal industria krisian murgiltzen hasia zen. Bestalde, Hego Euskal Herriko instituzio politiko zein laboralak eratu gabe zeuden.

Koiuntura

Koiunturazko diagnostiko markoan arreta jarrita, aldaketa gehien jasaten duen elementua izatea. Gertaera izan zirenez, lau ataletan antolatu dugu azterketa: egoera politikoa, lan harremanak, egoera ekonomikoa eta Hego Euskal Herriaren eraketa instituzionala.

Egoera politikoa: ezegonkortasunetik despolitizaziora

1976ko 3. Kongresuan, erregimen frankista krisi eta desegituraketa fasean zegoen; eta sindikatua oraindik klandestinitatean zebilen. Urte hartan, erreformek zabaldu zituzten aukeren inguruko ezjakintasuna eta mesfidantza ziren nagusi sindikatuan (ELA, 1976a, 1976c). 1979an, aldiz, Konstituzioa dagoeneko indarrean dagoenean, gai koiunturalen azalpena zehatzagoa da. Oro har, erreforma prozesuaren sakontasun falta kritikatu zuen ELAk; haren ustetan, Estatuaren forma aldatu zen, baina ez haren egitura. Halaber, gogor salatu zuen Moncloako Itunen⁸⁰ bidez frankismoaren kontrako oposizioak aurrera

⁷⁹ ELAren birbatze prozesua konplexu samarra izan zen. Horretan sakontzeko: Letamendia (2004: 32-50) eta Kortabarria (2015: 13-22).

⁸⁰ Espainiako gobernuak eta Kongresuko alderdiak 1977an egindako akordio batzuk izan ziren, enpresariengatik eta, sindikatuen artean, CCOO eta UGTk sinatu zutena. Horien helburuak ziren krisi

eramandako kontsentsu politika. Izan ere, UCDrekiko⁸¹ kolaborazioa lehenetsi zuten beste eragile sindikal batzuek, mobilizazioaren bidezko presio estrategia lehenetsi beharrean (ELA, 1979c).

Ondoren, 1980ko hamarkadako kongresuetan, erreforma politikoa gauzatuta zegoenez, koiunturazko egoera politikoari buruzko analisisiek pisua galdu zuten diskurtsoan. Beraz, erreforma politikoa egonkortuta, ELAk bere azterketa «despolitizatu» egin zuen tarte horretan, eta krisi ekonomikoaren ondorioei buruzko jarrera defentsiboa bereganatu zuen.

Lan harremanak: sindikatuen ahultasun estrategikoa, ahultasun instituzionala eta zentralismoa

1976an, goiz zen oraindino erreforma sindikalaren eta lan harremanen marko berriari buruz aritzeko. Ondorioz, garai horretan ezjakintasuna zen nagusi, eta itun sozialak erabilpenari buruzko mesfidantza zegoen (ELA, 1976c). Hala, 1979an, ekintza sindikalari eta negoziazio kolektiboari buruzko erreformen eskubideen eta askatasun sindikalen sakontasun falta nabarmentzen zuen sindikatuak. Testuinguru horretan, CCOOri eta UGTri itun sozialak barne antolaketarako gaitasun barik onartu izana leporatu zien ELAk, ahultasun sindikala eta alderdi politikokoekiko dependentzia egoera areagotu zutelakoan, gainera, langileen erosahalmena mugatuz (ELA, 1979c).

Estatuko sindikalismoarekin alderatuta, Euskadiko [hitz hori erabiltzen da sindikatuaren garai honetako dokumentuetan eta, beraz, horrela mantenduko dugu gure analisisian] kontzentrazio industrial eta borrokarako tradizioa zirela-eta, indartsuago ikusten zuen ELAk mugimendu sindikala hemen (ELA, 1979c). Halaber, begi-bistakoa da sindikatuaren adierazpenetan ELarentzat bera zela «euskal sindikalismoaren» ordezkaria. Izan ere, garai horretan LAB ez zen existitzen ELarentzat, eta sindikatu minoritariotzat jotzen zuen. Beste sindikatu nagusiak Espainiakoak ziren, beraz, era sutsuan ez ziren «euskal» sindikatuak.

ekonomikoaren aurrean zegoen tentsio soziala baretzea eta egonkortasun politikoa ziurtatzea. Hala, prentsa-eta elkarte-askatasuna bermatzearekin, sindikatuak kaleratzeak errazteko eta soldaten igoerari muga jartzea onartzen zuten.

⁸¹ Unión de Centro Democrático, Espainiako Gobernuko alderdia, 1981era arte.

1982an lan harremanen markoaren eraketari begira egindako urratsek (ABI⁸², AMI⁸³ eta Espainiako Langileen Estatutua, ANE⁸⁴), atsekabetu egin zituzten ELAko kideak. Oso balorazio txarra egiten zuten ezarritako lan harremanen ereduaz. Bada, ELAren iritziz, askatasun sindikalak mugatu eta negoziaketa kolektiboa oztopatu egiten zituen legedia horrek (ELA, 1982: 84-85). Bestalde, negoziazio kolektiboaren eredu zentralizatua ezarri zuen, ez derrigorrezkoa eta sail sindikalen protagonismorik gabekoa, ELAk nahi zuenaren kontrakoa, hain zuzen ere. Ikuspuntu horrek harreman liskartsuak ekarri zizkion CCOOrekin eta, bereziki, UGTrekin (ELA, 1982: 92).

Espainiako sindikalismoaren ahultasuna bi arrazoik azaltzen zuten, ELAren ikuspegitik: alde batetik, haren ahultasun instituzionalak eta, beste aldetik, sindikatuen gabezia antolatzaile-administratiboak eta estrategia faltak. Kontrara, sindikalismoa ahula zen arren, Euskadin gaitasun handiagoa zuela uste zuen ELAk (ELA, 1982: 33).

Krisiaren aitzakiarekin, Espainiako Gobernuak sindikatuen kontrako ideiak eta jarrerak bultzatu zituen «Espainiako trantsizioaren» garai honetan. Izan ere, aitzakia horrekin, antolakuntza sindikala oztopatu zuten, negoziaketa kolektiboa mugatuz, greba eskubidea murriztuz, eta iritzi publikoa manipulaturik (ELA, 1982: 39, 42). Horren aurrean, Euskadin lan harreman propioa eratzeko asmoz, LHKren⁸⁵ ekimena sustatu zuen ELAk (ELA, 1982: 18-19) eta, geroago, EGAB⁸⁶ izenekoa. Esanguratsua da UCDren gobernuak LHKri jarri zion inkonstituzionaltasun helegitea, aktiboki sustatutako zentralismoaren adierazle zena (Unanue, 2002: 223-224).

⁸² Acuerdo Básico Interconfederal, 1979an CEOE patronalaren eta UGTren artean egindako ituna izan zen, osatzeko zegoen Langileen Estatutuaren oinarriko edukia eta negoziazio kolektiboaren egitura finkatzeko aldera (Unanue, 2002: 161-162). Sinatu eta hurrengo egunean, CCOO greba deitu zuen, akordio horren kontra zegoelako.

⁸³ Acuerdo Marco Interconfederal para la Negociación Colectiva, CEOE eta UGTren artean sinatutako akordioak dira, 1980ean eta 1981ean indarrean egon zirenak. Bertan, negoziazio kolektiboaren egituraren eta zenbait edukiri (soldata, lanaldia, aparteko orduak, atal sindikalen eskubideak...) buruzko oinarriak ezartzen ziren (El País, 1980).

⁸⁴ Acuerdo Nacional de Empleo, 1982an CEOE, UGT eta CCOOren artean sinatutako akordioa da, soldatei, enpleguari, pentsioei eta abarrei buruzkoa (Archivo de la transición, data barik).

⁸⁵ Lan Harremanen Kontseilua, 1981an Eusko Legebiltzarraren 9/1981 Legearekin eratutako organoa Confebak eta EAEko sindikatu ordezkagarriek osatua (egun ELAk eta LABek uko egiten diote bertan parte hartzeari), EAEko lan harremanak egituratzeko aldera, gatazken konponbidea eta elkarriketa sustatuz. UCDren gobernuak inkonstituzionaltasuna helegitea jarri zion (Unanue, 2002: 223-224). <https://www.crl-lhk.eus/>

⁸⁶ Euskadiko Gizarte eta Ekonomia Arazoetarako Batzordea (gazteleraz, *Consejo Económico y Social Vasco*), Eusko Jaurlaritzari gai sozial eta ekonomikoei buruzko aholkuak emateko organoa da, 1984ean sortua eta sindikatuetakoa eta enpresen elkarteetako ordezkariak osatua (<http://www.cesegab.com/>).

ELAren 1986ko kongresuko ikuspuntua ez da aldatzen aurretik azaldutako ildoari dagokionez. PSOEren⁸⁷ Gobernuak eta patronalak UGTrekin batera bultzatutako itun sozialen estrategia neokorporatibistak kalte egin zion sindikalismoari, ELAren ustetan (ELA, 1986). Horien eskutik, ahalmen sindikala kaltetzen zuten kontratu mota berriak sortu ziren, besteak beste, praktika kontratuak, formazio kontratuak, kontratu partzialak eta txanda kontratua. Bestalde, LOLSek⁸⁸ sail sindikalen ordezkari batzordeen ordezkariak sustatu zuenez, eragin negatiboak izan zituen afiliazioan eta, beraz, sindikalismoaren eragin ahalmenean (ELA, 1986: 99, 111).

Laburbilduz, ELArentzat lehentasunezkoa zen lan harremanen marko instituzional mesedegarria ezartzea euskal langileentzat, baina Estatuko erreforma sindikalek eta Espainiako sindikatuen kooperazio estrategiek ez zioten horrelakorik ahalbidetu. Hala, 70eko hamarkadan arazo nagusia Espainiako esparru guztian CCOO eta UGT sindikatu nagusiek onartu zuten gobernu eta patronalarekiko kooperazio estrategian zetzan, dependentzia sindikala ahalbidetzen zutelako.

ELAren ikuspegian, Espainiako sindikatu nagusien akats estrategikoetan oinarritzen zen hasieran ahultasun sindikala, hau da, Moncloako Itunetatik hasita bultzatu zuten ildoan. Gerora, 1980ko hamarkadan sartu ahala, pixkanaka, lanaren krisiarekin, gizartearen indibidualizazioarekin eta produkzio postfordistarekin lotutako beste faktore batzuk ere eragiten hasi ziren ahultze prozesu horretan: langabezia, indibidualizazioa, kontratu moten ugartzea eta lan harremanen malgutzea, besteak beste.

Hartara, Espainian eratutako lan harremanen marko instituzional ahulak eta zentralistak kaltetu egin zuten euskal sindikalismoaren garapena (alegia, ELAren). Dena dela, konparatiboki, euskal sindikalismoak ahalmen handiagoa erakusten zuen hamarkada horretan, ELAren ikuspuntutik.

Egoera ekonomikoa: krisia gero eta larriagoa

1976an, Espainiako Estatu postfrankistaren erreforma politikoaren berehalakotasunak pisua kendu zion krisi ekonomikoaren larritasunari. Urte hartan, Espainiako egitura ekonomiko kaskarra eta berorrek langileei eragindako kalteak salatzen zituen ELAk, baina garrantzi askorik eman gabe (ELA, 1976c). Ostera, 1979an, egoera ekonomikoaren azterketa zertxobait zehatzagoa zen. Langileak kaltetzen zituzten hiru prozesu deskribatu

⁸⁷ Partido Socialista Obrero Español.

⁸⁸ Ley Orgánica de Libertad Sindical, 1985an indarrean sartutako Legea, estatu mailan, sindikatuen eskubideak eta ordezkariak arautzen zituena (Jódar et al., 2016: 15-16).

ziren haren diskurtsoan: langabeziaren gorakada, inflazioaren ondorioz gertaturiko soldaten erosahalmenaren murrizketa eta soldatapeko lan baldintzen kaskartzea, hurrenez hurren. Bereziki hondagarritzat jo zen soldaten erosahalmenaren jaitsiera, ez baitzuen biderik ematen krisia gainditu ahal izateko. Aitzitik, klase borrokaren baitan langileak kaltetzeko eta enpresa irabaziak handitzeko hartutako erabaki politikoa izan zen, ELAren ustez (ELA, 1979c).

1982ko sindikatuaren diagnostikoa krisiak eta langabeziak markatu zuten, batik bat larria zelarik gazteek bizi zuten lan egoera. Urte hartan krisi ekonomikoak sortu zuen ziurgabetasunik handiena sindikatuaren analisisietan. Ikuspegi kualitatibotik, egoeraren azterketa ez zen asko aldatu aurrekoarekin alderatuta, ez bada egoerak txarrera egin zuelako langabeziaren eta soldaten erosahalmenaren aldetik (ELA, 1982: 16-17). Horrez gain, «neoliberalismo» terminoa erabiltzen hasi zen ELA bere diskurtsoan garaiko politika ekonomikoak ezaugarritzeko (ELA, 1982: 25-26).

Urte horietan, langileen kaleratzeak errazteko asmoz, lan harremanak malgutzeko lehen pausoak ematen hasi ziren gobernuak (ELA, 1982: 81). Gainera, postfordismoaren barruan kokatu ditugun lan baldintzak narriatzen zituzten zenbait aldaketa atzeman zituzten ELAkoek, beren adierazpenetan ikusten denaren arabera, nahiz eta termino hori oraindik ez zuten erabili; munduko lan banaketa lehiakortasunaren arabera antolatzea, langileen arteko segmentazioa bultzatzea, kontratu prekarioak egitea, enpleguaren segurtasunik eza eta abar zeuden aldaketa horien artean (ELA, 1982: 46).

1986an, PSOEn gobernuak ezkerreko sektore sozialen eta langileen itxaropen batzuk piztu bazituen ere, langabeziaren arazoa gero eta gehiago okertu zen hala Espainian nola Hego Euskal Herrian. Langabeziaren auzia hain larria zen, non, gizartearen arazoak konpontzeko «Lanlekua lehentasunez» izeneko ponentzia eskaini zioten gai horri sindikatuan. Egoera bereziki kezagarria zen gazteen kasuan, %50eko langabezia pairatzen baitzuten (ELA, 1986: 44). Gainera, garai horretan langabeziaren arazoaren aitzakiarekin kontratu mota malguak ahalbidetu ziren legez. Ordura arteko kontratazioen lege markoaren zurruntasuna jo zuten gobernuak eta patronalak langabeziaren arrazoi, baina, sindikatuaren iritzitan, lan kontratu horien xede bakarra lan baldintzak okertzea eta behin-behinekotasuna bultzatzea izan zen (ELA, 1986: 100).

Sindikatuak egindako diagnostikoaren arabera, arazo horren jatorrian zerikusi handia izan zuen ekoizpen-eredu protekzionistaren gainbeherak. Hartara, PSOEn gobernuaren

politika neoliberalak jarri ziren sindikatuaren jomugan; izan ere, «ningún gobierno ha prometido tanto y ningún gobierno ha incumplido tanto» zioen ELAk bere analisisian (ELA, 1986: 53). Halaber, Euskadin langabezia egoera bereziki larria izanik, Eusko Jaurlaritzari ere egoerari erantzuteko ahalegin gutxi egin izana leporatu zion euskal sindikatuak (ELA, 1986: 45). Modu horretan, bai Espainiako bai EAeko gobernuen estrategiak kritikatu zituen.

Ikusten dugunez, hamarkada horietan zehar arazo ekonomikoa erosahalmenean eta langabezian zentratu zen hasiera batean. Gerora, langabeziak hartu zuen nagusitasun gero eta handiagoa; horren erantzukizuna egitura ekonomikoaren nolakotasunari eta gobernuen politika neoliberaleri egotzi zitzaizkien. Horri gehitu zitzaien kontratu mota berrien ondoriozko prekarizazioa eta kaleratzeen erraztea. Hortaz, epe horretan, lanaren krisiari eta posfordismoari lotutako lehenengo aldaketak atzeman zituen ELA sindikatuaren diagnostikoak arlo ekonomikoan.

Eraketa instituzionala: Estatutuari babesaren atzea eta LHKren eraketa

1979 urteak mugarri politiko esanguratsua ekarri zuen. Izan ere, urte horretan onartu zen EAeko Autonomi Estatutua, Espainiako Estatuaren erreforma politikoak ezarritako marko legalaren barruan burutua. Harrez geroztik, Autonomia Estatutuaren onarpen sozialaren inguruko desadostasunak eta interes politiko ezberdinak agertu ziren euskal gizartean eta euskal esparru politikoan. Estatutua oraindik onartu gabe zegoenean eta hari buruzko eztabaida politikoa gori-gorian, alde batetik, oportunismo politikoa ezkututzen zela Estatutuari emandako babesaren atzean uste zuen ELAk, baina, beste alde batetik, identitate nazionala garatzeko aukera ere ikusten zuen marko horren barruan (ELA, 1979c). Eztabaidak eztabaida, Estatutua onartu ondoren, 1982an, Euskadiren instituzionalizazio prozesurako abiapuntu baliagarritzat jo zuten marko berria sindikatuan. Hala ere, gabezia handiak ikusten zitzaizkion. Izan ere, Nafarroa kanpoan geratu zen eta ez zen lan eremuko eskumen legegilerik jaso. Azken aspektu hori bereziki garrantzitsua zen Euskadiko lan harremanen marko propio bat eratzeko.

Ildo horretan, lan harremanei buruzko atalean azaldu den legez, aurrerapauso handia eman zen Lan Harremanen Kontseiluaren (LHK) legea onartzearekin batera. Bada, eskumen legegilerik jaso ez arren, organo horrek oinarri batzuk ezartzen zituen Euskadin negoziaketa kolektiboa egituratuz joateko (ELA, 1982: 18). Esanguratsua da, aipatu dugun moduan, LHKak Espainiako gobernuarekin piztu zuen talka, haren asmo zentralistak beste behin ere agerian utzi baitzituen.

Hari horretatik, EAEko negoziazioa kolektiboa arautzeko ahaleginen barruan LHKren lorpenetako bat 1984ko PRECO⁸⁹ izan zen. Urte berean EGAB jarri zen martxan, LHKren antzeko eginkizunak jasoz (ELA, 1986: 114-115). Pauso horiek ontzat jo zituen arren, inoiz ez zituzten ELAren nahiak asebate. Izan ere, sindikatuak sumatzen zuen lan harremanen marko propioa ez zela Eusko Jaurlaritzaren lehentasuna. Esaterako, ELAren iritziz, gobernu autonomikoak ez zituen eskumenen transferentzia nahiko irmoki erreklamatzeko. Ildo horretan, konpromiso sendoagoa eskatzen zion ELAk Jaurlaritzari (ELA, 1986: 114), itxaropen handiak baitzituen euskal erakundeen instituzionalizazio prozesuari zegokionez. Nolanahi ere, garai honetan ikusten dira dagoeneko ELA sindikatuaren eta gobernu autonomikoaren arteko lehendabiziko tentsioak.

Egiturazko diagnostiko markoa: aldaketa estrukturalen hastapenak

Gizarte egituraren analisiak koiuntura analisietatik ezberdindu ditugu, deskribatzen diren prozesuak epe luzeagoan gertatzen direlako. Atal honetan, beraz, koiunturarekin oso lotuta dauden gizarteko aldaketa prozesu sakonagoak hartuko ditugu kontuan.

1976ko kongresuko egiturazko analisiak kapitalismoaren kontrako jarrera ideologikoa markatzera bideratzen dira (ELA, 1976a), gizarte kapitalista harmoniatsu baten aukeraren ideia baztertuz: harreman kapitalistak esplotatzaileak eta zapaltzaileak dira eta, beraz, gatazkatsuak, ELAren analisiaren arabera. Analisi horrekin bat eginez, sindikatuak «sozialista» gisa definitu zuen bere burua eta, hala, aurreko urteetako EAJko tradizio kristauarekin hautsi (Letamendia, 2004: 55). Ildo beretik, 1979an, krisi ekonomikoak ekoizpen sistema kapitalistaren baitan zuen izaera ziklikoa azpimarratu zuen. Izan ere, krisi ekonomikoa ez zen soilik politika ekonomikoen ondorio, kapitalismoaren funtzionamendu orokorrarena baizik, eta horrek mundu esparruan eragiten zuen (ELA, 1979c).

Hala ere, 1982an krisiaren analisisa egiterakoan, sindikatuak pisua kendu zien sistema kapitalistaren ezaugarri kontraesankorrei. Krisia kapitalismoaren ondorio legez azaldu beharrean, gobernu eta patronala jo zituen haren erantzuletzat, neurri eta politika ekonomikoen atzean dagoen interesen arteko gatazka azpimarratze aldera (ELA, 1982:

⁸⁹ Laneko Gatazkak Ebazteko Borondatezko Prozedurei buruzko Lanbide arteko Akordioa (gaztelera: Acuerdo Interprofesional sobre procedimientos voluntarios para la resolución de conflictos laborales), aldean arteko adiskididetzarako, bitartekaritzarako eta arbitrajarako borondatezko sistema da, 1984an sinatu zena lehen aldiz (Unanue, 2002: 146, 229).

78). Esan nahi baita, irakurketa pragmatikoagoa bereganatu zuela ELAk, klase gatazkan oinarritutako irakurketa eginez eta erantzuleak interpelatuz, baina kapitalismoaren osotasunaren kritika egin barik. Pragmatismo horren atzean garai hartako gobernuen politika neoliberalak sortutako astindua suma liteke, zalantzarik gabe. Izan ere, neoliberalismoa gelditzea zen ELAren lehentasuna, eta ez horrenbeste ekoizpen kapitalistaren kontraesanen inguruko hausnarketa teorikoetan gelditzea.

Urte horietan, lan kontratu moten ugalketak lan merkatua malgutzea eragin zuen. Horrekin batera, lan egoeren kasuistika zabaldu zen heinean, langileen arazoak gero eta heterogeneoago eta indibidualago bihurtu ziren. Ildo horretan, langile tipologia batzuk geroz eta ohikoagoak egin ziren, hala nola, behin-behineko langileak, lanaldi partzialdunak, langabetuak eta ezkutuko ekonomian aritzen zirenak, besteak beste (ELA, 1986: 66, 71). Horrek izugarri konplikatu zuen jarduera sindikala. Bestalde, industriako ohiko lanpostuak suntsitzen ari ziren eta, aldi berean, zerbitzu sektoreko ETEak⁹⁰ ugaritzen, lan baldintza kaskarragoekin. Zerbitzuekin lotuta, EAEko instituzionalizazio prozesuak aurrera egin ahala, esparru horretako lanpostu asko sortu ziren autonomiako administrazio publikoan ere (ELA, 1986: 75).

Era berean, biztanleria aktiboa zahartuz zihoan eta gazteria gero eta urrunago zegoen lan mundutik, langabezia eta prekarizazioa tarteko. Horrek gazteak sindikalismotik urruntzea ekarri zuen, gero eta gutxiago jotzen baitzuten ekintza sindikalera beren lan arazoak konpontzeko (ELA, 1986: 72). Emakumeei dagokienez, kontratu prekarioenak hartzen zituzten arren, haien presentzia gorantz joan zen lan merkatuan (ELA, 1986: 46-47). Hala ere, ELAk ez zuen aparteko ondoriorik atera gai horretatik, garrantzi gutxi ematen zion seinale. Izan ere, euskal gizarteak bezala, sindikatuak ez zuen oraindik barneratuta genero ikuspegia eta emakumeen soldatapeko lanaren eta zaintza lanen gainzamaren auzia. Laburbilduz, esan daiteke Hego Euskal Herriko langile klasea kolektibo gero eta heterogeneoago bihurtzen ari zela urte horietan, eta sindikatuak aldaketa horietara egokitu beharra ikusten zuela desafio modura.

Baina, hori gutxi ez eta globalizazioak ere ekarri zion erronkarik sindikalismoari. Hala, mundializazio prozesuaren eraginez, multinazionalen bote progresiboak eta mendebaldeko eta ekialdeko blokeen arteko tentsioek izan zuten beren eragina sindikalismoan (ELA 1982: 45). Izan ere, nazioarteko interdependentziak,

⁹⁰ Enpresa Txiki eta Ertainak

multinazionalen gorakadak eta krisiaren izaera internazionalak Estaturik gaitzeko ekintza sindikalerako premiak areagotu zituen.

Arlo kultural-ideologikoan, krisi ekonomikoak sorturiko eta zenbait korrante politikok bultzaturiko gizartearen indibidualizazio prozesua jasotzen ari zen garai horretako ELA bere azterketetan (ELA, 1982: 44). Aldaketa kulturalari dagokionez, lanaren eta bizitzako beste esparruen arteko harremana aldatuz zihoan, eta horrek beharrian berriak sortu zituen langileen kolektiboetan. Hori zela eta, langile sektore gero eta gehiagok zalantza ipini zuten gizarte harremanen nolakotasuna (ELA, 1982: 43). Ildo horretan, ELAk aztertu zuenez, denbora libreak gero eta garrantzi handiagoa hartu zuen pertsonen bizitzan; teknologia berrien garapenak eta kontsumoak aisialdiaren inportantzia hori areagotu zuten, gainera (ELA, 1982: 82-83). Azterketa horiek esanguratsuak dira, lanaren krisiaren dimentsio immaterialarekin zuzenean lotuta baitaude. Alegia, indibidualizazioak eta lanaren eta beste bizi esparruen (familia, aisia...) arteko talkak arazoak sortzen zituen. Hortaz, aldarrikapen sorta berriak azaleratu ziren sindikalismoaren barruan ere, aurreko hazkunde fasean sortutako oparotasunaren itxaropenen eta aurrerapen teknologikoen sortutako aukera berrien ondorioz (ELA, 1982: 48). Ildo horretan, krisi ekonomikoaren egoerak sindikatua oinarritzeko aldarrikapenetara bueltatzea eragiten bazuen ere (soldata eta enplegua), bestelako aldarrikapenen loratzea aurreikusten zuen ELAk bere analisisan.

Beraz, aldaketa estruktural oso garrantzitsuak sumatzen zituen ELAk lan munduan ez ezik, kulturaren eta ekonomian ere, asko atal teorikoan aipatu ditugunak. Aldaketa horiek erronka sakonak zekartzan sindikalismora, antolaketarako baldintzak zailagoak zirelako eta beharrian berriak eta oso heterogeneoak sortzen ari zirelako etengabe.

Esan beharra dago, nazio zapalkuntza aipatu aipatzen den arren, ez dela horren azterketan gehiegi garatzen, eta zeharka ageri den gai bat dela, lan harremanen markoari buruz edota Autonomia-Estatutuaren gabeziez ari denean, esaterako. Baina gutxitan aipatzen da «nazio zapalkuntza» kontzeptu orokor moduan.

Norberaren jardueraren balorazioa: arrakastatik autokonplazentziara

Bere jardueraren balorazio propioa egiterakoan, harrotasuna transmititzen zuen ELAk beren diskurtsoetan, eta akats propioen autokritika oso gutxi egin zuen. Sindikatuaren aburuz, sindikalismo errealista, eraginkorra eta irekia eraman zuen aurrera, afiliazio eta antolakuntza maila altuekin hornituta. Arrakasta hori eredu sindikalari eta antolakuntza

eta baliabideei emandako garrantzian eta militantziaren lanean oinarritu zela gogoetatu zuen sindikatuak hainbat alditan (ELA, 1979c; 1979f; 1982: 11; 1986: 41).

Hala ere, 1986an zailtasun batzuk aitortu zituen. Izan ere, eragozpenak zeuzkan antolakuntza-egiturak krisiak sortutako egoera berrira egokitzeke (egiturazko analisisian azaldu den bezala) (ELA, 1986: 66). Oro har, autoestimua maila oso handiko eragile sindikal gisa aurkeztu zuen publikoki bere burua garai hartan. Baina, Letamendiak (2004: 102) ohartarazten duenez, 1986ko balorazio positiboek sindikatuaren benetako geldialdia ezkututzen zuten. Izan ere, oso gutxira lehertu zen ELAren barneko krisia, zuzendaritzaren eta sindikatuaren norabidearen aldaketak ekarriko zituen. Krisi horrek erakutsi zuen, diskurtsoetan egindako diagnosietatik harago, aldatzen ari zen paradigma ekonomiko eta politikoaren baldintza berrietara doitzeko sindikatuak zeuzkan benetako ezintasunak.

Diagnostiko markoen ondorioak

Koiunturari buruzko markoen eboluzioari begiratuta, hasieran, Espainiako erreforma politikoak hartu zuen arretarik handiena, logikoki, sindikatuaren jardueraren beste atal guztiak baldintzatu behar zuen gaia zelako horixe. Ondoren, ia parean agertu ziren erreforma sindikalari eta autogobernu prozesuari lotutako irakurketak, eta nahiko lotuta bata bestearekin. Oro har, erreforma sindikala ez zihoan ELAk gurako zukeen bidetik, eta, hartara, autogobernuaren esparruan jarri zuen lan harremanen marko mesedegarriagoa eratzeko eginkizun nagusia.

Ordea, jadanik erreformak finkatuta zeudenean (neurri handi batean, behintzat), industriaren krisiak eta lan munduko aldaketek markatu zituzten 1980ko hamarkadako azterketak. Izan ere, soldatapeko lanaren krisiarekin lotu ditzakegun prozesu ia guztiak agertzen dira diagnostiko horietan, sindikalismoa baldintzatzen dutenak zalantzarik gabe: langabezia, soldataren erosahaltenaren gutxitzea, kontratu moten ugaritzea, lan harremanen malgutzea, desindustrializazioa eta zerbitzu sektorearen hazkundera, lanaren eta bizitzako bestelako esparruen arteko harremana, Enpresa Txiki eta Ertainen (ETE) gorakada, emakumeen sarrera progresiboa soldatapeko lan merkatuan, gazteen egoera berezia, globalizazioa, aldarrikapen eta beharizan sozial berrien loratzea, indibidualizazioa...

Horiek guztiak ELA sindikatuak identifikatu eta kontuan hartu zituen garaiko aldaketak dira. Hala ere, haren diskurtsoetan hutsune nabarmena zegoen oraindik ere soldatapeko

lan munduaz harago doazen arazoan azterketan. Hala, gizonezko langileen aldean emakumeek pairatutako zapalkuntza bikoitzari (alegia, klase nahiz genero zapalkuntzari) oso arreta txikia eskaini zion, eta analisia lan merkatuan emakumeek bizi zuten egoerara mugatu zen. Etxeko eta zaintzako lanak, hau da, merkatuz kanpoko ordaindu gabeko lanak ez zituen aipatu ere egin. Ostera, 1976an bai egin zuten amatasun derrigortuaren inguruko hausnarketa (ELA, 1976d: 32), baina ezer gutxi gehiago. Hurrengo urteetan ez ziren gai horiek aipatu.

Bestalde, sindikatuaren adierazpenetan ez dago gizarte mugimenduen inguruko aipamenik ere. Beraz, ildo horretan, lehen gizarte industrialeko sindikalismo tradizionalaren ereduari jarraikiz, soldatapeko lanari lotutako problematikek hartu zuten zentraltasun (ia) eskusiboa ELAren azterketetan, eta, gainera, 80ko hamarkadan 70ekoan baino gehiago.

Hartara, ondorioztatu dezakegu 70eko hamarkadan, Estatuaren erreforma koiunturaren uneak eraginda, gai politikoek arreta nabarmena hartu zutela, eta gizartearen arazoan azterketa globalagoa egin zela sindikatuan. Aldiz, 80ko hamarkadan, erreforma prozesua gauzatu eta lan harremanen markoa nolabait finkatu zeudelarik, lan harremanak eta negoziazio kolektiboa auzi konplexuago bihurtu ziren, eta ELAren eginkizuna esparru horietan zentratu zen. Oro har, azken aldi horretan azterketa guztiek zituzten lan harremanak grabitate zentro moduan, batez ere erreformak gauzatu eta gero.

PRONOSTIKO MARKOA (ESTRATEGIKOA)

Printzipio eta helburu ideologikoak: sozialismotik pragmatismora

Atal honetan sindikatua ezaugarritzen duten printzipio eta helburu ideologikoak hartu ditugu abiaburu, hau da, epe luzeko helburuak markatzen dituzten jarrerak. Zer esanik ez, aintzat hartu dugu, ohikoa denez, sindikatuaren definizio ideologikoa eta egiturazko analisia erabat lotuta egon ohi direla.

1976ko 3. kongresuan aldaketa handia jazo zen aurreko tradizioko printzipio ideologikoei zegokienez. Sindikatuaren helburua, haren dokumentuetan adierazten denez, «Euzkadiko langile guztiak» batzea zen, beren eskubide, interes eta aspirazioen defentsarako eta lorpenerako, «gizarte justu baten aldeko borrokan», hau da, «produkzio, kontsumo eta kultur tresnak langileen esku eta zerbitzuan egonen diren sozialismo batetan burutua izango den gizartea» (sic.) (ELA, 1976a). Hitz hauek jaso ditugu, definizio ideologiko sozialista bereganatu zuelako modu esplizituan ELAk lehen aldiz bere ibilbide

historikoan, eta, hori egitean, EAJren oinarri ideologikoetatik urrundu zelako. Izan ere, une hartan militante asko ESBtik⁹¹ gertuago sentitzen ziren EAJtik baino (Kortabarria, 2015: 29). Dena dela, «sozialismo» terminoak desadostasunak sortu zituen sindikatuaren barnean (ELA, 1976a: 17-18), kide asko ez baitzeuden adiera horrekin eroso (Manu Robles-Aranguiz presidentea bera, esaterako), eta bai balio kristau-humanistetatik eta komunitarismotik hurbilago planteamendu marxistetatik baino (adb. ELA, 1976d: 36). Hala ere, diskurtso sozialista esplizituak ez zuen presentzia handirik izan hurrengo kongresuetan. 1980ko hamarkadako kongresuetan, esaterako, «sozialismo» hitza baztertua geratu zen.

Ikuspegi sozialistarekin zuzenean loturik ez bada ere, badago beste adierazpen erradikalagoren bat sindikatuaren lehen garai horretako dokumentuetan. Adibidez, 1976an behin soilik aurkitu dugun baieztapena agertzen da kongresuko idazkian: «langilea soldatari bihurtzen duen lan moldea» «suntsitzeko» asmoa aitortzen da (ELA, 1976c: 5), hau da, ekoizpen kapitalistaren oinarrian dagoen soldatapeko lan forma suntsitzeko asmoa. Baieztapen hori oso deigarria da sindikatu batean, eta ELAren zenbait kideren artean egon zitekeen asmo iraultzaileen adierazlea da. Dena dela, hurrengo kongresuetan ez zen horrelako formulaziorik berriro agertu.

Nolanahi ere, 1979ko estatutuetan elkartasuna, demokrazia eta independentziaren printzipioak indartuta geratu ziren (ELA, 1979b) sindikatuaren ildo ideologikoetan. «Gizarte demokratiko eta justua» ezarri zen sindikatuaren azken helburu nagusitzat. Printzipioetan «sozialismo» hitza agertu zen arren, hortik kanpo ez zen horrelakorik aipatu eta, zalantzarik gabe, sindikatuaren azken helburuek kutsu humanistagoa hartu zuten, sozialista materialista baino. Ildo berean, 1982ko kongresuko planteamenduetan 1976ko erradikaltasun ideologikoa eta diskurtsiboa galdu ziren. Krisi ekonomikoak klase gatazka sakondu zuen arren, horren aurrean planteatu ziren neurriek ez zuten ekoizpenerako bitartekoen sozializazioa (edo soldatapeko lanaren «suntsitzea») aldarrikatu, industria birmoldaketaren planifikazio demokratikoa baizik. Hortaz, diskurtso erabat pragmatikoa bereganatu zuten ELAkoek.

Abertzaletasunari zegokionean, 1976an, «Euzkadi osoaren etorkizun librearen alde» egingo zuela azaldu zuen sindikatuak (ELA, 1976a), baina ez zen «abertzale» gisa esplizituki definitzen. 1979an, aldiz, nazio askapenerako bide autonomikoan lerrokatu

⁹¹ Euskal Sozialista Biltzarra, Hego Euskal Herriko alderdi sozialista eta abertzalea, 1976an sortua. HB koalizioaren parte izan zen (Egaña, 1996: 255).

zen, azpimarratuz horrek ez zuela langile klasearen interesak alboratzea ekarriko. Izan ere, Autonomia Estatutuaren ikuspegi propioa zuen ELAk (ELA, 1979c). Horren harira, Nafarroa kanpoan geratu izana kritikatzeko estatutuari (ELA, 1982: 76) baina, egin zituen irakurketetan eta proposamenetan Euskadiko Autonomia Erkidegoa hartu zuten kontuan gehienetan, Nafarroa ia aipatu barik. Era berean, Autonomia Estatutuaren lehen eginkizuna lan harremanetako marko propioaren eraketa zen, hori baitzen ELAren ekarpen nagusia autogobernuari.

1980ko hamarkadako kongresuetan gizarte humanoagoaren, demokrazia parte hartzailearen eta internazionalismoaren aldeko adierazpenak egin zituen ELAk (ELA, 1982, 12, 45, 82); haren ustetan, justizia sozialaren eta elkartasunaren printzipioetan oinarritu behar zuten horretarako. Horiek lortzeko bitartekoa honako hau zen: enplegua, hain zuzen ere (ELA, 1986: 33). Horrenbestez, hamar urte lehenago adierazitako soldatapeko lana suntsitzeko asmoak baztertu egin zituen hala diskurtsoan nola jardueran..

Oro har, 1976ko testuinguru politiko eta sindikal nahasiak sortutako aldaketa-itxaropenek bultzatu zuten ELA printzipio ideologiko maximalistak finkatzera. Hori dela eta, definizio sozialista eta iraultzaile batetik abiatu zen hasieran, eta diskurtso humanistagoa eta pragmatikagoa garatu zuen geroago. Izan ere, ez da gauza bera erreforma politikoaren hastapenetan egotea, jakin gabe zertan bukatuko den edo, erreforma politiko eta sindikal mugatua gauzatu ondoren, krisi ekonomiko larriari erantzun eraginkorra (eta posibilista) eman gura izatea. Bestalde, nabarmena da 1976an ELAren barruan talkak zeudela diskurtso ideologikoa zehazteko. Lehia horretan kokatu behar dugu sektore nagusiak sindikatuaren oinarriak termino maximilistagoetan ezartzeko egindako hasierako ahalegina.

Hori guztia esanda, badago datu bat ELAren diskurtsoaren bilakaera hori hobeto ulertzeko aukera ematen diguna. Izan ere, oso gutxi aipatu izan den arren, 1984tik 1988ra bitartean ELAk AEBetako *National Endowment for Democracy* fundazioaren diru laguntzak jaso zituen; komunismoaren kontra borrokatzeko xedea zuen aipatu erakundeak (Etxarri, 1985; Basterra, 1986; Rivera, 2013). Jazoera horrek guk hemen egin ezin dugun azterketa sakonagoa beharko luke, atzean egon daitezkeen arrazoiak hobeto ulertu ahal izateko. Nolanahi ere, hauxe dago argi: 80ko hamarkadan ELA moderazio prozesuan murgildu zen ildo ideologikoari dagokionez.

Aldarrikapenak eta esku hartze eremuak

Eremu soziopolitikoan interes sozial edo politikodun gaiak aztertuko ditugu, alegia, soldatapeko lan esparru klasikotik urruntzen direnak. Bertan ere, gizarte kolektibo baztertuei zuzendutako neurri espezifikoak ikusiko ditu, emakumeak, gazteak, etorkinak, besteak beste. Horietako asko soldatapeko lan eremuarekin dute zerikusia, baina azken finean gizarte bazterketari doaz lotuta, beraz azken atal honetan sartzeko hautua egin dugu.

Atal honen bidez, diagnostikatutako arazoei irtenbidea emateko ELAk eskaintako proposamenak hartuko ditugu kontuan. Proposamen guztiak banan-banan hartzea eta azaltzea luzeegia izango litzatekenez, gaika aurkezten saiatuko gara, gure hipotesiak berresteko edo baztertzeko balio duten auzietan arreta handiagoa jarritz.

ELAk egindako proposamen horiek bi arlo nagusiren arabera sailkatu ditugu: soldatapeko lanaren eremukoak, alde batetik, eta eremu soziopolitikokoak, beste aldetik. Soldatapeko lanaren esparruari dagokionez, hor sartuko lirateke enpresan edo sektorean soldatapeko lan baldintzak hobetzera bideratutako aldarrikapen sindikalak.

Eremu soziopolitikoan, berriz, interes sozial edo politikodun gaiak aztertuko ditugu, alegia, soldatapeko lan esparrutik urruntzen direnak. Gai batzuk errentaren banaketarekin zerikusia izango dute (zergak eta politika publikoak, adibidez), baina beste batzuk ez. Atal horretan, gizarte kolektibo baztertuei zuzendutako neurri espezifikoak ikusiko ditu, emakumeak, gazteak, etorkinak, besteak beste. Horietako asko soldatapeko lan eremuarekin dute zerikusia, baina azken finean gizarte bazterketari doaz lotuta, beraz azken atal honetan sartzeko hautua egin dugu.

Ildo horretan, gogoratu dezagun ikerketa lan honen hipotesietako bat hauxe dela: esparru sozial eta politikoetan esku hartzea sakondu egin duela sindikalismo eraberrituak, soldatapeko lanaren esparruari garrantzi erlatibo gutxiago eskainiz. Atalen egituraketa honekin, esparru bakoitzak nolako eboluzioa izan duen ikusi ahalko dugu. Nolanahi ere, kontuan hartu behar dugu 1970eko hamarkada garai berezia izan zela, esparru politikoaren inguruan zegoen ziurgabetasunagatik. Hori dela eta, garai horretan gai politikoek ezohiko zentraltasuna izan zuten sindikatuen aldarrikapenetan.

Soldatapeko lan eremua: enpleguaren zentraltasuna

1976an lau puntutan zentratu zituen ELAk bere aldarrikapenak: 1) erosahalmena handitu eta berdintasun eza gutxitu (soldata eta pentsioak igoz eta inflazioa murriztuz); 2) lanaldia murriztu eta kaleratzeak gelditu; 3) lan- eta bizi-baldintzak hobetu; eta 4) eskubide eta askatasun sindikalak eta politikoak eskuratu (ELA, 1976c: 5). 1979an, Espainiako erreforma politikoaren atal asko oraindik ebatzi gabe zeudela, epe laburreko helburu moduan hauexek zehaztu zituen: 1) lan harremanen esparrua egonkortzea eta 2) langileen lehentasunezko aldarrikapenei erantzutea, enpleguaren eta soldaten erosahalmenaren defentsa eginez (ELA, 1979c, 1979e).

1982an, erreforma ezberdinen puntu garrantzitsuenak ebatzita eta krisiaren aurrean neurri ekonomiko neoliberalak abian jarrita zeudelarik, hiru ardatzetan oinarritu zuen bere ekintza sindikala, aurreko urteetako ildoan: soldatan, enpleguan eta gizarte segurantz, hurrenez hurren (ELA, 1982: 26). Ildo horretan, politika ekonomikoen helburu nagusietako bat enpleguaren sorrera izan behar zuen, sindikatuaren iritziz (ELA, 1982: 34-36).

1986an ELAren planteamenduak ez ziren asko aldatu. Horrela, premiazko jo zen egitura industrialaren erreforma sakona egitea. Izan ere, enplegua sortzea izan behar zuen politika industrialen lehentasuna (ELA, 1986). Langabezia zela eta, lanaldia murrizteko eta enplegua banatzeko neurriak proposatu zituen sindikatuak epealdi osoan zehar (ELA, 1976c: 10, 1979c, 1982). Bestalde, 1986 urterako kontratuak ugaritu eta malgutu egin zirenez, eta kaleratzeak erraztu eta lan baldintzak prekarizatu, ELAk enplegu finkoaren eta mugagabearen aldeko apustua egin zuen bere aldarrikapenetan, eta kontratu mota berriei kontrol zorrotzagoa ezartzea eskatu zuen (ELA, 1986: 100-101).

Agerikoa denez, ELAren aldarrikapen eta eskaera nagusiak soldatapeko lanaren eremura zeuden bideratuta, soldaten erosahalmenari eustera eta, krisia sakondu ahala, enplegua defendatzera, batik bat. Horrenbestez, enpleguak zentralitate osoa zuen haren diskurtsoan eta ekimenetan. Izan ere, sindikatuak uste zuen haren kalitateak baldintzatzen zuela, neurri handi batean, gizarte osoaren bizi maila. Gazteen problematika, berriz, langabeziari lotuta agertzen zen gehienbat, eta soluzio proposamenak soldatapeko lanaren ikuspegi ia eskusibotik planteatu ziren, batez ere enplegua aurkitzera bideratuta (ELA, 1976c: 9; 1979d; 1982: 82; 1986: 72).

Beste kolektibo batzuei dagokienez, «elbarrituen» (sic.) beharrak agertzen dira jasota dokumentu batzuetan, eta haiei erantzuteko premia; hala, desgaitasunak dituzten pertsonak soldatapeko lan merkatuan modu errazagoan sar daitezten proposamenak aurkeztu ziren 1976an. Kolektibo horren eguneroko bizitza errazteko laguntzak ere eskatu ziren lan mundutik kanpo (ELA, 1976c: 11). Aldarrikapen horiek 1979an alboratu zituen sindikatuak.

Eremu soziopolitikoak: erreforma politikoa eta aldarrikapen sozial sinbolikoak

1976an demokraziaren aldeko borroka zen lehentasunezko helburu politikoa, sindikatuaren diskurtsoaren arabera. Ildo horretan, demokratizazio prozesua bizkortu beharra zegoen, askatasun politikoak eta sindikalak lortze aldera, erregimen (post)frankistak izan zezakeen prozesuaren gainerako kontrola gainditzeko. Era berean, demokratizazio prozesuan eta autogobernuan sakontzea ezinbestekoa zen zetorren krisi ekonomikoari aurre egiteko unean tresna instituzional egokiak izateko, eta langileen interesen aldeko politikak bultzatzeko (ELA, 1976c: 2-3, 5-6); bitarteko helburu horiek guztiak elkarren artean lotuta daude diskurtsoan.

1979an Autonomia-Estatutuaren auzia azaldu zen ELAren dokumentuetan. Estatutuaren gabeziez jakitun izanda ere, Euskadiren instituzionalizazioari ekiteko abiapuntu baliagarritzat jo zen sindikatuan marko hori. Hain zuzen ere, ikuspegi sindikaletik, autonomia prozesuaren helburuetako bat Euskadiko lan harremanen esparru propioa egituratzea zen, eta estatutua horretarako tresna egokia izatea espero zen (ELA, 1979c, 1979e, 1979g). Hala ere, Joxe Elorrieta⁹² eta German Kortabarria⁹³ sindikatuaren buruzagiek beren elkarrizketetan adierazi dute estatutuaren inguruko jarrera ez zegoela horren argi garai hartan, eta gogoeta sakonetan sartzeak sindikatuaren jardura eta batasuna kaltetu zitzakeelakoan erabaki zutela aipaturiko ebazpena sartzea; beraz, gai politiko garrantzitsuak eta potentzialki gatazkatsuak saihesteko joera nagusitu zen. Halatan, 1980ko hamarkadan autonomia prozesua helburu estrategiko bihurtu zen sindikatuan, politika ekonomiko eta industrial egokiagoak egiteko aukerak eskainiko

⁹² Joxe Elorrieta ELAn sartu zen 1972an. 1977 eta 1988 urteen bitartean prentsa arduraduna izan zen sindikatu barruan, eta Idazkari Nagusia izan zen 1988tik 2008ra arte. Berrikuntza sindikalari eta ELAren bilakaerari buruzko doktoretza tesia egin du UPV/EHUko Politika- eta Administrazio Zientziak fakultatean.

⁹³ German Kortabarria 1975an sartu zen ELAn, babes juridikoaren bulegoaren arduradun gisa. Sindikatuko Batzorde Eragileko kidea izan zen 1988tik 2007ra.

zituelako itzaropenez, besteak beste, industria-birmoldaketaren plan hobea eta demokratikoagoa aurrera eramateko (ELA, 1982: 35, 82).

Arlo sozialean, gizarte kideen bizi baldintzak hobetzeko hirigintzari, hezkuntzari eta etxebizitzari lotutako eskubideak, kutsaduraren aurkako neurriak eta antzeko proposamenak egin ziren, baita Lemoizko zentral nuklearra gelditzeko ebazpen bat ere. (ELA, 1976: 10-11; 1979d; 1986: 73). 1976an, aldarrikapenen zerrenda luzeagoa izan zen 1980ko hamarkadan baino. Hala ere, izaera guztiz sinbolikoa hartu zuten aipatu aldarrikapenek, horien aldeko benetako jarraipenik ez baitzen burutu.

Haatik, 1982an, gizartearen egiturazko aldaketek eraginda, langileek aldarrikapen berriak azaleratu zituzten, eta eskari horiek islatzen hasi zen sindikatua ere. Ondorioz, lanaldiaren murrizketaren aldarrikapenarekin batera, aisialdiaren beharrari ere tokia eskaini zitzaion dokumentuetan, eta «denbora librearen gizartearen» bidean, lanaren banaketarekin batera giza garapenerako beharrezkoak diren jardueren garrantzia aitortu zuen sindikatuak. Hala, ekoizpenaren, kontsumoaren eta kultura ondasunen banaketa justua gauzatu behar zen, sindikatuaren ustetan (ELA, 1982: 78). Horretarako, teknologia berriek denbora librearen gizartea ahalbidetu behar zuten, eta ez langabetuen gizartea.

Baina, adierazpen horiek eginda ere, argi utzi zuen ELAk eremu hertsiki sindikalean zentratuko zuela bere ekarpena, eta krisi egoera eragile sozial guztien konpromisoz gainditu behar zela (ELA, 1982: 78). Horrela, gizarte aldaketen irakurketa globala egin zuen arren, ELAk eremu sindikalera mugatu zuen gizarte eredu justuago baterako jarduera sindikala. 1986an, berriz, ez zen denbora librearen inguruko hausnarketarik egin, baina lanaldiaren murrizketa helburu nagusietakoa zela aitortu zuen sindikatuak (ELA, 1986: 192). Kontuan hartu behar da urte hartan sindikatua ez zegoela bere unerik onenean, 1988ko zuzendaritza aldaketak berretsi zuen moduan⁹⁴.

Emakume langileen ordaindu gabeko lanaren eta haien zapalkuntzaren aurrean, emakumeak soldatapeko lan merkatuan errazago sar zitezten neurriak hartzea planteatu zuen 1976an ELAk, horietako batzuk desfamiliarizazioaren bidean, hala nola, etxeko eta familiako zaintza lanak sozializatzeko zerbitzu publikoak abian jartzea (jantokiak, haurtzaindegiak...) eta seme-alaben arretarako erantzukizun parekideak bultzatzea gizartean (ELA, 1976c: 11). Hurrengo urteetan, halere, eskaera horiek alboratu egin ziren.

⁹⁴ 1988an, ELAko Batzorde Exekutiboan krisia suertatu zen. Izan ere, sindikatuko Nazio Batzordeko kideen gehiengoak Alfonso Etxeberria Idazkari Nagusia kargugabetzea erabaki zuen, eta haren kargua Joxe Elorrietak hartzea (Kortabarria, 2015: 63-65).

Adin eta sexuaren araberrako diskriminazioak saihestu beharra aipatzen zen, aipatu, baina bestelako xehetasun barik (ELA, 1979d; 1982: 82). 1986an ez dago emakumeen arazo espezifikoa konpontzeko neurri zehatzik. Ildo horretan, atzerapauso handia eman zen andreen problematikei erantzuna emateko unean (ELA, 1986: 46-47).

Esku hartze arloei buruzko ondorioak

Ikusten dugunez, aztertzen ari garen epealdiko diagnostikoari dagokionez, ELAk maila diskurtsibo orokorrean gizartearen problematiken analisi osoa eta integrala egin bazuen ere (Kortabarria, 2015: 29), bere berezko ekintza arloa soldatapeko lanaren ohiko esparrura mugatu zuen diskurtso eta proposamen zehatzetan. Eremu soziopolitikoak 1976an nahiko garatua zuen diskurtsiboki, aldaketa politikoaren momentuko eferbeszentziak eraginda, seguruenik. Baina, hortik aurrera, planteamendu pragmatikoagoa eta posibilistagoa bereganatu zuen zeregin sindikalen inguruan. Pragmatismo horrek eta langabeziaren egoera latzak eragin zuten 80ko hamarkadan sindikatuak soldatapeko lan esparrura mugatzea bere esku hartzea, albo batera utzita emakumeen lanaren eta bestelako kolektibo batzuen egoera.

Halatan, lehentasunezko helburuak soldaten erosahalmena mantentzea eta langabeziari aurre egitea ziren ELArentzat. Baina ez zihoan haratago. Sindikatua kontziente zen gizartea aldatzen ari zela, baina praktikan ez zen aldaketa horietan zentratu. German Kortabarriaren ustetan (2015: 57), «sindikatuaren helburuen artean azaldu arren, gai sozialek ez zuten lekurik aurkitu premia larriko eginbeharrez betetako eguneroko agendan». Aldiz, ekintza sindikala oso ondo egokitu zen zerbitzu sektorearen, ETEen⁹⁵ eta administrazio publikoaren hazkundera. Baina enpresatik harago zeuden arazoetan esku hartzeko plana hankamotz geratu zitzaion, nahiz eta arazo horien garrantzi soziala aitortu diskurtsoan.

Antolakuntza: afiliazioa, autonomia, sendotasuna eta egitura profesionalaren pisua

ELAren antolakuntza aztertzeko, elkartze- eta antolakuntza- boterea indartzeari begira sindikatuak hartutako erabakietan jarri dugu arreta. 1976an, antolaketa bidean zegoen legalitate-egoera berrira egokitzea zen ELAren betebeharr nagusia. Egituraketak itzelezko premia hartu zuen oraindik frankismoan egindako kongresu horretan. Garatu beharreko honako esparruak zehaztu ziren bertan: barne demokrazia lantzea, afiliazio masiboa

⁹⁵ Enpresa Txiki eta Ertainak.

erdiestea, herrietan, hirietan eta fabriketan egituratzea eta errotzea, eta beren zerbitzuak hobetzea, besteak beste (ELA, 1976a: 11). ELAk lurraldeko sindikaturik handiena izateko asmoa zuen hasieratik, «Euzkadiko langile guztientzako atek irekita izango dituen» (ELA, 1976a: 21). Bestela adierazita, elkartzeko botere legez definitutakoa ahalik eta gehien maximizatzea bilatu zuen, militantzia sindikatua izatetik afiliazio sindikatua izatera pasatzeko (ELA, 1976a: 10).

Horrela, handia izateaz gain, indartsua ere izan behar zuen antolakundeak. Hori dela eta, sindikatuko kideei diru-kuota altuak ezartzea erabaki zen. Izan ere, kuota apalak ustez epe laburrera afiliatu gehiago erakarri arren, baliabide eta antolakuntza arazoak sortu zitzakeen epe luzera, finantzazio faltagatik (ELA, 1976a). Konparatzearen, 200 pesetetan ezarri kuota minimoa ELAn. Aldiz, CCOOren eta UGTren afiliazio kuotak 50 eta 100 pesetakoak ziren, hurrenez hurren. Itxura batean, erabaki hori anekdotikoa izan zen. Alabaina, Joxe Elorrietaren ustez, epe luzera erabakigarria izan zen sindikatuaren indar antolatzailea (erresistentzia kutxa, adibidez) eta autonomia erdiesteko (Elorrieta, 2012: 177). LABek, aldiz, ez zuen eztabaida hori mahaigaineratu ere egin. Horrez gain, ELAn baliabideak eta zerbitzu hobeak eskaini behar zituen, jende ahalik eta gehienarengana heltzeko (ELA, 1979f).

1982an eta 1986an krisiaren testuinguruak arazoak sortu zitzakeen afiliazioan. Ondorio hori aurreikusita, langileen premietara hobeto moldatzeko beharra azpimarratu zuen ELAk (ELA, 1982: 51). Horretarako, afiliatuei arreta-zerbitzu indibidualizatuagoa eskaintzeko ahalegina egin behar zuen sindikatuak, haren diskurtsoan jasotzen denez (ELA, 1986: 66-68). Horixe izan zen, hain zuzen, krisiak eta lan harremanen eredu zentralizatuak ezarritako zailtasunei aurre egiteko bidea ELAri dagokionez: antolakuntza sendotu, baliabidez hornitu eta afiliatuen beharrezan berriei modu egokiagoan erantzun. Zalantzarik ez, planteamendu horrekin zerbitzu sindikatu bihurtzeko norabidea hartu zuen ELAk.

Bestalde, autonomia sindikalaren gaiak pisu handia hartu zuen, alderdien, enpresen eta estatuaren eraginetik kanpo botere sindikal ahalik eta handiena izan zezan sindikatuak, langileen interesekiko leialtasuna ziurtatze aldera. Hori zela eta, sindikatuaren printzipioek kargu politikoen eta sindikalen bateraezintasuna ezarri zuten arau gisa (ELA, 1976a: 13, 21; 1979c). Hain zuzen ere, diru kuoten bidezko autofinantzaketak printzipio horri eustea ahalbidetu zuen (Elorrieta, 2012). Gainera, autonomiaren irizpidearen bitartez, estrategia oso bat garatzeko burujabea zen sindikatuak gizartearen ikuspegi

integrala landu nahi zuen (Kortabarria, 2015: 29). Hala, bere jarduera gehienbat eremu sindikalera bideratu zuen arren, ELAk ez zuen «apolitikoa» izan nahi, kontrakoa baizik: ikuspegi politiko propioa garatu nahi zuen. Baina, kontraesanak gorabehera, praktikan, esparru sindikal hertsira mugatu zuen bere jarduna, arestian esan dugunez.

Bestalde, ELAk egituraketa eredu bikoitza ezarri zuen: profesionala (edo sektorekoa) eta interprofesionala (edo lurraldekoa) (ELA, 1976a: 26-33). Hala ere, Joxe Elorrietaren esanetan, 80ko hamarkadako sindikalismoaren «modelo instituzionala» zela eta, egitura guztia negoziazio kolektibora bideratuta zegoen, eta, hartara, egitura sektorialak zuen pisu nagusia egiturari zegokionez.

Horren harira, 1979an enpresaren eremuan ezarri zen borroka esparru nagusia eta, ondorioz, enpresaren eremuan oinarritutako sindikalismo eredua zehaztu eta garatu zen (ELA, 1979c), negoziazio kolektiboa hortik abiatuta egituratzeko (Garde, 1990: 599). Eredu horrek enpresa mailako egituraketan sakontzea inplikatu zuen, eta sail sindikalei protagonismoa eskaintzea. Bide horretan, batetik, sail sindikalen ahalmen negoziatzailea handitzearen alde, eta, bestetik, enpresa batzordearena mugatzearen alde agertu zen sindikatua (ELA, 1979c).

1982an eta 1986an, krisi ekonomikoak afiliazioaren galera eragin zuen sindikatuan. Ondorioz, afiliazioaren beherakadak egitura interprofesionalari bultzada emateko premia piztu zuen, eta baliabide eta liberatu gehiagoz hornitu zen esparru hura (ELA, 1982: 51-56; 1986: 67). Izan ere, langile sektore gero eta gehiagok lantegi txikietan egiten zuten lan, eta zaila zen guztietan sail sindikalak eratzea. Hartara, egitura interprofesionalaren bidez, hazten ari ziren langile mota berriei (partzialak, behin-behinekoak, langabetuak...) arreta zerbitzu egokitua eskaini nahi zitzaien (ELA, 1986: 70). Izan ere, afiliatuak lortzeko estrategia nagusia zerbitzuen eskaintzan oinarritu zen gero eta modu nabarmenagoan.

Oro har, honako ezaugarriak azpimarratu ditzakegu ELAren garai honetako planteamendu antolatzaileetan: afiliazio masiboa, zerbitzuen garrantzia, autonomia sindikala eta egituren sendotasuna eta zentralizazioa. Berez, egitura profesionalak hartu zuen arreta nagusia, negoziazio kolektiboaren garrantziak eraginda. Hala ere, 1982tik aurrera, interprofesionala indartzeko asmoa adierazi zuen sindikatuak, malgutasuna eta arreta indibidualizatua eskaintzeko asmoz. Hau da, diskurtsoaren arabera, egitura profesionalak izan behar zuen garrantzia garapen antolatzailean, baina, testuingurua zela

eta (krisia, indibidualizazioa, enpresa txikien ugalketa...) garrantzi handiagoa eskaini zitzaion egitura interprofesionalari. Dena dela, oraindik ez zen berregituraketa sakonik egin.

Aliantzak: ahalik eta gutxien, sindikatu eta instituzioekin akaso

ELAren ikuspegitik, langileen batasuna praktika sindikal librearen bidez lortu behar zuen sindikatuak, afiliatuei buruzko leialtasun osoa mantenduta beti ere (ELA, 1976a); autonomia sindikala nahitaezko baldintza zen beste sindikatuekin elkarlana bultzatzeko unean (ELA, 1976c: 4). ELAk beste aktoreen beharrik ez zuen «oinarri propioetan finkatutako sindikalismo»⁹⁶ moduan ezaugarritzen zuen bere eredua (ELA, 1979c). Ondorioz, autonomiari eskainitako lehentasuna tarteko, oso garrantzi gutxi eskaini zien aliantzei hasiera batean. Nolanahi ere, 1986an aitortu zuen zatiketa sindikalak ahultasuna zekarkielan langileei. Haatik, sindikatuen ekintza bateraturako baldintza zen sindikatuen independentzia osoa bermatzea (ELA, 1986: 58). Bestela adierazita, batasun sindikala ez zen baztertzeko ELAren barruan, baina garai hartan ez zen bideragarri ikusten. Lehentasun handiagoa zeukan autonomia sindikalari eusteak eta, beraz, norberaren indarrekin jarduteak.

Ildo horretan, gizarte mugimenduak ez zituen aipatu ere egiten ELAren diskurtsoak. Gainerako sindikatuekin eta «instituzioekin» baino ez zuen aurreikusten elkarlana, bere burua ere «instituziotzat» harturik (ELA, 1979d). Modu horretara, «mugimendu sozialekiko» distantzia argia markatu zuen, Molinak (2021: 183) azaldutako eredu bereizketaren ildoan. Era berean, esanguratsua da 70eko eta 80ko hamarkadetan urriak direla «langile mugimenduari» egindako erreferentziak eta ELAk nahiago zuela bere burua «mugimendu sindikalean» edo «sindikalismoan» kokatzea. «Langile mugimenduak» eragile mota oso ezberdinak barnebiltzen zituen, sindikalismoaz haratago ere, mugimendu asanblearioa esaterako, eta, bistan denez, ELAk horietako batzuegandik urrun mantendu nahi zuen bere egitura (ELA, 1979a).

Bestalde, EAJrekin zuen elkarlana oso gutxitan aipatu zuen arren kongresuetan, ELAren aliatu nagusia zen alderdi jeltzalea garai honetan, Autonomia Estatutua abiapuntutzat hartuta, euskal esparruaren instituzionalizazioa sustatzerakoan bat zetozelako, batez ere lan harremani dagokien esparruan. Elkarlan horren emaitza izan ziren LHK eta EGAB,

⁹⁶ Gaztelera, «*un sindicalismo afirmado en sí mismo*» (ELA, 1979c)

adibidez. Dena den, emaitza horiek motz geratu ziren ELAren aspirazioak aintzat hartzen badira⁹⁷.

Nazioarteko esparruan, kapitalismoaren globalizazio eta nazioartekotze prozesuak ikusita, sindikatuak beharrezkotzat jo zuen bere diskurtsoan elkartasun internazionalista eta nazioz gaindiko proiektu bateratzaileak bultzatzea (ELA, 1976a, 1976d: 6). Nazioarteko elkartasunaren adierazle legez, EurSK⁹⁸, NSLK⁹⁹, LMK¹⁰⁰ eta Europako hainbat estatuetako konfederazioek beren aitortpena eman zioten ELAri (ELA, 1976b). Espainiako Estatua EEE¹⁰¹ sartu ondoren, 1986an sindikatuen arteko mundu esparruko koordinazioa modu aktiboagoan sustatzeko asmoa izan zuen ELAk, European langabeziarekin bukatzeko, 35 orduko lan astea ezartzeko eta berrikuntza teknologikoen kontrola lortzeko, esaterako (ELA, 1986: 63-64).

Haatik, German Kortabarriari eta Joxe Elorrietari egindako elkarrizketetan adierazten denez, nazioarteko sindikatu batzuekin harreman onak bazituzten ere (Belgikako CSCrekin¹⁰², esterako), nazioarteko elkarlanak ez zuen inoiz benetako eraginkortasunik izan sindikatuaren jardunean. Publikoki diskurtsoetan proklamaturako elkarlanak gehiago zuen erretorikatik benetako praktikatik baino. Gainera, hasieran Europako sindikalismoa eredutzat izan bazuen ere, gerora sindikatua ohartu zen europar sindikalismoaren eredua ez zela beretzako egokia.

Ekintzen erreperitorioa: negoziazio kolektiboa erdigunean, ekintza instituzionala gorabeheratsua

Ekintzen erreperitorioaz ari garenean, ekintza sindikalak bereganaturako jarduera moldeak hartzen ditugu hizpide. Modu sinple batean adierazita, ekintza sindikala gatazkatsua edo adostasunaren aldekoa (kontzertazioa) izan daiteke. Bestalde, ekintzaren atzean dauden protagonistak ere era askotakoak izan daitezke; soldatapeko langileak, modu hertsian hartuta (greba, negoziazioa kolektiboa, eta halako ekintzak burutzen dituztenak) edo

⁹⁷ Ikusi German Kortabarriari eta Joxe Elorrietari egindako elkarrizketa.

⁹⁸ Europako Sindikatuen Konfederazioa (frantsesez : Confédération Européenne des Syndicats (CES); ingelesez : European Trade Union Confederation (ETUC)), Europako 36 herrialdeetako 81 antolakunde sindikal biltzen dituen konfederazioa, horien artean ELA, CCOO, UGT, Frantziako CGT, CFDT...

⁹⁹ Nazioarteko Sindikatu Libreen Konfederazioa (Confédération Internationale des Organisations Syndicales Libres (CISOL))

¹⁰⁰ Lanaren Munduko Konfederazioa (frantsesez: Confédération Mondiale du Travail (CMT))

¹⁰¹ Europako Ekonomia Erkidegoa (frantsesez: Communauté Économique Européenne (CEE))

¹⁰² Confédération des Syndicats Chrétiens, Belgikako sindikatu nagusia, 1904ean sortua.

gizarteko bestelako kolektiboak eta eragileak (mobilizazio sozialetan, greba orokorretan eta halakoetan jarduten dutenak).

Errepertorioen ildo horretan, 1970eko hamarkadan mobilizazioa (ELA, 1976c: 15) eta, batez ere, negoziazio kolektiboa (ELA, 1979c, 1979e) izan ziren ekintza sindikalaren oinarritzko formak, patronalak bultzatutako itun sozialen kontrako jarrera baitzeukan ELAk (ELA, 1979a: 9). 1976an, oraindik erreforma politikoak burutzeke, oso zaila zen helburuak erdiesteko sindikatuak jorratu eta lehenetsi behar zituen ekintza bideak aurreikustea. Sindikatuak oraindik legeztatu barik zeuden Espainian, eta indarkeriari uko eginda ere, mobilizazioa zen epe horretako bitarteko bakarra.

Geroago, 1979an, negoziazio kolektiboarekiko oso ikuspegi berezia hartu zuen ELAk (ELA, 1979a: 9). Esaterako, enpresa esparruko negoziazio kolektiboari aparteko garrantzia emateaz gain, negoziazio horrek atal sindikalen esku egon behar zuela defendatu zuen, enpresa batzordeen esku egon beharrean (ELA, 1979c, 1979e). Halaber, borroka sindikalak eta negoziazioak sortutako errealitatek abiatuta egituratu behar zirela lan harremanak babestu zuen. Baina, Espainian kontrakoa egiten ari ziren itun sozialei zegokienez, lan harremanak erpinetik egituratzen ari baitziren, ekintza sindikalari mugak jarrita. Horren aurrean, negoziazio kolektiboaren autonomiaren alde agertu zen ELA (1979e).

Negoizazio kolektiboa zentrala izan zen, bai, baina ELAk ez zien uko egin marko autonomikoak eskainitako aukera politikoei, horiek mugatuak izan arren. Nahiz eta autonomia politiko osoa aldarrikatu zuen, EAJrekin partekatzen zuen ikuspegia ustiatzen ahalegindu zen ELA modu oso pragmatikoan, eta horren emaitza izan ziren LHK eta EGAB. Hala eta guztiz ere, egia da eragin instituzional sakonagoa nahi zuela ELAk, batez ere politika publikoetan eragiteko (ELA, 1979d, 1986: 72-74, 80). Argi dago garai honetan EAJrekin afinitate politiko handia zegoen ELAko afiliatuen artean (Kaiero, 1991: 89). Hori zela eta, ELAk EAJren hautesleriaren iritzietan eragiteko ahalmena izan zuen. Beraz, ELAk bazeukan Eusko Jaurlaritzaren eta EAJren politikak baldintzatzeko ahalmena, nahiz eta esperotako emaitzetan erdibidean gelditu zen. Horrenbestez, Eusko Jaurlaritzari egindako kritikak ez ziren Espainiako gobernuari zuzendutakoak bezain gogorrak izan epealdi honetan.

Dena den, ekintza instituzionala bide mugatutzat jo zen une batetik aurrera, besteak beste, gobernu zentralaren jarrera zentralistak eta antisindikalak, batetik, eta instituzio

autonomikoen eskumen faltak, bestetik, bide hori antzutu zutelako. Horregatik, negoziazio kolektiboa lehenetsi zuen ELAk ekintza forma gisa. Kontua da, baina, negoziazioak, eraginkorra izateko, marko legal zehatzagoa eta onuragarriagoa behar zuela (ELA, 1986: 110).

Mobilizazio soziala (manifestazioetan, kontzentrazioetan, eta abar, adierazten dena) subjektu anitzagoak bildu ditzakeen ekintza da (lantokitik kanpo egiten delako) baina, oso gutxitan aipatzen den ekintza forma da ELAren dokumentuetan. Mobilizazio sozialak aukera ematen du aldarrikapenekin ados egon litezkeen eragile gehiago ekintzara batzeko eta gizarte mugimenduekin elkarlanean aritzeko. Baina, ELAk ez zion toki handirik egin bere epealdi horretako diskurtsoan eta jardueran.

Azkenik, indarkeriazko ekintzak beren-beregi baztertu zituen sindikatuak eta gatazka bide sindikaletatik baino ez zuela bideratuko adierazi zuen behin baino gehiagotan (ELA, 1979c). Ildo horretan, epealdi honetako ELAren ekintza ez zen oso gatazkatsua izan, baina kontzertazioak zenbait kontraesan eragin zizkion. Hortaz, ekintza liskartsua negoziazioan kokatu zuen gehienbat, hau da, gatazkaren eta kontzertazioaren arteko erdibidean. Bestalde, erabili zuen ekintza-errepertorioa lantokian zentratu zen, bestelako gizarte kolektiboen parte hartzea sustatzeko ahalegin barik.

Interpelatutako gizarte kolektiboak: soldatapeko gizon langileak ardatz

Atal honetan ELAren diskurtsoan ekintza sindikalaren protagonista bihurtu nahi diren gizarte kolektiboak identifikatuko ditugu. Atal teorikoaren 6. kapituluan ikusi dugunez, identitateen esleipenean sindikatuek orientazio ezberdinak izan ditzakete, *protagonistak*, *antagonistak* eta *audientziak* zehaztean. Atal honetan, hain zuzen, hauxe ikusi nahi dugu: *audientzian* edo ekintza sindikalaren periferian kokatutako gizarte kolektiboen artean, zeintzuk erakarri eta *protagonista* bihurtu gura dituen sindikatuak. Modu horretara, sindikatuak bere legitimitate soziala zabaltzeko dituen asmoen berri izan dezakegu.

Aurreko azterketei so eginda, ondorioztatzen dugu eskusiboki soldatapeko langile estandarrak (gizonezkoak, gehien bat) antolatzen zela ELA (ELA, 1979b). Hari horretatik, 1976ko kongresuan emakume, gazte, erretiratu eta aniztasun funtzionaldun pertsonen arazoei eskainitako aipamenak egin ziren (oso laburrak, hala ere), hurrengo kongresuetan ez bezala. Izan ere, hurrengo hiru kongresuetan emakumeen lan egoerak (lan merkaturatzeak, lan-zama bikoitzaren auziak eta zaintza lanaren banaketa ezak) oso gutxi landu ziren, batez ere emakumeei zegozkien

lan eragozpenen tamaina aintzat hartzen bada. Horrenbestez, sindikatua soldatapeko lanaren baldintza prekarioetan zentratu zen, lantokitik harago esparru pribatuan emakumeek pairatzen zituzten lan arazoak kontuan hartu barik.

Horrela, sindikatuaren erreferente eta langile eredu nagusiak soldatapeko gizon langileak ziren. Hala ere, pentsiodunen eta gazteen problematikak emakumeenak baino arreta handiagoz aztertu ziren, langabeziak, jubilazioak eta pentsioen erreformak eraginda. Ildo horretan, gazteak sindikalismotik urruntzen ari zirela oharturik, beren arazoei eustea estrategikotzat jo zen sindikalismoaren jarraikortasuna bermatzeko (ELA, 1986: 72). Bide beretik, 1982an eta 1986an, lan munduaren aldaketa estrukturalak zirela-eta, sindikatuaren barnean interes gero eta handiagoa sortuz joan zen langile figura berriei eta horien lan baldintzei buruz. Izan ere, epe horretan hazkunde handia gertatu zen zerbitzuen sektorean, enpresa txiki eta ertainetan eta pixkanaka eratzen ari zen administrazio publiko autonomikoan; esparru horietan kultura sindikala errotuta ez zegoenez, horietara bideratu zen, batik bat, sindikatuaren ahalegina.

Laburbilduz, gizarte kolektibo ezberdinen lan- eta bizi-baldintzen aldeko asmoa adierazi arren, ELAk soldatapeko harremanetan sortutako arazoetan jarri zuen gehienbat arreta, eta gizonezko langileak ziren sindikatuaren helburuen *protagonista*. Estrategia integrala eta langileen bizi baldintzak hobetzearen garrantzia aipatu zituen bere diskurtsoan baina, soldata esparrura mugatu zuen *de facto* ekintza sindikala, neurri handi batean.

ONDORIOAK

Diagnostiko markoei erreparatuta, koiunturaren aldetik, Estatuko gertakari gehienak sindikatuaren itxaropenen kontra joan ziren. Hala, Langileen Estatuaren bidez Espainiako Estatuaren esparruan ezarritako lan harremanen marko juridikoaren, politika sindikalen eta politika ekonomikoen balorazio guztiz negatiboa egin zuen ELAk, eta Estatuko sindikatuei egotzi zien arazo horien erantzukizuna, parte batean. Egoera horren aurrean, autonomia prozesuak eskaintako aukerak baliatzeko apustua egin zuen ELAk, lan harremanen euskal esparrua beste modu batera instituzionalizatzeko asmoz. Hala ere, emaitzak ez ziren esperotakoak izan, EAJk EAEko administrazioaren kontrola eduki arren. Hortaz, EAEko sindikatu nagusia izanda, ELAk bazuen *botere instituzionala* eta EAJrekiko afinitatea, baina kokapen ustez pribilegiatu horren emaitzek ez zituzten sindikatuaren helburuak asebate.

Epe honetan osatu zuen diskurtsoan ELA oso kontziente agertzen da gizarteko eta lan munduko aldaketek bere jardunean eta botere estrukturalan eragindako kalteez, besteak beste sindikatuen gaitasunei ezarritako mugez. Aldaketa horiek *sindikatuaren egitura-boterea* ahuldu zutela, eta ahulezia sakontzen jarraituko zutela aurreikusi zuen ELAk. Hala ere, oraindik ez zuen testuinguru berrira egokitzeko aldaketa sakonik abiatu bere estrategian eta egituretan.

Eragozpenak antzeman arren, sindikatuaren epe honetako diskurtsoa triunfalizatzen har daiteke. Besteak beste, ELA oso harro azaldu zen bere gaitasun sindikalen garapenez. Hala, oso balorazio positiboa egiten zuen antolakuntzaz, militantziaz, lortutako afiliatu kopuruaz, hauteskunde sindikaletako emaitzez eta bere strategiaren autonomiaz.

Botere asoziatiboaz eta antolatzaileaz zuen pertzepzioa oso ona zen, beraz, eta garrantzi handia eman zien horiei. Zalantzarik ez, balorazio baikor horren atzean bazegoen autokonplazentzia puntu bat, geroago 1988ko zuzendaritzaren krisiak erakutsi zuen bezala. Bestalde, botere antolatzaile hori sektore-egituraren indarrean oinarritu zen, neurri handi batean, sindikalismo eredu klasikoarekin eta instituzionalarekin bat eginez. Ildo horretan, ELAk espero zuen ordezkari eta afiliatu kopuru handiak *botere instituzional* handiagoa ematea sindikatuari, eta helburu horretan zentratu zituen indarrak. Baina, erreforma politikoek eta sindikalek hartutako noranzkoak gero eta utopikoago bihurtu zuen aspirazio hura.

Zailagoa da garai hartako ELAren *botere moral-diskurtsiboaren* balorazio egokia egitea. Oro har, negoziazio kolektiboan langileen interesen defentsarako zeukan eraginkortasuna transmititzen zuen ELAk. Jorratutako gaiak erreparatuta, lehenengo kongresuetan sindikatuaren izaera irekia nabarmendu gura izan zuen eta, ondorioz, gizarte osoaren azterketa nahiko integral batetik abiatu zen. Baina gero, soldatapeko lan esparruan eta negoziazio kolektiboan zentratu zuen bere jardura. Esaterako, oso arreta gutxi eskaini zien soldatapeko lan eremutik kanpo burutzen diren lanei eta zapalkuntzei, eta ohiko langile estandarrak (nagusiki gizonaekoak) hartu zituen sindikatuaren erreferentetzat. Beraz, eraginkor agertu gura izan zuen tradizioz gizarte industrialean ohikoa zen esparru hertsiki sindikalean, eta gizarteko beste kolektibo eta eragile batzuetatik urruntzera eramanean zuen bide horrek.

Elkarlan botereari begira, sindikatuak oso gutxi baloratu zituen aliantza harremanak. Batetik, CCOO eta UGTrekiko jarrera oso kritikoa zeukan, eta, bestetik, sindikatu

minoritarioak, LAB adibidez, ez zituen ia aipatu ere egin bere diskurtsoan. Ildo berean, distantzia nabarmena mantendu zuen mugimendu sozialekin eta bestelako herri ekimenekin. Halaber, alderdi politikoei buruzko erabateko autonomia aldarrikatu zuen, baina EAJrekin elkarlana bilatu zuen euskal lan esparrua eratze aldera. Azkenik, diskurtsoak nazioarteko elkarlana ere jaso zuen, maila erretorikoan gehienbat, 1986ra arte ez baitzen garatu nazioarteko ekintza zehatzerako benetako proposamenik.

Iduri du, beraz, autonomiaren garrantzia edozein aliantzarako aukeraren gainera jarri zuela ELAk. Izan ere, garai honetan ez zuen ikusi elkarlan boterearen beharrik eta, interpretazioa estutuz gero, arriskutsutzat jotzen zuela ere pentsatu daiteke. Zatiketa sindikalak dakarren ahultasunaz kontziente izan zen, bai, baina, haren ustez, batasun sindikala ezin zen gauzatu autonomia sindikalik lortzen ez zen bitartean.

Botere instituzionala eta estrukturala ahulak izanda, eta elkarlanaren boterea alboratuta, bere gaitasun antolatzaile, asoziatibo eta estrategiko propioetan oinarritzen zuen indarra ELAk. Horrenbestez, ELAren botere estrategikoa, botere asoziatiboa eta antolatzailea indartzean oinarritu zen gehienbat, eta diskurtso pragmatiko eta eraginkorraren transmisioan. Bide horretatik espero zuen bere ahalmen instituzionala handitu ahal izatea.

Hala ere, antolaketari emandako garrantziak arazo batzuk ekarri zizkion, zuzendaritza-aldaketarekin nabarmendu zirenak. Izan ere, zuzendaritza aldaketarako arrazoi nagusietako bat (2015: 63) honela azaltzen zuen German Kortabarria komunikazio arduradun ohiak: «ELA bere baitan bildua zen, “bere gauzetara”, hots, arazo sindikalen perspektiba zabalagorik gabe; gainerakoan, jendartetik isolatzen saiatzen zen eta gero eta apalagoa zen kanporako proiektzioa».

Ahultasunak zuzentze aldera, hainbat estrategia mahaigaineratu zituen ELAk, nahiz eta oraindik «berrikuntza» prozesurik abian jarri ez. Horien azterketa egiteko, Fregek eta Kellyk (2004: 4) aletzen duten berrikuntza estrategien zerrenda hartu dugu irizpide moduan¹⁰³:

1. Lehenik eta behin, afiliazioari eskaini zitzaion arreta aintzat hartuta, ondorioztatu dezakegu «*organizing*» ereduak bazuela pisu nabarmena sindikatuan. Horretarako, zerbitzuen eta baliabideen eraginkortasunean eta arazoei erantzunak emateko prestasunean oinarritu zuen bere estrategia, soldatapeko langileei eskusiboki zuzentzen zitzaielarik zerbitzu horiek. Baina, ELAren helburua ez zen

¹⁰³ Estrategien azalpena izateko, 8. kapitulura jo.

soilik ahalik eta langile gehien erakartzea, ordezkagarritasuna irabazteko. Izan ere, finantzazio iturri gisa ikusten zuen afiliazioa. Ondorioz, 1976an erabaki estrategiko bat hartu zuen, hurrengo urteetako nondik norakoak baldintzatuko zituen: kuota oso altuak ezartzea. Modu horretan, sindikatuen legalizazioarekin irekitako «afiliazioen lehian» CCOOek eta UGTk baino afiliatu gutxiago batu zituen, baina bitarteko eta zerbitzu hobeak eskaini zizkien bere afiliatuei, eta ondorioz, hasierako atzerapen hura erraz berreskuratzeko gaitasuna izan zuen. Gainera, finantza-autonomia handiagoa bermatu zion horrek, eta bestelako finantzazio-iturrien (instituzionalak, negozioak...) premia murriztu. Ondorioz, sindikatuak autonomia-maila handiagoa irabazi zuen. Joxe Elorrietaren esanetan, erabaki hori berebizikoa izan zen 90eko hamarkadako berrikuntza estrategikoa abian jarri ahal izateko.

Bestalde, krisi estrukturala sakondu ahala, soldatapeko langileen sektore kolpatueneren eta prekarizatueneren arazoei erantzuteko beharra azpimarratu zuen sindikatuak, gehienbat gazteei zuzendutako neurrien proposamenen bidez. Baina, ikusten da gizonezkoen soldatapeko lanaren esparrua hartu zuela jarduera esparru nagusitzat.

2. *Kooperazio* estrategia baztertu egin zuen ELAk, bai formalki bai diskurtsiboki, alderdiekiko eta Estatuarekiko autonomiaren printzipioak bultzatuta. Bide instituzional formalak urriak izanda eta itun soziala ukatuta, EAJren politika baldintzatzeko ahalmena erabiltzen saiatu zen bere aldeko politikak lortzeko. Harremana diskurtsiboki «kooperazioaren» terminoetan planteatu ez zuen arren, eta elkarrekiko autonomia zaindu zuen arren, ELAk tradizio historikoz EAJrekin zuen afinitate hori baliatzeko ahaleginak egin zituen, EAJ eta Eusko Jaurlaritzarekiko kritikak modu eraikitzaileetan eginez.
3. *Ekintza politikoari* dagokionez, esan dezakegu diagnostiko integrala garatu gura izan zuela ELAk, eta maila politiko-instituzionaleko gertakarien inguruko diskurtsoak eta jarrerak finkatu. Politika ekonomikoaren eta Euskadiren instituzionalizazioaren inguruko irakurketei erreparatuta, nabari da ELAk gobernu autonomikoaren politiken norabidean eragin nahi izan zuela. Hala ere, testuinguru instituzionala eta hautu estrategikoak tarteko (autonomia sindikalaren aldeko eta itun sozialen kontrako apustua), presio hori eragiteko bideak mugaturik aurkitu zituen. Gizartearen irakurketa osoa egin gura bazuen ere, negoziazio

- kolektiboa hartu zuen helburuak lortzeko bitarteko gisa, eta oso zaila zen negoziazio kolektiboaren bidez bestelako gai sozialak eta politikoak jorratzea. Mobilizazio soziala izan zitekeen helburu sozialagoak eta politikoagoak lortzeko bidea, baina garrantzi txikia eman zion bide horri epealdi honetan.
4. Antolakuntzaren sendotasunak ahalmen sindikalean hartu zuen garrantzia zela medio, *egitura sindikalak kongresuz kongresu berregokitu* zituen ELAk. Hasiera batean, eredu zentralizatua jarri zuen martxan, egitura profesionala indartzera bideratua. Ondoren, egiturazko krisiak sortutako baldintzak tarteko, honako apustuak egin zituen: egitura interprofesionala indartu eta arreta egokitzeko egiturak malgutu. Hala ere, egitura interprofesionalak oraindik ez zuen garai honetan hurrengo hamarkadetan hartuko zuen zentraltasuna.
 5. Aurretik aipatu dugun moduan, *koalizioen eraketa* ez zen izan hamarkada hartan ELAk lehenetsitako hautu estrategikoa. Garrantzi handiagoa eman zion bere gaitasun propioak modu autonomoan garatzeari, eta bide horretatik bere ahalmena handitzeari. Diskurtsoaren interpretazioa estutuz gero, autonomiaren aldeko apustuarekin lotuta, beste eragileekiko (politikoak, enpresarialak, gobernuak, sindikalak, sozialak...) mesfidantza sumatu daiteke sindikatuaren adierazpenetan. Horrek ez du esan gura autonomia sindikalaren atzean mesfidantza sentimendua besterik ez zegoenik; baina, autonomia propioaren aldeko diskurtsoak jarrera hori indartzen zuela ondorioztatu dezakegu.
 6. *Nazioarteko elkartasunaren* garrantziak diskurtsiboki gero eta pisu handiagoa hartu zuen, baina zailtasun handiak izan zituen sindikatuak maila horretako proposamenak praktikara eramateko. 1986an, Espainia EEEn sartuaz batera, elkarlanerako aukerak biderkatu egin ziren, eta neurri zehatzen inguruko nazioarteko elkarlana planteatu zuen bere adierazpenetan.
 7. *Ekintza-forma gatazkatsuen* erabilpenari dagokionez, negoziazioan zentratu zuen bere ekintza ELAk. Gatazkaren aldekoa zen, baina marko legalaren barruan beti ere. Horregatik, ezarritako marko legalarekin ados ez zegoenez, negoziazio kolektiboaz gain, legedia-esparru hura aldatzeko ekintza instituzionala baliatu zuen, emaitza eskasak lortuta. Mobilizazioa aipatu arren, zentzu hertsiki sindikalean erabili zuen tresna hori, gizarteko bestelako kolektiboen parte hartzea sustatzeko asmorik gabe.

Labur esanda, 70eko eta 80ko hamarkadetan ELAren botere instituzionala mugatua zen eta haren egitura-boterea krisian zegoen. Muga horiei erantzuteko, modu autonomoan garatu nahi izan zuen bere gaitasun propioa, gizarteko bestelako eragileekin aliantzarik bilatu gabe. Ekintza sindikalerako baldintza instituzional desegokiak eta gizarte mugimenduei buruzko distantziak tarteko, instituzio autonomikoek emandako aukera apurrak eta bide sindikalak eskainitako bideak jorratu zituen bere helburuak lortzeko. Ondorioz, hasiera batean egitura sozialaren azterketa osoa egiteko eta gizartean estrategia integrala garatzeko asmoa izan zuen arren, helburuak lortzeko bide nagusia negoziazio kolektiboa zela ikusita, ELAren esku hartzea batez ere soldatapeko lan esparrura bideratu zen.

Soldatapeko lanaren krisiarekin lotutako prozesuak identifikatu zituen sindikatuak, ez ordea, merkaturik kanpoko ordaindu gabeko lanaren problematikarekin zerikusia zutenak. Horren aurrean, soldatapeko langile figura berrien auzietara egokitzeko berregituratu zuen antolaketa-eredua, baina ez emakumeen eta bestelako kolektibo sozialen premiak planteatutako erreibindikazioei doitzeko.

Jakitun zen sindikatua gizarte esparruan aldarrikapen berriak sortzen ari zirela, eta horiek kontuan hartu behar zituela, «denbora librearen» gizartea eraikitze aldera, esaterako. Horrek baieztatu egiten du gure hipotesia. Baina, analizatu dugun ELAren diskurtsoaren pronostiko markoan gabezia nabarmenak atzeman ditugu, bai sindikatuaren estrategiaren berregokitzeari dagokionez, bai aipatutako aldarrikapen berriak ekintza sindikalean txertatzeari dagokionez (emakumeen eta etorkinen lan egoerak, adibidez). Hutsune horren arrazoien artean, helburuak lortzeko negoziazio kolektiboari eskainitako lehentasuna eta sindikatuak bereganatutako eredu instituzionala daude, besteak beste, lehenetsitako ildo hori balizko esku hartze sozial sakonagoarekin kontraesanean baitago (aliantzak egiteko gizarte mugimenduekin, kolektibo sozial desberdinekin mobilizazioetan biltzeko, eta abar). Bistan denez, 1986ra arte, behintzat, bide hori jorratzeko ahalegin gutxi egin zuen ELAk.

LAB 1976-1989 EPEAN

LAB sindikatuaren kasua aztertzeko, sindikatuak epealdi honetan egindako asanblada nazionalak, kongresuak eta Batasun Nazionalak¹⁰⁴ hartu ditugu abiapuntu. Aintzat hartuta LABen II. Kongresua 1980an egin zela eta III. Kongresua 1992an, analisia kongresuetara mugatuz gero, epe tarte luzea azterketatik at uzteko arriskua ikusi dugu. Horregatik, analisia osatze aldera, Iraultzen aldizkaria eta Batasun Nazionaletarako aktak eta ponentziak ere erabili ditugu. Aipatu behar dugu, bestalde, ez dela posible izan Batasun Nazionaletako dokumentu guztiak jasotzea, baina, gehienetan, Iraultzen aldizkarietan aurkitu ditugu ebazpen nagusiak.

LAB sindikatuak 1974an ETAREN barruan hartutako erabakian du bere jatorria. Urte horretan, Langile Frontearen parte handi bat ETAtik irten egin zen, antolakunde armatuarekin zituen loturak eragindako arazoek bultzatuta. Hala, ETAtik irtendako Langile Fronteko¹⁰⁵ militanteek LAIA¹⁰⁶ erakundea sortu zuten. Ondoren, bi antolakundetan banatu zen ETA: ETAm¹⁰⁷ eta ETApM¹⁰⁸ (Bustillo, 2014: 570).

Testuinguru horretan COA¹⁰⁹ antolakundea sortu zen, ETApM-ko eta LAIAko militanteen ekimenez. Handik gutxira, izena euskaldundu eta LAB deitutako sindikatua izatera igaro zen, ETApM-k bultzatuta. Beren aldetik, LAIAko kideek LAK¹¹⁰ sortu zuten, baina urte batzuk geroago LABen integratu ziren haren kideak (Bustillo, 2014: 570-573). 1975eko uztailean, ETApM-ko militante talde batek «Tesis sobre LAB» izeneko dokumentuan antolakundearen abiapuntuko oinarriak finkatu zituen. Ondoren, 1976ko urrian LABek lehen Asanblada Nazional formala egin zuen, eta 1978an lehen Kongresua burutu.

¹⁰⁴ Batasun Nazionala zen LABeko organo gorena kongresuen arteko periodoan (LAB, 1978: 104-105). Kongresurik ezean, Batasun Nazionaletan hartzen ziren erabaki garrantzitsuenak.

¹⁰⁵ 1967tik 1974ra arte, ETA lau fronteetan antolatzen zen: politikoa, kulturala, militarra eta ekonomikoa (edo langilea) (Casanova, 2007: 83).

¹⁰⁶ Langile Abertzaleen Iraultzarako Alderdia, ezker abertzaleko barruan, izaera komunista eta libertarioa zuen antolakundea. KASen eta HBn hasiera batean parte hartu arren, gorabeherak izan zituen eta irten egin zen 1980. Urte batzuk geroago desegin zen.

¹⁰⁷ ETA militarra. ETAREN 1974ko zatiketarik sortutako antolakundea, ETApM-ren plantemendu organizatiboei kontrajarria. Gerora, ETApM desegin zenean, ETA militarrek bereganatzen ditu ETA siglak, 2018ra arte.

¹⁰⁸ ETA politiko-militarra, ETAm bezala, 1974ko zatiketarik sortutako antolakundea. 1980ko hamarkadan zehar desegiten joan zen.

¹⁰⁹ Comisiones Obreras Abertzales, LABen jatorrizko izendapena.

¹¹⁰ Langile Abertzaleen Komiteak.

DIAGNOSTIKO MARKOA

Koiunturaren diagnostiko markoa

Egoera politikoa: gatazka politikoak baldintzatutako testuingurua

1976ko Asanblada Nazionala egitean, erregimen frankista erabateko krisian zegoela eta diktadura-erregimen batetik erregimen demokratiko burgueseranzko trantsizio fasea nagoziazten ari zirela Espainiako indar faktikoak eta elite politikoak zioen LABek. Sindikatuaren ustetan, krisi hori Euskadiko masa mugimenduaren borroka eragin zuen, besteak beste (LAB, 1976b). Egoera horretan, oligarkiak sistema politikoaren irekiera bultzatu gura zuen, proiektu erreformistak integratuz, egoera politiko eta soziala egonkortzeko eta bere botereari eusteko asmoz. Erregimenaren irekierarekin batera, langileen eskaera ekonomikoak eta amnistiaren inguruan egindako mobilizazioak gogorki erreprimitzen ari ziren, Gasteizen egin zuten bezala. Bestalde, indar «errefomistek» gobernuaren eskaintzari nahikoa ez zela iritzi arren, prest zeuden gobernuaren eta oposizioaren arteko itunak sinatzeko. Hala ere, erregimen frankistarekin hausteko baldintzak bazeudela uste zuen LABek (LAB, 1976a; Iraultzen, 1978: 1). 1978an, Lehen Kongresuan, jadanik Espainiako erreforma prozesua abian zegoela, marko demokratiko-burges berriaren izaera murriztailea azpimarratu zuen sindikatuak. Izan ere, dominazioaren forma aldatu bazen ere, frankismoko oligarkia berbera zegoen azaleko aldaketa horren atzean, oraingoan indar erreformisten onespenez babestuta (LAB, 1978: 14).

1980ko 2. Kongresuan, ezker abertzaleak bultzatutako KAS izeneko plataforman sartzean, sindikatuak jarrera oldarkorra hartu zuen. Espainiako Estatuan erreforma politikoa bideratuta bazegoen ere, ETAm, KAS eta HBren inguruan antolatutako ezker abertzaleak ez zuen erregimen aldaketa hori aitortu Euskal Herriari zegokionez. Euskal Herrian auzi nazionalak eta sozialak iraun egiten zuten, erantzun egokirik gabe, ezker abertzalean kokatzen ziren indar sozio-politikoaren ustetan. Ildo horretan, ETaren eta KASen borroka berak Estatuari buruzko gatazka eta krisi politikoa gainditu gabe zeudela adierazten zuen. Ideia hori berretsi zuen Iraultzen aldizkariak ere 1981ean, «Euskal Herriaren parte haundi batek ETari eta Independentzia eta Sozialismoari onspena» ematen ziotela adierazten baitzuen (Iraultzen, 1981a: 1). Oldartze testuinguru horretan, Tejeroren Estatu kolpe saiakeraren ondorioz, ezker abertzalearen kontrako errepresioa areagotu egin zen (Iraultzen, 1981b, 1982f: 5).

1983an, PSOE alderdi sozialistak Espainiako lehen gobernu ezkertiarra osatu izanak esperantza faltsua sortu zuen langileen sektore batzuegan, LABen iritziz. Izan ere, egoera politikoa okertu egin zen (Iraultzen, 1983a, 1983b). Urte haietan, Euskal Herriko tentsio politikoa igo egin zen, GALen¹¹¹ agerpenak eta erakunde paraestatal horrek burututako gerra zikinak sustatuta (Iraultzen, 1984b). Estatuaren errepresioak gora egin ahala, ezker abertzalearen indarrak ere gora egiten zuen; esaterako, LABek eta HBk¹¹² hauteskundeetako emaitzak hobetu zituzten 1987an (Iraultzen, 1987a, 1987c: 2).

Egoera horretan, beharrezkoa zen KAS Alternatibako¹¹³ puntuetan oinarritutako negoziazio politikoa aurrera eramatea, dinamika errepresiboaren zurrumbilotik irteteko (Iraultzen, 1986d). Negoziazio politikoaren behararekin lotuta, ETAk Espainiako gobernuari egindako eskaintza babestu zuen LABek (Iraultzen, 1988d: 2). Azkenean, Argeleko elkarriketak eta su etena bertan behera geratu ziren, eta LABen aldizkariak azpimarratu zuen ENAMeko¹¹⁴ eragileek esfortzu berezia egin beharko zutela testuinguru berriari aurre egiteko (Iraultzen, 1989d).

Urte horietan Espainiako Estatua EEEn eta NATOn¹¹⁵ sartzeko ahaleginetan zebilen. Gai horiek eztabaida publikoan sartu ziren, indar handiz. Hala, nazioarteko politikari 1986an arreta handiagoa eskaini zitzaion sindikatuan. Izan ere, NATOren eta EEEn gaiak pilpilean zeuden euskal gizartean ere. Hartara, nazioarteko gatazkei eta gertakizunei buruzko artikuluak ugaritu egin ziren, eta LABen aldizkarian aldizkarian sekzio espezifikoak sortu zen (Iraultzen, 1986a, 1986b, 1989e).

Oro har, LABen koiunturazko azterketetan arreta handia eskaini zitzaient tentsio politikozko testuinguru horretan jazotako gertakariei. Izan ere, LAB sindikatua ezker

¹¹¹ Grupo Antiterrorista de Liberación, PSOEren gobernu aginduan zegoela, Ipar Euskal Herrian ETako kideen kontrako gerra zikina burutzen zuen talde parapoliziala, 1983 eta 1987 urteen bitartean (Egaña, 1996: 339-340).

¹¹² Herri Batasuna, ezker abertzaleko zenbait alderdiren arteko hauteskunde koalizioa eta, gerora, alderdia. 1978an sortu zen, eta 2002an Auzitegi Gorenak ilegalizatu zuen.

¹¹³ KAS Alternatiba negoziaketarako ETak eta KASeko antolakundeek exijitzen zuten gutxiengo neurriak ziren, helburu taktiko gisa hartzen zituztenak. Hasieran, 1976an zazpi neurri ziren, baina 1978an bost neurri ezarri zituzten: amnistia osoa, alderdi guztien legalizazioa, Espainiako indar armatuak Euskaditik botatzea, langile klasea eta klase herrikoien bizi baldintzak hobetzeko neurriak ezartzea eta Hego Euskal Herriaren Autonomia Estatutua, besteak beste, Hego Euskal Herriaren subiranotasun nazional osoa aitortzen zuena (Casanova, 2007: 197, 224).

¹¹⁴ Euskal Nazio Askapenerako Mugimendua (gazteleraz: Movimiento de Liberación Nacional Vasco), Euskal Herriaren subiranotasun osoa bilatzen duten ezker abertzaleko eragile sozial eta politikoen multzo zabalari erreferentzia egiteko adiera. Haren partetzat jotzen ziren KASeko antolakunde guztiak, LAB barne, nuklearren kontrako komiteak, amnistiaren aldeko batzordeak, HB... (Egaña, 1996: 525)

¹¹⁵ North Atlantic Treaty Organization, Ipar Atlantikoko Itunaren Erakundea (frantsesez : Organisation du Traité de l'Atlantique Nord)

abertzalearen estrategia politikoaren barnean egon izanak erabat baldintzatzen zituen sindikatuaren diskurtsoa eta jarduna. Horregatik, Iraultzen aldizkarien lehen orrialde ugari koiuntura politikoei buruzkoak izan ziren, eta gai laboral eta sindikalek, erlatiboki, toki txikiagoa hartu zuten.

Lan harremanak: aniztasun sindikala, erreformismoa eta kontzertazioa jomugan

Lan harremanei dagokienez, hasieran erreforma sindikalaren nolakotasuna ikusteke bazegoen ere, ELAk ez bezala, LABek arazotzat jo zuen erreformak eta zentral sindikalen jarrerek ekarritako pluralismoa eta zatiketa sindikala (LAB, 1976e). Izan ere, aniztasun sindikala langile mugimenduaren ahultasun faktoretzat hartu zuen. Ostera, oso begi onez ikusten zuen urte horietan ernaldutako langileen antolaketa-eredu asanblearioa eta unitarioa, langileengan piztu zuen kontzientzia eta borrokarako grinagatik (LAB, 1976d). Ildo horretan, ilusioa zabaldu zen testuinguru aurre-iraultzailean kokatzen zirela pentsaturik. Horregatik, 1976 eta 1977an oraindik eredu bateratua eta asanblearioa bultzatzeko ahaleginetan ibili zen LAB (LAB 1976c).

Baina, sindikatuen legalizazioak zatiketa sindikala areagotu zuen. Ondorioz, langile mugimenduaren eredu bateratua eta asanblearioa eratzeko itxaropenak zapuztuta gelditu ziren (Iraultzen, 1978: 1, 20). Gainera, enpresa batzordeetan sindikatu «erreformistak» (*sic.*) (UGT, CCOO eta ELA, LABen ikuspegian) atera ziren nagusi, eta beraz, LABek bilatzen zuen langile batasuna kolokan jarri zuen emaitza horrek. Bestalde, sindikatuen burokratizaziorako joera azalarazi zen lehen urte horietan egindako gogoeten arabera. (LAB, 1978: 16, 26, 32, 52).

1980ko kongresuan, berebiziko etsaitasuna azaleratu zuen sindikalismo «erreformistari» buruz, EEren¹¹⁶ aldeko sektorearekin izandako tentsioek hauspotuta (LAB, 1980a; Iraultzen, 1980d: 4). Harrezkero, posizio moderatuei buruzko aurkakotasuna sakondu zuen sindikatuak, azken horiek jarrera apurtzaileak eta iraultzaileak ahultzen zituztelakoan (Iraultzen, 1981d: 1). Negoziazio kolektiboaren esparruan, honako akatsak egin izana leporatu zizkien LABek sindikatu erreformistei: patronalari men egitea, gatazka saihestu gura izatea eta desmobilizazioa sustatzea (Iraultzen, 1981b). Haien «adostasunerako eta negoziatziorako» alternatiben porrota argudiatzen zuen LABek, langile mugimendua irtenbiderik gabeko egoerara eraman zutela esanez, ezertxo ere lortu gabe trukean (Iraultzen, 1982f: 6, 1983a; LAB, 1988b: 4, 31).

¹¹⁶ Euskadiko Ezkerra.

Arestian esanenez, 1985ean, LOLSek ordezkagarritasun sindikalaren eredu zentralista inposatu zuen. Horrek ELA eta LAB kaltetu zituen, eta, aldiz, UGT eta CCOO saritu (Iraultzen, 1985b). Bestalde, eta honetan ere ELAren kontraktasuna erabatekoa zen, LOLSak sail sindikalei emandako gehiegizko eskumenak kritikatu zituen LABek (Iraultzen, 1985b), aldaketa horrek langile mugimenduaren zatiketa hauspotzen zuela iritzita.

Hala ere, 1988 urterako egoera sindikala aldatuz zihoan. Alde batetik, ELAren eta LABen delegatuen kopuruek gora egin zuten, eta CCOOenak eta UGTrenak, berriz, behera (Iraultzen, 1987a). Beste aldetik, PSOEn eta UGTren arteko lotura historikoa eten egin zen, alderdi sozialistak Estatuan bultzatutako politikak tarteko. LABen esanetan, PSOEn politikek noraeza egoeran kokatu zituzten sindikatu horiek, kontzertazioaren porrotgatik. Era berean, haustura hark CCOOen eta UGTren arteko ekintza batasuna ahalbidetu zuen, baina borrokara jotzeko benetako proiektio barik (LAB, 1988b). Aldaketa horiek guztiek mobilizazioa sustatzeko balio izan bazuten ere, susmagarria egiten zitzaizkion LABi, sindikatu horiek aurretik langileen kontrako neurriak onartu izan zituztelako (Iraultzen, 1990a: 2).

Horrez gain, ELAren kontrako kritikak ere baziren LABen. Besteak beste, jarrera «amarillistak» bultzatu izanaz gain, langileen «apolitizazioa» sustatu izana ere leporatu zion LABek ELAri (LAB, 1988b: 31). Oro har, LABen arazo nagusia ELAk, CCOOk eta UGT-k bultzatutako eredu erreformista, adostasunezkoa eta negoziatzailea zen. Eta LAB eredu horretatik bereizten ahalegindu zen bere diskurtsoan eta jardueran.

Ohiko sindikalismotik aldentuz, 1982an, sindikatuak arreta berezia jarri zuen langabetuen autoantolaketa formetan, sindikatu «erreformistek» gutxietsirik zituzten horietan, hain zuzen ere (Iraultzen, 1982a: 8). Bestalde, hamarkada hartan, LABen interesa piztu zuen beste fenomeno batek ere: kooperatibismoaren eta Langileen Sozietate Anonimoen¹¹⁷ hazkundeak (LAB, 1985c). Kooperatibismoari arreta handiagoa eskaini nahi zion LABek. Bistanenez, horretan ere sindikalismo eredu berritzailea bultzatu nahi zuen.

Egoera ekonomikoa: krisiaren aurrean, borroka

Krisi ekonomiaren karira, LABek bi arazo nagusi identifikatu zituen, langabezia eta inflazioa, hain zuzen ere. Sindikatuak egindako diagnostikoan, testuinguru hartan

¹¹⁷ Gaztelera, «*Sociedad Anónima Laboral*».

Espainiako gobernuaren, patronalaren eta sindikatu nagusien artean adostutako Moncloako Itunek soldaten izoztea bultzatu zuten, monopolioen interesetan eta langileen kaltetan (LAB, 1978: 82, 84). Erreforma horiek eta neurri ekonomikoek egoera egonkortzea eta burgesiaren irabazi tasa berriro igotzea ahalbidetu zuten, baina erroko arazoak konpondu barik. Izan ere, Euskadin krisi ekonomikoak txarrera egiten jarraitzen zuen langileentzat (Iraultzen, 1980d: 4).

Ildo horretan, desberdintasunak daude krisiaren arrazoiak azaltzeko unean LABen eta ELAren artean. Azken honek patronala eta gobernuak interpelatu zituen; LABek, ordea, klase gatazkaren errealitate estrukturala azpimarratzen zuen neurri handiagoan, eta «burgesia» eta «oligarkia» moduko kontzeptuak aipatzen zituen bere diagnostikoan. Hala, horiekiko etsaitasun estrukturalagoa azaleratzen zuen LABek, eta «Euskal Langile Herria» espainiar oligarkiaren aurka irudikatzen zuen, ikuspegi sozialari ikuspegi nazionala ere gehiturik. Gainera, etsaitasun hori esparru guztietara zabaldu zuen LABek.

1982an langabeziak gora egin zuten, batez ere gazteen artean; gorakada horrek kalte egiten zion langile mugimenduari, LABen irakurketan. Alde batetik, langabezia langile klaseak jasan zezakeenaren limitera heldua zen, sistema soziala kolokan jarri barik. Bestetik, langabezia xantaiarako tresna zen, sinestarazi nahi baitzitzaion langileriarri hura murrizteko modu bakarra soldaten erosahalmena eta lan gatazkak apaltzea zela (Iraultzen, 1982a, 1982f: 11).

Horren aurrean, negoziazioa lehenesten zuten sindikatu gehienek. LABen ikuspegitik, ordea, jarrera horrek langileen desmobilizazioa sustatzen zuen. Izan ere, irtenbide adostua bilatu asmoz, krisitik irteteko kostuak gizarte osoaren gain jarri nahi zituzten agintariak (Iraultzen, 1982a). Ondorioz, negatibotzat jotzen ziren negoziazioaren bidez eskuratutako lorpen ia guztiak, langileen mobilizazio maila jaistearen eragin zutelako (Iraultzen, 1983b). Hausturaren aldeko ildo beretik, LABek uste zuten PSOEren gobernuak lau mekanismo baliatzen zituela irabazi tasa igotzeko: langabezia, lan merkatua malgutzea (soldata malguak eta behin-behineko kontratazioak), ezkutuko ekonomia bultzatzea eta langileen bizi baldintzak okertzea (LAB, 1988b: 11). Horietan denetan laguntzen zuten sindikatu nagusien kontzertazio estrategiak.

Euskal Herriko industriaren birmoldaketa prozesuak aurrera egin ahala, LABek jarrera apurtzaileari eutsi zion (Iraultzen, 1984a: 2, 5; 1987b). Modu horretara, ezker abertzalearen jarrera oldarkorra ekonomiara eta lan esparrura hedatu zuten sindikatu

abertzaleak. Izan ere, Espainiako Estatu eraberrituaren egiturak jadanik finkatuta zaudela, krisi ekonomikoa zen desestabilizazio politikorako faktore nagusienetakoa. Bestalde, LABen ustetan, Espainia EEEn sartu izanak ez zituen espektatibak hobetu, Estatuaren eta Hego Euskal Herriaren dependentzia maila areagotzen zuelako, eta beraz, epe luzera arazo handiagoak ekarriko zituelako langileen interesei begira (Iraultzen, 1986c; 1990a: 2).

1988an Estatuaren errekuperazio fasean sartu zen arren, Hego Euskal Herriko datuek ez zuten hobekuntza handirik adierazten, langabezia Estatuan zegoenaren bikoitza baitzen. Gainera, birmoldaketa industrialaren bigarren fase bat zetorren, Europako Akta Bakarrak¹¹⁸ hala behartuta (LAB, 1988b: 12, 20).

Eraketa instituzionala: Autonomia-Estatutuaren baliogabetasuna

1976an LABeko kideek uste zuten autogobernu eskariak onartezinak izango zirela Espainiako gobernuaren partetik (LAB, 1976a). Bestalde, hausturaren aldeko jarrera nagusitzat jotzen zuen LABek euskal gizartean, eta autogobernuaren aldeko zenbat kontzesio eginda ere, amore emate horrek Estatuari kontraesan handiak sortuko zizkiola aurreikusten zuen (LAB, 1976b). 1978an ez zen autonomia-prozesuaren ezta autogobernurako bideen inguruko ezertxo ere aipatu sindikatuaren dokumentuetan. Kontuan izan behar dugu ezker abertzalea zatiketa prozesuan zegoela une horretan, eta zatiketa horrek bete-betean eragin zuela LABen barruan, bi korronte bereizi baitziren: KASen aldekoa, batetik, eta EEren aldekoa, bestetik (Iraultzen, 1999a: II-III)¹¹⁹. Ondorioz, gaia albo batera uzteko hautua egin zuten, seguruenik, sor zezakeen tirabira saihesteko, eta tentsio maila baretzeko (Idigoras, 2000: 311).

LABen eta ELAren arteko desberdintasunak areagotuz joan ziren 1980ko hamarkadan. 1980an, EEren aldeko korrontea LABetik atera ondoren eta jadanik Autonomi Estatutua abian zela, haren eskumen falta, Estatuaren markoari buruzko azpiratzea eta egoera berriak ekarritako Nafarroaren eta EAEn arteko zatiketa kritikatu zituen LABek, ELAk egin bezala. Hala ere, LABek ez zuen Autonomia-Estatutua autogobernua eratzeko abiapuntu baliagarritzat jo; ELAk, aldiz, hala ulertu zuen (Iraultzen, 1980d). Dena dela, 1987an, jarrera posibilistagoa azaldu zuen LABek, autonomia prozesutik sortutako LHK

¹¹⁸ EEEn herrialdeen artean merkatu bakarra ezartzen zuen akta, haien arteko mugarik gabe.

¹¹⁹ Zatiketa honek ETApM eta ETAm-ren arteko estrategien zatiketaren logikari jarraitzen zion. Izan ere, EEko sektoreak ETApM-rekin egiten zuen bat, eta KAS sektoreak ETAm-ri. Autonomia-Estatutuaren inguruko jarrerari zegokionez, ETApM-k eta EEk Autonomia-Estatutua baliagarritzat jo eta hura babestu egin zuten, ETAm-k, HBk eta KAS plataforman geratutako antolakundeak ez bezala.

eta EGAB erakundeetan parte hartzeko aukera mahaigaineratu zuenean (Iraultzen, 1988c: 4).

Egituraren diagnostiko markoa: aukeraz eta mehatxuz beteriko antagonismoa

Aurretik aipatu dugunez, auzi soziala eta nazionala bateratzeko hautua egin zuen LABek hasieratik. Hala, azterketa estrukturala egiteko unean ere, euskal langileriak pairatutako esplotazioan oinarritzen zen klase eta nazio zapalkuntzaren garrantzia azpimarratu zituen LABek. Antolaketarako eredu sindikalari zegokionez, hasieran CCOOen antolakuntzaren nahiko antzekoa zen LABena, baina nazio zapalkuntzaren inguruko irakurketak bereizten zituen bi sindikatuak, argi eta garbi (LAB, 1975: 371). Ildo horretan, «Euskadi» klase borrokarako marko nazional autonomoa zen LABentzat (LAB, 1976d), eta estrategia independentista onuragarria zitzaion langile klaseari, erregimena egonkortzea oztopatzen zuelako (Iraultzen, 1984a: 5). Hitz batean, LABen ikuspegian, nazioaren auzia funtsekoa zen langile mugimenduaren testuinguru politikoa ulertzeko

Horiek horrela, Espainiako oligarkia zen euskal langileen zapalkuntza ekonomikoaren nahiz politikoaren erantzule gorena, botere ekonomikoaz gain, dominazio politikoa ere berak gauzatzen zuelako. Bera zen klase eta nazio zapalkuntzen existentziaren erantzulea eta, beraz, askapen sozialerako eta nazionalerako etsai politiko handiena, frankismoan zein demokrazia burgesean agintzen zuena (LAB, 1976a; Iraultzen, 1978a). Hartara, gobernuari bigarren mailako erantzukizuna egozten zion LABek, oligarkiaren menpeko «txontxongilo»tzat hartzen baitzuen (Iraultzen, 1986d).

Egiturazko antagonismo horretan justifikatzen zen KAS plataformaren haustura demokratikoaren aldeko jarrera ere (Iraultzen, 1981a: 1). Halaber, antagonismo horren adierazpen legez azaltzen ziren euskal gizartean garai hartan zeuden bestelako auziak, hala nola, euskararen egoera (Iraultzen, 1978, 1989h: 2), Lemoizko zentral nuklearrak sortutako kontrakotasuna (Iraultzen, 1981d), egitura produktiboaren egoera (Iraultzen, 1980d; LAB, 1978: 82, 1980d: 8), ingurumenaren arazoa (Iraultzen, 1989b: 2) eta abar.

Jarrera horren erakusgarri gisa, euskal langile mugimenduaren egoeraren inguruko eztabaida interesgarria sortu zen 1980ko biltzarrean KAS eta EE korronteen artean. Lehenengoaren iritzitan, euskal langileriak borrokazalea eta erradikala izaten jarraitzen zuten, eta, horregatik hausturaren aldeko apustuari eutsi behar zion sindikatuak. Ostera, EE korrontearen arabera, euskal langileriak pentsamolde kontserbadorea bereganetu

zuen, EAJren ideologia baitzen nagusi (LAB, 1980c: 3). Horrenbestez, bigarren korrante honek uste zuen euskal gizartearen nagusitasun kontserbadoreak eta EAJren hegemonia ideologikoak bideraezina egiten zuela hausturaren aldeko apustua (Majuelo, 2000: 89). Zalantzarik ez, bi ikuspegi horiek bateraezinak ziren sindikatuaren estrategia politikoa eratzeko unean.

Bestalde, zenbait aldaketa sumatzen ziren 1980ko euskal gizartean. Esaterako, Estatuaren interbentzioen kontrako jarrera neoliberalen hedapena, langile klasearen bilakaera eta, horiekin batera, hainbat gizarte kolektiboren (emakume feministen, gazteen, mugimendu antinuklearren...) aldarrikapenen eta gatazken presentzia gero eta handiagoa langile mugimenduaren barruan. Aldaketa horiek sindikatuaren izaera «soziopolitikoaren» beharra justifikatu zuten (Iraultzen, 1980d). Horrela, sindikatuak egindako gogoeten arabera, egiturazko aldaketa horiek esparru laboral, ekonomiko, sozial eta politikoen arteko mugak gainditu beharra inplikatzeko zuten; LABen jarduerak, beraz, ezin zen betiko esparru laboralera mugatu. Oso goiz izan arren, jadanik 80ko hamarkadan sindikatuan hasitako hausnarketa horrek bat egiten du bete-betean gure hipotesiarekin, alegia, lan munduko aldaketa estrukturalak, arian-arian, sindikalismoaren izaera soziala (edo «soziopolitiko») areagotzea ekarri dutela dioen hipotesiarekin.

Arestian ELAren diagnostikoan aipatu dugun ildo beretik, 1988an LABek ere detektatu zuen krisi ekonomikoak euskal gizartean eragindako aldaketa estrukturalak eragin zehatzak izan zituztela Euskal Herriko egitura ekonomikoan. Izan ere, lehen sektorearen eta industria sektorearen pisua galduaz batera, hazi egin zen zerbitzu sektorea. Bestalde, krisiaren ondorioz, gora egin zuten langabetuen eta pentsiodunen kopuruek ere (LAB, 1988a: 4). Horiek horrela, aipatu aldaketek langile klasean eta langileen mugimenduan izandako eraginen inguruko kezka azaldu zuen sindikatuak, baita azterketa sakonagoak egiteko beharra ere (LAB, 1988b: 3).

1980ko hamarkadaren amaieran Euskal Herriko ekonomia errekupeazio fasean bazegoen ere, ez zen lehengo oparotasunera bueltatzen, kapitalaren errentagarritasunak baxua izaten jarraitzen baitzuen. Ondorioz, kapitala espekulaziora bideratzen ari zen, ez lanpostu berririk ezta ondasunik ere sortu barik. Horrez gain, EEEEn sartzeak, herrien subiranotasun nazionala kaltetu zuen neurrian, egiturazko arazoak areagotzea eta betiketzea ekarri zuen (LAB, 1988b: 11-13). Halaber, LABek «inperialismoa» zeritzon kapitalismoaren fase hartan, munduko finantza oligarkiak eta multinazionalak beren

boterea finkatu eta langile klasearen kontrako erasoaldia gogortu zuten (LAB, 1988b: 5-6).

Egitura krisiak, lan- eta bizi-baldintzak kaltetzeaz gain, langile kontzientzian ere eragin zuen. Sozialdemokraziak, oligarkiak eta patronalak, masa hedabideen «pozoitze» ideologikoaren eta sindikatu erreformisten «suhiltzaile» lanaren laguntzaz, langileen borrokazaletasuna eta batasuna zapuztea lortu zuten. Baina, irakurketa hori ez zen nahikoa langile mugimenduaren ahultasuna ulertzeko, LABen ustetan. Horrez gain, «giza baliabideen» kudeaketarako estrategia berriek ere (soldata eskalak ugaritzea, malgutzea, behin-behinekotasuna, partzialtasuna eta azpikontratazioa ezartzea...) sindikatuen gainbehera ekarri zuten (Iraultzen, 1991b: 7). Kaleratze mehatxuen aurrean, etsipen sentimendua orokortu zen, langileen antolakuntza eta mobilizazioa kalteturik, eta jarrera indibidualista insolidario eta erreazionarioak ugaritu ziren (LAB, 1988b: 23-25). Horregatik, sindikatuaren iritziz, lanaren krisiarekin lotutako prozesuek ez zuten ekarri langileak antolatzea eta beren «ahotsa altxatzea», men egitea baizik, Hirshmanen (1970) teoriarekin lotuz. Ordura arte, langile mugimenduaren ahultasuna borroka ideologikoaren galeraren ondorio izan zen, erreformismoaren hautu estrategikoak lagunduta, eta kanpo faktore estrukturalak kontuan hartu gabe. Baina 1988an, faktore horiei arreta handiagoa eskaini zitzaien langile mugimenduaren egoera aztertzean.

Testuinguru horretan, ENAMek langileen desmobilizazio joeraren kontra egin zuen, gai izan baitzen mezu politiko-sindikal iraultzailea elikatzeko, eta erreformismoaren nagusitasuna kolokan jartzeko. Bestela adierazita, langileen tresna politizatzailea bihurtu zen ENAM (LAB, 1988b: 23), eta gizartea antolatzea eta langileek «ahotsa altxatzea» (hau da, borrokatzea) erraztu zuen.

Bestelako zapalkuntza eta auzietara jauzi eginda, emakumeen zapalkuntzaren gaiari atal oso bat dedikatu zitzaion 1978ko kongresuan. Horren azterketa egiteko, kapitalismoaren bilakaerak sortutako markoaren barruan aztertu zen emakumeen zapalkuntzaren izaera bikoitza: batetik, familiako langile moduan (ama edota emazte izateagatik); eta, bestetik, soldatapeko langile moduan (LAB, 1978: 86, 88-90, 92)¹²⁰. Haatik, 1980ko hamarkadan zenbait emakume lan merkatuan sartu baziren ere, krisiarekin batera lanpostuetatik kaleratuak izan ziren asko, eta ordaindu gabeko etxeko lanetara edo ezkutuko ekonomiara

¹²⁰ Emakumeen lanaren bidezko esplotazioari eta zapalkuntzari buruzko azterketa luzea egin zuten, bi lan-forma horien bereizketan oinarrituz. Oro har, azterketa bat dator lehen kapituluaren azaldu dugunarekin.

jo behar izan zuten (Iraultzen, 1989b: 8). Aurrerago ere, emakumeen «lan egiteko» eskubidearen inguruan aritu ziren (Iraultzen, 1990b: 2).

Norberaren jardueraren balorazioa: abiatze zaila baina garapen hazkorra

Antolakunde sortuberri batek hasieran bizi ohi duen ziurgabetasun handia nabari zen LABen hastapenetako adierazpenetan, baita neurri bateko noraeza ere estrategiari zegokionean. ETaren Langile Fronteak masa mugimenduan jarduteko zailtasunengatik sortu zen LAB (Taldeak, 1975: 365), baina kostatu egin zitzaion norabide argi batean ekitea. LABek berak aitortu zuen hasiera bateko noraeza hori:

«Memento horretan ez da egon argitasun haundiegirik ideia eta estrategia aldetik. Badago arrazoirik: esperientzia falta, zapalkuntza egoeratik irten berriak, Gobernuak eskainitako sindikal plangintza bikoitza. Gainera oraindik ez da argi ikusten beste langile erakundeen jarrera ez sozial ez nazio arazoan» (Iraultzen, 1977: 2).

Noraeza horren adierazle izan ziren langile antolaketa unitario eta asanblearioa bultzatzeko egin beharrekoaren inguruko eztabaidak eta zalantzak, antolakuntza egitura eta ekintza plana oraindik finkatu gabe zeudenean. Planteamendu horien inguruko eztabaidak utopikotzat jo zituen LABek bi urte geroago (LAB, 1978: 8). Hala ere, lehenengo hauteskunde sindikaletan ia enpresa handi guztietan erdietsi zen LABen presentzia, eta etorkizunari begira aukera onak atzeman zituen sindikatuak, nahiz eta sindikatu erreformistak gailendu (LAB, 1978: 14). Ildo horretan, kontuan hartu behar da hauteskunde sindikaletako emaitzak eta afiliazioa ez zetozeela bat HBren eta EEren hauteskunde politikoetako emaitzekin. Izan ere, ezker abertzaleak bazuen oinarri sozial bat lanaren munduan LABera jotzen ez zuena.

Arestian esan bezala, 1980an tentsio handia sortu zen EEren eta KASen aldeko korronteen arteko talkagatik (LAB, 1980a, 1980b). Iduri du 1979an egin zuela publiko EIAK¹²¹ LAB desegin eta ELAn sartzen asmoa zuela (LAB, 1980f). Horrek LABeko bi korronteen arteko harremanak gaiztotu zituen. Azkenean, EEko korrontearen parte handi batek bere kongresu propioa egin zuen, eta ELAn integratu zen (Iraultzen, 1980d; 1999a: III; Idigoras, 2000: 312-313). Ondorioz, LAB egoera ahulean geratu zen, ordura arte ez baitzuen lortu bere antolaketa finkatzea (LAB, 1980c; Iraultzen, 1980f).

Zailtasunak zailtasun, egiturak eta ibilbidea guztiz finkatu barik izan arren, harrotasun puntu bat antzematen da sindikatuaren garai horretako adierazpenetan eskuinaren eta

¹²¹ Euskal Iraultzarako Alderdia, ETApren VII. Asanbladaz geroztik sortua, 1976an. EE hauteskunde koalizioaren bultzatzaileetako bat izan zen (Egaña, 1996: 228-229).

«erreformisten» jomugan egoteagatik. Izan ere, LABek izaera nazionalari, klasekoari eta iraultzaileari eutsi zien, eta horrek, sindikatu «erreformisten» posizioa ahultzearekin batera, euskal langileriaren erreferentziazko gune bihurtzeko aukerak eman zizkion (Iraultzen, 1980d: 2). LABen une hartako barne egoera tirabiratsua izan arren, perspektiba baikorra zuen hazteko eta erreferentzialtasuna irabazteko aukerei begira. Urtebete geroago, Idazkaritza Nazionalak ideia bera baieztatu zuen:

La situación del movimiento obrero, la crisis política y económica y la invalidez del sindicalismo clásico para hacer avanzar el proceso de liberación nacional y social de Euskal Herria posibilitan que LAB llegue a ser un auténtico polo de referencia de los trabajadores, lo cual depende exclusivamente del grado de trabajo y entrega revolucionaria que en el futuro desarrollemos los militantes del Sindicato. (Iraultzen, 1981e)

Krisi ekonomikoa sakondu ahala, LABek uste zuen indartuta aterako zirela konfrontaziozko jarrera erradikalak, adostasun eta kontzertazio estrategiaren eraginkortasun ezak lagunduta (Iraultzen, 1983a). Hala, 1986an errepresioa igo egin zen arren, LAB hazi eta indartu egin zen. Hori zela eta, harrotasun sentimendua zabaldu eta adierazi zen haren diskurtsoan, maiatzaren lehen pertsona kopuru handiena eta «borrokalariena» mobilizatzea lortu izanagatik, esaterako (Iraultzen, 1986a).

Hari beretik, LABek gainerako sindikatuak baino indar gutxiago zuen ohiko esparru sindikalean, delegatu eta afiliatu kopuruari erreparatuta. Hala ere, mobilizatzeke gaitasun handia zuen, konfrontaziorako hautuak eta ENAMen parte izateak lagunduta. Horrez gain, afiliazio eta delegatu kopuruen gorakada zela eta, ahalmen handiagoa lortzeko aurreikuspena zuen. Izan ere, 1986an delegatu kopurua %100ean haztea lortu zuen, batez ere 50 langile baino gehiagoko lantokietan (Iraultzen, 1987a). Gainerako sindikatu «ezkertiarak» oso indar gutxi zuten ordurako.

Labur esanda, LABek hasiera malkartsua izan bazuen ere, 80ko hamarkadaren amaieran hazkunde betean zegoen, eta alternatiba sindikal nagusi bilakatu zen sindikalismo «erreformistaren» aurrean. Ildo horretan, bi ezaugarri baloratu zituen bereziki haren militantziak: lehenengoa, konfrontazio politika eta, bigarrena, ikuspegi soziopolitiko integrala. Bi ezaugarri horiek lotura zuzena zuten KASen plataformako parte izatearekin.

Diagnostiko markoen ondorioak

Zalantza barik, LABen diagnostiko markoetan eragin handia izan zuten ezker abertzalearen eta KASen borroka eta estrategia politikoek. Horien ondorioz, sindikatuak izaera soziopolitiko hartu zuen hasieratik, eta interes handia agertu zuen gai sozialen

nahiz politikoen aurrean; bide horretan, gai hertsiki laboralak edo sindikalak baztertu zituen behin baino gehiagotan. Bestalde, ez da harritzekoa esparru sindikala alde batera uzteko joera hori, garai horretan negoziazio kolektiboan zuen pisu txikia aintzat hartuta. Izan ere, ahulezia horrek bere jarduna egoera soziopolitikora bideratzera bultzatzen zuen. Hausturaren aldeko apustuak bultzatuta, egiturazko markoetan sindikatuak egindako egoeraren irakurketa antagonikoa islatu zen esparru politikoan, sindikalean, ekonomikoan, sozialean eta nazioartekoan. Haren ustez, klase zapaltzailearen «pozoitze» ideologikoak eta erreformismo nagusiaren kolaborazioak eragin zuten langile mugimenduaren ahultasuna, ez hainbeste lan munduko eta gizarteko aldaketa estrukturalak eta lanaren krisiarekin lotutako prozesuek, hasiera batean behinik behin. Irakurketa sakonago hori 1988an etorri zen.

Bestalde, lehenago esan dugun bezala, noraeza eta abian hasteko zailtasunak antzematen dira bere sorrerako lehen urteetan, 1970eko hamarkadako egoera soziopolitiko nahasiaren testuinguruan. Une sozial konplexuaz gain, EEren eta KASen korronteen arteko talkek egituren egonkortzea zaildu zuten hastapenetan. Hala ere, potentzialtasun handia erakutsi zuen LABek, hasierako gaitasun mobilizataileak eta geroagoko afiliazioaren eta delegatuen kopuruen gorakadek adierazi zuten legez. LABek ez zuen oraindik bere onena eman.

PRONOSTIKO MARKOA (ESTRATEGIKOA)

Printzipio eta helburu ideologikoak

Klase- eta nazio-zapalkuntzen existentzia bere baitan biltzen zuen heinean, klasekoa («*de clase*»), sozialista eta abertzale moduan definitu zuen ideologikoki bere burua. Abian jarri nahi zuen eredia CCOOen antolakuntza eratik nahiko hurbil egonda ere, bere izaera abertzaleak bereizi zuen espainiar esparruko sindikatutik, nazio auzia bere gian hartzen zuelako (Taldeak, 1975: 368-369).

Geroago garatutako printzipio ideologikoen artean, klase eta nazio sindikatua izateaz gain, iraultzaile izaerak ere ezaugarritu zuen gehienbat sindikatua (Iraultzen, 1977: 2), baita asanblearismoak ere, sindikatu «asanbleario» gisa aurkeztu baitzuen bere burua (LAB, 1978: 34). Oinarrizko definizio horri jarraikiz, klaserik gabeko gizartea lortzeko helburua finkatu zuen bere lehenengo asanbladan eta kongresuan; horretarako, soldatapeko lana eta ekoizpen bitartekoan jabetza pribatua deuseztatu eta Euskadi libre, bateratu eta klaserik gabekoa lortu beharra zegoen, haren hitzetan (Iraultzen, 1977: 4,

1978: 34; LAB, 1978: 50, 100-102). Hortaz, soldatapeko lana suntsitu beharra zegoen epe luzera, nahiz eta esku hartze programetan lanpostuak defendatzeko proposamenak aurkeztu zituen. Azkenik, EEko korrontea irten eta gero, era esplizituan aipatu ziren sindikatuaren dokumentuetan «independentzia eta sozialismoaren» helburuak (Iraultzen, 1980f).

Hasieran, LABek garrantzi handia eman zion langile asanblada bateratuen ahalmen iraultzaileari. Hala ere, eredu sindikal plurala finkatu ondorengo garaian, zentzua galdu zuen ikuspegi horrek. Gainera, 1980ko hamarkadan zehar langileek birmoldaketa planak onartzen zituztela ikusita, pixkanaka asanbladetik jarraera ezkorra sustraitu zen sindikatuan (Letamendia, 1994: 14). Beraz, une horretatik aurrera LAB negoziazioak bere gain hartzen hasi zen.

Adierazi bezala, LABen ereduaren funtsezko ezaugarria zen haren izaera soziopolitikoak, sindikalismoaren eredu «klasikoaren» (sindikatu alderdi baten transmisio tresnazat hartuta) eta «anarkosindikalismoaren» arteko sintesi moduan. Ezaugarri berezi horrek haxe esan nahi zuen: langileek beren lan eremutik abiatu behar zutelako jarduerak eta ikuspegi politikoa, aldarrikapen ekonomikoak arazo politikoekin loturik, era integral batean (LAB, 1976b). Hartara, LABentzat garrantzitsua izan zen, hasiera-hasieratik, helburu ekonomistetara ez mugatzea, eta bestelako gai sozialetan eta politikoetan ere parte hartzea, nazioaren auzian egin zuen bezala, esaterako. Asmo horrek gaur egunera arte iraun du sindikatuan.

Aldarrikapen eta esku hartze eremuak

Hastapenetan, bi funtzio egotzi zitzaizkion sindikatuari: batetik, langileen berehalako interesen alde mobilizatzea (soldata duinak, lan- eta bizi-baldintza hobek...) eta, bestetik, langileak hezte eta kontzientziaztea beren askapen integralerako prestatzeko. Era berean, haren izaera soziopolitikoarekin bat eginda, langileen eskaerak era zabalean hartu behar zituen kontuan sindikatuak, lantokiko esparrura mugatu barik (LAB, 1976d). 80ko hamarkada osoan eutsi zitzaizen premisa horiei LABen.

Espainiako Estatuko erreforma politikoa gauzatzen ari zen urteetan, LABek bere ikuspegi soziopolitikoak azpimarratu zuen, eratzen ari zen sisteman integratua izan ez zedin bermatzeko; hartara, eremu sindikalaren eta politikoaren arteko banaketa ukatu zuen (LAB, 1976d). Baina, aldi berean, ikuspegi soziopolitikoak lantzeaz ari zenez, argi zeukan ikuspegi politikoa hori enpresa eremutik abiatuta garatu behar zuela, eta lan mundua bera

baldintzatzen zuten gai politikoekin lotu, horrela esku hartze integrala erdietsi ahal izateko (LAB, 1976b).

Soldatapeko lan eremua: arlo politikoak zeharkatuta

Erreforma politikoaren garaian, soldatapeko lan harremanen nolakotasuna eremu politikoak baldintzatu zuen; horregatik zuen lehentasuna esparru horrek, LABen ustetan. Hala ere, 1978an, soldatapeko lan baldintzen inguruko zenbait aldarrikapen egin zituen sindikatuak, nahiko orokorrak: soldata baxuak igotzea, lanaldia murriztea, osasuna eta segurtasuna hobetzeko neurriak hartzea, baita lanpostuaren egonkortasuna mantentzeko eta kaleratzeak galarazteko ere neurriak abian jartzea. Aldarrikapen horietan, LAB ez zen beste sindikatuetatik asko ezberdindu (LAB, 1978: 50-72). Erreformaren puntu gehienak finkatuta zeudela eta krisi ekonomikoaren ondorioak areagotuta, soldaten erosahalmena mantentzea eta lanpostuen defentsa izan ziren esku hartze sindikalaren helburu nagusi, sindikatu gehienetan bezala (Iraultzen, 1980d: 5). Gero, krisia larritu ahala, langabeziak irabazi zuen lehentasuna. Hori kenduta, erreibindikazioak ez ziren asko aldatu (LAB, 1988b: 33). Hala ere, 1991ean, lan harremanak malgutzearen kontrako neurriak xehetasun handiagoz mahaigaineratu zituen LABek negoziazio kolektiboari begira (Iraultzen, 1991b: 7).

1980ko kongresuan, jadanik onartuta zeuden Gernikako Estatutua eta Langileen Estatutua. Jakina, Autonomia-Estatutuak esparru politikoan LABen helburuak ase ez zituen bezala, lan harremanei buruzko araudi berriak ere ez zituen sindikatuaren nahiak bete. Orduantxe azaleratu zen, lehen aldiz, lan harremanetarako marko autonomoaren aldarria LABen, Euskadiko esparruan lan harremanen marko propioa modu progresiboan eratzeko helburua zuena (Iraultzen, 1980d: 7).

Eremu soziopolitikoak: LABen ereduaren bereizgarria

Lehenago adierazi denaren ildotik, LABentzat berebizikoa izan zen langileen lantokiko interesak arazo politikoekin lotzea, eta hori indar handiz aldarrikatu zuen Estatuaren erreformak oraindik finkatu gabe zeuden urteetan. Izan ere, ezinezkoa zen langileen arazo koiunturalak konpontzea Euskal Herriko auzi politikoei irtenbidea eman barik (LAB, 1976b, 1988a: 6; Iraultzen, 1986c). Esaterako, krisi ekonomiaren testuinguruan, lanpostuen sorrera Estatuaren esku zegoela nabarmendu zuen. Horregatik defendatzen zuen enpresen estatalizazioa, eta ETEak bultzatzeko neurri ekonomikoen ezarpena. Horretarako, beharrezkoa zen autonomia estatutu nazional eta progresista bat lortzea, planifikazio ekonomikorako eskumen osoak zituena (LAB, 1978: 84).

Hurrengo urteetan, berriz, 1980ko kongresuko ezohiko saioan, adibidez, haustura demokratikoaren aldeko jarrera argiagoa bereganatu zuen LABek, KAS Alternatibarekin bat eginez, (Iraultzen, 1980f). Izan ere, ordura arte LABen integratuta zegoen EEren aldeko korranteak erreformari buruzko ikuspegi posibilistagoa zuen. KASen sartzean, ordea, LABen izaera politikoa indartuta atera zen. Hala, ezker abertzalearen helburuei lotuta egotean, LABen borrokek izaera globala hartu zuten (Iraultzen, 1984a: 8).

Haustura demokratikoak subiranotasun maila sakona ahalbidetu behar zuen, eta lan harremanen marko propioa izateaz gain, arazo sozioekonomikoei aurre egiteko eskumen sozial, ekonomiko eta fiskal zabalagoak lortzea zuen xede (Iraultzen, 1980d), baita Nafarroaren eta EAEn batasuna ere eraikitzea (Iraultzen, 1982a: 1). Krisiaren aurrean, KAS Alternatibak langileen garaiko beharrianetara egokitutako ekonomia-eredu planifikatua eratzeko aukera eskaintzen zuen, LABen ustetan (LAB, 1988b: 21). Bitartean, LABek, bere aldetik, krisia arlo guztietan areagotzearen alde ekin behar zuen, sistemaren kontraesanak argitara ateratzeko eta irtenbide sozialista lortzeko bidean (Iraultzen, 1984a: 6-7).

Zer esanik ez, jarrera apurtzaileak borroka ideologiko sendoa eskatzen zuen. Norabide horretan egin beharreko kontzientziazio lanak azpimarratu zituen behin eta berriro sindikatuak bere diskurtsoan (adb. Iraultzen, 1986d). Ildo horretan, LABen funtzioetako bat ENAMen helburu politikoak lantegietara eramatea zen, eta esparru horietan langileen politizazioa eta kontzientzia hartzea areagotzea (Iraultzen, 1984a: 5; LAB, 1988a: 6). Ageri denez, funtzio hori kontraesanean zegoen sindikatuaren autonomiarekin (LAB, 1978: 26-28).

Arlo sozialari dagokionez, 70eko hamarkadaren amaierako urteetan aldarrikapenen zerrenda luzeak egin zituen LABek (ELAk baino luzeagoak, nabarmen), eta askotariko gaiak sartu zituen beren eskarien artean: aisia, kultura, ingurugiroa, udal politiken demokratizazioa, etxebizitza, hezkuntza, euskara eta hedabideak, besteak beste (LAB, 1978: 58-64). Zerrenda horretan, azpimarragarria da eskari asko zein urrun kokatzen diren eremu laboral eta sindikal klasikotik. Horrenbestez, nabari da haren diskurtsoan esparru sozialean ahalik eta gehien eragiten saiatu nahi zuela.

Gai sozialen ildo beretik, gazteen arazo espezifikoek lotutako hiru eskaera egin zituen sindikatuak haien heziketari, adin nagusitasunari eta lokal publikoen eskaintzari buruzkoak, hain zuzen (LAB, 1978: 74), eta horretan ere lan munduko aldarrikapenetatik

aldendu zen. Emakumeen aldarrikapenei zegokienez, atal oso bat dago eskari feministei eskainita lehenengo kongresuan. Neurri gehienak lan baldintzetan berdintasuna lortzera eta emakumeak «bizitza produktibo eta sindikalean» integratzera begira zeuden planteatuta. Prozesu horiei laguntzeko, etxeko lanak sozializatzeko zerbitzu publikoen garapena bultzatzea eskatu zuen sindikatuak (LAB, 1978: 94-96).

Gainerakoan, bestelako gizarte kolektiboen bizi baldintzak hobetzeko ere aldarrikapen ugari egin zuen sindikatuak 1978an; horien artean aipatu zituen ikasleak, elbarriak, homosexualak, preso sozialak, jubilatuenak, eta nekazari-abeltzain-arrantzaleak (LAB, 1978) Aurrerago, baina, desagertu egin ziren kolektibo espezifiko horien eskaerak, jubilatuenak izan ezik, erretiratuak kolektiboak kaleratzeekin batera hartu zuen toki sozialak eraginda.

1978ko kongresuaren edukiak sozialagoak izan ziren 1980koak baino. Badirudi bigarren kongresuan estrategia politikoen arteko talkak tokia kendu ziola helburu sozialei buruzko eztabaidari. Bestalde, ezin da ahaztu garai horretan ASK¹²² ere bazegoela KASen barruan, gizarte esparruko borroka sektorialetan esku hartzeko xedearekin (Iraultzen, 1988d: 2). Horregatik, litekeena da ez izatea zentzu handirik LABek esku hartze sakonegia izatea esparru sozialean, beste antolakunde bati zegokion borroka esparrua baitzen hori.

Antolaketa: hastapenetako noraeza, militantziaren indarra eta lurralde egituraren nagusitasuna

Antolaketaren egiturari dagokionez, LABi kostatu egin zitzaion bere eredu antolatzailea finkatzea. Izan ere, gutxitan aipatu zuen lehen urteetako dokumentuetan egitura propioaren eraketaren gaia. Beste batzuk ziren helburuak. Esaterako, Lehen Asanblada Nazionalean kezkatuago zebilen langile mugimendu unitarioa bultzatzeko formulak pentsatzen bere burua antolatzen baino. Hori zela-eta, LABek hasieran batean ez zuen bere burua sindikatu legez definitu ere egin, «masa antolakunde soziopolitiko» gisa baizik (Taldeak, 1975: 366-367); eta haren xedea alternatiba sindikal bateratua sortzea zen, ez besterik (LAB, 1976b). Argi ondorioztatu daiteke, beraz, beste auzi batzuk lehenetsirik, barne-antolaketa oraindik zehaztu gabe zuela hastapenetan.

¹²² Abertzale Sozialista Komiteak herri mugimenduetako espresioak koordinatzeko antolakundea zen, 1976an sortua (Egaña. 1996: 76).

Geroago, galdutzat jo zuen sindikalismo eredu asanblearioa eratzeko helburua. Hortaz, LABek bere alternatiba sindikal propioa egituratzeko hautua egin behar izan zuen, batasuna lortzeko ahaleginak baztertu barik, halere. Batasun sindikala bi mailatan planteatu zuen: alde batetik, lantokietan asanbladak eta enpresa batzordeak bultzatzea zen; bestetik, bestelako korrante sindikal batzuekin koordinazioa eta ekintza batasuna lortzea. Halaber, negoziatzeko eskumenak enpresa batzordeen esku egon beharko zuela zioen (sail sindikalen eskumenak mugatuz), betiere asanbladaren onespren eta kontrolaren menpe (LAB, 1978: 12, 28-32; Iraultzen, 1980: 6).

Sindikatu independentetzat definitzen zen LAB 1978an. Horrela, ideologia edo sinesmen ezberdinetako pertsonak parte hartzea ahalbidetu nahi zen, printzipio hori batasunerako bermea izanik (LAB, 1978: 26). Alabaina, estatutuek ez zuten bateraezintasunik ezartzen kargu politikoen eta sindikalen artean (LAB, 1978: 130), ELAk egin zuen bezala. Aztertu dugun txostenetan horrelakorik agertzen ez den arren, EEko korranteak bultzatutako independentzia sindikalaren irizpideak, praktikan, KASekin zegoen lotura etetea zuen helburu (Idigoras, 2000: 311). Hala ere, KAS korranteak jarraitu egin zuen LABen barruan (Iraultzen, 1999a: III), eta, gerora, LAB KASen integratu zenean, independentziaren printzipio formala kontraesankor bihurtu zen. Izan ere, KAS plataformak nabarmenki baldintzatu zuen LABen egituraketa (KAS, 1983; Iraultzen, 1999a: IV).

Sindikatuaren kide ez ziren baina beren lan indarra Euskadin saltzen zuten langile guztien interesen alde egingo zuela adierazi zuen estatutuetan LABek (LAB, 1978: 136-138). Urte batzuk geroago, industriako langileriaren iruditeria klasikotik urruntzen ziren bestelako kolektiboak ere barnebildu nahi izan zituen, hala nola, langabetuak (Iraultzen, 1982a: 8, 1982e), kooperatibistak (LAB, 1985c: 16), administrazio publikoko langileak eta, orokorrean, krisiak kolpatutako kolektiboak (LAB, 1988b: 30). Langile guztiei irekita egonda, ez zion afiliazioari garrantzi handirik eman eta bai, ordea, militantzia kualitatiboari (Majuelo, 2000: 91).

Antolaketa ereduari dagokionez, sindikatu guztien antzera, sektore- (federazio) eta lurralde-egiturak (tokiko, eskualdeko, probintziako eta nazio esparruko batasunak) bereizi zituen (LAB, 1978: 102). Oro har, ELAn ez bezala, lurralde egiturak sektorekoak baino pisu handiago zuen, LABek hartutako sindikalismo eredu soziopolitikoaren eraginez (Iraultzen, 1980d: 6), nahiz eta lantokia izan ekintza sindikalaren esparru espezifikoa (Iraultzen, 1981c).

Haatik, negoziatio kolektiboan inplikatur joan ahala, federazioei arreta handiagoa eskaini behar izan zien LABek bere egituraren (Iraultzen, 1981d). Izan ere, lantokiak izan behar zuten antolakuntzaren oinarrizko nukleoa, borrokan jarduteko eguneroko markoa osatzen baitzuten. Baina, LABen ustetan, federazioek ahalegina egin behar zuten langileen borrokek lantokiko esparrua gaindi zezaten, eta gainerako borrokekin elkarlotu zitezten (Iraultzen, 1981e: 8). Agerikoa da, beraz, LABen barnean zegoen kezka langileen borrokak heda zitezten, bakoitza bere sektorean agortu gabe.

Ildo beretik, 1984an ere, federazioak lurralde egiturarekin modu eraginkorrean koordinatzeko beharra azpimarratu zuen, eta horren inguruko kezka adierazi zuen sindikatuak. Izan ere, egitura sektorialak lurraldekoarekin kontraesanean aritzeko joera agertu ohi zuen. Hori saihesteko, lurralde egiturak koordinatu behar omen zituen sindikatuak. Bestela adierazita, lurralde egituraren nagusitasuna berrestez batera, federazioen esku hartzeak koiunturala izan behar zuela iradoki zuen LABek 80ko hamarkadan (Iraultzen, 1984a: 11).

Kongresua zen LABen erabaki organo gorena, eta urteroko maiztasunez batu behar zen (LAB, 1978: 104). Ordea, 1980tik 1992ra bitartean ez zen kongresurik burutu. Hutsune horrek adierazten digu barne funtzionamenduan hutsuneak egon zirela, eta estatutuak modu ez-errealistan idatzi zirela. Kongresuaren ordezkiko organoa Batasun Nazionala izanik, Kongresurik ez zuten hortxe hartu ziren 80ko hamarkadako erabaki garrantzitsuak (LAB, 1978: 108).

Hutsuneak hutsune, urteek aurrera egin ahala, sindikatuaren barnean antolakuntzaren sendotasuna gero eta faktore garrantzitsuagoa zela sumatu dugu haren diskurtsoan (Iraultzen, 1986c). Horren harira, 1988an, eremu soziopolitikoaren garrantzia baztertu barik ere, berregituraketa prozesu sakona ipini zen martxan, antolakundeak jasandako hazkundeari egokitzeko. Bada, afiliazioak gora egin zuen heinean, antolakuntza arazoak ere handituz joan ziren. Orduan jazotako aldaketek, hein handi batean, idazkaritza nazionalaren berregituraketa bilatzen zuten, haren funtzionamendua eta eraginkortasuna hobetzeko. Helburu horrekin, idazkaritzako kideak 11 izatetik 14 izatera pasatu ziren, Idazkaritza Teknikoa sortu zen eta Erreibindikazio Saila handitu (LAB, 1988a). Gerora, nabarmenak izan ziren berregituraketa horren emaitzak, sindikatuaren barne funtzionamendua trinkotu eta dinamizatu egin baitzen. Horren adierazletzat har daiteke abiatutako euskalduntze prozesua (Iraultzen, 1989d; 1991b) eta afiliatu kopurua handitzeko kanpaina (Iraultzen, 1991c).

Aliantzak: KAS blokearen pisua

Arestian esan bezala, hasiera batean LABek oso argi zeukan mugimendu asanblearioaren eta bateratuaren alde egin behar zuela. Horregatik, pluralismoa eta zatiketa sindikala arazotzat hartuta, alternatiba sindikal bateratua eratzea lehenetsi zuen (Iraultzen, 1977). Hala, gainerako abangoardikoako indarrak eta antolakunde politikoak alternatiba sindikalera batzea espero zuen, baina, ez zen horrelakorik gertatu. Horiek horrela, 1978ko kongresuan, aurreko planteamenduaren izaera «utopikoaz» ohartuta (LAB, 1978: 8), korrante sindikalen arteko ekintza-batasuna bultzatzeko hautua egin zuen sindikatuak (LAB, 1978: 18).

1970eko hamarkadan LAB batez ere ETApM-ko militanteen ekimenetik sortu bazen ere, ezker abertzale zabaleko korrante gehiago zeuden haren barnean. Hartara, ETApM KAS Alternatibatik irten zenean eta EE koalizioa bultzatzeko hautua egin zuenean, LAB ere atera egin zen. Harrezkero, etengabeko tentsioak sortu ziren EEren aldeko eta KASen aldeko korronteen artean. Talka horiek izanagatik ere, bi korrontek elkarlanean jarraitu zuten LABen barruan 1980ko kongresua burutu arte (Iraultzen, 1980d). Handik gutxira, kongresuko ezohiko saio batean, KASen integratu zen LAB (Iraultzen, 1980f). Ondorioz, HBren aldeko jarrera agerikoagoa azaldu zuen, eta haren aldeko botoa eskatu (Iraultzen, 1984b: 2; 1989g).

Aliantzen garrantziari begira, KASi balio handia eman zion sindikatuak, borroken arteko elkarlotura ahalbidetzen zuelakoan (Iraultzen, 1984a: 8). Hala ere, gainerako korrante sindikalekin eta eragileekin aliantzak egiteko aukerak mugatu egin zituen KASen aldeko hautuak, eta izaera koiunturala zuten lankidetzak baino ez ziren onartzen sindikatuan (Majuelo, 2000: 116). Adibidez, 1984ko Batasun Nazionalaren arabera, taktika eta estrategia komun baten inguruan egikaritu behar zen antolakundearen arteko batasuna. Ondorioz, adierazpen horren arabera, ez zen aliantza egon aurreikusten LABen estrategia (alegia, KAS blokearena) konpartitzen ez zuen inongo antolakunderekin (Iraultzen, 1984a: 10).

Gizarte mugimenduekin harremana sustatzeko unean ere, KASekin edo ENAMekin lotura zuten ekimenekin egiten zuen bat sindikatuak. Esaterako, honako antolakundeak elkarrizketatu zituen Iraultzen aldizkariak 1988-1990 urteen tartean: ASK (Iraultzen,

1988d), Egizan¹²³ (Iraultzen, 1988h, 1989b, 1990b), Ikasle Abertzaleak¹²⁴ (Iraultzen, 1989a) eta Jarrai¹²⁵ (Iraultzen, 1990h: 8). Bestalde, mugimendu ekologistari dagokionez, Irurtzun eta Andoain arteko autobidearen kontrako koordinadorari ere egin zioten elkarrizketa 1990ean (Iraultzen, 1990c).

Ildo horretan, ASKri egindako elkarrizketa batean ondorio interesgarria ateratzen da. Artikuluan azaltzen denez, lantokietako esplotazioak auzoetan zuen bere jarraipena. ASK-k kolektibo herrikoien bizi baldintzetan eragiten zuten gai sektorialen lanketa egiten zuten (errepresioa, berreuskalduntzea, nuklearren kontrako borroka, drogen kontrako borroka, herritar mugimendua...). Ekimen horiek sektore herrikoien bizi baldintzak hobetzeko borroken markoan kokatu zituen LABek (Iraultzen, 1988d: 2), borroka sindikalaren osagarri moduan. Interesgarria da ikustea 1976an sortu zen ASK izeneko antolakunde horrek, hasiera batean oso gutxi ezagutu zen arren, eremu sindikaletik konpondu ezin ziren problematika konkretuei erantzuna ematen ziela.

Nazioarte mailako aliantzei zegokienez, esparru askotako antolakundeekin elkartasun eta harreman loturak sortzeko asmoa adierazi zuen LABek behin baino gehiagotan, bereziki zapaldutako herrietakoekin (LAB, 1978: 102; Iraultzen, 1982d). 1986tik aurrera asmo horiek indar handiagoa hartu zuten; hala, Iraultzenen bidez nazioarteko borroken berri ematen zen (Iraultzen, 1986a, 1987f), eta nazioarte mailan zenbait sindikatuk antolatutako jardunaldietan eta kongresuetan parte hartu zuen LABek (Asturiasen, Suitzan, Korsikan...) (Iraultzen, 1987c, 1988i, 1988k). 1990an, MFSren¹²⁶ kongresura gonbidatua izan zen lehen aldiz (Iraultzen, 1990f; 1990k). Horrez gain, nazioartean gertatzen ziren gertakarien inguruan, posizionamendu aurrerazaleekiko elkartasun-adierazpen gero eta gehiago plazaratu zituen.

Atal hau laburbilduta, esan daiteke KASen integratu ondoren, eta ezker sindikaleko taldeak desagertuta, LABek (ia) ez zuela aliantzarik egin KASekoak ez ziren eragileekin. Hala ere, 1986tik aurrera, nazioz gairik harremanetan sakontzeko aurrerapauso

¹²³ 1987an sortutako KASen barruko antolakunde feminista, emakumeen askapeneraren aldeko borroka egiteko (Egaña, 1996: 225). 2000an desegin zen.

¹²⁴ ENAMen parte hartzen zuen ikasle antolakunde, 1988an sortua.

¹²⁵ ENAMen eta KASen barruko gazte antolakunde independentista eta sozialista, 1979an sortua (Egaña, 1996: 455). 2000 urtean, Ipar Euskal Herriko Gazteria antolakundearekin batu eta Haika izena hartu zuen.

¹²⁶ Munduko Federazio Sindikala (frantsesez: Fédération Syndicale Mondiale), 1945an sortua, joera komunista duten munduko sindikatuak barnebiltzen ditu. Gerra hotza garaian, herrialde kapitalistetako zein sozialistetako antolakundeak batzen zituen.

xumeak eman zituen, baita KASen parte ziren bestelako antolakundeekin harremanak estutzeko ere.

Ekintzen errepertorioa: negoziazioaren kontraesanak eta molde ezberdinen uztartzea

Sindikatuaren helburuak lortzeko erabilitako bide eta protesta formei dagokienez, 1970eko hamarkada amaierako abagune bakoitzean langileen interesen alde egiteko egokien iruditu zitzaizkion borroka moldeak baliatu zituen LABek, grebak barne (1978: 136).

Gobernu eta patronalekin egindako kontsentsu eta itun guztien kontra egin zuen, modu nabarmenagoan 1980etik aurrera, KASen integratu ondoren hausturaren alde lerrokatu zenean (Iraultzen, 1980e, 1980f). Harrezkeroztik, itun sozialak beren-beregi baztertu eta borrokatu zituen LABek. Aitzitik, «borroka molde eraginkor eta erradikalak» bultzatu zituen, eta jarrera oldarkorrek bereganatu (Iraultzen, 1980d: 5-7). Horrenbestez, mobilizazioa izan zen gehien erabilitako ekintza-forma, legeak aitortzen ez zituen eskubideak lortzeko (LAB, 1978: 52). Izan ere, marko juridikoa bera ilegitimo hartuta, onargarritzat jo zituen ekintza-molde konbentzionalak zein ez konbentzionalak edo legez kanpokoak.

Jarrera hori hartuta, negoziaketa kolektiboak ere hainbat kontraesanak sortu zizkion. Bada, kontraesankorra zen erreformatik eratorritako ordenamendua inpugnatzea eta, aldi berean, hark sortutako tresnak erabiltzea lorpenak egiteko. Hala, lehenengo urteetan LABek uko egiten zion patronalarekin negoziatzeari (LAB, 1976b), baina, geroago, hauteskunde sindikaletara aurkezteko hautua egin zuen (Iraultzen, 1980e). Hori zela-eta, negoziatzeko baldintzen eta moduen inguruko eztabaidak izan zituen barnean. Enpresa-esparruan negoziatzeko unean, esaterako, batzorde enpresak soilik izan behar zuen negoziatzeko eskumena, baina asanbladaren kontrolpean betiere (Iraultzen, 1980f).

Lan harremanen egitura finkatu eta langile mugimendu asanblearioa ahuldu ahala, hasierako jarrera zurrunetatik urrunduta, LABek areagotu egin zuen parte hartzea hitzarmenen negoziazioan. Horren harira, garrantzi handiagoa eskaini zioten LABek eta bere militanteek hauteskunde sindikalen prestaketari. Hauteskundeetan ordezkariak irabaziz joan zenean, negoziazio kolektiboari buruzko jarrera moldatu zuen. Horrela, Euskadiko eta probintziako esparruko negoziazio-markoa lehenetsi zituen LABek, nahiz eta maila guztietara bideratu bere presentzia. Hala ere, negoziazioaren xedek sindikatu

gisa kohesionatzea izan behar zuen, delegatuen desgastea saihestuz (LAB, 1988b: 34). Bestela adierazita, negoziazioak ekintza sindikalaren atal osagarria izan behar zuen, horretan agortu barik, eta lan militantearekin eta mobilizazio indartsuekin orekatu behar zen hura (Iraultzen, 1981d).

Jarrera horri eutsiz, oso balorazio negatiboak egin zituen sarritan negoziazioaz lortutako hitzarmenen inguruan, eta ELA, CCOO eta UGT sindikatuen borrokarako grina falta eta kolaborazionismoa kritikatu zituen, hitzarmenak borroka barik sinatzeagatik (Iraultzen, 1982a; LAB, 1988b: 31). Sindikatu horien pasibotasuna mobilizazioaren bidez gainditu nahi zuen LABek, eta negoziazorako muturreko jarrerak bereganatu zituen. Era berean, sindikatu erreformistak publikoki konprometitzeko baliatzen zuen LABek negoziazioa (Iraultzen, 1990a: 2).

1991an, honako helburuak finkatu zituen LABek negoziazioari zegokionez: euskal langile klasearen interesen defentsa egitea, lehenik, eta askapen prozesuaren aldeko indar metaketa ahalbidetzea, bigarrenik (Iraultzen, 1991b). Bistan da, haren ikuspegian, negoziazio kolektiboaren helburuak ez zirela lan eremuko lorpenetara soilik bideratzen. Bada, helburu laboral eta sindikal hertsietara mugatu barik, helburu politikoak (askapen prozesua) elikatzeke funtzioa ere bazuen negoziaketak.

Parte hartze instituzionalari zegokionez, LHK arbuiatu egin zuen hasieran LABek bere izaera «adostasunezkoa, interklasista eta korporatibistagatik» (Majuelo, 2000: 111). Lan harremanetarako markoa eratzeko balio ahal zezakeen arren, organismo horrek krisitik irteteko adostasuna bilatzeko helburua zuen eta, beraz, gatazken indarra lausotzekoa ere. Kontuan hartu behar da urte horietan, nahita ere, LABek ez zuela erakunde horretan parte hartzeko ordezkagarritasun nahikorik. Hala, oraindik ere sindikatu txikia izanik, ez zuen parte hartze instituzionalaren inguruan asko hausnartu beharrik. Alabaina, bere ordezkartza gorantz joan zenean, bere kokapen berrira egokitu behar izan zuen jarrera hori. Hori zela eta, 1987ko abenduko Batasun Nazionalean, ordezkartza sozialeko organoetan parte hartzeari buruz eztabaidatu zuten militanteek. Bertan, ordezkartza maila bakoitzari modu ezberdinduan heltzea adostu zuten (Estatuan, erkidegoetan, udaletan...). Bestalde, beharrezko ikusi zen EGABen eta LHKn parte hartzearen inguruko posizioa zehaztea (Iraultzen, 1988c).

Horiek horrela, 1990an zertxobait posibilistago eta pragmatikoago bihurtu zen ordezkartza instituzionalari buruzko LABen jarrera. Izan ere, negoziazio kolektiboa

tresna mugatua zen egitura produktiboaren arazoak konpontzeko eta, hori zela eta, bide instituzionala jorratzen hasi zen sindikatua (Iraultzen, 1990k). Beraz, negoziazioari buruzko jarrera guztiz aldatu zuen hamarraldi horretan. Hasiera batean, enpresa batzordea zen negoziatorako ordezkari-organoa zilegi bakarra. Baina, lan harremanen esparrua argitu eta hauteskunde sindikaletan ordezkariak lortu ahala, ordezkari-organoa instituzionalerako aukerak ugarituz joan ziren, eta horietaz baliatzen hasi zen LAB.

Hala ere, mobilizazioan eta konfrontazioan oinarritutako sindikalismoa lehenetsi zuen sindikatuak, argi eta garbi, bere diskurtsoan. Izan ere, urte horietan izandako arrakasta jarrera erradikala, oldarkorra eta konfrontatiboa mantentzean oinarritu zen. Letamendiaren (1994: 16) eta Bustilloren (2007: 8) arabera ere, hamarkada hartan hauteskunde sindikaletako emaitzak hobetuz joan zen LAB langile kaleratuen aldeko eta birmoldaketa gogorren aurkako borrokan erakutsitako koherentziagatik, hain zuzen.

Atal hau bukatzeko, ez dugu ahaztu behar ETArekiko lotura tarteko, borroka armatua ontzat jotzen zuela LABek. Hari horretatik, borrokarako metodo legalak eta ilegalak elkarren artean uztartzearen alde egin zuen sindikatuak bere jardura esparruan ere (Iraultzen, 1983a; 1984a). Borroka armatuak, esaterako, oso modu determinante eta eraginkorrean sortzen zituen kontraesanak etsaiarengan, eta beraz, langile klasearen aldeko baldintza onuragarriak sortzeko gai zen (Iraultzen, 1984a: 8-9). Aldi berean, borroka molde liskarsuak bide instituzionalekin uztartu behar zituen Adibide gisa, ETaren eta Estatuaren arteko garaiko negoziazio politikoa helburu ekonomiko eta sozialak lortzeko bidea ere bazela uste izan zuen (Iraultzen, 1988g: 4, 1989b: 2).

Interpelatutako gizarte kolektiboak: soldatapekoengandik harago joateko ahalegina

Nor zen LAB sindikatuaren erreferentea? Nori zuzentzen zitzaion sindikatua? LAB langile klasearen ulerkera zabala sortzen ahalegindu zen hasieratik, «soldatapeko langileak» baino subjektu sindikal zabalagoa eratzeko asmoarekin; hala, kooperatibistak, eta beste kolektibo batzuk ere hartu zituen gogoan, behin baino gehiagotan (LAB, 1976b). Ildo berean, «jardura produktiboan» parte hartzen zuten gizon zein emakumeei irekita zegoen, beren ideologiak edo sinesmenak kontuan hartu gabe; halaber, ekintza esparrua fisikoari edo lurraldeari zegokionez, «lan indarra Euskadin saltzen zuten langile guztien» interesen alde agertzen zen, baita mundu osoko langile zapalduen eta esplotatuen interesen alde ere (LAB, 1978: 26, 138).

Kolektibo zehatzak ere hartu zituen hizpide sindikatuak bere diskurtsoan. Lehenik, arestian esan denez, gazteen zenbait aldarrikapen bildu zituen 1978an, batez ere langabeziaren arazoarekin lotuta (LAB, 1978: 74-76). «Iraultzen»eko zenbait artikuluk (Iraultzen, 1982f, 1990h) gazteei buruzko interes hori berretsi zuten. Baina, Jarrai gazte antolakundea ere KASen egonik, berari utzi zitzaion gazteen eskaerak bideratzeko protagonismoa.

Hari beretik, bigarrenik, emakumeen erreibindikazio feministak ere jaso zituen, formalki bederen, hainbat dokumentutan, 1978tik aurrera. Emakumeen eskubideen eskariei dagokienez, lehen kongresuan arreta nahiko handia eskaini zitzaion (LAB, 1978: 86-96). Haatik, ez hainbeste hortik aitzina. Hain zuzen ere 1989ra arte itxadon behar izan zen auzi feministari berriz ere heltzeko. Hala, 1989tik aurrera handitu egin zen gaiari buruzko arreta, nahiz eta soldatapeko lanean emakumeek bizi zituzten egoeraren azterketara mugatu ziren diskurtsoak (Iraultzen, 1990b, 1991f...), alde batera utzita lanaren beraren kontzeptuaren berrirakurketa, ordaindu gabeko lanaren banaketaren auzia, eta gizonezko langileen erantzukizuna lanaren banaketa horretan

Hirugarrenik, langabeziak gora egin ahala, langabetuek osatu zuten sindikatuaren erreferentziazko beste kolektibo bat. Hain zuzen ere, langabetuen beharrei erantzuteko idazkaritza espezifikoak sortzeko beharra mahaigaineratu zuten 1980an sindikatuan (Iraultzen, 1980d: 6). Gerora, Langabetu Batzordeak sortu zituen LABek hainbat tokitan, eta langabetuen antolaketa sustatzeko premia handitu zen (Iraultzen, 1982a: 8). Laugarrenik, 1988an, pentsiodunen kolektiboa ere agertu zen, langabetuenaren parean jarrita (Iraultzen, 1988b: 30), sindikatuak uste baitzuen lanik egin ez arren, langabetuen nahiz pentsiodunen bazterketa laneko esplotazioaren auzi beretik eratorria zela. Lanak zeukan zentraltasun soziala aintzat hartuta, lanetik sortutako bazterketari sindikatuak emandako lehen erantzun moduan har genezake kolektibo horiekiko arreta, eta lanaren krisiak sortutako lehen erreakzio gisa interpretatu dezakegu diskurtso hori.

Aipaturiko kolektibo sozialez gain, 1978ko kongresuan talde oso ezberdinen beharrei erantzuteko borondatea azaldu zuen LABek: homosexualak, preso sozialak eta elbarriak izan zituen hizpide, besteak beste. Ezohikoa zen sindikatu baten kongresuan kolektibo sozial horren ezberdinei arreta eskaintzea. Baina, aipamen horiek guztiak oso formalak izan ziren, eta horien atzean soldatapeko lan eremuko betiko arazoetan ez geratzeko eta perspektiba sozial zabala diskurtsoan behintzat erakusteko borondatea zegoen, ez zen harago joan. Gainera, «perspektiba ireki» hori deitu daitekeena murriztu egin zen 80ko

hamarkadan, neurri handi batean, KASeko beste antolakundeek betetzen zituzten jarduera espazioak zirelako (Jarrai, Egizan, ASK...).

Azkenik, 1980ko hamarkadan zehar asko handitu zen administrazio publikoko langileen kopurua, eta langileen kolektibo horrek ere erakarri zuen sindikatuaren arreta haren diskurtsoan (LAB, 1988b: 30). Bestalde, behin-behineko langileen borrokan ere jarri zen fokua 1990etik aurrera (Iraultzen, 1990i: 6), nahiko berandu ELAren alderatuta.

Ikusten denez, LABek hasieratik plazaratu zuen, modu formalean, langile klasearen ulerkera zabala eta gizarte kolektibo anitzen beharrei erantzuteko interesa. Hala ere, jatorria lan eremuan zuten bazterketei eskaini zien arreta nagusia, lanaren krisiaren aurreko erantzun errektibo gisa. Gainera, praktikan, errotze nagusia industriako lantegi handietan lortzen zuen oraindik, non langile gehienak gizona ziren. Kontua bat da, beraz, asmo diskurtsibo edo formal horiek benetan gauzatu ziren ala ez.

Nolanahi ere, LABen kasuan, langile klasearen ikuspegia zabaltzeko arrazoia ez zen izan soilik aldaketa estrukturaleri erantzun beharra. Sindikatuaren sorreran finkatutako izaera soziopolitikoak zeresan handia zuen ikuspegi horretan, lan munduko aldaketa estrukturalak oraindik ikusgai ez zirenean. Hots, LABek bere izaera soziopolitikoagatik garatu zuen, diskurtsiboki, langile klasearen ulerkera zabala, eta ez hainbeste lan munduko aldaketa estrukturalengatik.

ONDORIOAK

LABen diagnostikoan, koiunturako gertakariez egindako interpretazioek antagonismo estrukturalaren irakurketa elikatzen doaz. Neurri handi batean, nazio- eta klase-zapalkuntzak eta oligarkiaren nagusitasunak baldintzatzen zituzten koiunturako gertakari gehienak, sindikatuaren diskurtsoaren arabera. Nola edo hala, gertakari politikoak, sindikalak eta ekonomikoak Estatuko oligarkiak bere botereari eta nagusitasunari eusteko ahaleginen barruan ulertu behar ziren. Egiturazko etsaitasun horren barruan kokatu zituen LABek, beraz, bere irakurketak.

Zapalkuntzaren eta antagonismoaren izaera estrukturalak zirela-eta, arlo politikoak hartu zuen pisurik handiena koiunturari buruzko diagnostiko markoetan, esparru horretan jokatzen baitziren LABen helburu gorenak, alegia, askapen nazionala eta soziala. Ez da kasualitatea egoera politikoari LABek ELAk baino gehiago erreparatzea, eta lan harremani ELAk gehiago LABek baino. Antagonismoan oinarritutako irakurketak

esparru sindikalean ez ezik, gainerako beste esparruetan ere azaleratu ziren, haustura demokratikoa esparru guztietara eramane behar zuelako.

Hala, hein batean, lanaren munduan gertatzen ari ziren aldaketen inguruko irakurketa sakonen falta sumatu dugu sindikatuaren diskurtsoetan, eta irakurketok egin zirenean ere, berandu egin zirela ikusi dugu, ziur aski gatazka politikoaren gordintasunak baldintzatuta. Ondorioz, espezifikoki sindikalak ziren gaietan gutxi sakondu zuen LABek epealdi honetan. Esaterako, sindikalismoaren ahultasuna hautu estrategiko erreformistaren ondorioztat hartu zuen hasieran, lan munduko aldaketa estrukturalen eraginean gehiago sakondu gabe.

Bestalde, antolakunde hasiberria izanik, bere egitura eta estrategia finkatzen zebilen oraindik orain LAB 1980ko hamarkadan, eta horrek mugatu egin zezakeen bere gaitasuna. Nolanahi ere, lan munduko aldaketen azterketa gutxi egin arren, LABek bazituen jada gizarte-mugimendu sindikalismoaren ezaugarri batzuk barneraturik bere oinarrian, sindikalismo instituzionalizatuaren gabeziatik kanpo mantentzen zituenak.

Sindikatuaren heldutasunarekin lotuta, nolabaiteko nora eza sumatu dugu LABen hastapenetako diskurtsoetan, eta martxan jartzeko zailtasunak ere. Izan ere, hasierako HBk eta hasierako EEk hauteskundeetan jasotako boto kopuruek ez zetozen bat LABek eskuratutako delegatuen kopuruekin. Hala ere, oinarriak finkatuz joan ahala, eredu erradikal eta mobilizatzaileari eustea lortu zuen.

Sindikatuaren botere iturriari erreparatuta, sindikatuaren *botere instituzionala* hutsaren hurrena izanagatik ere, LABek jakin zuen testuinguru gatazkatsua bere alde jartzen, eta *egitura-boterea* (edo *estrukturala*) indartzen. Izan ere, sindikatu txikia izanda, frankismo garaitik jasotako gatazka politikoaren tamainak eta ondoriozko euskal gizartearen sektore baten mobilizazio ahalmenak, batetik, eta krisialdi ekonomikoaren larritasunak, bestetik, kontuan hartu beharreko potentzialitatea eman zioten LABen eredu sindikalari. Har dezagun kontuan har dezagun, bestalde, ETaren jardura eta ENAMen borroka Espainiako Estatuaren ezintasunaren adierazle zirela oraindik garai horretan.

Horiek horrela, errepresioak eta gatazkak ezaugarritutako testuinguru gogorra bere alderako baliatu zuen LABek euskal gizartearen sektore batean erreferentzialtasuna irabazteko. Izan ere, LABen posizio erradikalak bazuen oinarri sozial potentziala, eta, gainera, Estatuaren ez zen gai izan hori makurtzeko, borroka armatuak onespen zabala izaten jarraitzen baitzuen artean. 1980ko hamarkadan LABek bizi izan zuen hazkundeak

baieztatzen du bere gaitasun guztiak garatu gabe zituela erreforma politikoaren garaian. Aipatu dugun antagonismo horretan beren erradikaltasunari eustean oinarritu zen LABen egitura-boterea. Kokapen antagonista horretatik, sindikatu nagusiei leporatu zien langile mugimenduaren ahultasuna. Horrekin, LABek diskurtsiboki azpimarratu zuen ez zegoela arrazoirik langileen mobilizazioa eta borroka alboratzeko; aitzitik, uste zuen egoera zenbat eta okerragoa izan, hainbat eta oldarkorragoa izan behar zuela erantzunak.

Horrekin batera, LABen *botere moral-diskurtsiboa* frankismoaren oinarrietan eraikitako sistema osoaren inpu gnazio erradikalean oinarritu zen; ENAM nazio askapenerako mugimenduaren parte zen izaera soziopolitikodun masa-antolakunde moduan aurkeztu zuen LABek bere burua. Ildo berean, arazo laboralak eta sindikalak sistema zapaltzaile osoa kolokan jartzen zuen esku hartze soziopolitiko globalago batekin lotu zuen bere jarduera. Lotura horretan, hain zuzen ere, oinarritu zuen LABek bere indar morala.

Aldiz, LABen *botere instituzionala* hutsaren hurrengoa zenez hasieran, aukera hori baztertu egin zuen diskurtsiboki. Baina, paradoxikoki, indarrean zeuden instituzioak inpu gnatzeko jarrerak ahalbidetu zion botere instituzional apur bat lortzea, *botere moral-disburtsiboa*n oinarrituta. Bestalde, 80ko hamarkadak aurrera egin ahala, inpu gnaziorako jarrera lausotuz joan zen, eta ikuspuntu pragmatikoagoa bereganatu zuen sindikatuak. Hala, negoziazio kolektiboan parte hartzen hasi zen, eta instituzioek eskainitako aukeren irakurketa egiten bere adierazpenetan.

Elkarlan botereari zegokionez, kanpo harremanek garrantzi handia izan zuten LABentzat, batik bat bere izaera soziopolitikoak eraginda. Gainera, 70eko hamarkadan sindikalismo bateratzailearen alde egin zuen, independentzia sindikalari eutsita beti ere. Alabaina, KASen integratzean, independentzia sindikalaren aipamenak desagertu egin ziren diskurtsotik, eta printzipio unitaristak errebisatu, aurrerantzean aliantzarako beharrezkoa izanik antolakundeek estrategia eta taktika komuna partekatzea.

Horrela, KASen integratzeak elkarlan zabalagoetarako aukerak murriztu zizkion LAB sindikatuari, baina KASen parte ziren taldeekin harremanak estutzeko eta trinkotzeko balio izan zion. Harrezkero, eragile sozialekin izan zituen harremanak KAS blokearen bidez mantendutakoak izan ziren: Jarrai, Ikasle Abertzaleak, Egizan, eta abar, zeuden horien artean. Baina ezker abertzalekoak ez ziren eragileekin aliantzak desagertu ziren. Hartara, LABentzat funtsezko botere iturri izan zen KAS blokea, horrek kohesioa, zentzu

soziopolitiko eta sindikalismoaz haragoko proiektzioa eman baitzion haren proiektu sindikalari.

Diskurtso erradikalean eta ENAMekin zuen elkarlanean oinarritu ziren *botere asoziatiboa* handitzeko aukerak ere. Lehen urteetan, betiko eredu sindikaletik urrundu nahian, garrantzi txikia eman zion LABek afiliarioari, eta askoz handiagoa lan militanteari. Dena den, mobilizazio gaitasun duina izanik ere, afiliatuen eta ordezkari sindikalen kopurua oraindik txikia zen HBko hautesleekin konparatuta, esparru sozial bera izanda ere. Hori aldatuz joan zen urteekin batera.

Botere antolatzailea lurralde egituran oinarritu zen. Antolakuntzari dagokionez, ahultasunaren sintomak aurkitu daitezke azterturiko epealdian; batetik, hainbat urtetan estatutuetan ezarritako maiztasuna ez(in) zelako errespetatu kongresuak egitean. Bestetik, une jakin batean, sindikatuaren gaitasun asoziatiboak haren gaitasun antolatzailea gainditu zuelako (LAB, 1988a). Horrela, LABek militante eta afiliatu gehiago batzeko aukerak bereganatu zituen, baina ez zuen afiliatu kopuru handiak jasotzeko beharrezko antolakuntza sendotua, eta antolakuntzari ekin behar izan zion, ondorioz.

Sindikatuaren *botere estrategikoa* haren *botere diskurtsiboan* oinarritu zen gehienbat, eta ezker abertzaleko gainerako eragileekin egindako elkarlanean. Horrek botere asoziatiboa indartzeko parada eman zion, baita, bide batez, botere instituzionala ere, nahiz eta hasieran azken hori nabarmenki arbuia zuen. Ondorioz, esan bezala, arreta handiagoa eskaini behar izan zion *botere antolatzaileari*.

LAB sindikatuak abian jarritako *berrikuntza estrategiei* begira, zenbait ondorio atera ditzakegu:

1. *Antolaketa-ereduari* dagokionez, esan dugu botere asoziatiboa handitzeko aukera nabarmenak izan zituela LABek. Bestalde, ez ohiko langile kolektiboen eskariei buruzko interesa agertu zuen bere diskurtsoan. Kolektibo horien artean hizpide izan zituen emakumeak, gazteak, kooperatibistak eta pertsona homosexualak. Nabarmentzekoa da emakumeak kolektibo horien artean kokatu izanak, horrek adierazten baitu sindikatuaren erreferente nagusia oraindik ere ohiko langile industrial estandarra zela, soldatapeko gizonezkoa, alegia. Aipamen horiek gorabehera, bere gaitasun antolatzaileak garatu gabe zituen LABek epealdi honetan, eta horrek haren botere asoziatiboa handitzea mugatu zuen. Ondorioz, langile kolektibo «atipikoekiko» interesa disurtsiboa besterik ez zen izan, eta ez

praktikoa. Hori konpontzeko, zenbait *berregituraketa* («*restructuring*») prozesu abiatu zituen sindikatuak (KASen integratzea eta 1988ko berregituraketa, besteak beste) antolakunde moduan indartzea ahalbidetu ziotenak.

2. *Kooperazio estrategiak* («*partnership*») alboratu ez ezik, horien kontra egiten zuen LABek esplizituki, haren diskurtso eta estrategia apurtzailea tarteko. Besteak beste, ETAREN estrategia armatuarekin bat egin izanak, eragotzi egin zuen aukera hori. Hala, sindikatuaren lankidetzarako eragile bakarra HB izan zen, eta presentzia instituzional txikia izan zuen erkidegoan eta bat ere ez Estatuan.
3. *Ekintza politikoa* elikatzea funtsezkoa izan zen LABentzat, hasiera hasieratik. KAS plataforman integratzeak perspektiba hori indartzen lagundu zion, baina, aldi berean, bere lerro politiko propioa garatzeko gaitasuna galdu zuen. Era berean, epealdi honetan ekintza sindikal «klasikoa» (negoziazio kolektiboa) garatu gabe zegoen oraindik LABen; beraz, horrek ahalbidetu zion esparru sindikalari gehiago lotzea eta lantokietan errotzea. Horrela, arian-arian, lantokietan presentzia bermatuz joan zen.
4. Esan dugu jadanik sindikatuak *berregituratu* beharra zuela, beren antolakuntza-gaitasunak hobetzeko eta, batik bat, hazten ari zen afiliatuen multzoaren beharrei hobeto erantzun ahal izateko. Izan ere, hasieran egiturak eraiki gabe zeuzkalarik, organizazio sendo eta egonkorra falta zitzaizkion LABi. KASen integratzearekin batera, ezinbesteko egituraketa prozesuari hasiera eman zion eta, nola edo hala, prozesu horrek egitura egonkorrez ez ezik, baliabide militantez nahiz antolaketa-baliabideez hornitu zuen sindikatua. Gerora ere, bigarren berregituraketa fase bati ekin zion 1988an (LAB, 1988a).

Bestalde, sindikatuaren jardun soziopolitikoaren ondorioz, hasieran lurralde egituraren oinarritu zen gehienbat haren antolaketa, eta ez sektorekako organizazioan. Hala ere, negoziazio kolektiboan zentratuz joan zenean, sektorekako egitura indartzera behartuta egon zela ikusi dugu, Miguélezek eta Prietok (1999: XVII) eta Letamendiak (2009: 52-53) aurreikusitakoaren kontrara¹²⁷. Bestela adierazita, planteamendu soziopolitiko batetik abiatu zen neurrian, LABek gutxi garatu zituen beren hastapenetan ekintza sindikal

¹²⁷ Gogoratzearen, autore horien arabera, sindikatuak lurralde-egiturari gero eta pisu gehiago eskaini izan diote, enpresa-mailan pairatutako ahultasunari erantzuteko.

«klasikoa» eta negoziazio kolektiboa, baina, antolaketa egonkortu zuen heinean, sendotu egin zuen sektorekako egitura ere.

5. *Aliantzak eratzeko* unean, 70eko eta 80ko hamarkadetako planteamenduak guztiz ezberdinak izan ziren. Izan ere, 70eko hamarkadan, oraindik Espainiako erreforma politikoa guztiz ezarri gabe zegoenean, sindikatuak bateratu eta sindikatuen koordinadora bat osatu nahi zuen LABek, sindikatua bera eta antolaketa asanblearioa uztartuz eta antolakunde independente moduan jardunez. Baina, planteamendu horrek porrot egin zuen, eta KAS blokean integratu zen. Horren ondorioz, alde batetik, isolatu egin zen ENAMetik kanpo zeuden eragileetatik, aliantzak KAS blokearen baitan bideratu baitzituen aurrerantz. Baina, beste aldetik, integrazio horrek sendotasun politikoa, indar antolatzailea, botere morala eta botere soziala eman zizkion sindikatuari.
6. *Nazioarteko elkartasunaren* bidean, gero eta garrantzi handiagoa eman zion LABek nazioarteari, batez ere 80ko hamarkadaren bukaeran, Espainiako Estatu NATOn eta EEEn sartzeko prozesuek baldintzatutako testuinguru politikoan; baina, sindikatuaren garapenak berak ere bultzatu zuen nazioarteko harremanetan arreta jartzera. Hala, nazioarteko hainbat ekimenetan eta topaketetan parte hartu zuen epealdi honetan. Hala ere, hamarkada hartako nazioarteko ekimenak eta adierazpenak sinbolikoak izan ziren, gehienbat. Praktikan, diskurtsotik harago, ez zen gauzatu nazioarteko esku hartze errealik sindikatuaren aldetik.
7. Argi dago, *ekintza-forma gatazkatsuen* eta oldarkorren alde egin zuela LAB sindikatuak, baita legez kanpoko eta indarkeriazkoa ekintzen alde ere. 1980ko hamarkadan, negoziazio kolektiboari eta parte hartze instituzionalari uko egin ez zien arren, argi utzi zuen sindikatuak jarduera liskartsuek eta gainerako ekintza-errepertorioek osagarriak izan behar zutela.

Laburbilduz, LABen botere sindikala bere izaera soziopolitikoan, jardueren erradikaltasunean eta KASekin zuen lotura estrategikoan oinarritu zen, neurri handi batean; sindikatu gaztea izanik ere, lotura horrek hazteko aukera eman zion.

Europako sindikalismo instituzionalizatuaren eta, hartara, ELAren kontrako ibilbidea egin zuen LABek, eta horrek sindikatuaren lurralde egitura indartzea ekarri zuen. Izan ere, gure hipotesiaren arabera, ohiko sindikalismoa lan esparrutik esparru sozialera hedatuz joan zen. Baina, esan bezala, LABek alderantzizko ibilbidea burutu zuen:

planteamendu soziopolitikotik abiatu zen hasiera-hasieratik eta hortik negoziazio kolektibora eta planteamendu sindikal «klasikoago» baten garapenera egin zuen jauzi. Hala ere, bilakaera horrek ez du gezurtatzen LABen ikuspegi soziopolitikoaren arrakastaren inguruko ikuspegia. Hain zuzen ere, negoziazio kolektiboari gero eta arreta handiagoa eskaini zion arren, LABek ez zuen planteamendu soziopolitikoak inoiz alboratu, eta bi bideak uztartzen jakin zuen.

Ildo horretan, uste dugu LABen izaera soziopolitikoan dagoela, hain zuzen ere, hamarkada hartako bere arrakastaren gakoetako bat. Izan ere, indar sozialen eragile mobilizatzailea izanda (neurri handi batean, ezker abertzalearen parte izateak ematen zion ahalmen hori), negoziazio kolektiboak itsatsita zeuzkan prozedura burokratikoak saihestu ahal izan zituen. Aldi berean, botere asoziatiboa –kide kopurua– eta antolatzailea finkatuz joan zen heinean, baliabide antolatzaile handiagoa eskatzen zuen negoziazio kolektiboan inplikatzeko hasi zen zen. Hasiera batean, jarduteko eta antolatzeko moduak gizarte mugimenduenak izanik ere, sindikatu moldea hartu zuen pixkanaka.

Ibilbide horretan, lanaren krisiaren prozesuarekin lotutako aipamen gutxi aurkitu dugu LABen diskurtsoan. Izaera soziopolitikoan eta ezker abertzalearen estrategia globalarekin mantendutako loturaren gainean eraiki zuen bere botere sindikala, eta ez lan esparruko jarduera soilean. Hartara, LABek egindako bideari dagokionez, lan esparrutik abiatu ordez, ikuspegi soziopolitikotik hasi eta (soldatapeko) eremu laboral eta sindikal «klasikoan» murgilduz eta espezializatuz joan zen sindikatuaren historia atzeman dugu.

ELAREN ETA LABEN ARTEKO ALDERAKETA

ELA eta LAB euskal sindikatuak eredu sindikal kontrajarrietatik abiatu ziren aztertu dugun epealdian. Asko eta askotarikoak ziren bien arteko aldeak. Batak aniztasun sindikalaren alde egin zuen; besteak batasunaren eta langile asanbladen alde. Lehenengoak afiliazioari eta antolakuntzari eman zien garrantzia; bigarrenak militantziari eta printzipio iraultzaileekiko koherentziari. ELAk egitura profesionala lehenetsi zuen; LABek, aldiz, lurralde egitura. ELAk negoziazio kolektiboa zuen ekintzarako lehenetsuneko tresna, eta LABek, berriz, gatazka eta mobilizazioa. Batak ETAREN indarkeria arbuiatu zuen, eta besteak sostengatu. ELAk autonomia sindikal osoa aldarrikatu zuen. LAB, autonomiari uko eginez, KAS blokean integratu zen. Lehenengo sindikatuak lan harremanetan zentratu zuen bere ekimena, eta bigarrenak, ordea, ikuspegi soziopolitikoak garatu nahi izan zuen jardueran. Alde batetik, ELAk lan harremanen

egituraketak emandako aukera baliatu nahi izan zuen; beste alde batetik, LABek baztertu egin zuen bide hori. ELA sindikalismo-eredu instituzionalizatua eratzen saiatu zen, eta LAB, bere aldetik, eredu iraultzailearen eta konfrontaziozkoarean alde agertu zen. ELA ordezkagarritasunean oinarritu zen; eta LAB (oraindik) minoritarioa zen.

Hala ere, beren autodefinizioen arabera, bi sindikatuak ziren sozialistak eta abertzaleak, bakoitza bere erara eta ñabardura askorekin. Abertzaletasun hori zela-eta, biek izan zuten lan harremanetarako euskal markoa egituratzeko interesa, baina garai horietan jarrera guztiz kontrakoak zituzten instituzioei buruz. Horrela, ELAk Autonomia Estatutuak eta bere ordezkariak eman zizkion aukerak erabili zituen, EAJrekin elkarlanean, lan harremanak egituratzeko asmoz. Bide horretan, ELAk EAJ gobernu autonomikoaren alderdiarekin zeuzkan tradiziozko harremanak profitatu zituen. LABek, aldiz, hasieran ez zion horrenbesteko garrantziarik eman lan harremanen markoa eratzeari. Hastapenetan ordezkariak sindikal oso txikia zeukanez, mobilizazioaren eta konfrontazioaren estrategiak hauspotzen saiatu zen. Gainera, KAS plataformaren barruan kokaturik, ezarritako egitura instituzionalaren haustura zuen helburu, eta, hartara, arbuia egin zuen bide autonomikoa eta autonomiak eraturiko esparrua. Hala eta guztiz ere, ordezkariak sindikala lortuz joan zen heinean, moteldu egin zuen hasierako jarrera apurtzailea, eta tresna instituzionalak eta negoziazio kolektiboa erabiltzeko aukerari ateak zabaldu zizkion.

Desberdintasun horien ondorioz, *egitura-botereari* zegokionez, ELAk agerian utzi zuen sindikalismoaren ahultasuna, aintzat hartu zuen kanpoko faktoreen eragina lanaren esparruan, eta, horrenbestez, bestelako politika sindikalak aldarrikatu zituen. LABek, bere aldetik, klase eta nazio gatazka estrukturalen baitan kokatu zuen bere burua, lan harremanen nolakotasunean gehiegi sakondu barik. Gatazka estrukturalak emandako aukerak baliatu zituen (Estatuaren ezintasuna eta borroka armatuaren eragina, esaterako), eta sindikalismo erreformistari eta apalari egotzi zion langile mugimenduaren ahultasuna. ELAn ez bezala, boluntarismo kutsua antzeman daiteke LABen jarreran, alderdi eta sindikatu erreformistei leporatu baitzien langile klasearen egoera okertzea. ELAk sindikalismo espainiarra zuen jomugan (UGT gehienbat), lan harremanen azterketa koiunturalak egiteko unean gehienbat. Bistan da, beraz, testuinguru antzekoa zela bi sindikatuentzat, baina testuinguruaren irakurketa guztiz ezberdinak egin zituztela.

Sindikatu nagusia izatean, ELAk bazuen *botere instituzional* kuota bat, baina ez zen haren ordezkariak mailara egokitu. EAEko lehen sindikatua izanik ere, ahalmen instituzional

handiagoa eskatzen zuen. Aldiz, sindikatu txikia izanda, LABek ez zuen ELAren botere instituzionala lortzea espero; are gehiago, kolokan jarri zuen botere instituzionalaren zilegitasuna, nahiz eta hark ematen zituen aukeren erabilpena mahai gainean jarri.

ELAren *botere moral*a, neurri handi batean, sindikatu horren eraginkortasunean eta pragmatismoan oinarritu zen. LABek, ordea, Espainiako erreformarekin batera ezarritako ordena hankaz gora jarri nahi zuen, eta gainera, asmo hori estrategia global baten pean garatu zuen. ELAk ere ikuspegi politiko integralaren lorpena aldarrikatzen zuen, baina esparru hertsiki sindikalean zentratu zuen bere ekimena. Ildo horretan, kezka handia zeukan bere autonomia sindikalari zein politikoari eutsi ahal izateko. Hartara, hitz horrekin izendatu ez arren, esan daiteke ELAk bazeukala perspektiba soziopolitikoak, baina bere praktika esparru hertsiki sindikalean zegoen zentratu, eta ez arlo soziopolitikoan.

Horiek horrela, ELAk ez zukeen inondik ere onartuko estrategia globalago batean eragile azpiratua izatea, eta horrek zaildu egin zion *elkarlan boterea* garatzea. Haren aliatu naturalak CCOO eta UGT ziren, berez, baina sindikatu horiekin gauzatutako harremanak ez ziren bat ere onak izan. Bestalde, EAJrekin autogobernua garatzeko interes partekatua zeukan. LABek, bere aldetik, askoz modu sakonagoan garatu zuen elkarlan boterea, hasieran langile mugimendu bateratua eratzeko ahaleginak egitean eta, geroago, KASen sartzean eta plataforma horretako gainerako eragileekin aritzean.

Botere asoziatiboari dagokionez, lehentasunezko garrantzia eman zion ELAk botere mota horri, antolakuntza eraginkorra eta era askotako zerbitzuak eskaini baitzizkien langileei. Hain zuzen ere, afiliazioa zen ELAren indarraren erdigunea, botere antolatzailearekin osatuta. LABek, ordea, garrantzi handiagoa eman zien militantziaren grinari eta mobilizazio ahalmenari, sindikatuaren beraren gaitasunen eta baliabideen garapenari baino. Hala ere, hazi ahala, ahalegin handiagoak egin zituen afiliatuak lortzeko lanetan.

Botere antolatzaileari dagokionez, zeresanik ez, ELAk hasiera-hasieratik landu zuen ardura handiz bere antolakuntza ahalmena. LAB, ostera, ildo politiko-sindikala finkatzen ibili zen lehen urteetan, eta askoz gehiago kostatu zitzaion antolakuntza-eredu eraginkorra garatzea eta egonkortzea. Bestalde, nahiz eta klandestinitatearen garaian egitura lurraldean oinarritu zuen, legeztatua izan ondoren egitura sektorialean jarri zuen ELAk bere jardura antolatzailearen gunea. LABen antolakuntza, aldiz, lurralde-egituran

oinarritu zen gehienbat, haren izaera soziopolitikoari hala baitzegokion. Izan ere, LAB sindikatuarentzat negoziazio kolektiboa ez zen hain zentrala izan lehen urteetan.

Aipatu diren ezaugarrien ondorioz, aztertutako hamarkada horietan botere sindikala indartzeko jarritako estrategiak guztiz kontrakoak izen ziren euskal sindikatu bietan.

1. ELAk hasieratik eman zion lehentasun osoa langileak *antolatzeari*, hau da, afiliatuak era proaktiboan lortzeari. LABek ezker abertzalearen printzipioekin kontsekuentea eta konprometitua zen militantzia baten indarra baliatu zuen. Eta bere izaera soziopolitikoarekin bat eginez, langileez arduratzeaz gain, arreta eskaini zien gizartean baztertutako gizarte kolektiboei.
2. Biak agertu ziren kritiko *kooperazioaren* estrategiarekin, baina ELAk Eusko Jaurlaritzarekin zeuzkan harreman onak aprobetxatu zituen, lan harremanetarako esparruaren eraketari begira. LABek ez zuen horretarako aukerarik eduki.
3. Hasiera hasieratik, LABentzat ELArentzat baino garrantzitsuagoa izan zen bere *ildo politikoa* zehaztea eta argi uztea; ELAk definizio politiko hori baztertzen ez bazuen ere, askoz zentratuago egon zen ekintza sindikalean.
4. ELAk askoz jarrera proaktiboagoa izan zuen *egiturak berregokitzeko* unean, Aldiz, LAB atzeratuago ibili zen beren egiturak eraikitze eta egokitzeko lanetan, eta testuinguruak hala behartu zuenean baino ez zion ekin antolakuntzaren egituraketari. ELAk, legeztatua izan ondoren, bere egitura profesionala finkatu zuen lehendabizi, eta geroago saiatu zen egitura interprofesionalari arreta handiagoa eskaintzen. Ildo horretan, LABek kontrako ibilbidea egin zuen.
5. *Aliantzak* sortzeko unean, argi dago LABek ELAk baino askoz garrantzia handiagoa eman ziela haiei. Ezker abertzalearen barnean zuen kokapenak ere lagundu zuen jarrera horretan. Ostera, ELAk nahiago izan zuen bere indar propioak erabiltzea, eta «instituzio» izaera hartzea, gizarte mugimenduarena baino. Gainera, itzelezko munta eman zion bere autonomiari.
6. *Nazioarteko elkartasunari* dagokionez, ELAk lotura gehiago izan zuen EurSKrekin, lehendik zuen ibilbideagatik. Sortu berria izanik, LABek harreman gutxiago garatu zuen nazioarteko sindikatuekin. Hala ere, globalizazioa areagotuz joan zenean, pisu handiagoa eskaini zion nazioarteko arloari, eta MFSren kontaktu

batzuk egin zituen. Haatik, praktikan, oso eragin gutxi izan zuen sindikatu horren nazioarteko ekintzak.

7. Bi sindikatuen arteko alde handia dago ekintza sindikalak haietan hartutako moldeetan ere. ELAk sindikalismoaren ohiko *borroka moldeak* erabili zituen, eta haren ekintzaren ahaleginak negoziazio kolektiboan biltzen ziren. LABek ekintza oldarkorrakoak babestu zituen, negoziazioa bigarren maila batean utzita. Biek ala biek zuten itun sozialei buruzko jarrera kritikoa, baina arrazoi ezberdinak zeuden partekaturiko jarrera horren oinarrian. ELAk argudiatu zuen autonomia sindikalaren printzipioa erasotzen zutela itunek. LABi zegokionez, ordea, sindikatuak orokorrean zeukan hausturaren eta konfrontazio estrategiaren aldeko jarreraren ondorio zen adostasun politiken aurrean agertutako iritzia. Gainera, nahita ere, lehen urteetan LABek ez zuen elkarrizketa mahaietan parte hartzeko aukerarik izan, ordezkaritza-maila baxua zeukalako.

10.1. Taulan bi sindikatuek beren interpretazio markoetan darabiltzaten hitz eta ideia nagusiak jaso ditugu. Hala, begiratu azkarrez ikusi ahal ditugu zenbait gako. Esaterako, nabarmena da LABen oldarkortasuna eta sistema osoaren kontra erabiltzen duen diskurtso soziopolitikoak, lan mundutik haratagoko gai politikoak barnean hartzen dituen. ELAren diskurtsoa, aldiz, lanaren esparruan zentratzen da, sindikatu-eredu tradizionalari dagokion eran. Hartara, diskurtso askoz erredukialagoa da LABek garaturikoa, baina gutxiago sakontzen du lan mundukoak diren gai espezifikoen lanketan.

10.1. ELAren eta LABen hitz gakoak eta ideia nagusiak (1976-1989)

1976-1989		ELA	LAB
Koiuntura	<i>Egoera politikoa</i>	Ezegonkortasuna, sakontsaun falta, kontsentsu politika	Frankismoa, oligarkia, erreformismoa, gatazka
	<i>Lan harremanak</i>	Erreforma sindikala, zentralismoa, itun sozialak, ahultasuna	Erreformismoa, zatiketa, kontzertazioaren porrota, «amarillismoa», apolitizazioa, desmobilizazioa
	<i>Egoera ekonomikoa</i>	Krisia, langabezia, inflazioa, neoliberalismoa, lanaren malgutzea	Krisia, langabezia, inflazioa, burgesiaren irabaziak, oligarkia

	<i>Eraketa instituzionala</i>	Autonomia Estatutua, lan harremanen markoa, LHK, EGAB	Autonomia Estatutuaren baliogabetasuna
Egitura		Kapitalismoa, krisia, lan merkatuaren malgutzea, kontratu moten ugaritzea, ETEak, zerbitzu sektorea, gazteak, mundializazioa, indibidualizazioa	Klase- eta nazio-zapalkuntza, oligarkia, euskal langileen borrokazaletasuna, neoliberalismoa, zerbitzu sektorea, espekulazioa, inperialismoa, pozoitze ideologikoa, enpresa estrategia berriak, ENAM faktore politizatzaile gisa, emakumeen zapalkuntza bikoitza
Norberaren jardueraren balorazioa		Harrotasuna, errealismoa, eraginkortasuna, izaera irekia, egokitzeko zailtasunak	Noraeza (hasieran), harrotasuna, erreferentzia-poloa, izaera soziopolitikoa
Printzipio eta helburu ideologikoak		Sozialismoa (hasieran), demokrazia, independentzia, Euzkadi librea, gizarte justu eta solidarioa	Klase sindikatua, sozialista, abertzalea, iraultzailea, asanblearioa (hasieran), unitarioa (hasieran), izaera soziopolitikoa
Aldarrikapen eta esku hartze eremuak	<i>Soldatapeko lan eremua</i>	Enplegua, erosahalmena, zurruntasuna	Erosahalmena, lanpostuak, zurruntasuna
	<i>Eremu soziopolitikoa</i>	Demokrazia, autogobernua, lan harremanen esparru propioa, denbora librea, ondasunen banaketa justua	Haustura demokratikoa, subiranotasuna, ekonomia planifikatua, borroka ideologikoa, askotariko gai sozialak (hezkuntza, etxebizitza, euskara...), gazteen eta emakume langileen egoera
Antolakuntza		Afiliazio masiboa, antolakuntzaren sendotasuna eta zentralizazioa, zerbitzuak eta baliabideak, autonomia, egitura sektoriala, enpresa-maila	Noraeza (hasieran), lurralde egituren nagusitasuna, militantzia kualitatiboa (ez afiliarioari loturikoa), funtzionamenduaren hutsuneak

Aliantzak	Autonomia, oinarri propioetan finkatuta, Eusko Jaurlaritza	Planteamendu asanblearioa eta unitarista (hasieran), KAS
Ekintzen errepertorioa	Negoiazio kolektiboa, itun sozialekiko kritikotasuna, ekintza instituzionala	Eraginkortasuna, oldarkortasuna, konfrontazioa, mobilizazioa, negoziazioaren kontraesanak, ukaziotik pragmatismora ekintza instituzionalean, borroka armatuaren zilegitasuna
Interpelatutako gizarte kolektiboak	Soldatadunen zentraltasuna, gazteak, pentsionistak, zerbitzuetako eta ETEetako langileak	Langile klasea adiera zabalean, kooperatibistak, gazteak, emakumeak (etxeke langileak ere), elbarriak, homosexualak, preso sozialak, jubilatutakoak, nekazariak

Egileak osaturikoa.

11. KASU AZTERKETA: 1990EKO HAMARKADA

ELA 1990EKO HAMARKADAN

1988an zuzendaritzan izandako aldaketak ahalbidetuta, 1990eko hamarkadak berrikuntza sakonak ekarri zituen epe ertainean ELAren funtzionamendura. Hala, 1998ko barne krisi hark lehen unean ia ez zuen eraginik izan sindikatuaren barruan; aitzitik, hainbat aldaketa ahalbidetu zituen gerora. Horiek horrela, batzuen ustetan, 1993ko kongresuak izaera «birfundatzailea» izan zuen sindikatuarentzat (Dufour et Hege, 2009), eta goitik behera eraldatu zuen haren jokamoldea.

DIAGNOSTIKO MARKOA

Koiuntura

Egoera politikoa: SESBen¹²⁸ gainbehera eta globalizazio neoliberalaren defizit demokratikoa

Arestian aztertu ditugun urteetan Espainiako Estatuaren erreformak eta autonomi erkidegoen eraketak erabat baldintzatu zuten ELA eta LAB sindikatuen ibilera. Ondorioz, batik bat tokiko gertakariei begira garatu zuten beren jardura bi sindikatuek lehen ziklo horretan.

Gauzak, baina, guztiz aldatu ziren 1990ko hamarkadan. Izan ere, hamarraldi horretan mundu esparruko gertakariak gero eta toki handiagoa hartuz joan ziren koiuntura politikoan. Besteak beste, SESBen gainbeherak erabat baldintzatu zituen nazioarteko mapa, geostrategia eta politikagintza, baita sindikalismoaren zatiketa ideologikoa areagotu ere. Euskal Herriari begira, gertakari historiko hark nazionalismo sezesionistak berpiztu zituen, eta nazioarteko esparruan gauzaturiko estatu berrien sorkuntzak aukerak ireki zizkion euskal abertzaletasunaren nazio aldarrikapenari. Geroztik, pixkanaka bazen ere, bestelako perspektibak berenganatu zituen euskal abertzaletasunak. Horrela, «demokrazia» eta «autodeterminazio eskubidea» moduko kontzeptuek toki handiagoa hartuz joan ziren haren diskurtsoan (Etxebarria, 2018). Aldaketa horrek ELAn ere izan zuen eraginik (ELA, 1990b). Eraginaren emaitzetako bat abertzaleen arteko «fronte amankomunaren» ideia berreskuratzea izan zen (ELA-Astekaria, 1991)

¹²⁸ Sobietar Errepublikak Sozialisten Batasuna (frantsesez: Union des Républiques Socialistes Soviétiques (URSS))

Bestalde, estatu esparruan joera neozentralistak indartu ziren atzera ere (ELA, 1993), eta nazio auziak garrantzi handiagoa hartu zuen euskal politikan eta gizartean. Horregatik, atal honetan, lan harremanen aurretik eraketa instituzionalaren prozesua aurkeztuko dugu. Izan ere, aurreko hamarkadarekin alderatuta, sakonagoa izan zen auzi soziopolitikoen eragina hala lan harremanetan nola ekintza sindikalean.

SESBen gainbeheraren ostean, mundializazio edo globalizazio *prozesuek* itzelezko abiadura hartu zuten, eta politika neoliberalak zabaldu zituzten Estatu barruan ez ezik nazioarteko esparruan. Izan ere, jadanik merkatuak eta truke ekonomikoak ez ziren gehiago Estatu esparrukoak, mundu eremukoak baizik.

Prozesu horiek guztiak hartu zituen aintzat ELA sindikatuak bere gogoetan, eta kritikatu egin zituen. Era berean, sindikatuaren aldetik egindako beste kritika batzuk ere areagotu ziren, hain zuzen ere, instituzio politikoek egoera berrian erakutsi zuten demokrazia gabeziari eta subiranotasunaren galerari zuzendutakoak. Izan ere, globalizazioarekin batera garatutako politika neoliberalak finantza kapitalari eta eragile transnazionaleri egin zioten mesede, gizartearen nahiz langileen interesen kaltetan (ELA, 1997: 15-16). Eta, hala ere, estatuetakoa gobernuak nahiz botere autonomikoak ildo neoliberalerako politikak egikaritzen hasi ziren.

Azkenik, pentsa liteke Euskal Herrian hamarkada horretan oraindik irauten zuen gatazka nazionalak ere (beren adierazpen armatuak barne) erakarri behar zuela sindikatuaren arreta eta haren ondoriozko gogoeta. Eta hala izan zen. Eta gatazka horretan ere, ELAk bere tokia eta ikuspuntua indartzeko ahaleginak egin zituen, lehiakide zuen LABen (eta ezker abertzalearen) aurrean. Ildo horretan, deigarria da aipatu gogoetari buruzko ELAren epealdi honetako dokumentuetan ezker abertzalearen eta Estatuaren arteko konfrontazioaren aipamenik 1997ra arte agertu ez izana (ELA, 1997: 41-44). Omisio hori lehiaren koordenadetan interpretatu daiteke; hain zuzen ere, nazioaren auzi politikoan ELAk ez zion ezker abertzaleari protagonismorik aitortu nahi. Azken finean, gatazka nazionalaren inguruko ikuspegi lehiakorrek zituzten maila politikoan, eta esparru sindikalean LABekin norgehiagokoa ibili behar zuen ELAk.

Eraketa instituzionala: nazio arazoaren sakontzea

ELAren gogoetan jasotzen denez, erkidegoaren autogobernuaren eraketan aurrerapauso batzuk eman baziren ere, eskumenen transferentziarako prozesua *impasse* egoeran sartuta zegoen 1990eko hamarraldian, atzera egiteko arriskuarekin, gainera. Bestalde, lan

esparruan ere autogobernuaren egoera tamalgarria zen: eskumen legegilerik ez, eta eskumen betearazlea zabaltzeko ahalegin gutxi gobernuen partetik, ELAren irakurketaren arabera. Hala ere, LHKren eraketak aurrerapauso esanguratsua ekarri zuen, nahiz eta oraindik ez zuen askorako balio izan, patronalaren, UGTren eta CCOOren interes faltagatik. Nafarroan, berriz, indar abertzaleak gutxiengoa ziren eta, hortaz, beste modu batera jardun behar zuten (ELA, 1990b: 13-14, 17).

Autogobernuaren blokeoaren testuinguruan, nazio gatazka areagotuz zihoan, instituzioak ez baitziren errealitate politiko, sozial eta sindikalera egokitzen, sindikatuaren aburuz. Botere autonomikoaren geldiunearekin batera, Europako ekialdeko prozesu sezesionistek ere lagundu zuten mugimendu abertzalea berrindartzen. Horiek horrela, 1993an autogobernu prozesuari buruzko iritziak okertuz joan ziren ELAren azterketan. Egoera «negargarria» zen, sindikatuaren ustez; izan ere, eskumenen transferentziak geldituta zeuden, eta Espainiako gobernuak ez zituen estatu akordioen aurrekontuak errespetatzen. Eusko Jaurlaritzan PSE¹²⁹ sartu izanak (gai soziolaboralen arloan, gainera) are gehiago zapuztu zituen itxaropenak, eta sarrera horri leporatu zion ELAk autogobernuan izandako atzerakada (ELA, 1993: 59, 61). Bestalde, Espainiaren integrazioak Europar transferentziak berreskuratzeko aukerak ireki bazituen ere, Estatuaren jarrera kontrakoa izan zen (ELA, 1993: 71).

1997an goitik behera aldatu zen ELAren ordura arteko autogobernurako bide estatutarioari buruzko jarrera. Une horretara arte, «abiapuntu baliagarritzat» jo zuen sindikatuak estatutuaren tresna, bai autogobernuan sakontzeko bai lan harremanetarako esparru propioa eratzeko. Baina, urteek aurrera egin arren, egoera instituzionala ez zen errealitate sozialera eta sindikalera egokitu (ELA, 1997: 40), eta Estatuaren inguruko ikuspegia aldatu egin zuen ELAk. Hain zuzen ere, sindikatua gogoeta prozesu horretan ari zela egin zuten ELAk eta LABek 1995eko euskal Aberri Eguneke Adierazpen bateratua. Bertan, eraikuntza nazionalaren eta autodeterminazio eskubidearen aldeko apustua eta konpromisoa adierazi zuten, baita kritika ugari jaso ere (Letamendia, 2004: 167; Kortabarria, 2015: 127-130). Etsipena gero eta era agerikoagoa zen ELAn, eta azkenean, Estatuaren bidea «hilik» zegoela baieztatu zuen (ELA, 1997: 39, 43).

Ordura arte, Estatuaren alde lerrokatutako abertzaletasuna ekintza instituzionalera mugatu zen, eta autogobernuaren eskumenen kudeaketara. Horrela, uko egin zion tentsioa

¹²⁹ Partido Socialista de Euskadi.

eta mobilizazio soziala erabiltzeari, eta bide instituzionalak jorratu zituen. Bestalde, bide autonomikoa ontzat hartu ez zuen abertzaletasunak borroka armatura edo haren defentsara jo zuen, eta erresistentzia posizioetan kokatu zen (ELA, 1997: 41). Ondorioz, muturreko bi jarrera horiek helburu abertzaleen lorpenak blokeatu zituzten, ELAren iritziz (1997: 40).

Lan harremanak: zentralismoaren eta abertzaletasunaren arteko talka eta aliantza berriak

Urte hauetan, lan harremanen eredu zentralista ezarri izanak ELAren ezinegona areagotu zuen. Gainera, itun sozialek aldean arteko negoziaketarako autonomia kolektiboa kaltetu zuten, eta, modu horretan, negoziazio kolektiboaren ahalmena mugatu. Hortaz, CCOO eta, batez ere, UGT sindikatuei buruzko areriotasuna handituz joan zen ELAren barruan. Besteak beste, eredu zentralistaren eta interbentzionistaren kolaboratzaileak izatea egotzi zien ELAk sindikatu horiei, baita dependentsia sindikala sustatzea ere (ELA, 1990b). Dena den, ezin da ahaztu 90eko hasieran elkarrizketa soziala etenda zegoela. Baina, hala ere, CCOO eta UGT sindikatuak sinaturiko Estatuko hitzarmen sektorialek behe-mailako negoziazioa oztopatzen jarraitzen zuten (ELA, 1990d: 8; ELA-Astekaria, 1992a). ELAren iritzitan, eredu zentralistak eta autonomia kolektiboaren errespetu ezak ahuldu egin zituen hala negoziazioa kolektiboa nola sindikalismoa bera (ELA batez ere). Ondorioz, Euskadin negoziazio sektoriala mantendu bazen ere, aurrerapen gutxi izan zuen.

Hala ere, aldaketa guztiak ez ziren lan harremanen zentralizazioaren norabidean gertatu. 1994ko Langileen Estatutuaren erreformak 84. artikularen aldatu zuen, eta Estatu mailako elkarrizketa sozialak etetea ahalbidetu. Artikulu berriak hitzarmenen «eraiopen autonomikoa» baimentzen zuen, eta berme gehiago ematen zuen hitzarmenak erkidegoan negoziatzeko (Unanue, 2002: 176-192). Baina, lorpen hori salbuespena baino ez zen izan, orokorrean zentralizazioa baitzen joera nagusia. Ildo horretan, UGT eta CCOO sindikatuak artikulu berriaren kontra azaldu ziren, negoziazioa atomizatzen zuelakoan, eta negoziazioaren zentralizazioa bultzatu zuten atzera ere (ELA, 1997: 78-79).

Sindikalismo eredu ezberdinen arteko talka *Prestakuntza Jarraitua* egituraketan azaleratu zen berriro. Izan ere, prozesu luze baten ondoren, CCOO eta UGT sindikatuak prestakuntza jarraitua bultzatzeko sortu zuten *Hobetuz* fundazioaren finantzazioa ezerezean geratzea lortu zuten, ELAk eta LABek ezarri gura zuten kudeaketa eredu

interesatzen ez zitzaielako (Unanue, 2002: 206-218)¹³⁰. ELAk oso gaizki hartu zuen CEOE¹³¹ patronalak, eta CCOO eta UGT sindikatuak ezarritako blokeo hura: «berriro ostu digute» adierazi zuen sindikatuak (Landeia, 1997). Era berean, etengabeko prestakuntzaren inguruko tira-birek lan harremanen ereduaren inguruko gatazka azaleratu zuten, bi zentzutan azaleratu ere: alde batetik, zentralismoaren eta marko propioaren arteko gatazka, eta bestetik, sindikatuen finantzazio ereduaren ingurukoa.

Nafarroan oso bestelakoa zen abertzaletasunaren indar soziala zein instituzionala. Sindikatu abertzaleek bazuten errotze maila onargarria, baina erabaki markoetatik baztertu egiten zituzten (ELA, 1997: 40, 50). Hortaz, ELAk oso ahalmen gutxi izan zuen lurralde horretan eragiteko.

Hamarkada honetan ELAn gertatu zen aldaketaren barruan, erabakigarria izan zen ELAk eta LABek beren artean hasitako elkarlan harremana. Aurretik ELAk ez zuen LAB ezertarako kontuan hartzen, baina jarrera aldatuz joan zen LABek tamaina esanguratsuko ordezkagarritasuna lortzean, eta, aldi berean, ELAk CCOO eta UGT sindikatuarekin zituen desadostasunak areagotuz joan zirenean. Hori zela-eta, zenbait ekimen bateratu egin zituzten ELAren eta LABen artean, gero eta erabakigarriagoak: Lan Harremanetarako Euskal Markoaren aldeko manifestazioa 1994ean, Gernikako Aberri Eguneko Adierazpen bateratua 1995ean eta presoaren eskubideen aldeko akordioa 1996an (ELA, 1997: 80). Azkenik, LABekiko aliantza modu estrategikoagoan planteatu zen 1997an, euskal gehiengo sindikala indartzeari begira (ELA, 1997: 88). Izan ere, ordurako EAEko delegatuen gehiengoa biltzen zuten ELAk eta LABek. Hartara, indar korrelazio berriak aukera eman zien bi sindikatuari lan eremuko blokeo egoera gainditzeko eta lan harremanen marko propioa eratzeko.

Hala ere, ez ziren gutxi bi sindikatuen arteko mesfidantzak eta desadostasunak. Alde batetik, ELAk oso begi txarrez ikusten zuen LABek ETA erakundearekin zeukan lotura. Beste alde batetik, LHKri buruzko inhibizio eta boikot jarrerak leporatu zizkion LAB sindikatuari; hala ere, positibotzat jo zuen PRECOren negoziaketetan sartu izana (ELA, 1993: 85).

¹³⁰ Prestakuntza Jarraituaren eta Hobetuz fundazioaren eraketa-prozesutik sortutako gatazka oso korapilotsua izan zen. Haren nondik norakoak hobeto ezagutzeko, jo Unanuearen liburura (2002: 206-2018).

¹³¹ Confederación Española de Organizaciones Empresariales, Espainiako Estatuko enpresak ordezkatzeko dituen antolakundea.

Lan harremanen testuingurua desegokia izan arren, 1994 lan erreformaren 84. artikulua sortutako auzia kenduta, negoziazio kolektiboak beste tokietan baino jardura ekonomiko zabalagoa barnebildu zuen erkidegoan, haren hedadura soldatapekoen %97,6ra heltzen baitzen, eta hitzarmenen gehiengoa EAEn negoziatzen zen, 1997 urtean ELAk adierazi zuenaren arabera. Horrek Hego Euskal Herriak zuen erro sindikal sendoa azaleratu zuen (ELA, 1997: 74-75). Ildo beretik, Hego Euskal Herrian zegoen afiliazio tasa inguruko herrialdeetako baino nabarmen altuagoa zen (%21), eta, EAEn behintzat, ukazina zen ELAren protagonismoa ekintza sindikalean (ELA, 1997: 85). Beraz, bazeuden oinarri subjektibo onak negoziazio kolektiboa garatzeko.

ELAren ustez, urte horietan Confebask euskal patronalaren antolakuntzak modu kontraesankorrean jokatu zuen lan harremanen markoari nahiz negoziaketa kolektiboari buruz. Itxuraz, jarrera baikorra zuen EAeko marko propioari zegokionean, eta, Espainiako CEOE patronala ez bezala, 84. artikulua alde lerrokatu zen. Hala ere, negoziazioarekiko interes faltaren eta barne kontraesanen ondorioz, bere ekimena oso mugaturik geratu zen (ELA, 1993; 85, 1997: 52, 81).

Azkenik, ELAren diskurtsoaren arabera, Europan integratzeak arazoak ekarri zituen lan harremanen arlora. Izan ere, Europak ahalbidetutako kapitalaren zirkulazio librea kaltegarria zen sindikalismoarentzat, eta atzerakada eragin zezakeen esparru sozialean. Aldi berean, Europan egoteak aukerak eskaini zituen europar sindikalismoari begira. Esaterako, EurSK-k sustatutako «Oinarrizko Eskubide Sozialen Gutun Komunitarioaren» aurreproiektua onartu zuen ELA sindikatuak (ELA, 1990d: 28)¹³². Gutun horrek soldatapeko lan baldintzak hobetzeko zenbait neurri biltzen zituen; hala, eskubide *laboralen* gutun bat zen, eta ez eskubide sozialena. Halaber, gutunak baieztatu zuen auzi sozialen muina lana bera zela; hartara, bete-betean adierazten zuen lanaren zentralitatearen ideia.

Ñabardurak ñabardura, testuinguru instituzionala oso liskartsua izan zen ELArentzat 1990ko hamarraldian. Izan ere, haren ahalmen instituzionala ez zetorren bat berorren ordezkari mailarekin.

¹³² Frantsesez, «Charte communautaire des droits sociaux fondamentaux des travailleurs», 1989ko abenduaren 9ko Europako Kontseiluan onartutako gutuna da. Bertan, Eurppar Batasuneko langileen zenbait eskubide sozial aitortzen ziren.

Egoera ekonomikoa: langabezia eta prekarizazio estrukturalak

1990ean ELAren Kabinete Tekniko sortu berriaren txostenean oso modu zehatz eta garatuan aztertu ziren 1990eko politika ekonomikoen nondik norakoen adierazleak, ekonomiaren gorabehereri emandako garrantziaren seinale, sindikatuak zioenez, «koiuntura ekonomikoak eragin zuzena baitu ekintza sindikalean» (ELA, 1990c: 7).

Ekonomiak hobera egin zuen 1990ean, eta aukerak ireki zizkion sindikalismoari jarrera defentsibotik ekimen ofentsibora igaroteko, eta soldaten erosahaltenaren igoera eskatzeko, besteak beste. Baina, inbertsioek ez zuten esperotako onura ekarri, eta enpleguari eta soldadari lotutako adierazleek txarrak izaten jarraitu zuten, inbertsioak espekulazioan oinarrituta baitzeuden. Hori zela-eta, irabazietan jazotako hobekuntzak ez ziren langileen lan- eta bizi-baldintzetan islatu, eta langabeziak eta prekarizazioak beren horretan jarraitu zuten, ELAren diagnostikoaren arabera (ELA, 1990c). Soldadak eta enplegua ziren arazo sozialaren muina, haren ustetan. Era berean, fiskalitateari eta gastu sozialari gero arreta handiagoa eskaini zien sindikatuak, langileen kolektibo guztien bizi baldintzak bermatzeko ezinbestekoak zirelako (ELA, 1990c, 1993).

Hortxe ikusten dugu lanak bere funtzioak betetzeko agertu zuen ezintasun estrukturalaren adierazpena. Izan ere, krisi koiunturala gainditurik zegoen arren, langile klasearen bizi baldintzek ez zuten hobera egin. Kontraesan horrek lanari lotutako egiturazko arazo baten berri ematen zuen, hain zuzen ere, *lanaren krisiarena*. Ezintasun horren aurrean, fiskalitatea eta gastu soziala pisu handixeagoa eskuratuz joan ziren (adb. ELA, 1990c, 1993) langileen bizi baldintzak hobetzeko faktore moduan.

1993an txarrera jo zuen berriro ekonomiak. Bat-batean areagotu egin zen langabezia. Bada, gobernuen politika neoliberalak irabazi azkarrak eta errazak bultzatu zituzten, operazio espekulatiboetan eta finantzarioetan oinarrituta (ELA, 1993: 102). Aurreko hamarkadako krisiak industria kolpatu bazuen, hamarkada honetan sektore guztietan eragin zuen (ELA, 1993: 37). Hori zela eta, emakumeak eta gazteak izan ziren lehen kaltetuak, haiek kaleratzen baitzituzten lehenengo; sindikalizazio mailarik apalena zuten sektoreak ere baziren, hatara, zaurgarrienak lan merkatuan. Horrez gain, aurretiko erretiroak ere ugartu egin ziren. Ondorioz, esfortzu berezia egin behar izan zuen ELA sindikatuak bere oinarri sozial klasikotik (batik bat, industria-langile ziren gizonak) haragoko kolektiboen egoera espezifikoei erantzuna emateko. Bestalde, urte horietan gertaturiko enpresa txikien hazkundeak zaildu egin zuen ekintza sindikala (ELA, 1993).

Ildo horretan, sindikatuak ikusi zuen globalizazioaren prozesuak gero eta gehiago baldintzatzen zuela Estatuko zein euskal lurraldeetako egoera, hark eragindako krisi egoera aitzakia moduan baliatzen baitzuten gobernuek politika neoliberalak aurrera eramateko, eta sindikalismoaren presio ahalmena kaltetzeko (ELA, 1997: 6, 73).

Egoera ekonomiko latzaren aurrean, industria-egiturak beste birmoldaketa sakon bat sakona behar zuen, eta Estatuko nahiz erkidegoko gobernuen politikak ez ziren horretarako egokiak. Halaber, bistan zen krisia ez zela soilik koiunturala, eta langabezia eta kontratazioen prekarizazioa jazoera estruktural bihurtu zirela. Hori dela-eta, atal honetan azaldutako zenbait ideia egiturazko markoetan agertuko dira berriro.

Egiturazko diagnostiko markoa: gizarte paradigma berriaren egonkortzea

Sindikatu moduan, lan harremanen inguruko interesen arteko gatazkan kokatzen zuen ELAk bere jarduera. Baina, sindikatuaren jarduera esparrua lurraldeari zegokionez, Hego Euskal Herria zen. Eta, tradizioz ere, sindikatu abertzale gisa sortu eta garatu zuen bere ibilbidea. Urte hauetan, nazioarteko nahiz tokiko zenbait gertakarik nazio auziaren berpizkundea ekarri zuten euskal gizartera, hala nola, Europako ekialdeko herrialdeen sezesio prozesuek, autogobernurako bide estatutarioaren blokeoak eta Europar integrazioak sortutako defizit demokratikoak. Ildo horretatik, nazio aldarrikapenak eguneratu egin ziren euskal gizartean ere, eta diskurtso mailan eguneratze hori autodeterminazio eskubidearen eskarian eta sakontze demokratikoren exigentzian islatu zen, besteak beste. Bestalde, tolerantziak, elkarrizketak, begiruneak eta antzeko balioek pisu handiagoa hartu zuten diskurtso abertzalean eta, beraz, borroka armatuari buruzko jarrera kritikoagoa zabaldu zen euskal gizartean (ELA, 1993: 58). Era berean, nazio auziaren berragerpenak Hego Euskal Herriko sindikalismoaren zatiketa eta polarizazioa ekarri zuen: alde batetik, lan harremanen marko propioaren aldeko sindikatuak zeuden eta, beste aldetik, eredu zentralistagoaren aldekoak.

Bestalde, jarduera sindikala zuzenean baldintzatzen zuten aldaketa oso sakonak gertatu ziren ekonomian, lanaren munduan eta, orokorrean, gizartean. Arestian aipatu dugunez, globalizazio prozesua izugarri bizkortu zen SESBen gainbeherarekin eta Europako integrazioan emandako aurrerapausoekin batera. Lehenik, arlo ekonomikoan, globalizazio prozesuak ekonomiaren eredu neoliberalak hartu zuen oinarri. ELAren ustetan, horrek langile klasearen bizi maila kaltetu, eta desoreka sozial sakonak sortu zituen, nahiz eta enpresa-irabaziak igo egin ziren (ELA, 1990a: 29, 1997: 12, 16). Lan merkatuaren malgutasuna eta desarautzea eskatzen zuen lanaren antolakuntza

posfordista, enpresen deslokalizazioa, langileen babesik eza eta mugikortasuna izan ziren, besteak beste, kalte horietako batzuk. Bigarrenik, Europaren integrazio prozesuak norabide hori elikatu zuen. Izan ere, Espainiako Estatua EEEn sartzea aitzakia izan zen harrezkerotik langile klaseari kaltea ekarri zioten neurriak ezartzeko: behin-behineko lanaren normalizazioa, prekarietatea, kotizazio sozialen eta zergen izaera erregresiboa, politika sozialen murrizketa, eta abar. Horiek horrela, globalizazio neoliberalak bete betean eraso zituen sindikatuak eta posizio defentsiboan kokatu zuen sindikalismoa (ELA, 1997: 16-17, 69).

Hori gutxi ez eta enpresetako berrikuntza teknologikoen eta antolatzaileek areagotu egin zuten langabeziaren, behin-behinekotasunaren eta prekarietatearen egoera, ELA sindikatuaren arabera. Espainiar Estatuan bereziki eskandaluzko bihurtu zen botere sindikala ahultzen zuen lanaren behin-behinekotasun tasa (ELA, 1993: 18-19).

ELAk bere dokumentuetan jaso zuenez, epealdi honetan enpresa handiak gutxitu eta txikiak ugaritu egin ziren Hego Euskal Herrian. Aldaketa horrek sindikalismoaren indar soziala gehiago ahultzen lagundu zuen. Izan ere, enpresa handietan errazagoa zen langile masak mobilizatzea eta patronala presionatzea. Harrezkerotik baina, langileak enpresa gehiagoan banatuta zeudenez, zailagoa izan zen sindikatuentzat langileen sektore zabaletara heltzea. Autonomo faltsuak ziren langileei zegokienez ere, sindikatuak itzelezko arazoak zituzten horien baldintzak defendatzeko, ez baitziren soldatapeko langile moduan agertzen (ELA, 1997: 18-20).

Soldatapeko gazte eta emakume langileek modu berezian pairatu zituzten berrikuntza horien ondorioak. Sindikatuak nabarmendu zuenez, emakume langileen kasuan, (soldatapeko) lan merkatuan sartzeak ez zuen haien bazterketa egoera konpondu (ELA, 1993: 121). Aitzitik, lanaren banaketa patriarkalaren ondorioz, lanaldi bikoitzak eta ezkutuko lanak emakumeen esplotazio egoera okertu zuten (ELA, 1993: 30).

Gizarteari zegokionez, ideologia neoliberalak sustatutako sindikalismoaren kontrako gero eta jarrera argiagoak aurkitu zituen ELAk gizartean islaturik (ELA, 1990b: 27-28). Izan ere, pentsamolde neoliberalak ekonomia eta lehiakortasuna sakralizatu eta justiziaren eta elkartasunaren printzipio etikoak baztertu zituen. Ondorioz, kultura hori barneraturik, gizartearen atal gero eta handiago bat zalantzan jartzen hasi zen negoziazio kolektiboaren balioa eta zilegitasuna, eta konponbide indibidualak lehenestera iritsi zen. Sindikatuak zioenez, arazoen aurrean, elkarlana baztertzeko eta baitaratzeko joera ari zen

nagusitzen langileen partetik ere, larrialdi egoerari kolektiboki erantzun ordez (ELA, 1997: 69-71). Belaunaldi berrien kasua bereziki kezagarria zen sindikatuarentzat: gazteen %50 langabezia egonda ere, elkarte sozialekiko eta asoziazionismoarekiko eszeptizismo eta mesfidantza handiak garatu zituzten (ELA, 1993: 120-121).

Laburbilduz, bada, aipaturiko aldaketa estruktural horiek erronka sakonak ekarri zituzten mugimendu sindikalaren osotasunari.

Enplegu falta izanda, ELAren ustez, «euskal gizartearen funtsezko arazoa» (ELA, 1997: 53), haren prekarizazioak arazo erantsia zekarren maila sozialean. ELAren hitzetan, «Kulturalki lanean oinarritutako gizarte batean, zeinetan lana integrazio sozialerako oinarritzko elementua den», langabeziak eta prekarietateak oso modu negatiboan eragin zuten gizartearen ongizate materialean zein norbanakoen autoestimuan, horrek dakartzan arazo sozial guztiekin. Hala, ELAk aletu zuen bezala, egoera sozialak krisi estruktural laukoitza eragin zuen: 1. Belaunaldi krisia; 2. Gizarte krisia; 3. Sistemaren krisia; eta 4. Proiektu kolektiboaren krisia (ELA, 1997: 27-28). Hartara, aldaketa horiek bazuten osagai kultural garrantzitsua ere. Bada, langabeziak eta prekarizazioak pentsamolde jakin bat sustatu zuten, langileak beren burua bakartzera bultzatzen zuena (ELA, 1993: 73). Bestela adierazita, langabeziak eta prekarizazioak ez zituzten «lan- eta bizi-baldintzak» soilik kaltetu. Bizi baldintza materialak ez ezik, elkartasunean oinarritutako kultura sindikala ere hondatu zuten.

Krisiaren lau aurpegi horiek oso lotuta daude «lanaren krisi» gisa definitu dugun prozesuen multzoarekin. Horrenbestez, lanak beren funtzio sozialak bete ez izanak ondorio oso sakonak izan zituen 1990eko urteetako gizartean, bizi-maila materiala okertzeaz harago joan zirenak. Izan ere, etsipenez beteriko klima sozial horretan proiektu kolektiboak –sindikatuena, besteak beste– beren dinamismoa galtzen hasi ziren (ELA, 1997: 27). Beraz, *lanaren krisi* eta *sindikalismoaren krisi* moduan izendatu ditugun prozesuak estuki lotuta daude beren artean, krisi estruktural beraren adierazpenak baitira biak.

Atal honetan jaso den goerari buelta emateko, ELAren ustetan, beharrezko bihurtu zen bestelako gizarte ereduaren jorratzea sindikalismotik, eta, bereziki, ohiko ekintza sindikalera eta negoziazio kolektibora ez mugatzea sindikatuaren eginkizunak (ELA, 1997: 128-129). Ohartzen zuen, gainera, sindikalismo abertzalearen kasuan, deskribaturiko egiturazko zailtasun horiek guztiak gabezia instituzionalei gehitzen zitzaizkiela. Bada,

globalizazio neoliberalak inposatutako neurriak kaltegarriak baziren edozein herrialdetan, Euskal Herriko autogobernu maila eskasak are gehiago zailtzen zuen, ELAren ikuspegitik, egoerari erantzun propioa eta egokia ematea. Hala ere, nazio auziaren inguruko polarizazioak eta horren ondoriozko gizarte politizazioak aukera eman zuten sindikatuaren esku hartzeari bizitasuna emateko.

Norberaren jardueraren balorazioa: sindikatu sendoa baina bere baitan itxia

Urte horietako testuinguru historikoak erronka sakonak ekarri zizkion arren, ELAren afiliazioak eta EAEko hauteskunde sindikaletan sindikatu horrek izandako emaitzek gora egin zuten 1990ean. ELA era duinean jarki zitzairen globalizazioak, politika neoliberalak, indibidualizazio kulturalak eta espainiar zentralismoak ezarritako zailtasun estrukturaleri (lanaren krisiari lotutakoak), politikoei eta instituzionalei. Zailtasunak zailtasun, hazten jarraituko zuela aurreikusten zuen (ELA, 1990b: 34, 1997: 107).

1980ko hamarkadan bezala, honako ezaugarri hauek baloratu ziren hobekien sindikatuaren barruan: antolakuntza-egituraren sendotasuna eta autonomia indartzeko hautua, hurrenez hurren. Ildo horretan, federazioak eta eskualdeak hazi egin ziren, eta emakumeek gizonen bikoitza osatu zuten afiliatu berrien artean (ELA, 1990a: 25, 1997: 6). Hartara, ELAn uste zuten gai izan zirela sindikatuaren egituraketa errealitate aldakorrera egokitzeko, akatsak egin arren. Zuzendaritzan izandako krisiaren kudeaketak berretsi egin zituen egituren sendotasuna, seriotasuna eta heldutasuna (ELA, 1990a: 7).

Azken hari horretatik, lorpen horiek klandestinitatearen garaitik zetorren Alfonso Etxeberriaren zuzendaritzari esker lortu ziren, neurri handi batean, hark ezarri baitzituen 1988arteko agintaldian sindikatuaren oinarriak. 1988an, baina, kargutik egotzi zuten, sindikatua gizartearen aldaketetara egokitzeko erakutsitako ezintasunagatik. Joxe Elorrieta Idazkari Nagusiaren zuzendaritza berriak beharrezko ikusi zuen sindikatuaren perspektiba zabaltzea (ELA, 1990a: 22), autokritika zorrotzagoa berreskuratzea eta konplazentziarako jarrera alboratzea. Horren harrira, Jose Miguel Leunda, Joxe Elorrieta baino lehenagoko presidenteak aitortu zuen ELAk «barrurantz begira» jardun zuela luzaroan. Ildo horretan, sindikatuak behar zuen inguruari eta gizarteari arreta handiagoa eskaini, eta jarrera dinamikoagoa eta ziztatzaileagoa bereganatu (ELA, 1990a: 7, 30). Hala, egiaztatu egin ziren sindikatuaren barne gogoetan aurreko hamarkadan egindako ibilbideari buruz aipatu ditugun ELAren joera desegokiak edo mugatuak: aliantzei ia tokirik eman ez izana, eta beren indar propioekin soil-soilik jardun izana, besteak beste. Aurreko hamarraldiko sindikalismo eredu horrek antolaketa sendoa eta eraginkorra

ahalbidetu zuen, baina gabezia nabarmenak ere sortu zituen sindikatuaren errotze sozialean.

Antolakuntzaren balorazio orokorrak oso onak izan ziren arren, bertan identifikatu ziren sindikatuaren ahulgune gehienak. Izan ere, ordura arte antolakuntzak hartu zuen arreta nagusia estrategia sindikala aurrera eramateko unean (ELA, 1993: 16, 33-34; 1997: 47, 95), eta exijentzia-maila oso altua zen antolakuntzaren arloan.

Afiliazioan eta hauteskundeetan lortutako emaitzek gora egin zuten arren, negoziazio kolektiboari eta lan harremanen markoari 1986 eta 1990ean garrantzi txikiegia eman izana aitortu zuten ELAkideek beren gogoetan. Horren arrazoietako bat negoziazioaren egoera «onargarrizat» jo izana izan zitekeela adierazi zuten (ELA, 1993: 78). Adierazpen horietan, antolakuntzari buruz egindakoetan bezalaxe, sindikatuak gai horiei buruz zuen exijentzia-maila antzeman daiteke.

1997ko kongresuan berrikuntza batzuk jaso ziren balorazioen nolakotasunean, sindikatu eraldaketa sakona bizitzen ari zenaren seinale. Alde batetik, egituretan gero eta emakume gehiago sartzen ari zen, nahiz eta oraindik asko zegoen egiteko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren auzian (ELA, 1997: 104); adibidez, zuzendaritzako kide guztiak gizonetzkoak ziren 1997an. Aliantzen aldetik, oso harrera ona jaso zuen LABekin hasitako elkarlanak, euskal sindikalismora ekarritako aldaketa kualitatiboagatik. Hala ere, gai horren inguruko desadostasunak ere agertu ziren (ELA, 1997: 121-122). Azkenik, sindikatu txikiei buruz izandako jarreraren autokritika ere egin zuten sindikatuan, indar korrelazioan egin zezaketen ekarpena kontuan hartu ez izanagatik (ELA, 1997: 122). Beraz, aliantzak zabaltzeko baldintzak ari ziren sortzen ELAren barruan.

Laburbilduz, bi oinarriko elementu azpimarra ditzakegu ELAk bere buruaz egindako diagnostikoan: lehendik zetorren antolakuntza-eredu sendoaren eta eraginkorraren garrantzia azpimarratu zuen, batetik, eta aliantzei buruzko ikuspegi itxiegia mantendu izanaren autokritika egin zuen, bestetik; hartara, sindikatuaren aliantza aukerak zabaltzea eta haren esku hartzea irekitzea ziren aurrerantzako desafioak.

Diagnostiko markoen ondorioak

Hamarkada honetan, nazio-auziari, lan harremanen markoari eta neoliberalismoari lotutako arazoak areagotu ziren, alde batetik, nazioarteko prozesuek eta, beste aldetik, Espainiako Estatuko joera zentralistek eraginda. Ondorioz, ELAk arreta handiagoa eskaini zien arlo soziopolitikoko gaiei. Aldaketaz jositako agertoki horretan, sindikatuak

aliatuen eta arerioen konfigurazioa aldatu zuen. Horrela, batetik, CCOO eta UGT sindikatuei buruzko areriotasuna handitu zen neurrian, haien zentralismoak eraginda, eta, bestetik, autogobernuaren gaian EAJren gobernuak erakutsitako epeltasunak harekin izandako elkarlana hoztu zuen neurrian, ELAk aliatu potentzial berria bilatu zuen.

Globalizazioaren eta mundu esparruko aldaketa estrukturalen ondorioz, desplazatu egin ziren arazo sozial, laboral eta ekonomikoen erroak eta ardurak. Aurretik, Estatuaren esparruan garatu ziren gatazkak eta estatuei egotzi zitzaizkien ardurak. Izan ere, Estatuaren egitura produktibo zaharkituak eta haren politika ekonomiko desegokiak izan ohi ziren krisialdien arrazoiak. 90eko hamarkadan, baina, globalizazioak eta neoliberalismoaren hedapenak esparru globalagoan kokatu zituzten arazoak.

Horrekin batera, gizartean hedatutako kultura global berriak zailtasun eta desafio handiak sortu zizkion sindikalismoari. Esparru ekonomikoan ekoizpena antolatzeke modu berriak ezarri ziren indar handiz (lantegi handien itxiera eta lantegi ETEen ugaritzea, zerbitzu sektorearen hazkundera, enpresen deslokalizazioa, lan merkatuaren desarautzea, langileen aniztasuna, besteak beste) eta molde berriek eragozpenak ezarri zizkioten ohiko sindikalismoari, zalantza barik. Baina, ekonomian ez ezik kulturaren ere eragin zuen astinaldia prozesu globalak. Hala, gizartean eta, batez ere, belaunaldi berrien artean zabalduko jarrera kultural eta ideologiko berriek (bizitzaren indibidualizazioak, lehiaren logikak, autogarapenaren helburuak eta abar) sindikalismoaren oinarrian zeuden balioak hondatu zituzten (elkartasuna eta justizia). Bestalde, aniztasunaren eta dibertsitatearen gizartean, sindikalismoa beharturik egon zen langileen kolektibo bakoitzean krisialdiak eragiten zituen ondorio espezifikoak aintzat hartuz. Garai honetako krisialdian, langile gazteak eta emakumeak izan ziren lan baldintzen prekarizazioa gehien nozitu zutenak, eta ohiko sindikalismotik urruti kokaturik zeuden bi kolektiboak. Hain zuzen ere, garai honetan sektore horietan arreta handiagoa jartzen hasi zen sindikatua eta beren lan egoerari buruzko diagnostikoak egiten.

PRONOSTIKO MARKOA (ESTRATEGIKOA)

Printzipio eta helburu ideologikoak

Soldatapeko lan harremanen testuinguruan sortutako gatazketan eta gizartea bitan zatitzen zuen interesen arteko liskarretan kokatzen zituen ELAk bere existentziaren jatorria eta izateko arrazoia (ELA, 1990b: 25). Eta ikuspegi politikoagotik, justizia,

elkartasuna eta parte hartzea bezalako balioek gidatu zuten gizarte eredu berri baten aldeko haren jarduera (ELA, 1990b).

Era berean, langile klasearen aspirazioei buruzko erantzukizunak nazio auzian inplikatzeari eskatu zion sindikatuari. Hori zela eta, jarrera eta konpromiso irmoagoa erakutsi gura zuen abertzaletasunari buruz, garai hartako honako bi faktorek bultzatuta; batetik, ekialdeko estatu berrien sorrerak nazionalismoan eragindako berpiztea zegoen; bestetik, erkidegoan antzematen zuen bide estatutarioaren agorpena. Ildo horretan, abertzaletasunaren ikuspegi zabal eta anitza sustatu gura zuen ELAk, klase izaeran oinarriturik eta gizartearen gehiengoari begira (ELA, 1990b). Sindikatuaren ustetan, nazio eraikuntzak eta instituzionalizazioak Euskal Herriko garapen ekonomikoa eta gizarte justuagoa ahalbidetu behar zuten, adostasunean eta tolerantzian oinarritua (ELA, 1993: 69-70). Hari horretatik, autogobernurako bide estatutarioarekiko sindikatuaren kritikotasuna igoz joan zen urte hauetan. Azkenean, bide horretatik erabat kanpo kokatu zuen bere burua 1997an, eta «kontrabotere» moduan definitu zuen bere jarduera esparrua (ELA, 1997: 6, 39).

1990eko hamarkada honetan, ideologiak garrantzi handiagoa irabazi zuen, eta sindikatuaren esku hartze politikoa areagotzea baldintzatu zuen. Izan ere, aurreko hamarkadako jarrera defentsiboak pragmatismora eraman zuen sindikatua. Oraingoan, aldiz, jarrera ofentsiboagoa hartu zuen. Horretarako, hautu politiko nabarmenagoak egin zituen, eta horiek justifikatzeko helburu «handiagoetara» edo ideologikoagoetara jo behar zuela adierazi zuen (ELA, 1997: 69).

Ideologiak sindikatuan leku handia hartu zuen arren, ELAk ez zuen 1976ko terminologia marxista berreskuratu («sozialismo» hitza, adibidez) garai honetan. Aldiz, 80ko zenbait kontzeptu erabili zituen bere diskurtsoa osatzen: «justizia», «askatasuna», «elkartasuna», «gizatasuna», «berdintasuna» eta antzekoak. Horiei «parte hartzea demokratikoaren» ideia gehitu zitzaion, ezker berriaren diskurtsoetan printzipio horrek hartutako garrantziaren adierazle. Baina, 80ko diskurtsoaren antzeko terminologia erabili arren, helburu ideologiko-politikoek indar eta sakontasun handiagoa irabazi zuten.

Azkenik, 1990an sindikatuak Europaren eraikuntzan jokatu beharreko eginkizuna azpimarratu zuen (ELA, 1990a: 13). Baina, 1993ko kongresuan Europaren eraikuntzari buruzko iritzi ezkorragoa bereganatu zuen. Izan ere, europar integrazioak ez zuten eskumenen transferentzia azkartzea ahalbidetu erkidegoan, kontrakoa baizik (ELA, 1993:

71-72). Posizio aldaketa horrek sindikatuaren barruan planteamendu gehiago aldatzen ari zela adierazten digu.

Aldarrikapen eta esku hartze eremuak

Soldatapeko lan eremua: enpleguaren zentraltasuna

90eko hamarraldiaren amaieran soldatapeko lanari dagokion esparruko lorpenak estrategikoak izaten jarraitzen zuten sindikatuarentzat gizarte eredu berriaren bidean (ELA, 1997: 129); sindikatuak langileen bizi baldintzak hobetzeko planteatutako ia neurri guztiak enpleguaren arlotik planteatu zituen. Enplegu osoak lehentasunezko helburu izaten jarraitu zuen; bera zen ongizate Estatuaren bermea, errentaren birbanaketa hobia eta gastu sozial publikoen babesa ziurtatzen zituelako (ELA, 1990c: 8). 1993an honako baieztapena egin zuen ELAk:

«El empleo es el eje de la actividad económica y de la producción de los bienes y servicios y, asimismo, constituye el medio de vida de la gran mayoría de los hombres y mujeres de un pueblo. En consecuencia, el empleo se convierte en la base del proyecto de vida de cada persona y a su vez el volumen y la calidad del empleo reflejan el nivel de desarrollo y de progreso de un país, así como las condiciones de su equilibrio social». (ELA, 1993: 101)

Eta 1997an, honakoa:

«Un trabajo digno es elemento central de participación de las personas en la riqueza y en la vida social». (ELA, 1997: 128)

Hartara, ezinezkoa da esatea lanak garrantzia galdu zuela sindikatuarentzat. Aitzitik, krisiarekin batera faktore garrantzitsuago bihurtu zen haren aldarrikapenetan. Hala, 1976ko «soldatapeko lana» gainditzeko helburua (ELA, 1976c: 18) alboratuta geratu zen urte hauetan.

Enplegua sortze aldera, bi ziren ELAren lan esparruko helburu estrategikoak: bata, enpleguaren zurruntasunari eustea (enplegu finkoa eta egonkorra), eta bestea, lanaldiaren murrizketa lortzea. Erkidegoan zegoen behin-behinekotasun tasa onartezina zen, ELAren iritziz (ELA, 1990d, 1990c, 1993, 1997: 53); lanaldiaren murrizketari zegokionez, berriz, gizarteari begirako lanketa egin behar zuela, eta aldarrikapena negoziazio kolektiboan txertatu beharra zegoela erabaki zuen (ELA, 1990d, 1993: 25).

Aipaturiko helburu gehienak negoziazio kolektiboaren bitartez erdietsi gura zituen ELAk. Baina, tresna horren mugez jakitun, gobernuak ere presionatu behar zituen langileentzako enplegu politika eraginkorrak eta mesedegarriagoak martxan jar zitzaten, esaterako, politika ekonomiko espantsiboak eta berrindustrializazioaren aldeko politikak (ELA,

1993: 41-46, 101; 1997: 56-58). Ildo beretik, behin eta berriro leporatuko zien gobernuei arazoari behar bezalako irtenbiderik ez ematea, besteak beste, Eusko Jaurlaritzaren eskumen eta ekimen faltagatik.

Soldatari zegokionez ere, aurreko hamarkadako jarrera defentsiboa gainditu behar zuela, eta horretarako erosahalmena handitzeko ahaleginak egin behar zituela aitortu zuen sindikatuak (ELA, 1990c: 14). Honela laburbildu zituen ELAk bere helburuak 1997an:

«La reducción de la jornada real, la lucha contra la precariedad y la consecución de unos incrementos salariales reales, deben ser los eies de la política reivindicativa confederal». (ELA, 1997: 83)

Bestalde, produkzioan urte hauetan gertatzen ari ziren aldaketei eta berrikuntzei buruzko kezka agertzen da sindikatuaren hausnarketetan. Ildo horretan, ekoizpen prozesuaren kontrolari lotutako aldarrikapenak ere negoziazio kolektiboan sartzeko ahalegina egin gura zuen ELAk; besteak beste, lan erritmoak eta teknologia berriek produkziara ekarritako aldaketak izan zituen gogoetagai. Izan ere, sindikatuaren ikuspegian, lanaren malgutzearen kontrako erresistentzia hutsa ez zen nahikoa, aldaketa teknologikoek enpresariei langileen erresistentzia gainditzeko aukera eman zitelako. Beharrezkoa zen, beraz, teknologia horiei buruzko kontrol minimoa eskuratzea sindikalismoak ahuldu nahi ez bazuen; hitz batean, dagoeneko atal teorikoan azaldu ditugun lana antolatzeke modu berriek ekarritako lan harremanen indibidualizazioari eta langileen ahultasunari eta isolamenduari aurre egin behar zitzairen sindikalismotik (ELA, 1990c, 1997: 83).

Indibidualizazioaren ildotik, esanguratsua da langabeziaren eta prekarietatearen kontrako borrokaren premia azaltzeko ELAk erabili zuen argudioetako bat: langabeziak eta prekarizazioak kultura eta pentsamolde jakin bat sustatzen zutela, langileak beren burua bakartzera bultzatzen zuena (ELA, 1993: 73). Langabeziari eta prekarizazioari aurre egiteko asmoa ez zen soilik «lan- eta bizi-baldintzak» hobetzea, *lanaren eta sindikalismoaren krisiaren* testuinguruan, sindikatuaren posizioa ere hobetu behar zen, ezinbestean.

Horretarako, beharrezko jo zen langileen arteko sektore kaltetuenen eskaerak kontuan hartzea. Langabetuak, behin-behineko langileak, ezkutukoak, etorkinak eta abar, ekintza sindikalean aintzat hartu beharreko kolektiboak ziren, eta ELAren ekimena ezin zen «langile gizon, zuri eta helduen» mesedetara soilik bideratu (ELA, 1993: 72), hau da, ohiko gizarte sektore «sindikalizatuenetara» (ELA, 1997: 48). Aitzitik, gainerako langile motak ere izan behar zituen erreferente sindikatuak.

Eremu soziopolitikoak: lana zentrala, baina gai politikoak ere

German Kortabarria ELAko buruzagi ohiak bere elkarrizketan aitortzen duenez (2015: 313), 90eko hamarkadara arte, batez ere negoziazio kolektiboan jarri izan zuen arreta ELAk, «eredu sozialaz zegokion ardura atzenduta». Zuzendaritza-aldaketarekin batera, baina, 1990ko hamarraldian gai sozialak berreskuratzen hasi zen sindikatua eta gai horiek sindikalismoaren eginkizunetan txertatzen. Horrela, gizarte- eta politika-arazoekiko sentikortasun eta inplikazio handiagoa izan zuen sindikatuak harrezkerotik (ELA, 1990b: 29-30).

Horrela, ELAren jarduera politikoak tokia irabazi zuen sindikatuaren diskurtsoan eta jardueran. Aberastasunaren banaketa bidezkoagoa lortzeko gakoa enplegua zela erabaki zuenez sindikatuak, ikusi zuen gobernuaren politika ekonomikoek gero eta eginkizun garrantzitsuagoa hartu zutela gizarte eredu justuagoa eta solidarioagoa lortzeko bidean. Horrenbestez, ELAk gobernuak presionatu behar zituen beren lehentasunak enplegura, babes sozialera eta aberastasunaren banaketara bideratu zitezela (ELA, 1990c: 30-34; 1993: 51, 103). Horretarako, gizarte segurantzari eta osasun arreta publikoari lotutako eskumenen transferentzia osoa lortu behar zuen Eusko Jaurlaritzak, ELAren ustetan (ELA, 1997: 62).

Politika sozialei arreta handiagoa eskainita ere, ELAk ez zituen baztertu zehazki lanari lotuta zeuden erreibindikazioak. Enplegua zen jarduera ekonomikoaren ardatza, eta beraz, ELAren kezka nagusia. Hartara, gai horri gehitutako bestelako neurri sozio-politikoek izaera osagarria zuten (ELA, 1993: 101). Prestazio sozialen artean, esaterako, langabeziaren prestazioek eta pentsioek hartu zuten lehentasuna (ELA, 1990d, 1997: 60). Hitz batean, lanaren auziei lotuta jarraitu zuen, neurri batean, ELAren sindikalismoaren guneak.

Baina, esan dugunez, 1990eko hamarkadan esparru globalean zabaldutako aldaketa kulturalarekin batera, apurka-apurka, borroka ideologikoa garrantzi handiagoa irabaziz joan zen ELAren barruan. Neoliberalismoaren eraginez euskal gizartean errotzen ari zen indibidualismoaren, ekonomizismoaren eta lehiakortasunaren logikaren aurrean, ez zen posible jarduera sindikala lan arloko pragmatismo hutsera bideratzea. Sindikatua gizartean errotuta aritzea garrantzitsua zen bezala, ezinbestekoa zen neoliberalismoaren kontrako pentsamoldea bultzatzea, sindikalismoaren biziraupenagatik soilik bazen ere (ELA, 1997: 49, 69,84).

Ildo horretan, ELA sindikatua aldarrikapen berriak bereganatuz joan zen. Horrela 1997an, adibidez, gai berri baten aipamen txikia egin zen bere diskurtsoan, ingurumenarena alegia (ELA, 1997: 105, 118). Zalantzarik ez, gai hori kontuan hartzea berritasuna zen ohiko sindikalismoaren ikuspegitik. Lemoizko zentral nuklearraren harira ateratako ebazpenaz geroztik, sindikatuan ez zen ordura arte ekimenik egin ingurugiroaren auziekin lotuta. Izan ere, produktibismoari buruzko kritikak zenbait kontraesan sortu zizkion sindikalismoari, ingurumenaren babesa eta langileen lanpostuen defentsa ez zirelako beti bateragarriak (ELA, 1997: 126-127). Aipamen txiki horretan, beraz, posizio tradizionaletatik irteteko eta gizartearen bestelako kezkei buruzko interesa plazaratzeko saioa hautematen daiteke.

Ikusten ari garenez, gai sozialen eta politikoen alorrean sakonduz joan zen sindikatua. Horrela egin zuen nazio auziarekin ere. Euskal nazioaren arazoari buruko konpromiso politiko handiagoarekin jokatu zuen sindikatuak urte hauetan, hamarkadaren bigarren erdialdean batez ere. Ildo horretan, nazioaren erreibindikazioari lotuta zeuden lan harremanen marko propioa eratzea eta autonomia kolektiboarekiko errespetua lortzea; horiexek ziren sindikatuaren lehentasunezko helburu politikoak (ELA, 1990b 1990e; 1993: 104-105). Era berean, nazio proiektuarekin uztartuta zihoan justizian, elkartasunean eta parte hartzean oinarritutako gizarte eredua ere (ELA; 1993: 65, 1997: 123). Aurreko hamarkadan, bide estatutarioa baliagarritzat jo zuen helburu horietara heltzeko (ELA, 1990b; 1990e; 1993: 66-67). Hala ere, bide estatutarioak eskainitako tresna instituzionalek ezer gutxirako balio izan zutela ikusita, marko autonomikoari buruzko ikuspuntua gogortu, eta bestelako marko juridiko-politiko bat aldarrikatzera igaro zen sindikatua urte hauetan (ELA, 1997: 124).

Aldi berean, abertzaletasunaren barruan bete nahi zuen espazioa zedarritu nahian, ETaren estrategia armatuari buruzko kritikaren tonua gogortu zuen sindikatuak (ELA, 1997: 44), LABekin harremanak estutzen eta nazio eraikuntzaren aldeko bere jarrera irmotzen ari zen une berean. Izan ere, ELAk uste zuen nazio eraikuntzarako proiektua bera oztopatu egiten zuela ETaren jarduerak. Ondorioz, herriaren gehiengoaren eskakizuna entzutea eta gatazka gainditzeko aurrerapausoak ematea eskatu zion ETari (ELA, 1997: 44).

1998an, bere esku hartze politikoan sakontzeko ahaleginetan, bete-betean ahalegindu zen ELA, LABekin batera, Lizarra-Garaziko akordio politikoen sustapenean, indar politiko eta sozial abertzaleen arteko itunak gatazka armatua eta autogobernuaren blokeo egoera

gainditzeko aukerak zabalduko zituelakoan¹³³. Ekimen horretan parte hartzean ere modu nabarmenean aldendu zen sindikatua negoziazio kolektibotik eta sindikalismoaren betiko esparrutik. Hala, bi sindikatu abertzaleak izan ziren akordioaren sustatzaile nagusiak.

Nazioarteari zegokionez, European arreta jarrita zeukan ELAk. Izan ere, Europak baliatu beharreko lan harremanen marko moduan funtzionatuko zuela uste zuen sindikatuak hamarkada hartan (ELA, 1990c, 1990d), eta enplegu politika onuragarrien alde presionatzeko esparru egokia osatzen zuela (ELA, 1993: 41-42). Ildo horretan, ahaleginak egin zituen EurSKtik abiatuta elkarriketa soziala maila horretan bultzatzeko, baina, gobernuen eta patronalen jarrerek ez zuten horretarako itxaropen handirik eskaini. Hala ere, eratze instituzional hartan eragiten jarraitu zuen ELAk, epe ertain-luzera estrategia sindikal europarra planteatzeko eskaintzen zituen aukerengatik (ELA, 1990d: 30). Dena dela, bide horrek ez zuen ia fruiturik eman.

Arestian ere aipatu dugunez, langileen dibertsifikazio gero eta handiagoaren ondorioz, gizarte kolektibo baztertuen atalean sailkatu zituen sindikatuak emakume eta gazte langileen behar espezifikoak. Horiei erantzuna emateko bidea enplegua sustatzetik eta soldatapeko lan baldintzak hobetzetik igarotzen zen gehienbat, sindikatuaren ikuspegian. Adibidez, gazteen langabeziarekin amaitzeko, haien lan merkaturatzea errazteko neurri batzuk proposatu zituen, aurretiko erretiroak, esaterako (ELA, 1993: 28; 1997: 63). Emakumeen premiei erantzuteko, soldatapeko lan aukeren eta lan baldintzen berdintasuna zen lortu beharreko helburu nagusia (ELA, 1993: 30; 1997: 116). Sindikatua alor honetan urratsak eginez joan zen arren, ez zuen oraindik planteatu ordaindu gabeko lanaren auzia, emakumeen lanaldi bikoitzaren arazoa edo gizonezko langileen inplikazio eza lan horren banaketan. Azkenik, kolektibo horien premiez gain, sindikatuak arreta jarri zuen pentsioei lotutako arazoetan ere (ELA, 1993: 30-31; 1997: 112).

Esku hartze eremuei buruzko ondorioak

Ikusi denez, langabeziak arazo zentrala izaten jarraitzen zuen sindikatuarentzat, eta enplegua ziurtatzea gizartearen ongizatea bermatzeko lehentasunezko neurria zen. Haatik, testuingurua zela-eta, gai sozialek eta politikoez pisu erlatiboa irabazi zuten hala sindikatuaren diskurtsoan nola haren jardueran. Baina, lan harremanetara oso lotuta

¹³³ Lizarra-Garaziko Hitzarmena 1998an Euskal Herriko hainbat alderdi, sindikatu eta eragile sozialek sinatutako akordioa izan zen. Akordio horretan, euskal gatazka politikoa konpontzeko zenbait konpromiso hartzen ziren. Haren harira, ETak su etena egin zuen. Hala ere, prozesuak garapen eskasa izan zuen, eta 2000an borroka armatuari berrekin zion ETak. ELAk, bere aldetik, parte hartze aktiboa izan zuen prozesu horretan, Kortarriak (2015: 215-247) sindikatuaren jarrera argitasun eta xehetasun handiz azaltzen duelarik.

agertzen ziren gai horiek guztiak oraindik; politika sozialak eta fiskalak, esaterako, enplegu politiken eta lan baldintzen osagarritzat hartzen ziren sindikatuan.

Batetik, tokiko testuinguruak, alegia, Euskal Herriaren egoera instituzionalak eta politikoak eragin handia izan zuen ELAren konpromiso politikoan. Bestetik, joera globalen indarrak ere mugiarazi zuen ELA sindikalismo klasikoaren kokapenetik politikaren esparrura. Izan ere, munduan zabalduz zihoan neoliberalismoa eta ezartzen ari zen egitura produktibo berria sindikalismoa gizartetik eta, batez ere, gazteengandik urruntzen ari ziren. Ondorioz, Euskal Herriaren testuinguru espezifikokoak ez ezik, lanaren munduan bizi zen aldaketa estruktural multifaktorialak ere bultzatu zuen sindikalismoa gizartearen arazo orokorragoetan zentratzera.

Antolakuntza: lurralde egiturak pisu gehiago

Aipatu dugu dagoeneko antolakuntza eredua eta egituraketa hautu estrategiko garrantzitsuentzat hartu zuela ELAk. Printzipio horretan oinarrituta, eta zuzendaritza aldaketak ahalbidetuta, «iraultza organizatibo txiki bat» bultzatu zuen sindikatuak, testuingurura eta ezarritako helburuetara egokitua (ELA, 1990a: 23)

Aurreko hamarkadan bezala, autonomia sindikalaren premisa garrantzitsua zenez, bere indar propioekin kontatu zuen ELAk, ahal izan zuen neurrian. Autonomia bermatzeko, beraz, ezinbestekoa zuen afiliazioan oinarritutako antolakuntza eta finantziazioa eraikitzea (ELA, 1997: 100). ELAk ez bezala, Europako eta Espainiako sindikatuak jarduera sindikalarekin zerikusirik ez zuten finantzazio iturriak bilatu zituzten garai berean: negozioak, zerbitzu ez-sindikalak (bidaia agentziak, higiezinak...), Prestakuntza Jarraituaren kudeaketa, eta abar (ELA, 1997: 98-99) Baina, horrelako finantzazio iturriek arazo ugari ekarri zizkieten sindikatuak, baita emaitza txarrak ere arlo sindikalean. Horregatik, ELAk argi izan zuen afiliazioan oinarritu behar zuela bere indarra, eta ez bestelako negozioetan. Ildo berean, finantzazio publikoa jaso arren, horrek ezin zituen kuoten bidezko diru sarrerak ordezkatu. Bestalde, antolaketa sendotzeko ere, urratsak egin behar zituen beren baliabide sindikalak hobetze eta osatze aldera. Bide horretan, hainbat organo eratu zituen sindikatuak urte hauetan, besteak beste, azterketa sozial eta ekonomikoetarako kabinetea, negoziazio kolektiborako kabinetea eta Manu Robles-Aranguiz Institutua (Elorrieta, 2012: 192-193).

Baina, sendoa izateaz gain, antolakuntza-egiturak «gizartean errota egon behar zuen». (ELA, 1997: 89). Hori zela eta, egitura inteprofesionalari (hau da, lurrale eigiturari) arreta

berezia eskaini zion sindikatuak, Eskualde Batasunei batez ere (ELA, 1990b, 1993: 18), eskualdeko antolakuntzak esku hartze globala ez ezik tokian tokian hobeto errotzea ahalbidetzen ziolako (ELA, 1990f: 21). Horiek horrela, «Eskualde Batasunek» antolaketa eginkizun berezia hartu zuten 1997an, ekintza propioak eta negoziazio kolektiboa bideratzeko tresna gisa. Horretarako, batasunen antolaketa aldatu zuen sindikatuak, beren tamaina egokituz, funtzionamendu eraginkorragoaz gain «integraltasuna» ere lortzeko asmoz. Hortaz, zenbait federazio- eta eskualde-batasun fusionatu eta berregituratu egin zituen ELAk (ELA, 1993: 18; Astekaria, 2003: 2; Elorrieta, 2012: 193).

Baina, aldi berean, lan harremanek ekintza sindikalaren muina izaten jarraitu zuten. Hortaz, lurralde egiturari garrantzi estrategikoa aitortuta ere, esparru horretara bideratuta zeuden ELAren ataza antolatzaile asko: sekzio sindikalen egonkortzea, formazioa, asistentzia juridikoa, negoziazio kolektiborako kabinete teknikoak, eta abar (ELA, 1990d), esparru horrek zuen zentraltasunaren seinale.

Sindikatuaren aldaketa prozesua negoziazio kolektibora ere iritsi zen. Hala, negoziazio kolektiboa lantzeko modua ere moldatu egin zuen 1997an sindikatuak. Haren ardura guztiak eta kudeaketaren pausoak zerrendatu eta zehaztu egin zituen ELAk (ELA, 1997: 86-88, 94). Aldaketa horrek erakusten du arlo hori zentrala zela jarduera sindikalean, eta beraz, ondo planifikatuta eta sostengatuta egon behar zuela, inprobisaziorako eta lardaskerietarako tokirik utzi gabe.

Sindikatuaren antolaketaren aldaketak enpresa txikietara iristea ere izan zuen helburu. ELA gainerako sindikatuetatik bereizi zuen gakoetako bat, hain zuzen ere, enpresa txikietan antolatzeari eskainitako garrantzia izan zen. Enpresen tamaina txikitzen ari zela ikusita, antolaketa errealitate berri horretara egokitzeko esfortzu berezia egin zuen ELAk urte hauetan (ELA, 1997: 97-98, 113). Hautu estrategiko horrek esfortzu antolatzaile handia suposatu zuen, eta, horregatik, ez zen maila berean egin gainerako sindikatuetan. Baina, ELAren lanketa horrek bere fruituak eman zituen, ELA baitzen enpresa txikietan presentzia handiena zuen sindikatua.

Antolakuntza-ereduaren berregituraketarekin lotuta, azpimarratzekoa da sindikatuak nola berrizendatu zuen 90eko hamarkadan bere burua. Gogora dezagun 1979an «instituzio» legez aurkeztu zuela ELAk sindikatuaren izaera, «mugimendu» izaeratik urrun. 1993an, aldiz, gizarte bizitzarekin konektatzeko borondatea zela-eta, «gizarte mugimendutzat» hartu zuen sindikatua (ELA, 1993: 104).

Gizarte mugimendu izaera horrekin bat eginez, arreta handiagoa jartzen hasi zen belaunaldi berrien eta beste kolektibo batzuen arazo sozialetan. Gazteen egoerari begira, kultura neoliberal eta indibidualista gero eta barneratuago zutela ikusita, behar-beharrezko jo zuen belaunaldi berriak sindikalismora erakartzea. Estrategikoa zen gazte belaunaldi berriak erakartzea, ez soilik sindikatuaren etorkizunari begira, baita sindikatua bera eraberritzeko eta sindikatuari bizitasuna emateko ere. Horretarako, egitura bereziak egokitu behar izan zituen, «ELA-Gazteak» izenekoak, adibidez (ELA, 1993: 28-29; 1997: 103). Ildo horretatik, zuzendaritzan egoteko 58 urte baino gazteago izateko baldintza ere ezarri zuen Nazio Batzordeak 1999an (Letamendia, 2004: 221).

Emakumeen alorra garrantzitsua izan arren, nabari da ez zela gazteena bezain premiazkoa sindikatuarentzat edo, gutxienez, sindikatuaren zuzendaritzarentzat eta kuadroentzat. Ez zegoen «ELA-emakumeak» egiturarik, esaterako, eta Nazio Batzordeko kide guztiak gizonak ziren (Kortabarria, 2015: 171). Diskurtso mailako aitortzak egin ziren, ez gehiago. 1993an egituretan emakumeen presentzia bermatu beharra zegoela azpimarratu zuen sindikatuak, eta «emakumeen aukera berdintasunerako» arloa eratu zuen, jubilatuen bezala (ELA, 1993: 30-31; 1997: 104).

Oro har, hamarkada honetan antolaketa indartu zuen ELAk, sindikatuaren presentzia gizarte aldakorrean hobeto errotzeko. Horretarako, lurralde egitura indartzeari ekin zion, baita arlo berri batzuk sortzeari ere, gazteei begira gehienbat.

Aliantzak: lagun berriak

Aliantzen gaia izan zen hamarkada honetan aldaketa gehien bizi izan zituen atala. Aldaketa hori esparru guztietan islatu zen: maila politikoan eta maila sindikalean, gizarte mugimenduekin izandako harremanetan eta nazioartean burututakoan. Aliantza politikoei zegokienez, ELAk bazuen aspalditik zetorren kooperazio harreman «naturala» edo historikoa EAJrekin. Baina, harreman hori gaiztotuz joan zen EAEko gobernuan PSE sartzean eta Ardanzen itun saiakerari¹³⁴ ezezkoa ematean (Landeia, 1993)

¹³⁴ 1993an, José Antonio Ardanza lehendakariak Itun Sozialerako proposamena luzatu zion ELAri, Eusko Jaurlaritzaren lehena, enpleguaren egoera hobetzeko neurriekin. ELAk ez zuen begi onez ikusi alde zuzeneko hartu eman eza; izan ere, berrindustrializazioaren aldeko kanpaina oztopatzeko saiakera gisa hartu baitzuen. Bestalde, ELA ez zegoen ados lehendakariak helarazitako txostenak Espainiako industria-politiken inguruan egiten zuen balorazio baikorrekin, eta Espainiako gobernuari egiten zitzaion exijentzia-maila baxuarekin. Gauzak horrela, ELAk «itun erretoriko» moduan hartu zuen saiakera hura, eta ezezkoa eman zion. Lehendakariak ez zuen horrelakorik espero, eta EAJ eta ELAren arteko harremanak asko gaiztotu ziren orduztik (Letamendia, 2004: 146-147; Kortabarria, 2015: 87-94)

Aliantza sindikalei zegokienez, 1993ra arte CCOO eta UGT izan ziren ELAren aliatu potentzial bakarrak; baina, ikusi dugunez, ez ziren gutxi horiekin zituen desadostasunik eta ika-mikak. Horiek horrela, ELA beste aliantza batzuk planteatzen hasi zen, LABekin zein beste sindikatu batzuekin, baita gizarte mugimenduekin ere, ordura arte pentsaezina zen bidea urratuz. LABekin desadostasun eta mesfidantza oso sakonak zeuzkan. Hala ere, zenbait elkargune ikusten zituen, batik bat, nazio proiektuan eta autogobernuaren auzian. Gainera, urte hauetan sindikatu ordezkagarri moduan onartua izatea lortu zuen LABek euskal sindikalismoaren esparruan. Ondorioz, ezinbesteko bide-lagun bihurtu zen ELArentzat, eta gorago aipatutako zenbait ekimen bultzatu zituzten batera. 1997rako bi sindikatu abertzaleen arteko elkarlana areagotu egin zen, zailtasunak eta desadostasun sakonak egon arren. Elkarlan hori indar korrelazioa iraultzeko «aukera historikotzat» jo zuen ELAk, lan harremanen marko propioaren osaketan aurrea egin ahal izateko, eta autogobernuaren egoera blokeatua gainditzeko. Halaber, elkarlanean sakontzeko prozesu horri buruzko konpromisoa eta lidergoaren eginkizuna bere gain hartu behar zuen ELAk, hegemonikoa izateko intentzio barik (ELA, 1997: 124).

LABekin ez bezala, CCOO eta UGT sindikatuekin ez zuen elkarlan posiblerik ikusten, haien ekimen eta joera zentralistak tarteko (1994ko lan erreformari buruzko jarrera, prestakuntza jarraituari egindako boikota, eta abar). Era berean, ez zituen gustuko sindikatuon ereduaren ahultasuna eta apaltasuna. Izan ere, uste zuen ELAk sindikatu horien lehentasuna hitzarmenetan sinatzaile moduan agertzea zela, itunen edukiari erreparatu barik. Hala, ustezko «parte hartzearen» aldeko sindikalismo eredia bultzatu zuten espainiar sindikatuak, eta patronalaren nahiz gobernuaren interlokutore hutsal bilakatu ziren (ELA, 1997: 119-120).

Zailtasunak zailtasun, beraz, ELAn kontzientzia zegoen batasun sindikala beharrezkoa zela bere helburuetara iristeko. Horietarako bidean, LABekin elkarlana sendotu eta indar metaketa prozesua abian jartzea erabaki zuen. Dinamika horren bidez, Euskal Herriko CCOO eta UGT erakartzea eta beraiekin batera integratzea espero zuen, eta jardun esparruei buruz zeuden kontraesanak konpontzea (ELA, 1997: 88). Hala, CCOO eta UGT sindikatuekin aurreikusten zuen elkarlana lortzeko bidea ez zen jada akordioetara iristea, jarduera dinamikoaren eta nagusitasunaren bidez, haiei sindikalismo abertzalearen planteamenduak onarraraztea baizik. Nafarroan, ekimen bera mantendu behar zuen, indarra askoz txikiagoa izan arren (ELA, 1997: 89).

Gizarte mugimenduekiko aliantzei zegokienez, arestian esan bezala, 1979an bere burua «instituziotzat» jotzetik (ELA, 1979) «mugimendu» moduan definitzera igaro zen ELA 1993an (ELA, 1993: 103); geroztik, bere burua «mugimendu abertzalearen barruan» kokatu zuen (ELA, 1990b: 25). Halaber, gizarte aldaketetara moldatzeko eta horietan eragin ahal izateko bere ikuspegi soziala zabaldu behar zuenez, izaera korporatiboa gutxituz, errealitate sozialari lotuago aritzeko asmoa adierazi zuen sindikatuak bere diskurtsoan. Horretarako, gai sozialetan engaiaturiko mugimenduekin harremanak estutu eta haiekin lankidetzaz sustatu nahi izan zuen, intsumisioaren mugimenduarekin eta arrazakeriaren kontrako mugimenduarekin, adibidez (ELA, 1997: 126-127). Dena den, badirudi bilatutako elkarlan hori puntuala zela, jarrera «pan-sindikalistak» eskuratzea eta jarduera sindikala sakabanatzea saihesteko. Izan ere, ELArentzat lehentasuna lan esparruan kokatzen zen, argi eta garbi (ELA, 1997: 127).

Azkenik, nazioarteko aliantzei zegokienez, nazioarteko konfederazioekin harremana estutzen jarraitu beharra azpimarratu zuen ELAk; Europako integrazio prozesuak sindikalismoari ekarritako erronka berriak zirela eta, harreman horien garapena Europako esparruan aurreikusi zuen sindikatuak. Hori zela eta, jarrera aktiboagoa hartu gura zuen EurSKren barruan, ekintza sindikala eremu horretan bultzatzeko (ELA, 1990c: 42-43; 1993: 122-123; 1997: 124-125). Dena dela, Joxe Elorrietari eta German Kortabarriari egindako elkarrizketetan, biek ala biek adierazi dute Europako ekimen sindikala asmoetan geratu zela beti eta, *de facto*, oso ekimen gutxi egin zela Europako esparruan. Gainera, gero eta urrunago sentitzen zen ELA Europako sindikatuen eredu instituzionalizatu, apal eta ahuletatik.

Horrenbestez, ikusi dugunez, 90eko hamarkadan aldatu egin zen sindikatuaren aliantzen nolakotasuna. Alde batetik, gaiztotu egin zen Estatuko sindikatuarekin zeukan harremana. Beste aldetik, LABekin egindako lankidetzaz urrats gero eta estrategikoago bihurtu zen, 1997an batez ere. Horrez gain, gizarteari buruzko konpromisoak bultzatuta, 1997an lan esparrutik aldentzen ziren arazoetan jarri zuen arreta sindikatuak eta mugimendu sozialekin konbergentziak lortzeko asmoak azaleratu zituen lehen aldiz. Hala ere, bigarren puntu hori oraindik diskurtsiboki adierazitako asmoetan geratu zela esango genuke, eragile horiekiko elkarlanaren nondik norakoa zehaztu gabe geratu zelako. Azkenik, globalizazioaren testuinguruak ezinbesteko bihurtu zituen nazioarteko eta batez ere Europako erakundeekiko harremana eta erakunde horietan parte hartzeko beharra.

Ekintzen errepertorioa: ekintza aldarrikatzaileak ekintza instituzionalari tokia kentzen

Zalantza barik, ELArentzat negoziazio kolektiboa izan zen ekintza sindikalaren tresnarik eta ekimenik garrantzitsuena hamarkada honetan, 1980eko hamarkadan izan zen bezalaxe, eta hala berretsi zuen kongresu guztietan. Bada, negoziazio kolektiboa zen langileen interesen defentsan ekiteko oinarritzko bitartekoa, eta ia bakarra, esango genuke, garaiko testuinguru instituzionala kontuan hartuta.

Nolanahi ere, negoziazio kolektiboaren ikuspegi berezia garatu zuen ELAk. Hala, autonomia kolektiboa (hau da, gobernuaren eta administrazioaren interferentzia eza) derrigorrez errespetatu beharreko printzipioa zen harentzat. Bestalde, hitzarmenak Euskadin baino ez zituen sinatzen (ELA, 1990b: 37-39, 1993, 1997). Eta, horrez gain, enpresa esparruko negoziazioa lehenetsi zuen gehienbat, enpresa mailakoak hitzarmen sektorialak baino egonkorragoak eta seguruagoak zirelakoan. Hala ere, enpresa txikietara iristeko mugak zirela-eta, enpresa negoziazioa sektorekoarekin artikulatu behar izan zuen pixkanaka (ELA, 1993: 92-93).

Esparru instituzionalean eragiteko gaitasun oso txikia zuen ELAk. 1980ko hamarkadan nabarmenak izan ziren gaitasun hori handitzeko egindako ahaleginak, batez ere marko propioa eratzeko asmoz baina, egiatan, organo instituzionalak ez zituzten sindikatuaren helburuak inondik ere asebetze (ELA, 1993: 74). Bestalde, ez zegoen prest itun sozialen bidez edozer gauza onartzeko; hain zuzen ere, horixe leporatzen zien etengabe UGT eta CCOO sindikatuak. Jarrera irmo horren erakusle izan zen Ardanza garai hartako lehendakariaren itun saiakeraren aurrean izandako jarrera kritikoa (Landeia, 1993: 3).

Sindikatuaren ildo horrek jarduera sindikalaren ahaleginak negoziazio kolektiboan zentratzera bultzatu zuen. Aldi berean, baina, negoziazio kolektiboaren irismena mugatua zen arazo sozial zabalagoak erantzuna emateko, eta bide instituzionalak baliagarritasun gutxikoak ziren. Hori zela eta, 1997an ekintza aldarrikatzaileari eta gizarte mobilizazioari balio handiagoa eman zien instituzio publikoetan eta esparru politikoan presioa eragiteko tresnatzat hartuta, eta bere burua «kontraboterearen» aldean kokatu zuen sindikatuak (ELA, 1997: 6). Hala, oraindik parte hartze instituzionala baztertu ez zuen arren, ekintza aldarrikatzailearen osagarri bihurtu zuen hura; hartara, parte hartze instituzionalak ezin zuen ekintza aldarrikatzailea ordezkatu. Hortaz, ELAren parte hartze instituzionalak oso selektiboa izan behar zuen. Izan ere, eremu instituzionalean langileentzako akordio

onuragarriak lortzekotan, oinarritzko indar korrelazioari esker izango zela uste zuen sindikatuak (ELA, 1997: 49-51).

Laburbilduz, batetik, ELAren barruan gero eta zalantzarriago bihurtu zen parte hartze instituzionalaren eraginkortasuna beren helburuak lortzeko. Beraz, haren ekintza erreperitorioen artean negoziazio kolektiboak jarraitu zuen oinarritzko bitarteko izaten. Oraingoan, baina, parte hartze instituzionalarekin konbinatu beharrean, negoziazio kolektiboa ekintza aldarrikatzailearekin eta mobilizazioarekin konbinatzen hasi zen, neurri handiagoan. Bestetik, konpromiso politikoan sakondu ahala, tonu gogorragoan gaitzetsi zituen ELAk indarkeriazko ekintzak, mugimendu abertzaleari egiten zioten kalteagatik. Horixe izan zen, aurrerantzean ere, LABekin elkarlanean aritzeko zailtasun nagusienetakoa (ELA, 1997: 65).

Interpelatutako gizarte kolektiboak: gazteei eta emakumeei buruzko kezka

Nor izan zen ELA sindikatuaren erreferentea epealdi honetan? Zalantzarik ez, soldatapeko langileen problematikek izan zuten lehentasuna ELAren ekintzetan. Hala ere, urte hauetan arreta handiagoa eskaini zuten sindikatuak langabezia, behin-behinekotasuna, ezkutuko lana eta, oro har, lan baldintzen prekarizazioa gehien sufritzen zituzten langileen kolektiboak. Egoera horiek gehien pairatzen zituzten kolektiboak gazteak eta emakumeak ziren, eta, paradoxikoki, azpi-ordezkatuak zeuden sindikatuan.

Gazteei zegokienez, nabarmena zen sindikatuak horiengan jarritako arreta, baina ez soilik langabezia eta lan baldintzen prekarizazioa modu berezian nozitzen zutelako. Haiei buruzko interesak bazituen bestelako arrazoiak ere. Izan ere, gizarte kultura sakonki aldatuz zihoan gizartean, gazteen artean batez ere. Sindikatuak argi ikusi zuen belaunaldi berriak erakarri ezean, sindikalismoaren eta gizartearen arteko arrakala sakondu egin zitekeela. Hartara, estrategikoa zen gazteen belaunaldi berriak erakartzea, etorkizuneko belaunaldi aldaketari begira ez ezik, une hartako mugimendu sindikalak behar zuen eraberritzeari eta bizitasunari begira ere (ELA, 1993: 28-29, 1997: 103).

Bestalde, bai emakumeen lan egoerari buruzko arretak, bai emakumeen presentziaren gaiak sindikatuan, garrantzia gero eta handiagoa hartu zuten 1993 eta 1997 urteen bitartean sindikatuaren diskurtsoan. Hiru alderditatik heldu behar zitzaion emakumeen egoeraren gaiari, sindikatuaren arabera; lehenik, sindikatuaren egituretan emakumeen presentzia bultzatuz; bigarrenik, maila instituzionalean haien lan egoeraren azterketa ordezkaritza organoetara eramanez –LHKan, batez ere– eta, azkenik, negoziazio

kolektiboan sexuen araberako bazterketen kontrako neurriak txertatuz (ELA, 1993: 30). Ildo horretan, 1997an urrats batzuk egin ziren andreen presentzia sustatzeko sindikatuan. Arreta handiagoa eskaini zitzaion kulturarekin batera jasotako ohituren eta pentsamoldeen aldaketari, emakumeen barneko parte hartzea ahalbidetzeko Izan ere, negoziazio kolektiboan emakumeen interesak txertatzeaz gain, beharrezkotzat jo zen barneratutako azturak eta ikusmoldeak aldatzea, emakumeen parte hartzea bermatzeko (ELA, 1997 : 116-117). Hala ere, praktikan, Nazio Batzordeko hogeita hamasei kideak gizonak ziren 1997an. Horren harira, Idazkari Nagusiak zin egin zuen argazki hura ez zela berriz errepikatuko.

Esandakoak esanda ere, azpimarratzekoa da gazteei eta emakumeei begira egin ziren aldarrikapenak eta esku hartzeak haien lan baldintzei lotutakoak izan zirela, gehienbat. Hau da, langile izaerarekin lotutako emakumeen eta gazteen interesak defendatu nahi zituen sindikatuak, ez besterik. Salbuespentzat jo dezakegu gazteen arazoekin lotutako intsumisio mugimendurekin elkarlan puntuala sustatzeko sindikatuak agertu zuen borondatea (ELA, 1997: 127). Kolektibo horiez gain, sindikatuaren epealdi honetako diskurtsoak pentsiodunak ere izan zituen hizpide. Izan ere, 1993an gertatutako jubilatuen kopuruaren igoeraren ondorioz ere, horien beharrei begirako esku hartzea (pentsioen eguneratzean, batez ere) eta zerbitzuak sustatu zituen ELAk, haien desafiliazio masiboa ekiditeko (ELA, 1993: 30-31).

Halaber, ordura arte inoiz aipatu ez zituen kolektibo batzuei arreta eskaini zien sindikatuak 1997an, hala nola, «autonomo faltsuei» eta nekazariei. Izan ere, ELAk aitortu zuenez, soldatapekoak izan ez arren, beraien arazoak kontuan hartu behar zituen eta, ahal zuen neurrian, haiekin elkarlana ere sustatu (ELA, 1997: 126). Adierazpen sinboliko horietan langile klasearen ohiko esanahia eta osaketa zabaltzeko ahalegina ikusten dugu ELAren aldetik, eta lan egoera berrietara egokitzeko ahalegina.

Beraz, gizartea kulturalki nahiz ekonomikoki aldatzen eta lanaren mundua konplexuago bihurtzen ari zen 1990eko hamarraldian; aldakortasun horren aurrean, gero eta ugariagoak izan ziren sindikatuak «gizarte osoari» (eta ez soilik lan esparruari) eskainitako gogoetak. Hala, ELAk modu nabarmenagoan azaleratu zituen bere diskurtsoan euskal gizartearen arazo orokorreari buruzko kezka, lan esparrutik at, esparru politikoari, sozialari nahiz kulturalari zegozkienak. Horrekin lotuta, langile klasearen ulerkera zabaltzen hasi zen, fordismo garaiko soldatapeko langile industrialaren iruditeriatik harago joanez, eta sindikatuan azpi-ordezkatutako kolektiboen aldeko ardura

azalduz. Hala ere, lan esparruak sindikatuaren ekimenaren ardatz izaten jarraitu zuen eta soldatapeko (gizon heldu) langileak jarraitu zuen, neurri handi batean, erreferentziazko subjektua izaten ekintza sindikalean.

ONDORIOAK

Oro har, testuinguru koiunturalak erronka eta zailtasun handiak ezarri zizkion ELAri. Horietako batzuk nabarmenki politikoak ziren. Hala, Estatuko esparru politikoan joera zentralistak berpizten ari ziren. Beste maila batean, Europako integrazio prozesuak aukerak baino gehiago mehatxu berriak ekarri zizkion euskal sindikalismoari. Eta erkidegoko autogobernuari zegokionez, Estatutuaren bidea geldituta zegoen. Beste zailtasun batzuk lan esparrukoak ziren. Ildo horretan, Estatuko sindikatuen arteko elkar-ulertzeak ELAren bazterketa areagotu zuen lan harremanen esparruan. Eta Eusko Jaurlaritzako lan eremuko kontseilaria PSE alderdi sozialistako kide izateak, Euskadiko erkidegoan lan harremanen esparru propioa egituratzeko itxaropena zapuztu zuen.

Maila estrukturalan, lan munduari eta egitura produktiboari lotutako aldaketek, alegia, lanaren krisiarekin zerikusia zutenek, sindikatuaren *egitura-boterea* ahuldu zuten epealdi honetan (enpresa txikien ugalketa, zerbitzu sektorearen gorakada, kontratuen prekarizazioa...). Horrez gain, kultura neoliberalak balio indibidualistak eta sindikalismoaren kontrako ikusmoldeak sustatu zituen euskal gizartean (lanaren krisiaren dimentsio immaterialari eta ekintza kolektiboaren ezintasunari lotutakoak), belaunaldi berrien artean batez ere. Kontrara, euskal arlo politikoan, autodeterminazio eskubidearen inguruko eztabaidak bideak ireki zizkion sindikalismo abertzaleari nazio eraikuntzan murgiltzeko.

ELAk lortutako delegatu sindikalen kopuruak indar handia eman zion, batez ere negoziazio kolektiboari dagokionez. Baina *botere instituzionalak* ez zion aukera gehiegirik eskaini, 1994ko lan erreforma kenduta. Horrela, 1990eko hamarkadan zehar, ELAk baieztatu ahal izan zuen bere eragiteko ahalmena ez zettorrela sindikatuaren presentzia instituzionalaren eskutik. Estatuko sindikatuen ahultasunak egiaztatzen zuen parte hartze instituzional hutseko sindikalismoak ez zuela botere sindikala handitzeko balio, eta, gainera, dependentzia finantzario larrira kondenatzen zituela sindikatuak. Horiek horrela, eredu sindikal instituzionalizatua eratzeke ahaleginak egin izan zituen arren, saiakera horrek oso emaitza urria eman zion ELAri.

Baina, kontrako testuinguru instituzional hori ez zetorren bat ELAk lortutako afiliazioarekin eta delegatuen kopuruarekin. Koiuntura- eta egitura-egoerak txarrak izanagatik ere, ELAk bere gaitasun organizatiboak, baliabideak eta zerbitzuak hobetzeko parada izan zuen, eta afiliazioaren eta ordezkaritza sindikalaren hazkundeak erakutsi zion hartutako bidea zuzena zela. Ondorioz, sindikatuaren *botere asoziatiboa* eta *organizatiboa* funtsezkoak izan ziren haren osasuna mantentzeko. Garrantzi horren adierazle izan zen ELAren jardueraren balorazioetan antolaketak eta afiliazioak betetako espazioa. Bestalde, afiliazioa osagai estrategikoa zen sindikatuaren finantzazio autonomoa bermatzeko, baita gizartean errotuta egoteko ere. Izan ere, emakumeak eta gazteak erakartzeko egindako ahaleginaren arrazoia ere sindikatuaren egituretan kolektibo horiek zeukaten presentzia txikia zen, gizartean zeukatenaren aldean. Eta ELAk bere presentzia bermatu nahi zuen euskal gizartearen langile kolektibo guztietan.

Botere moral-diskrutsiboari zegokionez, gero eta arreta handiagoa jarri zuen nazio eraikuntzan eta gizarte ereduari lotutako helburuetan, baita sindikalismo klasikotik kanpo zeuden gatazkei eta gizarte mugimenduei zegokienetan ere, sindikatuak gizarte arazoetan presenteago egoteko zituen asmoak tarteko. Hasiera batean bi helburuak ezberdinak direla diruditen arren, biak oso lotuta zihoazen ELAren 90eko diskurtsoan Dena dela, egindako urratsak sakonagoak izan ziren nazio proiektuarekin zerikusia zuten alderdietan, gizarteko bestelako gaietan baino.

Elkarlan boterea ulertzeko modua izan zen gehien aldatu zen aspektua hamarkada honetan, estatu politikaren bira zentralistak, CCOO eta UGT espainiar sindikatuekin zituen desadostasunak eta neoliberalismoak harturiko indarrak bultzatuta. Horrela, bidelagun berria aurkitu zuen sindikalismoan, LAB, eta lehen keinuak egin zizkien bestelako eragile sozialei. Autonomiaren printzipioak zalantzan jarri ezina izaten jarraitu zuen, baina ez zuen lehenagoko hamarkadan bezainbesteko garrantzirik hartu maila diskurtsiboan.

Ikuspegi *estrategiko* batetik, beraz, ELAren indarra bere baliabide propioetan zetzan, botere iturri asoziatibo eta antolatzaileetan oinarriturik gehienbat, definizio abertzale eta klasekotik abiatuta. Horrek eman zion abiapuntua beste botere iturrietan aurrerapausoak emateko, hala nola, *elkarlanean*. Horrenbestez, aipatu ahalmenak ahalbidetu zion, hain zuzen ere, botere *instituzionalean* eta *estruturalean* zituen gabeziak orekatzea.

ELAk bere berezko indarrak erabilia eutsi nahi bazion ahalmen sindikalari, euskal gizartean errotuta egon behar zuen, hau da, Dufour eta Hegek (2010) aipatutako «barne legitimitatea» landu behar zuen eta horretan sakondu. Ildo horretan, Lizarra-Garaziko akordioen prozesuaren garaiko diskurtso abertzalearen berpizkundeak eta LABen hazkundeak nazio proiektuan beste bide batzuk urratzeko eta gizartean, euskal sindikatu gisa, zeukan egikizuna berresteko balio izan zioten.

Hamarkada honetako *berrikuntza estrategikoei* zegokionez,

1. *Organizing* ereduan, helburu estrategikoa izaten jarraitu zuen ahalik eta afiliazio handiena lortzea. Ildo horretan, berrikuntza sindikaltzat har daiteke garai honetan tamaina guztietako enpresetara heltzeko sindikatuak egin zuen ahalegina. Horrek berebiziko lana eskatu zion ELAri, eta, hala ere, ez zion uko egin. Izan ere, afiliazioan oinarritutako sindikatua nahi zuen osatu; garaiko testuinguru instituzionalak horretara derrigortu zuen, gainera. Bide beretik, gero eta garrantzitsuagoa izan zen sindikatuarentzat emakumeak eta, batez ere, gazteak erakartzea bere egiturara. Modu horretan, arian-arian, langilearen definizio klasikotik kanpoko beste kolektibo batzuegan arreta jartzen hasi zen ELA, hala nola, gazteengan, soldatapeko emakume langileengan eta jubilatuegan.
2. *Kooperazioari* zegokionez, aurreko hamarkadan instituzio politikoekin lankidetzan aritzeko aukerak urriak izan baldin baziren, are urriagoak izan ziren 90eko hamarkadan. Horrela heldu zen ELA Ardanza lehendakariaren itun saiakerari uko egitera. Hala ere, salbuespentzat jo daiteke 94ko lan erreforma. Izan ere, Estatuako sindikatuen eta gobernuaren arteko elkarrizketak etenda zeudela aprobetxatuz, Espainiako Kongresuko alderdiekin negoziatzen ibili zen ELA, Estatu esparrukoa ez zen negoziazio sektoriala ahalbidetzen zuen artikulua onar zezaten. Dena den, ezin daiteke operazio hori «kontzertazio sozialtzat» jo. Bestetik, EAJ alderditik urrunduz joan zen sindikatua, Estatu bidearen baliagarritasunaren ikuspuntutik.
3. *Ekintza politikoan* nabarmena izan zen zen nazio eraikuntzaren, autogobernuaren eta lan harremanen markoaren eraketan egindako ahalegina, baita politika ekonomikoak bideratzeko saiakeran ere. Hala ere, horretarako bide instituzionalak itxita izatean, gizartearen sentsibilizazioari ekin zion eta, mobilizazio bidezko presioari ildo instituzionalari baino indar handiagoa eman zion ekintza politiko

gauzatzeko unean. Bira hori ELAk osatutako proiektuaren izaera integralean ulertu behar da.

4. *Egitura sindikalen berregokitzapena* eta antolaketaren errebisioa egiteko saioak etengabeak izan ziren kongresuen artean, arlo horri eman zitzaion garrantzi estrategikoaaren erakusle. Ildo horretan, 90eko hamarkadan egindako *berregituraketa*-ahalegin garrantzitsuak, negoziazio kolektiborako baliabide estrategikoak ugaritzeko ez ezik, egitura sindikalaren integraltasunean sakontzeko beta ere eman zion sindikatuari. Lurralde egiturako eskualde batasunak indartzen eta integral bihurtzen ahalegindu zen ELA, negoziazio kolektiboa koordinatzeko, enpresa txikietara heltzeko eta esparru lokaleko bizitza sozialean eragiteko. Halaber, gazteen, emakumeen eta jubilatuen beharrizan espezifikoak lantzeko beren beregizko arloak egituratu zituen.
5. *Koalizioen osaketaren* arloa aurreko hamarkadako ibilbidetik ELA aldendu zuen berrikuntza adierazgarriena izan zen. Izan ere, LABekin egindako elkarlanak izaera estrategikoa hartu zuen 1997an, nazio eraikuntzarekin eta Euskadiko esparru propioaren eraketarekin loturik zeuden lanei zegokienez. Dena dela, aliantza hori oraindik hastapenetan baino ez zegoen, eta bilakaera sakonagoa eta gorabeheratsuagoa izan zuen hurrengo urteetan. Lan esparrutik kanpo zebiltzan bestelako gizarte eragileei buruzko harremanei dagokienez, elkarlan puntaletarako asmoa adierazi zuen sindikatuak, haienganako nolabaiteko hurbilpena ahalbidetzeko, baina oraindik diskurtsoaren adierazpen gisa geratu zen asmo hori.
6. *Nazioarteko elkartasunaren* gaia, diskurtsiboki behintzat, presente egon zen ELAren asmoetan, eta badirudi Europako esparruko lan erregulazioan esku hartzeko ahalegina egin zuela. Izan ere, koiuntura zela eta, ezinbesteko jo zuen sindikatuak Europako eta nazioarteko esparruetan ere parte hartzea. Hala ere, Estatu esparruko sindikatu izan ez izanak modu aktiboagoan aritzeko bideak itxi zizkion ELAri. Gainera, Euskal Herriko lan harremanen markoa oraindik finkatu gabe eta autogobernuaren garapena geldituta izanda, badirudi Europako esparruko parte hartzea praktikan nahiko apala izan zela. Hala, sindikatuak nazioarteko lankidetzari garrantzia eman zion arren, nazioarteko elkartasunak forma oso sinbolikoa hartu zuen. Diskurtsoan besterik esaten bazuen ere, praktikan, eraginkortasun gutxi izan zuen marko horretan.

7. *Ekintza forma gatazkatsuen* erabilpenari zegokionez, kontraboterearen esparrura desplazatzen hasi zen ELA urte hauetan, eta negoziazio kolektiboak zentrala izaten jarraitu zuen harentzat. Izatez, parte hartze instituzionalari eta elkarrizketa sozialari buruzko jarrera gero eta kritikoagoa hartu zuen ELAk, eta horren aurrean negoziazio kolektiboa izan zen, bere ustez, une hartako biderik eraginkorrena. Beraz, ekintza instituzionala eta elkarrizketa soziala oraindik guztiz alboratu ez zituen arren, etsipen sentimendua zabalduz joan zen sindikatuaren barnean. Hori zela eta, sindikatuak bultzaturiko ekintza aldarrikatzaileek eta mobilizazio sozialek baliagarritasun handiagoa eskuratu zuten epealdi honetan.

Oro har, hamarkada honetan berebiziko aldaketa estrategikoak jarri zituen abian ELAk, lanaren krisiari lotutako aldaketa estrukturalek eta testuinguru instituzional, politiko eta sindikalek hartara behartuta. Hari horretatik, aipaturiko berrikuntza estrategikoaren norabidean, *gizarte-mugimendu sindikalismoaren* ezaugarri batzuk bereganatu zituen, pixkanaka. Baina, berrikuntza prozesua hasi baino ez zen egin, eta haren zenbait garrantzizko oinarri finkatu barik zeuden oraindik.

LAB 1990EKO HAMARKADAN

Lehenago ere esan dugunez, LABen sorrerako lehen urteak malkartusak izan ziren sindikatuarentzat, besteak beste, egitura sendorik ez zeukalako. Ildo horretan, LAB urte luzez ibili zen kongresurik egin gabe. Izan ere, 12 igaro pasatu 3. Kongresua burutu arte, 1992an. Tartean, erabaki nagusiak Batasun Nazionala izeneko organuaren bileretan hartu ziren. Hainbeste urte igaro izanagatik, 1980ko hamarkadako sindikatuaren egiturak eta funtzionamendua oraindik finkatu gabe zeudela ondorioztatu dugu. Izatez, hamarkada oso gatazkatsua izan zen 80tik 90era bitartekoa, eta urte horietan bestelako lehentasunak egon ziren. Baina, sindikatua hazi eta egiturak finkatu ahala, heldu zen 3. Kongresua egiteko beharra.

DIAGNOSTIKO MARKOA

Koiuntura: aldaketa garai, arlo guztietan

Egoera politikoa

Espainiako gobernuan PSOE alderdi sozialista egon arren, Estatu arautzailea desegiteko eta pribatizatzeko prozesu betean murgildurik zebilen, politika sozialak murrizten eta Espainiako lan merkatua desarautzen, besteak beste. Horrela, langileen kontrako politikak egikaritu zituen, «egiazko botereen» eragin gero eta handiagoa tarteko. PSOEek Espainiako lau hauteskunde orokor irabazi bazituen ere (1982, 1986, 1989 eta 1993an), une baterako, 90eko hamarkadaren erdialderantz, gobernu horren desgaste sintomak nabarmen azaleratu ziren, eta Espainiako eskuina jadanik PP¹³⁵ eskuineko alderdiaren inguruan egonkortzen zebilen. Hauteskunde horietan bi gai izan ziren erabakigarriak, LABen ustetan: euskal gatazka deitutakoa eta «hitzarmen autonomikoaren» negoziazioa (LAB, 1992a: 10-12), biak ala biak nazio auziarekin lotuak.

Diagnostiko horren haritik, gatazkaren nondik norakoak jaso zuten LABen arreta nagusia euskal politikari buruz egin zuen azterketan. Adibidez, Ajuria Eneko Ituna sinatu berria zen 1988an¹³⁶ ETAREN ekintza armatuari amaiera emateko asmoz. Hala ere, LAB sindikatuaren irirtziz, haren ondorioak ezker abertzalearen aldekoak izan ziren eta haren tesiak indartzen zituzten. Bada, ezker abertzalearekin partekatzen zuen diagnostikoan LABek zioenez, Espainiako Estatuak «kartutxo asko» zituen zegoeneko «erreta», eta,

¹³⁵ Partido Popular

¹³⁶ Ajuria Eneko Ituna, EAeko zenbait alderdik sinatutakoa da, ETAREN aurka egiteko konpromisoa adieraziz.

hala ere, ez zuen ezker abertzalea higitzea eta negoziazio politikoari bideak ixtea lortu (LAB, 1992a: 13-14).

Auzi nazionala konpontzeari ateak itxi izanaren ondorioz Estatuan sindikatu abertzaleak sumatzen zuen defizit demokratikoaren atzean, Espainiako Estatu ereduaren krisia zegoela uste zuen. Izan ere, haren ustetan, Espainiako Estatuak ez zuen lortu borroka nazionala neutralizatzea, desordena politiko-administratibo sakonak pairatzen ari zelako (LAB, 1996a: 7-28, 31). Testuinguru horretan, positiboki baloratu zuen LABek ETAk plazaratutako Alternatiba Demokratikoa¹³⁷, lurraldetasunaren eta autodeterminazioaren helburuak ardatz hartzen zituelako (LAB, 1996a: 40-41).

Sindikatuak nazioarteko egoerari buruz egindako irakurketan, aldaketa politiko sakonak nabarmendu zituen hamarkada honen hasieran. SESBen gainbeherak eta Golkoko gerrak Nazioarteko ordena berri baten eraketa ekarri zuten, haren iritzitan. Alde batetik, SESBen bloke sozialistaren desagerpenak desorekatze ideologikoa eta higadura politikoa eragin bazituen ere (LAB, 1992a: 3), beste alde batetik, Estatuaren betierekotasunaren mitoa hautsi eta independentziaren aldeko borroka berpiztu zuen. Era berean, aldaketa horrek ezkerren eztabaidaren erdigunean kokatu zuen autodeterminazioaren eskubidea. Ondorioz, SESBen gainbehera «indar emaile» izan zen, eta «aire freskoa» ekarri zuen, ezker abertzalearen ikuspegitik (LAB, 1992a: 3, 7, 14). Bestalde, Europako integrazio prozesuak erronka ugari ekarri zituen, handik ezarri ziren politika neoliberalen ondorio larriengatik, batez ere. Haatik, ezer gutxi egin zezakeen euskal sindikalismoak hori aldatzeko (LAB, 1992b: 9; 1996a: 17; 1996b: 21-22). Espainiako Estatuaren izaera autoritarioa beste behin ere azalertzeko parada eman zuen integrazio horrek.

Eraketa instituzionala

Bide estatutarioa betidanik arbuia zuen eta, ildo horretatik, 1992an Euskadiko estatutuak goia jo izana nabarmendu zuen LABek bere diskurtsoan. Autonomien Estatu eta Konstituzioak sortutako Estatu eredu bera zeuden kolokan (LAB, 1992a: 9) eta, beraz, bertatik eratorritako erkidegoko Autonomia Estatutua ere. Sindikatuaren iritziz, marko autonomikotik ezin zizaien atzerakada ekonomikoari eta sozialari aurre egin, erabaki nagusiak Madrilen hartzen zirelako; are gehiago, marko horrek euskal sindikalismoaren jardura oztopatzen zuen (LAB, 1992a: 17). Gainera, ELAk Gernikako Estatu agortuta zegoela baieztatzeak LABen diagnostikoa indartu zuen.

¹³⁷ ETAk negoziazio politikoari begira 1995an luzatutako proposamena, KAS alternatiba ordezkatzuz.

LABek zioenez, EAeren eskumen faltak, Estatuaren izaera antidemokratikoa azaleratzeaz gain, Euskal Herriaren eta langileen interesak kaltetu zituen, zuzen-zuzenean. Izan ere, Espainiako gobernuak, eraispen industrial progresiboa sustatuz, euskal ekonomia ahuldu eta langabeziara kondenatu zuen euskal gizartea, eta, horrela, euskal proiektu nazionalaren oinarriak hipotekatu (LAB, 1992a: 28-19; 1996: 43).

Bestalde, azpimarratzekoa da LABek epealdi honetan Ipar Euskal Herriaren egoerari eskaintako arreta. Errealitate guztiz ezberdina izanda ere, ezker abertzaleak hauteskunde emaitzak hobetu egin zituen eskualde hartan. Hortaz, interes gero eta handiagoa pizten zuen, eta bertako kointurari buruzko azterketa sakonagoak eskaintzen hasi zen sindikatua (LAB, 1992a, 1996a).

Lan harremanak

ELA, CCOO eta UGT sindikatuak erreformistatzat zituen LABek, birmoldaketa industrial ahalbidetzeaz gain, langile mugimendua ahuldu eta desmobilizatu egin zutela iritzita. Haiei leporatu zien langileek beren arteko elkartasuna eta erantzuteko gaitasuna galdu izana, eszeptizismoak eta burokratizazioak sustatuta. Hain zuzen, zerbitzuetan oinarritutako «ideologiarik eta klaserik gabeko» sindikalismoa bultzatu izana leporatu zien LABek, baita gizartean balio atzerakoiak txertatu izanaren ardura ere (LAB, 1992a: 22-25).

Ostera, uste zuen ezker abertzalearen borroka politikoak euskal langile mugimenduaren erresistentzia politiko eta soziala mantentzea ahalbidetu zituela, nazio askapenaren aldeko borrokaren eragin katalizatzaileak ahalbidetuta. Ildo horretan, sindikatu abertzaleak langileen borroka eta nazio proiektuaren aldeko borroka uztartu zituen, behin eta berriro, bere diskurtsoan. Esaterako, estatu osoan PSOEn gobernuaren enplegu eta industri-birmoldaketa politiken aurka egin zen 1992ko abenduaren 14ko greba orokorrean, CCOO eta UGTren ahulezia eta ELAren pasibitatea salatu zituen LABek, eta berretsi zuen Hego Euskal Herrian ezker abertzalearen gain geratu zela grebaren lanketa eta grebari beharrezko zentzua ematearen ardura (LAB, 1992a: 23). Bada, sindikatu txikia izanagatik ere, LABek bazuen mobilizatzeko gaitasuna. Aldiz, gainerako sindikatuek afiliatu handia zeukaten, baina militantzia sendorik eta mobilizazio gaitasunik gabeko indar gisa ikusten zituen LABek (LAB, 1992c: 3-4). Horregatik, agortutzat jo zuen sindikalismo eredu hori.

Zehazki, ikuspegi soziopolitikoak alboratu izana leporatu zion ELAri 1992an (LAB, 1992a: 36), eta sindikatu «apolitiko» gisa aurkeztea aurpegiratu zion. Horregatik ez zuen mobilizaziorako gaitasunik, LABen ustetan. Ildo horretan, ELAk arlo sozioekonomikoa landu nahi zuenean, eduki politikorik gabe egiten zuela nabarmentzen zuen LABek; are gehiago, jarrera horren ondorioz, ez zion inolako sinesgarritasunik ematen haren jarduera sozioekonomikoari ere (LAB, 1992a: 36).

Bestalde, euskal sindikalismoaren egoera ez zen LABen aldekoa epealdi honetan. Batetik, Euskadiko lan harremanak Estatuko erakundeek eta CCOOk eta UGTk ezartzen zituzten, nahiz eta sindikatu horien protagonismoak Estatu esparruen ez zeukan batere zerikusirik Euskadin haiek benetan zuten ordezkariak sindikalarekin. Bestetik, ELA 1992an CCOOekin eta UGTekin «akordioak» lortzeko bidea urratzen ari zen oraindik (LAB, 1992a: 24-26). Ildo horretan, LHK eta EGAB, Osalan eta Lanbide Heziketaren Kontseilua bezalako organismoek birtualtasun urria zuten (LAB, 1996b: 28).

Bitartean, ELAk eta LABek gorakada handia lortu zuten hauteskunde sindikaletan, CCOOk eta UGTk ez bezala. Nahiz eta datu hori ez zen oraindik guztiz erabakigarria, bazen aldaketa zenbaiten seinale. Hamarkadaren erdialdean, ELA LABengana hurbildu zen, eta CCOO eta UGT sindikatuetatik urrundu. Azken bi sindikatu hauek, «ahulezia kezkarria» izanik ere, «gestio eta protagonismo instituzionaleko gailurretara» iritsi ziren. Ondorioz, areagotu egin zen beren «menpekotasun ekonomikoa eta eragilea». Eta sindikalismo abertzalearekiko «enfrentamendu estrategikoa» indartu zuten (LAB, 1996a: 31). Testuinguru horretan, ELAk eta LABek dokumentu bateratua sinatu zuten 1995eko Aberri Egunean, eraikuntza nazionalarekiko konpromisoa berretsiz (LAB, 1996a: 41-42). Hala ere, ez ziren ELArenaganako kritikak eta mesfidantzak falta LABen, iraganean «apolitikotasuna» bultzatzeagatik eta Espainiako sindikatuak laguntzaile gisa aritu izanagatik (LAB, 1996a: 7).

Ezker sindikaleko beste eragileei zegokienez (ESK, CNT, STEE-EILAS, CCOOko Ezker Sindikala...), beherakada handia bizi zuten. Izan ere, esku hartze sindikala «puntu beroetara» mugatu zuten. Testuinguru hartan, LAB «euskal ezker sindikalaren biltzaile organizatibo gisa agertzean», sindikatu horiek «egozentrismoa» eta «LABekin zuten desberdintasuna» lantzen aritu ziren (LAB, 1992a: 31) 1996rako, baina, izaera testimoniala besterik ez zuten (LAB, 1996a: 45), eta horiek gutxieneko joera hartu zuten sindikatu abertzaleak.

1994ko lan erreforma arbuiatu egin zuen LABek, ELAk ez bezala. Izan ere, enpresarien boterea indartu egiten zuen erreforma horrek, eta langileen lan baldintzak gehiago prekarizatu; hala, kaleratzeak erraztu zituen eta behin-behineko kontratuak legeztatu, esaterako (LAB, 1996b: 15; 1996c: 6). Haatik, Langileen Estatutu berriaren 84. artikulua baliatu beharreko aukerak ematen zituen Euskadiko negoziazio kolektiboa garatzeko, eta sindikatu eta patronalen erasoaldi antidemokratikoak gelditzeko, LABen ustetan (LAB, 1996b: 23). Alde horretatik, ELAekin bat zetorren LAB, nahiz eta azken honek alde txar gehiago ikusi, onak baino, araudian.

Azkenik, Europako gune sozialak irekitako bideei buruzko jarrera oso eszeptikoa azaldu zuen sindikatuak. LABen aburuz, Europar proiektuak ez zuen negoziatorako benetako aukerarik eskaintzen. Hori zela-eta, «suizidiotzat» jo zuen horren aldeko apustua egiteko tentaldia (LAB, 1996b: 21-22).

Egoera ekonomikoa: industriaren krisia eta Euskal Herriaren menpekotasuna

Egoera ekonomikoa gorabeheratsua zen, eta haren bilakaerak «garrantzi handia hartu zuen sindikalgintzan eta politikagintzan, azterketak egin eta lan egiterakoan» (LAB, 1992a: 17).

Estatuaren ekoizpenaren egiturak eta Europan integratzeko premiek asko baldintzatu zuten egoera ekonomikoa. Euskal ekonomiaren ahultasun estrukturalak eta politika ekonomiko propioak bultzatzeko ahalmen faltak lehen eta bigarren sektoreen suntsiketa ekarri zuten, sare industrialak Europari eta munduari buruzko menpekotasun handia eta azpiegitura arazo larriak baitzituen. Halaber, ekonomia horren gaitzak EAEko eta Nafarroako gobernuek gobernu zentralari zioten morrontza harremek larritzen zituzten (LAB, 1992c: 2, 1996a: 43).

Horrez gain, sindikatu erreformisten laguntzarekin, PSOEn gobernuak egikaritutako eskubide sozialen murrizketek gizarte barneko desberdintasunak areagotu zituzten (LAB, 1992a: 10). Hala, Europar Batasunean sartzearekin batera, PSOEn politika neoliberalak ongizate Estatua ahuldu, ondasun publikoak pribatizatu eta langileen bizi maila eta lan baldintzak okertu zituzten (LAB, 1996a: 29-30).

Egiturazko diagnostiko markoa: aldaketa sakonak

SESBen gainbeherak ezkerren noraeza ideologikoa ekarri zuen, haren erreferente ideologiko-historikoaren galeraren ondorioz. Gainera, SESB bezalako motore politiko-ekonomiko baten faltak beste herri aurrerakoien bilakaera eta askapenerako borrokak

baldintzatu zituen (LAB, 1992a: 3-4, 6). LABen urte haietako diskurtsoan nabarmentzen denez, testuinguru hartan kapitalismoa beren botere politiko, ekonomiko eta militarrek hedatzen zebilen, eta langileen eskubide sozialak nabarmen murriztu zituen prozesu horrek (LAB, 1992a: 4-5). Aipatu aldaketak mundu esparruko desorekak ekarri zituen, baita ingurumenean ere, espantsio goseak bultzatuta (LAB, 1992a, 1996a).

Hala ere, LABek kapitalismoaren konpromiso historikoen porrot ideologikoa azpimarratu zuen, batez ere, demokrazia politikoa eta gizarte ongizatea bermatzeko unean. Gero eta argiagoa zen «sistema kapitalistaren lidergoaren balio falta, filosofia ekonomiko eta sozial gisa, gizarte demokratiko, garapen ekonomiko orekatu eta gizakien arteko esplotazioan oinarritu gabe baterantz aurrera joateko». Hala, ezkerren krisi ideologikoaren testuinguruan, LABek oraindik jarrera baikorra azaleratzen zuen diskurtsoan, sortutako aukera berriak baliatzeko asmoarekin (LAB, 1992a: 3-4).

Mundu Ordena Berria 1996an egonkortuago zegoela, «globalizazio» eta «neoliberalismo» terminoek presentzia handiagoa irabazi zuten sindikatuaren diskurtsoan; adibidez, ez zen «sistema kapitalista» (modu abstraktuan) aipatzen egoeraren erantzule gisa, kapital finantzarioa eta enpresa transnazionalak baizik (LAB, 1996a: 9-10). LABen azterketaren arabera, globalizazio neoliberalarekin batera pobreen eta aberatsen arteko desorekak areagotu egin ziren mundu esparruan; AEBek, EBak eta Japoniak munduko bloke hegemonikoa osatzen zuten sistema horretan, eta enpresa transnationalei beharrezkoa zuten erreferentzia politiko-instituzionala eskaintzen zieten (EBren integrazio prozesua esaterako) (LAB, 1996a: 16-17). Denen gainera, AEBak bilakatu ziren munduko zaindari ideologikoa eta militarra (LAB, 1996a: 9-12).

Nazioari buruzko auziari zegokionez, SESBen gainbeherak Estatuaren egonkortasunaren mitoa hautsi eta independentziaren aldeko borroken berreskurapena ahalbidetu zuen Europan, eta, LAB ustetan, autodeterminazio eskubidearen aldarrikapena aldaketa sozialerako eta politikorako beste borrokekin lotzeko aukera eman zuen (LAB, 1992a: 7, 15). Horren harira, Estatu ereduaren krisiak, ongizate Estatuaren desegiteak eta sozialdemokraziaren proiektu sozialaren porrotak, Europako Herrien aldeko borroka bultzatzeko abagune eraberritua eskaintzen zuten (LAB, 1996a: 16-22).

Dena den, abertzaletasunaren berrindartzeak ez zuen nortasun nazionala salbatzen. Aitzitik, aldaketa soziopolitiko sakonak ez ezik, aldaketa kulturalak ere gertatzen ari ziren euskal gizartean, eta jokabideak eta ohiturak eskuinera mugitzen ari ziren: kontsumismoa,

elkartasun eza, pragmatismoa... Horiek ezker abertzalearen eta LABen proiektu eraldatzailearen eta estrategiaren kontrako balioak ziren, hain zuzen ere (LAB, 1992a: 15; 1996a: 49-50). Ildo horretan, gazteak ezker abertzalera batzea zailago bihurtu zela ohartu zen sindikatua. Izan ere, gazteek ez zuten frankismoaren egoera bizi izan, eta gainera, masa komunikabideek ezker abertzalearen aurkako lan intoxikatzailea egiten zuten etengabe, haren ustetan (LAB, 1992a: 16; 1996a: 49-50). Alabaina, bonbardaketa ideologikoa jarraitua izanagatik ere, LABek langileriaren klase «kontzientzia eta erantzuteko gaitasuna heldu eta areagotu» egin zuela baieztatzen zuen bere dokumentuetan (LAB, 1996a: 49) kontrako testuinguru hartan, militantzia motibatzeke asmoz. Ildo berean, sindikatuak ikusten zuen ezker abertzalearen proiektua aberats zezaketen mugimendu sozialean beste eragile batzuk ere indar handiz sortzen ari zirela euskal gizartean, hala nola: intsumisia, ekologismoa, bakearen aldeko lana, eta abar (LAB, 1992a: 15; 1996a: 49-50). Esaterako, ingurumen arazoa garrantzitsuago bihurtu zen sindikatuarentzat ere (LAB, 1996e: 5-6).

Lan munduan lan baldintzen aldaketa oso sakonak gertatu ziren epealdi honetan, bestek beste, garapen teknologikoak eragindakoak. Alde horretatik, lan merkatuaren degradazioa eta euskal langileriaren desegituraketa sozial prozesu latza gauzatzen ari zen urte hauetan, eta prozesu horren ondorioz industria-langileek gero eta pisu murriztagoa zuten ekoizpenaren prozesuan (LAB, 1992b: 30). Horrenbestez, langileriaren osaketa ere gero eta anitzagoa zen, eta langileen arteko atomizazioa eta zatiketa gero eta sakonagoa. Aldaketaren dinamika horretan, langile atipikoak ugaritzen eta normalizatzen ari ziren: behin-behineko langileak, langabetuak (gazteak, emakumeak...), jubilatuek, ezkutuko ekonomian ari zirenak, langile autonomoak, eta abar. Ordura arte langile atipiko izandako horiek bazterturik zeuden hala lan merkatuan nola gizartean, eta beraz, esku hartze sindikal berezia behar zuten, LAB sindikatuaren ustetan. Izan ere, langileriaren parte ziren guztiak, eta borroka sindikalaren osotasunean txertatu behar ziren (LAB; 1992a: 24; 1996a: 49-51; 1996e: 6-8).

Oro har, aldaketa horiek zirela medio, langileen lan- eta bizi-baldintzek okerrera egin zuten, eta euskal langileen mugimendua gero eta egoera zailagoan zegoen horiei aurre egiteko, bai lan indarra antolatzeke forma berriengatik, eta bai gizartean hedatzen ari zen kultura eta ideologia berriagatik, atal teorikoan aztertu dugunaren ildotik.

Arian-arian, mudantza sakonen testuinguru honetan lanaren ulerkera bera (eta lanaren protagonista zirena) ere aldatuz joan zen sindikatuan. Ildo horretatik, nabarmentzekoa

da 1996an emakumeen zapalkuntza egoerarekin lotutako irakurketa berritzailea plazaratu zuela sindikatuak, etxeko langileen inguruko gogoetaren harira. Izan ere, «emakumeak eta lanaren» gaia lantzeko proposamena aurkeztu zuen sindikatuko emakume talde batek, eta ondoren kongresuko ebazpenetan islatu zuten (LAB, 1996d). Dokumentu horretan, emakumeen zapalkuntza baldintza sozioekonomikoetan, sexuen arabera lan banaketan eta klase egituraren oinarritzen zela adierazi zen, eta, hala, esparru erreproduktiboan zein produktiboan islatzen zela. Emakumeek lan munduan izandako eginkizunaren azterketa sakona eskaini zuen, ekoizpen prozesuaren antolaketan izandako aldaketei lotuta. Horien arabera, emakumeei egokitu izan zitzaen lan baldintzarik okerrenak beren gain hartzea, hau da, lanaren ikuspegi klasikoan lan «atipikoak» eta «enplegu» formatik urruntzen zirenak: lan informala, etxekoa, prekarizatu... Lan mota horien ezaugarria «ikusezintasuna» zen, eta horregatik ez ziren beste lan formen neurri berean aitortzen. Aipagarria da, beraz, kongresu honetan etxeko lanak ekintza sindikalaren erdigunera eramateko sindikatuako emakumeek eta sindikatuak berak egindako ahalegina. Ildo berean, ezin da ahaztu 1994an zegoeneko Euskadiko III Jardunaldi Feministak eginda zeudela (1977 eta 1984koen ostean) eta mugimendu feministaren eragina indarra irabaziz zihoala euskal gizartean.

Hala ere, azpimarratu behar dugu, atal teorikoan agertutako zenbait elementu aipatu zituen arren, sindikatuak (lan baldintzen prekarizazioa, indibidualizazioa, lan indarraren antolaketa moduaren aldaketa, langile klasearen izaera anitzagoa, eta abar), lan munduko aldaketei eskainitako arreta orokor samarra izan zela oraindik hamarkada honetan, eta munduko zein estatuko dinamika politikoek arreta handiagoa jaso zutela izaera batik bat politikoa zeukan LAB sindikatuaren aldetik.

Norberaren jardueraren balorazioa: ezina ekinez egina

1990eko hamarkadan LABek oso ondo baloratu zuen bere jarduna, eta, ELAk bere aldetik egin bezala, harrotasunez erakutsi zituen bere lorpenak eta jardunak diskurtsoan. Izan ere, nabarmendu zuen ezker sindikala delakoaren baitan (ideologikoki ELA, CCOO eta UGTren ezkerrean kokatzen zuen bere burua) indarra hartzea eta sindikatu ordezkagarri bihurtzea lortu zuela, ezkerreko beste sindikatu txiki askok ez bezala. Egiaz, ez zen lorpen makala izan, aurreko hamarkadetan LABek izandako ordezkagarritasun eskasa ikusita (Iraultzen, 1992). Hala, ordezkari sindikalen kopurua etengabe handitzea lortu zuen, eta oraindik gorago egin zezakeela aurreikusten zuen (LAB, 1992a: 32).

Horietako balorazio asko ezker abertzaleko antolakunde gisa egin zituen, eta ezker abertzaleak zeuzkan estrategiaren eta helburu politikoen esparruan kokatu zituen, HBren lorpen elektoralaz ari zenean, esaterako. Ezker abertzalea lurperatzeko ahaleginei aurre egiteko erakutsitako gaitasunek haren erakundearen autoestimuaen sustatzaile moduan jokatu zuen, eta ildo hori landu zuen LABek ere bere diskurtsoan. Sindikatuak zioenez, jasotako errepresioa handia izanda ere, ezker abertzaleak bere proiektuari eutsi zion; gainera, haren aburuz, Estatutuaren bidean aurreikusitako mugak egiaztatu egin ziren hamarkada horretan. Ondorioz, ezker abertzalearen tesiak indartzen ari ziren pertzepzioa zuen (LAB, 1992a: 12-13; 1996a: 40-41), ELAren birak erakutsi bezala.

Hartara, motibazioari eusteko, funtsezkoak ziren sindikatuaren izaera soziopolitikoak eta ezker abertzalearekiko lotura. Horri esker, sindikatu txikia izan arren, mobilizatzeko gaitasun handiak zituen, eta horrek eman zien haren militanteei sindikatu nagusiek ez zuten borrokarako grina. Ondorioz, euskal esparru sindikalaren barruan egoera sozialari nahiz politikoki benetako irtenbidea eman ziezaikeen sindikatu bakartzat zuen bere burua.

Hala ere, baikortasun hori ez dator bat ezker abertzaleak 1992an zuen indarraren inguruan historialariek esan dutenarekin. Izan ere, Espainiar Gobernuaren eta ETA erakundearen arteko Arjeleko elkarrizketak amaitu berriak ziren 1989an¹³⁸, eta elkarrizketa horien porrotarekin batera 1992rako pentsatutako estrategiak ere porrot egin zuen ezker abertzalean, Bidarteko atxiloketen ondorioz (Lizarralde, 2016: 306). Atxiloketa horiek martxoaren 29an izan baziren, hau da, LABen kongresua baino astebete lehenago, zalantzarria da LABek kongresuan adierazitako baikortasunaren zintzotasuna; aitzitik militantziaren motibazioari eusteko tresnatzat erabili zen haren diskurtsoa. Dena dela, LABen egoera ez zen ezker abertzalearen egoera berbera, eta arlo politikoko gorabeherak ez zuten ezinbestean arlo sindikala zuzen-zuzenean baldintzatu behar.

Diagnostiko markoen ondorioak

Oro har, ENAMen eta ezker abertzalearen dinamikek erabat baldintzatu zuten koiunturaren azterketa. Hori zela eta, LABen koiunturaren azterketa alderdi politiko batek egin zitzakeen azterketatik oso hurbil zegoen, eta formalki sindikatua izan arren ere, gutxi

¹³⁸ Arjeleko elkarrizketak ETAren eta Espainiako gobernuaren artean izandako, negoziaketa prozesu bat martxan jartzeko. Baina halakorik ez zen gertatu, ETAk akordioak ez errespetatu izana leporatu ziolako gobernuari (Egaña, 1996: 178-179).

sakontzen zuen beren gogoetetan gai hertsiki laboraletan edo sindikaletan. Horrek bere izaera soziopolitikoak uzten du agerian.

SESBen gainbeherak eragin handia izan zuen bai LABen bai ezker abertzalean. Eragin hori bi ildotan islatu zen. Alde batetik, Europako ezkerren krisi ideologiko berean zegoen murgilduta ezker abertzalea ere, baina aukera moduan ikusten zuen dogmarik gabeko sozialismo demokratiko bati eusteko beharra. Beste alde batetik, baina, ekialdeko herrialde berrien sorrerak eta autodeterminazio eskubidearen onarpenak ezkerren barruan, nazio Estatuaren dogma apurtzeko eta nazio eraikuntza prozesu berri bati ekiteko aukerak eskaini zituzten ezkerreko abertzaleentzat.

Egituraren analisisan aitortutakoaren arabera, 1992an LABek ikusi zuen bloke sozialistaren desagertzea kapitalismoaren boterea areagotzea ekarri zuela, eta mundu esparruko merkataritza lehia haztea. Hego Euskal Herriko lan baldintzak eta langile mugimenduaren ahalmena bi eratarik mehatxatu zituzten prozesuok. Lehenik, lehiaren areagotzeak lanaren kostuak murrizteko eta esplotazio maila handitzeko aitzakia eman zion patronalari, esaterako, langileen arteko atomizazioa bultzatuz eta behin-behinekotasuna normalizatuz. Bigarrenik, kapitalismoak lortutako gailentasun politikoak eta ideologikoak langileen bizi mailaren kontrako erasoaldiari erantzuteko ahalmena murriztu zuten. Hala, borroka sindikala zailago bihurtu zen baldintza horietan.

Modu horretan, eta zailtasunak zailtasun, gertaera horiek ezkerreko termino berrietan berregituratzeko eta sozialismo errealearen gaitzak alboratzeko aukera eman zuten; eta, horrez gain, aldarrikapen nazionalak eta autodeterminazio eskubideak onarpen maila zabalagoa izan zezaten borrokatzeko ereduak eskaini zituzten, LABen ustez. Bestalde, eta nazioarteko egoerak ekarritako aldaketek gain, arestian aipatu dugun bezala, emakumeek burututako lan «ikusezinen» egoera ere mahaigaineratu zuen sindikatuak urte horretan; auzi hori kongresu batean eztabaidagai hartu izanak, nazioartean ez ezik euskal gizartean ere aldaketa eta gatazka berriak sortzen ari zirela erakusten du.

1996ko kongresuan aurkeztutako diagnostikoaren ildoak ez ziren gehiegi aldatu lehenago egindakoetatik, posizio ideologiko-politikoari zegokionez, behinik behin. Kontua da ordurako globalizazio prozesua eta nazioarteko ordena berria osatuago eta finkatuago zedela eta, beraz, modu xeheagoan eta terminologia espezifikoa arekin deskribatu ahal izan zuela sindikatuak nazioarteko testuingurua. Bestalde, LABek nabarmendu zuen mundu esparruko aldaketek eta Europan izandako integrazioak Espainiar Estatuaren

izaera antidemokratikoa eta gaitasun eza azalerazteko aukera zabaldu zutela; baina ez zen horrela izan, eta egoerak txarrera egin zuen.

Hala ere, LABek, ezker abertzalearen parte modura, harrotasun maila handia agertu zuen testuinguru horretan mantendutako konfrontaziorako jarreragatik eta lortutako hazkundeagatik, eta gainerako sindikatuen apaltasuna kritikatzeko legitimatuta ikusi zuen bere burua. Haatik, hamarkada hori nahiko nahasia izan zen ezker abertzalearentzat, nahiz eta arlo sindikalean LABek bazituen baikor izateko arrazoiak.

Azkenik, irakurketa baikorrak gora behera, azpimarratzekoa da 1996ko LABen diagnostiko estrukturalak eta koiunturalak aurrekoak baino errealistagoak izan zirela, baita osoagoak ere. Bada, 1992an ezker shock egoeran aurkitzen zen, globalizazioaren nondik norakoak eta haren ondorioak oraindik ondo neurtui ezinik. 1996an, ordea, argitasun handiagoz ulertu zuen sindikatuak mundu esparruan nahiz gizarte esparruan garatuz zihozten prozesuen norabidea.

PRONOSTIKO MARKOA (ESTRATEGIKOA)

Printzipio eta helburu ideologikoak: terminologia aldaketa

Printzipio eta helburu ideologikoei dagokienez, egiturazko azterketan aurreratu den moduan, aldaketa ideologiko sakonak jazo ziren ezkerreko indarren artean. Ezker abertzalea (Etxebarria, 2018) eta LAB ez ziren astindu horietatik kanpo geratu.

Klase sindikatu abertzalearen eta soziopolitikoaren definizioari eutsi zion LABek halere, baina oraingoan izaera «eraldatzaile» terminoak «iraultzaile» kontzeptua ordeztu zuen haren diskurtsoan (Iraultzen, 1992: 2); era berean, balizko Euskadi independentean «balio demokratikoak eta justizia soziala erabat garaturik» egongo zirela adierazi zuen (LAB; 1992a: 34). Ikusten denez, hizkera demokratikoaren eta pentsamendu sozialdemokrataren logikan lerrokatu zen sindikatuaren diskurtso eraberritua, eta urrundu egin zen tradizio sozialista marxistatik, inguru sozialean gertatzen ari ziren aldaketa estrukturalen seinale. Izan ere, SESBen gainbeherak kolokan jarri zituen zenbait aldaketa prozesu egikaritzeko itxaropenak, ondorioz, burutu beharreko gizarte aldaketen planteamendu malguagoa egiten hasi zen LAB bere adierazpenetan. Zehatzago esanda, LABek «sozialistatzat» zeukan bere burua, baina sozialismorako bidea berrosatu egin nahi zuen bide sobietarrak «porrot» egin zuelako eta, besteak beste, herrien burujabetasuna eta eskubideak praktikan ontzat hartu ez zituelako (LAB, 1992a: 6). Hitzez hitz adierazitakoaren arabera, «gizarte sozialistaren aldeko borroka helburu ordezkazina dirau, baina sozialismorako bideek

eta eredu sozialistak, bere osotasunean, ezaugarri dogmatiko eta itxiak apurtu behar dituzte» (LAB, 1992a: 4). Hortaz, marxismoaren ohiko terminologia alboratu zuen sindikatuak eta, ELAk 80ko hamarkadan egin bezala, terminologia orokorragoa eta moderatuagoa erabiltzen hasi zen.

Balio sozialetan oinarritutako ezkerreko ideologiaren adierazle gisa har dezakegu LABek «askatasuna» ezarri izana gizarte eraldaketarako militantzia-ereduaren balio-ardatz gisa. Horren harira, historiaren edo naturaren legeen halabeharrezkotasunaren aurka eginez, ezbaian jarri zituen sindikatuak askatasunaren ulerkera marxistaren zein kristauaren kutsu deterministak, eta hauxe baieztatu zuen: «egin behar dena egitea gure esku dagoela jakitea» da askatasuna (LAB, 1992d: 12). Askatasunaren balioaren garrantzia neoliberalismoaren eragina indargabetzeko ahalegin moduan interpretatzen dugu. Ildo berean, azpimarratzekoa da gizartearen eraldaketarako bidea militantzia eredia jorratuz eraikitzeke egindako saiakera, agerian uzten diguna etikak eta balioek eraldaketa sozialean hartutako garrantzia, LABen ikuspegian.

Bestalde, sozialismoaren ohiko ulerkera marxistatik aldentzean, demokrazia-zaletasuna funtsezko bihurtu zen ezker abertzalearen planteamendu politikoetan, independentziaren aldeko borroka justifikatzeko, adibidez. Ildo horretan, eta SESBen gabezietatik urrundu nahian, «sozialismo demokratikoa» jo zuen jorratu beharreko bidetzat LABek (LAB, 1992a: 6-7); ETAk, bere aldetik, «Alternatiba Demokratikoa» plazaratu zuen garai horretan, eta autodeterminazioa bezalako eskubide nazionaletan eta demokratikoetan zentratu zituen bere helburuak. Hala, bira diskurtsiboa gauzatu zen ezker abertzalearen erakundeetan. Geroztik, nazio eraikuntza diskurtso demokratikoan oinarritu zen, eta LABi egokitu zitzaion ekinbide sindikalean ildo hori jorratzea, nazio eraikuntza eta gizartea aldatzeko borroka proiektu bakar batean elkarturik (LAB, 1996b).

Orain arte aipatu dugun testuinguru estrukturalaren aldaketa zela-eta, nazio arazoaren iturburua ez zegoen jadanik Frantziako eta Espainiako estatuen esku soilik: globalizazioak gero eta eragin handiagoa zeukan estatuen eraketan, haien arteko indar harremanetan, eta nazioarteko geopolitikan nahiz interes geostrategikoetan. Hartara, horretaz oharturik, nazio borrokek birformulazio sakona jasan zuen hala sindikatuan nola ezker abertzalean. Landutako estrategia berrian, nazio arazoa ezin zen konpondu Estatuarekin izandako konfrontazioari eutsiz; arazoaren erroak globalagoak ziren. Hortaz, lehenbailehen ekin behar zitzaion Euskal Herria eraikitzeari. Ildo berean, sindikatuarentzat garrantzitsua zen nazioaren alde munduko gainerako herrialdeekin

harremanak estutzea, eta herrien askapen nazionalaren eta sozialaren aldeko borroka hauspotzea (LAB, 1996a: 14-15).

Ikusten dugunez, aldaketa ideologiko eta diskurtsibo sakonak jazo ziren hamarkada honetan, testuinguruan gertatzen ari ziren aldaketa estrukturalen adierazle. Hala ere, aldaketak gertatu izanagatik, ezker abertzalearen funtsezko ardatz ideologiko nagusiek (askapen nazionalaren eta sozialaren inguruan eraikitakoak) beren horretan jarraitu zuten. Hari horretatik, argi dago LABen afiliazioa (botere asoziatiboa deitu dugun hori) atxikimendu ideologikoan oinarritu zela, batik bat, eta sindikatuan afiliatzea erabakitzen zuen gehiengoak afinitate ideologikoak eraginda ematen zuela pausoa (MRAF¹³⁹, 1993: 9).

Aldarrikapen eta esku hartze eremuak

Esku hartzeari zegokionez, bi eremu bereizi zituen LABek. Esparruetako bat lantegiak eta enpresak ziren. Zalantzarik ez, lantegietan «burubelarri sartuta» egon behar zuen sindikatuak. Baina, «langileen interes eta eskubide ugari» ezin zitezkeen «enpresaren marko soilean» defendatu; langileriaren banaketa zen horretarako zegoen lehen eragozpenetako bat. Eta bigarrena, Estatuaren politika fiskal, ekonomiko, sozial eta laboralak «maila politikoan» ebazten zirela. Hortaz, esparru politikoak osatzen zuen sindikatuaren bigarren esku hartze eremua. LABen hitzetan, sindikatuen «politizazioa» saihestezina zen, eta, gainera, «Euskadin, Espaniar eta Frantziar estatuen arteko subiranotasunaren gatazka» eremu horretan kokatu beharra zegoen, ezinbestean (Iraultzen, 1992b: 2).

LAB sindikatuak egindako irakurketa horrek atzera ere berresten du ikerketa-lan honen hipotesietako bat, alegia, soldatapeko lan eremuko esku hartzeak eraginkortasuna galduta, une jakin batean eremu soziopolitikoak gero eta garrantzitsuago bihurtu zela langile klasearen osotasunaren bizi maila hobetzeko eta aberastasunaren banaketa onuragarriagoa erdiesteko bidean.

Soldatapeko lan eremua: negoziazio kolektiboan zentratu, beste esparruak alboratu barik

Soldatapeko lan eremuari zegokionez, gizartearen eta ekonomiaren egoera larria zenez, ELAn gertatu bezala, LABen ere enpleguaren behin-behinekotasunari eta euskal eremuko industria-krisiari erantzuteari eskaini zitzaion lehentasuna 90eko hamarkadan. Izan ere, langile finkoen eta behin-behinekoen artean sortzen ari zen zatiketak «mugimendu

¹³⁹ Manu Robles-Aranguiz Fundazioa.

sindikalarren amiltze arrisku larriak» ezkututzen zituen, baita patronalaren boterea handitu ere, LABen ustetan (LAB, 1992b: 32-35). Beraz, lan baldintzak berdintzeak lehen baino arreta handiagoa jaso zuen; enplegu egonkorra babestu behar zen eta enplegu berria sortu. Bide horretan, 35 orduko lan astearen aldarrikapena ezarri zuen helburu estrategikoa gisara sindikatuak (LAB, 1992b: 38; 1996b: 26-6, 35).

LABen aburuz, negoziazio kolektiboa soldataren auzira eta lanaldira mugatu izanak patronalaren boterea handitzen zuen; negoziazio kolektiboaren «ulermen tradizional eta industrialistaren» akatsa zen negoziazio hori auzi horietara mugatzea, beraz. Eredu horrekin eteteko, sindikatuarentzat garrantzitsua zen lan harremanen kontrolerako eta negoziazio kolektiboaren demokratizazioranzko urratsak egitea, informazio eskubidea lortzea eta zabaltzea eta teknologia aldaketetan esku hartzea, besteak beste, (LAB, 1992b: 39; 1996b: 27-28).

Gainera, ahalegin berezia egin zuen LABek aldarrikapen horiek guztiak eremu soziopolitikoarekin lotzeko eta, sindikatu gisa, den-denei osotasunezko erantzuna emateko. Ildo horretan, marko politiko-juridikoari lotutako helburuek presentzia irabazi zuten 1996ko kongresuan, hala nola, lan harremanetarako euskal gunearen eraikuntzak eta euskal gune sozio-ekonomikoaren eraketak. Ondorioz, aurreko urteetan baino interes handiagoa izan zuen LABek organo instituzionaletan parte hartzeko, nahiz eta jarrera kritiko batetik abiatuta planteatu partaidetza hori (LAB, 1996b: 38-39).

Eremu soziopolitikoa

LABek bere sorrera unetik defendatu zuen ezin zuela bere ekimena soldatapeko lanera bideratutako aldarrikapen ekonomizistetara mugatu, eta printzipio hori mantendu zuen 90eko hamarkadan ere. Sindikatu soziopolitikoa zen, definizioz. Hartara, aktiboki egin behar zuen lan «erreibindikazio koiunturalak eta ekonomikoak aurrera atera eta aldaketa sozial eta politikoak bultzatu ahal izateko»; sindikatuaren aburuz, ez zegoen aldaketa sozialaz hitz egiterik «sindikalgintza ikuspegi “politikotik” aztertu gabe» (LAB, 1992a: 36). Hari beretik, uste zuen kapitalismoaren garapenak ekarritako langile klasearen zatiketak eta gobernu politikek ezinezko egiten zutela langileen interes eta eskubide ugari enpresaren marko soiletik defendatzea (Iraultzen, 1992b; LAB, 1996b: 45). Hots, lantokietako esku hartzea ez zen nahikoa, eta militanteek beren ekintza esparru soziopolitikora ere hedatu behar zuten (LAB, 1992a: 39).

Sindikatuaren izaera politikoa ezker abertzalearen parte izateak ere areagotu zuen. Hala, politikoki, burujabetzaren eta autodeterminazio eskubidearen aldeko aldarrikapenek pisu handia irabazi zuten LABen. Izan ere, lehenago esan bezala, urte hauetako nazioarteko testuinguruak askapen nazionalen sakontzera bultzatu zituen ENAM eta LAB, baina oraingoan autodeterminazio eskubidea oinarri hartuta (LAB, 1992a).

Horrenbestez, Euskal Herriaren egoera sozioekonomikoari erantzuna eman behar zitzaion, bai sindikalismotik bai eremu politikotik; baina horren aldeko lan politikoa eta sindikala galarazten zituen Estatuak ezarritako marko autonomikoak. Horiek horrela, lan harremanen esparru propioa eta aurrerakoa lortzea bihurtu zen LABen helburu estrategikoa; borroka sindikala ENAMen «Euskal Nazio Subiranotasunaren» aldeko borrokarekin lotzea zuen xede sindikatuak (LAB, 1992b: 28).

1996an euskal auzi nazionalari begira egindako planteamenduak berrikuntza bat ekarri zuen. Aurreko fasean, KAS Alternatiban jasotako eskaera demokratikoak Estatuari presio eginez lortu nahi zituzten LABek eta ezker abertzaleak. Baina 1990eko hamarkadako bigarren erdialdetik aurrera, Estatuari egindako eskarien bidea eta horretarako balizko negoziazioa antzu ikusi zirenean, nazioaren eraikuntza bera bilakatu zen helburu. Horrela, egunerokotasunean eta gizarte esparru guztietan landu eta eraiki behar zen euskal nazioa, eta naziotasuna euskal gizartean errotu. Izan ere, ETaren Alternatiba Demokratikoaren arabera, Euskal Herriak izan behar zuen «protagonista» gatazkari konponbide politikoa eta demokratikoa emateko unean. Norabide horretan elikatu behar zituen LABek euskal gune sozioekonomikoa eta lan harremanetarako esparrua (LAB, 1996b).

Bada, sindikatuaren esku hartze soziopolitikoa hasieratik funtsezkoa bazen, are garrantzitsuago bihurtu zen 1995etik aurrera, ez soilik LABentzat baita ENAMentzat ere. Izan ere, Alternatiba Demokratikoak euskal gizarteari eman zion protagonismoa gatazkaren konponbidea eta subiranotasuna lortzeko. Ondorioz, langileen artean zeukan ezarpena bitarteko, LABek autonomia irabazi zuen eta eginkizun estrategikoagoa bereganatu zuen ezker abertzalearen barruan; hala, pixkanaka, gero eta era garatuagoan azaleratu ziren haren helburu soziopolitikoak. Horren emaitza legez, Euskal Esparru Sozio-Ekonomikoaren aldarrikapena gehitu zioten Lan Harremanen Esparru Autonomikoarenari, gai sozioekonomikoetan baitzeuden subiranotasun premia gorrienak (LAB, 1996b).

Alternatiba Demokratikoari jarraikiz, hitzez hitz aipatuta, hauxe lortu behar zuen LABen

ekinbide soziopolitikoak: Euskal Langileriaren Mugimenduak «Euskal Herria datorren mendean independentzia eta sozialismoa lortzeko bidean ipiniko duen garapen sozialeko ereduaren aldeko borrokan partaide aktibo» sentitzea (LAB, 1996b: 47). Horretarako, euskal nortasunaren eta kulturaren, euskararen, ingurugiroaren, intsumisioaren, euskal eskola nazionalaren eta osasun sistema publikoaren aldeko borrokan aldeko apustua egin behar zuen (LAB, 1996b: 48-49). Zalantzarik ez, sindikatuaren jarduera eremua erabat zabaldu zuen ekinbide horrek.

Hari horretatik, arlo sozialeko zenbait gai jorratu behar zituen sindikatuak, hala nola, ekologismoa, euskara, gazteria, emakumeak... Garrantzitsua zen harentzat negoziazio kolektiboan bira ematea eta arlo soziala gero eta gehiago jorratzea (LAB, 1992c: 3). Sindikatuak aitortu zuenez, ekonomia sozialean eta kooperatibismoan ere inplikatu beharra zuen, industria-demokrazia berreskuratze bidean, marko juridiko politiko batean tresna baliagarriak izan zitezkeelako (LAB, 1992b: 48-49). Aldi berean, arestian aipaturiko ezkeraren krisi ideologikoa zela eta, «kapitalismoaren kontrako borroka ideologikoari» eutsi behar zion, eta «balore sozial alternatiboen birsortzea» suspertu, demokrazia, parte hartzea, ekologia eta autodeterminazio eskubidea oinarri harturik. Ondorioz, fase honetan, borroka politikoa eta soziala estuago lotuta agertu ziren, modu gero eta esplizituagoan, LABen diskurtsoan. Eta aldarrikapen sozial, ekonomiko eta sindikalak, Euskal Herriari zegozkion eskubide eta askatasun demokratikoekin eta politikoekin nahastu zituen zuzenean, Nazio Eraikuntzaren aldeko ekimenen baitan barnebilduta.

Azkenik, Europako integrazioak zekartzan mehatxuen aurrean, oso orokorra izan zen Maastrichteko Itunari erantzuteko LABek egindako gogoeta, zehaztasunik gabekoa, erabat (LAB, 1996c: 1). Nahiz eta nazioarteko egoerak pisu handiagoa zeukan urte hauetako haren diskurtsoetan, handi geratzen zitzaizkion gai horiek LABi, oraindik oso harreman gutxi baitzituen Europako sindikatuekin.

Esku hartze eremuei buruzko ondorioak

Orain arte ikusi dugunaren arabera, sorreratik oso argi zituen LABek (soldatapeko) lan esparruaren mugak. Alabaina, 1992an gizarte osoaren mesederako proposaturiko lan eremuz kanpoko neurri zehatzak azalekoak ziren oraindik haren diskurtsoan. 1996an, ordea, ezker abertzalearen aldaketa estrategikoarekin bat eginez, sindikalismo abertzalearen batasunean egindako urratsekin eta bereganatutako autonomiarekin batera, indartu egin zen sindikatuaren izaera soziopolitikoak, modu oso nabarmenean, gainera.

Ildo horretan, KAS blokearen planteamenduen arabera, borroka sindikalaren izaera sektoriala zen nagusi; hala, KASen proiektuarekiko atxikimenduaren bidez egikaritu behar zuen sindikatuak bere eginkizun politikoa, neurri handi batean. Harrezkero, nazio eraikuntzarekin lotutako ezker abertzaleko antolakundeen jarduera sektorial guztiek eginkizun politikoa hartu zuten, bete-betean. «Txinaurri» eta «Karramarro» izeneko berregituraketa prozesuek autonomia zabalagoa eman zioten LABi bere ikuspuntu politikoa propioa garatzeko (KAS, 1995).

Halaber, garaiko nazioarteko joerak ere hartu zituen aintzat ezker abertzaleak bira hori egiterakoan. Hala, ezker abertzaleak nazioartean, Europako ezkerrean eta euskal gizartean jazotzen ari ziren aldaketetara moldatu zuen bere estrategia. Zehazkiago, nazioarteko egoera berriari eta nagusitzen ari zen globalizazio neoliberalari erantzuna emateko funtzioa ere bazuen euskal nazioaren eraikuntzaren aldeko apustuak.

Antolakuntza: sektorializazioari beldurra, KASen berregituraketa eta arlo berrien eraketa

Antolaketari zegokionez, hiru helburu zehaztu zituen LABek 1992an (Iraultzen, 1992b: 6): esku hartze «integrala» (sozioekonomikoa, politikoa eta sindikala) aurrera eramateko lurralde egiturak hedatzea, esku hartze sindikalerako egiturak garatzea eta, azkenik, KASeko egitura amankomunei ekarpena egitea.

Helburu horietara hobeto egokitzeko asmoz, antolaketa ereduaren errebisio sakona egin zuen 1992ko antolakuntzari buruzko ponentzian. Esaterako, berriki aldarrikatzen hasi zen askatasunaren ideian sakondurik, hausnarketa zabala eskaini zion arestian aipatu dugun militantzia ereduari. Gero, abangoardismoaren eta espontaneismoaren aurkako kritikak ere formulatu zituen (LAB, 1992d), sindikatuaren barnean ezkerrearen berrosatze ideologikoarekin lotutako aldaketak gertatzen ari zirela erakusten digutenak.

1996an ere berrikuntzak etorri ziren antolaketa ereduan. Alde batetik, «Idazkari Nagusiaren» figura jartzea erabaki zuen sindikatuak, «Koordinatzaile Orokorren» ordeztu. Beste alde batetik, Idazkaritza Iraunkorren lekuan, Batzorde Exekutiboa sortu zuen; eta, azkenik, Batasun Nazionalak egin ordeztu, Nazio Biltzarrak egingo zituztela iragarri zuen.

Ikusten ari garenaren ildotik, KASen parte izateak LABi onura handiak ekarri bazizkion ere, hainbat berregokitzapen egin behar izan zituen bloke horretan jarraitzeko. Parte hartze horrek, hala ere, jarduera banaketak eta mugak ekarri zituen KAS plataformako

eragile desberdinen arteko jarduera eremuak nahas ez zitezten. Hala, KASi buruzko loturak ez zuen sindikatuaren hedapenerako oztopo izan behar, ezker abertzalekoak ez ziren langileak proiektuan sartzea ahalbidetzeko unean, adibidez. Era berean, LABek ez zuen HBren sindikatua izan behar, ezker abertzalearen oinarri ideologikoak partekatzen zituen arren. Horregatik, «aparatokeria» alboratu behar zuen, eta «sindikatuaren barne demokrazia indartu» afiliatuen parte hartzea sustatzeko (LAB, 1992a: 35-36). Hari beretik, 1996an LABek bere autonomia azpimarratu zuen beste behin ere, gainerako eragile politikoekiko nahiz erakundeekiko mendekotasunik gabea (Bustillo, 2007: 11) eta bere ekimen soziopolitikoak garatzeko ahalmen osoa zuena. Diskurtso hauen karietara, kontuan hartu behar dugu urte horietan KAS berregituratu egin zela (KAS, 1995), eta ELAekin aliantzan sakontzeko ENAMen egiturei buruzko autonomia aldarrikatzeko eta azpimarratzeko beharra zuela sindikatuak.

LABen egitura lurraldearen irizpidean oinarrituta zegoen batik bat, baina 1992ko kongresuak egitura sindikalaren sektorializazioa ere ekarri zuen (LAB, 2000a: 143). Haatik, eskualdeko organoek berebizikoak izaten jarraitu zuten sakabanaturik zeuden langile kolektiboetan presentzia eta eragina bermatzeko eta gune horietan ekinbide soziopolitikoak gauzatzeko. Hala, eskualdeek ekinbide sindikal propioa, indartsua eta zehatza garatu behar zuten, eskualdeko langileen arazoei berehalako erantzuna eman ahal izateko. Izan ere, lantegi handi batean sekzio sindikal batek lan handia egin ahal zuen arren, nahiko erlatiboa zen lan horrek langileriaren osotasunean zeukan eragina (LAB, 1992d).

Baina, 1996an, aurreko kongresuan abiatutako sektore egituraren garapen bizkorrak bultzatutako eredu sindikalari buruzko zalantzak sortu zituen sindikatuaren barnean, sindikatu «klasikoen» gero eta antz handiagoa hartzen ari zelakoan. Hala, 1996an, hamarkada hasieran izandako hazkundeak eta hedapenak kezka sortu zituen, sumatutako «burokratizazio eta sektorializazioaren» aldeko joerengatik. Horren aurrean, LABek adierazi zuen, enpresaz enpresako antolaketari uko egin gabe, militantziak osotasunezko esku hartzea bultzatu behar zuela, betiere lurralde egiturari egokitutako eginkizunak baliatuz (LAB, 1996f: 14-17).

Lurralde egitura eta egitura sektoriala osatzearekin batera, presentzia sindikal eskaseko esparruetara hedatu behar zuela ekintza sindikala erabaki zuen LABek, eta arlo berriak sortu haietan (emakume langileenak, kooperatibistenak, elbarrienak, eta abar) (Iraultzen, 1992b). Ildo horretan, 1992an honako arlo berriak eratu zituen, arduradun banarekin:

euskalduntzea, lanaren antolaketa zientifikoa, emakumeen arloa eta gazteriaren arloa (LAB, 1992d: 43-45). Ildo beretik, 1995ean LAB-Gazteak eta LAB-Langabetuak izeneko antolakuntzak eratu ziren, eta 1996an, LAB-Emakumeak (Iraultzen, 1999: VIII). 1996ko kongresuaren helburu nagusia arlo horiek osotasunezko ekinbide sindikalaren baitan garatzea izan zen, hain zuzen ere.

Aliantzak: autonomia eta lagun berriak

LABen jarduera sindikala eta soziopolitikoaren ENAMen estrategiarekin bat zetoenez, hura elikatu behar zuen sindikatuak. Bide horretatik, langile mugimenduaren eta ENAMen arteko lotura sendotzea egokitu zitzaion LABi, langile mugimenduaren aurrerapenak ENAM osoaren aurrerapenen menpe zeudelako (LAB, 1992b: 28). Era berean, KASen parte izateak bere jarduera lanekoak ez ziren bestelako borrokekin koordinatzea ahalbidetu zion (LAB, 1992d).

Dena dela, KASek eraginkortasuna galdu zuen urte hauetan borroka desberdinak koordinatzeko eginkizunean. LAB sindikatuak bere indarra eta mobilizazio gaitasuna blokeari zor bazion ere, ezker abertzaleak eta ETAk zailtasun operatiboak zituzten une horretan (Lizarralde, 2016: 312). Zailtasun horiek gainditzeko asmoz, KASek Txinaurri eta Karramarro izeneko berregituraketa prozesuak jarri zituen abian. Horren ondorioetako bat izan zen KAS plataformaren barruko antolakundeak koordinatortik deslotu zirela. Hala, aurrikusi zen aurrerantzean «antolakunde berria kidez osaturikoa» izango zela, eta «ez antolakundez osatutako erakunde edo koordinakunde bat». Bestela adierazita, autonomia onartu zitzaizen artean plataformako kide zirenei. Ondorioz, LABek ere bere ildo garatzeko autonomia handiagoa lortu zuen, «beste inongo lotura organizatiborik gabe» (KAS, 1995). Hala ere, aitortu zuen funtsezkoa zela ezker abertzaleari buruzko lokarriren bat mantentzea, langileen artean lortzen zuen atxikimendua arrazoi ideologikoetan oinarritzen zelako, batik bat (MRAF, 1993: 9).

Antolakunde gisa KASetik deslotzeak bere aliantza propioak garatzeko aukerak zabaldu zitzaion LABi. Hain zuzen ere, baldintza horixe eskatzen zion ELAk LABi bien arteko lankidetzak gauzatu ahal izateko, alegia, sindikatu moduan ENAMei buruz autonomiaz jardutea. Ondorioz, hamarkada honetan aldaketa oso sakonak etorri ziren sindikatuarentzat, eta horietako bat LABen aliantzetan burutu zen; aliantzarik esanguratsuen ELAekin hasitakoa zen.

CCOO sindikatuari buruzko jarrerak, ordea, bestelako norabidea hartu zuen. Hasiera bateko ponentzian, CCOOra hurbiltzeko ahaleginak egitea proposatu bazuen ere, *Hobetuz* eratzeko prozesuaren ostean, LABek erabat baztertu zuen bi sindikatuen artean osa zitekeen elkarlana (Iraultzen, 1996: 2).

Hartara, ezker sindikaleko eragileei buruz ordura arte zeukan ikusmoldea nabarmen aldatu zuen LABek une horretan. Izan ere, ezker sindikalean zegoen indar sakabanaketa kaltegarritzat jo ondoren, deliberatu zuen LABek berak izan behar zuela ezker sindikaleko tresna eratzaille eta erreferente bakarra (Iraultzen, 1992b: 6). Baieztapen horrek egindako biraren tamaina erakusten du, aurreko hamarkadetako planteamendu unitaristen antipodetan kokatu baitzen. ELAren hasitako elkarlanak aldaketa hori berretsi zuen.

Arestian esan denez, mugimendu sozialetan elementu berriak indartzen ari ziren 90eko hamarkadan (ekologismoa, intsumisioa eta bakearen aldeko lana, besteak beste), eta ezker abertzaleak «izugarritzko ahaleginak» egin zituen horiekin loturak eta harremanak sendotzeko, eta haien «balore potentzialak bere gain hartzeko». Hari beretik, 1992an «fronte soziala» eratu gura izan zuen LABek, egoera sozio-ekonomikoari aurre egiteko (LAB, 1992a: 16-17). Hala ere, ahaleginak ahalegin, momentu hartan modu oso azalekoan proposatu zuen delako fronte sozial hori, inongo xehetasunik eman barik. Baliteke momentu hura goiz izatea oraindino inolako aliantza konkreturik zehazteko. Geroago, baina, gehiago jorratu zuen mugimendu sozialekin egin beharreko lana. 1996an, adibidez, argiago ageri zen intsumisioaren mugimenduari babes emateko LABen asmoa.

Aliantzen ildoari jarraiki, nazioarteko elkartasuna ere ezinbestekotzat jo zuen sindikatuak, baina ez zuen horretarako ekimen konkreturik zehaztu. Adibidez, ez zuen oraindik nazioarteko federazio batean integratzea planteatu. Horren ordez, «nazioarteko harreman anitzak» mantendu eta suspertuko zituela adierazi zuen (LAB, 1992a: 37; 1996c: 1). Nolanahi ere, nazio eraikuntzak sindikatuan hartutako zentraltasuna zela eta, nazio zapalduetako sindikalismo nazionalistak lehenetsi zituen harremanak sortzeko unean. Modu horretan, euskal nazio borroka eta bestelako mundu-ordena baten aldeko borroka elkarlotzeko asmoa agertu zuen diskurtsoan (LAB, 1996a: 31; 1996b: 14).

Laburbilduz, zentzu kuantitatiboan aliantza gutxi planteatu zituen LABek hamarkada honetan. Hala ere, kualitatiboki, ELAren elkarlanari irekitako bideak aldaketa oso sakonak ekarri zituen lan eremura eta eremu politikora. Zalantza barik, sindikatu

abertzaleen arteko aliantza hori aurrekari historikorik gabeko mugimendu berritzailea izan zen euskal agertoki soziopolitikoan; beraz, hamarkadako hautu estrategikorik erabakigarrienetarikoa izan zen, hala sindikalismoaren esparruan nola euskal abertzaletasunaren barruan. Izan ere, aliantzak aurrerapauso estrategikoetarako aukerak ematen zituen hainbat ildotan, besteak beste, euskal sindikalismoaren garapenean, autogobernuaren bidean, nazio erreibindikazioetan, baita bakearen aldeko ekimenean ere.

Gizarte mugimenduekin eta nazioarteko sindikalismoarekin egin beharreko balizko lankidetzak, hartara, bira estrategiko horren itzalean geratu ziren, nahiko bazterturik praktikan. Horren aldaketa sakonen desafioari aurre egin eta hartarako tresnak kudeatu beharrak nahiko lan eman zion LAB sindikatuari 90eko hamarkadan, are gehiago ELAren eta gizarte mugimenduen arteko planteamendu (oraindik) kontraesankorrak ikusita. Horrela, aliantzak zabaltzea ezinbestekotzat jo zuen arren, apurka-apurka urratu behar izan zuen bide hori sindikatuak.

Ekintzen errepertorioa: borroka moldeen arteko uztarketa

1990eko hamarkadan, ordezkari kopuruaren igoerarekin batera, seriotasun handiagoz hartzen hasi zen LAB partaidetza instituzionala. Aurreko hamarkadaren hasieran baztertu egin zuen aukera hori, haren printzipioek ez ezik oraindik zeukan egoerak ere hartara behartuta. Aldiz, 1980ko hamarkadaren amaieran jarrera hori ñabartuz joan zen, eta ekintza instituzionala borrokarako tresna baliagarri zela ikusi zuen. Izan ere, bide mugatua izan arren, bere ekimen soziopolitikoa zabaltzeko eta osatzeko parada eskaini zion ekintza instituzionalak, betiere euskal langile mugimenduari eta sindikalismoari zegokien protagonismoa ematen baitzien (LAB, 1992a: 28-29). Hori zela eta, sindikatuak bere presentzia bermatu zuen LHK edo EGAB bezalako organismo autonomikoetan, honako hitz hauekin adierazi zuen helburua aitortuta: «sindikatuak duten izaera ko-erabakitzailea defendatzea, haien esku hartzea eraginkorra eta erabakiorra izan dadin, euskal langile guztien interes sozial eta ekonomikoak zaintzeko» (LAB, 1996b: 29).

Dena dela, sindikatuak gehitzen zuenez, esku hartze hori ez zen elkarrizketa sozialarekin lotu behar. Horrela, ELAri jarduera sindikala negoziaketa kolektibora murriztea leporatu zion behin baino gehiagotan (LAB, 1992b: 23-25). LABek ez zuen negoziaketa kolektiboa alboratzen; aitzitik, gero eta garrantzi handiagoa ematen zion (LAB, 1996b: 27-28), baina, ekintza sindikalak negoziazioaz harago joan behar zuela uste zuen. Hartara, LABen ustetan, izaera politikoa eta irismen ahalik eta zabalena eta osoena eman behar zitzaion ekintza sindikalari, eta, hain zuzen ere, norabide horretan zihoan haren ekintza

instituzionalaren eginkizuna. Ekintza mota horren premia are handiagoa zen, gainera, gizarteko eta lan munduko aldaketen eraginez patronalak bere boterea handituta zuela kontuan hartuta (LAB, 1992b: 39).

LABek argi zuen zeintzuk ziren beren alde ahulak eta osagarri sendoak. Batzuek eta besteek baldintzatzen zuten haren jarduera erdua. Alde batetik, enpresaz enpresako esparruan errotze txikia zuen oraindik, eta urriak ziren haren gaitasun tekniko eta antolatzaileak negoziatorako. Beste alde batetik, baina, ezker abertzalearen eragileen eta oinarri sozialaren laguntza zeukan mobilizatorako. Ondorioz, lehentasuna eman ohi zion gizarte mobilizazioari ekintza aldarrikatzailea bideratzeko unean. Enpresa esparruan eragiteko, negoziatzeko eta hitzarmenak lortzeko ahalmena, ostera, askoz txikiagoa zen, ELAren kontrara. Horiek horrela, parte hartze instituzionala eta negoziazio kolektiboa mobilizazioaren osagarritzat zituen LABek (LAB, 1992b: 37). Berez, gainerako sindikatuak ere ez zuten mobilizazioa alboratzen, baina LABek indar berezia ematen zion, hor baitzegoen bere indarra; are gehiago, haren hitzetan, ez zen nahikoa mobilizatzeko hutsarekin; mobilizazioak ausarta, gogorra, erradikala eta mingarria izan behar zuten (LAB, 1992b: 34)

Diskurtsoan aldarrikatutako ekintza erreperitorioaren oldarkortasun hori bat zetorren ENAMen strategiarekin. Ildo horretan, ETAren indarkeria zilegitzat hartzen zuen sindikatuak (LAB, 1992a), eta, esplizituki horrela aitortu ez zuen arren, LABen indarrak ETAren borroka armatutik ere edan zuen. Ildo horretan, 1996an borrokaren oldarkortasuna areagotzeko hautua egin zuen ezker abertzaleak. Jarrera defentsibotik ofentsiba politiko-sozialera igaro nahi zuen, eta, adierazi zuenez, «tenkadura soziala» erakutsi, «zapalkuntzaren bitartez [...] “politika egin” nahi dutenen jarrerak baldintzapean jartzeko» (LAB, 1996a: 40). Testuinguru horretan, LABi lan erreforma indargabetzeko «osotasunezko ekinbide sindikala praktikan jartzea» zegokion, lan munduan estrategia mobilizatzaile oldarkorra eta erasotzailea martxan jarririk (LAB, 1996b: 15).

Ildo horretan, ugaritu egin ziren erasoari eta ekintzaren oldarrari buruzko erreferentziak 90ko hamarkadaren bigarren erdialdean. Hala ere, azpimarragarria da 1996an, eta testuinguru horretan, borroka metodo berri bat aipatu zuela lehendabizikoz LABek bere diskurtsoan, desobedientzia zibila, hain zuzen ere (LAB, 1996b: 34). Kontzeptu hori zegoeneko oso ezaguna zen, gizarte mugimendu berriek eta mugimendu globalek

erabilitako ohiko ekintza-errepertorioen parte baitzen, eta maiztasun handiz erabiltzen baitzuten haiek protesta forma gisa. Berria zen, baina, sindikatuaren diskurtsoan

Aipamen horrek erakusten du helburuetara heltzeko borroka molde ezberdinen konbinazioa bilatu eta aldarrikatu zuela LABek bere jardunean: negoziazioa, ekintza instituzionala eta gizarte mobilizazioa, baita desobedientzia zibila ere. Eta, kontraesankorra izanik ere, horiekin batera, borroka armatua ekintza sindikalaren osagarritzat hartu zuela. Egia da 90eko hamarkadan negoziazioa kolektiboa eta ekintza instituzionala indarra irabaziz joan zirela; baina, diskurtsiboki bederen, mobilizazioari eman zion lehentasunezko indarra. 1996an ekintza sindikala oldarkorragoa zenez, pentsatzekoa da horrek kontraesanak sorraraziko zizkiola ELArekin elkarlanean aritzeko unean.

Interpelatutako gizarte kolektiboak: klase batasuna helburu

Berez, LAB euskal langile guztiei zuzentzen zitzairen. Hala ere, ezker abertzalekoaren eremukoak ziren langileak batzeko joera argia izan zuen bere sorreratik. Baina, 1992an, «ENAMen proiektuan parte hartzen ez duten edo bere osotasunean onartzen ez duten langileak» ere sindikatuari sartzea ahalbidetu behar zuela adierazi zuen (LAB, 1992a: 35). Zalantzarik ez, gizartean bere oinarri soziala zabaldu eta ezker abertzalearen esparru soziologikotik haratago joan nahi zuen sindikatuak adierazpen horien bitartez. Hain zuzen ere, politika sozial eta laboralen inguruan planteatutako ildoak, esaterako, lanaldiaren murrizketa eta aberastasunaren eta lanaren banaketa bezalako helburuak, «sektore sakabanatu guzti-guztietan lan fronteak bateratzeko» definiturik zeuden (LAB, 1996b: 37). Beraz, diskurtsoan adierazitako helburu horien hautua estrategikoa zen LABentzat, langile klasearen sektore oso zabalak batu nahi zituelako, lan merkatuan bazterturik zeudenak barne.

Helburu hori goiargi, lan harremanen markoa negoziazio kolektibora mugatzeko joera leporatzen ELAri. Izan ere, LABen ikuspegitik, negoziazio kolektiboak berak soilik nekez defenda zitzakeen langileen sektore zigortuenak eta lan merkatutik bazterturik zeudenak. Hori zela-eta, sindikatuak lan harremanen markoaren ulerkera irekiagoa eta malguagoa garatu zuen, baita euskal esparru sozioekonomikoaren planteamendura ekarri ere ulerkera hori. Horrenbestez, garrantzitsua zen harentzat, lan legeria, babes sozialari lotutako politikak eta politika ekonomikoak uztartzea, kolektibo baztertuen interesak fronte guztietan defendatzeko. Horretarako, eta ez beste ezertarako, parte hartu behar zuen ekintza instituzionalean LABek.

Oro har, LABek produkzio ehunaren barruan zein kanpoan sakabanatutako klase segmentuen lotura lortu behar zuen, eta horien guztien mesederako ekinbide sindikala aurrera eramane. Horrela, azpimarratzen zuen bere adierazpenetan sindikatuak, lan baldintza prekariodun langileez gain, ekoizpen prozesutik baztertutakoen interesak ere defendatu behar zituen. Sektore horien barnean, gehiengo handi bat osatzen zuten emakumeek eta gazteek, baina ez ziren bakarrak: etxeko langileak, ezkutuko ekonomian ari zirenak, ezaugarri fisiko edo psikikologikoengatik bazterturikoak eta epe luzeko langabetuak ere bazeuden, besteak beste (LAB, 1996b: 36-37)

Orokorrean hartutako langileak ez ezik, pixkanaka, emakumeak eta gazteak ere bihurtu ziren sindikatuaren jardunaren erreferente. Emakumeen lan egoeraz 1992ko kongresuan aurkeztutako emendakinek oso harrera positiboa izan zuten; izan ere, aitortu zuen sindikatuak gauza asko aldatu behar zirela alor horretan beren arazo espezifikoak erantzuteko, emakumeek ere gizonezko langileen baldintza berak lor zitzaten (Iraultzen, 1992b; LAB, 1992b: 46; 1996b). Nabari da, sindikatuaren gogoeta oraindino soldatapeko lanaren esparruan geratu zela urte horietan, eta ez zituela ordaindugabeko lanaren banaketa eta gizonen inplikazioa txertatu hausnarketan.

Gazteei zegokienez, emakumeek bizi zituzten lan baldintza batzuk egotzi zitzaizkien haiei ere (prekarietatea eta langabezia, adibidez). Horrez gain, baina, gizarte aldaketen ondoriozko belaunaldien arteko zatiketak, kultura berriak eta lan baldintzen malgutzeak eragindako pasibotasunak premiazko egin zuen, sindikatuaren aburuz, kolektibo honetan esku hartzea (LAB, 1992b: 46-47). Izan ere, sindikalismoaren ahuleziarekin batera, globalizazioak eta neoliberalismoak ekarritako kulturak, sindikalismoari buruzko belaunaldi gazteenen jarrerak baldintzatu zituzten; hala, gazteek gero eta gutxiago sinesten zuten sindikatuen eraginkortasunean (LAB, 1996a: 50).

Ezker abertzaleak izan zuen luzaroan gazteak bere proiektura erakartzeko gaitasuna. Hala ere, hamarkada hartan erreferentzialtasun hori galduz joan zen. Hortaz, sindikatuaren adierazpenetan agertzen denez, gogoeta sakon baten beharra zegoen ezker abertzalean gazteekiko interbentzio politikoaren inguruan (LAB, 1992a: 15-16), hori egin ezean, sindikalismoaren eta nazio askapen prozesuaren jarraikortasuna bera jartzen zirelako kolokan. Gazteengana hurbiltzeko, egoki jo zen LABek gazteentzat interesgarri ziren gizarte mugimenduetako osagaiak eta edukiak hartzea bere gain. Osagai berri horien artean bazegoen bat gazteen artean oso esanguratsua izan zena, eta indarkeriaren erabileraren inguruko eztabaida bizia sortu zuena, intsumisioa, hain zuzen ere.

Aipatu ditugun adierazpen hauek guztiek agerian uzten dute langileen kolektibo ezberdinetan arreta handia jartzen ahalegindu zela LAB, eta arreta zehatz horietan sakonduz joan zela. Baina, hori lortzeko, fronte eta gune guztietan egon behar zuen, ez soilik negoziazio kolektiboan. Sindikatuaren eredu soziopolitikoak, ezker abertzalearekin zeukan loturak eta gizarte mobilizaziorako gaitasunak esku hartze hori erraztu zioten, hein handi batean. Beraz, izaera soziopolitikoak eta ezker abertzalearekiko loturak ahalbidetuta, dinamika sozialekin zubi sendoa eta naturala mantendu zuen luzez. Izan ere, LABera jo zuten langileetako askok ez zuten sindikatua beren «zerbitzu onengatik» hautatu, ezker abertzalearekin zeukaten atxikimenduagatik baizik. Alabaina, ezker abertzalearen parte izateak bazuen kontrako eragina ere. Ildo horretan, LABek argi ikusi zuen bere eraginaren esparru soziala ezker abertzalearen espaziora mugatzeko arriskua zuela. Horregatik, eginahalak eta gehiago egin zituen abiapuntuko eremu hori zabaltzen 90eko hamarkadan.

ONDORIOAK

Aurreko hamarkadan bezalaxe, ezker abertzalearen uneko egoerak eta Europako ezkerak bizi zuen krisi abaguneak erabat baldintzatu zituzten LABen azterketa koiunturalak zein estrukturalak. Hala ere, oraingoan, globalizazio prozesuaren bizkortzearen eraginez, nazioarteari eskainitako tokia aurrekoetan baino handiagoa izan zen LABen diskurtsoan.

Ildo horretan, deigarria da LABek egindako diagnostikoak, lanaren esparrutik harago ere hartzen zuen zabaltasuna eta globaltasuna. Izan ere, arreta handia eskaintzen zien esparru laboralarekin eta sindikalarekin zerikusirik ez zuten gaiei. Esaterako, testuinguru politikoak ekintza sindikal hertsia baldintzatzen zuen, baina lotura hori beti ez zen horren agerikoa izan LABen azterketetan. Bada, ez zituen azterketak ikuspegi sindikal soiletik abiatu egiten, ENAMen eta ezkeraren parte moduan baizik. Horrenbestez, atal teorikoan azaldu ditugun lanaren krisiarekin eta antolaketa-moduekin lotutako prozesuak nahiko azaletik aztertu zituen. Oro har, testuinguru orokorra okerra izan arren, LABek baikortasuna zabaldu zuen bere mezuetan. Eta, zailtasunak zailtasun, ezker sindikaleko gainerako sindikatuak ez bezala, lortu egin zuen haztea eta sindikatu ordezkagarri moduan finkatzea urte hauetan.

Botere sindikalaren iturriari dagokienez, alde batetik, LABen *egitura-boterea*, berez, egoera kritikoan zegoen, ezkeraren krisiak eta langileriaren zatiketak mugimendu sindikalean eragindako kalteak tarteko. Beste alde batetik, baina, autodeterminazio

eskubidea eta nazio aldarrikapenak eztabaida publikoan txertatu izanak espazioak zabaltu zizkion gizartean. Izan ere, SESBen gainbeheraren osteko estatu berrien sorrerak Europan hauspotu egin zuen nazio auzia euskal politikan ere.

Bestalde, LABen (eta ezker abertzalearen) ordura arteko ahalmen estrukturala Euskal Herriko egoera politikoa konpontzeko Estatuak agertutako ezintasunean oinarritu zen, batik bat. Baina, ETaren aurkako kolpeek fase berria ekarri zuten ENAMera eta, ondorioz, LABera ere. Beraz, LABen egitura-boterea kolokan izan zen 90eko hamarkadan zehar, bai ENAMen eta Estatuaren arteko pulsuak, bai mundu esparruko ezkerrean eta lan munduan gertatzen ari ziren okerrerako aldaketek baldintzatuta. Hala ere, sindikatu soziopolitikoak izanik, LABek ez ziren lan munduko arazoei horrenbesteko garrantzia eman ahulezia-faktore gisa. Ordea, faktore politikoek toki handiagoa bete zuten haren diskurtsoan sindikatuaren egitura-boterearen makaltasuna azaltzeko unean.

Botere instituzionalari dagokionez, oso murrizta zen, eta, hala ere, aurreko hamarkadetakoa baino handiagoa, LABek lortu zuen ordezkari sindikalari erreparatzen badiogu; hain zuzen ere, laugarren sindikatua zen ordezkari zegoenez, nahiz eta aitortzen instituzional mugatua zeukan. Nolanahi ere, urte hauetan sindikatuak gero eta garrantzi handiagoa eskaini zion botere iturri horri, esku hartze soziopolitikoak jarrera kritiko batetik zabaltzeko eta sakontzeko bidetzat hartu zuelako ildo instituzionala. Horren harira, lan harremanetarako euskal esparrua eta esparru sozioekonomikoa osatzeko helburuek izaera estrategikoa hartu zuten sindikatuarentzat garai honetan.

Botere asoziatiboa, hein handi batean, *elkarlan boterearen eskutik* zetorren, indar handiena ezker abertzalearen estrategiarekin eta helburuekin bat egiteari zor ziolako sindikatuak, hein handi batean. Hala ere, ponentzietan LABek ez zion horrenbesteko garrantzirik eman afiliazioari, militantziari baizik. Gorantz zihoan afiliazioa, eta seinale ona zen; baina, afiliazioa lortzea ez zen lehentasunezko helburua.

Botere moral-diskurtsiboa funtsezkoa izan zen sindikatuarentzat hamarkada honetan; izan ere, LABen afiliatzea erabakitzen zuen gehiengo handi batek afinitate ideologikoagatik egiten zuen urrats hori (MRAF, 1993: 9). Ondorioz, oso garrantzitsua zen diskurtsoak ezker abertzalearen planteamendu ideologikoekin bat egitea. Hala ere, une batetik aurrera purutasun ideologiko horrek hazteko aukerak mugatu zizkiola ikusi zuen sindikatuak. Oro har, aurreko hamarkadako diskurtso eta jarrera oldarkorra mantendu zuen. Haatik, 80ko hamarkadako izaera iraultzailea beste mota bateko

printzipioetan oinarritzen zuen. Horrela, balio demokratikoek zentraltasuna irabazi zuten sindikatuaren esku hartze soziopolitikoak justifikatzeko. Ildo horretan, aurreko hamarkadako izaera inpugnatzailea eta apurtzailea alboratu zuen, neurri batean, eta indarrean zegoen ordenamendu juridikoari buruzko estrategia pragmatikoagoa eta posibilistagoa hartu zuen, aldi berean, ekintza-forma oldarkorren alde agertuz diskurtsoan. Modu horretan, marko juridiko-politikoarekiko jarrera posibilistago hori praxi sindikal oldarkorrek osatzen ahalegindu zen. Anibalentzia horrek kontraesan batzuk ekarri zizkion ELAren aliantzak egiteko unean. Bestalde, bere aldarrikapenen izaera soziopolitikoak tarteko, legitimitate soziala lortze aldera, askotariko langileren eta gizarte sektoreen interesei heltzeko helburua agertu zuen etengabe.

LABen botere sindikalaren iturri diskurtsibo-morala eta asoziatiboa, 90eko hamarkadako hasiera arte, ENAMen parte izatetik eratorri zen, eta horretan oinarritu zen haren *elkarlan boterea* ere. Bada, ENAMekin zituen lotura ideologikoek, estrategikoek eta antolatzaileek eman zioten legitimitatea eta indarra luzaroan LABen proiektuari. Hala ere, KASi lotuta jarduteak hainbat muga eta kontraesan ekarri zizkion. Izan ere, kidetza horrek zailago egin zuen langileen eta gizartearen eguneroko dinamiketan egotea eta jardutea. Hori zela eta, autonomia irabazten saiatu zen sindikatua urte hauetan. Bestalde, ELAren hasitako lankidetzak bere botere iturri kolaboratiboa ezker abertzalekoa ez zen beste bide batetik elikatzea ahalbidetuko zion.

Botere antolatzaileari dagokionez, afiliazioaren gorakada zela eta, 90eko hamarkadan zenbait berregokitzapen egin behar izan zituen LABek, eta sektore egitura indartu. Planteamendu antolatzaile berriaren xedeetako bat borroka mota eta esparru sozial ezberdinak artikulatzeko eta koordinatzeko gaitasunean sakontzea izan zen. Horretarako, gizartearen esparru ezberdinetako interesak jaso behar zituen eta borroka bereziak giltzatu. Hala ere, ez dirudi bere indarraren alderik handiena antolakuntzaren inguruan ardaztu zuenik, ELAk antolakuntzari eskainitako zentraltasun estrategikoarekin alderatuta, behintzat.

Botere estrategikoa botere iturri ezberdinak konbinatzeko moduan oinarritzen bada, ikusi dugu LABen indarra haren *elkarlan boterean* eta *moral-diskurtsiboan* zetzala, ezker abertzalearen parte izateak emandako indarrak eta izaera soziopolitikoak tartean zirela. Aldi berean, baina, ezker abertzalearen strategiaren menpe izatean *egitura-boterea* galduz zihoala ohartu zen sindikatua, ez horrenbeste sindikatu modura, mugimendu politiko baten parte modura baizik. Ildo horretan, nahiz eta sindikatuaren *botere*

instituzionala aurreko hamarkadako baino esanguratsuagoa zen (ordezkari gero eta gehiago lortzen ari zen), horrek ez zion abantaila asko ekarri, ELAren lankidetzak abian jartzeko aukera ez bazen.

Hamarkada honetako *berrikuntza estrategikoei* dagokienez, honako hauek aipa ditzakegu.

1. Arestian esan dugun moduan, *organizing eredu*an, garrantzi gutxi eman zion ordura arte sindikatuak afiliatuak lortzeari, diskurtso esplizituan behintzat, eta gehiago militantzia-lanari. Hala ere, ezker abertzalearen oinarri sozialaz harago joateko eta gizarte sektore ezberdinetara heltzeko asmoa eta kezka agertu zuen LABek hamarraldi honetan, eta ahalik eta hedapen eta oihartzun zabalena lortzen saiatu zen. Ahalegin horrek sindikatuaren diskurtsoan izan zuen isla, non emakumeen eta gazteen lan baldintzak, baita langabeen, etxeko langileen, elbarrituen eta beste kolektibo batzuen egoerak ere aztertu ziren, lehenbizikoz. Afiliazioa handitzeko saiakera hori ez zegoen esplizituki diru iturri gehiago lortzera bideratuta, sindikatua gizartean hobeto sustraitzera baizik.
2. *Kooperazioa edo kontzertazioa* sindikatuak erabat baztertutako bideak izan ziren. Izan ere, LABen eta ENAMen indarra, neurri handi batean, erabilitako borroka-molde gatazkatsuetan zetzan; estrategia horrek urratu ezinezko ildo bihurtu kontzertazioa. Horrek ez du esan nahi parte hartze instituzionalari eta elkarrizketa sozialari uko egin zienik LABek, baina jarrera gatazkatsutik abiatu hartu zuen parte parte jarduera horietan.
3. *Ekintza politikoak* garrantzia handia izan zuen sindikatuarentzat, aurretik ere. 1980ko hamarkadan KASen zuzendaritza-blokeko parte izanik sustatu zuen ekintza politikoa, baina sindikatu gisa ez zuen ildo politiko propiorik landu. 1990eko hamarkadan, ordea, menpekotasun horretatik askatuz joan zen pixkanaka, eta bere berezko ildoak garatzeko autonomia handiagoa hartu zuen. Horren adierazle izan zen, esaterako, 1995eko Aberri Egunean bi sindikatu abertzaleek, ELAk eta LABek, elkarrekin adostu eta argitaratu zuten agiria.
4. Antolaketaren *berregituraketari* dagokionez, bi norabideetan gauzatu zen. Lanaren munduan gertatutako aldaketan ondorioz langileen kolektiboak dibertsifikatzen ari zirenez, alde batetik, ordura arte alboratuta geratutako sektorekako egituraren garapena bultzatu zuen sindikatuak (Miguélez eta Prietok

-
- (1999: XVII) iradokitakoaren kontrara), afiliatuen behar gero eta ezberdinagoei erantzuteko. Era berean, sindikatua ahalegindu zen egitura hori ondo koordinatuta egon zedin lurralde antolakuntzarekin, sektorializazioaren gaitzak ekiditeko. Beste alde batetik, emakumeen, gazteen eta langabetuen arloak sortu ziren sindikatuaren organigraman, sindikatuaren egituran ordura arte bazterturiko kolektiboen interesak ere ordezkaturik egon zitezten. Neurri organizatibo horien bitartez, LABek garaiko gizarte arazoetan sakonkiago esku hartzeko asmoa erakutsi zuen.
5. *Koalizioen* osaketa oso garrantzitsua izan zen LABentzat, ezker abertzaleko erakunde moduan, KAS blokearen parte zelako, besteak beste. Hala ere, KAS plataformarekin zeukan lokarria lausotu egin zen hamarkada honetan, eta autonomia irabaztean, aliantza berria hasi zuen ELA sindikatuarekin. Lankidetzaren horrek berrikuntza estrategiko oso sakona ekarri zuen bai LAB sindikatura bai euskal sindikalismora, azken horretan ordurarte zeuden indar harremanak aldatu zituelako. Bestalde, neurri txikiagoan bazen ere, gizarte mugimendu berrien eduki eta aldarrikapen batzuk bere gain hartzeko konpromisoa plazaratu zuen LABek garai honetan, hala nola, intsumisoen mugimenduaren aldarriak.
 6. *Nazioarteko elkertasunean* oinarritutako strategiari zegokionez, LABek diagnostiko landua eskaini zuen nazioarteko egoeraren inguruan, eta globalizazio neoliberalari buruzko hainbat irizpide jorratu zituen. Hala ere, ezker abertzaleak Estatuarekin zuen pultsua handiegia eta orohartzailea zenez, praktikan, sindikatua euskal esparruko auzietara loturik geratu zen eta, hartara, nazioarteko elkarlana aurrera eramateko mugaturik. Gainera, LAB ez zegoen nazioarteko inolako konfederaziotan sartuta. Orduan, bestelako mundializazio eredu baten aldeko borrokari egin ziezaiokeen ekarpen esanguratsuena ezkerreko planteamenduetan oinarrituriko nazio eraikuntza bultzatzea izan zen.
 7. *Ekintzaren formari* dagokionez, sindikatuak negoziazio kolektiborako zituen aukerak urriak izanda, ezker abertzalearen indar sozialaren eta mobilizatzailearen potentzialtasuna baliatzen jarraitu zuen bere jarduera soziosindikala gauzatzeko. Era berean, parte hartze instituzionalari buruzko ikuspegi pragmatikoagoa hartu zuen hamarkada honetan LABek, nabarmenki gainera. Hala ere, 1996an, partaidetza instituzional hori ekintza-formen oldartze batekin osatu zuen, ezker abertzalearen estrategia aldaketak baldintzatuta.

Analisia borobiltzeko, esan genezake bi motatako faktoreek eragin zituztela zerrendatu ditugun berrikuntza horiek. Batetik, ezker abertzale osoa eta, oro har, Europako ezker astindu zituzten gertakariak eta aldaketa prozesuak zeuden (SESBen gainbehera, globalizazio neoliberala, ezkerreko indarren zilegitasunaren galera...). Bestetik, lan munduan gertatzen ari ziren ziren mudantza sakonak (ohiko industriaren berregituraketa edo desagerpena, langile kolektiboen dibertsifikazioa, lan merkatuaren malgutasun hazkorra, lan eredu post-fordisten ezarrera, ohiko sindikalismoaren eraginkortasunaren galera...). Biek ala biek ahuldu zuten LABen egitura-boterea. Horregatik, arestian aipaturiko *estrategia berrikuntza* gehienak ahultze joera hori orekatzera bideratu zituen sindikatuak. Haatik, LABek osaturiko egitura sozialaren diagnostiko markoetan, sakontasun gutxirekin aztertu zituen lan munduari lotutako arazoak, eta, aldiz, toki diskurtsibo handiagoa hartu zuten ezker abertzale osoari eragiten zieten faktore estrukturalak.

ELAREN ETA LABEN ARTEKO ALDERAKETA

Orain arte nabarmendu dugunez, ELA eta LAB eredu sindikal kontrajarrietatik abiatu ziren aurreko hamarkadan nahiz epealdi honetan. Hala ere, hamarkada honetan konbergentzia prozesua hasi zuten, eta horren ondorioz, zenbait ikuspegi eta ezaugarri partekatzen iritsi ziren; mesfidantza guztien gainetik, oinarrizko adostasun horrek posible egin zuen bien arteko aliantza estrategikoa abian jartzea.

Konbergentzia hori, besteak beste, diagnostiko politiko partekatu batean oinarritu zen. Batetik, ELA sindikatuak Autonomia Estatutuaren garapenean esperantza jarrita izan zuen hamarkada batez; partaidetza instituzionalean finkatutako jarduna bultzatu zuen urteetan. Baina, erkidego autonomoan ezarritako bide estatutarioari buruzko ikuspegi kritikoa zorrotz zuen hamarkada honetan, eta, bide horrek ez zuela emaitza politikorik ez sozialik ematen ikusita, agortuta zegoela baieztatzen heldu zen. Bestetik, LABek kontrako bidea egin zuen. LABek 1980tik gaitzetsi zuen bide estatutarioa modu esplizituan, Espainiak ezarritako autonomien zatiketa ez baitzeturren bat ezker abertzaleak aldarrikaturiko lurralde eta nazio eraikuntzaren proiektuarekin. Hala ere, arian-arian ordezkartza sindikala lortu ahala, LABek instituzio autonomikoen erabilpenari buruzko jarrera pragmatikoagoa hartu zuen.

Egitura-botereari zegoekionez, ELAk beste edozein sindikatuk lanaren esparruan bizi zituen arazo bertsuak zeuzkan. LABek, ordea, ezker abertzaleko eragile moduan, arreta

handiagoa jartzen zion Hego Euskal Herriaren egoera politiko gorabeheratsuari, eta ikuspegi zabalagoak gidatzen zuen bere jarduna. Hala, LABi zuzenean eragin zioten arazoei egin behar izan zien aurre ezker abertzaleak urte hauetan. ELAren jardun sindikala, aldiz, ez zuten sindikalismotik kanpoko horrelako faktoreek baldintzatu. Ildo berean, lan munduko aldaketa estrukturalak ELAren diskurtsoan LABen diskurtsoan baino presenteago zeuden. Izan ere, LABek irakurketa oso politikoak plazaratu zituen; eta bazirudien lan arazoei eragin gutxiago zutela bere botere estrukturalan ELAren baino.

Bestalde, SESBen gainbeherak eragin nabarmenagoa izan zuen LABen ELA baino. Bada, LABek eta ezker abertzaleak ELAk baino lotura ideologiko handiagoa zeukaten nazioarteko mugimendu sozialistarekin. Baina, desberdintasunak desberdintasun, bi sindikatu abertzaleek ikusi zuten European gertatu zen estatu berrien sorreraren abagunean, nazioaren auziari lotutako eskubide demokratikoetan sakontzeko aukera zegoela.

ELAk, sindikatu nagusia izatean, bazuen *botere instituzional* kuota nabarmena, baina ahalmen instituzional hori ez zen gauzatu esperotako neurrian. Horrela, sindikatuaren barnean hedaturiko etsipena gorantz joan zen hamarkada honetan. Ondorioz, bere ahalmen sindikala bestelako botere iturrietan ere oinarritzen hasi behar zuela deliberatu zuen. LABek, berriz, ordezkagarritasuna lortu berria zuen hamarkada honetan, eta lorpen horrek emandako aukera berriak profitatu nahi zituen.

Botere diskurtsibo-moralean, ELAk diskurtso pragmatiko eta eraginkorra helarazten zuen gizartera; LABek, aldiz, oso politiko eta oldarkorra. Alabaina, ikuspegi pragmatikoa mantendu zuen arren, hamarkada honetan garrantzi handiagoa hartu zuten ELArentzat gai politiko eta sozialek, hala nola, nazio arazoari eta gizarte ereduari lotutakoek. LABen aldetik, ezker abertzalearen diskurtsoa konpartitzeak batik bat indarra ematen bazion ere, kalteak ere ekarri zizkion oinarri soziala hedatzerakoan. Ondorioz ildo sozial eta politiko autonomia handiagoz jorratzen hasi zen. Horrekin batera, gizarte arazoei buruzko arreta handiagoa jarri zuen, esparru soziala zabaltzeko asmoz.

Elkarlan botereari dagokionez, LAB sindikatua ELA sindikatua baino neurri askoz handiagoan oinarritzen zen elkarlanean. Botere iturri honek bizi izan zituen, hain zuzen ere, aldaketarik inportanteenak aztertzen ari garen epealdian. ELAren kasuan, CCOO eta UGTekin zuen elkarlanak fruitu gutxi eman zizkion; beraz, une batetik aurrera, nahiago

izan zuen bere indar propioekin aritzea. Hala ere, beharrezkoak zituen aliantzak. Eta, abagune honetan LABekin bide berriak esploratzeari ekin zion. Bestalde, LABentzat ezinbestekoa zen ezker abertzalearekin zeukan lotura, baina kideak horrek ezarri zizkion mugak zirela eta, autonomia irabazteko ahaleginak egin zituen zuen hamarkada honetan. Horrela, ELAren ekimen bateratuak eraman zituen aurrera, bi aldeetan elkarrekiko sekulako mesfidantzak izan arren.

Botere asoziatiboari eta antolatzaileari dagokienez, ELA sindikatuak LABek baino indar handiagoa erakutsi zuen. Izan ere, horiek ziren ELAren indarraren oinarriak. Ildo horretan, afiliazioa ezinbestekoa izan zuen baliabideak lortu ahal izateko, eta antolakuntza horien erabilpen egokia egiteko. LABen diskurtsoan, ostera, afiliazioak ez zuen horrenbesteko garrantzirik hartu, baina praktikan igoera handia izan zuen. Hazkunde azkar horrek antolakuntza-arazo batzuk ekarri zizkion. Bestalde, egitura sektorial batean oinarriturik egonda, lurralde egitura garatzeari ekin zion epealdi honetan ELAk. LABek, kontrara, bere egituren sektorializazioari ekin zion, lurralde egituren garrantzia alboratu gabe.

Horiek horrela, LABek ez zituen ELAk bezainbeste garaturik negoziazio kolektiborako baliabideak, eta eragiteko ahalmena asko gutxitzen zion gabezia horrek enpresa esparruko hitzarmenak negoziatzerakoan. ELAk, berriz, bere baliabide ia guztiak negoziatziora bideraturik zituenez, emaitza hobekak lortu zituzkeen negoziazio kolektiboan, baina ez mobilizazio sozialean.

Ikuspegi *estrategikotik*, beraz, ELAk botere antolatzailean eta asoziatiboan zeukan indargunerik handiena, eta ahalmen hori diskurtso pragmatiko eta eraginkor batekin osatu zuen. LABek, bere aldetik, ezker abertzalearekiko aliantzan eta diskurtso soziopolitiko oldarkorrean zituen bere indarguneak, eta horiek legitimitate eta errotze sozial egonkorra baina mugatua eskaini zioten.

Hala ere, hamarkada honetan botere iturri horiek aldaketa prozesu bizian zeuden bi sindikatuetan, batez ere ELAn. Ondorioz, bi sindikatuen etorkizuneko ibilbideak baldintzatu zituzten *berrikuntza-estrategiko* oso esanguratsuak etorri ziren urte hauetan.

1. Langile berriak *antolatzea* etengabeko helburua izaten jarraitu zuen ELArentzat, afiliatu gehiago lortzeko eta bere errotze soziala areagotzeko. LABek bigarren mailako garrantzia eman zion afiliatuak erakartzeari, baina aurreko hamarkadan baino ahalegin handiagoa egin zuen bide horretan. LABi ezker abertzalearen

esparru sozialak aukera asko eman zion kide berriak lortzeko unean, baina ohiko oinarri sozial horren mugak gainditu nahi zituen. Horrez gain, langileen iruditeria klasikotik (gizonezko behargin industrial helduetatik) aldentzen ziren gizarte kolektiboak erakartzeko saiakerak egin zituen, gazteak eta emakumeak, bereziki. Era berean, badirudi LABek arreta gero eta handiagoa jarri zuela bestelako gizarte kolektibo periferikoetan.

2. *Kooperazio* estrategiak fruitu batzuk eman zizkion arren, etsipena ere sortu zuen ELAren barnean, eta sindikatu hori EAJri buruzko gero eta jarrera oldarkorragoa hasi zen bereganatzen, Estatutuaren kudeaketan eta garatutako politika antisozialetan alderdi horrek izandako gobernu erantzukizuna tarteko. LABek, bere aldetik, sorrera unetik egin zion uko kooperazioari, baina, epealdi honetan jarrera pragmatikoagoa bereganatu zuen parte hartze instituzionalari zegokionez. Hala ere, botere politikoari buruzko jarrera oldarkorra izaten jarraitu zuen.
3. Lan harremanen markoak erakutsitako mugek horretara beharturik, gero eta gehiago zentratu zen ELA *ekintza politikoan*. Gainera, gizartearen arazoek eskaturiko konpromisoak ere ekintza politikoan sakonago aritzera eraman zuen sindikatua. LABek, bere aldetik, sorrera unetik zeukan eragile soziopolitiko moduan definituta bere burua, baina, hamarkada honetan bere ekimen politikoa autonomia handiagoz garatzeko parada izan zuen. Horiek horrela, bi sindikatuek interes partekatua agertu zuten lan harremanen euskal markoa eratzeko, nazio eraikuntzan jarduteko eta euskal gatazka bortitzari konponbide bat bilatzeko. Ildo horretan, gai hauetan adostasunerako bideak ireki zituen puntu komun batzuk landu zituzten bi sindikatuek beren ekintza politikoan, desadostasunak ere egon arren.
4. *Berregituraketa* prozesuei dagokienez, ELAn gauzatutako zuzendaritza aldaketak berrikuntza batzuk ekarri zizkion sindikatuaren antolaketa ereduari. Bere aldetik, LABek ere aurrerapauso nabarmenak eman zituen ildo horretan hirugarren kongresua eginez batera. Hala, ELAk eskualdeko egiturak indartzeari ekin zion, eta LABek egiturak sektorializatzeari. Hein batean bada ere, prozesu horiek hurbildu egin zituzten bi sindikatuen egiturak. Era berean, gizarte kolektibo baztertuen lan arazo espezifikoerantzuteko egiturak sortu zituzten sindikatu biek, LABek ELAk baino neurri handiagoan, gazteen eta emakumeen lan egoerak ez ezik, kolektibo gehiagorenak ere kontuan hartu zituelako.

5. *Aliantzetan* gauzatu ziren epealdi honetako aldaketarik garrantzitsuenak, bi sindikatuen arteko lankidetzak euskal agertoki sindikalera ekarritako berrikuntzagatik. Batetik, ELAk bere perspektibak eta helmugak zabaldu behar zituen. Izan ere, CCOO eta UGT sindikatuekin zeuzkan harremanak ez ziren onak, eta ezin zuen bere indar soiletan oinarritu jardun sindikala. Bestetik, LABek KAS plataformari buruzko autonomia irabazi behar zuen; hain zuzen ere, autonomia handiago horrek aliantza berriak bilatzen hasteko parada eman zion.
6. *Nazioarteko elkartasunari* dagokionez, globalizazio prozesuak aurrera egin zuen neurrian, gai horrek garrantzi handia hartu zuen diskurtsiboki, baina gero ez zuen ibilbiderik izan. ELAren kasuan, garrantzitsua izan zen EurSKtik Europa esparruko ekimenak bultzatzea, baina ez zuen emaitza praktikorik lortu. Bestalde, LAB ez zegoen inolako nazioarteko federaziotan antolaturik.
7. *Ekintza sindikalaren formetan edo erreperitorioan*, bi sindikatuak hurbildu nahiz urrundu egin zituzten prozesuak gauzatu ziren. Batetik, ELAk elkarrizketa sozialari eta ekintza instituzionalari buruzko ikuspegi kritikoagoa hartu zuen, eta LABek, berriz, gero eta jarrera pragmatikoagoa bereganatu partaidetza instituzionalean. Bestetik, baina, sindikatu bien arteko harresi gaindizeina zen ETArek jarduera armatua. Izan ere, ETArek indarkeria zilegizko ekintza modutzat hartzen zuen LABek, eta, ostera, ELAk arbuiatu egiten zuen erabat.

Aldaketa konplexu hauen guztien baterakuntzak abagune historiko batean bi sindikatuen arteko konbergentzia prozesua ahalbidetu zuen, zeinetan batak bestearen ezaugarri batzuk bereganatu zituen. Hala, oso eredu kontrajarrietatik abiatu ziren bi sindikatuak eta, apurka-apurka, beren erduei falta zitzaizkien ezaugarriak hartuz joan ziren. Hurbiltze dinamika horretan, ekintza politikorako arazo komun bera aurkitu zuten. Bi sindikatuentzat zen ezinbestekoa euskal gizarteko arazoetan eta dinamiketan esku hartzea, eta, bakoitza bere eredutik helburu hori lortzen ahalegindu zen.

Jakina, prozesu horretan gai politikoak eta laboralak nahasi ziren. ELAk arreta handiagoa jarri zion lan mundua bizitzen ari zen narriadura prozesuari, eta, hura konpontzeko bide instituzionalak etenda ikusirik, beste estrategia batzuk esploratu zituen. Ostera, LAB ez zegoen ELA bezainbeste finkaturik lanaren munduan (afiliatu eta ordezkari gutxiago zituelako), eta bere ibilbidean etengabe eragiten zioten ezker abertzalearen gorabeherek. Ondorioz, ELAren alderatuta, LAB gehiago zebilen dinamika soziopolitikoetan sartuta,

eta lanaren esparruan ez zeukan ELAk zuen itzala, nahiz eta hor ere indar gero eta handiagoa irabazten ari zen. Hori zela-eta, lan munduko dinamikek isla txikiagoa izan zuten LABen diskurtsoan. Diskurtso horretan ikusi ahal izan dugunez, gainera, hasiera batean sindikatu «erreformistei» leporatu zien langile mugimenduaren ahultasuna, eta ez horrenbeste maila estrukturaleko aldaketei.

ELAren nagusitasuna, berriz, lan esparru hertsira mugatzen zen, sindikatu nagusia izan arren, eta LAB baino urrutirago zegoen prozesu sozialetatik. Aldiz, lanaren eremuan ohiko sindikalismoa pairatzen ari zen ahultze prozesuaren berri sakona zeukan. Horiek horrela, «gizartean errotua» egoteko biziberritze prozesua jarri zuen abian, bere lehenagoko «perspektiba zabalduz». ELAk sindikalismoan aspalditik zeukan esperientzia eta ezagutzak bultzatu zuten horretara. Ildo horretan interpretatu daiteke lanaren esparruko aldaketek isla eta oihartzun handiagoa eduki izana ELAren diskurtsoan LABenean baino.

11.1. taulan ikus dezakegu jarraitutasuna dagoela aurreko hamarkadako ideia eta kontzeptuekin; noizbehinka, antzekotasunak agertzen dituzte bi sindikatuak zenbait gaitan, hala nola, esku-hartze soziopolitikoan, aliantzetan, eta ekintza sindikalaren forman, nahiz eta, oraindik ere, ezberdintasunak sakonak diren beste arlo batzuetan.

11.1. ELA eta LABen hitz gakoak eta ideia nagusiak (1990eko hamarkada)

1990eko hamarkada		ELA	LAB
Koiuntura	<i>Egoera politikoa</i>	SESBren gainbehera, neozentralismoa, demokrazia gabezia, prozesu sezesionistak	Gatazka, Ajuria Eneako Ituna, SESBren gainbehera, PSOEn gobernaren desgastea
	<i>Lan harremanak</i>	Zentralismoa, interbentzionismoa, dependentzia sindikala, eraispen autonomikoa, elkarlana, Lan Harremanetarako Euskal Markoa	Kritikak sindikalismo erreformista, apolitiko, eta ideologiarik eta klaserik gabekoari, 1994ko lan erreforma, euskal langileen erresistentzia, ezkerreko sindikatu txikien egozentrismoa
	<i>Egoera ekonomikoa</i>	Espekulazioa, langabezia, prekarizazioa, fiskalitatea, gastu soziala, krisia	Euskal ekonomiaren ahultasuna eta ahalmen politikorik eza, politika neoliberalak

	<i>Eraketa instituzionala</i>	Autogobernuaren blokeoa, dezepzioa, Autonomi Estatutua hilik	Marko autonomikoaren ezintasuna atzerakada ekonomiko eta sozialari aurre egiteko
Egitura		Globalizazioa, Europa, nazio auzia, neoliberalismoa, prekarizazioa, behin-behinekotasuna, enpresa txikien ugaritzea, kultura berria, lehiakortsuna, indibidualizazioa, belaunaldi krisia	Munduko ordena berria, Estatu ereduaren krisia, ezkerren desorekatze ideologikoa, kapitalismoaren hedapena, demokraziaren eta ongizatearen atzerakada, abertzaletasunaren berpizkundea, subiranotasun gatazka, eskuineko balioak (kontsumismoa, elkartasun ez...), langileriaren erantzuteko gaitasuna, gizarte mugimendu berriak, garapen teknologikoa, industriaren beherakada, langileen arteko atomizazioa, langile atipikoak, etxeko lanak, sexuen araberako lan banaketa
Norberaren jardueraren balorazioa		Sendotasuna, autonomia, aliantzei tokirik ez, gizarte errotze falta, emakumerik ez zuzendaritzan, lan munduan konfinatuta	Hazkunde nabarmena, ordezkagarritasuna, ezker abertzalearen erresistentzia, mobilizatzeko gaitasuna
Printzipio eta helburu ideologikoak		Demokrazia, autodeterminazio eskubidea, justizia, elkartasuna, gizatasuna, parte hartze demokratikoa, eredu soziala, subiranotasuna, abertzaletasuna	Sindikatu eraldatzailea («iraultzailearen» ordezkari), balio demokratikoak (burujabetza eta autodeterminazioa), justizia soziala, sozialismo demokratikoa, askatasuna
Aldarrikapen eta esku hartze eremuak	<i>Soldatapeko lan eremua</i>	Enplegua, zurruntasuna, lanaldi murrizketa, ekoizpen prozesuen eta teknologia berrien kontrola	Behin-behinekotasunari aurre, lan baldintzak berdintzea, lanaldia murriztu, negoziazio kolektiboaren demokratizazioa, esku

			hartze soziopolitikoarekin lotura
	<i>Ereму soziopolitikoa</i>	Konpromiso politiko eta soziala, babes soziala, aberastasunaren banaketa, borroka ideologikoa, ingurumena, lan harremanen marko propioa, nazio eraikuntza, bakea	Esku hartze integrala, burujabetza, autodeterminazioa, euskal gune sozioekonomikoa eta lan harremanen esparrua, Alternatiba Demokratikoa, nazio eraikuntza, ekologismoa, euskara, gazteria, emakume langileak, borroka ideologikoa, balore sozial alternatiboen birsortzea
Antolakuntza		Afiliazioa, autonomia, baliabideak, kabineteak, egitura interprofesionala, Eskualde Batasunak, ETEak, ELA-Gazteak, emakumeen presentzia	Militantzia eredu, barne demokrazia, autonomia, lurralde egituraren pisua, arloak (emakumeak, gazteak, langabeak...)
Aliantzak		Haustura CCOO, UGT eta EAJrekin, elkarlana LABekin, sindikatu txikiagoekin eta gizarte mugimenduekin	KASen berregituraketa, autonomia, ELArekin elkarlana, gizarte mugimenduak, fronte soziala
Ekintzen errepertorioa		Negoiazio kolektiboa, parte hartze instituzionalaren baliogabetasuna, itun sozialari ezetza, kontraboterea, indarkeriaren gaitzespena	Parte hartze instituzionalaren aukera, ekintza aldarrikatzailea, gizarte mobilizazioa, oldarkotasuna, borroka moldeen uztarketa
Interpelatutako kolektibo sozialak		Soldatadunen zentraltasuna, langabetuak, behin-behinekoak, langile klandestinoak, gazteak, emakumeak, pentsionistak, autonomo faltsuak.	ENAMen parte hartzen ez duten langileak, langile sektore sakabanatuak, gazteak, emakumeak, etxeke langileak, ezkutuko ekonomiakoak, langabetuak, elbarriak...

Egileak osaturikoa.

12. KASU AZTERKETA: 2000KO HAMARKADA

ELA 2000KO HAMARKADAN

DIAGNOSTIKO MARKOA

Koiuntura: blokeoa eta etsipena arlo guztietan

2000ko hamarraldian nazioarteko egoerari buruzko gogoetak eta Europako koiunturaren analisiak sindikatuaren diagnostiko markoan hartutako adierazgarritasuna ikusita, atal bereizi moduan aztertzen dugu ondoren datozen orrialdeetan.

Egoera politikoa

2000ko ELAren X. kongresu aurreko hiru urteak oso gorabeheratsuak izan ziren Euskal Herriko agertoki politikoan. Izan ere, ETAren su etenak, Lizarra-Garaziko Hitzarmenak, ELAren eta LABen arteko elkarlanaren gorabeherak, eta abertzaletasunari buruzko Aznarren gobernuaren jokabide tenkatzaileek markatu zituzten urte haiek. Zalantzarik ez, urteotako prozesuok mugarrira ezarri zuten Euskal Herriko historia politiko eta sindikal garaikidean.

Lizarra-Garazi akordio politikoaren porrotak Euskal Herriko egoera politikoari buruzko etsipena eragin zuen ELA (2000: 11)¹⁴⁰. Besteak beste, ETAren jardura armatuari eta euskal gatazkari amaiera emateko elkarrizketa eta negoziazio bidezko irtenbidea saihesturik geratu zen. Horren erantzukizuna, alde batetik, Espainiako gobernuarena zen, ELAren ustetan, polarizazioa bultzatzen zuelako. Hala, agerian geratu zen Espainiako gobernu kontserbadoreak¹⁴¹ ez zuela gatazkari jazarpena ez zen beste erantzunik emateko asmorik, errepresioarekin erantzuten baitzien ezker abertzaleak zein Lizarra-Garaziko foroak bakearen eta demokraziaren alde egindako urratsei (ELA, 2000: 46-47). Beste alde batetik, ELAren iritziz, ETAk konponbidea lortzeko prozesua oztopatu zuen, indar abertzaleen arteko lankidetzaren eragozteraino, Espainiako gobernuak ezarritako konfrontazio eskemarekin bat eginik. Azkenik, sindikatuaren aburuz, euskal instituzio publikoek jarrera pasiboegia izan zuten, eta ez zuten adierazi arlo sozialean eta laboralean akordioak lortzeko borondaterik (ELA, 2000: 52; 2004: 53-54; sakontzeko, Kortabarria, 2015: 215-247).

¹⁴⁰ 113. Oin-oharrean azaldu ditugu Lizarra-Garaziko hitzarmenaren nondik norakoak.

¹⁴¹ PP 1996an sartu zen gobernuan, José Maria Aznar buru zuela, 2004ra arte.

Saiakera horren ostean, soka tenkatzen eta errepresioa gogortzen jardun zuen Espainiako PPren gobernuak, ETaren aurka ez ezik, abertzaletasun osoaren kontra ere. Hartara, PP eta PSOEn arteko «Itun Antiterrorista» delakoaren ostean¹⁴², Batasuna¹⁴³ eta Haika¹⁴⁴ ezker abertzaleko antolakundeen ilegalizazioak eta Egunkariaren¹⁴⁵ itxiera etorri ziren, besteak beste (ELA, 2004: 6-7).

2004an José Luis Rodríguez Zapatero buru zuen PSOEn gobernu sozialistak ere ez zuen aldaketa handirik ekarri¹⁴⁶. Hark ere, ezker abertzalearen hauteskunde zerrendak ezereztu zituen, eta legez kanpoko eta gizabideen kontrako espetxe politika ezarri zituen. Hala, gobernuak oinarri demokratikoak hautsi eta oinarrizko askatasunak eta giza eskubideak urratu zituen sarri, ezker abertzalea esparru sozialean nahiz politikoan baztertzeko asmoz, irtenbide demokratikoren baterako edozein negoziazio saio saihesturik (ELA, 2004: 7, 50-52; 2008: 47-48; 2008: 53).

Testuinguru horretan, 2003an, ezker abertzaleak «Anoetako proposamena» kaleratu zuen¹⁴⁷. ELAren ustetan positiboa zen aurkezturikoa, baina autodeterminazio eskubidearen aldeko indar metaketa alboratzen zuen. Izan ere, ETak eta Espainiako gobernuak sekretupean adostu zituzten haren oinarriak. Ondorioz, oso mugatua zen gizarteari aitortutako protagonismoa. Azkenean, saiakera horrek ere huts egin zuen, eta horren kalteak indar subiranistek jasan behar izan zituzten (ELA, 2008: 51-52). Oro har, ELAk arbuiatu egin zuen ETak burujabetza prozesuan beretzat hartu gura izan zuen protagonismoa. Horren harira, bere inplikazio politikoaren bidean sakonduaz batera, areagotu egin zen ELAk ETari buruz agertutako aurkakotasuna hamarkada honetan.

¹⁴² «Itun Antiterrorista», ofizialki «Acuerdo por las Libertades y contra el Terrorismo» deitua, 2000. urtean PP eta PSOEn artean egindako akordioa izan zen, ETaren aurka batera ekiteko eta beren arteko lehia ekiditeko. Bertan, besteak beste, EAJk eta EAK erabilitako estrategia kritikatzin zuten, Lizarra-Garaziko akordioetan parte hartzeagatik (PP eta PSOE, 2000).

¹⁴³ Ezker abertzale barruko «Batasuna prozesuaz» geroztik, 2001ean, eraturiko alderdi politikoa. 2003an legez kanpo jarri zuten.

¹⁴⁴ Ezker abertzaleko gazte antolakundea, Jarrairen lekukoa hartu zuen 2000an, baina 2001ean legez kanpo jarri zuten (Fernandez Mariezkurrena eta Goñi, 2012).

¹⁴⁵ Egunkaria edo Euskaldunon Egunkaria, 1990ean sortutako euskarazko egunkaria, Euskal Herrirako euskara hutsean paperean argitaratzen zuen bakarra. 2003an Audientzia Nazionalak ixtea agindu zuen, ETaren bitartekoa zelakoan (egunkaria.info). Haren itxieraren ondoren sortu zen Berria egunkaria.

¹⁴⁶ José Luis Rodríguez Zapatero, PSOEn Idazkari Nagusia 2000 eta 2012 urteen bitartean, 2004ean hartu zuen Espainiako gobernuko presidentetza, 2011ra arte.

¹⁴⁷ Ezker abertzaleak gatazkaren konponbiderako egindako proposamena (Casanova, 2007: 477).

Eraketa instituzionala

Lizarra-Garaziko prozesuaren gorabeherak eragin zuzena izan zuten autogobernuaren lorpenetan. Prozesuak hasieran nolabaiteko indar metaketa ahalbidetu bazuen ere, autogobernuaren arloan egindako urratsak etsigarriak izan ziren ELArentzat. Haren ustetan, lortutako eskumen apurrak langileen kontrako politika neoliberalak ezartzeko erabili zituzten EAeko zein Nafarroako gobernuek (ELA, 2000: 45-46; 2004: 6). Hortaz, autogobernuak atzera egin zuen; ildo horretan, sindikatuak honako dinamika zapuztuak jazo zituen bere analisisian: *Hobetuz* langileen prestakuntzarako programaren porrota¹⁴⁸, kontzertu ekonomiko atzerakoiaren lorpena EAEn, Nafarroako erakundeen estatalismoaren aldeko jarrera, eta sindikatu abertzaleak baztertzeko ahaleginak, besteak beste (ELA, 2000: 51-52).

2004. urtean, hainbat proposamen eta ekimen eman zituzten argitara «ia indar politiko guztiek», autogobernuan sakontzeko prozesua suspertu asmoz. Horien artean, ELAk «Proposamen Soberanista Baterako Apunteak» izeneko agiria plazaratu zuen¹⁴⁹. Baina, proposamenen artean esanguratsuena Eusko Jaurlaritzak luzatutakoa izan zen, «Ibarretxe Plana» legez ezaguna egin zena¹⁵⁰. Ekimen hori interes handikoa zen, gatazka politikoa gainditzeko nolabaiteko irtenbide adostua eta demokratikoa planteatzen zuelako; hala ere, hutsune asko zituen, ELAren iritziz: ez zuen eratu beharreko aliantzen inguruko zehaztapenik ematen, ez zion gizartearen parte hartzeari lekurik eskaintzen, eta, oroz gainetik, etsigarria zen arlo soziolaboralari zegokionean ere (ELA, 2004: 7, 54-55).

Nafarroan, aldiz, aldaketarako zantzu batzuk atzeman zituen sindikatuak, urte hauetan herrialdean gertatutako indar euskaltzaleen eta aurrerakoien gorakadagatik. Hala ere, sindikatuarentzat etsigarria zen herrialde horretako erakunde publikoek ere erakutsitako jarrera. Hartara, Hego Euskal Herriko bi gobernu instituzioak kritikatu zituen gogorki ELAk. Eusko Jaurlaritzaren politika sozialaren kudeaketa neoliberalak, antidemokratikoa eta antisindikala zela berretsi zuen sindikatuak, Espainiako gobernuak egikaritutakoaren oso antzekoa, haren ustez. Nafarroako Gobernuarena are okerragoa zen; eskuin muturrekotzat jotzen zuen hura ELAk (ELA, 2004: 42-43, 55-56; 2008: 8).

¹⁴⁸ 1990eko hamaradari buruzko atalean eta 130. oin-oharrean hitz egin dugu horretaz.

¹⁴⁹ Proposamen horretan sakontzeko jo honetara: Kortabarria (2015: 289-291).

¹⁵⁰ Eusko Jaurlaritzak, Juan José Ibarretxe lehendakaria zela, eta Eusko Legebiltzarrak Autonomia Estatutua berritzeko 2003an hasitako saiakera izan zen. 2005ean bota zuen Espainiako Kongresuak atzera.

Oro har, ELAk euskal erakundeei buruz zeukan ikuspegi frustragarriak goranzko joerari eutsi zion hamarkada honetan, eta «Hegoaldeko mugimendu abertzaleko bi korronte» nagusiei Estatuarekin itunak egitearen aldeko estrategia leporatu zien. Batetik, EAJ subiranismotik urrun kokatzen zen Estatuarekin egindako akordioetan. Bestetik, sindikatuaren hitzak hona ekarrita, «ENAMek oportunistoa» erabiltzen zuen, «batzuetan, bere aliantzak egiteko, borroka armatuaren amaiera eta aldaketa politikoa batera gauzatu nahi hori dela eta». Horiek horrela, ELArentzat beharrezkoa zen «Estatuarekin hitzarmenak baztertu», eta prozesu subiranista abiatzeko aliantzei ekitea (ELA, 2008: 56) baina, ETAk oztopatu egiten zuen bide hori.

Bestalde, 2004an lehen aldiz agertu zen Ipar Euskal Herriaren aipamena ELAren diskurtsoan. Egoerari buruzko azterketarik egin ez arren, mugaren beste aldeko egoerari arreta handiagoa eskaini zion (ELA, 2004: 57); ikus daiteke, beraz, bere nazio ikuspegia zabaltzen ari zela sindikatua.

Lan harremanak

Epealdi honetan autogobernuaren blokeo egoerak bete-betean baldintzatu zituen lan harremanen nondik norakoak, sindikatuaren iritziz. Izan ere, muga gehienak hortxe aurkitu zituen ELAk (2000: 10). Oro har, gainerako esparru instituzionaletan gertatzen ari zenari buruz sindikatuak egindako diagnostikoa oso ezkorra zen. Hala, Europar Batasunean egiten ari ziren urratsek bai lan- eta bizi-baldintzak bai sindikatuaren ahalmena kaltetu zituzten, gastu soziala jaitsi, presio fiskala gutxitu, eta lan harremanak malgutu baitzituzten handik zetozen politikek (ELA, 2000: 22-25, 55-56). Nafarroako gobernuari sindikatu abertzaleen bazterketa leporatu zion, eta Eusko Jaurlaritzari gutxiengo sindikalarekin, eta ez gehiengoarekin, akordioak hartu izana. Hori gutxi ez eta, sindikatuak parte hartzen zuten organo instituzionalek ez zutela funtzionatzen uste zuen (ELA, 2008: 79-80).

Bitartean, negoziazio kolektiboan estatalizazio ahaleginak egiten ari ziren Confebask eta CEOE erakunde patronalak eta CCOO eta UGT sindikatuak, Estatu esparruko hitzarmenak ezartzen ari baitziren euskal langileen artean (ELA, 2000: 125). Confebask, euskal patronalaren erakundea, hasieran marko propioa lortzeko aliatutzat jo bazuen ere, urte horietan harekin izandako harremana gaiztotu egin zen, Eusko Jaurlaritzarekin bezala.

2004 eta 2008an, negoziazio kolektiboaren eta elkarriketa sozialaren mugen inguruko hausnarketa oso deigarria plazaratu zuen ELAk, negoziazorako estrategia aldatzen ari zenaren adierazle (ELA, 2004, 2008). Horren hausnarketa egiturazko diagnostikoaren atalean txertatu dugu, baina oro har, patronala, administrazio publikoa eta sindikalismo apala aipatu zituen ELAk negoziazio kolektiboaren ahalmen faltaren erantzule gisa. Horren aurrean, negoziazio kolektiboa indartzeko eta eraberritzeko planteamenduak egin zituen (ELA, 2008: 69-72). Ildo horretan, nabarmena da 2000ko hamarkadako kongresuetan aipamen gutxi daudela CCOOren eta UGTren jarduerari buruz, aurreko kongresuetan ez bezala. Badirudi ezikusiarena egiteko jarrera hartu zuela ordurako ELAk, estatuko sindikatuekin elkarlana ezinezkotzat jota (ELA, 2000; 2004; 2008).

Ostera, sindikatuaren diskurtsoak toki handiagoa eman zion LABekin hasitako aliantza estrategikoaren gorabeheren azalpenari. Aliantza horrek Lizarra-Garaziko adierazpena ahalbidetu zuen 1998an, gatazkaren konponbide demokratikoari begira (ELA, 2000: 134). Hala ere, ETAre su-etenaren amaierak krisian murgildu zuen elkarlan hura. ELArentzat, LABek ezker abertzalearekin zeukan loturan eta autonomia ezean zegoen arazoaren gakoetako bat. ENAMen strategiari buruzko mendekotasuna zela-eta, haren estrategia politikoa elikatzeko eginkizuna betetzen zuen LABek, helburu sindikalak lehenetsi ordez. Horrek ezinezko bihurtu zuen haien arteko konbergentzia (ELA, 2000: 135).

2000ko hamarkadak aurrera egin ahala, harremanak okertuz joan ziren, eta CCOOri eta UGTri bezalaxe, LABi ere akordioak eta hitzarmenak gutxiengoaren posiziotik sinatzea eta gehiengo demokratikoaren araua ez errespetatzea leporatu zion ELAk. Jokaera horrek negoziazio kolektiboaren arazo estrukturala sakontzen zuen, eta ekintza sindikalaren ahalmena ahuldu, langileentzako baldintza txarragoak onartzea ahalbidetzen baitzion patronalari (ELA, 2008: 62).

Azkenean, lan arloko gatazkak gora egin zuen, nabarmen. Izan ere, CEBEK¹⁵¹ patronalak ELAko militante batzuei espetxe zigorra ezartzeko ahaleginak egin zituen, Bizkaiko Hormigoi eta Harrobien hitzarmenaren harira sortuta istiluengatik. Ondorioz, LHKan parte hartzeari utzi zion ELAk, bateraezinak zirelako patronalaren jokaera eta «elkarren aintzatespenean eta errespetuan oinarrituriko bilgunean» haiekin eserita egotea. Horrez

¹⁵¹ Bizkaiko Enpresarien Konfederazioa (Gaztelera, Confederación Empresarial de Bizkaia).

gain, zenbait askatasun sindikal urratzea leporatzen zion Ibarretxeren gobernuari (ELA, 2008: 80-82).

Egoera sozioekonomikoa

Gobernu ezberdinen politika ekonomikoen eta sozialen joera neoliberala gero eta agerikoagoa zen, eta arbuiatu egin zuen etengabe ELAk urte hauetan. Egoera horrek azaltzen du sindikatuak testuinguruaz egindako azterketa etsigarria, are okerragoa zena ekonomia hazkunde fasean zegoela kontuan hartuta. Izan ere, hazkunde ekonomikoak ez zituen langile klasearen aldeko politika sozial eta ekonomikoak ekarri. Sindikatuaren ustez, gobernu autonomikoen zein gobernu espainiarraren politiken atzerakada nabarmena zen, aberastasunaren banaketa justuago bat lortzeari zegokionez: osasuna- eta hezkuntza-gastuen murrizketak, pobrezia kontrako politiken gabezia, zerbitzu sozial eskasak, industriaren galera eta aberatsen aldeko politika fiskala, azpimarratu zituen atzerapauso horren adierazle moduan. Ondorioz, pobrezia eta ezberdintasun sozialak areagotzen ari ziren, sindikatuaren aburuz (ELA, 2000: 10, 18-22; 2004: 43-44.).

Ildo horretan, esparru bakoitzeko egoera ekonomikoaren azterketa oso zehatza eskaini zuen 2000ko ELAren ponentziak. Horren arabera, irabaziak eta lanpostuak gorakada handia izaten ari ziren, horietako asko emakumeei bideratuak. Hala ere, lan merkatuan ezarritako malgutze- eta desarautze-neurriek behin-behinekotasuna, partzialtasuna eta, oro har, prekaritatea finkatu zituzten lanpostuetan, zerbitzuen sektorean eta emakume eta gazteen artean gehienbat. Bestalde, prestazio sozialen murrizketek ez zuten lan merkatutik baztertutako kolektiboen bizi maila hobetzeko balio izan (ELA, 2000: 23, 29-35).

Joera horiek antzekoak ziren European eta Mendebalde osoan, eta beren horretan mantendu ziren hamarkada osoan zehar. Horregatik, gainera azalduko ditugu 2004ko eta 2008ko azterketa ekonomikoak. Epe honetan babes sozialarekiko eta zergen politikekiko interesa gero eta handiagoa zen sindikatuan, lan egoerak soil-soilik ez baitzuen jada egoera sozioekonomiko osoa ulertzeko eta aztertze balio. Ildo horretan, etxebizitzaren egoeraren, eta osasun- eta hezkuntza-sistema publikoaren gaiak, besteak beste, sindikatuaren interesa erakarri zuten 2004an eta 2008an.

Hari horretatik, etxebizitzaren prezioen igoerak haietarako sarbidea zaildu eta langileen erosahalmena asko baldintzatu zuela azpimarratu zuen sindikatuak (ELA, 2004: 6, 43; 2008: 36-37). Hori gertatzen zen bitartean, euskal gizartearen premiei erantzuten ez zieten

azpiegiturak gobernutik bultzatzea kritikatu zuen («Euskal Y» izenez ezaguturiko abiadura handiko trenaren proiektua). Azkenik, errentaren banaketaren auzietatik urrun zeuden bestelako gaiak ere aztertu zituen ELAk, CO₂ emisioei buruzko analisia kasu (ELA, 2004: 46-48). Haren diskurtsoan jorratutako gai horiek guztiek erakusten dute politika ekonomikoekiko interesa, gero eta gehiago, enpleguaz harago zihola sindikatuarentzat. Lan baldintzak garrantzitsuak baziren ere, ez ziren izan aurreko hamarkadetan bezain zentralak politika ekonomikoen azterketan.

2008ko krisiak eztanda egin aurretik, gero eta motelago zebilen ekonomia, eta eredu neoliberalari buruzko kritikak gogortu zituen ELAk. Krisiaren oinarrian kontuan hartzeko hiru faktore azpimarratu zituen: finantza-sistemaren funtzionamendua, eraikuntzaren krisia eta oinarrizko elikagaien prezioen igoera (ELA, 2008: 17-18). Oro har, hamalau urtetako hazkundearen balantze oso txarra egin zuen sindikatuak. Izan ere, uste zuen produktibitatearen igoerak ez zuela aberastasunaren banaketa hobea ahalbidetu. Hala, gizartearen bizi maila ez zen hazkundearen neurri berean hobetu, politika neoliberalen ondorioz. Halaber, bizi mailari lotutako kritika materialista egiteaz gain, politika horien atzean zegoen defizit demokratikoa ere salatu zuen ELAk, gobernuek (berezi Ibarretxe lehendakariaren gobernu autonomikoak) ez zituztelako eragile sozialak eta sindikalak ezertarako kontuan hartzen (ELA, 2008).

Nazioarteko prozesuak

Hamarkada honetan Europar Batasunaren proiektua garatuago zegoen eta, beraz, toki handiagoa eskaini zitzaion sindikatuak egindako koiunturaren azterketetan. Aurreko hamarkadaren ildo bertsuan, proiektu horren izaera neoliberalak kritikatu zuen berriz ere ELAk. Bigarren Mundu Gerra ondoko arazoak gainditzeko eratu bazen ere, Europako eraikuntzaren hasierako proiektua ezaugarritzen zuen eduki soziala galduz joan zen, eta politika eta babes sozialari buruzko eztabaidak alboratuak izan ziren, guztiz, haren barruan (ELA, 2000: 22-24; 2004: 5). 2008an, EBren ereduari antisoziala irizteaz gain, defizit demokratikoa izatea ere egotzi zion ELAk (ELA, 2008: 12-14). Beraz, aurreko hamarkadan ez bezala, sindikatuaren ustetan, Europar Batasuna langileentzako instituzio mehatxagarria izatera igaro zen hala arlo demokratikoan nola esparru soziolaboralean. Azken finean, zioen ELAk, balizko lehiakortasun hobea baten izenean gobernuek bultzatutako politika neoliberalak eta antidemokratikoak sakontzeko eta orokortzeko tresna besterik ez zen Europar Batasuna.

Ildo horretan, ELAk politika horien aurkako ekintza batzuetan hartu zuen parte. Izan ere, 2000 urtetik aurrera globalizazio neoliberalaren kontrako zenbait ekimen gorpuzten ari ziren nazioartean, sindikatuek, gizarte mugimenduek zein Gobernu Kanpoko Erakundeek bultzatuta. Hala, Inbertsioetarako Aldeaniztun Akordioa gelditzea lortu zen, mundu mailako zenbait goi-gailurrek sekulako erantzun soziala jaso zuten eta Emakumeen Mundu Martxa¹⁵² egiten hasi ziren. Horrez gain, hainbat Foro Sozial burutu ziren nazioartean, Europan zein Euskal Herrian. ELAk ekimen horietako zenbaitetan esku hartu zuen, nahiz eta bere protagonismoa mugatua izan zen (ELA, 2000: 53; 2004: 60-62; 2008: 11-12). Halaber, nazioarteko sindikalismoan aurreko konfederazioen arteko fusiotik NSK¹⁵³ berria sortu zen, eta EurSK-k XI. Kongresua burutu zuen Sevillan. ELA bi prozesuetan egon zen (ELA, 2008: 15).

Egiturezko diagnostiko markoa: testuinguru aldakorraren egonkortzea

Koiunturaren azterketan agertutakoaren ildo berean, egiturezko analisietan ere globalizazio eta neoliberalismo kontzeptuek baldintzatu zituzten, aurreko hamarkadan baino askoz nabarmenago, egindako diagnostiko guztiak. Bada, euskal gizartea ere, EBren barruan egonik, proiektu neoliberal horren menpe zegoen. Globalizazio neoliberalarekin batera, merkataritza-trukeak eta teknologia berrien garapena biziagotu egin ziren mundu osoan, eta herrialde aberats eta pobreen arteko desoreka handitu zen, ELAren aburuz (ELA, 2000; 2004: 17; 2008: 12). Ildo beretik, Estatu esparruan hazkunde ekonomikoa inbertsio espekulatiboan oinarritu zen nagusiki (ELA, 2000: 16-17). Horregatik, oso emaitza eskasak lortu ziren kalitatezko lanpostu finkoen sorreran, eta areagotu egin ziren desoreka sozialak eta lan- eta bizi-baldintzen prekarietatea (ELA, 2000, 2004). Gainera, globalizazioari lotutako inbertsioen deslokalizazioa lan baldintzak okertzeko eta langileei xantaia egiteko erabiltzen zen (ELA, 2000: 18). Oro har, globalizazioaren eredu neoliberalak sindikatuen botere estrukturala ahuldu zuen, eta kapitalistena, berriz, indartu.

Joxe Elorrieta ELA sindikatuko buruzagi ohiak honela laburbiltzen ditu lan munduko garai honetako aldaketa nagusiak: 1) Lan prekarioak lan finkoaren tokia hartu zuen; 2) Zerbitzu sektoreak aurrea hartu zion industriaren sektoreari; eta 3) emakumeak

¹⁵² 2000. urtetik egiten den mundu mailan egiten den ekimena feminista.

¹⁵³ Nazioarteko Sindikatuen Konfederazioa (frantsesez : Confédération Syndicale Internationale (CSI))

soldatapeko lan merkatuan sartu ziren. Ikusiko dugu jarraian nola interpretatu eta landu zituen mudantza horiek sindikatuak.

Lan harremani zegoenez, langabezia-tasa zertxobait apaldu zen arren, sindikatuaren ustetan, areagotu egin ziren behin-behinekotasuna, partzialtasuna, azpikontratazioa eta, oro har, lanaren prekarietatea (ELA, 2000, 2004). Hori gutxi balitz, Europako Batzordeak, «*flexicurity*» eufemismopean, lan harremanak malgutzeko neurriak bultzatu zituen, eta, horrela, langileen ziurgabetasuna areagotu (ELA, 2008: 13-14). Zalantza barik, testuinguru horrek sindikalismoa kaltetu zuen. Gainera, horren aurrean, sindikatu askok langile gatazkak baretzeko funtzioa hartu zuten, ELAren ustetan; haren hitzetan, sindikatu horiek «akonpainamenduko sindikalismo» bihurtu ziren (ELA, 2000: 57). Horrek egoera okertu besterik ez zuen egin.

Egoera hori larriagotu zuten bestelako joera kulturalak ere aztertu zituen sindikatuak. Izan ere, eredu ekonomikoaren, prekarizazioaren eta bazterketa sozialaren eskutik eratorritako zailtasunez gain, XXI. mendearen hastapenetan langileek ez zuten jadanik beren identitatea «klase balio klasikoen» inguruan eraikitzen. Bada, neoliberalismoak lotura kolektiboak eta sindikalak hautsi zituen, eta langileen memoria eta eraldaketarako ideologiak ahuldu (ELA, 2000: 58). Hala, neoliberalismoak oinarri kultural indartsuak zeuzkan, indibidualismoa eta lehia moduko balioei lotutakoak, eta justizia eta elkartasuna alboratu zituen langile kolektiboen artean. Horrenbestez, mudantza ekonomikoak eta laboralak ez ezik, aldaketa ideologikoak eta kulturalak ere gertatzen ari ziren gizartean, aurreko hamarkadan bezala, sindikalismoari bete-betean eragin ziotenak.

Horrekin batera, sindikatuak azpimarratu zuenez, industria sektoreak pisua galdu zuen euskal ekonomian, eta, apurka-apurka, zerbitzu sektorea nagusitu zen bertan. Hartara, soldatapeko langileen osaketa gero eta pluralagoa zen, haietako asko kontratazio modalitate atipikoekin zebilen lanean, eta pentsaera oso ezberdinetako pertsonak biltzen zituen kolektiboak, gizon langile industrial zurien ohiko iruditeriatik aldentzen zirenak. Gainera, industriakoak baino askoz langile gutxiago biltzen zituzten zerbitzu pribatuetako lantokiek. Ondorioz, sindikatuen esku hartzea aldatu eta zaildu egin zen aldaketa horien guztiek aurrera egin ahala.

Hari beretik, ekonomiaren tertziarizazioarekin batera, gero eta emakume gehiago sartu zen «ordaindutako enpleguan», zerbitzu sektorean gehienbat, eta horrek ere saihestezinezko mudantza sakonak ekarri zituen bai lanaren esparrura bai

sindikalismoaren molde eta zereginetara. Dударik ez, erronka berriak zituzten aurrean sindikatuak (ELA, 2000: 129; 2008: 25). Izan ere, sexuen araberrako lan banaketaren eraginez, gizonezko soldatapeko langileek ez bezala, ordaindu gabeko etxe- eta zaintza-lan karga nagusia beren gain hartzen jarraitzen zuten emakumeek, Estatuak fiskalitatean eta zerbitzu sozialetan zituen hutsuneak betez. Halaber, emakumeen egoera horrek beren militantzia sindikala baldintzatzen zuen, neurri handi batean, eta sindikalismoak ordura arte kontuan hartu gabeko lan baldintzak eta arazoak sortzen zituen (ELA, 2000: 130). Alde batetik, etxeko zaintza lanak zirela-eta, emakume langileek gizonek baino denbora gutxiago zuten militantziari eskaintzeko. Beste aldetik, gutxiago sindikatzen zirenez, beren ikuspuntuak eta arazoak presentzia gutxiago zeukaten sindikatuaren erabakietan (ELA, 2000: 131-132)

Aurreko hamarkadan bezala, gazteek osatu zuten lan merkatuaren prekarizazioak kaltetutako bigarren kolektiboa, bereziki, kolektibo horren langabezia-mailari so egiten badiogu (ELA, 2000; 2004; 2008: 24). Hori gutxi balitz, neoliberalismoaren eragin kultural eta ideologikoa (indibidualismoa eta konpromiso kolektiborik eza) bete-betean pairatzen zuten belaunaldi gazteenek; hortaz, erronka handia jarri zioten sindikalismoari urte hauetan (Landeia, 2004: 12).

Aipatu bi kolektiboen lan txertaketaz gain, sindikalismoan ohikoak ez ziren bi auziren inguruko gaitan sakondu zuen ELAk hamarkada honen hasieran; bata, ingurumenaren degradazioa izan zen; bestea, herrialde aberatsen eta pobreen arteko desorekak ekarritako immigrazioa eta bazterketa arrazista (ELA, 2000: 18-21; 2004: 47-48). Gai hauek sindikatuaren analisisian lehenengoz agertu izanak ere erakusten du ELAren esku hartzea, geldi-geldi, arazo sozialetara ere zabaltzen ari zela. Izan ere, Euskal Herria ez zegoen munduko beste herrialdeek bizi zuten krisi ekologikotik edo migrazio mugimenduetatik at. Hala, 2004tik aurrera, esaterako, sindikatuaren arreta berezia eman zitzaientz etorkinei, langileen artean, lan baldintzarik gaiztoenak pairatzen zituztelako. Hala, lan eta eskubide sozialak legez aitortuak ez zituztenez, gehienak ezkutuko lanetan ari ziren, lan eskubiderik gabe. Horrez gain, lanean ez ezik, gizartean ere bazterketa arrazista pairatu behar izan zuten sarri. (ELA, 2004: 29-30; 2008: 24).

Azkenik, sindikatua lantzen ari zen arlo sozialaren barruan, desgaitasunak zituzten pertsonen lan egoera ere aztertzen hasi zen. Elbarrien (sic) kopurua handituz zihoan lanaren esparruan, bai biztanleria zahartzen zihoalako, bai lehenago hilgarriak ziren istripuetatik jende gehiagok bizirik ateratzea lortzen zuelako. Lan merkatuan sartzeko

zeuzkaten zailtasunak eta zerbitzu sozialean sortutako beharrian bereziak izan zituen aztergai sindikatuak kolektibo horri dagokionez (ELA, 2004: 31; 2008: 25-26).

Bestalde, elkarrizketa soziala eta negoziazio kolektiboa ahuldu egin ziren garai honetan. Hori larria zen, negoziazio horrek ez zituelako lortu sindikatuek bilatutako langileentzako onurak. Hari horretatik, negoziazio kolektiboari buruzko hausnarketa interesgarria plazaratu zuen sindikatuak, autokritikatzen har daitekeena: negoziazioa «bateragarri gertatu da lan baldintzen kaskartzearekin, ezegonkortasuna hedatzearekin, diskriminazioarekin» (ELA, 2004: 64). ELAren ustetan, honako faktoreek ahalbidetu zuten emaitza hori: ugazaberiaren presioek, administrazio publikoaren jarrerak eta sindikalismo eredu desmobilizatzaileak. Hortaz, negoziazio kolektiboaren baliagarritasunaren mugak aitortu zituen sindikatuak, «aberastasunaren bidezko banaketa eta lan baldintza duinak lortzeko» (ELA, 2008: 62-63). Ikusiko dugunez, jarrera aldaketa garrantzitsu bat ekarri zuen konklusio horrek ELAren barruan.

Aipaturiko negoziazio kolektiboari buruzko irakurketak egiaztatzen du lan honen hipotesietako bat, soldatapeko lanaren krisiarekin harreman estua duena, alegia, gero eta zailtasun handiagoak bizi dituela XXI. mendeko sindikalismoak soldatapeko lan esparrutik bultzatzeko langile klasearen osotasunarentzako mesedegarriagoa izango litzatekeen aberastasunaren banaketa. ELArentzat, negoziazio kolektiboa «ekintza sindikalerako tresnarik berezkoena» izan zen ordura arte, eta testuinguru instituzionalak beren indar gehienak ildo horretara bideratzera eramane zuten; baina negoziazio kolektiboaren tresnak ez zion ahalbidetu langileen bizi baldintzen kaskartzea ekiditea eta, are gutxiago, bizi baldintza horiek hobetzea. Bada, negoziazioaren porrotaren kausa lanaren esparruan ez ezik gizarte eremuan eta eredu politikoan ere bilatu behar zen.

Hartara, 2008an, globalizazio neoliberalaren defizit demokratikoa izan zen sindikatuak eredu horren kontra egiteko emandako argudio nagusietako bat, prozesu horrek lan harremanetan eta babes sozialean ondorio kaltegarriak baitzituen. Hala, kolokan zeuden langile mugimenduak European egindako hainbat lorpen, «ukiezinak» ziruditenak sindikatuentzat (ELA, 2008: 6-9, 30-31). Izan ere, politika botere ekonomikoaren mesedetara jarrita zegoen gero eta era nabarmenagoan, eta horrek bete-betean murriztu zuen sindikalismoaren ahalmena.

Kezka berri horren harira, aurreko kongresuetan gizarte azterketa ikuspegi ekonomikoan zentratu baldin bazuen ere, 2008an harago joan zen sindikatuaren analisia. Bada,

globalizazio neoliberalaren eragina ez zen soilik materiala, gizartearen kulturen eta balioetan ere eragin nabarmena zeukan. Defizit demokratikoak sindikatuan sortutako kezka bat zetorren, bestalde, garaiko mugimendu global berrien marko diskurtsiboekin (Calle, 2005); beraz, badirudi horietatik ere eskuratu zuela ELAk diskurtso eraberritu hau.

Norberaren jardueraren balorazioa: emaitza onak, baina autokonplazentziarako tokirik ez

2000ko hamarkadan aurreko urteen balorazioari eskainitako atalak sartzen hasi zen ELA bere gogoetetan. Beraz, informazio zehatzagoa dugu sindikatuak bere jardueraz egin zituen balorazioen inguruan. Halaber, hausnarketari eta autokritikari eskainitako tarteark jarduera sindikala egokitzeko sindikatuak egindako ahaleginen berri eman digu.

ELAren ustetan, testuinguru estrukturala eta politiko-instituzionala gero eta okerragoak ziren Estaturik gabeko sindikalismoarentzat (ELA, 2000: 55). Baina, testuinguru horrek ezin zuen balio ELAren afiliazioaren emaitzak esplikatzen. Are gehiago, ELAk arbuia egin zituen afiliazioaren jaitsiera justifikatzeko testuinguru sozioekonomikoa aitzakiatzat erabiltzen zuten diskurtso fatalistak. Egia zen testuinguruak eragina zuela langileen afiliazioan; baina, errotze sindikala egoera berrira moldatzeko ahalmenaren araberakoa ere bazen afiliazioa (ELA, 2000: 103). Egokitzeko gaitasun hori tarteko, aise lortu zuen ELAk 100.000 afiliatu baino gehiago izatea 2000ko hamarkadako erdialdean (ELA, 2004: 72; 2008: 86).

Lortutako ordezkari kopuruak frogatzen zuen, sindikatuaren hitzetan, «ELA langileklasearen arazoetatik hurbil dagoela, bere eredu eraginkorra dela eta, horregatik guztiagatik, legitimotasun handia duela». Aurrerapauso aipagarriak eman ziren atal sindikalen kopuruan eta emaitzetan ere (ELA, 2008: 86-87). Ildo horretan, euskal gizartean errotutako sindikalismoa eratzea lortu zuen ELAk, langileen interesen defentsarako tresna baliagarria eskainiz. Zailtasunak zailtasun, zenbait lorpen erdietsi zituen aurreko hamarkadetan (ELA, 2000: 55-56). Horrez gain, iraganean egindako hautu estrategikoen eta bereganatutako eredu sindikalaren egokitasuna berretsi zuten emaitzek. Honako ezaugarriak goraiatu zituen sindikatuak lortutako emaitza garrantzitsu modura: antolakuntza eredu konfederala eta sendoa, afiliazio antolakuntza, autonomia politikoa eta finantzariora, eta sindikalismo eredu aldarrikatzailea, besteak beste (ELA, 2000: 11, 88-92, 133-134). Horietako ezaugarri asko, antolakuntzarekin zerikusia zutenak bereziki,

80ko hamarkadatik zetozen jarraipenezko ildo batean; «eredu aldarrikatzailearen» goraiamena, ordea, berria izan zen diskurtsoan.

Bereziki goretsi zuen ELAk autonomia sindikala lortu izana, beren berezko erantzun eta proposamen gaitasunak garatzeko aukera eman baitzion horrek sindikatuari. Bestek beste, ahalmen analitikoa eremu sindikaletik gizartera eta gizartetik azterketa orokorragora zabaltzea ahalbidetu zion autonomiak, Euskal Herriarekin politikoki konprometitu arte (ELA, 2000: 86; 2004: 68). Bistan da, jadanik hamarkada honetan ezinbesteko baldintza zela sindikatuarentzat euskal gizartean ondo sustraiturik egotea, eta gizartean zeukan esku hartzea gero eta esparru gehiagotara zabaltzea.

Haatik, sindikatuak hutsuneak zituen oraindik hainbat kolektiboren premiei emandako erantzunetan. Sindikatuaren errotze sozialaren gaian sakondurik, ELAk 2000n aitortu zuen emakume langileen egoerari arreta txikiegia eskaini izana iraganean. Antolakuntzan aurrerapen batzuk burutu ziren, egituretan emakume gehiago sartzea bultzatu zen, baina, oraindik asko zegoen egiteke (ELA, 2000: 130-131). Hala ere, hurrengo urteetan balorazio positiboagoa egin zuen gai honen inguruan. Bada, apurka-apurka izan bazen ere, emakumeen afiliazioak gora egitea lortu zuen; are gehiago, garaiko lan gatazka askoren protagonista izan ziren emakume langileak (ELA, 2004: 9, 72-73; 2008: 71-72, 107). Gazteen lan baldintzen arloan, aldiz, afiliazioa igotzea erdietsi arren, ez zen berriazko lanik egin sindikatuan auzi horri zegokion lehentasuna emateko (ELA, 2008: 108-110).

Bestalde, sindikatuaren esfortzurik handiena negoziazioa kolektibora bideratuta ere, ELAk onartu zuen ez zela gai izan «lan baldintzen lorrinze hazkorrari» buelta emateko, aintzat harturik gainera 2000ko lehen urteak hazkunde ekonomikoko garaiak izan zirela (ELA, 2008: 67). Huts egitearen aitorten horrekin, ñabardura handia gehitu zion bere buruaz egindako balorazio baikorrari, eta bestelako hausnarketa bat mahaigaineratu zuen. Izan ere, afiliazioan eta gaitasunetan sindikatu eredugarria izanda ere, ez zen testuinguru soziopolitiko hobea lortzeko gauza izan, eta negoziazio kolektiboaren ahalmena mugatua zen horretarako (ELA, 2008: 66-67).

Diagnostiko markoen ondorioak

Ikusi dugunez, testuinguru desegokia zeukan sindikalismoak beren eginkizunak garatu ahal izateko; are okerragoa zen ingurumari hori sindikalismo abertzalearentzat, ikuspegi instituzionaletik, batik bat. Esparru desberdinetako gobernuen politika ekonomiko,

sozial, laboral eta sindikalek eta, horiekin batera, mundu mailako globalizazio neoliberalari lotutako prozesuek kalte handia egin zioten bai langile klasearen osotasunari bai mugimendu sindikalari, oraindik gehiago botere instituzionala mugatua zuen sindikalismo abertzaleari. Alde batetik, sindikalismo abertzalea berariaz baldintzatzen zuten faktore politiko eta instituzionalak zeuden. Bestetik, oro har, mendebaldeko sindikalismoari eragiten zioten era guztietako faktore estrukturalak, besteak beste, ekonomikoak, laboralak eta ideologiko-kulturalak.

Aipatutako faktore batzuk 1990ko hamarkadatik zetozen, baina 2000ko abagunean oztopo estrukturalak eta politiko-instituzionalak areagotu egin ziren sindikalismo abertzalearentzat. Hala ere, ELAk bere indarrari eusten zion, nahiz eta indibidualizazioaren gailentzeak euskal gizartean ere kontrako noranzkoan eragin. Hala ere, lan- eta bizi-baldintzak okertzen jarraitzen zuten, eta beraz, bere burua gaitasun handiko sindikatutzat jotzen zuen arren eta gizarte eredu aldatzeko ahaleginak eginda ere, ez zen nahikoa izan bilatutako emaitzak lortzeko.

PRONOSTIKO MARKOA (ESTRATEGIKOA)

Printzipio eta helburu ideologikoak: subiranismo demokrazia-zalea

Orain arte adierazi bezala, hamarkada hau neoliberalismoak baldintzatu zuen, baita zeharo baldintzatu ere, bere indarrak menpean hartu baitzuen bizitza sozialeko esparru guztien funtzionamendua. Horiek horrela, indar politiko-ekonomiko horren kontrako eta «beste gizarte eredu baten» aldeko jarrera azaleratu zuen behin eta berriro sindikatuak bere diskurtsoan. Halaber, ELAk klase- lan-konpromisoei ez ezik nazio eraikuntzaren aldeko konpromisoei eusteko borondatea ere adierazi zuen hamarraldi honetan (ELA, 2000; 2004: 95; 2008: 45). Ildo horretan, jadanik 1976ko printzipioetan ezagutaraziko euskal langile klasearen eta Euskadiren askatasunaren aldeko konpromisoa berretsi zuen. Beraz, 1990eko hamarkadan hasitako aldaketa estrategikoak 1970eko printzipioekiko koherentzia erakutsi zuen (ELA, 2000: 133; 1976a); baina lortu beharreko gizarte eredu berria zuzenean «sozialista» modura identifikatu beharrean, elkartasunaren eta justiziaren balioak erabili zituen ELAk oraingoan gizarte eredu hura ezaugarritzeko (ELA, 2004: 68-69; 2008: 45).

Aurreko hamarkadan Autonomia Estatutuaren bideari buruz erakutsitako jarrera-aldaketaren ondorioz, posizio subiranistetara mugitu zen ELA. Hala, 1990ean bere burua «abertzale» legez ezaugarritu bazuen (ELA, 1990a, 1990b), hamarkada honetan

«subiranista» legez aurkeztu zuen, balio demokratikoekin konpromiso agerikoagotik abiatu (ELA, 2004: 70-71; 2008). Horrela, posizio subiranistan oinarrituta, eraikuntza nazionalari eta bakeari buruzko konpromisoa berretsi zuen behin eta berriro (ELA, 2000: 56), Lizarra-Garaziko prozesuak eta LABekin abiatu zeukan lankidetzak porrot egin ondoren ere.

Subiranotasunaren inguruko posizionamendu erradikalago hori, batetik, Estatutuaren bidearekiko haustura esplizituan, eta, bestetik printzipio demokratikoen defentsak hartutako lehentasunezko lekuan islatu zen sindikatuaren diskurtsoan. Zalantzarik gabe, globalizazio neoliberalak hartutako eragiteko indarra eta euskal nazio proiektuaren blokeoa sindikatuaren bira horren gibelaldean egon ziren (ELA, 2008). Bada, neurri handi batean, sindikatuaren diskurtso hori garai hartan gorpuztutako mugimendu global berrien diskurtsoekin sintonia berean zihoan. Izan ere, aurretik aipatu bezala, «demokrazia erradikala» izan zen helburu sektorialak batzeko oinarria edo helburu bateratua hainbat mugimendutan (Calle, 2005; Laclau, Mouffe, 1987).

Posizio subiranisten ildo erradikal horretan, honako baieztapena atzeman dugu ELAren adierazpenetan: «Autodeterminazio eskubidea da proiektu politiko guztiei egiazki lekua egiten dien mekanismo demokratikoa». Nazio eraikuntzaren prozesuan, beraz, lehentasuna hartu zuen eskubide hori lortzeak, sindikatuaren ustez. Bien bitartean, nazio eraikuntzari ELAk egin ziezaiokeen ekarpenik onena, bere hitzetan, «sindikalismo onuragarria, erreibindikatzaila eta gizartearekin konprometitua egitea» zen (ELA, 2008: 57, 59).

Laburbilduz, 1976ko printzipioetan jasotako konpromisoak eguneratu zituen ELAk hamarkada honetan, eta, gainera, demokraziaren aldeko borroka testuinguru globalizatuan kokatu zuen, eta nazio eraikuntzarekin eta gizarte eredu berriaren aldeko borrokarekin lotu zuen.

Aldarrikapenak eta esku hartze eremuak

Soldatapeko lan eremua: zentrala betiere, baina lehentasun berriekin

2000 urtean enpleguek eta soldatek jarraitzen zuten negoziazio kolektiboaren edukien ardatz izaten (ELA, 2000: 143). Langabezia-egoera hobetu egin zen hamarraldiko lehen urteetan; haatik, sortzen ari ziren lanpostuak oso baldintza txarrekoak ziren. Arazo horri irtenbidea emateko, bi neurri proposatu zituen ELAk; lehenengoa, hazkundea suspertzeko politika ekonomikoak bultzatzea; eta, bigarrena, lanaldia murriztea. Ekonomiaren egoera

(erlatiboki) onak arrazoiak ematen zituen lan baldintzen, enplegu-egoeraren eta babes sozialaren hobekuntzak exijitzeko (ELA, 2000: 64-65; 2008: 42). Hala ere, politika publikoen joera neoliberalak oztopatu egin zituen helburu horiek. Lanaldiaren murrizketa sindikatuaren betidaniko aldarrikapena zen, baina 2000n lehentasun estrategikoa bereganatu zuen sindikalismoan. Nazioartean ere, 35 orduko lan astearen aldeko kanpaina bultzatzen ari ziren sindikatuak; aldarriak sindikatu (ia) guztien arteko elkarlana ahalbidetu zuen (ELA, 2000: 54). Frantziako sindikatuek lortu egin zuten eskatutakoa, gainera (ELA, 2000: 65-66).

Ez zen garrantzi gutxiagokoa soldaten inguruko eskaria. 2000n soldaten aldeko eskariak zentrala izaten jarraitzen zuen aberastasunaren banaketa hobea bermatzeko, eta soldatek BPGaren maila berean igo behar zutela planteatu zen sindikatuan. Bestalde, lan baldintzek hobetu behar ziren, berdintasuna lortzeko helburuarekin. Hartara, lehentasuna zuen lanbideen arteko gutxieneko soldata igotzeak (ELA, 2000: 71). ELArentzat, dudarik gabe, soldata funtsezkoa zen 2008an, batez ere ezegonkortasuna sufritzen zuten sektoreentzat (ELA, 2008: 75-76).

2004tik aurrera aldaketa kualitatibo deigarria gertatu zen sindikatuaren aldarrikapenen artean. Hala, enpleguak, soldatak eta lanaldiak zentralitatea galdu zuten ELAren aldarrikapenetan (desagertu barik, hala ere), eta lan baldintza orokorragoei, lanaren egonkortasunari eta diskriminazioen kontrako borrokari eskaini zitzairen lehentasuna haren diskurtsoan (ELA, 2004: 33, 91-92, 128; 2008: 75-76, 83). Ildo horretan, laneko segurtasunak eta osasunak presentzia irabazi zuten, prekarizazioak eragindako lan istripuen gorakadagatik, baita ingurumenari lotutako arazoengatik ere (ELA, 2000: 117-118; 2008: 104-105; 2004: 77). Hona hemen negoziazio kolektiborako ELAk, kongresuz kongresu, hamarkada honetan ezarritako lehentasunak:

12.1. ELAren aldarrikapenen lehenetasunak 2000ko hamarkadako kongresuetan

	10. Kongresua 2000	11. Kongresua 2004	12. kongresua 2008
+	-Soldata	-Diskriminazioak desagerrarazi	-Ezgonkortasuna eta diskriminazioak desagerrarazi
	-35 orduko lan astea	-Ezgonkortasuna desagerrarazi	-Aberastasunaren banaketa justuagoa (soldaten eta lanaldiaren bitartez)
-	-Enplegua sortu	-Laneko segurtasuna eta osasuna -Erosahalmena handitu -35 orduko lan astea	-Laneko segurtasuna eta osasuna

Egileak osaturikoa.

Funtsean, negoziazio kolektiborako edukiak errepikatu egiten ziren, baina eskakizunen hurrenkera aldatu egin zen hamarkada honetan. Esanguratsua da aldarrikapen klasikoetatik urruntzeko eta langile kolektibo prekarioenen lan egoera lehenesteko (batez ere, ezgonkortasuna eta bazterketa) ahaleginaren adierazle baita bira hau. Aurreko atalean aipatu legez, enplegua okerrera zihoan urte horietan, gazteen eta emakumeen kasuan, batez ere. Beraz, ELAren ustetan, hazkunde ekonomikoa baliatu beharra zegoen, langile zaurgarrienen lan baldintzak hobetzeko eta berdintzeko (ELA, 2000: 69-70).

Emakume langileen arazo espezifikoetara begira ELAk zioenez, lanaldi partzialak ezin zuen bitzita laborala eta familiarra bateragarri egiteko tresna izan, askotan borondatearen kontra ezartzen baitzitzaien emakumeei, eta areagotu egiten baitzituen haien segregazioa eta prekarizazioa (ELA, 2000: 146-147). Hartara, emakumeen bazterketaren gaiak gero eta presentzia handiagoa hartu zuen gizarte ereduari buruzko sindikatuaren diskurtsoan (ELA, 2004: 105-106), eta gero eta handiago bihurtu zen arlo horretako gizarte esku hartzea, soldatapeko lan esparruari pisu erlatiboa kenduz (ELA, 2008: 106-107). Gazteen arazoei zegokienez, erantzunak ez ziren asko aldatu. Ostera, etorkinek eta elbarriek aurreko urteetan baino arreta handiagoa jaso zuten 2004ko diskurtsoan. Hari horretatik, etorkinen arazoak ikuspegi globalago batetik landu nahi izan zuen ELAk eta, horregatik, antolakuntzaren barruan arlo propioa sortzea erabaki zuen (ELA, 2004: 107-108; 2008: 104).

Hala ere, ELAren iritziz, arazoa zen helburu horietara heltzeko ez zegoela eskumen legegilerik Euskal Herrian. Lan baldintza horiek arautzeko bide bakarra negoziazio kolektiboa zen, baina haren ahalmena oso mugatutzat jo zuen euskal langileen interesen eta baldintzen alde egiteko (ELA, 2000: 92). Hortaz, beste tresna batzuk ere behar ziren, sindikatuaren aburuz.

Eremu soziopolitikoak: gero eta sakonagoa

1990eko 7. Kongresutik aurrera ELAk garrantzia gero eta handiagoa eman zion esku hartze sozialari. Izan ere, ordura arte sindikatua lan munduan konfinatuta zebilela aitortuaz batera, autokritika egin zuen eta jarrera hori aldatzeko asmoa adierazi (ELA, 2000: 133). Horrela, hamarkada honetan, negoziazio kolektiboaren mugak gero eta nabarmenagoak zirenez, bultzada berezia eman zion eremu soziopolitikoari. Hortaz, «90ko hamarraldian berreskuratzen hasitako gai sozialei bete-betean heldu» nahi izan zien (Kortabarria, 2015: 313), elkartasun- eta justizia-irizpideen arabera banatzeko aberastasuna, eta babes soziala zabaldu eta sakontzeko xedez (ELA, 2000: 62).

Horiek horrela, 2000n lanaldia murriztea zen oraindik ere apustu estrategikoa, lanaren banaketaren bidez aberastasuna bera ere banatu ahal izateko. Baina, bide horrek zailtasun nabarmenak zeuzkan. Hori zela-eta, oinarrizko errentaren alde ere lerrokatu zen ELA, enplegu bidezko diru sarreraren ideiatik urrunduz (ELA, 2000: 77-78). Ordura arte ohikoa zen kotizazioen bidez finantzaturako gizarte segurantzaren prestazioen hobekuntza eskatzea (ELA, 1990d), baina oinarrizko errenta eskatzeak mugari bat ezarri zuen sindikatuaren ibilbidean, hark zeukan lanaren ulerkera gainditu baitzuen. Izan ere eskakizun horren arabera, soldatapeko langilea izan ala ez, mundu guztiak izan behar zuten errenta jasotzeko eskubidea, egindako lana aintzat hartu barik. Horrez gain, norabide berean zeuden honako helburuak ezarri zituen sindikatuak: babes soziala zabaltzea, zerbitzu sozialak orokortzea, politika fiskal bidezkoagoa lortzea, eta osasun- eta hezkuntza-gastuak igotzea, besteak beste (ELA, 2000: 78-79, 149).

Ildo horretan, 2004an, gizarte ereduaren auzian «jauzi bat» egin behar izan zuen ELAk, politika soziala, fiskalitatea, pribatizazioak, eta abar, kontuan harturik (ELA, 2004: 10, 91). Eskaerak aurreko urtekoen antzekoak izan ziren (zerbitzu publikoak, etxebizitza-eskubidea, prestazio sozialak...) baina xehetasun handiagoz garatu zituen sindikatuak (ELA, 2004: 94, 130-131; 2008: 42-44, 92). Gizarte ereduaren egindako ahaleginen erakusle izan zen EAEko Eusko Legebiltzarrean eta Nafarroako parlamentuan ESK eta

STEE-EILAS¹⁵⁴ sindikatuekin batera aurkeztutako Herri Ekimen Legegilea (ELA, 2008: 41; Landeia, 2006a, 2006b). Agiri horretan ere, lan esparrutik kanpo zeuden aberastasunaren birbanaketa justuago baterako neurriak eskatu ziren.

Emakumeei eta gazteei zuzendutako neurri espezifikoak haien lan baldintzetara zeuden bideratuta gehienbat; hala ere, 2004an sindikatuak adierazi zuenez, generoaren ikuspegiak gizarte ereduari buruzko diskurtso orotan egon behar zuen presente (ELA, 2004: 105). Ildo horretatik, 2008an, ELAk zabaldu egin zuen generoaren auzia tratatzeko modua eta emakumeen eskubideen aldeko hainbat ekintzatan engaiatu zen: «Emakumeen Notiziak» izeneko argitalpena kaleratu zuen, martxoaren 8aren inguruko ekintzak burutu zituen, eta Mundu Martxan eta Jardunaldi Feministetan parte hartu zuen (ELA, 2008). Gazteen arloan, lanari lotutako eskaerez gain, etxebizitza eskubidearen inguruan sindikatuak egindako ahaleginek ere kolektibo horren premiak konpontzeko helburuari erantzun zioten, hein handi batean (ELA, 2008: 108).

Ingurumenari lotutako kezkak ere garrantzia irabazi zuen hamarkada honetan, eta 2004tik aurrera gai honi buruzko «jarrera ausartagoa eta konpromiso handiagoa» izan behar zituela adierazi zuen sindikatuak (ELA, 2004: 109). Horretarako, 2004an ingurumenaren eta immigrazioaren arloak eratu zituen bere egituran, bi auzi horiei erantzun egokiagoa emate aldera. Aldaketa horrek esan nahi zuen auzi horiek guztiak sakontasun handiagoz eta lan munduarekiko autonomia handiagoz landu behar zituela, zeharkako ildo bihurtu baitziren sindikatuan (ELA, 2008: 104). Antolakuntzaren barruan egindako aldaketa horiek erakusten dute sindikatuaren biraren tamaina. Izan ere, ingurumena lan osasunaren gaiari loturik landu izan zen ordura arte, modu askoz ere mugatuagoan.

Oro har, auzi sozialek garrantzi handia irabazi zuten hamarkada honetan sindikatuaren zereginetan, 2004tik aurrera batez ere. Horrez gain, lan munduari buruzko era gero eta autonomoagoan jorratu zituen auzi horiek, hots, lan eremuarekiko haien lotura hainbeste kontuan hartu gabe. Hartara, lanaren munduak garrantzia erlatiboa galdu zuen aberastasunaren banaketa justuago lortzeko, sindikatuaren ikuspegian.

Politikaren arloan, urte hauetan ELAk nazio eraikuntzan eta bake prozesuan zeukan konpromisoan sakondu zuen, batik bat. Ondorioz, EAJ eta PSE-EE alderdi politikoek, eta UGT eta CCOO sindikatuek muturra politikan gehiegi sartzea egotzi zioten (Elorrieta,

¹⁵⁴ Sindicato de Trabajadores de la Enseñanza de Euskadi - Euskadiko Irakaskuntzaren Langileen Sindikatua. Gaur egun STEILAS izenarekin da ezaguna.

2012: 228-229). Hala, 1990eko hamarkadaren erdialdetik aurrera, marko juridikoaren ezintasunak etsituta, subiranismoaren aldeko hautua egin zuen ELA sindikatuak (ELA, 2000: 11, 79, 81-82; 2004: 101-102; 2008: 57). Izan ere, haren ustetan, Estatutuak ez zuen balio marko juridiko-politiko egokia lortzeko. Honela adierazi zuen bere hautua: «ez dago erdibiderik: edo Estatutua, edo burujabetza; edo mendekotasuna onartu, edo ez» (ELA, 2008: 49).

Sindikatuak izanik, politikan gehiegi sartzea egotzi ziotenen aurrean, ELAren iritziz, prozesu subiranista ezinbesteko baldintza zen neoliberalismoa gainditzeko eta bestelako gizarte eredu erdiesteko, Euskal Herriaren errealitatera egokitutako marko propioa ahalbidetuko zukeelako, esparru guztietan (ELA, 2000: 79-83). Gizarte eredu horren bidean, lan harremanen marko propioaren eraketa ez ezik, babes sozialerako esparru propioa ere aldarrikatzen hasi zen prozesu subiranista sozialaren funtsezko elementu gisa (ELA, 2004: 99-100; 2008: 59). Berriz ere, babes sozialerako esparruaren aldarrikapena arlo sozialak sindikatuaren hartutako toki nagusiaren adierazletzat har dezakegu. Aukeraturiko ildoak, bestalde, sindikatuaren beraren autonomia ere erakusten digu, zalantzarik gabe.

Ildo horretan, ELAren aburuz, marko juridiko-politiko propioa lortzeko prozesuak aurrera egin zezan ezinbesteko baldintza zen egoera politikoa lasaitzea, bake prozesu baten bidez. Horrela, «Giza eskubideekiko eta demokraziarekiko» atxikimendua berresteko, zenbait mobilizazio sozialetan hartu zuten parte ELAko kideek hamarkada horretan: hilketen kontra, euskal presoaren eskubideen alde, alderdien ilegalizazioen aurka, egunkariak ixtearen aurka, eta abar (ELA, 2000: 81-82, 93; 2004: 70; 2008: 48, 60-61). Hari horretatik, 2004an honela laburbildu zituen sindikatuak beren helburu politikoak erdiesteko zeuzkan lerro estrategikoak: demokrazian sakontzea eta hura indarberritzea, giza eskubideen eta elkarbizitza gizatiarragoaren alde lan egitea, euskal autogobernua eduki sozialez hornitzea, euskal lan harremanetarako eta gizarte babeserako esparru bana aldarrikatzea, eta autodeterminazio eskubidea eztabaida politikoaren erdian kokatzea (ELA, 2004: 10). Helburu horietan, argi eta garbi, uztarturik zeuden xede laboralak eta soziopolitikoak.

Azkenik, mundu esparruan, EBko enpresen jarduera kontrolatzeko neurriak aldarrikatu zituen ELAko, bestelako globalizazio eredu ezartze aldera (ELA, 2000: 62-64). 2004an, esaterako, «herrien Europa sozialaren» aldeko apustu sendoagoa egin zuen (ELA, 2004: 18-19, 84-86, 134-135), eta 2008an, EBko Itun Konstituzionalari ezezkoa ematea eskatu

zuen (ELA, 2008: 12); hala, EBren eremuan ere, demokrazia sendotzearen aldeko eta oinarrizko askatasunen eta eskubideen aldeko engaiamendu gero eta agerikoagoa hartu zuen ELAk publikoki (ELA, 2008: 48, 60-61).

Esku hartze eremuei buruzko ondorioak

Hamarkada honetan ELAk bere konpromiso sozialean eta politikoan sakondu zuen, autonomien marko instituzionalaren eta negoziazio kolektiboaren bideei antzu iritzita. Halaber, soldatapeko lan eremuan gertatutako aldaketa estrukturalak (prekarizazioak eta abar) lehentasunak aldatzera behartu zuten. Horrela, aberastasunaren banaketan lan mundutik eragiteko ezintasunek (marko politiko-instituzionalagatik zein testuinguru estrukturalagatik) haren esku hartze soziala bultzatzera behartu zuten. Ildo horretan, esparru politikoan estrategikoa zen sindikatuarentzat autogobernu maila handiagoa eskuratzea. Ikusi dugunez, baina, prozesu hori etenda zegoen; eta, bestalde, Europako esparruko prozesuek ere atzera egitearekin mehatxatzen zuten.

Antolakuntza: negoziazioa eta errotze soziala helburu

Hamarkada honetan, aurreko hamarkadetan eraikitako antolakuntza-eredua garatzen jarraitu zuen ELAk, besteak beste, finantza- eta antolakuntza-autonomia, integritasuna, trinkotasuna eta afiliazioan oinarrituriko sindikalismoa lantzen (ELA, 2000: 86-89; 2004; 2008). Haatik, berrikuntzak ere egin zituen urteek aurrera egin ahala, antolakuntzari ematen zion garrantziaren seinale. Horrela, zenbait Antolakuntza Plan diseinatu zituen, sindikatuari sendotasuna eta eraginkortasuna emateko; horien artean egon ziren 1999ko Antolakuntza Plana, 2003ko ezohiko kongresu «12x4=29» Antolakuntza Plana, eta 2008ko «Lanera» izeneko plana.

Sektore egiturarekin hasita, hamarkada hartan ETEek gero eta pisu handiagoa hartu zuten euskal ekonomian, eta haietan ekintza sindikala zailagoa izaten zenez, ELAren Antolakuntza Planak arreta berezia eskaini zien enpresa mota horiei. Hori zela-eta, 2000n aldaketa bat egin zen sindikatuan, eta erabaki zen batzorde exekutiboan ETEetako arduradunen lantaldea izendatzea (ELA, 2000: 112, 122, 128). Ildo berean, 2003ko ezohiko kongresuaz geroztik, baliabide gehiago bideratu zituen ETEetara, eta jarraipen sistema zorrotzagoa jarri zuen martxan, afiliazioa, ordezkariak eta lan sindikala aipatu enpresetan hedatzeko helburuarekin (Astekaria, 2003). ETEei eskainitako arretak osatu zuen ELA sindikatuaren ezaugarri bereizgarrietako bat; oraindik ere enpresa txikietan presentziarik handiena duen sindikatua da.

1999ko Antolakuntza Planak hainbat xede zehaztu zituen. Lehenik eta behin, oinarri militantearen dinamizazioa eta zabaltzea bultzatu gura izan zituen, gazte eta emakume gehiagoren sarreraren bitartez. Bigarrenik, planen araberrako funtzionamendu berria ezarri zuen sindikatuak, egindakoaren ebaluazioa ahalbidetzeko. Hirugarrenik, sekzio sindikalen funtzionamendua erdipurdikoa izaten zenez, haien ahalmena handitu behar izan zuen. Bada, enpresa-negoiazioaren arloan, sekzioa zen, zalantzarik gabe, esparru egokiena emaitza onak lortzeko (ELA, 2000: 110-111, 122-123). Azkenik, erresistentzia-kutxa indartu zuen, sindikatua lan gatazketan indar posizioan kokatzeko. Hori zela eta, hamarkada honetan asko igo zen tresna haren erabilpena eta grebalariei eskainitako diru laguntza (ELA, 2000: 121; 2004a: 81). Erresistentzia-kutxa estrategikoa izan da (eta izaten jarraitzen du) ELAren indar negoziatzaileerako (Las Heras eta Rodríguez, 2020).

2003ko ezohiko kongresuan aurkeztutako «12x4=29» Antolakuntza-Planak, berriz, aurreko helburuetan sakontzeko irizpideak zehaztu zituen. Esaterako, federazioak batu eta lura murriztu zituen sindikatuak. Hurrengo urteetan, aurreko planak garatuz joan ziren sindikatukideek 2008ra arte (ELA, 2004: 10-11, 74, 115-123; 2008: 86-98).

Ikusten dugunez, sektore egiturari egin ziren berregituraketa gehienak sindikatuaren oinarriko antolakuntza hobetzera (atal sindikalak, batik bat) eta hura baliabidez hornitzera (erresistentzia-kutxa, formakuntza, teknikoak...) bideratu zituen ELAk, negoziazio kolektibo eraginkorra lortze aldera. Ildo horretan, arestian aipatu dugun ETEetan errotzeko apustuak ahalegin antolatzaile berezia eskatu zion ELAri, gainerako sindikatu nagusiek ildo horretan egindako lana askoz apalagoa izan baitzen.

Lurralde egiturari zegokionez, aurreko hamarkadan bezala, eskualdeen integritasuna garatzen jarraitu zuen, eskualdeko egiturak estrategikoak baitziren gizarte- eta ekonomia-aldaketa bizkorrei erantzuna emateko. Hain zuzen ere, osotasunaren ikuspegi horrek sindikatuak gizartearekiko eta lan eremuarekiko hurbiltasuna mantentzea ahalbidetu zuen; ezaugarri hori tarteko, sindikatua gai izan zen tokian tokiko beharrei hobeto erantzuteko, baina bere izaera globala eta antolakuntzaren kohesioa galdu barik (ELA, 2000: 107-108, 127). Ildo horretan, 2003ko planak 12 eskualde batza finkatu zituen, eta haien integritasunean lantzeko asmoa azaldu zuen. Eskualde batzek konfederazio txiki baten antzera funtzionatu behar zuten, beren eremuko jardura osoa koordinatuz eta ahalik eta zerbitzu gehienak eskainiz. Horrez gain, 29 herri batza inguru sortzea planteatu zuen planak, sindikatuaren lurralde sare hori trinkoagoa izan zedin (ELA, 2003: 5-6; Astekaria, 2003). Hurrengo urteetako planek helburu horietan sakontzera egon ziren

bideratuta. 2004an, eskualde batzek gizarte ereduari ekarpen handiagoa egin behar zutela ere adierazi zuen sindikatuak (ELA, 2004: 10-11, 74, 115-123; 2008: 86-98).

Bestalde, antolakuntzaren barruan ELAk beti eskaini zion garrantzi handia bere koadroen eta militantziaren prestakuntzari, sindikatuaren eginkizunen oinarritzat hartzen baitzuen oinarritzako lan horri. Formakuntzak funtzio hirukoitza betetzen zuen, hamarkada honetan egindako adierazpenen arabera. Lehenik, koadroak prestatzea; bigarrenik, sindikalismora ohituta ez zeuden langileak formatzea; eta, azkenik, gizarte ereduari buruzko sentsibilizazio eta ideologizazio lana egitea (ELA, 2000: 96-99; 2004: 91, 136; 2008: 102). Arlo horretan ere atzeman daitezke, erraz, sindikatuaren helburu laboralak eta sozialak, biak ala biak uztarturik.

Finantza-autonomiak, bere aldetik, sindikatuaren eredu antolatzailearen oinarri izaten jarraitu zuen haren ibilbide osoan, are gehiago erresistentzia-kutxa sendotzeko erabakia hartu eta ostean. Afiliazioa izan zen ELAren finantzazioaren iturri nagusia, negoziazio kolektiboari inongo menpekotasunik gabe ekiteko sindikatuak bere eskuetan zeukan tresna garrantzitsua (ELA, 2000: 86; 2003: 7; 2004: 96). Hori zela-eta, EAEn afiliatu gehien zeukan sindikatua izanda ere, ez zion afiliatuak bilatzeko lanari sekula utzi. Ildo horretan, 100.000 afiliaturen kopurura heltzeko helburua lortu zuen 2004an; afiliatu horietako proportzio handi bat emakumeek eta gazteek osatzen zuten (ELA, 2004: 9, 72).

Horrek ez du esan nahi afiliatuak eta militanteak biltzeko arazorik izan ez zuenik. Izan ere, lan merkatuaren testuinguruak zaildu egin zuen zeregin hori, baina ezin zen sindikatuaren erantzukizuna ere ukatu, batez ere emakumeak eta gazteak erakartzeko unean (ELA, 2000: 91, 105-106, 109; 2008: 108). Zailtasun horri aurre egiteko, 1997ko kongresuan sindikatuak emakumeen alorra antolakuntzaren barruan sortzeko erabakia hartu zuen arren, Nazio Batzordeko kide guztiek gizonezkoak izaten jarraitu zuten luzaroan. Ondorioz «argazki hura» ez errepikatze konpromisoa hartu zuen sindikatuak (Kortabarria, 2015: 171). Hartara, helburu estrategiko bilakatu zen emakumeak eta gazteak egituretan integratzea eta beren beharrezko espezifikoei erantzutea. Bi kolektibo horien ordezkatzeko-arazoari begira ere, 58 urtetan jarri zuten zuzendaritzaren kide izateko adin muga (Letamendia, 2004: 220) eta Emakumeen Foroa sortu zuten, zeinetan sindikatuaren emakume guztiek egon behar zuten sartuta (ELA, 2008: 107).

Ez zen hori antolakuntzazko aldaketa handi bakarra izan. Bada, euskal errealitate soziala aldatu ahala sindikatuaren antolakuntza ere gero eta egitura konplexuagoa hartuz joan

zen. Horrela, 2004an, immigrazioari eta ingurumenari eskainitako arlo espezifikoak eratu zituen ELAk bere egituran, kolektibo eta auzi horien inguruko barne zein kanpo sentsibilizazioa sustatzeko eta haien beharrei egokitutako ekintza sindikala areagotzeko (ELA, 2004: 108; 2008: 104-105).

Nazioarteko antolaketari zegokionez ere, federazioek nazioarteko hedadura eta presentzia hobetu behar zutela deliberatu zuen sindikatuak 2004an eta 2008an. Hori zela eta, federazio bakoitzeko zuzendaritza lantaldeko kide bat nazioarteko harremanen arduradun izendatu behar zela jaso zuen 2008ko Kongresuak (ELA, 2008: 99).

Laburbilduz, etengabeko aldaketan murgildurik zegoen gizarte baten testuinguruan, antolakuntzan egindako berrikuntzen funtzio nagusietakoak izan ziren sindikatua negoziazio kolektiboan eta gatazketan indar posizioan kokatzea, egoera berriei egokitzea, eta, sindikatu gisa, autonomia osoz jardun ahal izatea. Aldaketen ildo horretan, gizonezko soldatapeko langile industrialaren iruditeria klasikoarekin bat ez zetozen langile sektoreak erakartzea ere ezinbesteko baldintza bilakatu zen sindikatuaren biziraupenerako. Hala, emakumeei, gazteei eta ETEetako langileei egokitzeko zenbait ahalegin eta berrikuntza burutu zituen ELAk bere egituran.

Beraz, egitura-testuinguruak sindikalizazioari ezarri berritako zailtasunei aurre egitea izan zen esfortzu antolatzailearen xedea. Testuinguru koiunturalak eta, batez ere, estrukturalak ezarritako mehatxuei ahalegin organizatiboz erantzun zien sindikatuak. Horren adierazle da ELA gainerako sindikatuetatik bereizi zuen ETEetara eta erresistentzia-kutxara bideratutako baliabideen tamaina. Horrenbestez, berregituraketa prozesu ausartak burutu zituen ELAk, hala nola, zuzendaritzan egoteko adin muga ezartzea. Bestalde, pentsatzekoa da ETEei begira egindako lanketak baliabide militante asko xurgatuko zuela. Afiliazioan gora joanda, zer zela-eta hartu zituen berregituraketa arrisku horiek? Ez ote zen seguruago izango betiko egituraketari eustea? Galdera horien erantzunik ez dugun arren, argi dago sindikatu nagusia izanda ere, konplazentziatik urrun zegoela ELA, eta testuinguruak ekarritako erronken aurrean, ausardiaz jokatu zuela une horretan.

Aliantzak: estrategikoak baina gorabeheratsuak

Zein eragile lehenetsi zuen ELAk 2000ko hamarkadan, aliantzak edo lankidetzajarduerak burutzeko? Bi eragile izan zituen erreferente, mugimendu sozialak, gizartearen arloan; eta sindikatu abertzale bat, batik bat, sindikalismoaren esparruan, nahiz eta

bestelako sindikatuekin ere ekimen bakan batzuk burutu zituen. Hartara, batetik, globalizazio ereduak aldatzeko xedeak bultzaturik, aurrekoetan baino balio handiagoa eman zion ELAk bestelako gizarte mugimenduekin egin beharreko elkarlanari. Bestetik, LAB sindikatuarekin izandako gorabeherak asko baldintzatu zuten ELAk harekin landu nahi zuen aliantzari buruzko jarrera.

90eko hamarkadan ELAren eta LABen arteko elkarlana garrantzi handikoa izan zen arren, etengabeko krisi batean murgilduta zegoen. ELAren ikuspegitik, LABen autonomia politiko faltak ezinezko egiten zuen bien arteko lankidetzak. Bestalde, berarekiko lehia sustatu izana ere leporatu zion ELAk LABi. Hala eta guztiz ere, elkarlanari berrekiteko ahaleginak egitera konprometitu zen, 2000ko adierazpen batzuen arabera (ELA, 2000: 133-135), elkarrekin joate horrek sindikatuarentzat zeukan izaera estrategikoaren seinale. Horiek horrela, abertzaleen batasunari jarraipena emateko premia sortu zen 2008an, aldaketa politikoek bultzatuta oraingoan ere. Hortaz, LABekin gutxieneko batasuna lortzeko eta betiko lehiatik urruntzeko asmoa agertu zuen. Izan ere, ELAren iritzitan, lankidetzak hori beharrezkoa zen burujabetza-prozesua atzera ere abian jartzeko, eta negoziazio kolektiboaren krisia gainditzeko. Bada, ELAk zioenez, zatiketa sindikalak eta gutxiengoaren artean sinatutako akordioek kaltetu egiten zuten sindikalismoa (ELA, 2008: 57-58, 62).

Bestalde, urte horietan beste sindikatu batzuekin ere hasi zen harremanetan ELA Hego Euskal Herrian. ESK, STEE-EILAS, HIRU¹⁵⁵ eta EHNE¹⁵⁶ izan ziren sindikatu horiek; abertzale moduan definiturik ez zeuden arren, lauak ziren euskal esparruko sindikatu sektorialak (hezkuntzan, garraioan, eta nekazaritzan, hurrenez hurren). Hartu-eman horiek positiboki baloratu zituen ELAk, ikuspegi kualitatibotik zekartzaten ekarpenagatik, gehienbat, eta arreta handiagoa eskainiko ziela agindu zuen 2000ko kongresuan (ELA, 2000: 136.) Dena dela, ekimen bateratu batzuk elkarrekin aurrera eramanez zituzten arren, hala nola, Herri Ekimen Legegilea (Landeia, 2006a, 2006b), harremanok ez ziren aipatu hurrengo kongresuetan. ELAk egindako hautuetan, halere, ikusten da joera nagusietatik aldentzen ziren sindikatuak edo sindikatu abertzaleak zituela ekimen bateratuak egiteko erreferente.

¹⁵⁵ Euskal garraiolarien sindikatua.

¹⁵⁶ Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna, Hego Euskal Herriko nekazarien sindikatua.

Ildo horretatik, nazio eraikuntzaren prozesuarekin lotuta, Ipar Euskal Herriko errealtateari buruzko interesa ere adierazi zuen 2004an ELAk, eta bertako zenbait eragilerekin harremanak izaten hasi zen, ELB¹⁵⁷ nekazarien sindikatu abertzalearekin esaterako. Harreman horietan sakontzeko asmoz, Manu Robles-Aranguiz ELAren Fundazioa muga administratiboaz beste aldera hedatu zen 2004an (ELA, 2004: 144-145).

Arestian nabarmendu bezala, mugimendu sozialak izan ziren ELAren aliantzetarako bigarren aukera nagusia. Aurreko hamarkadarekin alderatuz, 2000az geroztik bestelako gizarte mugimenduekin aliantza sozial berriak eraikitzeko intentzio argiagoa adierazi zuen ELAk, laneko esparruetara mugatutako sindikalismoarekin hausteko asmoz (ELA, 2000: 12). Lan mundutik urruntzen ziren eta ELAk jomugan hartuta zituen mugimendu horien artean, honakoak egon ziren: globalizazio neoliberalaren kontrako mugimenduak, azpiegitura handien kontra agertu zirenak, euskararen biziberritzearen alde lan egiten zutenak eta bazterketa mota ororen aurka borrokatzen zirenak.

Ildo horretan, gizarte mugimenduen zatiketaren eta lan sektorializatuaren mugak gainditzeko ahaleginak egin behar izan zituen ELAk. Horren harira, zenbait plataformaren sorreran edo beste batzuen ekimenetan parte hartu zuen: Eskubide Sozialen Kartan, Hemen eta Munduan globalizazio kapitalistaren aurkako ekimenean, eta 2000ko Emakumeen Munduko Martxan, besteak beste. Lehenengo ekimenari zegokionez, esaterako, ELAk defendatu zuen oinarrizko errentaren aldarrikapenak sindikalismoak erreferentzialtasuna irabazteko aukera ematen zuela (ELA, 2000: 138-139). Hartara, aliantza horietan sakondu behar zuen sindikatuak, ekintza sindikala gizarte ereduari lotutako gaietara bideratzeko (ELA, 2004: 91).

Hari horretatik, eta sindikatuak zeukan ikuspegitik abiatuak, ELA oso kritiko agertu zen gizarte mugimendu berriekin aliantzak saihesten zituzten sindikatuarekin. Haren iritzitan, testuinguruak ez zuen balio sindikalismoaren ahultasuna justifikatzeko, sindikatu askoren hautua izan baitzen egoeraren aurrean beti legez jarraitzea (ELA, 2004: 111). ELAk hartutako ildoak ikusita, erraz ondorioztatu dezakegu gizarte mugimenduekin aliantzak sortzea sindikalismoaren krisiari aurre egiteko gakoetakotzat jo zuela sindikatuak. Ideia hori berresten du garai hartako mundu esparruko protesta hitzorduetan, gizarte foroetan eta mobilizazioetan ere izan zuen partaidetza oso aktiboak. Argi eta garbi adierazi zuenez, globalizazio neoliberalaren kontrako mugimenduaren partetzat zuen bere burua (ELA,

¹⁵⁷ Euskal Herriko Laborarien Batasuna.

2004: 61-62, 87; 2008: 100). Bere printzipio-ildoekin bat zetorren jardun hori; sindikatuek ezin zuten ordezkari-tza sozialaren monopolioa berentzat eskatu. Aitzitik, gizarte osoko esparruetan eragin nahi bazuten, bestelako gizarte eragileekin elkarlanean egin behar zuten (ELA, 2004: 125).

Beraz, mundu esparruko nahiz Europa esparruko foroetan presente egoten jarraitu behar zuen nazioartean. Ildo berean, garrantzia handiagoa eskaini behar zion alde biko harremanak eratzeari, hain zuzen ere, antzekotasunak eta elementu komunak izan zitezkeen antolakundeekin (ELA, 2000: 136-137, 61-62). Horrela, kontraboterearen eredia bultzatu gura zuen ELAk nazioarteko sindikatueta. Baina, adierazpen horiek egitean, etsitasun puntu bat ere nabaritzen da sindikatuaren diskurtsoan, ELAren pareko sindikatuak kontrako estrategia hartzen ari zirelako urte horietan. ELAren ustez, nazioarteko sindikalismoak «sistemaren laguntzaile izatea edo [sistema horri] aurre egitea» erabaki behar zuen. Bigarren hautua egin zutenekiko aliantzek izaera estrategikoa hartu zuten sindikatuarentzat (ELA, 2004: 85-90).

Hortaz, ELAK sindikatu ereduaren arteko bereizketa nabarmena egin zuela atzeman dugu haren diskurtsoan; egindako banaketa horren ondorioz, sistemarentzako sindikatu «laguntzaileak» ziren horiekiko lankidetzaren maila batean uzten hasi zen, neurri batean. Egiazki, nazioarteko sindikatuen gehiengo handi batek sistemaren laguntzaile izateko hautua egin zuen praktikan. ELAk, bere aldetik, 2008an berretsi zuen nazioarteko konfederazioen dinamiketan jarduteko konpromisoa, esaterako, NSLK eta LMK nazioarteko konfederazioen fusioan (NSKren sorrera ekarri zuena), EurSKren XI. Kongresuan, eta abar. Horrez gain, haren lanbide federazioek inplikazio zabalagoa hartu zuten nazioartean (ELA, 2008: 15, 99).

Hari horretatik, hiru helburu lortzera bideratu zituen bere aliantzak sindikatuak. Lehenengoa, sindikatu moduan bizi zituen zailtasunei aurre egitera; bigarrena, bestelako gizarte eredia eratzerari; eta, hirugarrena, Estaturik gabeko nazio moduan Euskal Herriak bizi zituen auzi politikoei, sozialei eta laboralei konponbidea ematera (LABekin batez ere, baina baita beste sindikatu txikiagoekin ere). Arrazoi sozio-sindikalak eta politikoak zeuden aliantzatarako asmo horien atzean, eta, kasu askotan, batzuk eta besteak elkarlotuta agertzen ziren. Baina, ELAren iritziz, indarkeria politikoak ezaugarritutako testuinguruak ez zion ez batean ez bestean lortu beharreko lankidetzari laguntzen.

Ekintzen errepertorioak: negoziazio gehiago, baina ekintza sozialarekin osatuta

Nolakoak izan ziren 2000ko hamarkadan ELA sindikatuak gauzatutako ekintza motak? 1990eko joeretan sakondurik, XXI. mendeko lehen hamarkadak ekarritako berrikuntza esanguratsuetako batzuk ekintzen errepertorioen eskutik etorri ziren. German Kortabarria sindikatuaren buruzagi ohiak dioen moduan, 1997an ELAk «joko instituzionalaren aukeraz [hartutako] desengainua» erakutsi bazuen, 2000 urtean estrategia horri buruzko «haustura» gauzatu zuen sindikatuak. Harrezkero, «parte hartze instituzionala ez da jada errebindikazio-sindikatuaren osagarria; areago, ez da errebindikazio-sindikalismoarekin bateragarria ere». Ondorioz, organo instituzionaletan zuen parte hartzea utziz joan zen, LHK, Hobetuz, EGAB, Osalan, eta horrelako instituzioetan. (Kortabarria, 2015: 302, 311-312; ELA, 2008: 66).

2000an bere izaera aldarrikatzailean sakondu nahi izan zuen sindikatuak; horretarako, «kontraboterearen» esparruan murgiltzeko hautua egin zuen eta «akonpainamenduko» sindikalismo instituzionalista deitzen zuena arbuia. Izan ere, ELAren ustetan, parte hartze instituzionalera bideratutako sindikalismo ereduak urrundu egiten zuen sindikatuak berez zegokion gatazkaren esparrutik, «hau da, enpresaren eta sektorearen esparrutik». Halaber, sindikatu abertzaleak gizartean gehiago sustraitu nahi zuen eta legitimitate soziala irabazi (ELA, 2000: 57, 59; 2008: 66, 93).

Negoiazio kolektiboak funtsezko bitarteko izaten jarraitu zuen epealdi honetan ere, eta norabide horretara zuzendu zen konfederazioaren baliabideen parte handi bat. Baina, sindikatu gisa eraginkorra izan zedin, ekimena berreskuratu behar zuen ELAk. Izan ere, haren autokritikan zehazten zenez, ez zen gauza izan negoziazio kolektiboaren bidez lan balditzen hondatze prozesua ekiditeko. Hala ere, negoziazioa alboratu ordez, hari jarrera oldarkorragoarekin eta prestaketa handiagoarekin ekitearen aldeko erabakia hartu zuen (ELA, 2004: 64; 2008: 62). Horretarako, ahalmen sindikala areagotu behar zuen (antolakuntzaren eta erresistentzia kutxaren bitartez, batez ere), eta errebindikazioaren edukiak ondo zehaztu (ELA, 2000: 120-121; 2004: 66, 87, 128-129; 2008: 72-75).

Hala, sindikatuaren iritziz, negoziazio esparrua zehazteko unean, kasuan kasuko indar erlazioak ondo aztertu ostean finkatu behar zen jarduera egokia. Sarritan, hautu horrek enpresa-esparrua lehenestera eramane zuen ELA, gainerako sindikatu ereduak egiten zutenaren kontrara. Bada, ELAren arabera, esparru horretan lortzen ziren emaitzarik

nabarmenenak (ELA, 2000: 122-123; 2004: 65; 2008: 96). Ikuspegi horrek talkak sortu zizkion beste sindikatuekin, sektorekako negoziazioa lehenesten baitzuen. ELArentzat, aldiz, sektoreka egindako negoziazioa eta enpresa esparruko negoziazioa uztartzea ez zen kontraesankorra; aitzitik, biak konbinatu behar ziren, haren ustetan (ELA, 2004: 66, 89).

2004an negoziazioaren eraginkortasunari begira, elementu interesgarria txertatu zuen ELAk ekintza erreperorioei buruzko diskurtsoan, gatazkaren sozializazioa, hain zuzen ere. Sozializazio horrekin adierazi nahi zuen sindikatuak komenigarria zela herritarrak beren herri eta eskualdeetako lan gatazken partaide bihurtu zitezkeen (ELA, 2004: 90). Modu horretan, borrokek legitimitate soziala irabazteaz gain, areagotu egin zitezkeen haien aldeko aliantzak zabaltzeko aukerak eta presioa eragiteko ahalmena.

Ildo horretan, gero eta sakonagoa zen ELAren parte hartzea gizarte mobilizazioetan; hala, mobilizazioa hartu zuen ELAk ekintza eredu baliagarri gisa urte hauetan. Joko instituzionalaren eraginkortasun eza zela eta, bide hori zen, haren ustetan, politika publikoetan eragiteko tresnarik eraginkorrena. Hala, negoziazio kolektiboa heltzen ez zen esparruetan emaitzak lortzeko estrategia, gainerako eragile sozialekin lankidetzan aritzea zen (ELA, 2004: 85; 2008: 41, 100). Ideia horri jarraituz burutu zen, adibidez, 2002ko ekainaren 19an gizarte osoa mobilizatzeraz deitu zuen greba orokorra, (ELA, 2004: 70-71).

Sindikatuaren urrats horietan guztietan enpresa esparruko negoziazioaren garrantzia ekintza sozialarekin konbinatzeko sindikatuak egindako ahalegina atzeman dugu, zalantzarik gabe, nahiz eta ekintza soziala eraginkorra izan zedin beharrezkoa zen aliantza sozial zabalak egitea (eta horretarako saihetsezina zen LABen lankidetzaz). Baina, mobilizazioak ez ezik beste ekintza erreperorio batzuk ere berenganatu zituen sindikatuak hamarkada honetan, erreibindikazioak ezagutarazteko eta instituzioetara zuzentzeko. Horietako bat erakutsi digu Eskubide Sozialen Kartaren inguruan sortutako esperientziak. Bada, Herri Ekimen Legegileak frogatu zuen negoziazioaren bidez lor ezin zitezkeenak erdiesteko bazeudela, egon, beste ekintza metodo batzuk (ELA, 2000: 139; Landeia, 2006a, 2006b; 2008: 41).

Oro har, negoziazio kolektiboaren ahultasunari ahalegin antolatzailearekin eta mobilizazioaren eta ekintzen oldarkortasunarekin erantzun nahi izan zion ELAk. Horrez gain, ekimen instituzionalaren bitartez osatu ordez, negoziazioa ekintza sozialarekin konbinatzeari ekin zion, hau da, sindikatua gizartean gehiago errotzen saiatuta eta

legitimitate soziala landuta. Baina, hautatu zituen ekintza erreperitorioak hautatuta ere, ELAk ez zuen inoiz oldarkortasuna indarkeriarekin parekatu; aitzitik, ETArekin jardueraren armatuari buruzko jarrera oso gogorra erakutsi zuen beti (ELA, 2008: 58).

Interpelatutako gizarte kolektiboak: emakumeak eta gazteak

ELArekin erreferentziazko kolektiboa langileek osatzen zuten. Horrela, sindikatuak adierazi bezala, «Euskal Herriko langileak antolatzeak» ELArekin xede izaten jarraitu zuen 2000ko hamarkadan ere (ELA, 2003). Haatik, antolatze ekimen horretan langileen zenbait kolektibok lehenago sindikatuaren aldetik jasotzen ez zuten arreta gero eta handiagoa berenganatu zuten urte hauetan. Emakumeak eta gazteak izan ziren sindikatura erakarri beharreko kolektibo garrantzitsu horietako bi.

Lehenik eta behin, gizartean burutzen ari ziren aldaketak tarteko (luzaroan ohiko sindikalismotik urrun kokaturik egon ziren emakumeen aldeko eskubideen erreibindikazio gero eta indartsuagoak, eta, bestalde belaunaldi berriek sindikatuei buruz zituzten aurreiritzi kaltegarriak), haien esku hartze zabalagoa lortu gura zuen sindikatuak, besteak beste, sindikatuaren ahalmenari eusteko populazioaren ezinbesteko sektoreak zirelako. Bigarrenik, lanaren esparrua aldatzen ari zelako, eta hirugarren sektorearen hazkundearekin batera, emakumeak oldarka sartzen ari zirelako soldatapeko lanaren merkatuan. Eta, hirugarrenik, gizarte eredu justuago baten norabidean, gizartearen eskakizunekin eta eskakizun horiek bideratzen zituzten gainerako eragile sozialekin bat egitera beharturik zegoelako ELA, euskal gizartearen auzietan oin hartutako sindikatuak izan nahi bazuen. Aurreko hamarkadan ere antzeko asmoak agertu zituen, baina, zeregin horietan sakondu beharra azpimarratu zuen epealdi honetan (ELA, 2000: 12, 92, 131-132; 2004: 106-109; 2008: 104-108). Helburu horrekin, antolakuntzari eskainitako atalean esan legez, kolektibo horiek afiliatzea eta militante legez erakartzea izan zen egindako lehen urratsa, eta, gero, zuzendaritza karguetan integratzea (ELA, 2000: 115).

Ikuspegi horretatik, alde handia dago ELArekin 2000ko diskurtsoaren eta 1980ko narratibaren artean. Izan ere, 80ko hamarkada hartan, jubilatuen, langabetuen eta gazteen lan egoerak aipatu zituen sindikatuak, doi-doi. Emakumeen lan arazoak, osteraz, ez zuten inolako islarik izan sindikatuaren eztabaidan eta agirietan. Arestian aipatu denez, emakumeen eta gazteen egoeraren analisisiaz gain, beste bi kolektibo ere jarri ziren sindikatuaren ikusmiran 2004ko kongresuan: etorkinak eta elbarriak (sic) (ELA, 2004: 29-31, 108-109; 2008: 109-110).

2004an langabetuak eta jubilatuak aipatu aipatzen baziren ere, ez zuten erabateko garrantzirik sindikatuarentzat, langabeziak hobera egin baitzuen 2000ko epealdian. Aitzitik, lan merkatuko eta gizarteko aldaketa estrukturalak zirela eta, buruhauste handiagoak sortu zizkioten gazteek eta emakumeek, hain zuzen ere, behin-behineko kontratu eta lanaldi partzialeko kontratu prekario gehienak zeuzkatelako beraiek (ELA, 2004: 109).

Ildo horretan, aldarrikapenei eskainitako atalean aipatu dugun osagai berria atzematen dugu sindikatuaren diskurtsoan. Azken finean, ELAk emakumeen eta gazteen egoerak azpimarratu zituen lan baldintza zehatz batzuk pairatzen zituztelako, baina langile horien lanaz kanpoko ezaugarri soziodemografikoak ere gehitu zituen diskurtsoan, aipatu kolektiboak sozialki ezaugarritzeko, adina eta sexua kasu. 1980ko hamarkadan, ostera, lan egoera espezifikoa bizi zituzten langileengan jarri zuen fokua ELAk, langile horien ezaugarri sozialetan gehiegi arakatu gabe; langile horiek, langile izateaz gain, ez (omen) zeukaten gainerako ezaugarriak, besteak beste, gizonezko ohiko langile industrialaren eredia unibertsaltzat hartzen zelako hala sindikatuetan nola gizartean. Baina, 2000ko hamarkadan, eta 1990ekoan, neurri batean, langileen kolektiboak askotarikoagoak izatean, lanez kanpoko ezaugarri sozialek toki handiagoa hartu zuten, gero eta argiago ikusten baitzuen sindikatuak ezaugarriok lan egoeran eragina zutela, eta egoera sozialaz haragoko inplikazioak ere bazituztela.

Horrela, gazteak eta emakumeak langile prekarioen eta langabetuen kolektiboak osatzen zituzten, horietan ziren lan munduan bizi zituzten lan egoerak. Baina, modu horretara soilik definituz gero, ez ziren azaleratzen lanaz harago bizi zituzten zapalkuntza-era espezifikoa. Beraz, «emakume langile» eta «gazte langile» kategorietan egindako zehaztapenetan, lan esparruko egoera soilaren deskripziora ez mugatzeko sindikatuak egindako ahalegina hauteman dugu. Sindikatuak eragin esparrua zabaltzeko hartutako norabide berean, terminologiaren aldetik egindako bigarren aldaketa esanguratsua ere badago 2008ko diskurtsoan. Izan ere, «herritar» kontzeptua erabili zuen diskurtso horretan ELAk, langile terminoaren ordez. Hedapen semantiko horren bitartez ere ikusi dezakegu sindikatua beren gain hartzen hasi zela lanari zuzenean lotuta ez zeuden zenbait herritarren eskubideen aldarrikapenak, hala nola, etxebizitza, zerbitzu publikoak, eta abar. (ELA, 2008: 43-44).

Nolanahi ere, diskurtsoak diskurtso, ELA sindikatua zen, eta gizarte kolektibo horien egoeren azterketa sozialagoa eta orokorragoa egin arren ere, haiei eskainitako soluzioak,

gehienetan, lan eremutik igaro ziren, negozioazio kolektiboa baitzen sindikatuaren ekintza-bitarteko nagusia, eta ia bakarra, gizarte mobilizazioa oraindik askorik garatu gabe zegoela.

ONDORIOAK

2000ko hamarkadan, 90ekoan hasitako berrikuntza estrategikoa finkatu eta berrikuntza horretan sakondu zuen ELAk. Hala, urratsak egin zituen eredu sindikal eta sozial eraberritua ezartzeko bidean. Bira horrek 80ko hamarkadako planteamenduei buruzko haustura ekarri zuen, zenbait alderditan.

Ikuspegi *instituzional* batetik, ELAren botere sindikalaren egoera ezin txarragoa izan zen urte hauetan: polarizazio soziala zen nagusi, autogobernu prozesua eta euskal nazio proiektua blokeatuta zeuden, Lizarra-Garaziko prozesuak porrot egin zuen, eta nabarmena zen Estatuko sindikatuen ahultasuna eta zentralismoa beren jardunean. Maila *estrukturalagoan*, globalizazio neoliberalari eta lanaren antolaketari lotuta aldaketek ahuldu egiten zuten Europako sindikalismoaren ahalmena.

Ildo horretan, aurreko hamarkadako joera ez zen asko aldatu, nahiz eta ekonomia hazkunde fasean sartu zen epealdi honetan. Baina, Lizarra-Garaziko foroaren garaian ELAk bere inplikazio politikoa areagotu zuen, eta marko estatutarioari buruzko zeukan aurkakotasuna haziz joan zen. Hori zela eta, EAJrekin zuen elkar-ulertze apurra bertan behera geratu zen. Bestalde, garai honetan finkatu egin ziren globalizazioaren eta Europaren joera neoliberalak. Hala ere, aurreko hamarkadan bezalaxe, *botere instituzionalaren* eta *estrukturalaren* galera ez ziren nahikoa izan sindikalismoaren noraeza justifikatzeko.

Ordezkaritza-mailarik handiena zeukan sindikatua zenez, ELAk bazuen bermatuta, neurri batean, *botere instituzionala*. Hala ere, horrek emandako parte hartze instituzionalerako aukerak ez baliatzea deliberatu zuen. Izan ere, denbora eta indar xahutzetzat jo zuten parte hartze instituzionala, pisuzko ezer lortzeko balio ez zuela iritzita.

Horiek horrela, botere-iturri estrukturalaren eta instituzionalaren egoera ikusita, *botere organizatiboak* eta *asoziatiboak* garrantzi estrategikoa hartu zuten sindikatuaren ahalmena handitzeko. Baliabide organizatiboak ETEen sindikalizaziora eta greba eta negozioazio ahalmena handitzera –erresistentzia kutxa zela medio– bideratu zituen sindikatuak, batik bat. Epe luzerako hautu estrategiko horrek ahalbidetu zion epe luzera

beren botere asoziatiboa –afiliazioa– eta organizatiboa hobetzea, nahiz eta erronka horrek baliabideen inbertsio handia eskatu zion epe laburrean.

Botere diskurtsibo-morala gizartearen osotasunak bizi zituen bidegabekeriak neurri handiagoan salatzen abiatu zuen, jarduera horrek legitimitate soziala irabaztea ahalbidetzen baitzion. Bada, bide instituzionalen erabilerari uko egin zion unean, gizartearen legitimitatea erakartzeak bere alde jokatzeko erabakiak, ekintza sozialaren bitartez gobernuko alderdi nagusiari egin ziezaiokkeen presioagatik. Ildo horretan, ez dezagun ahaztu 80ko hamarkadan ELAko afiliatuen gehiengoa EAJ alderditik hurbil kokatzen zela, eta, hartara, oinarri sozial bertsua zutela aipatu alderdiak eta ELA sindikatuak. Hortaz, sindikatuak bazuen haren oinarri sozialean ideologikoki eragiteko nolabaiteko gaitasuna, eta beraz, Eusko Jaurlaritzari presio egiteko tresna bat (Kaiero, 1991: 89).

Bestalde, esku hartze sozialean eta politikoan sakontzeko premiak behartu zuen ELA bere aliantzak zabaltzera, gizarte mugimenduekin eta sindikatu txikiekin, batez ere. Hortaz, aldaketak jazo ziren *elkarlan boterean*. UGT eta CCOOekin zeuzkan harremanak oso txarrak ziren, eta LABekin zituenak oso gorabeheratsuak. Hori zela-eta, ezinbestekoa izan zen ELArentzat bestelako aliantzak bilatzea gizarte mugimenduekin zein sindikatu txikiagoekin.

Dena dela, *elkarlan botere* ahula zuen negoziazio kolektiboan, eta horrek zenbait bide itxi zizkion. Izan ere, CCOO, UGT eta LABekiko harremanak okerrak izatean, lau sindikatuen adostasunik gabe sinatu ohi ziren hitzarmenak, eta beraz, kasu horietan lan baldintza txarragoak lortu ziren.

Azpimarratzekoa da aurreko hamarkadatik gaitasun *estrategiko* handia adierazi zuen biziberritze prozesuan murgilduta zegoela ELA. Izan ere, ausardia handiko hautu estrategiko arriskutsuak egin zituen sindikatuak botere estrukturalean eta instituzionalean aurkitu zituen gabeziei aurre egiteko. Beharbada, parte-hartze instituzionalean aurkitutako oztopoek behartu zuten beste botere iturriei merezi zuten arreta ematera. Erakunde publikoek kanpo legitimitatea ukatuta, bere barne legitimitatea nahiz gainerako botere iturriak indartzera bultzatu zuen egoerak; afiliazioaren igoera eta hauteskunde sindikaletako emaitzak ikusita, badirudi asmatu egin zuela ELAk.

Bestalde, ezin daiteke ukatu 1976an egindako zenbait *hautu estrategiko* funtsezkoak izan zirela 1990ean abiatutako berrikuntza estrategiko hori indartzeko, hala nola, erresistentzia-kutxa sortzea, afiliazioari kuota altuak ezartzea eta antolakuntza eredu

konfederala eta kohesionatua eraikitzea, besteak beste. Funtsean, Alfonso Etxeberriaren zuzendaritzak asmatu egin zuen botere-iturri organizatibo eta asoziatiboari emandako garrantzi estrategikoan. Hain zuzen ere, hautu estrategiko horiek ahalbidetu zuten, geroago, aliantzei eta parte hartze instituzionalari buruzko jarrerak aldatzea, baita gizarte ereduaren auziak ere diskurtsoan indar handiagoa irabaztea.

Berrikuntzarako estrategiei erreparatuta (Frege eta Kelly, 2004: 4), hauxe esan dezakegu:

1. *Organizazio ereduaren* garrantzia aurreko hamarkadetako maila berean mantendu zen, baina oraingoan apustu sendoagoa egin zuen sindikatuak eskualdeak sendotzeko eta ETEetako esku hartzean sakontzeko. Berez, afiliazio maila nahiko duina zeukan beste sindikatuekin alderatuz. Hala ere, afiliazioan oinarritutako ereduaren zenez ELAren, etengabe kide berriak lortzeko beharra mantendu zuen, hori baitzen, azken finean, finantzazioa lortzeko zuen bide bakarrenetarikoa. Aipatu dugunez, garrantzi handia hartu zuen enpresaz enpresako antolaketak, nahiz eta organizazio hori lortzeak esfortzu handia eskatu zion sindikatuari, enpresa txikietan batez ere. Bestalde, urte hauetan emakumeak, gazteak eta etorkinak erakartzeko, antolatze eta egituraren integratzeko ahaleginak eta egokitzapenak ere egin zituen antolakuntzan, diskurtsoan eta aldarrikapenetan.
2. *Kooperazioari* zegokionez, hamarkada honetan erabat hautsi ziren ELAko Eusko Jaurlaritzarekin eduki zitzakeen konbergentzia puntu apurrak. Hala, parte hartze instituzionalerako organoak bertan behera utzi, eta kontraboterean kokatu zuen bere jardura sindikatuak, ekintza-forma oldarkorra bereganatuz.
3. *Ekintza politikoan*, koiuntura politikoko gertakariak gero eta gehiago baldintzatu zuten bere diskurtsoa; ELAko nazio eraikuntzan hartutako konpromisoa izan zen horren adierazle. Bada, Lizarra-Garaziko prozesuan jarritako itxaropenek oraindik eragina izan zuten ELAren diskurtso politikoan, eta euskal gatazka konpontzeko proposamen batzuk ere atera zituen, polarizazio egoerak bultzatuta. Baina, nazio gatazkak blokeatuta jarraitu zuen urte hauetan, eta ekimenak egin arren, ez atzera ez aurrera geratu ziren ahalegin gehienak.

Bestalde, aurrerapauso handiagoak eman zituen gizarte ereduari buruzko ekintza politikoari dagokionez. Ildo horretan, mugimendu sozialen ekintza molde berrietara hurbildu zen ELA, eta eragile sozio-politiko haiekin aliantza puntualak burutu zituen. Adibidez, zenbait herri ekimen legegile aurkeztu zituen beste

sindikatu eta eragile batzuekin batera (ekimen horietako batek Eskubide Sozialen Kartaren legea ekarri zuen), eta zenbait forotan eta mobilizazioetan hartu zuen parte.

Horrenbestez, ohiko sindikatuak egiten zuten bezala langileen bizi-maila materialez eta lan baldintzez arduratzeaz gain, immaterialtzat jo ditzakegun auziez ere gero eta interes handiagoa adierazi zuen ELAk 2000ko hamarkadan. Hala, esparru ezberdinetako erakunde publikoen defizit demokratikoaz, ingurumenaz, atzerritarren eskubideez eta hezkuntza eskubideez, besteak beste, kezkatu zen bere diskurtsoan eta jardunean.

Oro har, bide instituzionalei uko egitean, garai honetan ekintza politikoa bideratzeko kanalak mugatuagoak izan ziren sindikatuarentzat. Hala ere, aurreko urteetan ELAri eskaini zitzaizkion bide instituzional horiek ez zizkioten esperotako emaitzak eman; aitzitik, bide instituzionalek gatazkak neutralizatzeko funtzioa zuten, haren ikuspegian. Beraz, ELAren iritziz, hobe izan zen berorietan denborarik ez galtzea.

4. Antolaketari zegokionez, zenbait *berregituratze* prozesu gauzatu zituen, batik bat, 2003ko «4 x 12 = 29» izeneko Planarekin etorri zirenak. Horien helburuak honakoak izan ziren: sindikatuaren federazioak fusionatzea eta berregituratzea, eskualde integralaren eredia garatzea, ETEen sindikalizazioa bultzatzea eta erresistentzia kutxaren erabilpena zabaltzea.
5. *Koalizioen* osaketa zela eta, gizarte eredu justu eta solidario baten bilaketak aliantza zabalagoak egitea eskatu zion ELAri, sindikatua ez baitzen heltzen gero eta askotarikoagoak ziren gizartearen problemetara eta aldarrikapenetara. Horrez gain, LABi buruz izan zuen urrunketak bestelako sindikatu txikiagoekin aliantzak xerkatzera behartu zuen. Ondorioz, aurreko hamarkadetan baino arreta handiagoa eskaini zien ELAk bestelako aliantza sozialei. Horrek sinesgarriago bihurtu zuen sindikatuaren diskurtso soziala, eta gizartean legitimitate sozial handiagoa lortzea ahalbidetu zion. Hala ere, lan esparruari dagokionez, koalizioen osaketak handicap handia izan zuen garai honetako negoziazio kolektiboan, sindikatuen arteko harreman txarrek ez baitzuten ez langileen ez sindikalismoaren mesedetan jardun.

6. *Nazioarteko ekimenean* aurrerapausoak eman zituen ELAk, globalizazio ereduaren aurrean mundu esparruan egin ziren foroek eta mobilizazioek ahalbidetuta. ELAk gogoz hartu zuen parte ekimen horietako askotan .Hala, globalizazio ereduaren kontrako ekimenetan parte hartuz gauzatu zuen, apurka-apurka, nazioarteko elkartasuna. Dena dela, nazioarteko ekimenak ez zuen benetako eraginkortasunik izan, eta nazioarteko sindikalismoaren agertoki etsigarriak onura gutxi ekarri zion sindikatuari, praktikan.
7. Aurreko hamarkadan bezalaxe, negozioazio kolektiboa izan zen *ekintza sindikalaren forma nagusia*. Lanaren aldaketek eta lanaren krisiak sortutako sindikalismoaren ahultasuna negozioazio jarrera oldarkorra erabilita orekatzen ahalegindu zen ELA. Hala, negozioazio kolektiboa ekimen instituzionalarekin osatu beharrean, mobilizazioaren bidez osatu zuen, gero eta sarriagotan. Bide horretan sakontzeko, baina, beharrezkoa izan zuen aliantza sozialak lantzea. Ildo horretan, gizarteari zuzendutako ekintza formak baliatzen hasi zen sindikatua (mobilizazioak, greba orokorrak, Herri Ekimen Legegileak...). Ekintza eredu berri horiek lanaren mundutik urrun zeuden bestelako kolektibo sozialen eskaerei erantzuteko aukera ireki zioten sindikatuari; gainera, kolektibo horien ekintza kolektiboan inplikatzera eta haiengana hurbiltzera ere ahalbidetu zioten.

LAB 2000KO HAMARKADAN

DIAGNOSTIKO MARKOA

Koiuntura

Egoera politikoa eta Euskal Herriaren eraketa instituzionala: blokeoa eta jazarpena

2000ako hamarraldian oso nahasia izan zen giro politikoa. Lizarra-Garaziko akordioen inguruko prozesua etenda, fase politiko baten amaieran kokatu ziren ezker abertzaleko erakundeak. Ondorioz, ezker abertzaleko sindikatua ere estrategia politikoa berregokitu beharrean zegoen. Aurretik, LABek ahaleginak egin zituen Lizarra-Garaziko prozesuak ahalbidetutako batasunari eusteko, baina ETArek borroka armatua itzuli izanak oso zail bihurtu zuen asmo hori (Bustillo, 2007: 13-14). Hartara, ezker abertzalea bidegurutze historiko batean zegoen, eta hari lotutako sindikalismoak konpromiso politiko bereziak landu behar zituen horren aurrean (LAB, 2000a: 19-26, 30-36).

2000az geroztik, areagotu egin zen abertzaletasunaren kontrako jazarpena, eta zenbait arduradun politiko espetxeratu egin zituzten 18/98 sumarioaren barruan. 2000ko urtean PP alderdi kontserbadoreak gehiengo osoz irabazi zituen Espainiako hauteskundeak eta gobernua osatu zuen. LABen ustetan, Espainiako gizartean faxismoranzko joera handitzen ari zen. PSOE alderdi sozialista, bere aldetik, PPren strategiaren parte bihurtu zen, «PPren konstituzio patriotismoa irentsiz», LABek zioenez. Eta CCOO eta UGT espainiar sindikatuak ere ildo berean zeuden (LAB, 2004a: 12-13). 2004n Espainiako gobernua PSOE alderdiak berreskuratu zuen arren, 2008an, egoerak blokeatuta jarraitzen zuen, ETAk Rodríguez Zapatero Espainiako presidentearen gobernuarekin abiatutako negoziazioek berriz ere porrot egin zuten-eta (LAB, 2008a: 11-13).

Zaila da ezker abertzalearen kontrako errepresioaren eragin bakar bat ondorioztatzea. Alde batetik, LABeko militanteen betebeharrak zaildu egin zituen errepresioak, eguneroko jardueran premiazko egiten baitzuen haren kontrako erantzuna ematea (LAB, 2004a: 15-16), eta, gainera, uxatu egiten zuen jende asko. Baina, beste aldetik, errepresioak kideen barne kohesioa bermatu eta borrokarako grinaz ere hornitu zuen sindikatua, borrokatzeko arrazoi gehiago eman zielako ezker abertzaleko militanteei. Bestalde, ezin da ahaztu LAB zela era normalizatuan militatzeko aukera ematen zuen ezker abertzaleko antolakunde ia bakarra garai hartan. Ondorioz, ezker abertzaleko hainbat pertsonak sindikatura bideratu zuten beren militantzia. Hala ere, borroka

armatuak desadostasunak sortu zituen sindikatu barruan, eta bestelako eragileekiko elkarlana oztopatu zuen, ELAren adibidez

Egoera malkartsu hartan, LABek irakurketa propioak garatu zituen bere diskurtsoan, ezker abertzalearen ildo ortodoxotik desbideratu zirenak. Esaterako, kale borrokaren «eragin distortsionatzailea» aipatu zuen, baita «goi mailako akordio eta mugimendu politikoekiko» menpekotasuna kritikatu ere. Izan ere, LABen ustez, gizarte sektore guztiek –sindikatuak ere– hartu behar zuten norgehiagoka demokratikoan parte (LAB, 2000a: 31-32, 36).

Lan harremanak: zentralizazioa eta sindikatuen arteko gorabeherak

1997an Espainian onarturiko lan erreformak asko erraztu zituen langileen kaleratzeak, eta, lanaren esparruan zeuden arauak ezabatzean, malgutu egin zuen lan merkatuaren funtzionamendua. Ondorioz, negozioazio kolektiboaren emaitzek argi-ilun handiak zituzten (LAB, 2000a: 74-77). Gainera, lan harremanen zentralizazioa sustatu nahi zuten zenbait indar politikok (LAB, 2000a: 83). Lan harreman zentralizatuen ondorioz, LABi zenbait erakundetan parte hartzeko aukera ireki bazitzaion ere (LHK, EGAB, Nafarroako Lan Auzitegia...), ez zuten ia ezer egiteko eskumenik (LAB, 2004a: 23). Iparraldean are okerragoa zen lan harremanen eredu zentralista. Hori zela eta, negozioazioa enpresaz enpresa bultzatzea beste aukerarik ez zuen izan sindikatuak (LAB, 2004a: 46).

Baina, lan harremanen zentralizazioak ez ezik, langileriaren atomizazioak ere oztopatu zuen sindikalismoaren ahalmena edo boterea. Langileak lantoki ugaritan sakabanatuta egonik eta haien lan baldintzak hain ezberdinak izanik, sindikatuak gero eta arazo handiagoak izan zituen langile sektore ahalik eta zabalenetara heltzeko (LAB, 2000a; 2004a: 46). Aurrerago, egiturazko markoen atalean, sakonduko dugu gai horretan; izan ere, hamarkada honetan, maila estrukturalagoan eragiten zuten faktoreek erabat baldintzatu zituzten sindikalismoa bera eta lan harremanak.

Sindikatu abertzaleen arteko harremanak oso gorabeheratsuak izan ziren hamarkadan zehar. 2000n, LABek balantze oso positiboa egin zuen ELAren eta ESK, STEE-EILAS, EHNE, ELB eta HIRU sindikatuarekin batera irekitako lankidetzaz bidez. Bada, elkarrekin Eskubide Sozialen Karta izeneko ekimena eta 1999ko greba orokorra atera zituzten aurrera, besteak beste (LAB, 2000a: 21, 25, 73; 2004a: 34-35). Hala ere, Lizarra-Garaziko prozesuaren porrotaren ostean, harremanak gaiztotuz joan ziren ELAren eta LABen artean. Hala, LABek, negozioazio kolektibo arloko desadostasunez gain, gelditasun

politikoa leporatu zion ELAri (LAB, 2000a: 31; Gara, 2001a). Hori gutxi balitz, 1999an Mallabian luzatutako proposamenaren harira, bera bereganatzeko saiakera ere egotzi zion (Gara, 2001b; Bustillo, 2007: 20, 23-27)¹⁵⁸.

Bestalde, oso nabarmena zen LABek espainiar sindikatuekin zeukan distantzia ideologikoa. CCOO eta UGT sindikatuei «morrontzazko jarrera erreakzionarioa» izatea leporatu zien, esanez defendatzen zuten sindikalismoak ez zuela zeresanik gai politikoetan, eta, beraz, PP, UPN¹⁵⁹ eta PSOErekin eta patronalarekin bat egiten zutela (LAB, 2000a: 26, 45; 2004a: 13, 35-36). Frantziako CGTrekiko¹⁶⁰ eta CFDTrekiko¹⁶¹ jarrerak antzekoak ziren. LABen ustez, sindikatu horien guztien ereduak ez zuen etorkizunik, eta gainera, eragin oso kaltegarriak eragin zituen klase gatazkan (LAB, 2008a: 21-22).

Azkenik, azpimarratzekoa da, ELAk ez bezala, lan harremanen azterketa eta egoera politikoaren azterketa uztartu ordez, biak banatzeko joera handiagoa agertu duela LABen garai honetako diskurtsoak. Horrela, bi eremuak modu isolatuagoan aztertzeke joera izan zuen. ELAk, aldiz, ez zuen nazio arazoaren ikuspegi orokorra alboratu beren analisietan, eta lan harremanen ikuspuntua ere presentetago zegoen arazo politikoaz aritzen zenean. Horrenbestez, nolabait esateko, LAB sindikatua eragile *politikoago* moduan aurkeztu zen, ELAren aldean egoera politikoak modu independenteagoan tratatzen zuelako, hau da, lan munduarekin lotura gutxiago eginik.

Egoera sozioekonomikoa: hazkundera egonda ere, prekarietatea nagusi

LAB sindikatuak urte hauetan egindako irakurketa sozioekonomikoa ELAren oso antzekoa izan zen. Gizartea hazkunde ekonomikoko fase batean egon arren, oparoaldiak ez zituen neurri bereko hobekuntza sozialak ekarri (Iraultzen, 1999b: I). Aitzitik, hazkunde horren onurak enpresa-etekinetan hauteman ziren, baina ez lan baldintzetan, bereziki emakumeek eta gazteek osaturiko lan kolektiborik zaurgarrienen kondizioetan. Lanpostuak sortzen ari ziren, bai, baina gehienak behin-behinekoak eta kalitate txarrekoak ziren. Bestalde, gastu sozialak, prestazioak eta presio fiskalak murriztu

¹⁵⁸ 2000an Mallabian bildui ziren ELA eta LAB, zeinetan lehenak batera ekiteko proposamen batzuk luzatu zizkion bigarrenari. LABek, ordea, bera irensteko saiakera moduan interpretatu zuen. Bi sindikatuek oso ikuspegi kontrajarriak dituzte hor gertatu zenaren inguruan; izan ere, ELAk asmo hori ukatu egin du beti. Horregatik, bien kontakizunetara gomendatzen dugu. Hemen ELAko jendearen bertsioa jakiteko: Kortabarria (2015: 229-232).

¹⁵⁹ Unión de Pueblo Navarro.

¹⁶⁰ Confédération Générale du Travail.

¹⁶¹ Confédération Française Démocratique du Travail.

zituzten esparru desberdinetako gobernuek, eta bide horretatik ere zaurgarrienen bizi baldintzak okertu zituzten (LAB, 2000a: 63-72, 105, 122, 125, 137; 2008a: 19). Lan eremutik kanpo, etxebizitzaren prezio igoerak gero eta buruhauste handiagoak ekarri zituen langileen kolektiboetara, eta, espekulazioari lotutako higiezin burbuilaren ondorioz, langileen eguneroko gastuen gero eta parte handiagoa xurgatzen zuen (LAB, 2008a: 21).

Dena dela, sindikatuaren ikuspegian, euskal ekonomiaren arazoa ez zen soilik eredu neoliberalak eragindakoa. Egia zen lan harremanak desegituratzen ari zirela ofentsiba neoliberalaren ondorioz, eta, orokorrean, sindikalismoak egoerari erantzuteko gaitasuna galdu zuela (Iraultzen, 2004a: III). Baina, prozesu horri arazo politikoa ere gehitu behar zitzaion euskal esparruan. Hala, estatuei buruzko menpekotasunak oztopo handia ezarri zion euskal gizartearen ekonomiaren garapenari (LAB, 2000a: 63). Izan ere, egitura produktiboaren birmoldaketa sakonaren aurrean, ez zegoen eredu ekonomiko propioa eratzeko ahalmenik (LAB, 2008a: 20).

2008an hazkunde fasearen amaiera etorri zen, eta itzelezko krisialdia zabaldu zen munduan. Orduantxe baieztatu ziren, LABen ustez, «lehia askean» oinarritutako garapenaren arriskuak. Ikusi zenez, hazkunde ekonomikoak ez zuen balio izan aberastasuna banatzeko; izan ere, porlanean, etxebizitzaren negozioan, familien zorpetzean eta kapitalaren espekulazio mugimenduetan oinarritu zen delako hazkunde hori. Eta, gobernuen kolaborazioarekin, «gero eta esku gutxiagotan gero eta kapital metaketa handiagoa» egotea lortu zen (LAB, 2008a: 18).

Nazioarteko prozesuak: globalizazioaren sakontzea

Urte hauetan, globalizazio neoliberalaren ondorioz, nazioarteko testuinguruaren azterketak pisua irabazi zuen sindikalismoan. SESB osatzen zuen bloke politikoa erori ondoren, munduko ordena enpresa multinazionalen eta Estatu boteretsuenen kontrolpean geratu zen (LAB, 2000a: 10-11). Egoera horretan, estatuek gero ahalmen gutxiago zuten beren mugen barruko politikak, irizpide ekonomikoak, merkataritza harremanak, eta gainerako ahalmen esparruak kontrolatzeko; are gutxiago herritar langileek.

Hala ere, estatu guztiak ez zeuden egoera berean. LABek egindako irakurketaren arabera, mundu globalizatuan AEBen munduko hegemonia politiko-militarra indartu zen; horrela, AEBek beste herrialde batzuk militarri jazartzen eta hainbat gerra pizten jarraitu zuten (LAB, 2000a: 12; 2004a: 7). Dena den, 2008an, globalizazio ereduak agortzen ari zenaren

zantzuak sumatu zituen sindikatuak, AEBetako hipoteken krisiaren eztanda eta zenbait herrialdek abian jarritako ereduak tarteko (LAB, 2008a: 6).

Europari zegokionean, LAB sindikatuak ez zuen esperantza handirik. EB-k ez zuen benetako nortasun politikorik, AEBetako estrategia politiko-militarra eta globalizazio neoliberala erreproduzitu besterik ez zuelako egiten, eta, hala, demokrazia eta kohesio soziala sustatzetik urrun zebilen (LAB, 2000a: 14-15; 2004a: 9). Ildo horretan, Europako sozialdemokrazia «eskuindarren politika bera» burutzen ari zela zioen sindikatuak. Beraz, ohiko ezkerreko indar sozialdemokratek ez zuten langileriaren eskakizunei erantzuteko balio, haren ustez (LAB, 2000a: 13).

Bestalde, egoera horretan, nazioarteko sindikalismoa oso sakabanatuta zegoen, eta, salbuespenak salbuespen, neoliberalismoak kutsatuta eta neutralizatuta jardun zuen; horrela, neoliberalismoaren ondorioak leuntzera mugatu ziren sindikatu asko (LAB, 2004a: 8). Ildo horretan, NSKren eta EurSKren ezintasuna eta noraeza nabarmenak ziren, LABen iritzitan. Izan ere, kontzertazioaren aldeko ereduak krisian zegoen jadanik, eta sindikatu mota horiek ez zuten politiketan eragiteko gaitasunik (LAB, 2000a: 15-16; 2004a: 8; 2008a: 8). Edonola ere, LABek MFSrekin¹⁶² egindako harremanetan sakondu zuen hamarkada honetan (LAB, 2004a: 10), 2005ean haren kide egin zenetik aurrera (Bustillo, 2007: 82).

Egitura diagnostiko markoa: neoliberalismoaren eta aldaketa estrukturalen sakontzea

2000ko hamarkadako egiturazko testuinguruan, globalizazioarekin batera nazioartean nagusitutako neoliberalismoak baldintzatu egin zituen garaiko aldaketa politiko eta sozial sakonak. Bada, neoliberalismoak mundu esparruko ezberdintasun sozialak, pobrezia eta ingurumenaren hondamena areagotu zituen, baita hainbat gerra piztu ere. Horrenbestez, inoiz baino arrazoi gehiago zegoen sindikalismoaren partetik jarrera ofentsibo batera pasatzeko. Baina neoliberalismoaren oldarraldiak, estatuen ahalmenak murriztean, lanaren esparrua aldatzean, eta ezkerren kontrako kultura nagusia zabaltzean, sindikalismoa indargabetzea lortu zuen herrialde gehienetan. Ondorioz, sindikatuek ahalmen gero eta gutxiago zuten Estatuen markoan eragiteko (LAB, 2000a: 10-11; 2004a: 7; 2008a: 5). Halaber, mundu esparruko Ipar eta Hegoaldeko herrialdeen arteko desorekek migrazio prozesuak bideratu zituzten mendebaldeko herrialdeetara, eta

¹⁶² Munduko Federazio Sindikala (frantsesez : Fédération Syndicale Mondiale)

horietan etorkinei buruzko erreakzio xenofoboak sustatu. Prozesu horrek immigrazioari buruzko gogoeta handiagoa eragin zuen LABen barnean (2000a: 9-11; 2004a: 7-8, 51; 2008a: 5-7, 17, 20-21).

Garai honetan gizartea astindu zuten aldaketa prozesuek mundu esparrukoak zirela ohartzeak izan zuen bestelako ondorioz ere. Urte hauetan euskal nazio eraikuntzaren auzia ulertzeko interpretazio markoa bera nazioartekotu egin zela esango genuke. Zegoeneko Espainiako Estatuak utzi egin zion nazio zapalkuntzaren erantzule eskusiboz izateari (eta, beraz, aurkari bakarria izateari) ezker abertzalearen diskurtsoan. Frantziako Estatuak Espainiako gobernuei eskainitako errepresio laguntza areagotuz joan zen neurrian, Frantziako Estatuak gehiago interpelatu zuten eragile abertzaleek. Baina, horrez gain, ezker abertzaleko eragileek nazioarteko erakundeak ere inplikatu zituzten gero eta gehiago auziari buruz egindako azterketetan. Ildo horretan, LABek zioenez, nazioarteko instituzioak ere baziren Euskal Herriak bizi zuen subiranotasun faltaren erantzule, globalizazio ereduaren defizit demokratikoaren ondorioz (LAB, 2000a: 37).

Horren harira, LAB sindikatuak irakurketa sakona atera zuen Estatuaren bilakaera historikoaren inguruan, Estatu eredu bera eztabaidagai bihurtu zuen seinale. Sindikatuak zioenaren arabera, globalizazioari lotutako Estaturik gairik erakunde ekonomikoek barne-kontraesanak eragin zituzten estatu zentralistetan. Hala, Estatu ereduak berregokitzeko prozesuak jarri ziren martxan, eta Estaturik gabeko naziotasunak berpizten ari ziren horren ondorioz (LAB, 2000a: 38-41). Adibide gisa, kontraesan horiek Espainiako Estatuaren lurralde ereduaren krisiaren bidez azaleratzen ari ziren (LAB, 2008a: 13).

Bestalde, LABek iradoki zuen globalizazio neoliberalari erantzun egokia eman ahal ziotela ordura arte menperaturik zeuden nazioen askapen prozesuek. Bada, LABen ikuspegitik, lan harremanen desarautzearen eta gizarte indibidualizazioaren aurrean, ezkerreko nazionalismoak parada eskaintzen zuen kohesio sozialari eusteko, eta klase elkartasuna eta borroka hobeto antolatzeko. Hori zen, hein handi batean, «sindikalismo abertzale, indartsu eta borrokalaria» bizirik irauteko arrazoia (LAB, 2000a: 45-46). Ildo beretik, 2004ean hauxe gehitu zuen: «burujabetza politiko eta ekonomikoaren aldeko borrokak langileria eta herria batzen laguntzen du eskubide politiko eta sozialen alde egiteko, eta beraz, globalizazio neoliberalari erantzuna emateko bidea ere bada» (LAB, 2004a: 20). Ikusten dugunez, borrokarako potentzialitate berezia zuen nazio nortasunak, LABek egindako interpretazio markoan.

Alde ekonomikotik eta laboraetik begiraturik, egitura produktiboaren aldaketen ondorioak pairatzen ari ziren bai euskal gizartea bai lan harremanak eta sindikalismoa (Iraultzen, 2004a: III; LAB, 2004a: 8, 31-32, 38; 2008a: 20-21). Hala, aldaketa prozesu horiek «parte hartze eta militantziaren krisia» eragin zutela adierazi zuen (LAB, 2000a: 138). Lehenik eta behin, berrikuntza teknologikoen mudantza handiak ekarri zituzten lan esparrura, eta klase borrokaren nolakotasuna aldatu ez ezik, neurrigabeko aginte-boterea eman zien elite finantzarioei; elite ekonomikoek langileen lan baldintzak prekarizatzeko baliatu zuten teknologia berrien aplikazioa (LAB, 2000a: 9; 2008a: 17)

Baina aldaketa teknologikoen gain, gobernuek eta erakunde publikoek egikaritutako politikek ez zuten gutxiagoko eragina izan langileen prekarizazio horretan. Koiunturan aipatu moduan, lan merkatua malgutzeko aitzakiarekin («flexiseguritatea» delako hori), aurreko hamarkadako lan erreformak lan merkatua desarautzera bideratu ziren; argi eta garbi, lan kontratuen behin-behinekotasuna, kaleratze merkeak eta kontratu prekarioak ahalbidetu zituzten, eta baldintza horiek lan kolektiborik ahulenak jo zituzten bete-betean, tartean, emakumeak, gazteak eta etorkinak (LAB, 2000a: 65-70; 2004a: 13, 31-33; 2008a: 5, 7, 19-20), gutxien sindikalizatuta zeuden sektoreak, hain zuzen. Horrek, langileen lan-eta bizi-baldintzak narriatu ez ezik, haiek izan zitzaizketen antolakuntzarako gaitasunak eta ekintza sindikalerako aukerak zaildu zituen.

Bestalde, desindustrializazioak bi motatako joerak areagotu zituen. Batetik, ohiko enpresa handiak ondoratuta, soldatapeko langile gehientsuak ETEetan biltzen hasi ziren. Langileen lekualdatze horrek sindikalismoaren jarduera eta errotzea oztopatzeaz gain, konplexuago bihurtu zuen enpresetan egin zitezkeen negoziazio kolektiboaren prozesua. Era berean, kapitalak hartutako produkzio- eta lan-moldearen bideak langile autonomo faltsuak ugaritzea eragin zuen; sindikalismoaren ikuspegitik, horrelako langileen hazkundera langileak banatu eta ustiatzeko beste modu bat besterik ez zen izan. Bestetik, desindustrializazioaren ondoren sortu ziren lanpostu berriak zerbitzuetan, administrazioan eta merkataritzan agertu ziren, batik bat (LAB, 2000a: 83; 2004a: 31-32), eta ez industriean, antolaketa sindikalaren eremu tradizionalan. Zalantzarik ez, azken mudantza horrek ere sindikalismoa kaltetu zuen.

Oro har, prekarizazioak eta lan antolaketa aldatzeak eragin negatiboa izan zuten sindikalismoan, industria handietako gizonezko langile finkoak antolatuzera ohituak baitzeuden ohiko sindikatuak. Gainera, aldaketa estruktural guztiek langileen menpekotasuna areagotu zuten (LAB, 2008a: 20-21), bai zentzu ekonomikoan, baita

ideologikoan ere. Rafa Diez¹⁶³ idazkari nagusi ohiak honela laburbildu zuen gertatutakoa (Iraultzen, 2004: III):

«La ofensiva neoliberal ha hecho estragos en las relaciones laborales y que el sindicalismo globalmente no está siendo capaz de frenar todas las políticas de desvertebración y discriminación que la patronal e instituciones desarrollan en los centros de trabajo ni, tampoco, las agresiones sociales que se plantean desde la estructura político-económica.»

LABen ustetan, neoliberalismoak eragindako kalte horri guztiari, Euskal Herriak bere sare industrialean erabakitzeko pairatzen zuen eskumen falta gehitu behar zitzaion (Iraultzen, 2008: 20; LAB, 2008a: 19), eta gobernuen lan erreformak herrialdean indarrez aplikatu izana ere, bertako «eragile sozial eta botere publikoek dituzten iritzietatik at» (LAB, 2000a: 79).

Ildo horretan, LABek neoliberalismoari buruz egindako gogoeten artean ez ziren falta ikuspegi kulturaletik eta ideologikotik abiatuak. Izan ere, mundu esparruko joera horrek bazeuzkan, eduki, osagai ekonomikoak eta kulturalak. Azken horiei erreparatuta, sindikatu abertzaleak uste zuen munduan ezarritako kultura berriak langileriaren baitan nagusitu ziren korporatibismo- eta indibidualismo-jokaerak bultzatu eta, hartara, klasean oinarritutako subjektuaren desegituraketa eta zatiketa ekarri zituela (LAB, 2000a: 9, 72-73; 2004a: 33, 38; 2008a: 6, 20, 30-31, 35). Joera horri, gainera, langileriaren osaketa gero heterogeneoagoa gehitu behar zitzaion. Ondorioz, sindikatuak zioenez, «langileriak bizi dituen errealitate desberdinak integra ditzakeen osotasunezko erantzuna» egituratzea zailago bihurtu zen urte horietan.

Aldaketa horien ondorioz, «Nazioarteko Langile Mugimenduak kontzeptu eta balore ugari gaurkotu» behar zituen, klase borroka indarrean zegoela aldarrikatuz betiere (LAB, 2000a: 9). Euskal Herrian ere, «euskal jendartearen balioek eskumarantz» egin zuen. Horrenbestez, burujabetza prozesua ahulagoa zen alde sozio-ekonomikotik (LAB, 2004a: 17). Zalantzarik ez, sindikatuak egindako interpretazioaren arabera, ahultasun sindikalaren arrazoietakoa bat gizartearen kulturaren eta pentsamoldean bilatu behar zen.

Azkenik, diagnostikoaren atalari amaiera emateko, ikerketa honi ekarpen zuzena egiten dion gaia aurkitu dugu LABen garai honetako azterketetan. Izan ere, lanaren kontzeptuari

¹⁶³ Rafael Diez Usabiaga LABeko kide izan da hura sortu zenetik. 1980ko hamarkadan sindikatuko zuzendaritzan sartu zen. 1992an koordinatzaile orokor izendatu zuten, eta 1996an idazkari orokor bihurtu zen, 2008ra arte. 2009an atxilotua Batasuna berregituratzen saiatzea leporatuta, eta 2017an atara zen kartzelatik. Egun, Sortu alderdiaren norabide estrategikoaren arduraduna da (Altuna eta Telleria, 2018).

buruzko hausnarketa esanguratsua jaso zuen 2000. urteko LABen kongresuak. Dokumentuaren arabera, «lanak» hiru kategoriari egin diezaieke erreferentzia: jarduerari, enpleguari eta lanari. Sindikatuak ohartarazi zuenez, «lanaren» termino nagusia soldatapeko lanari lotu zitzaion luzaroan, eta hari soilik, eta gainerako lan formak baztertu ziren, alegia, «lan soziala, lan bolondresa eta, batez ere, ekonomiaren oinarrietako bat den etxeko lana». Omisio horrek beste lan motei buruzko ondorio baztertzailerak sortu zituen, gainerakoei ez baitzitzaien balio sozialik aitortu, eta horietan jarduten zutenei ere ez zitzaien maila bereko «langile» kontsideratu. LABen ustetan, baina, lana ezin zen soldatapeko jarduerara mugatu, langile askok ordainsaririk gabekoak zirelako, eta lan merkatuan zihardutenak etxeko lanaren zamek baldintzatzen zituztelako (LAB, 2000a: 97). Horren harira, sexuaren arabera lan banaketa zela gizarte eredu baztertzaileraren zutabea ondorioztatu zuen sindikatuak (LAB, 2000a: 121-123).

Ponentzia bereko beste atal batean, honako hausnarketa aurkitu dugu: «Pertsona lan merkatutik kanpo geratzean isolaturik ere gelditzen da, harremanak urritu egiten ditu eta motibazio gutxiago ditu, azkenean zergatik eta zertarako bizi den erantzuten ez asmatzeraino iritsita. Gizartearekin zuen lokarririk sendoena (ordaindutako lana) desagertzean, gizarte horrexek dago, bere partehartzean eta bere errebindikazio gaitasunean». (LAB, 2000: 108-109)

Lanaren ulerkerari ordura arte emandako esanahiaren kritikak eta lana horrela ulertzeak ekarritako bazterketari buruzko hausnarketak, hala lanaren munduan nola gizartean, urte hauetan gertatzen ari ziren aldaketa sakonen berri ematen digute. Besteak beste, sektore ekonomiko tertziarioren hazkundea, emakumeen integrazio progresiboa soldatapeko lanaren munduan, borroka feminista eta gizartean indarra hartzen ari ziren pentsamolde kulturalak zeuden, seguruenik, horrelako biraren atzean. Nolanahi ere, sindikatuak lehendabizikoz aitortu zuen soldatapeko lana zentralizat hartu duen pentsamoldea birplanteatu beharra zegoela, eta lanaren gainerako adierazpenei ere balioa aitortu behar zitzaie. Horregatik, zioen LABek, «harreman merkantiletik kanpoko jarduera sozialak kontuan hartu beharrekoak» zirela, eta «aberastasunaren banaketa» exijitzen zuen bezala, lana banatzea ere eskatzen zuela sindikatuak (LAB, 2000a: 106).

Hausnarketa horretatik abiatuz, emakumearen lanaren zapalkuntza bikoitza azalerratu zuen LABek, eta sexuen arabera lan banaketari lotutako dominazioa ekarri zuen sindikatuaren eztabaida gunera. Marko teorikoan landu dugunaren ildotik, zapalkuntza mota horrek ahalbidetu zuen emakumei lan prekarioenak esleitzea soldatapeko lan

merkatuaren esparruan, eta aitorten sozialik txikiena zuten zaintzaren lan ikusezinak egokitzea esparru pribatuan.

Bestalde, zuzenean soldatapekoak ez ziren beste langile kategoriatzuk ere hartu zituen kontuan sindikatuaren gogoetak, hala nola, langile sasi-autonomoak, pentsionistak, kooperatibistak eta langabetuak. Sindikatua ziur zen arestian zerrendatu dugun aldaketen eraginak klase subjektuaren zatiketa ekarri zuela, baina ez haren desagerpena. Hartara, adierazi zuen klase sindikalismoak errealitate konplexu horietara egokitu beharra zuela bere ekintza (LAB, 2008a: 35), eta sakabanaturiko eta bereizitako kolektibo horiek guztiak estrategia sindikal bakarrean bildu (LAB, 2000a: 113-114; 2004a: 46). Horixe zen, ez gehiago ez gutxiago, LABek markatutako helburua.

Norberaren jardueraren balorazioa: jazarpenaren gaintik, sindikatua gora

Aurreko hamarkadarekin alderatuta, ilusioz eta harrotasunez beteriko diskurtsoa mantentzen jarraitu zuen LABek epealdi honetan; motibo ezberdinak aipatu zituen. Alde batetik, ezker abertzalearen parte legez, Estatuaren errepresioari eutsi zion (LAB, 2000a: 20-23; Iraultzen, 2008a: 20), eta hori ez zen lorpen txikia. Beste aldetik, sindikatuak bere presentzia egonkortzen eta handitzen jakin izan zuen, eta berebiziko eginkizuna bete zuen, bai ezker abertzale barruan, bai euskal lan harremanetan. Izan ere, haren ordezkagarritasunak eta afiliazioak goranzko joeran jarraitu zuten urte hauetan (LAB, 2004c: 18; 2008a: 22; Iraultzen, 2008a: 20). Ondorioz, oztupoak oztupo, LAB klase sindikalismo borrokalariaren eta burujabetzaren aldeko apustuaren erreferente nagusi bihurtu zen euskal gizartean (LAB, 2004a: 17; 2008a: 22).

Arestian aipatu dugunez, Lizarra-Garazi prozesuaren porrotaren osteko garaian kokaturik dago urte horietako diskurtsoa. Ildo horretan, su etena hausteko ETAREN erabakia zalantzan jarri ez zuen arren, horren ondorioei buruzko kezka handia azalerazi zuen sindikatuak (LAB, 2000a: 33). Era berean, baina, Lizarra-Garaziko prozesuen harira, sindikatuak eta gizarte eragileek ikusle papera hartu izana kritikatu zuen LABek, eta gizartea behar beste aktibatu ez izana ere leporatu zien (LAB, 2000a: 31-33). Hausnarketa horrek, ezker abertzalearen jarrerari buruzko onarpena erakustez gain, balio du LABek jarduera-espazio handiagoa hartu nahi zuela ohartzeko, ez soilik sindikatu moduan, baita gizarte zibil antolatuaren eragile moduan ere.

Sindikatuaren ustetan, aurreko kongresuetan markatutako lanari buruzko xedeetan eta aberastasuna banatzeko erreibindikazioetan urrats handiak egin zituen. Soldata

sozialaren, 35 orduko lan astearen eta aparteko lan orduen kobrantzaren eskakizunek oihartzuna izan zuten, eta Aldi Baterako Laneko Enpresen¹⁶⁴ inguruan sortutako mobilizazioen bitartez erreferentzialtasuna irabazi zuen euskal sindikalismoak. Lan ildo horietan guztietan gai izan zen LAB langileak eta bestelako gizarte sektore batzuk aktibatzeke (LAB, 2000a: 73, 138).

Hala ere, arrakastak arrakasta, sindikatuaren iritzitan ez zitzaion balio nahikoa eman «euskal gehiengo sindikalaren» (ELAren eta LABen) arteko elkarlanari. Adierazi zuenez, esaterako, sekulako akatsa izan zen 1999ko maiatzeko greba orokorraren emaitza arrakastatsua klabe politikoan eta sozialean kudeatu ez izana, uste baitzuen eragin politiko eta sozial sakonagoa izan behar zuela (LAB, 2000a: 31).

Bestalde, testuinguruaren aldaketarekin batera, afiliazioaren hazkundeak ere antolaketaberregokitzapenak eskatu zizkion sindikatuari, haren egiturak azpiegituz eta giza baliabidez hornitze aldera. Bada, sindikatuaren jardunaren balorazioak egitean, antolakuntzak jaso zituen kritikarik gogorrenak eta balioespenik ezkorrenak 2000n. Urteekin erreferentzialtasuna eta legitimitatea irabazi zuen arren, LABek aitortu zuen lan dinamikei etekin urria atera zela, bere antolamenduak zituen mugen ondorioz (2000a: 139-141, 169; 2008c: 18). Hori hobetuta, «LABen potentzialitatea oraindik oso handia» izango zela adierazi zuen sindikatuak (LAB, 2000a: 141). Izan ere, LABen baliabide urriek zaildu egin zuten berorren garapena, enpresa txikietan, adibidez. Hain zuzen ere, sail sindikal berriak antolatzean zetzan LABen gabeziako bat. Kritika horiek gorabehera, emakumeen, gazteen, etorkinen eta pentsiodunen antolaketarako egindako urratsak positibotzat jo ziren (LAB, 2004b: 7-11; 2004c: 15-18). Nolanahi ere, egin ditugun elkarrizketetan erlatibizatu egin dira antolaketak garai hartan jasotako kritikak. Azken finean, markatutako estrategiak lurreratzeko bitartekoa zen antolakuntza. Hori zela eta, aspektu horretan zentratu ziren balorazio ezkor gehienak, ikuspegi subjektibo batetik autoexijentzia maila handiagoa zegoelako, neurri handi batean.

Baina, sindikatuak antolaketari buruz agertutako gogoeta ezkorren kontrapuntuak ere azaldu ziren haren diskurtsoan. Batetik, urte hauetan LAB sindikatuaren egitura eta jarduera Lapurdira, Behe Nafarroara eta Zuberoara hedatu ziren. Horrela, LAB Euskal Herriko lurralde esparruko lehen sindikatu izatera pasatu zen (Iraultzen, 2004a: III; 2008a: 22; LAB, 2008c: 14); sinbolikoki eta praktikoki urrats handia izan zen hori euskal

¹⁶⁴ Gazteleraz, «Empresa de Trabajo Temporal» deitutakoak.

sindikalismoan. Bestetik, nazioartean, MFSn sartzeak aldaketa kualitatiboa ekarri zuen sindikatura (LAB, 2008c: 10).

Azterketa horiez gain, arlo sozialean, politikoan eta ekonomikoan sindikatuak burututako konpromisoak oso balorazio baikorra jaso zuten hamarkadaren amaieran. Hala ere, sindikatuak zioenez, hainbat proposamen eta ekimen burutu zituen arren, horiek ez zuten nahi besteko eragina izan gizartean. Edonola ere, ekintza sindikalean eta negoziazio kolektiboan «oinarrizko edukietan eragina izateko eta borrokatzeko gaitasuna sendotzeko norabide egokian» zebilela gehitu zuen (LAB, 2008c: 11-12), testuinguru koiunturalak zein estrukturalak ekarritako zailtasunak aintzat hartuta.

Diagnostiko markoen ondorioak

Oro har, testuinguruko bi faktorek baldintzatu zuten LAB sindikatuaren jarduna epealdi honetan; batetik, ezker abertzalearen kontrako jazarpenak ezaugarritutako testuinguru politikoak; bestetik, aurreko hamarkadetako erabaki politiko politikoaren ondorio ziren lan munduko aldaketek eta lanaren krisiari lotutako prozesu estrukturalagoek.

Orokorrean, sindikalismoa zailtasun handiak nozitzen ari zen garai hartan, lan munduko egiturazko aldaketak zirela-eta. Horrez gain, baina, testuinguru koiunturalean, ezker abertzaleak bizi zuen jazarpenak eragin handia izan zuen LABen jardueran, bere militantzia, onerako eta txarrerako, tentsionatu zuelako. Hala, arlo politikoan eta sozialean ilegalizazioak pairatzeaz gain, arlo sindikalean ELAren gaitzespena eta nazioarteko sindikalismoaren bazterketak jasan behar izan zituen LABek.

Ondorioz, lanaren munduko eta gizarteko aldaketek sindikalismoa baldintzatu zuten, zalantza barik, baina, LABek gatazka politikoaren ondorioak ere kudeatu behar izan zituen. Hala ere, sindikatuak adierazi zuenez, bai koiuntura zailak bai lanaren esparruak sindikalismoari inposatutako egoerak arrazoiak eman zizkieten LABi bere oinarri soziala zabaltzeko, aliantza berriak bilatzen ahalegintzeko eta indarren metaketan lan egiteko. Oztopoak oztopo eta hutsuneak hutsune, bere ordezkarien eta afiliatuen kopurua igoz joan zen eta bere egiturak sendotzen jarraitu zuen epealdi honetan, antolaketa egokitzeko zailtasunak izan zituen arren.

PRONOSTIKO MARKOA (ESTRATEGIKOA)

Printzipio eta helburu ideologikoak

Sindikatuak hamarkada honen hasieran egindako irakurketan, neoliberalismoak langile mugimenduaren balio ugari kutsatuta utzi zituela berretsi zuen, horien artean antolaketa sindikalerako funtsezkoa zen elkartasuna. Horrenbestez, azpimarratu zuen borroka ideologikoa premiazko bihurtu zela milurteko berrian (LAB, 2000a: 9, 45; 2004a: 21, 41).

LABek bere burua erakunde sindikal abertzale eta klaseko gisa definitzen zuen neurrian, aro honetan ere berorren ildo sindikalak jarraitu zuten askapen nazionalera eta sozialera bideraturik egoten. Haren ustetan, globalizazio neoliberalaren ondorioz Estatu ereduak bizi zuen krisiak eta Espainiako Estatuaren blokeoak indartu baino ez zuten egin Euskal Estatu subiranoa eta bateratua eratzeko premia (LAB, 2000a: 37-48; 2004a: 18-20; 2008a: 11). Estatu horrek «nortasun linguistiko eta kulturalaren garapenez gainera, askatasuna, demokrazia eta elkartasun soziala» hartu behar zituen oinarri (LAB, 2000a: 38). Esan bezala, globalizazio neoliberalaren osteko Estatuaren defizit demokratikoak gero eta larriagoak ziren eta Euskal Estatuari buruzko eztabaida ekarri zuten berriz LABen diskurtsora (LAB, 2000a: 45), ELAren ildo beretik.

Ildo horretan, demokraziaren balioak LABen diskurtsiboki irabazitako zentralitatea bat zetorren esparru globalean piztutako mugimenduen eskakizunekin (Calle, 2005; Etxebarria, 2018), baina baita gatazka politikoari konponbidea bilatzeko xedearekin ere. Demokraziaren printzipioa aldarrikatuz, Espainiako indar konstituzionalistek asmatutako «demokratak versus biolentoak» delako narratiba gainditu gura zuen LABek. Hari beretik, 2008an «erabakitze eskubidean» oinarritutako marko demokratikoa aldarrikatu zuen sindikatuak, eskubide horretan Euskal Herriaren eskubide demokratikoak aitortuak izango zirelakoan. Hartara, aurreko urteetako diskurtsoarekin alderatuta, sindikatuak alboratu egin zituen subiranotasunaren eta autodeterminazio eskubidearen kontzeptuak, eta marko demokratikoa ulertzeko era malguagoa planteatu zuen, ezker abertzalearen marko diskurtsiboaren ildo beretik (LAB, 2008a: 25-30).

Sindikatuak izanik, Estatuak lortzeko abiarazi beharreko eraikuntza nazionalari eduki soziala eman behar zion LABek, «gizarte eredu berri» bat eraikitze bidean (LAB, 2000a). Sozialismoa azken jomuga moduan ezarrita zuen arren, urte hauetan aurreko urteetan baino helburu orokorrak eta malguagoak ezarri zituen jardueraren sindikalaren xede legez (LAB, 2004a: 20), Euskal Estatuaren dimentsio sozialari ulerkera malgua

emateko asmoz. Haatik, helburu nazionalen eta sozialen arteko zehaztasunari dagokionez, desoreka argia nabaritzen da sindikatuaren diskurtsoan. Izan ere, oso argi dago Euskal Estatua eraiki behar zela; aldiz, horren eredu sozialak edo ezaugarri sozialistek esanahi lausoa eta malgua hartu zuten, aurreko hamarkadatik nazioarteko ezkerak bizi zuen krisi ideologikoaren sintoma.

Hamarkada honetan azpimarratzekoa da eduki sozialak zituen gizartearen eraikuntza ez ezik gizarte eredu «ez patriarkalaren» eraketaren zeregina gehitu ziola LABek bere ekinbide sindikalari (LAB, 2000a: 120-123; 2004a: 20, 49-50; 2008a: 33). Aldarrikapen feministaren integrazio horrek sindikatuaren helburuetan berrikuntza aipagarria ekarri zuen sindikatuaren zutabe ideologikoetara. Izan ere, aurreko hamarkadetakako txostenetan, emakume langileen eta generoaren auziak emakumeek lan munduan bizi zuten diskriminazioarekin lotuta agertu ziren, baina ez ziren enmarkatu gizonak ere inplikatzen zituen gizarte eredu oso batean nagusi zen zapalkuntzaren testuinguruan. Hortaz, ordura arte, sindikatuaren ekinbide sindikala laneko diskriminazioei aurre egitera zegoen bideratua gehienbat. 2000ko hamarkadan, aldiz, «patriarkatuaren» sistema izendatuz batera, lanetik harago zihoan zapalkuntza sistema orokortzat hartu zen; ildo horretan, lan arloarekiko autonomia irabazi zuen generoaren auziak sindikatuan. Hala ere, oraindik ez zen «feminista» gisa ezaugarritu lortu beharreko gizarte eredua; horren orde, «ez patriarkal» moduan definitu zen.

Aldarrikapenak eta esku hartze eremuak

Soldatapeko lan eremua: muga ugari

Oro har, hamarkadan zehar nahiko antzekoak izan ziren lan eremuko aldarrikapenak, eta ez ziren asko urrundu helburu sindikal klasikoetatik; hala, lanaldia mugatzea, soldaten erosahalmena berreskuratzea, kontratuen kalitatea hobetzea (kontratu finkoak), lan osasuna aldarrikatzea, euskararen normalizazioa bultzatzea eta hitzarmenen iraupena murriztea izan ziren, besteak beste, sindikatuaren agendako gaiak (LAB, 2000a: 103, 115-119, 127; 2004a: 42-52; 2008a: 37-39, 42).

ELAren kasuan bezalaxe, lanaldia murriztea izan zen lanpostuak sortze aldera LABek urte hauetan egindako eskaera nagusia (LAB, 2000a: 99-102). Horixe bera izan zen 1999ko greba orokorraren aurkezturiko bi helburu nagusietako bat; bestea, soldata soziala. Eskakizun horiekin batera, soldata-eskala bikoitza zela-eta, sindikatuak ezin izan zuten soldaten erosahalmenaren aldeko borroka ere alboratu, emakume eta gazte langileen kasuan batez ere (LAB, 2000a: 115-116; 2000c: 123-125). Ildo horretan, sortutako

enpleguak egonkorra eta kalitatezkoa izan behar zuen, LABen ustetan. Norabide horretan, lanbide heziketak eta lan osasunak funtzio estrategikoa betetzen zuten, haren iritziz (LAB, 2000a: 103-110, 117).

Hamarkadak aurrera egin ahala, lanaldiaren murrizketak protagonismoa galdu zuen, eta berrikuntza batzuk agertu ziren eskakizunetan. 2004ean, esaterako, lan denboren malgutasunaren kontrako aldarrikapenak azaldu ziren diskurtsoan. Halaber, lanean bazterketa jasaten zuten kolektibo berriak agertu ziren sindikatuaren gogoetan, hala nola, etorkinak eta elbarriak (prekarietatearen ondorioz, lan istripuak ugaritu zirelako). Gai horiez gain, ingurumenari buruzko begirunea ere agertu zen lantokiek bete beharreko neurri modura (LAB, 2004a: 44, 50-52). Ikusten denez, salbuespenak salbuespen, aldarrikapen gehienak errepikatu egin ziren urtez urte.

Hala ere, lan eremuko ekinbidean eragina izan zuen gogoeta interesgarria jazo zen sindikatuaren hamarkada honetako hausnarketetan. Egiturazko markoan aipatu bezala, lanaren ulerkera aldatuz joan zen LABen barruan, eta haren eredu semantikoa zabaldu egin zen. Ildo horretan, hauxe onartu zuen sindikatuak 2000n: lana ordura arte enplegura edo lan merkantilizatura mugatu izanak hortik kanpo jarduten zuten langileak baztertu zituela (LAB, 2000a: 97-98). Hari beretik, lan munduko aldaketek langileen arteko zatiketa bultzatu zuten neurrian, horrek kezka sortu zuen; eta, harrezkeroztik, pisu handia hartu zuen klase batasuna berrosatzearen aldeko diskurtsoak sindikatuan, langileriak bizitako zatiketari aurre egiteko (LAB, 2000a; 2004a: 45; 2008a: 30-31, 35-36). Beraz, lehenago baztertuak izan ziren langile kategoriek, etxeko langileak kasu, klase subjektuaren parte izatearen beharra ikusi zuen LABek une horretan.

Gai batzuk zentraltasuna hartuz joan ziren bezala, beste batzuk alboratu egin zituen sindikatuak. Horrela, lan baldintzen kontrol sindikalaren inguruko aldarrikapenek lehentasuna galdu zuten (guztiz alboratuak izan gabe ere) hamarkada honetan. Horren ordez, lan eremuaz kanpoko esku hartze soziopolitiko indartu zuen LABek. Bi arrazoi egon zitezkeen aldaketa horren atzean. Alde batetik, ezker abertzalearen kontrako jazarpena zela-eta, baliteke lan esparru hertsia baino lehentasun estrategiko handiagoa eskuratzea helburu politikoek. Beste alde batetik, negoziazio kolektiboa bitarteko mugatua zen sindikatuaren posizio estrukturala hobetzeko eta lan- eta bizi-baldintzetan eragiteko. Ahalegin guztiak eginda ere, emaitzak horren txikiak izanda, indarrak esparru soziopolitikora ere bideratu behar zituen sindikatuak.

Azkenik, kontuan hartu behar da 2008an aldatu egin zela kongresuen ponentziak idazteko metodologia, lan hori parte hartzaileagoa izan zedin. Ondorioz, ponentziak sinplifikatu egin ziren, eta horrek ere esplikatu dezake zergatik berorien edukiak, itxuraz behintzat, azalekoagoak diren.

Eremu soziopolitikoak: arlo sozialaren garrantzia eta marko juridiko-politikoaren mugak
Arestian aipatu dugunez, esku hartze soziopolitikoari arreta handiagoa eskaini zion LABek epe honetan. Izan ere, kontraboterearen filosofiari eusteko ezinbestekotzat jo zuen arlo politikoan, ekonomikoan eta sozialean parte hartzea (LAB, 2004a: 25, 45). Ildo horretan, honako hauxe baieztatu zuen 2004an:

«Ekintza sindikalak enpresan edo sektorean lan baldintzen inguruko konfrontazioaren eremu estua gainditu behar du, eta sektoreetarako, zergen gaineko, aurrekontuei buruzko eta ekonomiako politikak jorratu behar ditu, aldaketa sozialeko gure eredu aurrera eraman ahal izan dezagun» (LAB, 2004a: 52).

Izatez, langabeziaren egoera ikusita, oso zaila zen enpleguaren aldeko borroka hutsez bazterketa sozialari aurre egitea. Horrek aberastasunaren birbanaketa bermatu ahal izateko enpleguaz eta soldata zuzenaz haragoko neurrien alde egitera bultzatu zuen sindikatua, gizarte kolektibo zaurgarrienak kontuan hartuta. Xede hori zehazturik, sindikatuak ahalmen instituzional handiagoa eskuratu behar izan zuen politika sozialetan eragina izateko.

Ildo horretan, esanguratsua da 1999ko greba orokorrean soldata soziala aldarrikatu izana, 35 orduko lan astearekin batera (LAB, 2000a: 26). Aldarrikapen hori berritzailea izan zen sindikalismoaren baitan, ez baitzen ohikoa sindikatuak soldatarekin zerikusirik ez zuten diru sarrerarik eskatzea. Izan ere, enpleguak gizarte integrazioa bermatu behar zuen, baina merkataritza-harremanetatik kanpo burututako lan jarduerak ere hartu behar zirela kontuan uste zuen LABek, ordainsaririk gabeko etxeko lanak, batik bat. Hortaz, enplegurik ez zutenen bizimodu duina aldarrikatzeko tresna izan zen, adibidez, Eskubide Sozialen Kartan jasotako oinarritzko errenta edo soldata soziala. Hauxe jaso zuen Karta horrek: «garapen ereduak, lanaldiaren murrizketa errazteaz gainera, gizarteko kideei duintasunez bizi ahal izateko moduko soldata edo ordainketa unibertsala garantizatu behar dio» (LAB, 2000a: 26, 93-97, 106-109). Era berean, politika sozialek politika ekonomiko eta industrial egokietan egon behar zuten oinarrituta (LAB, 2000a: 87-92).

Ildo berean, 2004ean etxebizitzaren eta etorkinen arazoei toki handiagoa eskaini zitzairen LABen azterketetan. Aldiz, askoz sakontasun gutxiagorekin landu zuen sindikatuak aberastasunaren banaketaren auzia (LAB, 2004a: 27-28, 53-54), baina programa

sozioekonomikoa proposatuko zuela iragarri zuen LABek urte horretan (Iraultzen, 2004b: 25). 2008an, berriz, «eskubide sozialen», prestazioen eta zerbitzu publikoen aldeko defentsa generikoa egin zuen. Kasu honetan, berrikuntza legez, «zaintzailea ez izateko» eskubidea jaso zuen gogoetan, generoaren auzian burutzen ari ziren hausnarketen adierazle. Arlo ekonomikoa, ostera, oso gutxi landu zuen (LAB, 2008a: 31-33).

Errentaren banaketarekin lotura zuzenik ez zuten bestelako gai sozialek ere izan zuten presentzia txikia, baina esanguratsua, LABen diskurtsoan; horien artean hauexek: euskara, ingurugiroa, lurralde antolamendua, generoaren gaia eta immigrazioa (LAB, 2000a; 2004a; 2008a). Gai horiek, aurreko kongresuetan lan harremanen esparruari oso lotuta agertu baziren ere, era independenteagoan landu zituen oraingoan sindikatuak, lanaren eta kapitalaren arteko gatazkatik aldenduago.

Dena den, sindikatuak behin baino gehiagotan aitortu zuen, aldaketa politikorik ezean, oso ahalmen gutxi zeukala atal honetan zerrendatutako aldarrikapen laboralak, sozialak zein ekonomikoak euskal esparruan bultzatzeko. Ezintasun hori euskal nazio ukatuaren adierazpenetako bat zen, eta premiazko jo zuen sindikatuak lan harremanen eta babes sozialerako euskal esparrua eta euskal gune sozioekonomikoa ahalbidetuko lukeen prozesu demokratikoa bultzatzea. Horixe zen, hain zuzen, LABen betebeharrak espezifikoa prozesu demokratikoan eta eraikuntza nazionalan (LAB, 2000a: 50-53, 77-80, 93; 2004a: 22-28). Prozesu horretako lehen urratsak ziren, haren ustetan, lan eta babes sozialaren arloko eskumen «guzti-guztiak» lortzea, eta negoziazio kolektiboa euskal markoan gauzatzea (LAB, 2000a: 80-83; 2008a: 28).

Alde horretatik, nazio askapenari eta gatazkaren konponbideari lotutako aldarrikapenetan «demokraziaren beharra» bihurtu zen helburu politikoak justifikatzeko oinarritzko kontzeptua LABen garai honetako diskurtsoan; era berean, arlo sozioekonomikoak pisua galdu zuen helburu politikoak justifikatzeko unean. Bestela adierazita, langileek klase moduan bizi zituzten arazoek espazio diskurtsiboa galdu zuten nazio auziaren konponbidearen bilaketan, demokrazia bera baitzen gatazkaren gakoa LABen diskurtso eraberrituan. Aldaketa hori nabarmenduta, ez dugu adierazi nahi demokraziaren kontzeptu berria zenik LABen azterketan; baina 70eko eta 80ko hamarkadetan joera handiagoa izan zuen nazioaren auzia klase ikuspegi batetik jorratzeko. 2000ko hamarkadan, ostera, bi arazoak diskurtsiboki lehen baino banatuago garatu zituen, nahiz eta praktika sindikalean beren arteko lotura agerikoa zen.

Azkenik, nazioartean, Europar Batasunaren eraikuntzaren nahiz globalizazioaren eredu neoliberalaren eta antidemokratikoaren aurka agertu zen beste behin ere LAB. Horrela lerrokatuta, Euskal Herrian bultzatzen ari zen demokratizazio prozesua herrien Europaren eraikuntzaren alde jarri nahi zuen sindikatuak (LAB, 2000a: 16, 91; 2004a: 8-9).

Esku hartze eremuen ondorioak

Soldatapeko lan esparruko aldarrikapenek berrikuntza gutxi izan zuten urte hauetan. Gai berri batzuk atera ziren diskurtsora, baina, maila sinbolikoan besterik ez. Izan ere, negoziazio kolektiboak aukera gutxi eman zizkion sindikatuari langileen bizi mailan aurrerapenak lortzeko eta langile kolektibo batzuen bazterketa ekiditeko. Ondorioz, arlo sozialak pisua irabazi zuen pixkanaka haren planteamenduetan, eta lanarekin lotuta ez zeuden errentei eta prestazio sozialei gero eta garrantzi handiagoa eman zien LABek, aberastasunaren birbanaketa eredu bidezkoagoa erdiesteko asmoz.

Izatez, euskal arlo politikoa blokeo egoeran egonik, ibilbide oso laburra zuten arlo laboral, sozial eta ekonomikoko aldarrikapenek. Gainera, ezker abertzalearen ilegalizazio egoerak, ekimen politikoaren premia areagotu zuen. Orduan, 1990eko hamarkadaz geroztik negoziazio kolektiboan interes handiagoz zentratu bazen ere, esku hartze soziopolitikoak LABen eredu sindikalaren oinarritzko ezaugarri izaten jarraitu zuen hamarkada honetan ere.

Antolakuntza: eskualdeak indartu, baliabideak garatu, arloak eratu

Lehenago azaldu dugun bezala, gizarte- eta lan-esparruetan jazotako aldaketek militantziaren eta parte hartzearen krisia eragin zuten LAB sindikatuaren, eta krisi egoera horretara egokitu behar izan zuen bere antolaketa eredu, langile klasearen kolektibo guztietara heltzeko eta afiliatuen parte hartzea sustatzeko. Gainera, ordura arte lehentasun gutxi eman zion barne antolamenduari, eta horrek sindikatuaren eraginkortasuna mugatu zuen. Egia zen langileriaren partetik erreferentzialtasuna eta legitimitatea irabazi zuela LABek, eta proiektua finkatzea lortu zuela, baina, sindikatuak aitortu zuenez, erata zeukan antolamenduaren ondorioz, etekin urria atera zien beren lan dinamikei (LAB, 2000a: 135-140).

Hari horretan, sektore- eta lurralde-egituren arteko konbinazioan, LABek uste zuen azken honek integratu behar zituela sindikatuak sustaturiko ekimen guztiak (politikoak zein sindikalak). Eskualdeek eginkizun zentrala betetzen zuten horretan; izan ere, ELAk

bezalaxe, herrialde markoak desegin eta eskualdean oinarritu nahi zuen lurralde antolaketa aurrerantzean sindikatuak (LAB, 2000a: 155-156; 2004b: 7-8, 14).

Sektoreko egiturari zegokionez, 1992ko kongresuak LABen sektorializazioa ekarri zuen; horrela, «Europako eredu tradizionalera» hurbildu zen. Baina, eredu horren bitartez nekez irits zitekeen kolektibo baztertuetara (batez ere, lan eremutik at zeuden horietara), eta beraz, aurreko hamarkadan eraturiko sektorekako egitura hori lurralde egiturarekin eta esku hartze soziopolitikoarekin osatu beharra zegoela deliberatu zuen sindikatuak (LAB, 2000a: 143). Bistan denez, ezinbestekoa zen LABentzat ekintza sindikalari izaera integrala eta soziopolitikoa ematea, sektore eta lurralde egituraren arteko banaketa saihestuz. Hartara, sindikatuaren dinamika guztietan esku hartu behar zuten haren lurralde egiturek (LAB, 2004b: 17, 22).

Dena dela, lurralde egitura «oso ondo definitua eta finkatua» geratu zen arren, sektore egiturak bilakaera kontraesankorra izan zuen, besteak beste, lurralde egiturarekiko koordinazio faltagatik (LAB, 2004b: 9). Bestalde, esparru lokaleko eguneroko gatazkek, negoziatioek eta antzeko auziek hartu zuten zentralitatea pixkanaka. Hori zela eta, sektoreetako zuzendaritzak indartu egin behar izan zituen sindikatuak, sektoreko esku hartze integrala eta eskualdeetako dinamikak uztartzeko (LAB, 2008c: 15-16).

Ikusten dugunez, bi egituren arteko orekaren neurria aurkitzea izan zen sindikatuaren garai honetako kezka organizatibo nagusietakoa. Alde batetik, lurralde egitura estrategikoa zen esku hartze soziopolitikorako eta ekintza sindikalaren koordinaziorako. Bestalde, baina, ezin zion sektore egitura indartzeari uko egin, horretan oinarritzen baitzen neurri handi batean eguneroko jarduera sindikala. Oro har, LABen ustez (2008c: 10), lurraldeko egiturak «protagonismo handiagoa» hartu zuen egituraketa konfederalean, eta sektoreetako dinamikak gehiago bideratu ziren interbentzio espezifikotara.

Antolakuntzaren helburuetako bat negoziatio kolektiboaren barne dinamika hankaz gora jartzea zen, eta horretarako LABek antolakundea indartu eta lan metodoak hobetu behar zituen, baita langileekin zuzeneko harremana ere jorratu (LAB, 2000a: 118; 2004b: 15-16). Horren harira, eta sektore egitura indartzeko asmoekin bat eginez, borroka-kutxa sortzeko aukera mahaigaineratu zuen hamarkada honetan, sindikalismo oldarkorra eta konfrontaziozkoa indartzeko asmoz (LAB, 2000a: 113; Iraultzen, 2008: 24).

Haatik, 2008an, borroka ofentsiboan bainoago eredu defentsiboan murgilduta egotearen sentsazioa zuten LABeko kideek, eta egoera hori gainditzeko beharra azpimarratu zuen

sindikatuak. Hori lortzeko, sektoreetako kideen eginkizunak birdefinitu behar zituen, sektoreetako baliabideak enpresetara eta herrietara bideratu, eta oinarriko militantzia sindikatuaren eguneroko dinamiketan integratu (LAB, 2008c: 8-10). Bestela adierazita, sindikalismoa oinarrira bideratu eta konfrontaziorako prestatu, horixe behar zuen egin sindikatuak, sindikatuaren legitimitate soziala jorratze aldera.

Ildo horretatik, LABek gizarte kolektibo desberdinen arazo espezifikoetan esku hartzeko egitura bereziak eratu behar zituen, langile klasearen osotasunezko ikuspegia landuz haren zatiketa gainditzeko. Hartara, emakumeen eta gazteen arloez gain, bestelako sektore baztertuen arazoei erantzuteko arloak garatzeko erabakiak hartu zituen sindikatuak (jubilatuak, pentsiodunak, autonomoak, ekonomia soziala, eta abar) (Iraultzen, 2000: 7; LAB, 2000a: 125, 163-164; 2004b: 10-11; 2008c: 24). Hala ere, arlo horien garapenek erritmo oso ezberdinak hartu zituzten. Pentsiodunen eta gazteen arloek ibilbide ona izan zuten, baina ekonomia sozialean, esaterako, ez zen aurrerapenik lortu. Bestalde, azpimarratzekoa da emakumeen arloari buruzko asmo onak azalerazi zituen arren, zuzendaritza eta egiturek oraindik oso maskulinizatuta jarraitzen zutela, Ainhoa Etxaide¹⁶⁵ LABeko buruzagi ohiaren esanetan, eta oraindik urte horietan asko zegoela egiteko emakumeen parte hartzea sustatzeko eta haien beharrei egokitutako antolaketa lortzeko.

Antolakuntzaren moldaketari jarraikiz, eta aintzat harturik 80ko eta 90eko hamarraldietatik enpresen tamainan gertatutako aldaketak, nabarmena zen ETEetan sartzeko plan berezi bat falta zitzaiola LAB sindikatuari, 50 langile baino gehiagoko lantegietan baitzegoen errotuta gehienbat. Baina, gainerako sindikatuekin alderatuta, askoz diru eta baliabide gutxiago zeukan, eta horrek zaildu egin zuen ETEetan sartzea (LAB, 2004c: 15-16).

Bestalde, belaunaldi gazteenen txanda hartzeari begira ere planteatu zituen sindikatuak antolakuntzazko neurriak. Horrela, belaunaldi berrien lekukoa ziurtatze aldera, 2001ean nazio komiteko kide izateko adin muga batzuk ezarri zituen; irizpide berrien arabera, pertsona bat gehienez 12 urtez aritu ahalko zen jarraian ardura berean, eta 55 urtetik beherakoak soilik izendatu ahal izango ziren zuzendaritzako kide (Bustillo, 2007: 16-17). Neurri horien bitartez, belaunaldi ordezkapena ziurtatu gura zuen LABek, eta egiturei

¹⁶⁵ Ainhoa Etxaide Amorrortu LAB-Gazteak arloko arduradun gisa sartu zen sindikatuaren idazkaritza nazionalean. 2000. Urtean, gizarte politiken ardura hartu zuen, eta batzorde exekutiboko kide bihurtu zen. Azkenik, LABeko idazkari nagusi izendatu zuten 2008an, eta 2017an Garbiñe Aranbururi eman zion idazkari nagusiaren lekukoa (Martin, 2016).

haize freskoa eta bizitasuna eman. Ordezkatze prozesu horrek ekarri zuen, besteak beste, prestakuntzan eta ezagutzan ere ahaleginak egitea eta esperientzien transmisioa lantzea (LAB, 2008c: 19). Zuzendaritza berria 2008an eratu zen.

Azkenik, sindikatuak bere organizazioa handitu behar izan zuen 2000an LABek Ipar Euskal Herrira zabaltzeko apustua burutu zuenean. Nazio eraikuntzaren aldeko estrategia muturrera eramatea suposatzen zuen erabaki hori sindikatuak hartutako heldutasunaren adierazle zen, LABen aburuz (LAB, 2008c: 6, 18).

Laburbilduz, honako hauek izan ziren LAB gainerako sindikatuetatik gehien bereizi zuten antolakuntza-ezaugarriak: haren lurralde egituraren pisua, egituraren barruan arlo espezifikoak eratzeko gaitasuna, eta haren jardunaren perspektiba soziopolitikoak. Ezaugarri horiek guztiak sindikatuaren errotze soziala lortzera bideraturik egon ziren, jakina; baina, baliteke ekintza sindikalari eman nahi izan zion osotasunezko perspektibak eta esku hartze sozi-politikoak hartutako garrantziak, egituraren indarrak sakabanatzera eta zenbait huts-egiteetara eraman zutela sindikatua sarritan. Izan ere, kongresuetan diskurtsiboki finkatutako helburuak, gehiegitan, ez ziren gero praktikan bete. Huts egite horiek objektiboak izan zitezkeen, edo autoexijentziak eragindakoak. Hala ere, sindikatu abertzaleak erreferentzialtasuna irabazi zuen gizartean eta haren ordezkari eta afiliatu kopuruak etengabe gora egitea lortu zuen epe honetan.

Aliantzak: beharrezkoak baina ezinezkoak

Denbora batez, sindikatuen arteko ekintza-batasuna berebizikoa izan zen emaitza sindikalak nahiz politikoak lortzeko. Hala ere, lehenengo ETAren su etenaren haustek eta, gero, Mallabiko bileran izandako gorabeherak¹⁶⁶ ahuldu egin zituzten hamarkada honetan ELAren aurreko urteetan eraikitako zubiak, eta gaiztotu egin zituzten bi sindikatu abertzaleen arteko harremanak (LAB, 2000a: 35, 57, 128-129; 2004c: 9; Gara, 2001b; Bustillo, 2007: 23-25). Ahaleginak ahalegin, ezinezkoa zirudien hainbesteko balioa zuen lankidetzari eustea.

Hala ere, ELAk 2002an plazaratutako «Proposamen soberanista baterako apunteak» eta Madrilgo Auzitegi Nazionalak irekitako 18/98ko sumarioak («dena da ETA» lelopean Euskal Herriko esparru sozial desberdinetako 76 lagunen atxiloketa ekarri zuena) bi sindikatuen arteko talkak baretzea lortu zuten; hala, 2003an negoziazio kolektiboaren inguruko akordioa lortu zuten eta, gainera, aberri egun bateraturako deialdia egin zuten

¹⁶⁶ 156. oin-oharrean aipatu dugu laburki hor gertatutakoa.

(Bustillo, 2007: 35-44). 2004ean, euskal sindikalismoaren batasunean fase berria ireki nahi izan zuen LABek, burujabetza prozesuan urratsak emateko eta «lan harremanetarako eta babes sozialeko euskal esparruari eta euskal eremu sozio-ekonomikoari forma emateko estrategia definitzeko» (LAB, 2004a: 21-22). Ondorioz, ELAk, LABek, EHNEk, ELBek, ESK-k, STEE-EILASEk eta HIRUK osatutako euskal eremu sindikala burujabetzaren eta aldaketa sozialaren estrategiarako giltzarri faktoretzat hartu zuen sindikatuak (LAB, 2004a: 35, 56). Baina, 2005ean, harremanak berriz okertu ziren, eta ez zen negoziazio kolektiborako akordiorik lortu, aldebakartasunez aritzea leporatu baitzion LABek ELAri (LAB, 2008b: 9). Haustura horrek bultzatu zuen LAB CCOO eta UGTrekin lerrokatzera, zenbait kasutan.

Garai honetan, gai ekonomikoak eta sozialak gero eta pisu handiagoa bereganatuz joan baziren ere, oso zaila izan zen LABentzat horiek guztiak bere aldetik soilik lantzea. Bokazio soziopolitikoak zeukan, baina sindikalismoaren eremuan kokaturik zegoen. Ildo horretan, sindikatuak gainerako gizarte mugimenduekin elkarlanean aritzeko proposamenak egin zituen, baita mobilizazio bateratuak bultzatu ere, adin-, genero-, arraza-, jatorri- eta sexu-orientazioak eragindako diskriminazioen kontra aritzen ziren mugimenduekin, batik bat (LAB, 2000a: 97, 109,117). Lankidetzak helburu horrekin, Euskal Herriko Gizarte Foroaren sustapenean hartu zuen parte (LAB, 2004a: 10, 35)

Ildo horretan, LAB sindikatuaren 2008ko emendakin baten arabera, prekarietatearen aurkako borrokan beharrezkoa zen lantokitik kanpoko presioa egitea eta, haren hitzetan, «kalea eta herria langileen borroketan inplikatzeko». Era berean, herrietan ere jazotzen ziren langileen onurarako ziren borrokek (etxebizitzari buruzkoak, ingurugiroaren defentsazkoak, eta abar). Era horietako aliantzek borrokarako ahalmen handia erakutsi zuten eta, ildo horretan, herri mugimenduekin eta gazte mugimenduekin lankidetzak sustatzea zegoen, sindikatu gisa, LABi (LAB, 2008a: 23; 2008b: 111). Ondorioz, aurreko hamarkadekin alderatuta, urte hauetan LABek egindako aliantzek neurri handiagoan gaintu zuten ezker abertzalearen esparru soziala. Bada, 80ko hamarkadan eta 90eko urteen hasieran, aliantzarik gehienak KASEko eragileek osatutakoak izan ziren; baina, KASEn egituraketa zaharkituta geratzean, LABek esparru horretatik haragoko aliantzak kateatu zituen, sindikatuaren helburu sindikalak, politikoak eta sozialak betetze aldera.

Bestalde, sindikatuaren parte hartze mota orohartzaile hori ulertzeko, ezin da ahaztu LAB zela ezker abertzalearen baitako antolakunde legal ia bakarra hamarkada honetan. Hortaz,

eginkizun berezia zeukan ezker abertzalearen estrategiaren barruan, burujabetza prozesua ikuspegi sozialetik nahiz sindikaletik elikatzeko (LAB, 2004a: 21), besteak beste.

Azkenik, aliantzen ildotik, globalizazio neoliberalaren eraginek, batetik, eta ezker abertzalearen kontrako jazarpenek, bestetik, euskal nazio gatazka nazioartekotzeko beharra azaleratu zuten, eta LAB ahalegin handiagoz lantzen hasi zen nazioarte esparruko aliantzagintza. Ondorioz, urte hauetan areagotu egin zen sindikatuaren parte hartzea nazioarteko foroetan (LAB, 2000a: 18; Bustillo, 2007a: 39). Ildo horretan, adierazgarria izan zen MFSn sartu izana (LAB, 2008a: 9).

Ekintzen erreperitorioa: borroka moldeen uztarketa eta aliantza zabalaren bidezko mobilizazioaren garrantzia

ETAren su etena 1998an hautsi zen arren, Lizarra-Garazi prozesuan eratutako aliantza sozialei eta sindikalei eutsiz, hainbat mobilizazio sozial egin zituzten zenbait sindikatu eta eragilek epe honetan, hala nola, 1999ko greba orokorra (LAB, 2000a: 26), Gutun Sozialaren aldeko «Elkartasunaren Martxa» eta hura onartzeko bultzatutako Herri Ekimen Legegilea (Iraultzen, 1999b). Mobilizazioei dagokienez, 2004an zehar globalizazio neoliberalaren kontrako mugimenduek eta ekintza kolektiboek ere hartu zuten indarra sindikatuen ekintzan (LAB, 2004a: 8).

Ekintza erreperitorioekin jarraituz, borroka armatua praktikatzeko ez bazuen ere, ETAren jardura armatuak eta ezker abertzalearen konstelazioko talde batzuen kale borrokek asko baldintzatu zuten LAB sindikatuaren ekintza. Testuinguru horretan, sindikatua ilegalizatua izango zen susmoa zabaldu zen urte hauetan. Zalantza barik, borroka armatuaren jarraipenak arazoak ekarri zizkion gainerako sindikatu eta eragileekin aliantzak erdiesteko unean, eta su etenaren hausturak eta kale borrokek tentsioak eragin zituzten sindikatuaren militantziaren barnean ere. 2000ko kongresuan, esaterako, ez zen borroka metodo horien zilegitasuna zalantzan jarri, baina, iritzi batzuen arabera, kale borrokek «ez zuen lagundu prozesua aurrera eramaten», eta su etenaren apurketaren inguruko zenbait postura kritiko agertu ziren (Iraultzen, 2000: 5). Hala ere, borroka armatua demokraziaren estatusa lortzearen baldintzapean zegoela ebatzi zuen LABek, eta argi eta garbi adierazi zuen beren betebeharra ez zela borroka armatuari estaldura ematea, «bortxazko gertakari guztiak desagertuko diren demokraziazko eta bakezko eszenatoki politikoa erdiestea» baizik (LAB, 2000a: 24, 33-34).

Parte hartze instituzionalari zegokionez, politika ekonomikoen eta sozialen planifikazioan eta eraketan parte hartzeko lanabes instituzionalak eratu nahi izan zituen LABek, eta derrigorrezkotzat jo zuen horietan parte hartzea (LAB, 2000a: 90, 97), lan harremanetarako eta babes sozialerako euskal esparrua eratzeko, Ipar Euskal Herria ere barne harturik (LAB, 2004a: 23). Beraz, bere ekimena konfrontazioan kokatzen bazuen ere, aurreko hamarkadekin alderatuta, bete-betean lerrokatu zen bide instituzionalak sortzearen eta erabiltzearen alde epe honetan (LAB, 2000a: 79). Ildo berean, negoziazio kolektiboa lan harremanen funtsezko alderditzat hartu zuen LABek (2004a: 45), eta horretarako euskal markoaren aldeko apustua egin zuen etengabe. Izan ere, euskal langileen interesak Euskal Herrian hobeto defendatzen zirela uste zuen sindikatuak (LAB, 2000a: 82).

Haatik, lan harremanetan zeukan toki mugatua azpimarratu zuen egindako azterketetan. Ildo horretan, aldean autonomia kolektiboari gehiegizko balioa aitortu izana leporatu zien sindikatu batzuei (ELAri, batez ere). Bada, lan harremanen euskal esparrua osatzeko botere publikoen protagonismoaren aldekoa izan zen LAB, ELA ez bezala, eta hitzarmenak, itun kolektiboak eta legeak elkarren osagarri izatea proposatu zuen (LAB, 2000a: 79-80). Hari horretan, elkarrizketa sozialari eta hiru aldeko akordioei buruz ELAK baino jarrera baikorragoa zeukan. Era berean, garrantzi handiagoa eman zion marko interkonfederaleko eta sektoreko negoziazioari, enpresakoari baino. Izan ere, uste zuen goiko mailako negoziazioak hobeto babesten zituela ETEetako langileen eta langile prekarioen lan baldintzak (LAB, 2000a: 83-84, 101).

Baina, elkarrizketa sozialari baliagarri iritzita ere, ekintza erreibindikatzailerik eta negoziazio kolektibo oldarkorra eta «agresiboagoa» bultzatu nahi izan zuen LABek; «negociazio kolektiboen barne dinamika hankaz gora eta buruz behera jarri behar dugu» (LAB, 2000a: 118; 2008a: 41-42), «kudeaketa sindikalismotik» urrun, zioen, adibidez, sindikatuak (LAB, 2004a: 42).

Horrenbestez, horretara bideratutako baliabide antolatzaileak garatzeaz gain, nahitaezkoa izan zen sindikatuarentzat «mobilizazio estrategia iraunkorra» martxan jartzea (LAB, 2000a: 124-125). Hain zuzen ere, greba zen borrokatzeko bitartekorik garrantzitsuena. Baina, grebarekin batera, aldarrikapenak betearazteko indar korrelazioa hobetu beharra zegoen, eta lan eremutik kanpo bultzatutako mobilizazioekin eta ekintzekin osatu: «itxialdiak, errepide mozketak, errepideko trafikoa geldiarazten zuten auto karabanak, gose grebak, pertsonen osaturiko kateak, elkertasunezko harremanak kolektibo edo

erakundeekin, manifestazioak...». Halako ekintzak ezinbestekoak izan zituen sindikatuak bultzatutako konfrontazio estrategiaren barruan; ekintza erreperitorio hori elikatzeke xedea zeukan abian jarri beharreko borroka kutzak ere (LAB, 2004a: 55; 2008a: 48-49). Ikusten dugunez, erabat funtsezkoa izan zen LABentzat lan gatazka lantokitik gizartera hedatzeko mekanismoak eta borroka ereduak praktikatzea. LABen berezitasunetako bat, beraz, ekintza sindikal oldarkorra bultzatzeko erabilitako ekintza-molde desberdinen arteko osagarritasuna izan zen

Bestalde, hamarkada honetan gero eta toki handiagoa hartu zuen sindikatuan borroka ideologikora bideratutako ekintza komunikatiboak, gizartean jazotako aldaketa ideologiko-kulturalak, batetik, eta teknologiek informatzeko eta komunikatzeko moduetan ekarritako aldaketak, bestetik, eraginda. Neurri handi batean, gizartean hedatutako kultura nagusiaren ondorio izanik langile klasearen batasun eza, sindikatuak deliberatu zuen komunikazioak funtsezko eginkizuna zeukala borroka horretan (LAB, 2000a: 9; 2004a: 21, 41-42; 2008a: 25, 30, 35, 47-48; 2008c: 23).

Laburbilduz, hiru ideia azpimarratu ditzakegu LABek epe honetan burututako ekintza erreperitorioen inguruan. Lehenik, borroka armatuak eta kale borrokek zailtasunak eta barne-tentsioak sortu zizkioten, nabarmen, sindikatuaren ekintza ahalmenei. Bigarrenik, elkarrizketa soziala eta parte hartze instituzionala baliagarritzat jo zituen arren, ekintza sindikala eta negoziazio kolektiboa oldarkorrak izan behar zuten; hartara, sindikalismo klasikoan ohikoak ez ziren borroka metodoekin eta aliantza sozialekin osatu behar izan zituen sindikatuak. Azkenik, borroka ideologikoaren garrantzia zela eta, gero eta arreta handiagoa eskaini zion ekintza komunikatiboari.

Interpelatutako gizarte taldeak: langile klasearen iruditeria egokitu beharra

Erreferentetzat hartutako talde sozialei dagokienez, bere diskurtsoan islatzen denez, langileen artean aldaketa sozioekonomikoek sortutako aniztasun egoeraren auzia aurkitu zuen sindikatuak aurrez aurre 2000ko hamarkadan. Hala, urte hauetan areagotutako langile klasearen atomizazioaren aurrean, langile klasea subjektu moduan berrosatu beharra zegoela ikusi zuen LABek. Horiek horrela, sindikatuaren erronka nagusia izan zen baztertuta eta sakabanatuta zeuden gizarte- eta langile-taldeak subjektu horren baitan kokatzea (LAB, 2008a: 30-31). Ildo horretan, dagoeneko esan dugu zein garrantzitsua izan zen LABentzat sindikalismo eredu soziopolitikoari eustea eta (soldatapeko) lan esparruko borroka gizarteratzea, hura gizartean jazotzen ziren bestelako problema berriekin lotzeko. Izan ere, LABen ustetan, beharrezkoa zen mota guztietako langileak

«Euskal Langile Mugimenduaren» subjektuaren barnean kokatzea (LAB, 2000a: 19, 97, 113). Hari beretik, etxeko langileak subjektu horren baitan integratzeko egin zituen ahaleginek klasearen kontzeptuaren ohiko ulerkera zabaldu zuten. Hala, klasearen kontzeptua egoera berrira egokitzeko saioak atzeman ditugu sindikatuaren diskurtsoan, kontzeptu horrek ordura arte hartu zuen iruditeria «klasikoa» gainditu nahian.

Ildo horretan, langileen barruko gizarte kolektibo baztertuenen artean, gazteen eta emakumeen egoerari buruzko gogoetak garrantzi berezia hartu zuen, aurreko hamarkadan bezala, eta baliabideak eta ahaleginak, neurri handi batean, horien behar espezifikoerantz erantzutera bideratzeko asmoa agertu zuen sindikatuak. Bada, alde batetik, gazteak sindikalismo abertzalearen berriztapenaren eta sendotze estrategikoaren bermea ziren (LAB, 2004a: 34). Dena den, LABen militantzia eta afiliazioa oso gaztea zen (LAB, 2000a: 138), gainerako sindikatuekin alderatuta. Beste aldetik, emakume langileak erakartzeko eta integratzeko ere «urrats dezente» egin zuten (Iraultzen, 2004a: VI), eta sindikatuaren egituran emakumeen idazkaritza eratu zuten.

2000n pentsiodunak, langile autonomoak, langabetuak, kooperatibistak eta etorkinak ere hartu zituen kontuan LABek bere adierazpenetan (LAB, 2000a: 113, 138). Emakumeenaz eta gazteenaz gain, beste idazkaritza bana egokitu ziren pentsiodunen eta etorkinen kolektiboerantz ere sindikatuaren egituran (LAB, 2004a: 51-52; 2004b: 10, 28; 2008a: 36; 2008c: 22, 24). Hala ere, praktikan, talde horiek erakartzeko lana nahi baino geldoago gauzatu zen, eta gazteen idazkaritza, adibidez, ez zen eratu azkenean. Horiez gain, 2004ean, «ezgaitu»-en (*sic.*) kolektiboa agertu zen sindikatuaren dokumentuetan (LAB, 2004a: 51); 2008an «gaitu» izendapenez agertu ziren berriz ere, eta, pentsiodunekin egin bezala, arlo iraunkor moduan egituratzea erabaki zuen sindikatuak. Azkenik, langile autonomoen kasuan, beren egoeraren azterketa eginda eta erabakiak Nazio Biltzarrean hartuta, gaia jorrazteko beharrezko baliabideak jarriko zituela adierazi zuen (LAB, 2008c: 38).

Aipaturiko kolektiboerantz gain, bere ekimen sindikala bestelako langile egoereri zabaltzeko asmoa ere agertu zuen LABek behin baino gehiagotan. Esaterako, ekonomia soziala merkatu ekonomia sozialerantz desbideratzen ari zela ikusita, bertan esku hartzea planteatu zuen 2000n, planifikazioari eredu kohesionatua bideratzeko zuen potentzialtasunagatik (LAB, 2000a: 125). Baina 2004ean eta 2008an balantzea «benetan txarra» omen zen, sindikatuaren arabera (LAB, 2004a: 29; 2004b: 11; 2008c: 38). Txomin

Lorca¹⁶⁷ zuzendaritzako kide ohiaren esanetan, ekonomia sozialean eragiteko asmoa kongresu gehienetan azaleratu zen arren, sindikatuak inoiz ez zuen horretan asmatu.

Arestian esanenez, hamarkada honetan emakumeen, gazteen eta etorkinen lan baldintzak izan zituen LABek aztergai. Baina kolektibo horien egoera ez zuen sindikatuak lanaren ikuspegi hutsetik aintzat hartu. Kontrara, kolektibo horien eta beste batzuen lanez haragoko arazoak ere aztertzeo ahaleginak egin zituen. Horrela, gai berriak txertatu zituen LABek bere gogoetetan: zaintza, etxebizitza, ikasketak... (LAB, 2000a: 120-125; 2004a: 31, 49-50; 2008a: 7, 21, 33-34, 39). Ildo horretan, LABek jorrotutako soldata soziala edo oinarritzako errenta ere, esaterako, langile askok lan merkatutik kanpo bizi zituzten arazoei aurre egiteko bitartekoa zen.

Bistanenez, bere sorrerako asanbladetan ezarritako sindikalismo soziopolitikoari eutsiz, LABek berebiziko garrantzia eman zion, langileriaren barruan ez ezik, gizartearen ahalik eta sektore zabalenen artean erreferentzialtasuna irabazteari. Hortaz, gizarte- eta langile-sektore ugariaren egoerari buruzko kezka azaldu zuen diskurtsoan, nahiz eta gero haien beharrei soluzioak emateko baliabide mugatuak izan. Hartara, emaitzak gorabehera, ELAekin alderatuta, espektro sozial zabalagoa interpelatzeko ahaleginak egin zituen LAB. Salbuespen bat dago, hala ere. ETEetako langileei ez zien ELAk bezainbesteko arreta eskaini. Baina, orokorrean, haren diskurtsoaren azterketatik ondorioztatu dezakegu LAB ikuspegi sozial oso zabalak lantzen ahaleginak egin zirela, sindikatu eredu klasikoarentzat ohikoak ez ziren zenbait esparru kontuan harturik.

ONDORIOAK

Aurreko hamarkadako Lizarra-Garazi prozesuaren porrotaren ostean, erabateko blokeoak ezaugarritu zituen hamarkada honetako egoera politikoa, instituzionala eta sindikala. Lanaren eremuan bizi zen eskumenen ezaz gain, Euskal Herriko egoera politikoa gatazkatsuak ez zuen irtenbiderik izan urte hauetan; abagune hori bereziki kaltegarria izan zen ezker abertzalearentzat eta, hartara, LAB bezalako haren eragileentzat. Ildo beretik, harreman sindikalak ere oso gorabeheratsuak izan ziren.

Bestalde, aurreko urteetako joerak finkatu egin ziren urte hauetan, lanaren munduan, gizartearen, eta estrategia sindikalean. Lan munduko eta gizarteko aldaketa estrukturalak lanaren krisia areagotu zuten, langileen lan- eta bizi-baldintzak, batetik, eta botere

¹⁶⁷ LABeko zuzendaritzako eta Batzorde Sozioekonomikoko kidea izan zen hainbat urtetan. Orain pentsionisten mugimenduko kidea eta bozeramailetako bat da.

sindikala, bestetik, kaltetu baitzituzten. Aldaketa sakon horien artean egon ziren lan merkatuaren desarautze progresiboa, lan kontratuen behin-behinekotasunaren hazkundera, ekonomiaren tertziarizazioa eta ohiko industriaren desagerpena, deslokalizazioen ugaritzea, eta enpresa txikien gehikuntza. Aldaketa soziokulturalen artean, berriz, honakoek kezkatu zituen gehien LAB: neoliberalismoak sustatutako indibidualismoa eta langile klasearen atomizazioa. Batak zein besteak langileak antolatzeke eta mobilizatzeke lana zaildu zuten eta oztopoz bete sindikalismoaren eginkizuna. Ondorioz, kolektibo gero eta desberdinagotan zatitutako langile klasearen batasuna eta elkartasunaren balioak berreskuratzearen alde jarri zituen LABek bere indarrak.

Beraz, *botere estrukturala* eta *instituzionala* ezin txarragoak ziren, itxuraz, LABentzat. Hala ere, ordezkari sindikal gehiago zeukanez, botere instituzionala aurreko hamarkadetakoa baino zertxobait hobea zen orain. Aldiz, sindikatuaren botere estrukturalak okerrera egin zuen, alde batetik, sindikatu moduan bizi zuen lan munduko aldaketek sindikalismoa kinka larrian jarri zutelako; beste alde aldetik, estatuen indarra finkaturik agertzean, ENAMen indar galera nabarmen areagotu zelako abagune honetan. Haatik, *botere asoziatiboa* handitzea lortu zuen urte hauetan, ordezkartzan eta afiliazioan asko hazten ari baitzen. Gainera, gazteek berrikuntzarako kolektibo estrategikoa osatzen zuten aldaketa testuinguruan, eta LABek bazuen horretan abantaila, konparatiboki oso sindikatu gaztea zelako. Halaber, LABeko militantzia nahiko ideologizatua eta politikoki sendo lerrokatua zegoen. Ondorioz, pulstu politikoaren tentsioak kideen artean egonezinak sortu arren, militantzia kohesionatzeko ere balio izan zuen.

Botere antolatzaileari dagokionez, gabeziak sumatu ditugu sindikatuan, batez ere diskurtsiboki adierazitako helburuak egikartzeko unean agertu zuen ahuleziagatik. Zaila da jakitea sindikatuaren gabeziak autoexijentzia mailak eraginda sortu ziren, edo zailtasun koiunturalek zein estrukturalak eraginda. Kontuan hartu behar da LABek oso bat-bateko hazkundera izan zuela aurreko hamarkadan, eta horrek antolakuntza moldaketa sakonak eskatu zizkiola. Gainera, aurretik zeuzkan eginkizunei langileen kolektibo baztertuen antolakuntza gehitzean, oso errealistak ez ziren helburuak ezarri zituen. Izan ere, LABek finkaturiko helburu estrategikoak, antolaketaren bidez egikaritu behar zituen; eta, behin baino gehiagotan, helburu horiek ez ziren bat etorri sindikatuaren ahalmenarekin. Ezintasun horren errua antolakuntzaren huts egiteei leporatzeko joera izan zuen sindikatuak holakoetan. Baliteke, beraz, gizarte- eta langile-sektore oso ezberdinetara heltzeko anbizioak sindikatuaren jarduera sakabanatu izana. Dinamika

horren ondorioz, prozesu politikoetan eta ekimen sozialetan protagonismo eta erreferentzialtasun handia irabazi zuen LABek, baina arrakalak erakusten ditu haren lehentasunak ezartzeko moduak. Hala ere, ezin uka urrats nabarmenak egin zituela, besteak beste, Ipar Euskal Herrira hedatzean, egitura hainbat arlo sortzean, sektoreak sendotzean eta MFSn sartzean. Baina, bistan denez, urrats horiek ez ziren nahikoa izan militanteek ezarritako helburuak erdiesteko.

Moralki eta *diskurtsiboki*, atxikimendu maila handia lortu zuen LABek, gazteen artean batez ere, diskurtso oldarkor eta konfrontatiboari esker. Ezkerreko mugimendu abertzalearen kontrako estatu jazarpenak, gainera, indartu egin zuen sindikatuaren diskurtsoa, eta, oro har, baieztatu egin zuen ezker abertzalearen demokrazia ezari buruzko tesia. Halaber, lan harremanetan iraun zuen autogobernuaren blokeoak sindikalismo abertzalearen argudioen alde egin zuen urte hauetan.

Kolaborazio botereak garapen nahiko gorabeheratsua izan zuen, LABek garrantzi handia eskaini bazion ere. Alde horretatik, sindikatuen eta eragile sozialen arteko lankidetzak urte oparoak bizi izan zituen 1999aren eta 2000ren arteko epean, gutun sozialari, lanaldiaren murrizketaren aldeko mobilizazioei eta proposamen legegileari lotutako ekimenei esker. Hala ere, ezker abertzalearen parte izanik, ETArekin zuen loturak zailtasunak ekarri zizkion behin eta berriro LABi. Aurreko hamarkadetan KASen parte izateari esker lortu zuen erreferentzialtasun- eta ahalmen-maila altua. Baina, urte hauetan ezinbesteko egin zitzaion ezker abertzaleaz haragoko aliantzak bilatzea. Hala, Lizarra-Garaziren ondorengo ekimen bateratuak arrakastatsuak izan ziren, baina su etenaren hausturak estrategia militarrekin bat ez zetozen eragileekin elkarlanean jarraitzeko oztupoak ezarri zizkion (ELArekin, batez ere). Azkenik, MFSn sartzeak aurrerapen handia ekarri zion. Baina, oro har, baldintza politikoak tarteko, euskal esparruan koalizioak eratzeke sindikatuak izan zuen ahalmena mugatua izan zen, horri eusteko ahaleginak egin arren.

Haatik, orduko testuinguru koiuntural eta estruktural ezin txarragoak nahiko ondo baliatu zituen LABek estrategikoki. Izan ere, neurri handi batean, botere asoziatiboa eta gizarte erreferentzialtasuna handitzea ahalbidetu zion diskurtso borrokalariak, eta, haren karietara, antolakuntzan ere zenbait berregokitzapen egin behar izan zituen. Horrekin, botere instituzionala zertxobait hobetzeko gai izan zen, ordezkari kopurua handituz. Ikus dezagun, bada, zeintzuk izan ziren LABen arrakasta ahalbidetu zuten hautu estrategikoak.

Berrikuntzarako hautu estrategikoen artean, honako ondorioak atera ditzakegu.

1. *Organizazio ereduan*, afiliazioa garrantzitsua zen, baina ez zuen ELAk bezainbesteko lehentasunik jarrita horretan. LABen indarra militantzian oinarritu zen, afiliazioan baino gehiago. Ildo horretan, sindikatuaren erreferentzialtasun sozialari eman zion pisu handiagoa, baita afiliazio hazteko oso probabilitate gutxi agertzen zuten gizarte sektoreetan ere (etxeko langileen artean, esaterako). Hala ere, afiliazioa funtsezkoa zen sindikatuaren finantziatorako, haren baliabideak eta diru sarrerak oso urriak baitziren beste sindikatuekin alderatuta. Lehentasunen artean izan ez arren, afiliazioa etengabe haztea lortu hamarkadan zehar.
2. *Kooperazioari zegokionez*, hamarkada honetan elkarrizketa sozialerako prestutasuna adierazi zuen LABek, ahalik eta esparru gehienetan eragiteko eta parte hartzeko asmoarekin. Alabaina, haren elkarrizketa sozialerako eskaintzak ez zuen izan ibilbide handirik izan, ezker abertzalearen kontrako jazarpenaren eta sindikalismo abertzalearen botere instituzional urriaren ondorioz.
3. *Ekintza politikoan* esku hartzeko sindikatuak egindako saiakera oso nabarmena izan zen, aurreko hamarkadetan bezalaxe. Dena dela, sindikatuak partaidetza soziopolitiko hori are gehiago indartzeko lana egin zuen hamarkada honetan, eta gainera, ezker abertzalearekiko autonomia handiagoarekin egin zuen. Hainbat faktorek lagundu zuen ildo autonomoago horren garapenean. Alde batetik, lan munduan gertatutako aldaketa sakona eta langile subjektuaren zatiketa tarteko (biak ala biak lanaren krisiarekin lotutako prozesuak), gero eta zailago bihurtu zen zenbait langile eta sektore sozialengana heltzea. Hortaz, lanaren banaketak eta lan baldintzen hobekuntzak ez ezik, aberastasunaren banaketak ere sindikatuaren helburu izan behar zuen, eta hala ulertu zuen LABek. Ildo horretan, ekintza sindikal soilaren mugez kontzientzia harturik, politika sozialetan, ekonomikoetan eta fiskaletan eragiteko ahalegin handiagoa egin zuen, eta mobilizazio sozial irekiagoak bultzatzeko ekimenak bultzatu zituen.

Beste alde aldetik, ezker abertzaleko antolakunde legal bakarra izatean, zenbait funtzio politiko hartu behar izan zituen bere gain sindikatuak. Gainera, Lizarra-Garazi prozesuaren harira egindako balorazioetan, gizartea prozesu hartan nahikoa inplikatu ez izana egotzi zion bere buruari. Hortaz, gatazkaren

konponbidean, gizartearen sentsibilizazio lanetan sakondu behar izan zuen, are gehiago ezker abertzaleko beste antolakuntza batzuen ilegalizazioen ondoren.

4. Helburuak erdiesteko, *antolakuntza-egiturak etengabe berregokitu behar izan zituen*. Horrela, zenbait berrikuntza abiatu zituen, ELAren eredura hurbildu zutenak: herrialdeko egiturak deuseztatzea, eskualdea indartzea, borroka kutxa abian jartzea, federazioak murriztea eta baliabideak lortzea, besteak beste. Ildo berean, bestelako arlo espezifikoak eratu nahi izan zituen, langileen artean ez ezik gizartean ere sortzen ziren arazo espezifikoak erantzuteko. Hala ere, balorazio eskasak jaso zituzten egituren garapenean azken ildo honetan egindako esfortzuek, diskurtsotik harago sindikatua ez baitzen helburuetara heldu hainbat alditan.
5. *Koalizioen osaketari dagokionez*, bistan da Lizarra-Garaziko prozesuaz geroztik aurrerapauso handiak egin zituela sindikatuak zenbat eragile sozialekin eta sindikalekin elkarlana sustatzeko, ENAMetik harago. Aliantza horiek garrantzi estrategiko handia hartu zuten LABentzat, baina modu oso gorabeheratsuan gauzatu ziren, ELAekin egindakoak batez ere. Beraz, koalizioen osaketan urrats garrantzitsu batzuk egin arren, horien jarraikortasuna ez zen behar bezalako izan.
6. *Nazioarteko esparruan*, aurrerapauso handia ekarri zuen MFSn sartzeak. Alde batetik, globalizazioaren eragina tarteko, nazioarteko dinamiketan muturra sartzen hasi zen LAB, besteak beste. Beste alde batetik, ezker abertzalearen isolamendua gainditzeko bidea izan zen horrelako sareetan eta ekimenetan parte hartzea.
7. *Ekintza-forma gatazkatsuen* erabilerari dagokionez, negoziazio kolektiboak espazio gero eta handiagoa irabazi zuen sindikatuan. Horrez gain, ekintza instituzionalari eta elkarrizketa sozialari buruzko ikuspegi pragmatikoagoa garatu zuen LABek urte hauetan; baina, konfrontazioarekin eta borroka-molde oldarkorrekin uztartu zuen aipatutako elkarrizketaren aldeko jarrera hori. Izan ere, sindikatuaren ikuspegian, ekintza-forma ezberdinen konbinazioan zegoen bultzatu nahi zuen sindikalismoaren gakoa. Bestalde, erreferentzialtasun soziala irabazte aldera, gizarte mobilizazioak eta ekimenak sustatu zituen ENAMgoak ez ziren eragileekin, 1999ko greba orokorra kasu.

Oro har, LABen indarra honako osagaietan oinarritu zela ondoriozta dezakegu: ekimen soziopolitiko orokortuan (gizarteko hainbat esparrutan esku hartuz), diskurtsoaren eta ekintza moldearen oldarkortasunean, lurralde egituren zentralitatean eta gizarte eragileekin batera egindako elkarlanean. Faktore horiek erreferentzialtasun handia eman zioten, garaiko afiliazioan eta ordezkari kopuruen igoeran atzeman zitekeena. Testuinguru koiuntural eta estruktural oso zail baten aurrean, LABek ekintza sindikal oldarkorrean nahiz esku hartze soziopolitikoan sakondu zuen, langileen eta sektore sozial zabalen artean, baita gizarte mugimenduen artean ere, erreferentzialtasuna irabaziz. Ekimen soziopolitikoak, maila batean, ospe soziala ekarri zion; baina, afiliazioaren igoera ez zen izan ospearen tamaina berekoa. Izan ere, sindikatu baten afiliatuak lantokian lortzen dira, gehienbat, eta ez ekimen sozialetan. Antolakuntzaren eta baliabideen gabeziak ekarritako egoera kontraesankor horrek negoziazio kolektibo eraginkorra izatea eta enpresa txikietan errotzea zaildu zion sindikatuari.

ELAREN ETA LABEN ARTEKO ALDERAKETA

Hamarkada honetan ez zen aldaketa estrategiko sakonik gertatu ELAren eta LABen barruan. Aitzitik, aurreko hamarkadako erabakietan sakontzeari ekin zioten batak zein besteak. Ildo horretan, gero eta antzekoago bilakatu ziren bi sindikatuen ereduak. Hala, ezberdintasunak ezberdintasun, ezaugarri gero eta gehiago partekatzen hasi ziren, baina bakoitzak bere aldetik bidea eginda. Hartara, elkarren arteko antzekotasunak ez zuen haien arteko elkarlana erraztu.

Botere estrukturalari begiratuta, lanaren esparruan burututako aldaketek baita neoliberalismoak ekarritako mudantza ideologiko-kulturalek ere bi sindikatuari eragin zieten, bete-betean. Orain arte esan dugunez, lanaren bilakaerak eta krisiak sindikalismoaren ahultasuna ekarri zuten. Baina, bi sindikatuaren bilakaera horri emandako erantzunak ez ziren beti berberak izan. LABek langile klasearen atomizazioan jarri zuen arreta. ELAk, ostera, produkzioa eta lanaren antolaketara zuzendu zuen fokua. Hala, lanaren «flexibilitatearen» auzian, ohiko industria-sektorearen gainbeheran, ekonomiaren tertziarizazioan, enpresa txikien ugaritzean eta deslokalizazioetan zentratu zen, gehienbat, ELA. Nolabait esateko, ELAk gehiago begiratu zion lantokiko indar korrelazioari eta LABek, aldiz, langile klasearen inguruan artikulatutako identitate kolektiboaren auziari.

Bestalde, ezker abertzalearen eragile izanik, gatazka politikoak eta abertzaletasunaren kontrako ofentsibak modu zuzenean astindu zuten LAB sindikatua. Hala ere, ELAk ere pairatu zituen Euskal Herriaren nazio asmoetan urte hauetan bizi zen blokeo politikoaren eraginak, batik bat prozesu instituzionalaren garapenaren etenarenak. Biak ziren esparru abertzaleko sindikatuak. ELA historikoki EAJri lotutakoa, gero harengandik urrunduz joan zena; LAB ezkerreko abertzaletasunaren ildoan kokatua, harekin sarritan tentsioan egon zena. Beraz, esparru abertzalean kokaturik egonik, Estatutik bultzatutako geldialdi horrek ondorioak izan zituen bien ildoaren bilakaeran. Hain zuzen ere, partekaturiko nazio ikuspegi horrek ahalbidetu zuen 1990ko erdialdean hasitako elkarlana; baina espazioa partekatzeak bien haien arteko lehia ere bultzatu zuen.

Euskal esparruko sindikatuak izanik, bien *botere instituzionala* agertu zen mugatuta epe honetan. ELAren ordezkariak %40 ingurukoa zenez, sindikatu horrek bazeukan pisu instituzionala, nahiz eta benetako ahalmen instituzionala haren ordezkariaren parekoa izatera ez zen iritsi. LABek, aldiz, ahalmen instituzional txikiagoa zeukan, baina hazten zebilen. Eta gatazka politikoaren gordintasunak modu zuzenagoan eragin zion LABi, ELAri baino.

Neurri handi batean, bien *diskurtsoa* zuzendu zen bidegabekeria sozialak eta politikoak salatzerantz. Ildo horretan, LABen kasuan, diskurtsoa ELAren baino askoz politikoagoa izan zen hasieratik. Haatik, ELAren diskurtsoa modu nabarmenean politizatu zen 1997ko biraketaz geroztik, arian-arian, sindikatua prozesu politikoetan askoz gehiago inplikatu zelako. Bestalde, kezka diskurtsibo handiagoa ikusten da LABen kolektibo sozial baztertuak langile klasearen eta jarduera sindikalaren barruan txertatzeko, nahiz eta ELAk ere auzi horietan sakontzeko urratsak egin zituen. Oro har, ezaugarri honetan, bi sindikatuen posizioek antz handia hartu zuten. Baina, LABentzat esku hartze soziopolitikoak hasieratik izan zen funtsezkoa. ELAk, aldiz, 1995eko bigarren erdialdean, kontraboterearen kokapenean eta subiranismoan murgiltzen hasi zenean eman zion garrantzia arlo sozialari, betiere lantoki eremu tradizionalari zentralitatea kendu barik.

Elkarlan botereari begira, biek ala biek eman zioten premiazko garrantzia lankidetzari, baina, praktikan, ez ziren gai izan haien artean ados jartzeko. Gizarte mugimenduei begira, LABek zeukan abantaila, esku hartze soziopolitikoaren lehentasunezko lanketari eta ENAMekin zuen loturari esker, nahiz eta lokarri horrek ere zenbait kontraesan sortu zion. Nolanahi ere, lotura horiek dinamika sozialetan modu naturalean errotuta engaiatzea ahalbidetu zioten sindikatu horri.

Botere asoziatiboari zegokionez, zalantza barik, ELAren afiliazioa itzelezko tamainara ailegatu zen; baina LABena ere hazten zebilen, pixkanaka. Gainera, azken hau militante gazte gehiago erakartzen ari zen, proportzioan.

Antolaketa-boterea funtsezkoa izan zen bi sindikatuen ildo estrategikoak abian jartzeko. Baina ezberdintasunak atzeman ditzakegu bien artean. Batetik, ELA askoz zentratuago zegoen lanaren munduan, eta askoz gehiago neurtu zituen helburu antolatzaileak, esku hartze sozialari begirakoak, batik bat. Bestetik, LABen kasuan, sindikatuak sektorializazio prozesua bizi izan zuen arren, haren lehentasunetan toki handiagoa hartu zuen lurraldearen irizpideak hasieratik.

Estrategikoki, helburu gero eta berdintsuagoak ezarri zituzten bi sindikatuek, nahiz eta sindikalismo eredu oso ezberdinetatik abiatu. Epe honetan, aurreko hamarkadako *berrikuntza estrategikoak* sakontzeari ekin zioten, neurri handi batean.

Lehenik eta behin, langileak *antolatzea* izan zen bi sindikatuen eginkizun nagusia, baina, esan bezala, LABek garrantzi handiagoa eman zion esku hartze soziopolitikoari. Hala ere, aurreko hamarkadekin alderatuz, afiliazioak garrantzi estrategikoagoa irabazi zuen sindikatu honen ildoan ere. Hari horretatik, ELAren eredura hurbiltzen ari zen urte hauetan; ondorioz, afiliazioa lortzeko lehian abiatu ziren bi sindikatuak.

Botere politikoarekiko *kooperazioan*, ELAk kontraboterean jarraitu zuen epe honetan, eta Eusko Jaurlaritzaren ibilbideari buruzko jarrera kritikagoa eta oldarkorragoa bereganatu zuen. Aldiz, LABek jokabide pragmatikoagoa hartu zuen elkarrizketa sozialari zegokionean. Hala ere, kontuan hartu behar da gatazka politikoaren barruan zeukan kokapenak benetako kooperazio baterako ateak itxi zizkiola.

Ekintza politikoa indartu egin zen bi sindikatuetan, bai ELAn bai LABen. Alde batetik, ELAk nazio auziari lotutako zenbait ekimen burutu zituen, eta antzera egin zuen arlo sozialean ere. Beste alde batetik, ezker abertzalearen eragile izanik eta bere burua antolakunde soziopolitikotzat harturik, LAB sindikatuak bete-betean zegoen borroka politikoetan murgilduta. Gainera, ezker abertzaleko antolakunde legal bakarra izanik, ekimen politikoaren zenbait ardura hartu zituen bere gain.

Errealitate aldakorrari hobeto egokitzeko asmoz, egiturak berritzeari ekin zioten bi sindikatuek epe honetan, baina *berregituraketa-prozesuak* kontrako norabideetan gauzatu zituzten. Batetik, ELAk bere lurralde egitura indartu zuen, ekintza sozialari begira, hein batean. Bestetik, LABek egitura sektoriala indartu behar izan zuen, negoziazio

kolektiboari begira. Dena den, biek partekatu zuten beren egiturak koordinatzeko eta tokiko esparrura hurbiltzeko ardura hori. Bestalde, antolaketari zegokionez LAB «idealistagoa» izan zela sumatu dugu, eta ELA pragmatikoagoa, sendotasuna eta eraginkortasuna lehenetsi baitzituen azken honek. Langile klasearen atomizazioaren eta esku hartze soziopolitikoaren kezka eraman zuen LAB antolaketa arlo asko planteatzera bere egituren; baina, gero ez zen gai izan hartutako erabaki guztiak betetzeko, nahiz eta hamarkadan zehar urrats handiak egin berregituraketa lanetan. Argi dago, beraz, LABek ahalegin handiagoa egin zuela arlo espezifikoak eratzeko, eta ELAk ETEetan presentzia izateko.

Aliantzetan urrats batzuk eman zituzten bi sindikatuek gizarte mugimenduekin eta sindikatu txikiagoekin abiatutako lankidetzan, baina erdibidean geratu ziren, neurri handi batean, bien arteko ika-mikak eraginda oztopatuta geratu baitziren bide horiek.

Nazioartean nabari da globalizazioak euskal lurraldeaz kanpoko harremanen garrantzia areagotu zuela bi sindikatuen barruan. Ildo horretan, zenbait ekimenetan parte hartu zuten ELAk nahiz LABek (nazioarteko foroetan, eta abar), baina jarraikortasun murrizta izan zuen partaidetza horrek. Urrats esanguratsuena, LABek egin zuen MFSn sartzearekin batera. ELAk, berriz, ez zuen horrelako aldaketa berririk burutu, aurretik bazelako EurSKko kide.

Ekintza formetan biek eman zioten garrantzi handiagoa ekintza molde oldarkorrari, eta, ildo horretan, gizarte osoa inplikatzeko xedea zuten mobilizazioak bultzatu zituzten epe honetan. Hala ere, LAB ekintza-errepertorio anitzagoa erabiltzearen aldekoa zen. Bada, elkarrizketa sozialak bezainbesteko zilegitasuna zuten harentzat ekintza bortitzek. Bestalde, LABek negoziazio kolektiboaren esparrura ere eraman nahi izan zuen oldarkotasuna, eta horretara bideratu zituen antolakuntza-baliabideak. ELAren kasuan, sindikatu honek hasieratik eman zion lehentasunezko garrantzia negoziazioari, eta oraingoan hura bestelako borroka-moldeekin konbinatzen ahalegindu zen, gizartea tartean sartzeko asmoz.

Laburbilduz, sindikatu hauek bide oso ezberdinak urratu zituzten, abiapuntuak guztiz kontrakoak zirelarik. ELAk kontraboterean eta subiranotasunean murgiltzeari ekin zion, eta, aldiz, LHK moduko organo instituzionaletan parte hartzea alboratu zuen. LAB, berriz, kontraboteretik eta subiranotasunetik zetorren, eta parte hartze instituzionalari nahiz elkarrizketa sozialari buruzko ikuspegi pragmatikoagoa garatu zuen, nahiz eta

ekimen horiei uko egin azkenean. Era berean, ELAk gero eta garrantzi handiagoa eskaini zien ekintza sozial eta politikoari. Ostera, esku hartze soziopolitikoak ez zen helburu berria LABentzat, haren ADNan baitzegoen sorrera unetik beretik. Hala ere, negoziazio kolektiboari eta egitura sektorialari arreta handiagoa eskaini behar izan zien (90eko hamarkadako ildo berean), ekintza sindikal eraginkorragoa eta oldarkorragoa burutu ahal izateko.

Oro har, urte hauetan oso hurbil agertzen dira bi sindikatuak gizarte-mugimendu sindikalismoaren eredutik, nahiz eta LAB sortzetik kokatu zen eredu horretatik nahiko hurbil. ELAk eredu aldaketa sakona gauzatu zuen gizarte-mugimendu sindikalismorantz hurbiltzeko; baina, hala ere, negoziazio kolektiboa horren zentrala zen beren estrategian, non, oraindik sindikalismo tradizionalaren ezaugarri asko zeuzkan, eredu instituzionalizatutik aldenduz joan arren. Kontrako bidea eginez, LAB ekintza sindikal tradizionalerantz hurbilduz joan zen, baina ezker abertzalearekin eta ekintza armatuaren estrategiarekin zeuzkan loturak, batetik, eta testuinguru instituzionalak, bestetik, kontraboterearen kokapenean mantendu zuten, eta esku hartze soziopolitikoak haren funtsezko euskarri bihurtu.

12.2. ELA eta LABen hitz gakoak eta ideia nagusiak (2000ko hamarkada)

2000ko hamarkada		ELA	LAB
Koiuntura	<i>Egoera politikoa</i>	Lizarra-Garaziko hitzarmena, Aznarren gobernua, jazarpen politikoa, Anoetako proposamena, Europa, Foro Sozialak	Lizarra-Garaziko negoziaketaren porrota, blokeoa, jazarpena, AEBen munduko hegemonia politiko-militarra, EBren nortasun politiko eza
	<i>Lan harremanak</i>	Blokeoa, estatalizazioa, negoziazioaren eta kontzertazioaren mugak, aliantzen gorabeherak	Zentralizazioa, lanaren malgutzera, langileriaren atomizazioa, sindikatu abertzaleen arteko gorabeherak, CCOO eta UGTren «morrontzazko jarrera»
	<i>Egoera ekonomikoa</i>	Hazkundera, eredu neoliberalak, aberastasunaren banaketa bidegabea, pobrezia, finantza-sistema	Hazkunde eredu neoliberalak, enplegu prekarioa, eredu ekonomiko propiorik eza

	<i>Eraketa instituzionala</i>	Etsipena, Ibarretxe plana (antidemokratikoa, antisindikala eta neoliberala)	Blokeo politikoa
Egitura		Globalizazioa, neoliberalismoa, teknologia berriak, herrialdeen arteko desoreka, inbertsio espekulatiboa, desoreka sozialak, prekarizazioa (behinbehinekotasuna, partzialtasuna, azpikontratazioa...), <i>flexisecurity</i> delakoa, indibidualizazioa, lehia, zerbitzu sektorea, langileen osaketa anitza, emakumeen sarrera lan merkatuan, ingurumenaren degradazioa, immigrazioa, negoziazio kolektiboaren ahultasuna, defizit demokratikoa	Globalizazioa, neoliberalismoa, migrazio prozesuak, xenofobia, Estatu ereduaren aldaketa, lan harremanen desarautzea, indibidualizazioa, nazio nortasunaren berpizkundea, parte hartzearen eta militantziaren krisia, berrikuntza teknologikoak, prekarizazioa, flexiseguritatea, ETEak, zerbitzu sektorea, klase-subjektu heterogeneoa eta zatitua, lanaren ulkerera
Norberaren jardueraren balorazioa		Errotze soziala, sendotasuna, afiliazioa, autonomia, eredu aldarrikatzailea, emakumeekiko arreta falta, lan baldintzen kaskartzearen aurrean ezintasuna	Errepresioari eusteko gaitasuna, klase-sindikalismo borrokalaria, negoziazioen porrota, «euskal gehiengo sindikalaren» elkarlanaren gorabeherak, antolakuntza egokitzeko arazoak, EH esparruko lehen sindikatua.
Printzipio eta helburu ideologikoak		Eredu sozial bat, elkartasuna, justizia, subiranismoa, bakea, printzipio demokratikoak, subiranismoa	Abertzalea, klase izaerakoa, askapena nazionala eta soziala, Euskal Estatu subiranoa, askatasuna, demokrazia, elkartasun soziala, gizarte eredu ez patriarkala

Aldarrikapen eta esku hartze eremuak	<i>Soldatapeko lan eremua</i>	Diskriminazioa eta ezegonkortasuna desagerrarazi, soldata, lanaldia, segurtasuna eta osasuna	Lan denbora, erosahalmena, egonkortasuna, prekarietatea, ingurumenarekiko errespetua, klase batasuna, etxeko langileak
	<i>Eremu soziopolitiko</i>	Aberastasunaren banaketa, babes soziala, oinarrizko errenta, fiskalitatea, generoaren auzia, etxebizitza eskubidea, ingurumena, nazio eraikuntza, bake prozesua, autodeterminazio eskubidea, lan harremanen markoa eta babes sozialerako esparrua, Europa soziala	Lan eremuko konfrontazioa gainditu, politika sozialak, soldata sozialak, etxebizitza, immigrazioa, zaintza lana («zaintzaile ez izateko» eskubidea), lan harremanetarako eta babes sozialerako euskal esparrua eta euskal eremu sozioekonomikoa, demokrazia
Antolakuntza		Autonomia, trinkotasuna, afiliazioa, ETEak, gatazkarako baliabideak (erresistentzia kutxa), eskualde integrala, nazioarteko hedapena, emakumeen presentzia, arloak	Militantzia krisia, lurralde egituraren zentraltasuna, konfrontaziorako baliabideak (adibidez, borroka kutxa), arlo espezifikokoak, belaunaldi aldaketa
Aliantzak		Gizarte mugimenduak, LABekin lehia, sindikatu txikiak, nazioarteko foroak, nazioarteko sindikalismoarekiko etsipena	Tirabirak ELAekin, gizarte mugimenduak, Euskal Herriko Gizarte Foroa, MFSn sarrera
Ekintzen errepertorioa		Parte hartze instituzionala alboratzea, negoziazio kolektiboa funtsezkoa baina mugatua, negoziazio oldarkorra, lan gatazken sozializazioa, gizarte mobilizazioa, greba orokorra, Herri Ekimen Legegilea, borroka armatuaren gaitzezpena	Borroka moldeen uztarketa, mobilizazio sozialak, parte hartze instituzionala, negoziazio kolektibo oldarkorra, elkarrizketa soziala, ekintza aldarrikatzailea, ekintza komunikatiboa

Interpelatutako gizarte kolektiboak	Emakumeak, gazteak, etorkinak, elbarriak, herritarrak	Langile sektore baztertuak eta sakabanatuak (etxeko langileak, adibidez), gazteak, emakumeak, pentsiodunak, autonomoak, langabetuak, kooperatibistak, etorkinak, «ezgaituak» (sic.)
--	---	---

13. CONCLUSIONS FINALES

RÉCAPITULONS...

Une fois notre recherche réalisée, nous allons tirer certaines conclusions récapitulatives de notre recherche. Tout d'abord, rappelons-nous du thème de notre recherche : l'impact des transformations dans le domaine du travail et des fonctions sociales du travail sur l'évolution des discours et des stratégies de syndicats. Dans le cadre de ce thème, mais à une échelle plus concrète, l'analyse s'est centrée sur l'évolution, entre 1976 et 2008, des deux syndicats du Pays Basque péninsulaire dont la croissance (en nombre d'affilié et de délégués notamment) a été majeure durant les dernières décennies, c'est-à-dire, ELA et LAB.

Par conséquent, l'objectif principal de la recherche a été de comprendre l'évolution des discours et des stratégies des syndicats ELA et LAB devant les transformations du domaine du travail et des fonctions sociales du travail, tout en tenant compte du contexte politique, institutionnel, social et des relations de travail du Pays Basque péninsulaire¹⁶⁸. Pour atteindre cet objectif général, nous avons posé une série de questions qui nous ont permis de guider et d'organiser les pas de notre recherche. Les questions posées ont été les suivantes :

- Comment les transformations du domaine du travail ont influencé les syndicats *abertzale*, ELA et LAB ?
- Quelles sont les fonctions attribuées au travail dans notre société ? Est-ce que ces fonctions sont correctement accomplies ? Si le travail n'accomplit pas ces fonctions, pourquoi cela se produit-il ? Dans quel sens peut-on parler d'une « crise du travail » ?
- Quel rapport y'a-t-il entre la crise du travail et la crise syndicale ?
- Comment ont réagi, d'un point de vue stratégique, ELA et LAB aux crises du travail et du syndicalisme ? Est-ce que les réactions des deux syndicats ont été similaires ou différentes ? Comment peut-on les comparer ?
- Quelle influence a eu le contexte politique, institutionnel, économique et des relations de travail particulier du Pays Basque péninsulaire ?

¹⁶⁸ Lorsque nous parlons du Pays Basque péninsulaire, nous faisons référence au territoire sous l'administration de la Communauté Autonome du Pays Basque et de la Communauté Forale de Navarre.

Pour répondre à ces questions, nous avons défini théoriquement le travail, ces fonctions sociales, les différentes dimensions à travers lesquelles la crise du travail (matérielles et immatérielles, principalement) se manifeste, les principales transformations dans l'organisation du travail, la « classe » comme sujet de transformation, l'action syndicale, la crise du syndicalisme, le pouvoir syndical et le renouveau syndical. À partir de ce cadre théorique, nous avons pu tirer plusieurs conclusions générales, qui nous ont servi comme point de départ pour répondre aux questions spécifiques sur l'évolution des discours et de stratégies de ELA et de LAB.

Tout d'abord, nous avons établi le caractère social du travail, comme une catégorie spécifique de la société capitaliste, et c'est dans le contexte social du capitalisme qu'il prend son sens. Comme synthèse, le travail est toute activité humaine qui participe dans la reproduction du modèle de société capitaliste et moderne à travers la production des biens et des services qui nous sont nécessaires. De même, le travail reproduit notre modèle de société parce qu'il accomplit des fonctions cruciales, que nous avons classifiées comme matérielles et immatérielles.

Premièrement, d'un point de vue matériel, le travail est la source de la richesse économique et la mesure de sa valeur, perçue par le capital comme « bénéfice ». Ensuite, il permet à la classe travailleuse d'accéder à la redistribution de la richesse sociale, à travers le salaire, ce qui lui permet de satisfaire ces besoins pour sa propre reproduction. De même, d'un point de vue immatériel, voire idéologique ou culturel, le travail est devenu l'activité à travers laquelle l'individu s'épanouit et se sent reconnu au sein de la société. C'est-à-dire que le travail permet à l'individu non seulement de s'épanouir, mais surtout de trouver sa place dans la société, de se sentir utile et d'être reconnu en tant qu'individu.

Nous voyons donc que le travail a une importance cruciale pour le maintien de la cohésion sociale. Cependant, cette importance n'est pas tout-à-fais positive car, en réalité, le travail est devenu trop important. En effet, comme le souligne Dominique Méda, les « immenses attentes » que les individus et la société posent sur le travail, en réalité, ne s'accomplissent que dans une moindre mesure.

Aujourd'hui aussi, le travail est censé accomplir ces fonctions, mais les données nous indiquent que cela ne se produit que dans une moindre mesure. En général, le travail accomplit les fonctions qui lui sont attribuées, aussi bien du point de vue économique

qu'idéologique, ce qui a engendré une crise sociale que nous avons nommée « crise du travail ».

Parallèlement à la crise du travail, l'organisation de la production et de la force de travail et la composition de la classe travailleuse ont subi de profondes transformations qui ont intensifié les phénomènes liés à la crise du travail et, à la fois, miné le pouvoir syndical et sa représentativité. Étant donné l'incapacité des syndicats de donner une réponse satisfaisante aux mécontentements des travailleurs, d'un côté, et le processus d'individualisation culturelle et des relations de travail, de l'autre, l'organisation et l'action syndicales sont devenues des réponses de moins en moins envisageables de la part des travailleurs. Ainsi, la « sortie » ou la « loyauté » envers l'entrepreneur sont les attitudes individuelles majoritaires adoptées par les travailleurs, tandis que la « prise de parole » organisée collectivement devient de plus en plus rare. Les syndicats européens occidentaux ont priorisé les sources institutionnelles de légitimité au-dessus des sources de légitimité sociologique, à la fois qu'ils ont remplacé le conflit par la concertation. Cela n'a fait qu'approfondir la crise du syndicalisme.

Ainsi, la crise du syndicalisme de l'Europe occidentale doit être interprétée à partir des facteurs externes et internes au syndicalisme. Entre les facteurs externes, il y a les transformations dans l'organisation de la production et de la force de travail, le néolibéralisme, l'individualisation, etcetera, mais aussi les phénomènes liés aux dimensions économiques et immatérielles (idéologiques, culturelles, psychologiques...) de la crise du travail. La logique nous dit que les mécontentements auraient dû donner davantage de raison à l'organisation syndicale, et provoquer une réponse plus forte. Mais, en réalité, c'est le contraire qui est arrivé : les travailleurs ont cessé de recourir à l'organisation et à l'action syndicales, ce qui a approfondi la situation de crise des syndicats.

De même, la crise syndicale est, à la fois, une conséquence des mécontentements des travailleurs vis-à-vis du travail (et donc, de la crise du travail), et un de ces instigateurs, à cause de l'incapacité des syndicats de donner une réponse satisfaisante aux mécontentements (et donc, d'inverser les tendances de la crise du travail).

Tout de même, les facteurs structurels du travail sont loin d'être suffisants pour comprendre la crise du syndicalisme. Les choix stratégiques des syndicats sont cruciaux pour comprendre cela (voir l'illustration 7.15.). En synthèse, les priorités accordées à la

légitimité externe (c'est-à-dire, institutionnelle) de la représentation, au partenariat et à la concertation comme forme d'action collective constituent les principaux choix stratégiques qui ont poussé le syndicalisme à sa crise actuelle. Ces choix stratégiques sont la conséquence du support institutionnel accordé aux syndicats par l'État pendant l'époque fordiste. Cependant, ce support institutionnel n'est plus celui d'auparavant, et le support social a été en grande mesure perdu. En conséquence, les syndicats européens éprouvent aujourd'hui de sérieuses difficultés pour obtenir des résultats en faveur des intérêts des travailleurs et la classe travailleuse en général.

Nonobstant, au Pays Basque péninsulaire nous trouvons une réalité différente du reste des pays voisins, et les syndicats *abertzale* obtiennent des résultats non négligeables si on les compare avec les syndicats qui opèrent dans l'ensemble du territoire de l'État, comme CCOO et UGT. Ainsi, les données sur la syndicalisation et les grèves sont très différentes par rapport aux nations voisines comme l'Espagne et la France. De même, la montée en nombre de délégués obtenue par ELA et LAB, par rapport à la chute de UGT et la stagnation de CCOO, évoque la réussite (quoique relative) des choix stratégiques de ELA et LAB.

Malgré les handicaps du contexte institutionnel et politique (qui entrave, par exemple, la capacité de négociation des syndicats non étatiques), les syndicats ELA et LAB ont obtenu des résultats qui méritent d'être analysés pour comprendre le pouvoir syndical et les possibilités du renouveau stratégique des syndicats. C'est pourquoi nous avons choisi d'analyser l'évolution des discours et des stratégies de ces deux syndicats depuis la réforme politique du franquisme (1976) jusqu'à la crise du 2008. Cette période coïncide avec la fin de la lutte armée de l'ETA, cruciale pour comprendre le contexte politique du Pays Basque. Finalement, 2008 est aussi la date de la fin d'un cycle économique et politique. À partir de cette date, le contexte économique et politique change tellement qu'il aurait fallu élargir énormément en temps et en feuilles notre recherche.

CONCLUSIONS DE LA RECHERCHE

À partir de ce point de départ théorique, au moyen d'une méthodologie qualitative, nous avons analysé les documents des syndicats et réalisé des entretiens avec certains de leurs dirigeants, avec le but de prouver les suivantes hypothèses générales :

- (1) **ELA et LAB ont matérialisé une évolution et un renouveau stratégique face à la crise du travail et aux changements dans le domaine du travail.**

(2) Dans un contexte institutionnel, politique et des relations de travail inhabituel au Pays Basque péninsulaire, les syndicats *abertzale* basques, ELA et LAB, ont apporté une réponse particulière aux facteurs liés à la crise et au processus de restructuration du travail. Ainsi, ELA et LAB ont été en mesure de maintenir un meilleur niveau de pouvoir et d'enracinement social que les syndicats des pays voisins, précisément lorsque le réseau institutionnel des relations de travail de la Communauté Autonome Basque et de la Communauté Forale de Navarre sont spécialement faibles, et le contexte politique spécialement conflictuel.

Ces deux hypothèses ont été largement démontrées, mais elles sont trop générales pour être expliquées concrètement. C'est pourquoi nous avons formulé les suivantes hypothèses plus précises, qui nous permettent de structurer de manière plus ordonnée nos arguments¹⁶⁹ :

(1) Les facteurs liés à la crise du travail et aux transformations du domaine du travail ont provoqué la crise du syndicalisme traditionnel en Europe occidentale. En conséquence, les syndicats ont perdu de leur force, malgré la détérioration des conditions de travail et de vie d'une grande partie de collectifs sociaux appartenant à la classe travailleuse.

Dans le cadre théorique, nous avons vu que les phénomènes liés à la crise du travail sont des facteurs qui influencent la crise des syndicats européens occidentaux. Cependant, les facteurs structureaux ne sont pas les seules raisons de leur affaiblissement. Leurs choix stratégiques sont aussi cruciaux, et ils ne devraient pas servir comme « excuse » de leur incapacité.

De même, ELA et LAB parlent aussi des difficultés qu'ils éprouvent en raison de ces facteurs. Cela est constatable à partir de leurs cadres de diagnostic structurel. Même si la crise du travail n'est pas citée explicitement, les analyses de deux syndicats visent à un grand souci envers les transformations structurelles en cours. Cependant, les analyses de deux syndicats sont différentes.

¹⁶⁹ Nous voulons remarquer que nous choisis d'expliquer chaque hypothèse de la manière la plus complète et approfondie possible, pour nous assurer que tous les éléments étaient expliqués de la meilleure manière possible. Ainsi, les arguments pour justifier les différentes hypothèses peuvent être répétitifs quelques fois.

D'un côté, ELA fait des analyses plus centrées dans le domaine de l'entreprise et dans les transformations de l'organisation de la force de travail, comme la diversification et la précarisation de la force de travail, l'augmentation des PME¹⁷⁰, les effets de la désindustrialisation, la croissance du secteur des services, l'entrée des femmes dans le marché de travail... Pendant les années 80, par exemple, ELA met de côté les analyses plus structurelles des contradictions du système capitaliste, qui mèneraient à un point de vue plus systémique et politique des problèmes de la classe travailleuse. Toutefois, nous trouvons aussi une approche aux changements culturels comme, par exemple, l'apparition de nouveaux besoins sociaux, l'individualisation, la perte de valeurs tel que la justice et la solidarité... En résumé, pendant les années 80, le syndicat perçoit des transformations, mais son domaine d'intervention reste encore limité au travail salarié et à la négociation collective.

Au long des suivantes décennies, les problèmes du domaine du travail, qui minent le pouvoir syndical, s'approfondissent. Cela pousse ELA à mettre en marche un renouveau stratégique et à chercher une plus grande imbrication dans les problèmes sociales et politiques. L'accélération de la globalisation et les processus de sécession en Europe, par exemple, font raviver l'intérêt pour la question nationale basque. Dans ce contexte, ELA voit que le Statut d'Autonomie ne sert plus à donner une solution au manque d'autogouvernement, et encore moins dans les relations de travail. En réponse à cette situation, il assume un positionnement souverainiste et, donc, plus engagé politiquement autour de la question nationale. L'engagement politique se traduit aussi en un plus grand intérêt envers les problèmes sociaux qui ne sont pas directement liés à ceux du travail salarié.

Les analyses de ELA des années 2000 sont similaires. De même, il fait une réflexion très intéressante sur les limites de la négociation collective à l'heure d'obtenir une répartition plus juste de la richesse et de meilleures conditions de travail. En effet, la négociation collective est le principal instrument de ELA pour intervenir sur les conditions de travail. Ces limites rendent plus difficile l'action syndicale dans son ensemble. Ainsi, nous l'interprétons comme une manière d'exprimer la relation entre les transformations du travail et la crise syndicale.

¹⁷⁰ Petites et Moyennes Entreprises.

Les analyses de LAB sont, à leur tour, plus générales et politiques. En effet, LAB, faisant partie du MLNB¹⁷¹, réalise une lecture plus structurelle de la situation sociale, c'est-à-dire moins centrée dans le domaine de l'entreprise. Le fait que LAB se définisse comme organisation socio-politique et révolutionnaire éloignée d'une conception traditionnelle du syndicalisme, le pousse à faire des analyses plus structurelles et politiques de la situation.

